



1000 EGUNEKO PROGRAMA
BETETZE-MAILAREN
BALANTZEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2012-2016KO GOBERNU PROGRAMA
X. LEGEGINTZALDIA

X. legegintzaldia
Gobernu Programa

I. konpromisoa. ENPLEGUA ETA PERTSONAK

1. ardatza. Enplegua, gure lehentasuna

1.1. Enpleguaren aldeko politika aktiboen garapena

Heburuak:

1. Enplegua defendatzea
2. LANBIDE berria
3. Oso gaituta dauden pertsonak
4. Gizarte elkarrizketa eta gizarte kohesioa

1.2. Ekintzaitzaren eta ekoizpen ekonomiaren aldeko apustua.

Heburuak:

1. Lehiakortasuna eta industri politika
2. Klusterren politika.
3. Enpresa txiki eta ertainei (ETE) zuzendutako laguntza.
4. Arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren politika.
5. Industriaren globalizazioa.
6. Euskadi-Basque Country marka.
7. Inbertsioak erakartzeko politika.
8. Garapen bidean dauden sektore berriak.
9. Kultura ekintzailea sustatzea.
10. Euskal ekintzaitza sistema.
11. Proiektu berrien finantziaketa.
12. Jarduera berriak sortzea

1.3. Berrikuntza, gure etorkizunaren giltzarria.

Heburuak:

1. Industriari laguntzea
2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema
3. Talentua sustatzea.
4. Zientzia eta teknologiarako sistema nazioartekotzea
5. Konpromisoa berrikuntzarekin

1.4. Nazioartekotzeari bultzada.

Heburuak:

- Garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna
1. Nazioartekotzeko herrialde estratategia

2. Trakzio enpresekiko lankidetzak publiko eta pribatuak.
 3. ETEen esportazio oinarria handitzea.
 4. Nazioarteko prestakuntza.
- Kanpo ekintza
5. Kanpo ekintza aktiboa.
 6. Garapenaren aldeko lankidetzak
 7. Euskal diaspora.
 8. Kanpo proiektzioak.

1.5. Autonomoak, merkataritza txikiari eta gizarte ekonomiarik laguntzea.

Heburuak:

1. Autonomoentzako laguntza integrala.
2. Hiriko merkataritza ingurunearen hobekuntza.
3. Euskal merkataritza txikizkariaren plangintza.
4. Merkataritzaren profesionalizazioa.
5. Merkataritzaren arazko markoak eguneratzea.
6. Kontsumitzaileen babesa.
7. Gizarte ekonomiarik bultzada

1.6. Industria turistikoak, garapen bidean dagoen sektorea.

Heburuak:

1. Administrazio turistikoak berrantolatzea.
2. "Euskadi" marka turistikoak.
3. Turismoaren sektoreari laguntzea.
4. Jarduera turistikoaren kudeaketa eraginkorra.
5. Produktu turistikoak merkaturatzea.
6. Sektorea prestatzea

1.7. Lehen sektorearen garapena.

Heburuak:

1. Ekoizpen sektoreari laguntzea.
2. Lehen sektoreko enpresak.
3. Belaunaldiak ordeztzea.
4. Nekazaritza sektoreari laguntzeko plangintza integrala.
5. Ingurumen iraunkortasuna.
6. Gobernantza hobetzea.
7. Arrantza sektore ekoizlearen garapena.
8. Akuikultura sustatzea.

1.8. Energia berriztagarrien aldeko estrategia energetikoak

Heburuak:

1. Eraginkortasuna eta aurrezpen energetikoak.
2. Energia garbiak eta berriztagarriak.
3. Trantsizio energia gas naturala.
4. Energiaren sektorearen garapen teknologikoak

1.9. Lurralde politikak orekatuak eta iraunkorra

Heburuak:

1. Lurralde oreka.
2. Paisaia balioestea.
3. Pasaia badiaren biziberritzea sustatzea.

1.10. Ingurumen politika arduratsua

Heburuak:

1. Ekosistemak zaintzea
2. Ingurumenaren kalitatea hobetzea
3. Baliabideen eta hondakinen kudeaketa iraunkorra
4. Arlo publikoaren, pribatuaren eta herritarren baterako erantzukizuna
5. Ingurumen administrazioa arintzea eta sinplifikatzea.

1.11. Azpiegiturak eta garraio iraunkorra

Heburuak:

1. Mugikortasun iraunkorra
2. Pertsonen eta salgaien garraio politika.
3. Trenbide sare berria, euskal "Y".
4. Aireportu eredu integratua.
5. Euskadiko portuen hobekuntza
6. Plataforma logistikoak
7. Euskadi eta Akitaniaren arteko komunikazioa

1.12. Administrazio eraginkorra eta gardena

Heburuak:

1. Euskal autogobernua aurrera egitea.
2. Administrazio gardena.
3. Administrazioaren konpromiso publikoa.
4. Berrikuntza, eraginkortasuna eta eragingarritasuna.
5. Zerbitzu publikoen erlazio eraginkorra.

1.13. Administrazio irekia

Heburuak:

1. Gizarte eragileen partaidetza.
2. Gardentasuna, herritarrei entzutea eta kontsulta egitea

1.14. Ogasuna zerbitzu publikoen kudeaketa arduratsu gisa

Heburuak:

1. Ekonomi eta finantza erlazioen erregulazioa.
2. Ekoizpen ekonomiarako finantza tresnak.
3. Aurrekontu eszenatoki orekatua.
4. Zerga sistemaren erreforma.

1.15. Prestigio eta kalitatezko osasun sistema

Heburuak:

1. Pertsonak: osasun sistemaren ardatz nagusia.
2. Erronka berrien arabera erantzuna: kronikotasuna, zahartzarua eta menpekotasuna
3. Prebentzio kultura eta osasuna sustatzea.
4. Sistemaren iraunkortasuna bermatzea
5. Profesionalen protagonismoa eta inplikazioa
6. Ikerketa eta berrikuntza indartzea

1.16. Bikaintasuna, hezkuntza sistemaren eragilea

Heburuak:

1. Ikasleak hezkuntza sistemaren erdigunean
2. Hezkuntza lanbide prestigiduna
3. Hezkuntza administrazio berritzailea
4. Lanbide heziketako eredu berri baterantz
5. Etengabeko ikaskuntza
6. Euskal unibertsitate sistemaren goranzko kalitatea
7. Politika zientifiko sendo eta iraunkorra
8. Hezkuntza akordio egonkorra

1.17. Konpromisoa euskararekin eta hizkuntz bizikidetzarekin

Heburuak:

1. Euskararen gizarte hazkundea
2. Hizkuntz eskubideak egikaritzeko berme osoa
3. Lexikoa eta komunikazio gaitasuna aberastea
4. Euskara etorkinei hurbiltzea
5. Euskara modernotasun, dibertsitate eta elkarbizitzari buruzko balioekin lotzea
6. Euskara komunikazio eta erlazio sistema berrien kultur hizkuntza gisa
7. Euskararen nazioarteko proiektzioa eta eleaniztasunaren kudeaketa aldeztua
8. Adostasun politiko eta soziala
9. Hizkuntz politika, gobernuaren ekintzaren zeharkako ardatz gisa

1.18. Kultura irekia eta plurala

Heburuak:

1. Topaketa, koordinazio eta lankidetzarako kultur politika
2. Baliabide publikoen berrantolaketa
3. Kultur eta sorkuntza industriari laguntzea
4. Arte eta kultur sorkuntza bultzatzea
5. Kultur egitura eta ekimen traktoreei laguntzea
6. EITB eta ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzea

1.19. Gazteria, oraina eta etorkizuna

Heburuak:

1. Gazteriaren zeharkako politika bultzatzea

2. Partaidetza eta elkartasuna bultzatzea
3. Gazteri politiken zuzendaritza estrategikoa

1.20. Kirola, garapen fisikoa eta pertsonala

Heburuak:

1. Kalitatezko euskal kirol sistema
2. Nazioarteko kirol maila altua
3. Kirol jardunaren sustapena. Dopinean tolerantziarik ez
4. Berdintasuna euskal kirolean

1.21. Pertsona behartsuenak

Heburuak:

1. Pertsona behartsuentzako gizarte laguntzaren bermea.
2. Gizarte zerbitzuak, ongizate estatuaren laugarren zutabe gisa.
3. Autonomia pertsonalaren sustapena.
4. Pertsona guztientzako bizitza duina.

1.22. Etxebizitzarik gabeko pertsonak

Heburuak:

1. Pertsona behartsuenei zuzendutako etxebizitza estrategia berria.
2. Alokairuaren sustapena.
3. Gazteek etxebizitza eskuratzea.
4. Bazterketa arriskuan dauden eta etxebizitzarik ez duten pertsonentzako laguntza.
5. Etxebizitzen egokitzapena eta eraberritzea eta eraikuntza iraunkorra.

1.23. Pertsona nagusiak

Heburuak:

1. Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna.
2. Mendetasuna duten adineko pertsonen beharrezanean arreta egitea.
3. Etxeko egonaldia ahalbidetzea.

1.24. Familiak

Heburuak:

1. Familiaren gaineko politika famili eredu berrietara egokitzea.
2. Familiari laguntzea gizarte kohesiorako elementu gisa.

1.25. Immigrazioa

Heburuak:

1. Arrazismo eta xenofobiaren aurkako borroka.
2. Etorkinen integrazioa.
3. Elkarbizitza eta dibertsitatearen kudeaketa.
4. Etorkinak artatzeko politika berria.

1.26. Berdintasun politikak

Heburuak:

1. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.
2. Genero indarkeria desagerraraztea
3. Berdintasuna sustatzea.
4. Berdintasun politikak koordinatzea.
5. Antolaketa indartzea.

1.27. Ertzaintzaren eredu berria euskal gizartearen zerbitzura.

Heburuak:

1. Ertzaintzaren integrazioa eta hurbiltasuna gizartearekin.
2. Legitimotasun demokratikoa eta elkarbizitza sendotzea.
3. Prebentzioan oinarritutako polizia eraginkorragoa.
4. Polizia integralaren eredia.
5. Baliabideen kudeaketa eraginkor eta eragingarriaren eredia.
6. Hobekuntzak larrialdien arretan eta bide segurtasunean.

1.28. Justizia modernoa

Heburuak:

1. Justizia modernoagoa eta herritarrengandik hurbilago
2. Bitartekaritza, justizi eredu leheneratzaile gisa
3. Babes judizial eragingarriko eskuragarritasuna
4. Hizkuntza hautatzeko aukera eskubidea justizia administrazioarekiko erlazioetan
5. Adin txikiko arau hausleak gizarteratzean aurrera egitea
6. Informazio teknologiak txertatzea
7. Justizi administrazioaren deszentralizazioa
8. Foru zuzenbide zibilaren garapena eta betearazpena

II. konpromisoa Bakea eta elkarbizitza

2.1. Bakea, giza eskubideak eta elkarbizitza

Heburuak:

1. Iragana argitzea
2. Orainean gizarte normalizazioa
3. Etorkizunean adiskidetzea

III. konpromisoa Estatus politiko berria Euskadirentzat

3.1. Lurraldearen antolaketan sakontzea

Heburuak:

1. Harremanak sendotzea Iparralderekin eta Nafarroarekin.
2. Euskal Lurraldeen arteko elkartrukea bultzatzea.

3.2. Euskadi, Europako nazioa

Heburuak:

1. Estatus politiko berria Euskadirentzat.

1. ekimena. Enplegua suspertzeko aurrez aurreko plangintza

1.1.1 helburua. Enplegua defendatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014ko urtarrilean [2014-2016 Enplegu Plana](#) eta [Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Esparru Programa](#) onartu ziren. Lehenengoan enplegua sortzeko 79 ekimen bildu dira, 6 ekintza-programatan kokatuta: (1) ETE eta autonomoentzako finantzazioa; (2) Ekintzaitzaren sustapena; (3) Gazte enplegua; (4) Enplegurako prestakuntza; (5) Enplegu inklusiboa: enpleguarekiko elkartasuna eta (6) Renove programak. Zuzeneko aurrekontu publikoa 775 milioi eurokoa zen, eta baliabide publiko eta pribatuen artean 2.341.000 euro ere mobilizatzea aurreikusi zen, enplegua suspertzeko. Planak 2014ko aurrekontuan 252 milioi euro zeuzkan eta urteko Ekintza Planen bidez gauzatuko da.

2. Enplegu Planak 2014-2016 aldia hartzen badu ere, 2013an Jaurlaritza bere lehen proposamenean jasotako ekimenak gauzatzen hasi zen eta, aldi berean, 2014-2016 Enplegu Plana ekarri zuten akordioetatik zetozenak sartu zituen.

3. 2014-2016 Enplegu Plana urteko Ekintza Planen bidez hedatzen da. Ildo horretatik, 2014ko Ekintza Planak 252 milioi euroko aurrekontua izan zuen eta haren Amaierako ebaluazio txostenak helburu bi zituen funtsean: (1) 2014-12-31rako 2014ko Ekintza Planaren eta 2014-2016 Enplegu Planaren gauzapearen egoera globala azaltzea eta (2) Garatutako ekimenak eta 2014-12-31rako zuten egoera zehaztea.

4. 2015eko Ekintza Plana orokorrean hartuta, Eusko Jaurlaritzak 258.435.399 euro bideratu ditu 2015eko aurrekontuen barruan. Horiei 371.840.000 euro gehitu behar zaizkie, baliabide pribatuak mobilizatzearen ondoriozkoak direnak, eta berariazko helburu gisa ETEak sustatu, ekintzaitza sustatu eta eraikinak birgaitzeko Renove programa garatzeari lotutako ekintza-programak dituztenak.

2. ekimena. Gazte enpleguaren aldeko programak gazteen enplegarritasunari eta laneratzeari zuzenduak, lehen lan aukera sustatuz, autoenpleguari babesa emanez eta bikaintasunaren eta diziiplina askoren gaineko prestakuntza bultzatuz.

1.1.1 helburua. Enplegua defendatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. [2014-2016 Enplegu Planaren](#) esparruan gazte enplegurako berariazko programa bat abiarazi da. Programa hori ardatz hauetan dago oinarrituta: Gazte ekintzailtza, Prestakuntza Duala, lehenengo lan-esperientzia eta gazte talentua. Programa horretan garatutako ekimenetako askok Europako Gazte Bermeari erantzuten diote.

2. Atal honetan [Lehen Aukera](#) ekimena abiarazi izana azpimarratu behar da; horretarako, bi programa pilotu egin dira lanbide heziketarekin eta unibertsitatearekin. Ekimen berritzaile horri esker 1.200 gaztek lehenengo esperientzia izan dute. Halaber, ekimen berritzaile bat egin da gizarte ekimenaren eremuan eta unibertsitateari lotuta, [Junior Kooperatiba programaren](#) bidez.

3. 2014an, Gazte Enplegu Programaren aurrekontua 28 milioi eurokoa izan zen.

3. ekimena. Pertsona autonomoen enplegua bultzatzea, bai eta autoenplegurako ekimen berriak eta mikroenpresak ere (hala nola jarduerari ekiteko laguntzak, inbertsioen finantzazioa, ekipo eta makinaren berrikuntza, burokrazia arintzea eta jarduerari lotutako kreditu eskuragarritasuna hobetzeko ekimenak).

1.1.1 helburua. Enplegua defendatzea

Ardurduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. [2014-2016 Enplegu Planaren](#) esparruan, autoenplegua eta jarduera ekintzailea bultzatzeko berariazko programaren jarduketa-ardatza Euskadi Lurralde Ekintzailea ekimena da; haren bidez, Euskal Ekintzailetza Sistema, autoenplegua eta mikroekintzailetza, eta enpresa berritzaile berriak bultzatu eta optimizatu nahi dira. 2014ko aurrekontua: 20 milioi euro.

2. 2014ko otsailean eta 2013an Eusko Jauriaritzaren eta Foru Aldundien artean sinatutako erakunde arteko hitzarmenaren ondorioz, [Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde arteko 1. Plana](#) egin zen. Haren helburua kultura ekintzailea indartzea, haren enplegarritasuna handitzea eta ekonomia gehiago sortzea dira, batez ere barne ekintzailetza jorratuz. Planean 266 milioi euro erabiltzea aurreikusi da, 2013-2016 legegintzaldian ekintzailetza garatzeko.

3. 2014an, Ekintzailetza jarduera bultzatzeko programaren aurrekontua 20 milioi eurokoa izan zen. Besteak beste, pertsona ekintzaileen alde enpresa-jarduera bat finkatzeko urtero egiten diren laguntza deialdiak azpimarratu behar dira. [2014ko deialdia](#). [2015eko deialdia](#).

4. Era berean, pertsona ekintzaileentzat enpresa-proiektu berriak abiarazteko edo enpresa-idea bat garatzeko egiten diren laguntza deialdiak azpimarratu behar dira. 2015eko deialdia.

4. ekimena. Enpleguaren aldeko eskualde programa integratuak garatzea erakunde arteko lankidetzak akordioaren bitartez (Lanbide, EUDEL, eskualdeko garapen agentziak eta udalerrriak).

1.1.1 helburua. Enplegua defendatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. [Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta Eudelen arteko 2013ko erakunde arteko hitzarmenak](#), ekonomia suspertzea eta enplegua sortzea bilatzen zuen eta, hari esker, toki garapenaren eremutik enplegua eta ekintzaitza sustatzeko lehentasunezko ildoak ezarri ziren. 2014an eta 2015eko maiatza arte, egin diren enplegurako toki ekintzen kostua 20 milioi eurokoa izan da eta inoren konturako 2.000 enplegu eta ekintzaitza proiektuetan oinarritutako beste 1.000 sortzea aurreikusten da.

2. [Enplegua Sustatzeko Toki Ekintzetarako Laguntzen 2015eko Deialdia](#) Lanbidek kudeatzen du, jarduketaren xedeko lurraldearen garapen sozioekonomikoa bultzatzera eta modernizatzerako bideratutako enplegua sortzeko proiektuak martxan jar daitezzen, Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016 Enplegu- Planean ezarritako enpleguaren aldeko toki ekintzen helburuarekin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioarekin bat etorritik. Laguntzak batez ere udalerrientzat, udal taldeentzat, mankomunitateentzat eta koadrilentzat dira, eta funtsean laguntza ekonomikoak dira, zuzeneko enplegu azkarra sortzeko proiektuak abiarazteko, tokiko premiei begira.

5. ekimena. Enplegua erregulatzeko espedienteek (EEE) ukitutako pertsonak birgaitzeko eta berriro ere laneratzeko programa bat garatzea.

1.1.1 helburua. Enplegua defendatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. Metalaren sektoreko euskal patronalekin sinatutako hitzarmena aplikatuz, enplegurako, enplegarritasuna hobetzeko eta inoren edo norberaren konturako birlaneratzea sustatzeko aukerak identifikatu dira, EEE-ek ukitutako 424 metal-enprestatik datozen langileentzat; haren kostua 600.000 eurokoa izan da.
2. Bestalde, EEE-etatik datozen 3.956 pertsonak birkualifikatzeko prozesuetan parte hartu dute, eta horren kostua 1.848.840 eurokoa izan da.

6. ekimena. Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enpleguari laguntzea.

1.1.1 helburua. Enplegua defendatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. Desgaitasuna duten pertsonen enpresa arruntean kontratu mugagabea egiteko diru-laguntzei buruzko Dekretua argitaratu zenetik, urtero egin dira dagozkien laguntza deialdiak. 400 mila euro 2013rako eta 450 mila euro 2014an. [Ebazpena, 2015eko uztailaren 23koa](#), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, argitaratzen da desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean integratzeko neurri gisa enplegu lagunduaren jardunak garatzera bideratutako 2015eko deialdiaren babesean emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda.
2. Enplegu Zentro Berezietan enplegua mantentzeko eta sortzeko diru-laguntzei buruzko Dekretua. Urteko laguntzak dira, desgaitasuna duten pertsonak enplegu zentro berezietan laneratzea sustatzeko. [2013ko deialdia](#): 30 milioi euro. [2014ko deialdia](#): 30 milioi.
3. Enplegu Zentro Berezietan lanbide jarduerari laguntzeko diru-laguntzen urteko deialdia. 2013ko deialdia: 4 milioi €. 2014ko deialdia: 4 milioi €. [2015ko deialdia](#).
4. Desgaitasuna duten pertsonen enpresa arrunt batean laneratzean lagun egiten dieten profesionalen lan-kostuak eta gizarte segurantzaren finantzatzeko [Diru-laguntza Programa](#) bat izapidetzen da urtero. 850.000 euro jarri dira deialdi horren xedeko laguntzak finantzatzeko; haietatik, 425.000 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2015eko aurrekontu arruntari egokituko zaizkio, eta beste 425.000 euro, berriz, 2016rako konpromisozko aurrekontuari.
5. Enplegua sortu eta hura mantentzeko diru-laguntzak [Laneratzeako Enpresak](#) sortuz eta haiek mantenduz. 2012an 8 milioi euro jarri ziren, eta 8,4 milioi, 2014an.

7. ekimena. Autoenplegu egitasmoak sortzeko laguntza azkar eta erraza eskaintzen duen aurrez aurreko programa garatzea, foru aldundiekin elkarlanean.

1.1.1 helburua. Enplegua defendatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean sinatu zen erakunde arteko hitzarmena betearazteko, 2014an [Ekintzailtza Jarduerari Laguntzeko Erakunde arteko 1. Plana](#) egin zen. Planaren helburua kultura ekintzailea indartzea, haren enplegagarritasuna handitzea eta ekonomia gehiago sortzea dira, batez ere barne ekintzailtza jorratuz, eta 2013-2016 legegintzaldian ekintzailtza garatzeko 266 milioi euro erabiltzea aurreikusi du.

2. Ekintzailtza Jarduerari Laguntzeko Erakunde arteko Plana Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun sailburuak eta Sustapen Ekonomikoko hiru diputatuek aurkeztu zuten gizartean 2014ko apirilaren 7an. Halaber, 2014/04/15ean, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun sailburuak Ekintzailtza Jarduerari Laguntzeko Erakunde arteko Plana (EKLEP) aurkeztu zuen [Eusko Legebiltzarrean](#).

3. Ekintzailtza Jarduerari Laguntzeko Erakunde arteko Plana betez, Ekintzailtza Jardueraren Erakunde arteko Batzordea abiarazi da. Batzordean administrazio guztiek parte hartzen dute eta, besteak beste, jardueraren eta inpaktuaren adierazleen identifikazioa definitu dute. Ildo horretatik, 2015/09/29an Euskal Autonomia Erkidegoko Global Entrepreneurship Txostena, EAE GEM 2014, aurkeztu zen. Han ageri ziren zantzuen arabera, euskal ekintzailtza-jarduera berpizten hasia zen eta jarduera hori indartzen jarraitu behar zela ondorioztatu zen.

1. ekimena. Lanbideren kudeaketa eredua birbideratzea bestelako eragileekin adostutako eta sareko lan batean oinarritutako enplegu sistema eraginkor eta integratu baterantz, horren bitartez euskal herritarren aldetiko balorazio positiboa lortuz.

1.1.2 helburua. Lanbide berria

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko abenduan [Lanbideren 2013-2016 Plan Estrategikoa](#) onartu zen, Lanbide, bere antolamenduan eta kudeaketan, garatzeko, zerbitzu efikazagoa eta eraginkorragoa eta gainerako agente sozioekonomikoekin integratuagoa eman dezan eta, gainera, lortu behar diren helburuak antolatu eta lehenetsi, baliabideak haien arabera banatu eta lortutako xedeak kuantifika ditzan, haren jarduketa ebaluatua eta hobetua izan ahal izateko eta herritarrentzat gardena izateko.

2. Lanbideren 2013-2016 Plan Estrategikoa urteko Kudeaketa Planen bidez garatzen da. 2014an, urteko Kudeaketa Plana egin eta garatu zen, eta 2015-05-12ko Gobernu Kontseiluak "2014ko urteko Kudeaketa Planaren Egoerari buruzko Txostena"ren aurkezpenaren bidez ezagutu zuen, .

3. Era berean, 2015-05-12ko Gobernu Kontseiluak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2013-2016 Plan Estrategikoari buruzko [2015ko urteko Kudeaketa Plana](#) ezagutu zuen.

2. ekimena. Lan merkatuan bitartekaritza lana betetzeko daukan xedea sendotzea, betiere arreta berezia jarriz langabeei eta enpresen premiei zuzendutako lan orientazioari, etengabeko prestakuntzari eta lanerako prestakuntzari buruzko politikak txertatuko dituen eredu baten enplegarritasunean.

1.1.2 helburua. Lanbide berria

Arduraduna: Adolfo Alustiza Fernández (Lanbideko zuzendari nagusia)

Jarduketak

1. 2014an zentro pribatuentzako langabetuen prestakuntzarako diru-laguntzen deialdia izapidetu zen (395/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa; haren bidez enplegurako lanbide heziketako azpisistema arautzen da); haren balioa 36 milioi eurokoa da.

2. Urtero Kudeaketa mandatu bat sinatzen da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin; haren helburua Sail horren titulartasuneko prestakuntza zentroek batez ere langile langabetuei bideratutako prestakuntza programazioa egitea da, enplegurako [prestakuntza ez-arautua](#) eskain dezaten. 2014an 5,6 milioi euro erabili ziren. [2015-2016 kudeaketa mandatua](#).

3. Urtero enplegurako orientazio-ekintzak egiteko eta orientazio-zerbitzuak emateko diru-laguntza programa abiarazten da; ekintzak eta zerbitzuak orokorrean langabetuei eta desabantailan dauden taldeetako pertsoneri daude bideratuta (Lanbideko bulegoetako laguntzeko kanpoko baliabidea).

-Enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak garatzeko 2015eko laguntza deialdia Aurrekontua: 7.500.000€.

-Desabantaila-egoeran dauden taldeetako pertsonentzat enplegurako orientazio-ekintzak egiteko eta orientazio-zerbitzuak emateko 2015eko laguntzen deialdia.

4. Urtero Hezibi Programa gauzatzen da. Programa horrek diru-laguntzak ematen ditu [Lanbide heziketa dualerako edo alternantziako lanbide heziketarako](#), Lanbide heziketa duala edo alternantziako lanbide heziketa. 2014ko ekitaldian 738 mila euro erabili ziren. [Hezibi 2015 Programa](#)

3. ekimena. Lanbideren zeregina lan bitartekaritzan zentratzea, diru sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) artapen eredia birdiseinatuz.

1.1.2 helburua. Lanbide berria

Arduraduna: Adolfo Alustiza Fernández (Lanbideko zuzendari nagusia)

Jarduketak

1. Urtero [Lehen aukera programa](#) izapidetzen da. Haren helburua unibertsitateko/lanbide heziketako ikasketak amaitu edo profesionaltasun-ziurtagiria lortu duten eta Lanbiden enplegu-eskatzailererregistratuta dauden 30 urtez azpiko gazte langabetuentzako praktika-kontratuak bultzatzea da.
2. [Lanbidek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta](#) (DBE) kudeatzen du, hileko prestazio ekonomiko bat baliabide nahikorik ez duten pertsona eta familien oinarrizko premiak asetzeko. Prestazio horrek lan irtenbidea aurkitzen laguntzen die. Halaber, Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarria ere kudeatzen du.
3. [Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarria](#) (EPO) aldian behingo prestazio ekonomikoa da. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) osagarri bezala dago egituratuta eta ohiko etxebizitza edo bizilekua alokatzeko gastuak ordaintzera dago bideratuta, alokairu, berrekura, alokairukidetzeta, ostatu eta gelen alokairuko mota guztietan.

4. ekimena. Zerbitzuetara bertaratzen diren pertsoneri arreta egiteko eta izapidetzen zaizkion eskaeren ebazpenak emateko erabiltzen dituen jarduketan denbora arintzea, betiere eraginkortasuna hobetu eta burokratizazioa murriztuko duten bulego ireki, hurbil eta espezializatuen eredu bat ezarriz.

1.1.2 helburua. Lanbide berria.

Arduraduna: Adolfo Alustiza Fernández (Lanbideko zuzendari nagusia)

Jarduketak

1. 2013 eta 2014an langabetuentzako arreta berregituratu eta [Lanbideko](#) langileen lan-baldintzak hobetu ziren. Horrek aurrerapenak ekarri zituen haren funtzionamenduan; esaterako, bulego horietan kronikoki sortzen ziren ilarak desagertu ziren.
2. 2014ko abendurako, espedienteak izapidetzeko efikaziari dagokionez (horrek eragin erabakigarria dauka prestazio horiek eskatzen dituzten pertsonen bizi duten premiazko egoeran), eskabideen % 80 bi hil baino gutxiagoko epean konpontzen hasi dira.
3. Lanbide hobekuntza prozesu etengabe dago murgilduta, bulego ireki, hurbil eta espezializatuko eredu ezartzeko, eraginkortasuna hobetu eta burokratizazioa murrizteko.

5. ekimena. Ereduan eta kudeaketan ekonomi eta gizarte eragileek, Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuek, foru aldundiek eta udalerriek zuzenean parte hartzeko eta lankidetzan jarduteko formulak txertatzea, betiere arlokako eta lurralde mailako eskariak neurrien diseinuan txertatzeko eta pertsonen enplegarritasuna sendotzeko asmoz.

1.1.2 helburua Lanbide berria.

Arduraduna: Adolfo Alustiza Fernández (Lanbideko zuzendari nagusia)

Jarduketak

1. Euskal Enplegu Zerbitzuari eta Euskal Enplegu Sistemari buruzko Legearen aurreproiektua 2014ko abenduan hasi zen idazten eta bidean dago.

2. 2016ko otsailaren 2ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiz -haren bidez legegintza-egutegia eguneratu eta 2015eko bigarren seihilekoari dagokion seihilekoko jarraipeneko dokumentuaren jakinaren gainean jarri da- [Enpleguari eta Euskal Enplegu Sistemari buruzko Legearen](#) aurreproiektuaren izapidetzea etetea erabaki zen, hurrengo legegintzaldian hari berriz heltzeko asmoz

1. ekimena. Etengabeko ikaskuntzaren alde egitea lan bizi osoan zehar; horretarako, bestelako eragileen partaidetza handiagoa aurreikustea programen, etengabeko prestakuntza ikastaroen eta eguneratze ikastaroen diseinuan, eskaintzan eta garapenean.

1.1.3 helburua. Oso gaituta dauden pertsonak

Arduraduna: Adolfo Alustiza Fernández (Lanbideko zuzendari nagusia)

Jarduketak

1. 2014an [Enplegurako prestakuntzarako laguntza ekonomikoen deialdia](#) izapidetu zen; eskaintza batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunei dago bideratuta (urtero deitzen da), lan-bizitza osoan ikastea errazteko xedez. Lanbideko 2014ko uztailaren 28ko administrazio kontseiluaren erabakiz onartu zen eta [EHAaren 145/2014 zenbakian](#) argitaratu zen. Haren kostua, guztira, 18,4 milioi eurokoa izan zen.

2. Hobetuz, Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa EAEn lanbide heziketa etengabea sustatzen eta kudeatzen duen hiruko erakundea da, eta gehienetan urteko deialdien bidez egiten du. Ildo horretatik, 2015eko urriaz geroztik Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatutako prestakuntzako [ekintza estrategikoetarako laguntza-deialdia](#) izapidetzen ari da.

3. 2015eko abenduan, Lanbideko administrazio kontseiluak [Enplegurako Prestakuntzarako diru-laguntzen](#) 2016ko deialdia onartu eta argitaratu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunak lehenetsiz

2. ekimena. "Bigarren aukerako" programak garatzea, belaunaldien arteko ezagutza eta lanbide esperientziaren transmisioa bultzatzeko asmoz.

1.1.3 helburua. Oso gaituta dauden pertsonak

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Ahalbidetu Elkartearen arteko lankidetzaren prozesu baten esparruan gazte gradudunen enplegarritasuna hobetu eta/edo ekintzailerria errazteko "Eginez Ikasi" programa garatzeko bidean dago (haren bi ekitaldi gauzatu dira). Haren helburua enplegu bila dabilen gradudunei lan-munduaren atea zabaltzea da; horretarako, alde batetik, gradudunek badauzkaten ezaguera jakinak jardueraren orok dituen gaitasunekin osatzen ditu; eta bestetik, enpresa babesleek praktikan kontratatzen dituzte gaitasunen ikaskuntza nabarmena frogatzen dituztenak. Ildo horretatik, programak aholkulari talde bat dauka; aholkulari horiek, irakatsi beharrean, ikasten laguntzen dute, benetako enpresa batean bezala eginez.

1. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte eragileekin etengabeko solaskidetzari eustea eta gizarte elkarrizketa sendotzea, betiere enpresen eta langileen interesen arteko oreka egongo dela ahalbidetzeko asmoz.

1.1.4 helburua. Gizarte-elkarrizketa eta gizarte-kohesioa

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko lehenengo seihilekoan solaskidetza biziko prozesu bat gauzatu zen enpresaburu, sindikatu eta lanaren arloko adituekin, hitzarmen kolektiboetan eta lan-gatazketan bitartekaritza mekanismo bat eratzeko, sindikatuei eta enpresei irtenbide onargarriak emateko asmoz. Halaber, lanbide arteko akordio bat proposatu zen, baina ez zen sinatu.

2. 2013ko bigarren seihilekoan, gizarte elkarrizketarako berariazko topaketa esparru formal bat eratzea posible izan ez zenez, gizarte eragileen arteko egoera zela-eta, aldebiko kontaktu gehiago izan ziren Jaurilaritzaren eta solaskide horien artean, negoziazio kolektiboaren arloan proposamen zehatzetan aurrera egiteko xedez, uste baitzen Estatuko Gobernuak sustatutako desarauketako ingurunean lan-harremanetarako berezko esparru bat lortzen lagundu zezakeela.

3. 2014an Euskal Autonomia Erkidegoko hirualdeko elkarrizketa mahaia eratu zen. Lehen bilera 2014ko abenduaren 4an egin zen eta bigarrena 2015eko urtarrilaren 30ean; haietan zenbait akordio lortu ziren eta enplegu-politika aktiboak transferitzeko prozesua amaitutakoan estrategia berri bat diseinatzeari buruz hausnartu beharra sentitu zen. Bestalde, enpresetako lan-gatazketan bitartekaritza egiten jarraitu zen; lan hori garrantzitsua da haietako askori, enpleguei eta oro har ekonomiari eusteko.

4. 2015eko martxoaren 17an [Gobernu Kontseiluak](#) argi berdea eman zion [Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2015-2020 Euskal Estrategiari](#); estrategia egiteko barne eragileek parte hartu zuten, eta parte hartu zuten gizarte eragileekin adostu zen. Estrategian 7 helburu estrategiko jaso ziren: 1-Lanak ez du osasuna kaltetzen (arriskuak ezagutzea eta kudeatzea) 2-Portaera seguru eta osasungarriak lanean 3-Eragileen parte-hartzea eta engaiamendua (lan-arriskuak prebenitzeko kultura) 5-Lan-arriskuen prebentzioan administrazio publikoa aitzindari izatea (administrazioak efikaziaz eta eraginkortasunez betetzen ditu bere eginkizunak) 6-Arrisku berriak ezagutu eta kudeatzea 7-Lana pertsonen ezaugarriei egokitzea (ikerikuntza eta prestakuntza).

2. ekimena. Arlo kooperatiboa, gizarte ekonomia eta enpresen gizarte erantzukizuna sustatzea, tokian tokiko garapenari lagunduz eta pertsonengan arreta handiagoa jartzen duen eredu ekonomikoa bultzatuz.

1.1.4 helburua. Gizarte-elkarrizketa eta gizarte-kohesioa

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen idazketaren aldaketa izapide administratiboan dago (lehenago ekainaren 29ko 1/2000 Legeak aldatu zuen). Legearen aurreproiektuaren zirriborro bat dago eta, gizarte eragileen ekarpenak jaso ondoren, alegazioak eta txostenak egiteko fasean dago. Gobernu Kontseiluak 2016ko lehen sei hilekoan [Legearen proiektu](#) gisa onartzea dago aurreikusita.

2. Euskadiko Kooperatibei buruzko Legea onartu ondoren, araudia garatuko da Euskadiko Sozietate Kooperatibo Txikiari buruzko ekainaren 25eko 6/2008 Legeari dagokionez; haren asmoa sozietate kooperatibo bat eratzeke baldintzak enpresa txiki eta ertainen izaera eta inguruabarrei egokitzea da; izan ere, askotan baldintza horiek kooperatiba eratzea moteltzen eta are galarazten zuten oztopo administratibotzat hartzen zituzten.

3. 2013ko uztailan enpresa bat garatzen duten unibertsitate ikasleek osatutako lan elkartu motako kooperatibak "[junior kooperatiba](#)" kalifikatzeko zerbitzu-jarraibide berri bat onartu zen. Kooperatiba horiek kooperatiba forma izan eta printzipio kooperatiboak bete behar dituzte, eta ikasleen prestakuntza akademikoaren baitan sartu behar dira, unibertsitatearen zaintzaren pean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan izena eman behar dute.

4. 2015ean, gizarte ekonomiaren eremuan, [laguntza-programa](#) hauek izapidetu ziren:

- Gizarte ekonomian ekiteko laguntzak: Bideragarritasuna 2015
- Gizarte ekonomian ekiteko laguntzak: Lurralde sustapen planifikatua 2015
- Gizarte ekonomian ekiteko laguntzak: Sustapena 2015

5. [Enpresaren Gizarte Erantzukizunerako \(EGE\) Euskal Estrategia](#). Enpresaren Gizarte Erantzukizunerako (EGE) Euskal Estrategia. Estrategia EGEren eremuan garrantzia duten eragileen lankidetzaz egin da, Innobasqueko i-Taldearen baitan, eta gizarteratzeko fasean dago. Aberastasuna eta enpleguari lotutako inpaktu positiboa sortu behar dira eta Eusko Jaurlaritzak enpresen eta ETE-en artean EGEk etekinak ez diren zerbait sortzen duela zabaldu eta horri buruz sentsibilizatu behar ditu.

6. [Estatistikako 2014-2017 Euskal Planean](#) gizarte ekonomiaren kontu sateliteak sartu dira, beste autonomia erkidegoekin koherentzia izateko eta gizarte ekonomiaren sektorearen kontuen makromagnituderik esanguratsuenak estatuaren eta Europaren testuinguruan ikuspegi erkatu batetik ezartzeko.

7. 2014ko ekainean [Lankidetzak protokolo](#) bat sinatu zen Argentinako Errepublikako Santa Fe probintziako Ekoizpen Ministerioarekin gizarte ekonomiaren arloan jarduera bateratuak egiteko.

3. ekimena. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea eta Lan Harremanen Kontseilua topaketa eragile eraginkor bezala bultzatzea, betiere modu egokian jardungo duen Lan Harremanen Euskal Sistema sendotze aldera.

1.1.4 helburua. Gizarte-elkarrizketa eta gizarte-kohesioa

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. Batzorde horietako jarduera eta gizarte eragileen parte-hartzea errazteko tresnak emateko asmoz, haiek sortzeko legeak garatzen dituzten dekretuak onartu eta 2013ko azaroaren 4ko EHAA argitaratu dira.

-Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

-Lan Harremanen Kontseilua

2. Orprice sortu eta abiaraztea. 2013ko abenduaren 30ean, [Dekretu](#) baten bidez, Gobernu Kontseiluak Estatutuaren araberako Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoa sortu zuen. Organo horren bidez Euskadin zenbait enpresetako estatutuaren araberako hitzarmen kolektiboak ez aplikatzeko prozedurak ebatziko dira.

1. ekimena. Ekoizpen ekonomian oinarrituko den lehiakortasunaren eta industri politikaren eredu propioa berreskuratzea, betiere berrikuntzaren, nazioartekotzearen, prestakuntzaren eta azpiegituren estrategiak aintzakotzat hartuko dituen Ekonomia Suspertzeko Plan baten bitartez, eta Foru Aldundien eta eragile ekonomiko inplikatuaren partaidetza bideratuz

1.2.1 helburua. Lehiakortasuna eta industri politika

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014-12-16an Gobernu Kontseiluak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2020ko Plana onartu zuen. Plana espezializazio adimentsuko estrategia bat da Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen ekonomiko iraunkorra indartzeko. Haren misioa ongizatea, hazkunde ekonomikoa eta enplegua hobetzea da, espezializazio adimentsuan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren eraginkortasunaren hobekuntzan oinarritutako ikerketa eta berrikuntza politika baten bidez. 2014-2020 artean 11.100 milioi euroko inbertsio publiko-pribatua dago aurreikusita.

2. Euskadi 2020 ZTBP inflexio puntu bat da ekonomiaren suspertzea eta enpleguaren leheneratzea I+G+Bren eskutik etor dadin. 3 gidatze-talde bertikal ezarri dira eta haien bidez herri proiektuetan lan egiten ari da, lankidetzaren publiko-pribatuaren bidez.

- Fabrikazio aurreratua: Helburua euskal ekonomiaren izaera industrialari eutsi eta balio erantsiko fabrikazio jarduerak bultzatzea da ("Basque Industry 4.0" estrategia).
- Energia: Teknologia eta industria ikerketa eta garapena Euskal Autonomia Erkidegoak presentzia nabarmena duen energia-iturriari aplikatutako EnergiBasque Estrategiak ezarritako arloetan.
- Osasuna: Helburua goi-mailako gaitasun zientifikoak eta teknologikoak (mikro-nano-bio-ikt) eta enpresa sektore berria edukitzea da.

3. "Euskadi 2020" Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru-programa Eusko Jaurlaritzak enpleguarekin eta ekonomia berpiztearekin hartutako konpromisoei eman dien erantzuna da. Hainbat gauza barnean hartzen dituen programa da. Herri estrategia gisa taxutzen da, eta 2 multzotan garatzen da: Ekonomia suspertzeko plana eta ekonomia suspertzeko 4i Estrategia. Ekonomia sustatzeko politikak lehiakortasunerako funtsezko 4 eragiletan -berrikuntza, industrializazioa, nazioartekotzea, inbertsioa- indartzen dira.

4. 2014-2016 Industrializazio Plana egin da, jaurlaritzak euskal industriari laguntzeko duen tresna gisa, funtsezko sektore baten errealitate konplexuari behar den erantzuna emateko. Euskal industriaren lehiakortasunaren garapenerako gako estrategiko eta operatiboei buruzko analisi, hausnarketa eta erkaketako prozesu sistematikoa egin da, eta sektoreak ere parte hartu du. Planak 575 milioi euro dauzka, 2014-2016ko plangintzan, herriaren industriako esperientzian bermatzen da, premiarik handienei erantzuten die eta euskal industriaren lehiakortasunaren hobekuntza prestatzen du.

5. Ekintzailtza Jarduerari Laguntzeko Erakunde arteko 2013-2016 Plana egin da. Haren bidez, irmotasunez egin da ekintzailtza aldea, eraldaketa ekonomiko eta sozialerako palanka gisa, aukera ematen du ekintzailtza jarduerari laguntzeko euskal sistema hobetzen jarraitzeko, eta ekintzailtza eragileko eta barnekintzailtza eragileko erakunde arteko borondatea eta engaiamendua islatzen ditu. Engaiamendu hori irmotasunez frogatzen dute parte hartu duten eragileen kopuruak eta izaerak: Eusko Jaurlaritza eta 3 foru aldundiak, maila politiko zein teknikoan lankidetzan aritzeko ahalegin batean.

2. ekimena. Arlo estrategikoetan teknologia berrien eskuragarritasuna eta erabilera handiagotzea eta enpresa ekimen berriak sorraraziko dituzten aukerak identifikatzea jakintzan trinkoak diren sektoreei begira.

1.2.1 helburua. Lehiakortasuna eta industri politika

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014ko abenduan [Euskal Autonomia Erkidegoko RIS3 espezializazio adimentsurako estrategia](#) onartu da, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko espezializazio adimentsurako lehentasun estrategikoak ezarri baititu. Eusko Jaurlaritzak egin du eta zerikusia duten beste erakundeekin eta eragile publiko eta pribatuekin eztabaidatu da. Abiapuntutzat harturik indarrean dagoen [ZTBP](#), Europar Batasunak bere “hazkunde adimentsua” estrategian ezarritako prozedura metodologikoak erabili dira, eta, estrategia horren arabera, Europako eskualde baten lehentasunek honako hauek izan behar dituzte oinarri: (1) Ikusteko moduko indarguneak: enpresa-sare lehiakorra, berrikuntzak ustiatzeko gai diren sektore eragile eta guzti. (2) Gaitasun zientifiko-teknologiko bereizgarriak. (3) Erronka sozialei eta merkatuaren eskariei erantzuteko gaitasuna. (4) Zehaztutako estrategia garatzeko laguntza-tresna espezifikoak izatea, laguntza-programak eta esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak kasu.

2. [Basque Industry 4.0 Programaren](#) helburua (haren araudia apirilaren 20ko EHAAAn argitaratu zen) “teknologia hornitzaile”en manufaktura-industriako enpresetarantz teknologia transferitzeko proiektuei laguntzea da, fabrikazio aurreratuari aplikatutako EIKTen (Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologiak) eremuan, erakustaldi efektua izan eta EIKTetako I+G proiektuen emaitzak merkatuari transferitzea bizkortu ahal izateko. Neurri lerro berri bat ezarri da, beste programa batzuk osatzeko, industria aurreratuaren joera berriei erantzuteko asmoz. 2015ean 18 eskaera egin ziren; haietatik 16 onartu ziren eta haien diru kopurua 1.883.928 eurokoa izan zen. 2016an bakar-bakarrik 4.0 Industriako proiektuetarako berariazko laguntza-programak ezarri dira, eta haien diru kopurua 2.211.516 eurokoa da.

3. “Basque Industry 4.0” jardunaldia. [2014ko 1. ekitaldian](#) gaiak eta emandako ikuspegiak sortzen zuten interesa berretsi zen, administrazio publikoentzat ez ezik, industriako zein eskaintza teknologikoko, unibertsitate eremuko eta aholkularitza eta zerbitzu aurreratuen sektoreko enpresen ordezkari ugarientzat ere. 644 pertsonak eta 20 standek parte hartu zuten. 1. ekitaldiaren arrakasta dela-eta, 2015ean berriz antolatu zen jarduera (840 partaide eta 20 stand), eta 2016 honetarako hirugarren ekitaldia ere proposatu zen.

4. Industria Digitala. 2014koa Hobeki +Digital@ ekimenaren azken ekitaldia izan zen, +Digital@ programaren baitan. 2015ean Industria Digitala programa berria sortu zen; haren helburua “Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikabideen Teknologiak (EIKTak) manufaktura-industriako enpresa txiki eta ertainetan (ETE) ekoizpenaren automatizazioari lotutako proiektuetan sartzeko laguntzea” da. 2015ean, EAEko 313 manufaktura-enpresak 9 milioi euroko inbertsioa egin dute guztira informazioaren eta elektronikaren teknologietan. 2015ean gauzatu diren 328 modernizazio proiektuek Industria Digitala programako diru-laguntzak jaso dituzte, 2,67 milioi euro, hain zuzen ere.

5. Eusko Jaurlaritzak espezializazio adimentsuko 3 lehentasun definitu ditu, fabrikazio aurreratuari, energiari eta biozientziei lotuta. Lehenetsitako arloetan gidatze taldeak sortzea eta abiaraztea ZTBP

2020an definitu da. 3 gidatze taldeetan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko enpresa eta eragile zientifiko teknologikoei parte hartzen dute.

3. ekimena. Produktibitatea hobetzera eta enplegua sortzera zuzendurik dauden lehiakortasun politikak garatzea, aliantzak zabaltzea eta lehiakortasun globalari aurre egitea ahalbidetzen duen enpresa dimentsionamendua bultzatzea.

1.2.1 helburua. Lehiakortasuna eta industri politika

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. [2013-2016 Industrializazio Planaren](#) jarraibideen arabera, Innobideak Estrategiak manufaktura aurreraturako zeharkako estrategia bat abiaraztera, pertsonen enpresan parte hartzea sustatzera eta berrikuntza ez-teknologikoko strategiari bultzada berria ematera zuzendutako jarduketa-ardatzei erantzuten die. Hala, [Innobideak Estrategiaren](#) helburua euskal enpresen, eta bereziki ETE-en, lehiakortasunaren hobekuntza bultzatzea da, dibertsifikazioari, pertsonen parte-hartzeari eta kudeaketaren hobekuntzari lagunduz, krisi testuinguruari aurre egin eta globalizazioaren esparruan etorkizuneko garapen lehiakorrerako oinarri sendoak ezartzeko helburuz.

2. [Innobideak Lehiabide](#) Programak enpresa taldeak eta partzuergoak eratzten laguntzen du, produktuan eta/edo merkatuan berritzeko eta lehiakortasuna irabazteko negozioak dibertsifikatzeko helburuz. 2013, 2014 eta 2015ean 96, 56 eta 98 eskaera jaso dira; haietatik 52, 26 eta 65 onartu ziren eta eman ziren diru-laguntzak 1.498.411, 852.428 eta 1.615.285 eurokoak izan ziren, hurrenez hurren.

3. [Innobideak Pertsonak](#) Programa berriak (2015ean abiarazi zen) langileek enpresan parte hartzea bultzatzen duten enpresa proiektuei laguntzen die. 28 proiektu jaso ziren, haietatik 20 onartu ziren eta diru-laguntza 357.259 eurokoa izan zen.

4. 3 foru aldundiekin batera eta Euskaliten lankidetzaz, 2014an [Innobideak Kudeabide](#) Programa abiarazi zen, euskal ETE-en lehiakortasuna hobetzeko, kudeaketan hobetuz. Jardun den bi urteetan (2014 eta 2015) 361 (246 eta 115) egiaztatze egin dira, eta 130 (67 eta 63) proiektu pilotu eta finkatzeko 240 (106 eta 134) proiektu abiarazi dira. 50 langile edo gehiago dituzten enpresek finkatzeko eskatutako proiektuei dagokienez, 59 (17 eta 42) proiektu jaso dira, haietatik 47ri (12 eta 35) lagundu zaie, 2014an 101.538 euroko eta 2015ean 440.409 euroko diru-laguntzak emanez.

5. Euskalit-Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioak, Eusko Jaurlaritzarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan errotutako industria-enpresetan kudeaketa aurreratuaren sistemak ezartzea eta hobetzea sustatzen du, urtero 800.000 euro jarritz.

6. Jarduera lehenetsizat jo da kudeaketa aurreraturako aintzatespen sistema berri bat garatzea, aurreko bikaintasunerako aintzatespenen bilakaera gisa. Horretarako, kudeaketa eredu berria diseinatu eta zabaltzeko, laguntzeko eta aintzatespenen ekintzak gauzatu dira, eskema berria zabaltzeko eta balioesteko asmoz. Kudeaketa Aurreratuaren Sariaren helburua erakunderik aurreratuaren aintzatespena eta Euskal Autonomia Erkidegoko kudeaketa jardunbiderik onenak identifikatzea da eta Euskal Autonomia Erkidegoko kudeaketari egindako aintzatespenik handiena da.

7. [2014-2016 Enplegu Planerako](#) (Enplegua Suspertzeko Programa) 1.206 milioi euroko aurrekontua esleitu da. Aurreikusita dago 44.000 enplegu bultzatzea, 112.000ri eusten laguntzea eta 22.000 gazteri lehenengo lan esperientziarako aukera ematea. Haren ekimenak 6 programa operatiboren inguruan biltzen dira: ETE eta autonomoentzako Finantzazioa; Ekintzaitzaren Sustapena; Gazte Enpleguaren Sustapena; Enplegurako Prestakuntza; Enplegurako Elkartasun Funtsa; eta RENOVE Birgaikuntza Programa.

4. ekimena. Gobernuaren ekintzan lehiakortasuna hobetzeko ikuspegia txertatzea eragin ekonomikoa daukaten askotariko jarduketetan.

1.2.1 helburua. Lehiakortasuna eta industri politika

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. 2011n Tax lease-ren aurkako prozedura hasi zen. Harrezkero, ontzigintzaren sektoreak zalantza betetako eta babes juridikorik gabeko egoeran jardun behar izan du. Tax lease delakoa 2007 eta 2011 artean egon zen indarrean 2011n hasi zen prozedura, Holandako Lehiak eskatuta, eta Europako Batzordearen 2013-07-17ko Ebazpenaren ondorioz euskal ontzietatik arriskuan ikusi zuten euren jarduerara, euren iraupena, hots, jarraitzeko aukera eta euren etorkizuna.

2. Legegintzaldian auziari eutsi zitzaion, Eusko Jaurlaritzaren, Ontziolen Elkartearen, Pymar-en eta Europako Parlamentuaren arteko koordinaziorik handienaz, zalantzako egoera Europako herri batzuetako, hala nola Holandako, enpresen alde luzatzeko interesa zuten herrien lobbya indargabetzeko.

3. 2013ko irailean Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta Euskal Autonomia Erkidegoko ontzi-konpainietako eta ontzietako arduradunek eta enpresa-batzordeek osatutako lantalde bat eratu zen. Nazioartekotzeko, garapen teknologikoko eta negozioa dibertsifikatzeko estrategiari ekin zitzaion, beste kluster batzuekin ere partekatuta, eta merkatu globalak zailtasun handiak badakartza ere, hamabi uretaratze egin dira eta zorroan eskari berriak daude. Azkenean, Europar Batasuneko Auzitegiaren Epaiak Europako Batzordearen 2013-07-17ko erabakia baliogabetu eta legez kontrako jo zuen Tax Lease finantzaio sistema, zeinaren bidez espainiar estatuko ontzigintzaren sektoreari jasotako laguntzak itzultzeko eskatzen baitzitzaion.

4. 2013aren amaialdian Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresak hartzekodunen konkurtsoan sartuko zela iragarri zuen eta enpresaren itxieraren aurrean Eusko Jaurlaritzak inpaktu ekonomikoa eta soziala gutxiagotzen saiatu zen eta prest agertu zen Mondragon Korporazioarekin batera lan egiteko ondorioak arintzeko, erabakiak Korporazioari badagozkio ere. 2014ko uztailan Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresaren hartzekodunen konkurtsoa CATArekin alde esleitzea erabaki zen.

5. 2015eko ekitaldia amaitzean, MCC taldeak ia ia amaituta zeukan desagertutako Fagor ixtearen ondorioz lana galdu zuten zuzeneko 1800 langile baino gehiago birkokatze prozesua. CATAk gidatutako proiektu berriak garatzen jarraitzen du aurreikusitako planen arabera, bai inbertsio berriei, produktu berriak pixkanaka ateratzeari eta merkatuan birkokatzeari dagokienez, bai enplegua sortzearen ikuspuntutik. Egun hasierako proiektua amaitzean aurreikusita dauzkan 700 lanpostuetatik 300 sortu ditu.

6. Bizkaiko Altzairutegi Trinkoak (ACB - Sestao) 2016ko otsailean, altzairuaren merkatuaren "egoera txarra" dela-eta, jasango duen "aldi baterako geldialdi mugagabea" jakinarazi zuen Arcelor Mittaleko zuzendaritzak. Altzairugintzaren sektorearen egoerak sortzen duen kezka Bruselara eraman da. Europar Batasunak dumpingaren aurkako plan bat edukitzeko eskatu da, Europako siderurgiaren eta altzairugintzaren sektorea suspertzeko.

7. Eusko Jaurlaritzak Bruselara joan da energiak kontsumo intentsiboa duten industrietan daukan inpaktua lantzeko eta Batasunaren eremuan energia kostuen baldintzak homologatzeko, eta dumpingaren aurkako neurriak azkar hartzeko eskatu du, herrialde eta merkatu guztietan merkatu askean,

bai, baina aukera berdintasunean jokatzeko baldintzak ahalbidetzeko. Espainiako gobernuari energiaren erreformari ekiteko eta ekoizpen kostuari eta enpresen eta partikularren premiei gehiago egokitzen zaien tarifa energetikoa ezartzeko eskatu zaio.

5. ekimena. Enpresei laguntza ematea, moderniza daitezen, teknologia berriagoak eta ekoizpen prozesu helduagoak erabil ditzaten eta produktu, sistema edota prozesu berrien ikerketari eta garapenari ekin diezaieten.

1.2.1 helburua. Lehiakortasuna eta industri politika

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. [2014ko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoko RIS3](#) espezializazio adimentsurako estrategia onartu da, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko espezializazio adimentsurako lehentasun estrategikoak ezarri baititu. “Hazkunde adimentsua”n oinarritutako prozedura metodologikoak hartu dira; haren arabera ezartzen dira lehentasunak espezializazioaren arloan. Enpresentzako zein ZTBESri zuzendutako Teknologia programak sartu dira.

2. Enpresen I+Gri eta produktu, sistema eta prozesu berriei laguntzeko programak Batasuneko araudi berrira egokitu dira. 2016an [HAZITEK Programa](#) berriak (industria enpresek gidatutako proiektuen garapena), 68 milioi euroko deialdiarekin, aurreko Etorgai, Gaitek et NET ordeztu ditu eta enpresentzako bi laguntza lerro jaso ditu:

- Proiektu lehiakorak. I+G proiektu lehiakorak, produktu berrien garapena eta Oinarri Zientifiko Teknologikoko Enpresak abiaraztea sustatzeko. (38M.- €).
- Proiektu estrategikoak. I+G proiektu estrategikoak, lankidetzan edo bakarka eginak, ZTBP2020ren espezializazio eremuetan (30.- M €).

3. Enpresa ekimen berritzaile eta teknologikoki aurreratuei laguntzeko zenbait programa daude abian, Enpresa eta Berrikuntza Zentroekin (EBZ) eta 3 foru aldundiekin lankidetzan. [Ekintzaile Programa](#) eta [Barnekintzaile Programa](#)

1. 2013an 85 Ekintzaile ekimen eta 39 Barnekintzaile ekimen bultzatu ziren, 1.848.150 euro jarrita.
2. 2014an 99 Ekintzaile ekimen eta 36 Barnekintzaile ekimen bultzatu ziren, 2.109.800 euro jarrita.
3. 2015ean 92 Ekintzaile ekimen eta 48 Barnekintzaile ekimen bultzatu ziren, 2.100.750 euro jarrita.

4. [Basque Country 4.0 Programaren](#) helburua “hornitzaile teknologiko”en teknologia manufaktura-industriako enpresetarantz transferitzeko proiektuei laguntzea da, fabrikazio aurreratuari aplikatutako EIKTen eremuan, merkatuari bizkorrago transferitu ahal izateko I+G proiektuen emaitzak. 2015ean 18 eskaera egin ziren; haietatik 16 onartu ziren eta haien diru kopurua 1.883.928 eurokoa izan zen. 2016an berariazko laguntza-programak ezarri dira bakar-bakarrik Industria 4.0 proiektuetarako, eta haien diru kopurua 2.211.516 eurokoa da.

5. Industria Digitala Programaren xedea manufaktura-industriako enpresa txiki eta ertainetan, ETE-etan, EIKTak sartzea da. 2015ean, EAeko 313 manufaktura-enpresak 9 milioi euro inbertitu dute guztira EIKTetan. Enpresa horiek 2015ean egindako 328 modernizatze proiektuek 2,67 milioi euro jaso dituzte.

6. Lankidetzak Digitalak Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak (EIKT) euskal enpresen sarean txertatzen laguntzen du, enpresa eta/edo profesionalen elkarteek bultzatutako proiektuei lagunduz. Haren aurrekontua 670.000 eurokoa da eta 50 proiekturi laguntzen die. Onuradunek ETEak izan behar dute eta gutxienez 10 konpainia izan behar dituzte elkartuta.

7. SPRI-Enpresa Digitala Programaren xedea teknologia digitalen abantailak zabaltzea eta euskal

enpresei gerturatzea da. Horretarako, 274 sentsibilizazio jarduera antolatu ditu 2015ean eta haietan 9.000 profesionalak parte hartu dute. Bi biltzar egin direla aipatu behar da: Enpresa Digitala Invest eta Indusmedia.

6. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa traktoreak sendotzea, euskal ekonomiaren globalizazioa sendotzeko eta hornitzaileen katea dinamizatzeko gaitasunetik abiatutik.

1.2.1 helburua. Lehiakortasuna eta industri politika

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. [Innobideak-Lehiabide](#) Programak enpresa partzuergoak sortzen laguntzen du, produktu eta merkatuetako berrikuntza prozesuak (dibertsifikazioa) bultzatzeko. Produktu, zerbitzu eta/edo merkatuko dibertsifikazioa ahalbidetuko duten proiektuak egitea sustatzea bilatzen du, 2013, 2014 eta 2015ean 96, 56 eta 98 eskaera jaso dira; haietatik 52, 26 eta 65 onartu ziren eta eman ziren diru-laguntzak 1.498.411, 852.428 eta 1.615.285 eurokoak izan ziren, hurrenez hurren.

2. Eusko Jaurlaritzak eta Petronor-Repsolek Oil&Gas sektoreko hornitzaile plataforma bat eratu dute. Esparru hitzarmen bat sinatu da Oil&Gas sektorean hornitzaileak garatzeko plan bat abiarazteko eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen (ZTBES) eta Repsolen Teknologia Zentroaren (RTZ) arteko lankidetzeta esparru bat egituratzeko.

3. Eusko Jaurlaritzak eta Daimler Mercedes Benz Taldeak lankidetzeta indartu dute zenbait eremutan, hala nola euskal hornitzaileen sarean, lanbide heziketa dualean eta I+G+Bn. Automobilgintzako multinazionalaren teknologien garapenaren zati bat Euskal Autonomia Erkidegoan egiteko aukera aztertu da. Euskal Autonomia Erkidegoak gaitasunak dauzka enpresari lagundu eta balio erantsia emateko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen bitartez. Sareak automobilgintzako zenbait teknologiei buruzko lankidetzako ikerketan bakar-bakarrik diharduen berriazko zentro bat dauka, Automotive Intelligence Center (AIC), hain zuzen ere. Euskal enpresa hornitzaile homologatuek Mercedes Benzen produktu eta zerbitzuen garapenean parte hartzeko aukera aztertzen ari da.

4. Iberdrolak (Iberdrola Distribución Eléctrica), Eusko Jaurlaritzarekin, Energiaren Euskal Erakundearekin eta energiaren klusterraren parte-hartzearekin batera, [Bidelek Sareak](#) ekimena bultzatzen du. Ekimenak sare adimentsuak jartzen dizkie hiri eremuei energia elektrikoaren horniduraren eraginkortasuna eta segurtasuna handitzeko. 2012an hasi zen sare adimentsuak Euskal Autonomia Erkidegoan hedatzen. 2013an automatizazio aurreraturako plan bat abiarazi da, azpiestazioak berrituz. 2015ean Bidelek Sareak Gipuzkoan hedatzen hasi zen. Horri esker, 415.000 kontagailu, 2.400 transformazio-zentro eta hiru azpiestazio instalatu dira guztira proiektuan, guztizko 60 milioi euroko inbertsioarekin.

5. Eusko Jaurlaritzak Mexikora egin duen enpresa-bisitaren esparruan, jardunaldi bat egin da energiaren sektoreko euskal hornitzaileek, Mexikoko erakunde eta enpresa nagusien eskutik, Amerikako Erdialdeko herrialde horretan onartu berri den erreforma energetikoaren ondoren euren produktuak, zerbitzuak eta teknologiak eskaintzeko ematen zaien aukera ezagut zezaten. 50 euskal enpresa baino gehiago joan ziren jardunaldira. Erreforma energetikoaren ondorioz, Mexikoko Gobernuak berriz diseinatu beharko du energia-industria, eta horrek aukera berriak ekarriko ditu beren produktuak, zerbitzuak eta teknologiak eskaini ditzaketen enpresentzat eta antolakundeentzat. Energia berriztagarriak Mexikoko mix energetikora sartzeko, azpiegitura elektriko berrietan ere inbertsioak egin beharko dira, eta horrek ateak irekiko dizkie euskal enpresei garraio eta banaketa elektrikoetako sektoretan, bai eta energia berriztagarrietakoetan ere.

7. ekimena. Euskal enpresak eta haien erabaki zentroak gure herrialdean mantentzeko laguntza eta babesa ematea.

1.2.1 helburua. Lehiakortasuna eta industri politika

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria azpisailburua)

Jarduketak

1. Industriari laguntzeko tresna multzoaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoa industriarentzat lurralde adiskidetsua bihurtzea da. Estrategia bat ezarri da gure enpresei eta eragile sozioekonomikoei, erronka berriei aurre egitea eta lehiarako abantaila iraunkorak eraikitzea errazteko.

- I+G politika: Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistema, Europak aintzatetsia eta homologatua, enpresa bilbeari lotua.
- Zerga-politika: Euskal Autonomia Erkidegoak autonomia fiskala dauka. Autonomia horrek enpresen jarduerak egiten duen esfortzua eta euskal gizarte osoari egiten dion ekarpena aintzatesten ditu.
- Finantzazioa: Enpresa handien nahiz ETE-en premia orokorretarako zein berariazko premietarako tresnak.
- Enpresaburuekiko konpromisoa: Euskal erakundeek konpromiso argi eta irmoa dute lagun egiteko eta balioesteko.

2. [“Euskadi 2020” Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru-programak](#) Eusko Jaurlaritzak enpleguarekin eta ekonomia suspertzearekin hartutako konpromisoei eman dien erantzuna da. Hainbat gauza barnean hartzen dituen programa da. Herri estrategia gisa taxutzen da, eta 2 multzotan garatzen da: Ekonomia suspertzeko plana eta ekonomia suspertzeko 4i Estrategia. Ekonomia sustatzeko politikak lehiakortasunerako funtsezko 4 eragiletan indartu dira.

- Berrikuntza: ezagutza sortzeko eta hura balio ekonomiko eta sozial bihurtzeko iturri gisa.
- Industrializazioa: industria sena berreskuratzean eta ekonomia produktibo adimentsuari, garapenerako motor gisa, laguntza irmoa ematean oinarrituta.
- Nazioartekotzea: euskal enpresen arriskuak dibertsifikatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko berme gisa.
- Inbertsioa: I+G+B bultzatzeko, teknologia eta ezagutza sortu eta transferitzeko, eta azpiegiturak eta proiektu estrategikoak garatzeko palanka gisa.

3. [2014-2016 Industrializazio Plana](#) egin da, jaurlaritzak euskal industriari laguntzeko duen tresna gisa, gure ekonomiako funtsezko sektore baten errealitate konplexuari behar den erantzuna emateko eta haren presentzia indartzeko, lurraldean txertatzeko helburuz. Euskal industriaren lehiakortasunaren garapenerako gako estrategiko eta operatiboei buruzko analisi, hausnarketa eta erkaketako prozesu sistematikoa egin da, eta eremuko eragile nagusiek ere parte hartu dute. Bost ardatz estrategiko dauzka: (1) ETE-en finantzazioa eta berregituraketa (2) Industria proiektu estrategikoak bultzatzea (3) Industria aurreratua finkatzea (4) Industria eta energia testuinguru lehiakor bat sortzea (5) Pertsonen eta giza kapitalaren alde egitea. Planak 575 milioi euro dauzka.

8. ekimena. Gizarte, ekonomi eta industri garapenean lurralde eta eskualdeen arteko oreka handiagoa sustatzea, gune deprimituen birsorkuntza bultzatuz.

1.2.1 helburua. Lehiakortasuna eta industri politika

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria azpisailburua)

Jarduketak

1. Balio estrategiko handiko azpiegiturak sortzen dituen lurzoru funts estrategiko bat finkatzea. Onartutako proiektuak, haien hornidura ekonomikoarekin batera (30.050.500.- €), eta 2015-012-31rako zenbaterako bete diren eta egin zaien jarraipena hauek dira (17.456.677.- €):

- Araba: Kanpezu (2.200.000.- € hasierako aurrekontua, 1.922.431.- € egindako inbertsioak) eta Arasur (2.307.590€ hasierako aurrekontua, 2.070.083.- € egindako inbertsioak).
- Bizkaia: ARN-Burtzeña (2.000.000.- € hasierako aurrekontua, 218.378.- € egindako inbertsioak), Loiu (6.626.212.- € hasierako aurrekontua, 6.130.011.- € egindako inbertsioak) eta Urduliz (7.000.000.- € hasierako aurrekontua, 339.245.- € egindako inbertsioak).
- Gipuzkoa: Estubegi – Hernani (3.000.000.- € hasierako aurrekontua, 493.529.- € egindako inbertsioak), Irita – Zarautz (1.000.000.- € hasierako aurrekontua, 1.000.000.- € egindako inbertsioak) eta Galarreta – PT Donostia (5.916.698.- € hasierako aurrekontua, 5.283.000.- € egindako inbertsioak)

2. Alde behartsuetako -parametro ekonomikoen arabera- lurzoru kutsatuak leheneratzeko programarako Sail arteko Batzordea abiarazi da.

3. [Bideratu Berria](#) krisian dauden enpresak berregituratzeko eta bultzada berria emateko laguntza-programa, EAEn enplegua eta zailtasunetan dauden ETE-en jarduera finkatzeko (euren jarraikortasuna bermatzeko diru-laguntza horietan azken aukera duten konpainiak). Helburua krisian dauden eta desagertzea saihesteko kanpoko esku-hartzea behar duten enpresek egindako berregituratze planetan sartutako neurriak aplikatzeak eragindako kostuak finantzatzea da (uztailaren 29ko 158/2014 Dekretuan aurreikusitako aurrerakin itzulgarri gisa). 2015ean 4 eskaera onartu ziren eta berregituratze planen balioa 4,67 milioi eurokoa izan zen. 400 lanposturi eutsi zaie eta 2,24 milioi euroko diru-laguntza eman da. 2016ko ekitaldirako beste deialdi bat abiarazi da, 1.000.000 eurokoa.

4. [Indartu Programa](#) EBk “behartsu” katalogatu dituen aldeei dago zuzenduta, eta haren bidez diskriminazio positiboa egin daiteke langabezia egoera larritasun handienaz pairatzen duten alde behartsuetan. Helburua enplegua sortzen duen inbertsio produktiboarentzako pizgarriak ematea da, Nerbioi itsasadarraren Ezkerraldean (Bizkaia) eta Oiertzualdean (Gipuzkoan). Lehentasuna dute produktua eraldatzeko prozesua hobetzeari, gaitasunak handitzeari edo jarduera berriak garatzeari zuzenean lotutako inbertsioek. Enplegua sortzea funtsezko faktorea da Programa horretan.

5. [Indartu 2015](#) Programaren deialdian 8 milioi euro aurreikusi dira, eta 89,1 milioi euroko eragindako inbertsioa lortu du, 10 industria proiektuekin. Proiektu horiei esker industriaren eremuan 426 lanpostu berri sortu eta 2.374 lanposturi eutsi ahalko zaie. 2016rako 8 milioi euroko beste deialdi bat egitea aurreikusi da, industrializazioa indartu eta enplegu berria sortzeko helburuz.

1. ekimena. Prestakuntzaren, garapen teknologikoaren, nazioartekotzearen eta lankidetzaren gaineko premiei erantzuteko klusterren estrategia berrabiaraztea.

1.2.2 helburua. Klusterren politika

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. 90eko hamarkadan kluster politikak aplikatzen hasi zirenetik sendotu egin da euskal ehun industrialia, oso tresna analitiko erabilgarria izan baita ekoizpen jardueren konplexutasunari kohesioa emateko eta jarduera horien eta lurraldearen arteko harremanak errazteko. Eredu horren bilakaeraren ondorioz 22 enpresa-talde sortu dira: ACICAE, ASCENE, EIKEN, GASTELIA, ACLIMA, ASOCIACION ARMERA, GISE, HABIC, AEVC, ASVEFAT, ESKUIN, HEGAN, AFEF, AVIC, ESLE, HETEL, FVEM, EIDE, FLUIDEX, IBAIA, AFM, CAMARA DEL LIBRO, FORO MARITIMO VASCO, LANGUNE, AGRAGEX, CLUSTER DE MOVILIDAD, FUNDIGEX, MAFEX, UNIPOINT, CLUSTER ENERGIA, GAIA, SIDEREX.

2. Elkartzen programak xede hauek dauzka: Euskadin kokatutako enpresek kanpo-merkatuetan garatzen dituzten produktu eta zerbitzuen merkatu-kuota handitzea, aipatutako merkatuetan euskal produktu eta zerbitzuen agerpena sendotzea, eta euskal produktu eta zerbitzuak sustatzeko eta beren irudia hobetzeko ekimenak bultzatzea. [Elkartzen programaren bidez 2014an](#) nazioartean bultzatutako jardueretan ondoko hauek aipatu behar dira: 121 azoka kanpoan, zuzeneko 176 misio komertzial eta alderantzizko 59 misio komertzial. [Elkartzen programaren bidez 2015ean](#) egindako lanetatik ondoko hauek azpimarratu behar dira: 82 azoka kanpoan, zuzeneko 146 misio komertzial eta alderantzizko 62 misio komertzial.

3. Lankidetzako ekintzak Klusterraren Plan Estrategikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren ekonomiaren eta lehiakortasunaren inguruko estrategian zehaztutako jardun-arlo estrategikoen ondoriozko logikaren matritzetik sortzen dira. Ekintzetan lehentasuna ematen zaie nazioartera zabaltzeari, teknologia berritzeari etya enpresak eraberritzeari.

4. 2015ean, Euskal Autonomia Erkidegoan abian jarri zenetik 25 urte betetzen zirela, [Basque Cluster Day](#) ekitaldiaren lehen edizioa antolatu zen. Asmoa klusterren inguruko gaur egungo politiken bilakaeraren inguruko hausnarketa egitea zen, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoa aintzat hartuta, eta egungo eta etorkizuneko erronkei buruz gogoeta egitea espezializazio adimendunerako ikerketa eta berrikuntzaren strategiaren barruan (RIS3).

5. Lan egiten da eten gabe klusterren arteko lankidetzak sustatzeko; esaterako, Energiaren Klusterrak eta Makina-erremintaren Klusterrak baterako estrategia finkatzea lortu nahi da.

2. ekimena. Klusterrak sortzeko politika egokitzea, betiere lehentasunak ezarriz eta finantzazio sistema berriak abian jarriz enpresen inplikazio eta esku-hartze handiagoarekin.

1.2.2 helburua. Klusterren politika

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren [2000ko azaroaren 28ko Aginduan](#) eta beraren aldaketetan (2007-06-01, 2008-02-14 eta 2012-11-28) Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterretako enpresa-taldeentzako laguntzak arautzen dira. Beste alde batetik, 2009-10-20ko Aginduak (2010-04-21eko Aginduak aldatzen duenak) Euskal Autonomia Erkidegoko aurre-kluster sektorialtzat jotzen diren enpresa elkarteei bideratutako laguntzak arautzen ditu.

2. Egungo kluster sarea hobetzea. 2014ko bigarren seihilekoan eta 2015ean zehar klusterrei laguntzeko politika berria aplikatu da. Politika horren helburu nagusia lehiakortasuna lankidetzaren bidez bultzatzea da, interes-talde guztien beharrianak aintzat hartuz. Klusterrak eragile nagusiak dira, enpresarien arteko lankidetzari ahalbidetzeko. Eusko Jaurlaritzaren aliatuak dira, kluster politika ezartzeko. Hiru jardute-eremutan jardun behar dute. Hona hemen eremuok: nazioartera zabaltzea, berrikuntza teknologikoa eta enpresa-berrikuntza.

3. Horren guztiaren ildotik 2016an klusterrak eratzeko laguntzak emateko programa berria abiarazi da, 2015ean eta aurreko bi urteetan indarrean egon diren bi aginduen ordezkia izan dadin.

4. Euskal klusterrak eten gabe hobetzen ari dira sortze beretik. Bilakaera horretan beraien kudeaketak lankidetzaren piramidera jo du apurka-apurka jardun-arlo estrategikoetarako prestatutako ekintza-planak gauzatzeko. Hauxe da helburua: kideen arteko lankidetzari sustatzea kluster bakoitzaren erronka estrategikoei heltzeko, lehentasuna modu nabarmenean jarrita ETEak sendotzeko ahaleginetan Tresna honek balioa sortzen du bere ingurunean erakunde publikoen eta entitate pribatuen arteko lankidetzari esker, bere jarduna erakundeen politika estrategikoen aplikazioarekin lerratzuz: Industrializazio Plana; nazioartera zabaltzea; zientzia, teknologia eta berrikuntza; RIS3 – Espezializazio Adimenduna; etab.

5. Euskal administrazioek klusterren lana bultzatzen dute, baina helduak direla kontuan edukiz eta onartuz. Klusterrek behar diren zerbitzuak eskaintzen dizkie ordezkatzeko dituzten industria-sareko agenteei prestakuntzaren, lankidetzaren, berrikuntzaren eta nazioartera zabaltzearen arloetan; horri esker tresna erabilgarri eta baliotsuak dira atxikitako enpresentzat eta enpresok konpromiso sendoagoa hartzen ari dira finantzaketarako.

6. Pilotaje-taldea eratu da buruzagia izan dadin Basque Industry 4.0 strategiaren kudeaketan, jarraipenean eta ebaluazioan. Kluster hauek dira kideak: AFM, ACICAE, Gaia eta Energiaren Klusterra. Batzorde honetan erakunde publikoen eta entitate pribatuen ordezkariak daude: Eusko Jaurlaritza (SPRI), Tecnalia eta Ik4 aliantza teknologikoak, Innobasque agentzia, Margune IKZ, Mondragon Korporazioa (Mondragon Unibertsitatea), eta klusterren arduradunak.

1. ekimena. ETE-ek eta kooperatibek finantzazioa eskuratzeko dauzkaten bideak erraztea ETE-en eta autonomoen zirkulatzailerako finantza erakundeekin hitzartutako finantzazio funtsaren bitartez.

1.2.3 helburua. ETE-ei laguntzea

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Gauzatu - Industria Programa](#): oinarri teknologikoko ETE eta ETE berritzaileen sorrera eta garapena bultzatzea. Programa honen helburua oinarri teknologikoa duten ETEak edota ETE berritzaileak sortzen laguntzea da, etorkizunerako lehiakortasun-estrategia gisa. Horrez gainera enplegua sortzen duen inbertsioa bultzatzen du eta eskualde ahulenak indarberritzen laguntzen du, lurralde-kohesioa sendotzeko asmoarekin. Erauzketako, eraldaketako eta ekoizpeneko enpresa txiki eta ertainekin edo era horretako enpresentzat zerbitzu teknikoetako prozesuak egiten dituztenekin egiten du lan, eta teknologia-oinarrikotzat edo berritzailetzat jotzen diren informazioaren eta komunikazioen gizarteko ETE-ekin ere bai Enplegua sortzen duten inbertsioek jasotzen dute finantzabidea: aurrerakin itzulgarria (% 25 - % 35). Hauexek izan dira 2013-2015 aldiko emaitzak: 140 enpresek jaso dute laguntza; diru-laguntza jasotzeko moduko inbertsioen guztirako zenbatekoa 271,01 M.- € izan da, 1.764 enplegu izan dira sortzeko eta aurrerakin itzulgarrien zenbatekoa 77,79 M.- € izan da. 2016ko ekitaldian beste deialdi bat egingo da eta 26.000.000 euro emango dira.

2. [Lanpar Funtsa](#) sortu zen; arrisku-kapitaleko funtsa da eta beraren xedea langileek enpresan eta ekonomia sozialean parte hartzen laguntzea da. 2014an sortu zen; hasierako ekarpena 3.500.000.- €-koa izan zen (3.000.000.- € Eusko Jaurlaritzak eta 500.000.- € Aslek). 2015ean enpresa bati eman zitzaion laguntza: 500.000.- €-ko kapitala/partaidetza-mailegua (43 enplegu mantendu).

3. Hitzarmenak sinatu dira finantza-entitateekin ETEak finantzatzeko (inbertsioak eta zirkulatzailerak). Eusko Jaurlaritzak eragiketa bakoitzaren arriskuaren % 60 edo % 75 hartzen du, hurrenez hurren.

4. Elkarren bermerako sozietateak erabili dira. Elkarren bermerako sozietateekin indarrean dagoen hitzarmenaren bidez enpresak finantzatzeko programak mantendu dira eta inbertsioetarako eskatutako maileguak abalatu dira.

5. [Industriarako finantza-laguntza \(Afi\)](#). Honen helburua finantza-entitateek inbertsioetarako edo zirkulatzailerak behar diren maileguak ematen laguntzea da; laguntza honetan datza: hobaria ematen da interes-puntuetan. Hauexek izan dira 2013-2015 aldiko emaitzak: 640 eskaera onartu dira; diru-laguntza jasotzeko moduko inbertsioen guztirako zenbatekoa 131,62 M € izan da, emandako maileguen zenbatekoa 108,45 M € izan da eta 3,18 M €. Finantza-merkatuak nola dauden ikusita, 2016ko ekitaldirako programa ezabatu da.

6. Arrisku-kapitala eta garapen-kapitala sustatzea enpresak sortzeko eta hazteko, eta enplegua sortzen duen inbertsioa bultzatzea, enpresa hazkundera balio erantsiko jardueren traktoreen garapena sendotzen dituzten partaidetza estrategikoetan. 2013an 3 enpresari eman zitzaion laguntza: 22,10 M-ko kapitala/partaidetza-mailegua eta 233 enplegu mantendu. 2014an 2 enpresari eman zitzaion laguntza: 3,40 M-ko kapitala/partaidetza-mailegua eta 184 enplegu mantendu.

2. ekimena. ETE-ei laguntza integrala emateko programa bat sustatzea, besteak beste honako helburu hauek izanda: belaunaldi berrien txandakatzea erraztea, ekoizpen lerro berritzaileak abiaraztea, kontratazio berriak bultzatzea, erakunde horietako pertsonen zuzendaritza trebetasunak indartzea eta foru ogasunekin batera euren fiskalitatea hobetzea.

1.2.3 helburua. ETE-ei laguntzea

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Industrializazio Plana 2014-2016](#) prestatu da. Eusko Jaurlaritzak euskal industriari laguntzeko erabiliko duen tresna da. Plan hau gure ekonomian funtsezkoa den sektore baten errealitate konplexuari eman beharreko erantzuna da. Plana prestatzeko euskal industriaren lehiakortasuna garatzeko gako estrategikoak eta operatiboak aztertu dira eta horiei buruzko gogoeta eta alderatzea egin dira prozesu sistematiko batean; prozesuan arloko eragile nagusiek hartu dute parte. 5 ardatz estrategiko dauzka: (1) ETE-en finantzaketa eta berregituraketa; (2) Industria-proiektu estrategikoak bultzatzea; (3) Industria aurreratua sendotzea; (4) Lehiakortasuna ezaugarri duen industria- eta energia-inguruabarra sortzea; (5) Pertsonen eta giza kapitalaren aldeko apustua. Plana gauzatzeko 575 M €-ko zuzkidura egin da.

2. [Basque Funtza](#). Arrisku-kapitaleko funts honen xedea enplegua sor dezaketen proiektu bideragarriak finantzatzea da, gaur egungo nazioartera zabaltzeko joera kontuan hartuta: bat-egiteak, aliantzak eta partzuergoak. Proiektuek eragina izan behar dute enpresaren tamainan eta ekintzaitza bultzatu behar dute kapital-ekarpen edo partaidetza-maileguen bitartez. 2014an sortu zen eta hasierako ekarpena 28.400.000.- €-koa izan zen (dena jarri zuen Eusko Jaurlaritzak). Hauexek izan dira 2013-2015 aldiko emaitzak:

- Lagundutako enpresak: 2014an 2 eta 2015ean 21.
- Kapitala/partaidetza-mailegua: 5,80 M€ (2014) eta 9,65 M€ (2015).
- Mantendutako lanpostuak: 149 (2014) eta 2.071 (2015).

3. 2014an Renove Makineria programa abiarazi zen Programa honen bidez laguntzak ematen zaizkie ETEei: industria-makina berriak erosteko egiten dituzten inbertsioen % 15. Programa honen xedea da produkzio-ekipoetan modernizazio-maila altua lortzea eta, aldi berean, ekipo horiek laneko segurtasun eta osasun arauetara egokitzea. Industria arloko ETE-ek jaso dezakete programa honen onura: makina berriak erosteko gastuen % 15eko diru-laguntza (gastuak frogatu egin behar dira).

- 2014: 333 eskaera onartu ziren; diru-laguntza jasotzeko moduko inbertsioen guztirako zenbatekoa 104,28 M € izan zen, 10.814 lanpostu mantendu ziren. Diru-laguntzen zenbatekoa, guztira: 9,73 M €.
- 2015: 271 eskaera onartu ziren; diru-laguntza jasotzeko moduko inbertsioen guztirako zenbatekoa 81,05 M € izan zen, 7.732 lanpostu mantendu ziren. Diru-laguntzen zenbatekoa, guztira: 9,27 M €.

2016ko ekitaldian beste deialdi bat egingo da eta 8.000.000 euro emango dira.

4. Belaunaldi-txandaketarako programa. Honen bidez hausnarketa-prozesuak sustatzen dira mikroenpresetan eta enpresa txiki eta ertainetan kudeaketaren edota jabetzaren ondorengotza planifikatzen laguntzeko, ondorengotza era ordenatuan egiteko eta enpresen jarraipena ziurtatzeko Xedea irteten diren enpresaburuen interesak eta sartzan direnenak (oinordekoak zein ekintzaile berriak) adostea da. Hauexek izan dira 2013-2015 aldiko emaitzak:

- 2013: 31 eskaera onartu ziren; diru-laguntzen zenbatekoa 0,14 M € izan zen eta 812 lanpostu mantendu ziren.

- 2014: 33 eskaera onartu ziren; diru-laguntzen zenbatekoa 0,16 M € izan zen eta 747 lanpostu mantendu ziren.
- 2015: 30 eskaera onartu ziren; diru-laguntzen zenbatekoa 0,17 M € izan zen eta 666 lanpostu mantendu ziren.

3. ekimena. Enpresen arteko lankidetzarako eta elkarlanerako politikak erraztea eta bultzatzea ETE-ek tamaina eta dimentsio ezin hobea lor dezaten, modu integralean eta arruntagoan ikerketa, berrikuntza eta nazioartekotze prozesuetan sartuko direla bermatzeko.

1.2.3 helburua. ETE-ei laguntzea

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. [Industrializazio Plana 2013-2016](#) deritzonaren gidalerroen arabera Innobideak estrategiak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen lehiarako hobekuntza sustatzen ditu, batez ere ETE-ena, dibertsifikaziorako laguntza, pertsonen parte-hartzea eta kudeaketaren hobekuntza direla bide, krisi-inguruneari aurre egiteko eta etorkizuneko garapen lehiakorretarako oinarri sendoak ezartzeko globalizazioaren esparruan. Programei dagokienez, [Innobideak Lehiabide](#) izenekoak produktuen, zerbitzuen edota merkatuen dibertsifikazioa ahalbidetuko duten proiektuak egin daitezten sustatzea du helburu. Programa horretan 2013an, 2014an eta 2015ean hurrenez hurren 96, 56 eta 98 eskaera jaso dira, eta horietatik 52, 26 eta 65 onartu. Guztira 1.498.411 euroko, 852.428 euroko eta 1.615.285 euroko diru-laguntzak eman dira, hurrenez hurren. 2016an programaren 4. edizioari ekin diogu.

2. EAEko ETE-ei eraberritzeko eta eskala globaleko merkatuetara zabaltzeko erronkei aurre egiten laguntzen zaie. Egoera berri honetan lehiatzeko ezinbestekoa da pentsamolde berri bati heltzea: lankidetzak. Lehiatu egin behar da eta lankidetzan jardun, indartsuagoak izateko, aukera gehiago edukitzeko, hazteko eta nazioartean nagusitzeko gauza den produktu-sorta eskaintzeko.

3. Elkartzen programak xede hauek dauzka: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek kanpo-merkatuetan garatzen dituzten produktu eta zerbitzuen merkatu-kuota handitzea, aipatutako merkatuetan euskal produktu eta zerbitzuen agerpena sendotzea, eta euskal produktu eta zerbitzuak sustatzeko eta beren irudia hobetzeko ekimenak bultzatzea.

- [Elkartzen programaren bidez 2014an](#) nazioartean bultzatutako jardueretan ondoko hauek aipatu behar dira: 121 azoka atzerrian, zuzeneko 176 misio komertzial eta alderantzizko 59 misio komertzial.
- [Elkartzen programaren bidez 2015ean](#) nazioartean bultzatutako jardueretan ondoko hauek aipatu behar dira: 82 azoka atzerrian, zuzeneko 146 misio komertzial eta alderantzizko 62 misio komertzial.

4. Global Lehian programak barruan hartzen ditu umotze-fase guztiak, ETE-en lehiakortasuna hobetzeko, bakarka nahiz elkarlanean nazioartekotu daitezten. Azpimarratzekoak dira sustapen- eta salmentataldeentzako eta esportazio-partzuergoentzako laguntzak, horrelako elkarteetan gauzatzen baita enpresen arteko lankidetzak, tamainari lotutako zailtasunak saihestu ahal izateko, EAEko enpresen nazioartekotze-ekimenetan. Guztira 357 eskaera aurkeztu ziren [2014. urtean](#), eta horietatik 319k baiezko ebazpena jaso zuten. 63 hasierako fasean, 245 sendotzeko fasean, eta 11 ezartzeko fasean. 32 Arabakoak dira, 174 Gipuzkoakoak eta 113 Bizkaikoak. Guztira 535 eskaera aurkeztu ziren [2015. urtean](#), eta horietatik 465ek baiezko ebazpena jaso zuten. 55 hasierako fasean, 396 sendotzeko fasean, eta 14 ezartzeko fasean. Haietatik 47 Arabakoak dira, 253 Gipuzkoakoak eta 165 Bizkaikoak.

1. ekimena. Industri politika, ekonomi sustapena eta etengabeko prestakuntza biltzen dituzten programa zehatzak bultzatzea.

1.2.4 helburua. Arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren politika

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. [SPRI - Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietateak](#) programa hauekin lotutako proiektuak aztertzen laguntzen du:

- Gauzatu - Kanpo Ezarpenak izenekoaren helburua da enpresen nazioarteko lehiakortasuna hobetzea, atzerrian egiten dituzten ezarpen produktiboak babestuz.
- Renove Makineria: 2015ean 9 M € eman ziren industria-makinak berritzeko. 2014an 420 enpresek egin zuten berrikuntzaren aldeko apustua (489 makina berri); 107,7 M €-ko inbertsioa eragin zen, uste zena baino % 70 gehiago.
- Inbertsiorako finantza-laguntza
- Belaunaldi-txandaketa enpresak eskualdatzen laguntzeko, negozioen eta lanpostuen jarraitasuna bultzatzeko, eta oinordetzaren baldintzak eta prozedura arautzeko 2013an 31 proiektu, 2014an 33 eta 2015ean 30.
- “Invest in Basque Country” programaren bidez 2014an baino lau aldiz inbertsio gehiago erakarri zen: 137,05 M E. Horri esker 608 lanpostu sortu ziren eta 1.027 mantendu ziren.

2. SPRILUR-en jardura nagusia enpresa-industrialdeen garapena sustatzea eta kudeatzea da. Horretarako zoru kutsagarriak lehengoratzeko programekin lan egiten du eta industria-lurzorua kudeatzen du. Hain zuzen ere, lurzoru urbanizatua egokitzen du eta pabilioi modularrak eta bulegoak eraikitzen ditu enpresa-jarduerak egiteko kokapen egoki eta egokituak behar dituzten enpresentzat, eta hartara enpresa horiek beren lehiakortasuna hobetuko dute.

3. Garapenerako Euskadiko Kapital Sozietatea-SOCADE erakundeak eta Gestión de Capital Riesgo del País Vasco-SGEIC erakundeak (EAEn arrisku-kapitaleko jardura sustatzen eta egiten duen erakundea) inbertsio estrategikoetarako eta ekonomia sustatzeko funtsen diruzaintza-kudeaketan jarduten dute:

- Arrisku Kapitaleko Basque Funtsa, 5.400.000 euroz hornitua, enpresei laguntzeko tresna bat da. Funtsak ematen dizkie enpresei, kapital sozial eran edo partaidetza-maileguren bidez.
- Gauzatu Industria: oinarri teknologikoko ETEak eta ETE berritzaileak sortzea eta garatzea bultzatzean du.
- Bideratu: Krisian dauden enpresak berregituratzeko eta indarberritzeko laguntzak.
- Lanpar funtsa: laguntzak ematen ditu langileek enpresen kapital sozialean parte har dezaten; 2,5 milioi euro.

4. Klusterrekin lankidetzaren aritzea eta baterako jarduketak prestatzea; horretarako oraingo klusterren sarea hobetzen ari gara. 2014ko bigarren seihilekoan eta 2015ean zehar klusterrei laguntzeko politika berria aplikatu da. Politika horren helburu nagusia lehiakortasuna lankidetzaren bidez bultzatzea da, interes-talde guztien beharrezkoak aintzat hartuz. Klusterrak eragile nagusiak dira, enpresarien arteko lankidetzaren ahalbidetzeko. Eusko Jaurlaritzaren aliatuak dira, kluster politika ezartzeko. Hiru jardute-eremutan jardun behar dute. Hona hemen eremuok: nazioartera zabaltzea, berrikuntza teknologikoa eta enpresa-berrikuntza. Horren guztiaren ildotik 2016an klusterrak eratzeko laguntzak emateko programa berria abiarazi da, 2015ean eta aurreko bi urteetan indarrean egon diren bi aginduen ordezkaria izan dadin.

2. ekimena. Talentua sustatzea, bultzatzea eta eskuratzea, "Basque-Talentia" sarearen bitartez, sektore estrategikoei eta nazioartean hazteko potentzial handia duten sektoreei ere aparteko laguna emanez.

1.2.4 helburua. Arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren politika

Arduraduna: Estibaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Euskadi 2020 ZTBP](#) planaren ildo estrategikoetako bat zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloetako giza kapitalaren garapena bermatu beharra da. Ikertzaileen kualifikazioa trebatzea eta hobetzea ezinbestekoa elementuak dira sistema gauza izan dadin ezagutza zientifikoa eta teknologikoa sortzeko. Gogoan edukita nolako masa kritikoa eta nolako gaitasunak behar diren lehiatzeko eta balio-katean lehenago dagoela ezagutza berrikuntza baino, ikerketa zein berrikuntza hobetu behar dira, identifikatutako lehentasunekin eta balio-nitxoekin bat etorritik. Gainera kontuan eduki behar da ikertzaileak enpresa-ehunean eta agente zientifiko-teknologikoetan sartu behar direla sortzen den ezagutza zabaltzeko eta garatzeko eta, beste alde batetik, ihes egiteko arriskua txikitzeko, hau da, talentua beste ingurune eta sistema erakargarriago batzuetara ez aldentzeko.

2. Ezagutzak sortzen dira zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren sistemako diziplina guztietan, eta batez ere RIS3 esparruetan. Ildo honek hiru eremuetan eragiten du: talentua sortzea hementxe bertan, oinarritzko gaitasunak garatzea eta graduondoko prestakuntza sendotzea gako-eremuetan.

3. Azken urteetan talentua erakartzeko eta finkatzeko abiarazitako estrategiak (Ikerbasque, Bizkaia:talent, Gipuzkoa Fellows) eraginkorrak izan dira zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren sistema nazioartera zabaltzeko eta ikerketa-gaitasun berriak sortzeko, eta gainera lehia-inbertsio asko eragin dituzte. Esaterako, [Ikerbasque](#) programak EAEko ekoizpen zientifikoaren % 17 sortzen du.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko ikerketarako oinarria honako hauen bidez zabaldu da: batetik, erakunde publikoek sustatu dute beren programen bidez; bestetik, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren euskal sistemako eragileek ikerlariak kontratatu eta trebatu dituzte. Erronka honetan datza: etorkizunean ere mantentzea Euskadi 2020 ZTBP planaren bidez Europan buruzagitza-postuetara hurbiltzen gaituzten pertsonengan egiten den inbertsioa xede hauek dituzten programa azkar eta eraginkorren bidez: (1) Planak lehenesten dituen esparruetako talenturik hoberenak erakartzea; (2) EAEko ikerketa eta teknologia arloetako profesionalen kanpo-mugikortasuna erraztea; (3) Gaitasunak hobetzeko aukera ematen duten lan-ingurunea eta antolamenduak sortzea.

5. [Berrikertu](#) programak (2015erako Ikertu zen) 2,2 milioi euroko diru-laguntza ematen du, ikertzaileak enpresetan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileetan gehitzeko. Horretarako, itzuli behar ez diren diru-laguntzak ematen ditu, ikertzaileak kontratatuzko, eta lehiakortasuna hobetuko duten teknologia-maila handiko taldeak osatzeko.

6. ZTBESko eragile-tipologietan doktore-tituludun pertsona-kopuru jakin bat egoteko eskakizuna ezarri da. Programak horrela erantzun dio ZTBP 2020 planari; plan horretan sustatzen da ikertzaileak enpresetan gehitzea, ezagutzen transferentzia langile gaituen bidez ahalbidetzea eta zientzia- eta teknologia-arloan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murriztea.

3. ekimena. SPRI erakundeak koordinazio-organo operatibo bat eratzea, betiere ekoizpen sektoreetan inplikaturiko gobernuaren arloetako arduradunak, foru aldundiak, merkataritza ganberak, garapen agentziak eta industri politikan aktiboak diren gainerako eragileak bilduz.

1.2.4 helburua. Arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren politika

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. [Industrializazio Plana 2013-2016](#) deritzonaren Erakundearteko Batzordeak Jaurlaritzaren jardun-esparru honekin loturaren bat duten eginkizun-arloekin eta planekin harremanetan aritzea eta koordinatzea bultzatzen du.

2. Industria-lehiakortasunerako plataforma iraunkorra. Industrializazio Plana 2014-2016 Jaurlaritzaren tresna da EAEko industria bultzatzeko; plan honen ezaugarri bereizgarrietako bat irekia izatea da. Eusko Jaurlaritzak industria-lehiakortasunerako plataforma iraunkorra bultzatu du gure industriari eta gure ekonomiari buruzko epe luzeko ikuspegia edukitzeko. Eragile anitzeko hausnarketa-foroa da; EAEko ekonomiaren diagnostiko batetik abiatuta, epe luzerako begirada du ardatz. Jaurlaritzaren helburu nagusia krisitik irtetea denez, ezinbestekoa du epe luzera lehiakorrek izateko gakoak argitzen saiatzea. Euskal Autonomia Erkidegoan industriak etorkizunean nondik joko duen aztertzen du (hausnarketa, analisia eta prospekzioa) eta proposamen zehatzak sortzen ditu: Planean txertatu beharreko neurri eta ekintza berriak.

3. Ekintzaitzaren Erakundearteko Mahaia. Ekintzaitzaren aldeko politika Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari buruzko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen bidez egituratzen eta ezartzen da. Ekintzaitza bultzatzeko politikan ahalik adostasunik, koordinaziorik eta koherentziarik handiena lortzeko horretan ari diren agenteekin eta dauden ekimen guztiekin, aurretik Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek esparru-akordioa sinatu zuten 2013-07-02an: "Lankidetzarako esparru-akordioa, euskal gizartearen ahalmen ekintzailea modu eraginkor eta eragingarrian sustatu eta babestuko duen euskal ekintzaitza sistema bat garatzeko".

4. [Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Plana 2013-2016](#) prestatu zen eta Ekintzaitzaren Erakundearteko Mahaia eratu zen eta ardura hauek ezarri zitzaizkion: Plana betearaztea eta ebaluatzea, eta beraren jarraipena egitea. Euskal Autonomia Erkidegoko ekintzaitzaren inguruko politika 4 euskal administrazio nagusiek Planean adostutako neurrien eta jarduketan bitartez eta ekintzaitza sustatzen duten agente nagusien lanaren bitartez gauzatzen da. Erakundearteko lantalde hauek abiaraztea erabaki zen Planean sakontzeko jarduketak proposatzeko.

- Ideiak eta aukerak: EGLS + Enplegu Saila + Hezkuntza Saila + Osasun Saila + foru aldundiak.
- Hazi kapitaleko funtsaren kudeaketa: EGLS + foru aldundiak + EBZak.
- Ekintzaitzaren kultura eta enpresa-sena: Hezkuntza Saila + Enplegu Saila + foru aldundiak.
- Ekintzaitzako programa berria: EGLS + EBZak.
- Administrazioa: EGLS + foru aldundiak + Merkataritza G. + Beste batzuk.
- EBZak berrantolatzea (abian): EGLS + foru aldundiak + EBZak.

1. ekimena. Nazioartekotzeari laguntzeko programak eta pizgarriak sendotzea zenbait alderdiri begira: esportazioari, merkataritza ezarpenari eta ekoizpen zentroen kokapenari begira, alegia.

1.2.5 helburua. Industriaren globalizazioa

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Lehiaketa publikoetan eta nazioarteko lizitazioetan parte hartzen laguntzeko 2015 [Interlehian](#) laguntzen programa, organismo aldeaniztunek finantzatutakoak bereziki aipatuz. EAeko enpresak atzerrira joan eta lehian aritzera ohituta badaude ere, nazioarteko lizitazioak eta, bereziki, alde anitzeko finantzazioan diharduten erakundeek kudeatu eta finantzatutakoak, merkatu arrotza eta ezezaguna dira enpresa gehienentzat. Enpresen arteko kooperazioa bultzatzen da eta aliantzen eta partzuergoen bidez enpresek egingo dituzten ekimenak onuragarritzat jotzen dira. Emaitzak honako hauek izan dira: 9 enpresa eskatzaile, guztira 17 eskaera aurkeztu dituzte (12k ebazpen positiboa).

2. Lehian programa globalak ETE enpresen lehiakortasuna hobetzeko heldutasun-fase desberdinak hartzen ditu barne, nazioartekotu daitezen, bai banaka, bai elkarrekin. Sustapen eta salmenta eta esportazio-partzuergo taldeei emandako laguntza gailentzen da, euskal enpresak nazioartekotzeko ekimenetan halako zailtasunak saihesteko enpresen arteko lankidetzak gauzatzeko moduak. [2014. urtean](#) 357 eskaera aurkeztu ziren eta 319k ebazpen positiboa lortu zuten. 63 hasierako fasean, 245 bateratze-fasean eta 11 ezartzen. [2015. urtean](#) 535 eskaera aurkeztu ziren eta 465ek ebazpen positiboa lortu zuten. 55 hasierako fasean, 396 bateratze-fasean eta 14 ezartzen.

3. Lehentasunezko merkatuen potentzialtasunak egitekoen bidez aztertu dira. Lau adibide aipatzen dira:

- EEBBra egindako bidaia (2013): Nazioarteko merkataritza eta energia.
- Mexikora egindako bidaia (2014): Energiaren eremuan negozio, aukera berriak bilatzea, euskal ETEak hornitzaile gisa eskaintzea.
- Txinara egindako bidaia (2014): Automobilgintzaren sektorea eta ezarritako euskal enpresen egoera egiaztatzea.
- Indiara egindako bidaia (2015): merkatuaren potentzialtasunak aztertu, euskal enpresekin elkarretaratzea.

4. Euskal industriari babesa ematea hainbat alorretako merkatu berriak zabaltzean: esportazioa, merkataritza-ezarpena eta ekoizpen-zentroen kokapena. Ezagutza, finantza-laguntza eta zerga-tresnak ematea kanpoan ezar daitezen eta esportazioak sustatzea. 2016an Hegoafrikan egiteko bat gauzatzeko asmoa dago.

2. ekimena. Enpresen arteko lankidetzaren alde egitea merkatu globaletan sartzeko estrategia gisa.

1.2.5 helburua. Industriaren globalizazioa

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. ETEak finantzatzeko aparteko abalen programa, txoke-eragiketa, eskaera edo aparteko kontratueta zuzenduta. Eragiketaren % 30 arte finantzatzea. 2013an 2 abal eman ziren (zenbatekoa: 4,85 M €), 23,10 M €-ko inbertsioa finantzatzeko (mantendutako enplegua 123).

2. [Nazioartekotzearen Euskal Partzuergoa](#). Nazioartekotzeari laguntzeko euskal sistema euskal enpresen zerbitzura laguntza- eta sustapen-lanak egiten dituzten agente publiko eta pribatuek osatzen duten errealitate bat da. Arlo honetan diharduten funtsezko alderditzat jotako zazpi agentek Nazioartekotzearen Euskal Partzuergoa izenekoa eratzea erabaki zuten, Eusko Jaurilaritzarekin, hiru foru aldundiekin eta EAEko hiru Lurraldeetako Ganbarekin 2014-12-03an sinatutako lankidetzahitzarmenean. Haren lehentasuneko helburuen artean hauek daude: (1) Enpresa-nazioartekotzeari laguntzeko ibilbide-orri osoa eta komuna konfiguratzeko, (2) Nazioartekotzeari laguntzeko sistema publikoaren berrantolamenduan aurrera egitea, egungo enpresa-premietara, eremuko ekimen pribatura eta baliabide publikoen eskasiara egokituz.

3. Halaber, partzuergoak lan-talde teknikoak ditu koordinazio-ekintzak garatzeko eta baterako jarduketa-proiektu berriak diseinatzeko. Landu diren eremuak honako hauek izan dira: (1) Nazioartekotzeari laguntzeko programen baterako ebaluazioa. 2016. urteari begira, espedienteen azterketa zehatzean aurrera egiten jarraitu nahi da, programen eraginaren eta eraginkortasunaren azterlan batekin osatuz, (2) Programa berriak: Basque Country lizitazioak Plataformaren garapenean lan egin da, eremu horretako agenteen ekimenak komunean jarritz. Horrez gain, Basque Country Plataforma Esportazioen Partzuergoa ezartzeko aurreko lanak abiarazi dira, esportazioen eremuan enpresa-lankidetzak sustatze aldera.

4. Gainera, Nazioartekotzearen Euskal Partzuergoak baterako zenbait ekintza egin ditu. Horien artean gailendu beharrekoak honako hauek dira: (1) Baterako aurkezpenen egutegia (Arabian, Gipuzkoan eta Bizkaian jardunaldiak). (2) Zerbitzu-zorroa CVI publikitatean eginda. (3) Sustapen zuzeneko ereduaren garapena: (4) Egiteko zuzenen eta zeharkakoen eta bisiten egutegiak eta protokoloa. (5) Bereziak egitekoen ebaluazioa oinarri hartuta sustapen zuzeneko eredu hobetzeko proposamenak. (6) Enpresa-ikuspegitik nazioarteko erakundeen akordioetarako balorizazioak eta gomendioak

3. ekimena. EAEko enpresen ekimen berrien nazioarteko presentzia bultzatzea.

1.2.5 helburua. Industriaren globalizazioa

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. EAEko esperientzia ekintzaitzaren eremuan Europako "praktika onenen" artean kokatzeko eta nazioarteko enpresa-egitekoetan berriki sortutako enpresa berritzaileen presentzia eta partaidetza bultzatzeko ahaleginetan jartzen dute arreta jarduketek.

2. Itsas energiak zabaltze handia ari dira jasaten. Itsasoko haize-teknologia bezalako teknologiek heldutasun-maila handia lortu dute eta Europako iparraldean egon badaude itsasoko haize-parke asko, bai martxan, bai proiektuan. Olatuen energiari eta horien merkataritza-aprobetxamenduari dagokienez, mundu osoko enpresak ur gainerako teknologia berriak ikertzen ari dira, ekoizpen energetikoaren eta ustiapen-kostuen arteko harreman optimorako aukera emango duen heldutasun nahikoa lortzeko, itsasoko haizeak lortu duenaren antzekoa. Euskal Autonomia Erkidegoa eta bertako garapen teknologikoaren enpresak segmentu honen lehen ilaran daude. Horrez gain, ikerketarako Mutriku eta Bimep euskal zentroak aitzindariak dira itsasoan olatuak hartzeko gailuen probarako. Energiaren Klusterrarekin batera sustatutako Wave Energy Basque Country markapean barne hartutako euskal enpresa-ekimen berrien nazioarteko presentzia sustatzen da.

3. Eusko Jaurlaritzak Eskoziako Icoe 2016 itsas energiaren azokan parte hartzen du. Itsas energiaren ikerketarako euskal proiektuak munduko erreferentzia bat dira, itsas sektore energetikoan buru diren sei euskal enpresek haien proiektuak stand batean azalduko dituzten arloan. Enpresak: Tecnalia, Oceantec, Zunival eta Vicinay Marine, baita Energiaren Euskal Erakundeko Bimep eta Mutriku ikerketa-azpiegiturak ere. Bi urtez behingo lehiaketa bat da eta itsas energiaren sektorearen barruan nazioarteko kongresurik garrantzitsuenetako bat. 3 egunetan hogeita hamar herrialdetako 500 delegazio baino gehiago biltzen dituen munduko erakusleihu bat.

4. Bi proiektu nabarmen ezartzen ari dira.

- BIMEP (Biscay Marine Energy Platform) azpiegitura itsaso zabalen itsasoko teknologiak ikertu eta frogatzeko plataforma bat da, Armintzako itsasertzean, ur gainerako itsasoko haize-probetarako aurreikusita (zimendatzeak, haize-sorgailuak, etab.). Itsasoko haize-instalazio flotatzaileen esparruan EAE mundu mailako erreferentzia bihurtzea da helburua. Plataforma 2015eko uztailean inauguratu zen. Bimepen zeregin nagusia ez da ekoizpenari lotutako, balio erantsi handiko ezagutza teknologikoaren gune izatea baizik, itsas energiak aprobetxatuz ekoizpenerako teknologia berriak probatuz, ikertuz eta garatuz; energiaren-eremuan industria-sektore berria sortzeko ezinbesteko ezagutza gunea.
- [Mutrikuko ur-zutabe oszilatzaileko teknologia-saiakuntzen plataforma](#). Mutrikuko dikean dagoen azpiegitura bat da: olatuen energia aprobetxatzen du, eta ur-zutabe oszilatzailearen teknologiak frogatu. Teknologoen eskura dago frogak eta saiakerak egiteko. Uhinen planta hau munduan dagoen esperientzia bakarra da, 5 urte baino gehiagoko energia elektrikoa ekoizten eta sare orokorrera konektatuta egon ostean. Erreferentzia bat da, eta jada olatuen energiaren 1GWh ekoizti du eta, gainera, turbina berriak ikertu eta horien probak egin ahal izateko eboluzionatzen ari da, ondoren ur gainerako gailuetan jarriko direnak itsas barruan olatuen bidezko ekoizpen elektrikorako.

4. ekimena: Merkatu berrien dibertsifikazioa eta prospekzioa erraztea, betiere gure enpresentzat potentzial handia daukaten jarduketa arloak eta sektoreak eta merkatuak identifikatuz.

1.2.5 helburua. Industriaren globalizazioa

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Jarduketek honako helburu bikoitza dute:

- Xede-merkatuen dibertsifikazioa erraztea. Enpresa-nazioartekotzearen politikarekin harreman estua duten merkatu sortuberrien esplorazioa erraztea.
- Negozio-potentzial handia izateagatik gure enpresentzat hautatutako arlo eta merkatuekin ekonomia- eta erakunde-harremanak indartzeko estrategia zabaltzea.

2. 2015eko edizioan, SPRIk elkarretaratzeak egin ditu SPRI Kanpo Sarearekin, Intergune+2015 ekitaldiaren testuinguru berri batean kokatuak. Bertan, 44 erakusmahai, SPRI herrialdeetako 40 ordezkari zeuden eta,aldi berean, 20 hitzaldi edo jardunaldi eskaini ziren. EAEko enpresek nazioartekotze-zerbitzuaren eskaintza, Europako politikak, garatzeko bidean dauden herrialdeak ezagut ditzaten eta haien enpresek atzerrian izango dituzten aukeren berri edukitzeko topagune bat da Intergune+.

3. Enpresa-egitekoak. Lehentasunezko merkatuen potentzialtasunak egitekoen bidez aztertzea. 4 adibide aipatzen dira:

- EEBBra egindako bidaia (2013): Nazioarteko merkataritza eta energia.
- Mexikora egindako bidaia (2014): Energiaren eremuan negozio, aukera berriak bilatzea, euskal ETEak hornitzaile gisa eskaintzea.
- Txinara egindako bidaia (2014): Automobilgintzaren sektorea eta ezarritako euskal enpresen egoera egiaztatzea.
- Indiara egindako bidaia (2015): Merkatuaren potentzialtasunak aztertzea, euskal enpresekin elkarretaratzea.

4. [Industrializazioaren 2013-2016 Planaren](#) zuzentarauekin bat etorriz, manufaktura aurreratuaren zeharkako estrategia bat abian jartzeko, enpresan pertsonen partaidetza sustatzeko eta teknologikoa ez den berrikuntzaren estrategia berriz bultzatzeko jarduketa-ardatzei erantzuna ematen die Innobideak estrategiak. Hala, [Innobideak strategiaren](#) xedea euskal enpresen hobekuntza lehiakorra sustatzea da, bereziki, ETEena, dibertsifikazioari lagunduz, pertsonen partaidetzaren bidez eta kudeaketa hobetuz, krisi-egoerari aurre egite aldera eta globalizazioaren esparruan etorkizuneko garapen lehiakorrerako oinarri irmoak ezartze aldera.

5. Programei dagokienez, produktu, zerbitzu eta/edo merkatuen dibertsifikaziorako aukera ematen duten proiektuen egitea sustatzeko [Innobideak Lehiabiden](#) 2013, 2014 eta 2015 urteetan zehar 96, 56 eta 98 eskaera jaso dira; horietatik 52, 26 eta 65 onartu ziren, 1.498.411 €, 852.428 € eta 1.615.285 €-ko diru-laguntzak emanez hurrenez hurren. 2016an programaren 4. edizioa egingo da.

1. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoaren kokapena bultzatzea munduko erregiorik ekintzaileenekin konektaturik dagoen lurralde ekintzaile gisa, betiere ekintzailetzarako europar programetan daukagun parte-hartzea handituz, bereziki 2020 Europar Estrategia deritzon egitasmoan.

1.2.6 helburua. Euskadi-Basque Country marka

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen esparruaren barruan ezartzen eta artikulatzen da ekintzailetzari laguntzeko politika. Ekintzailetzaren Sail arteko Mahaia sortu da eta Jarduketa Ekintzaileari Laguntzeko Plan bat egin da. Aurretik, eta euskal ekosistemaren barruan ekintzailetzari laguntzeko politikan ahal den adostasunik, koordinaziorik eta koherentziarik handiena lortze aldera, hainbat agenterekin eta askotariko ekimenekin, 2013-07-02an, "Euskal gizartearen ahal ekintzailea modu eraginkorrean eta efizientean sustatu eta babestuko duen Ekintzailetzaren Euskal Sistema garatzeko Lankidetzaren Esparru-Akordioa" sinatu zen, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru aldundien artean.

2. Une horretatik aurrera, [Jarduketa Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko 2013–2016 Plana](#) egin zen, aipatu planean 4 euskal administrazio nagusik eta ekintzailetzari laguntzeko agente nagusiek elkarrekin ezarritako neurrien eta jarduketaren bitartez ekintzailetza-politika ordenatzen duena. Aldi berean, Ekintzailetzaren Erakunde arteko Mahaia eratu zen.

3. Jarduketa Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko 2013-2016 Plana, aldaketa ekonomikoaren eta sozialaren palanka gisa, ekintzailetzaren aldeko apustu irmoa dakarren tresna bat da, jarduketa ekintzaileari laguntzeko euskal ekosistema hobetzen jarraitzeko aukera ematen duena eta ekintzailetzarekin eta barne-ekintzailetzarekin erakunde arteko borondatea eta konpromisoa barne hartzen dituena. Lehentasunak etengabe eguneratzen dira eta Ekintzailetzaren Euskal Sistema hobetzeko neurri berriak abian jartzen dira.

4. Izaera berritzailea eta teknologikoki aurreratua duen ekintzailetzari laguntzeko tresnak: 2013-2016ko legegintzaldi honetan igaro diren urteetan, izaera berritzailea eta teknologikoki aurreratua duten enpresa-jarduketa berriei laguntzeko hainbat programa abian daude, Enpresa eta Berrikuntza Zentroekin (BIC, BEAZ, CEDEMI, BIC-BERRILAN eta SAIOLAN) eta hiru foru aldundiekin elkarlanean.

5. Kultura ekintzailea sustatzea. Jarduketa Ekintzaileari Laguntzeko Planaren lehentasunezko jarduketatarlo bat "Ekintzailetzaren kultura eta balioak" izenekoa da. Epe luzerako begirada bat da, izaera berritzailearen sustapen- eta alderdi ekonomikoetako prestakuntza-ekintzak, hezkuntza-aldi desberdinetan (oinarrizko, tarteko hezkuntza, lanbide-heziketa eta goi-mailakoa) irakasten diren enpresa- eta ekintzailetza-ekintzak aintzat hartzen dituena. Plana indarrean egon den bitartean ekintzen balantzea honako hau da:

- 2.402 ikastetxek (batez ere, oinarrizko hezkuntza edo lanbide-heziketa) ekintzailetza sustatzeko programetan parte hartzen dute. Jarduketa horiek 4.000 irakasle baino gehiago eta 460.000 ikasle baino gehiago tartean hartzen dituzte.
- Programa horien osagarri gisa, EAEko enpresen izaera ekintzaileari eta aitortuari 19 sari eman dizkiote; horietara guztira 343 proiektu aurkeztu dira.

2. ekimena. Euskadi-Basque Country marka garatzea, euskal produktuak eta zerbitzuak kanpoko merkatuetan identifikatzeko elementu gisa.

1.2.6 helburua. Euskadi-Basque Country marka

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. "Euskadi Basque Country" markaren erabilera sustatu da eta marka hori eman da hainbat ekimen publiko eta pribatuetan erabil dadin. Industria-talde nagusiekin eta enpresa eta erakunde nabarmenekin batera nazioarteko azoketan eta erakusketetan argitalpenak eta zabaltze-kanpainak eginez Basque Country marka proiektatzen da. "Basque Country" marka azoka edo ekitaldi desberdinetara bidaiatzen duten euskal enpresak identifikatzen dituen "aterki gisa" eratu da.

2. Basque Industry 4.0 estrategia bera da marka industrian txertatu duen estrategia. "Hornitzaile teknologikoen" Teknologiaren Transferentziarako Proiektuak industriako manufaktura-enpresetarantz bideratzea du xede [Basque Industry 4.0 programak](#), fabrikazio aurreratuari aplikatutako EIKTen eremuan, erakusgarri-balioa dutenak eta, beraz, EIKTetako I+G proiektuen emaitzak merkatura transferitzea azkartzeko bidea emango dutenak.

3. Energiaren Klusterrarekin batera sustatutako WAVE ENERGY BASQUE COUNTRY markapean barne hartutako euskal enpresa-ekimen berrien nazioarteko presentzia sustatzen da. Eusko Jaurlaritzak Eskoziako ICOE 2016 itsas energien azokan parte hartzen du. Bertan, itsas zerbitzuen eta teknologien enpresek osatutako euskal ordezkariak parte hartzen du (Tecnalia, Oceantec, Zunival eta Vicinay Marine), baita Energiaren Euskal Erakundeko Bimep eta Mutriku ikerketa-azpiegiturek ere.

4. Kanpoko sustapen zuzena enpresa-egitekoen bidez: Kanpoko merkatuetan zuzenean egiten diren jarduketak inskribatzen dira kanpoko sustapen zuzenaren arloan, honako helburu hauek lortzeko hain zuzen: in situ ezagutzea eta euskal enpresek haien intereseko herrialdeetan egindako ahalegina babestea, kasuan kasuko ekonomia bakoitzeko gakoetara hurbiltzea, enpresen proiektuetan jazo daitekeenaren inguruan eragin zuzenago izango duten agintaritzekin harremanak estutzea eta EAEko enpresa- eta industria-egoera euskal enpresen posizio lehiakorra indartuko duten harremanak zabaltzeko edo horiek hasteko aukerak emango dizkieten herrialde edo/eta lurraldeetara hurbiltzea.

- 2013, egitekoa EEBBetan lehendakariarekin: nazioarteko merkataritza eta energia.
- 2013, Alemania: Invest Bavaria eta automobilgintza (BMW).
- 2014, Txina: automobilgintzaren sektorea eta ezarritako euskal enpresen egoera egiaztatzea.
- 2014, Eskozia: haize-energia eta off shore. Global Offshore Wind azoka.
- 2014, Municheko SPRI bulegoaren inaugurazioa.
- 2014, Alemania: Fraunhofer Ekoizpen Teknologien Institutuaren industria aurreratu eta funtzionamendua aztertzeko. Gobernu federalak Eusko Jaurlaritzari Industria 4.0 aztertzeko nazioarteko ekimenean gehitzeko gonbidapena egin dio.
- 2014, Mexiko: negozio berriak bilatzea; aukerak energiaren eremuan; euskal ETEak hornitzaile gisa eskaintzea.
- 2015, India eta Singapur: merkatuaren potentzialtasunak aztertzea; Singapurren egoitza inauguratzea; euskal enprekin elkarretaratzea.
- 2015. Harvarden EAEko kasua aurkeztea.
- 2015. Alemania: Mercedes enpresara egindako bisita; eta Industria 4.0 edukiak.

3. ekimena. "Euskadi-Basque Country" markaren garapena bultzatzeko asmoz, industria-sarearekin eta gainerako euskal erakundeekin parte-hartze prozedura sustatzea.

1.2.6 helburua. Euskadi-Basque Country marka

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. "Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Basque Country Estrategia" egiteko prozesuan zehar lortu beharreko helburuen eta marka sustatzeko ezinbestekotzat jotako tresnen inguruko hausnarketa estrategikorako partaidetza-prozesu bat gauzatu zen.
2. Kanpo Ekintza Planak, Basque Country Estrategiarekin batera onartutakoak, helburu estrategikoen artean "EAren proiektzioa munduan" barne hartzen du, alegia, marka sustatzea nazioartean aitortu dadin eta ospea izan dezan abantaila lehiakorreko elementu argia izan dadin.
3. Baterako enpresa-agenda dago, Nazioartekotzearen Euskal Partzuergoak "Basque Country" marka ordezkatzen duten euskal enpresekin batera sustatutakoa.

1. ekimena. Inbertsioak egiteko herrialde erakargarri baten irudia sustatzea, betiere gure indarguneetan eta nortasun zantzuetan oinarri hartuz.

1.2.7 helburua. Inbertsioak erakartzeko politika

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Invest in the Basque Country (IBC), atzerriko inbertsio zuzenak eskuratzeko eta mantentzeko sistema da (IDE). Horren bidez 2015ean lortu zen 22 industria-proiektu berrik Euskadin inbertitzea; aurreko urtean baino lau aldiz inbertsio gehiago erakarri ziren (bost izan ziren); guztira, 137,05 milioi euro. Horri esker 608 lanpostu sortu ziren eta 1.027 mantendu ziren. Aurreko urtean 5 proiektu erakarri ziren; inbertsioen guztirako zenbatekoa 15 milioi euro izan zen eta haiei esker 175 lanpostu sortu ziren eta 200 mantendu ziren.

2. Invest in BC estrategia indartu zenetik, bi urtean atzerriko 27 inbertsio erakarri dira, guztira 152,05 milioi euro; horri esker 783 lanpostu sortu dira eta 1.227 mantendu dira. Gehienek xedeak produkzio-lantegiak sortzea eta enpresetan I+G+b unitateak sortzea izan dira. Euskal Autonomia Erkidegoak bi arrazoiengatik erakartzen du atzerriko inbertsio zuzena: merkatuen hurbiltasuna eta inguruko industria-sarea. Inbertsio gehienak Estatu Batuetatik, Alemaniatik eta Frantziatik etorri dira; negozio-sektore erakargarrienak automozioa, energia, aeronautika eta EIKT (elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologiak) izan dira.

3. [IBC estrategiaren asmoa](#) hauxe da: Euskal Autonomia Erkidegoa erreferentzia izatea Europako hegoaldean lehentasunezko nitxoetan AZI erakartzeko. Lortu nahi da onartzea AZIak hemengo bertako inbertsioen osagarriak direla EAEn jarduera ekonomiko berriak ezartzeko. Invest in BC unitateak laguntzen du Euskadi Europako hegoaldeko leku aproposena bilakatzen, balio erantsi handiagoko jarduera berritzaileak bertan egiteko (bereziki, energia-sektorearekin eta fabrikazio aurreratuko soluzioen aplikazioarekin lotuta).

4. Inbertsio berriak erakartzeaz gainera, Invest in BC estrategiak funtsezko zeregina du lehendik badiren inbertsioei eusten eta dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoan inbertitu duten eta inbertitzen jarraitzen duten enpresak zaintzen. Azken horri “after care” deritzo. Euskal Autonomia Erkidegoan badira atzerriko kapitaleko 700 bat enpresa. Horietatik 350 inguruk gure ekonomiarako lehentasuna duten sektoreetan dihardute, espezializazio adimentsurako RIS3 strategiaren ildotik; esate baterako, energiaren sektorean, automozioan eta aeronautikan. Egindako inbertsioak “zaintzeko” estrategian, jarraipen- eta egiaztapen-bisiten egutegia dago, haien egoera eta bilakaera ezagutzeko. Horrela, 2015ean enpresa horietariko 28ri egin zaie bisita.

2. ekimena. Gainerako euskal erakundeekin batera lankidetzan, arauzko esparru bat garatzea inbertsioen ezarpena sutatze aldera eta gaur egun daukagun ekoizpen sarea osatzeko, balioa bultzatzeko eta lana sorrarazteko gaitasuna daukaten enpresen finkapena erakartze aldera.

1.2.7 helburua. Inbertsioak erakartzeko politika

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Ez da sortu berariazko arau-esparrua, baizik eta erakundeek inbertsioak erakartzeko lanetan lankidetzan jarduteko eredia. Ekintzaitza bultzatzeko politikan ahalik adostasunik, koordinaziorik eta koherentziarik handiena lortzeko horretan ari diren agenteekin eta dauden ekimen guztiekin, aurretik Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek esparru-akordioa sinatu zuten 2013-07-02an: “Lankidetzarako esparru-akordioa, euskal gizartearen ahalmen ekintzailea modu eraginkor eta eragingarrian sustatu eta babesteko duen euskal ekintzaitza sistema bat garatzeko”.

2. Gero [Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Plana 2013-2016](#) prestatu zen. Plan hori tresna bat da, apustu irmo bat ekintzaitzaren alde, ekintzaitza eraldatze ekonomiko eta sozialaren eragilea den aldetik. Plan horrek aukera eskaintzen du jarduera ekintzailea babesten duen EAEko ekosistema hobetzen jarraitzeko. Ekintzaitzaren eta barne-ekintzaitzaren aldeko erakundearteko konpromisoa eta borondatea islatzen ditu.

3. [Indartu programaren](#) xedeak Europar Batasunak “behartsutzat” jo eta diskriminazio positiboa aplikatzea ahalbideratzen duen aldeak dira, hain zuzen ere hainbat arrazoiengatik (krisi ekonomikoa larriagoa izan delako edo garapena eragozten duen narriadura estrukturala dagoelako) langabeziak gogor astintzen dituen aldeak.

4. Indartu programaren helburua da Nerbioi itsasadarraren ezker aldean (Bizkaia) eta Oiertzualdean (Gipuzkoa) enplegua sortzeko inbertsio produktiboak egiteko pizgarriak ematea, batez ere produktuak eraldatzeko prozesuak hobetzeko inbertsioak, gaitasunak gehitzeko inbertsioak eta jarduera berriak egiteko inbertsioak. Garrantzi berezia ematen zaio inbertsioak behar bezala finantzatzeari; hain zuzen ere, eskatzen da enpresaren baliabide propioak laguntza jaso dezaketen inbertsioen % 25 izatea gutxienez. Ematen diren diru-laguntzak ez dira itzuli behar. Horregatik, eta aurreko baldintza kontuan hartuta, finantza-egitura osasuntsua duten enpresak erakartzen dira, inbertsioak sendotu arteko urteetan lanean jardun dezaketenak.

5. Indartu programaren 2015eko deialdian (8 milioi €) [89,1 milioi €-ko inbertsioak eragin dira \(10 industria-proiektu\)](#) eta horiei esker 426 lanpostu sortuko dira eta 2.374 mantenduko dira industriaren arloan. 2016ko deialdian 8 milioi € ezarri dira; bi helburu daude: Nerbioi itsasadarraren ezker aldean eta Oiertzualdean industrializazioa sendotzea eta lanpostuak sortzea

3. ekimena. Inbertsioak lortzeko politika Euskadi nazioartekotzeko estrategiarekin uztartzea.

1.2.7 helburua. Inbertsioak erakartzeko politika

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Invest in the Basque Country (IBC) atzerriko inbertsio zuzenak eskuratzeko eta mantentzeko sistema da (IDE). Horren bidez 2015ean lortu zen 22 industria-proiektu berrik Euskadin inbertitzea; aurreko urtean baino lau aldiz inbertsio gehiago erakarri ziren (bost izan ziren). Hain zuzen ere, [unitate honi esker 2015ean atzerriko 22 enpresek](#) hautatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoa inbertsio berriak egiteko; guztira 137,05 milioi euro inbertitu zituzten. Horri esker 608 lanpostu sortu ziren eta 1.027 mantendu ziren. Aurreko urtean 5 proiektu erakarri ziren; inbertsioen guztirako zenbatekoa 15 milioi euro izan zen eta haiei esker 175 lanpostu sortu ziren eta 200 mantendu ziren.

2. Legealdi honetan aurrekoetan erabilitako metodologiari buruzko hausnarketa egin du eta lan-lerro hori indartzea erabaki du. Horretarako, landu diren proiektuen kopurua handitu da, bai eta “erakarri” diren enpresen kopurua ere. Invest in BC estrategia indartu zenetik atzerriko 27 inbertsio erakarri dira, guztira 152,05 miloi euro; horri esker 783 lanpostu sortu dira eta 1.227 lanpostu mantendu dira. Gehienen xedeak produkzio-lantegiak sortzea eta enpresetan I+G+b unitateak sortzea izan dira. Euskal Autonomia Erkidegoak bi arrazoiengatik erakartzen du atzerriko inbertsio zuzena: merkatuen hurbiltasuna eta inguruko industria-sarea. Inbertsio gehienak Estatu Batuetatik, Alemaniatik eta Frantziatik etorri dira; negozio-sektore erakargarrienak automozioa, energia, aeronautika eta EIKT (elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologiak) izan dira.

3. [SPRIren atzerriko bulegoek](#) Euskal Autonomia Erkidegoak inbertsioak jasotzeko dauzkan aukeren berri ematen du eta lan hau funtsezkoa izan da helburua lortzeko.

1. ekimena. Garapen eta hazkunde bidean dauden sektore ekonomikoen garapena sustatzea ("Offshore", sare elektriko adimendunak eta energiaren pilaketa, besteak beste) eta EAEko industri eta ekonomi jardueraren eragin traktorea ekar dezaketenak bultzatzea ere.

1.2.8 helburua. Garapen bidean dauden sektore berriak

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. I+G programen antolamendua eraberritu da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen berrantolamenduarekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen ikerketa maila hobetzeko, gure ekonomia lehiakorragoa izatea lortzeko asmoarekin. Ondoko hauek lehenetsiko dira: ZTBESeko enpresen eta agenteen espezializazioa, merkatuko hurbiltasuna eta lankidetzan ikertzea. Lehenetsia eman zaie goraka ari diren sektoreetako ekimenei eta espezializazio adimentsua nagusi den arloetakoiei. hauexek dira I+D bultzatzeko programak: Hazitek, Elkartek, Berrikertu eta Emaitek Plus. Industriaren sektoreko I+G-rako laguntzen guztirako zenbatekoa 146.850.000.- € izango da 2016an (itzuli behar ez diren diru-laguntzak). Kopuru hori aurreko urtekoa baino %9 gehiago da, eta 2014tik pilotutako gehikuntza % 18,24 da.

2. 2014-12-16an ["Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana 2020: espezializazio adimentsurako estrategia Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen ekonomiko iraunkorra sustatzeko"](#) onartu zuen. Euskal gizartearen ongizatea, hazkunde ekonomiko iraunkorra eta enplegua hobetzea da Planaren helburua, eta hori ikerketa- eta berrikuntza-politikaren bidez, espezializazio adimendunean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eraginkortasunaren hobekuntzan oinarritua. 2014 eta 2020 artean inbertsio publiko-privatuaren zenbatekoa 11.100 milioi eurokoa izango dela uste da.

3. Euskadi 2020 ZTBP inflexio-puntu bat izango da legegintzaldiaren ekuatorean eta ekonomia suspertzearekin eta enplegua berreskuratzarekin batera I+G+B ere sustatuko du. Plana sortzeko prozesuan hainbat eragilek parte hartu dute; alde batetik, erakundeek, eta, bestetik, zientziako eta teknologiko euskal sareko kideek. Goitik beherako 3 pilotaje-talde sortu dira; talde horiek aberri-proiektuetan ari dira, lankidetzan publiko-privatuaz baliatuz: fabrikazio aurreratua, energia eta osasuna.

4. Pilotaje-taldea sortuko da energiaren arlo lehenetsian; talde horretan arloko enpresekin lankidetzan ariko gara Estatuan zein nazioartean lehiakorragoak izateko eraturako proiektu estrategiko batzuetan.

5. Europako Vanguard ekimenean (the Vanguard Initiative) ari gara Europako espezializazio-esparruetan (RIS3) aurreratuen dauden eskualde garrantzitsuenekin sinergiak eta lankidetzaproiektuak identifikatzeko asmoarekin. Euskal Autonomia Erkidegoak bere jakintza eta esperientzia ematen dizkio Europako Batzordeari, Batasunaren helburua Europako industria fabrikazio aurreratuan oinarrituta indarberritzea dela.

6. Vanguard ekimenaren barruan lankidetzako hainbat arlo sortu dira, eta horietako bat, fabrikazio aurreratua aurkako inguruneetako energia-aplikazioetarako deritzona, Euskadik gidatzen du Eskoziarekin batera. Itsasoko energia berriztagarrien arloan zein petrolio eta gasa offshore erauzteko balio-kate paneuroparra sortzea du helburutzat proiektu pilotu horrek. Proiektu honetan euskal enpresa batzuk eta gure zentro teknologikoak ari dira. Euskal Autonomia Erkidegoa elementu garrantzitsua da Batasunaren barruko lankidetzan espezializazio adimentsuaren ildo strategikoak finkatzeko, eta

Eskoziarekin batera buruzagia da itsasoan (off-shore), aurkako inguruneetan, energia eolikoa aprobetxatzeko proiektuan.

2. ekimena. EAeko enpresa sarean aukera berriak bultzatzea, betiere gizarte berrikuntzari, industria kulturaleri eta sortzaileei, pertsonen artapenari eta zainketari eta kalitatezko turismoari loturik dauden etorkizuneko eremuetan.

1.2.8 helburua. Garapen bidean dauden sektore berriak

Arduraduna: Estibaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskal Autonomia Erkidegoaren I+Garen alorreko herrialde-estrategia finkatu da lehiakortasun-erronkei erantzuteko bultzagarri gisa. 2013ko martxoan egindako Europako txosten batek Zientzia eta Teknologiaren Sistema hobetzeko neurri jakin batzuk hartzea hertsatzen zuen Euskal Autonomia Erkidegoa. Sistema bera aintzat eta baliozkotzat hartuta ere, hobegarrizat jotzen zuen. Egokitze-prozesu etengabe hori ondoko hauen zehaztapenean eta hedapenean hezurmamitu da: Euskal Autonomia Erkidegoko espezializazio adimendunaren estrategia (RIS3); [Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020ko Euskal Plana](#), non jaso baita Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea berrantolatzekeo prozesua, bikaintasuna, espezializazioa eta merkatuarekiko gertutasuna oinarritzat hartuta.

2. [2013-2016 Industrializazio Planean](#) ezarritako gidalerroekin bat etorritik, [Innobideak estrategiak](#) erantzuna ematen die ondoko jardun-ildo hauei: fabrikazio aurreraturako zeharkako estrategia abiaraztea, pertsonen enpresetan parte hartzea bultzatzea eta berriz ere bultzatzea teknologikoa ez den berrikuntza. Helburua euskal enpresen lehiakortasuna hobetzea da, eta horretarako berrikuntza, pertsonen parte-hartzea eta kudeaketaren hobekuntza bultzatzen dira egungo krisi egoerak dakartzan erronkei aurre egiteko eta oinarri sendoak ezartzeko, euskal enpresak lehiakorak izan daitezen globalizazioaren barruan.

3. Innobideak Prestakuntza ekimenaren bitartez zabaldu da estrategia. Horretarako, Kudeaketa Aurreratuaren, Berrikuntzaren eta Lehiakortasunaren oinarritzko alderdiak ezagutarazteko eta erabiltzen jakiteko jarduerak antolatu dira. Halaber, Innobideak Lehiabide, Innobideak Kudeabide eta Innobideak Pertsonak izeneko programen oinarritzko aldeak ere jakinarazi dira. Programa horiek enpresa-sarearen lehiakortasuna indartzen dute dibertsifikazioaren, kudeaketa aurreratuaren eta pertsonen parte-hartzearen bitartez. 2013an 70 jardunaldi egin ziren eta 1.350 pertsonak parte hartu zuten; 2014an 55 jardunaldi egin ziren eta 1.602 pertsonak parte hartu zuten; 2015ean 77 jardunaldi egin ziren eta 1.294 parte-hartzaile egon ziren.

4. Programak direla eta, [Innobideak Lehiabide](#) programan (produktuak, zerbitzuak edota merkatuak dibertsifikatzeko proiektuak) 2013an 96 eskaera jaso ziren, 2014an 56 eta 2015ean 98; eskaera horietatik 52, 26 eta 65 onartu ziren, hurrenez hurren, eta guztira 1.498.411.- €, 852.428.- € eta 1.615.285.- € eman ziren diru-laguntzetan.

5. Hiru foru aldundiekin batera, eta EUSKALITen lankidetzarekin, 2014an [Innobideak Kudeabide](#) programa abiarazi ziren; helburua ETEen kudeaketa hobetuta haien lehiakortasuna hobetzea zen. Bi urtean (2014-2015) martxan egon ondoren, 361 kontraste (246 eta 115) egin dira; 130 proiektu pilotu abiarazi (67 eta 63); eta 240 finkatze-proiektu (106 eta 134). 50 langile edo gehiago ari diren enpresek eskatutako finkatze-proiektuak direla eta, 59 proiektu jaso dira (17 eta 42), eta 47k jaso dute diru-laguntza (12k eta 35ek); 2014an diru-laguntzen guztirako zenbatekoa 101.538 € izan zen eta 2015ean 440.409 €.

6. 2015ean [Innobideak Pertsonak](#) izeneko programa abiarazi zen pertsonen erakundeetan parte hartzea sustatzeko. 28 proiektu jaso ziren, eta 20 sustatu ziren. Diru-laguntzen guztirako kopurua 357.259 euro izan zen.

3. ekimena. Industri eta enpresa dibertsifikazioa bultzatzea hazten ari diren sektoreetan, hala nola aholkularitza zerbitzuetan, merkataritza eta finantza zerbitzu aurreratuetan, eko-teknologietan eta ekonomia berdean, hiri garapen adimendunean ("smart cities"), on-line zerbitzuetan eta lehenengo sektoreko ekimen berritzaileetan.

1.2.8 helburua. Garapen bidean dauden sektore berriak

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. [2013-2016 Industrializazio Planean](#) ezarritako gidalerroekin bat etorritik, [Innobideak estrategiak](#) erantzuna ematen die ondoko jardun-ildo hauei: fabrikazio aurreraturako zeharkako estrategia abiaraztea, pertsonen enpresetan parte hartzea bultzatzea eta berriz ere bultzatzea teknologikoa ez den berrikuntza. Horren bidez euskal enpresen lehiakortasuna hobetu nahi da, batez ere, ETEena. Horretarako, dibertsifikazioa, pertsonen parte-hartzea eta kudeaketaren hobekuntza sustatuko dira, krisialdiaren egoerari aurre egiteko eta etorkizuneko garapen lehiakorra bultzatzeko oinarri sendoak globalizazioaren esparruan ezartzeko.

2. Innobideak Prestakuntza ekimenaren bitartez zabaldu da estrategia. Horretarako, Kudeaketa Aurreratuaren, Berrikuntzaren eta Lehiakortasunaren oinarritzko alderdiak ezagutarazteko eta erabiltzen jakiteko jarduerak antolatu dira. Halaber, Innobideak Lehiabide, Innobideak Kudeabide eta Innobideak Pertsonak izeneko programen oinarritzko aldeak ere jakinarazi dira. Programa horiek enpresa-sarearen lehiakortasuna indartzen dute dibertsifikazioaren, kudeaketa aurreratuaren eta pertsonen parte-hartzearen bitartez.

3. Programak direla eta, Innobideak Lehiabide programan (produktuak, zerbitzuak edota merkatuak dibertsifikatzeko proiektuak) 2013an 96 eskaera jaso ziren, 2014an 56 eta 2015ean 98; eskaera horietatik 52, 26 eta 65 onartu ziren, hurrenez hurren, eta guztira 1.498.411.- €, 852.428.- € eta 1.615.285.- € eman ziren diru-laguntzetan.

4. Energiaren Euskal Erakundearekin eta Iberdrolarekin batera, eta Energia Klusterra ere parte dela, [Bidelek Sareak](#) ekimena bultzatu da helburu honekin: hiriguneetan sare adimendunak eratzea hornidura elektrikoa eraginkorragoa eta seguruagoa izan dadin. Eusko Jaurlaritzak (Energiaren Euskal Erakundearen bidez) eta Iberdrolak Euskal Autonomia Erkidegoko hirigune batzuetan sare elektriko adimenduna ezartzeko abiarazitako ekimena (Bidelek Sareak) Bizkaian aplikatu zen lehenik (Bilbo, Portugaleta eta Lea-Artibai) eta 2015ean Gipuzkoako hainbat herritara zabaldu zen. Ekimenaren funtza hauxe da: herrietako ohiko sare elektrikoak sare adimendun bihurtzea (60 M €).

1. ekimena. Espiritu ekintzailearen aldeko eta pertsona ekintzaileei laguntzeko gizarte sentsibilizatorako jarduketak bultzatzea.

1.2.9 helburua. Kultura ekintzailea sustatzea

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Planaren](#) ardatz nagusietako bat ekintzailetzaren eta enpresaburuen aldeko sentsibilizazioa da. Horregatik ekitaldi bakoitzean Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzailetzaren arloan ari diren agenteek hainbat jarduketa egiten dituzte ekintzailetzaren kultura sustatzeko eta ekintzaileen merezimenduak goraipatzeko: lehiaketak, solasaldiak ekintzaileekin, eskolaumeen bisitak, etab... Jardun-ildo honetan oso garrantzitsua da Business Innovation Centre (BIC) deritzen zentroen lana: sentsibilizazioan, gaikuntzan eta zabalkundearen ari dira etengabe.

2. Euskal Telebistan, ETB2 katean, ekintzaileentzako docureality lehiaketa bat sustatu da: 'El Gran Salto'. Telebista-saio berritzailea da; ETBk, K2000k, Eusko jaurlaritzak eta Laboral Kutxaren Gaztenpresa fundazioak bultzatu dute zerbitzu publikoa egiteko asmoarekin. Saioan euskal ekintzaile batzuek buru-belarri egiten dute lan eduki duten ideia enpresa bideragarri bihurtzeko; bost ekintzailearen bizipenen bitartez ikusleek ikusten dute zeinahi ideia izan daitekeela ona bizibidea sortzeko.

3. Innobasque Gida. Innobasque-k, Berrikuntzaren Euskal Agentziak, Euskadin berrikuntza koordinatu eta bultzatzen du eremu guztietan, espiritu ekintzailea eta sormena sustatzeko. Besteak beste, Euskadiko Berrikuntza Gida aurkezten du urtero. 2015eko gidaren aurkezpen-ekitaldian Tabakalera egin zen; 200 pertsona baino gehiago bildu ziren bertan eta 11 berrikuntza-proiektu aurkeztu ziren. 2015eko Gidak 146 orrialde dauzka eta 200 erakunderen ekintza berritzaile nagusien berri ematen du 2015eko Berrikuntza Gida. Aztergai daude 2014ko Berrikuntza Gida eta 2013ko Berrikuntza Gida.

2. ekimena. Gazteen ekintzailletza sustatzea eta erraztea, betiere Gazteen Enplegu Plangintzaren ekimenekin koordinatuz eta foru aldundiekin eta udalekin lankidetzan jardunez.

1.2.9 helburua. Kultura ekintzailea sustatzea

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ekimen berriak, zentzu zabalean, toki-garapenerako agentzietatik babesten dira, eta proiektu berritzaileagoak edota oinarri teknologikokoak (OTEB, oinarri teknologikoko enpresa berriak) BICetatik babesten dira, eta foru aldundiek partekatutako funtsak esleitzen zaizkie, balizko negozio berrien bideragarritasuna aztertzeko.

Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Planaren lehentasunezko jarduketa-arloetako bat "Ekintzailletzaren kultura eta balioak" da. Epe luzerako begirada bat da, zeinak aintzat hartzen baititu ekintzaile-sena sustatzeko ekintzak eta alderdi ekonomikoei, enpresari zein ekintzailletzari buruzko prestakuntza, hezkuntzaren etapa guztietan ematen dena (oinarrizko hezkuntzan, erdi-mailakoan, lanbide-heziketan eta goi-mailako hezkuntzan). Hauxe da Planaren indarraldian egin diren jarduketaren balantzea:

- 2.402 ikastetxek parte hartu dute ekintzailletza sustatzeko programetan. Gehienbat oinarrizko hezkuntzakoak eta lanbide-heziketakoak izan dira. Jarduketa horiek 4.000tik gora irakasle eta 460.000tik gora ikasle bildu dituzte.
- Programa horien osagarri, 19 sari eman dira, ekintzailletzarako eta Euskal Autonomia Erkidegoan enpresa-sena goraiatzeko sariak, eta guztira 343 proiektu aurkeztu dira haien bila.

3. Ekintzaile izeneko programa, enpresa-ideia berritzaileak edo oinarri teknologikodunak, industriarako eta industriarekin lotutako zerbitzuetarako profila dutenak, umotzeko sortua. Bi motatako finantza-laguntza ematen da: (1) Pertsona edo talde sustatzaileari ideia umotzeko eta enpresa-plana egiteko prozesuan laguntzea hura abian jarri arte. Itzuli behar ez den diru-laguntza, gehienez 30.000 euro proiektuko. (2) Enpresa-plana gauzatzeko egin behar diren inbertsioetarako finantzabideak eskuratzen laguntzea, maileguren finantza-kostua murriztuz. Gehienez 180.000 euro ematen dira 7 urtera, lehenengo 2 urteetako gabealdiarekin.

4. Barnekintzaile programa barne-ekintzailletzako / ekintzailletza korporatiboko proiektuetarako. Kasu honetan, enpresa-ideia berriaren jatorria lehendik baden enpresa batetik sortzen da, eta, ondorioz, haren planteamendua eta goranahia bakarkako sustatzaile batenak baino handiagoak izaten dira. Barne-ekintzailletzari Euskal Autonomia Erkidegoan ematen zaion garrantzia dela eta, berariazko bultzatze-ekimen bat jarri da abian, hurrengo atalean labur azalduko dena.

-2013an Ekintzaile programako 85 ekimen eta Barnekintzaile programako 39 ekimen bultzatu ziren; zenbatekoa, guztira, 1.848.150 euro izan zen.

-2014an Ekintzaile programako 99 ekimen eta Barnekintzaile programako 36 ekimen bultzatu ziren; zenbatekoa, guztira, 2.109.800 euro izan zen.

-2015ean Ekintzaile programako 92 ekimen eta Barnekintzaile programako 48 ekimen bultzatu ziren; zenbatekoa, guztira, 2.100.750 euro izan zen.

5. Eusko jaurlaritzak barne-ekintzailletza sustatzeko Up! Euskadi ekimena aurkeztu du. Ekimenean hiru

lurralde historikoetako BIC (Business and Innovation Centre) zentroak eta tarteko hainbat eragile (merkataritza-ganberak, klusterra, enpresa-elkarteak...) aritu dira. Prestakuntzako ekintzetan 400etik gora pertsona aritu dira, 36 enpresak adituen laguntza eskatu dute negozio, produktu edo zerbitzu berriak sortzeko, eta aditu-prestakuntzako ekintzetan 100 zuzendaritza-kide baino gehiago izan dira.

3. ekimena. Ekintzailtzari buruzko kultura bultzatzea hezkuntza eta prestakuntza maila desberdinetan, betiere gazteei eta irakasleei zuzenduta.

1.2.9 helburua. Kultura ekintzailea sustatzea

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzaren ekintzailtzaren aldeko politika Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari buruzko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen bidez egituratzen eta ezartzen da; horrez gainera Jaurlaritzak Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Plana prestatzen du lau urtean behin. Ekintzailtza bultzatzeko politikan ahalik adostasunik, koordinaziorik eta koherentziarik handiena lortzeko horretan ari diren agenteekin eta dauden ekimen guztiekin, aurretik Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek esparru-akordioa sinatu zuten 2013-07-02an: “Lankidetzarako esparru-akordioa, euskal gizartearen ahalmen ekintzailea modu eraginkor eta eragingarrian sustatu eta babestuko duen euskal ekintzailtza sistema bat garatzeko”.

2. Ondoren [Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Plana 2013–2016](#) prestatu zen eta Ekintzailtzaren Erakundearteko Mahai eratu zen eta ardura hauek ezarri zitzaizkion: Plana betearaztea eta ebaluatzea, eta beraren jarraipena egitea. Euskal Autonomia Erkidegoko ekintzailtzaren inguruko politika 4 euskal administrazio nagusiek Planean adostutako neurrien eta jarduketan bitartez eta ekintzailtza sustatzen duten agente nagusien lanaren bitartez gauzatzen da.

3. Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Plana tresna bat da, apustu irmo bat ekintzailtzaren alde, ekintzailtza eraldatze ekonomiko eta sozialaren eragilea den aldetik. Plan horrek aukera eskaintzen du jarduera ekintzailea babesten duen EAEko ekosistema hobetzen jarraitzeko. Ekintzailtzaren eta barne-ekintzailtzaren aldeko erakundearteko konpromisoa eta borondatea islatzen ditu.

4. Ekintzailtzaren sustapenari heltzen zaion eremuetako bat hezkuntza da: unibertsitateek, Lanbide Heziketak eta Oinarrizko Hezkuntzak abian jartzen dituzte ekintzailtza bultzatzeko programak eta planak hainbat zentrotan; hauexek izaten dira helburuak:

- Ekintzailtzaren kultura zabaldu eta ekintzailtzarako gaitasunak (buruzagitza, talde-lana, arriskuak bereganatzea eta sormena) lantzen dituzten programak prestatzea hezkuntzaren arloan (hezkuntza-sistemako lehen mailak, LH eta unibertsitatea) ari direnentzat.
- Hezkuntzaren arloko kolektiboari eta agentei ulertaraztea enpresak sortzea garrantzitsua eta onuragarria dela, enplegua eta aberastasuna sortu eta ekonomiaren garapenari laguntzen dion heinean.
- Curriculum akademikoetan ekintzailtzaren inguruko edukiak eta hartarako gaitasunak sartzea, zeharkakotasuna aintzat hartuz.

5. Hauxe da Planaren indarraldian egin diren jarduketan balantzea: 2.402 ikastetxek parte hartu dute ekintzailtza sustatzeko programetan. Gehienbat oinarrizko hezkuntzakoak eta lanbide-heziketakoak izan dira. Jarduketa horiek 4.000tik gora irakasle eta 460.000tik gora ikasle bildu dituzte. Programa horien osagarri, 19 sari eman dira, ekintzailtzarako eta Euskal Autonomia Erkidegoan enpresa-sena goraipatzeko sariak, eta guztira 343 proiektu aurkeztu dira haien bila.

4. ekimena. EAE emakumezko ekintzaileentzako leku erakargarri bihurtzea, legegintzaldi honetarako Berdintasun Plangintzan definitutako orientabideen markoaren barruan.

1.2.9 helburua. Kultura ekintzailea sustatzea

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea).

Jarduketa

1. Jarduera [Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Plana 2013-2016](#) tresna bat da, apustu irmo bat ekintzailetzaren alde, ekintzaileta eraldatze ekonomiko eta sozialaren eragilea den aldetik. Plan horrek aukera eskaintzen du jarduera ekintzailea babesten duen EAEko ekosistema hobetzen jarraitzeko. Ekintzailetzaren eta barne-ekintzailetzaren aldeko erakundearteko konpromisoa eta borondatea islatzen ditu. Planean emakumeen ekintzailetzaren aldeko jarduketak ezartzen dira: euskal emakume ekintzaileak aintzatestea eta aberastasuna eta enplegua sortzeko egiten dituzten ekarpenak goraipatzea.

2. Bilera bat egin da [Aspegi, Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkartearekin](#). ASPEGI Gipuzkoako emakume enpresaburu, profesional eta zuzendarien elkarte eta bilgunea da. Kideen interesak defendatzen eta sustatzen ditu enpresen arloan, profesionalen artean eta gizartean, eta beraien ordezkari gisa jarduten du. Elkartearen helburua bere jardun-esparrua eta eragin-eremua apurka-apurka zabaltzea da, horri esker gizarte zuzenagoa eta berdintasunezkoagoa lortu ahal izateko. Gaur egun ASPEGIn Gipuzkoako 400etik gora emakume daude, enpresa eta lanbide maila guztietakoak.

3. Eusko Jaurlaritzak [Aspegi 2016 Sariak](#) aldeztu ditu. Sari horien bidez emakumeek enpresa-arloan egiten duten lana aintzatesten da; horrela zuzendaritza-lanpostuetan, enpresaburu eta profesional gisa ari diren emakumeak bistaratzen dira eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen da lanbide horietan. Buruzagitzarako eta enpresa-lanerako jarrerak/gaitasunak/trebeziak saritzen dira; bi modalitate daude:

- Saria Gipuzkoako urteko emakume enpresari onenari.
- Saria Gipuzkoako urteko emakume zuzendari/profesional onenari.

1. ekimena. Pertsona ekintzaileen aldeko ekimen guztiak bideratuko dituen sistema arin eta eraginkorra lortzeko eskura dauden baliabide eta bitartekoak koordinatzea, gaur eguneko informazio- eta laguntza-tresna guztiak leihatila bakarrean integratuz.

1.2.10 helburua. EAEko ekintzaitza-sistema

Arduraduna: Estibaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek batera egin dute [Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakundearteko](#) 1. Plana, eta horren barruan helburu nagusi gisa planteatzen da eragileak eta baliabideak koordinatzea, EAEko ekintzaitza-sistema eraginkorragoa lortzeko. Abian jarri dira lantaldeak, egungo laguntza- eta informazio-zerbitzuen integrazioa eta koordinazioa bultzatzeko, EAEko Ekintzaitza Sistema homogeneo, bizkor eta eraginkorra garatze aldera.

2. Jarduera ekintzailea babesteko eragile eta zerbitzuen koordinazioa eta integrazioa bultzatu dira eta ekintzaitza babesteko eragileen mapa berrantolatu da: foru-aldundi, udal eta merkataritzaganberekiko koordinazioa sustatu, ekintzaitzaren babeserako eta informaziorako egungo tresnak elkarlanean birmoldatu eta integratzea helburu.

3. Bikoiztutako zerbitzuak kendu dira eta jarduera ekintzailea babesteko gap-ak estali dira: Euskal Autonomia Erkidegoan toki eta eskualde mailan enpresa-ekimenen babesaren arloan diharduten eragileen sare zabalaren lana berrantolatu eta sendotu egin da.

4. Erraztu eta sinplifikatu egin dira enpresa-ekimen berriak abian jartzeko behar diren administrazio-izapideak, enpresa sortzeko eta garatzeko prozesu osoan zehar ekintzaileei lagundu ahal izateko.

5. Hona lehentasunezko jarduketa-arloetako baten izena: "Ekintzaitzaren kultura eta balioak". Epe luzerako begirada bat da, zeinak aintzat hartzen baititu ekintzaile-sena sustatzeko ekintzak eta alderdi ekonomikoei, enpresari zein ekintzaitzari buruzko prestakuntza, hezkuntzaren etapa guztietan ematen dena (oinarrizko hezkuntzan, erdi-mailakoan, lanbide-heziketan eta goi-mailako hezkuntzan).

- 2.402 ikastetxek parte hartu dute ekintzaitza sustatzeko programetan. Gehienbat oinarrizko hezkuntzakoak eta lanbide-heziketakoak izan dira. Jarduketa horiek 4.000tik gora irakasle eta 460.000tik gora ikasle bildu dituzte.
- Programa horien osagarri, 19 sari eman dira, ekintzaitzarako eta Euskal Autonomia Erkidegoan enpresa-sena goraiatzeko sariak, eta guztira 343 proiektu aurkeztu dira haien bila.

6. Euskal Autonomia Erkidegoan ekintzaitza berritzaile eta teknologikoki aurreratuari laguntzeko egiturak berrantolatzeko eta hobetzeko prozesuaren barruan, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek akordioa egin dute EAEko enpresa- eta berrikuntza-zentroen (CEI) marka-irudia bateratzeko. Horrenbestez, alde batetik, EBZ horien nortasuna indartu nahi da bai Euskal Autonomia Erkidegoan bai nazioartean, izan ere BIC (Business Innovation Centre) akronimoa, aurrerantzean EAEko eremuan erabiliko dena, erreferentziako terminoa baita Europa osoan eta munduko zati handi batean. Marka-irudiaren aldaketa 2016ko otsailetik da ofiziala:

- BIC Araba. Lehen, CEIA (Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroa).
- BIC Bizkaia. Lehen, Kabi 612
- BIC Bizkaia ezkeraldea. Lehen, Cedemi (Ezkeraldeko Enpresak Garatzeko Zentroa)
- BIC GIPUZKOA. Lehen, Bic Berrilan

2. ekimena. Enpresa berrientzako zentroyen, enpresa-haztegiyen eta inkubagailuany sarea garatzea, betiere euren eremuetan sortuko diren enpresa proiektuany eta ekimenuany arteko elkarrekintzak erraztuz.

1.2.10 EAEko ekintzailletza-sistema

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa- eta berrikuntza-zentroyen (CEI) arteko koordinaziorako eta lankidetzarako sistemak indartzen ari dira, halako moldez non sinergiyan erabilera eta funtzionamenduaren eraginkortasun handiagoa sustatuko baitira.

2. Ekimen berriak, zentzu zabalean, toki-garapenerako agentzietatik babesten dira, eta proiektu berritzaileagoak edota oinarri teknologikokoak (OTEB, oinarri teknologikoko enpresa berriak) Business Innovation Centre-BICetatik babesten dira, eta foru aldundiek partekatutako funtsak esleitzen zaizkie, balizko negozio berriyan eta BICetako teknikariyan tutoretzapekoen bideragarritasuna aztertzeke.

3. 2013-2016 legegintzaldi honetan igaro diren urteetan martxan dira enpresa-ekimen berritzaile eta teknologikoki aurreratuak babesten dituzten programak, EAEko ekosistemako enpresa- eta berrikuntza-zentroyekin (CEI) lankidetzan (zentro horiek, alegia, Ceia, Beaz, Cedemi, Bic-Berrilan eta Saiolan, orain BIC Araba, BIC Bizkaia eta BIC Gipuzkoa deitzen dira) eta hiru foru aldundiekin elkarlanean.

4. Ekintzaile izeneko programa, enpresa-ideia berritzaileak edo oinarri teknologikodunak, industriarako eta industriarekin lotutako zerbitzuetarako profila dutenak, umotzeke sortua. Bi motatako finantza-laguntza ematen da: (1) Pertsona edo talde sustatzaileari ideia umotzeke eta enpresa-plana egiteke prozesuan laguntzea hura abian jarri arte. Diru-laguntza ez itzulgarria, gehienez 30.000 euro proiektuko. (2) Enpresa-plana gauzatzeke egin behar diren inbertsioetarako finantzabideak eskuratzen laguntzea, maileguen finantza-kostua murriztuz. LUZAROran bitartez, gehienez 180.000 euro ematen dira 7 urtera, lehenengo 2 urteetako gabealdiarekin.

5. Barnekintzaile izeneko programa: Ekintzaile izeneko programaren berdin-berdina, baina barne-ekintzailletzako / ekintzailletza korporatiboko proiektuetarako. Kasu honetan, enpresa-ideia berriyan jatorria lehendik baden enpresa batetik sortzen da, eta, ondorioz, haren planteamendua eta goranahia bakarkako sustatzaile batenak baino handiagoak izaten dira. Barne-ekintzailletzari Euskal Autonomia Erkidegoan ematen zaion garrantzia dela eta, berariazke bultzatze-ekimen bat jarri da abian, hurrengo atalean labur azalduke dena.

-2013an Ekintzaile programako 85 ekimen eta Barnekintzaile programako 39 ekimen bultzatu zireny; zenbatekoa, guztira, 1.848.150 euro izan zen.

-2014an Ekintzaile programako 99 ekimen eta Barnekintzaile programako 36 ekimen bultzatu zireny; zenbatekoa, guztira, 2.109.800 euro izan zen.

-2015ean Ekintzaile programako 92 ekimen eta Barnekintzaile programako 48 ekimen bultzatu zireny; zenbatekoa, guztira, 2.100.750 euro izan zen.

6. Bada lehentasun estrategiko bat Jarduera Ekintzailea Babesteko Planaren (JEBP) barruan: harreman oparoak ezartzea EAEko ekintzailletza-ekosistemaren eta Zientzia eta Teknologiaran Euskal Sareke eragilean artean, eragileok gai baitira merkatuan ibilbide luzea izan dezaketen ideia eta proiektuany iturri garrantzitsua izateke.

3. ekimena. Enpresak pertsona ekintzaile berriei transmititzeko baldintzak errazten dituzten laguntza zehatzetarako tresnak eta lanabesak bideratzea.

1.2.10 helburua. EAEko ekintzailetza-sistema

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Belaunaldi-txandaketarako programa](#). Euskal Autonomia Erkidegoko mikroenpresetan, enpresa txikietan eta ertainetan hausnarketa-prozesuak babestea du xede, enpresen kudeaketaren edo/eta jabetzaren ondorengotza planifikatzen laguntzeko, hura era ordenatuan egiteko, enpresen jarraipena ziurtatu eta ahalik eta lanpostu gehien mantendu eta iraunarazteko. Badoazen enpresaburuen interesak eta haien lekua hartu behar dutenen interesak adostu nahi dira, edozein izanda ere lehenengoak joateko arrazoia eta bigarrenen izaera (oinordekoak nahiz ekintzaile berriak).

Programa berriro jarriko da abian 2016an, eta honako hauek dira 2013-2015 bitarteko emaitzak:

-2013: Onartutako eskaerak 31 dira, diru-laguntza 0,14 M eurokoa, eta iraunarazitako lanpostuak 812.

-2014: Onartutako eskaerak 33 dira, diru-laguntza 0,16 M eurokoa, eta iraunarazitako lanpostuak 747.

-2015: Onartutako eskaerak 30 dira, diru-laguntza 0,17 M eurokoa, eta iraunarazitako lanpostuak 666.

4. ekimena. Enpresa berritzaileen partaidetza sustatzea lehiaketa publikoetan, "erosketa publiko berritzailearen" gaineko ekimenak bultzatuz.

1.2.10 helburua. EAEko ekintzailletza-sistema.

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea).

Jarduketak

1. [2013-2016 Industrializazio Planeko](#) jarraibideekin bat etorriz, Innobideak ekimenak erantzuna ematen die jarduketa-ardatz batzuei, xede hauek lortzeko: manufaktura aurreratuaren zeharkako estrategia abian jartzea, pertsonen enpresan parte har dezaten sustatzea eta berrikuntza ez teknologikoaren estrategia berrabiaraztea. [Innobideak estrategiaren](#) helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen lehiarako hobekuntza sustatzea, batez ere ETEena, dibertsifikaziorako laguntza, pertsonen parte-hartzea eta kudeaketaren hobekuntza direla bide, krisi-inguruneari aurre egiteko eta etorkizuneko garapen lehiakorrerako oinarri sendoak ezartzeko globalizazioaren esparruan.

2. Programei dagokienez, Innobideak Lehiabide izenekoak produktuen, zerbitzuen edota merkatuen dibertsifikazioa ahalbidetuko duten proiektuak egin daitezten sustatzea du helburu. Programa horretan 2013an, 2014an eta 2015ean hurrenez hurren 96, 56 eta 98 eskaera jaso dira, eta horietatik 52, 26 eta 65 onartu. Guztira 1.498.411 euroko, 852.428 euroko eta 1.615.285 euroko diru-laguntzak eman dira, hurrenez hurren.

3. Produktu eta zerbitzu berriak ezagutaraz ditzaketen komunikazio-bideen ezarpena sustatzea.

5. ekimena. Jakintza sortzeko eta ekintzaitetzan jarduteko prozesuen arteko loturak handitzea, zentro teknologikoetan sortutako ideia berritzaileak enpresa bideragarri eta lehiakor berri bihurtzeko bideak ezarri.

1.2.10 helburua. EAEko ekintzaitetza-sistema

Arduraduna: Estibaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Plana tresna bat da, apustu irmo bat ekintzaitetzaren alde, ekintzaitetza eraldatze ekonomiko eta sozialaren eragilea den aldetik. Plan horrek aukera eskaintzen du jarduera ekintzailea babesten duen EAEko ekosistema hobetzen jarraitzeko. Ekintzaitetzaren eta barne-ekintzaitetzaren aldeko erakundearteko konpromisoa eta borondatea islatzen ditu. Bada, [Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Planaren](#) lehenetsuneko ardatzetariko bat ideia eta proiektu berriez mintzo da, eta ardatz horretan gehiago eta hobeto lan egin nahi da enpresa-ekimen berrien balizko iturriekin eta sorguneekin. 2015eko ekitaldian zehar Gipuzkoan abian jarri da teknologia zentroyen eta BICen arteko loturak errazteko berariazko ekimen bat.

2. 2015eko uztailaren 16an argitaratu zen ekainaren 23ko [109/2015 Dekretua](#), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzen eta eguneratzen duena. Berrantolatze-prozesu horrek bereziki azpimarratzen du garapen esperimentalaren garrantzia, eta, zehatzago, egiten den ikerketa merkatura bideratu beharra. Horretarako, sareko eragileen aginte-koadroetan kontzeptu berri bat sartu da, alegia, eragile horiek garatzen edo sustatzen dituzten oinarri teknologikodun enpresetan sortutako lanpostu berrien kontzeptua. Aginte-koadro horiek erreferentziako elementuak dira sareko eragile gisa akreditazioari eutsi ahal izateko.

1. ekimena. Sortu berri diren enpresen finantzaketari laguntzeko lerroak sendotzea eta garatzea, honako hauek, besteak beste: egindako inbertsioei dagozkienak (Gauzatu), finantza-premiei aurre egiteko abalak, enpresa-proiektuetako partaidetza (Ekarpen), lehenengo urtean abian jartzeko laguntzak edota instalazio fisikoak edo bulegoak eskuratzea.

1.2.11 helburua. Proiektu berrien finantzaketa

Arduraduna: Estibaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketa

1. 2013-2016 legegintzaldi honetan igaro diren urteetan martxan dira enpresa-ekimen berritzaile eta teknologikoki aurreratuak babesten dituzten programak, enpresa- eta berrikuntza-zentroekin (CEI) lankidetzan (Ceia, Beaz, Cedemi, Bic-Berrilan eta Saiolan dira zentro horiek) eta, halaber, hiru foru aldundiekin elkarlanean.

2. Ekintzaile izeneko programa, enpresa-idea berritzaileak edota oinarri teknologikodunak, industriarako eta industriarekin lotutako zerbitzuetarako profila dutenak, umotzeko sortua. Barnekintzaile izeneko programa: Ekintzaile programaren berdin-berdina, baina barne-ekintzaitzako eta ekintzaitza korporatiboko proiektuetarako.

-2013an Ekintzaile programako 85 ekimen eta Barnekintzaile programako 39 ekimen bultzatu ziren; zenbatekoa, guztira, 1.848.150 euro izan zen.

-2014an Ekintzaile programako 99 ekimen eta Barnekintzaile programako 36 ekimen bultzatu ziren; zenbatekoa, guztira, 2.109.800 euro izan zen.

-2015ean Ekintzaile programako 92 ekimen eta Barnekintzaile programako 48 ekimen bultzatu ziren; zenbatekoa, guztira, 2.100.750 euro izan zen.

3. Barne-ekintzaitza da lehentasunezko jarduketa-eremuetariko bat. Euskal Autonomia Erkidegoko industria-ehunaren ezaugarriak kontuan harturik, berebiziko ahalmena dago, lehendik badiren enpresen multzotik sortutako proiektuen bidez askatu beharrekoa. Horretarako, barne-ekintzaitzari bultzada eman behar dion ekimen bat proiektatu eta diseinatu da, BIC/CEI zentroekin elkarlanean. Jada lehenengo edizio bat izan zuen 2014an, eta, haren arrakasta ikusirik, 2015ean ekimenaren bigarren edizio handinahiago bat garatu zen. Xedetzat ditu, batik bat, 50 langiletik gorako industria-enpresak, edo aberastasuna eta enplegua sortzeko ahalmen handiko proiektuak dauzkatenak.

4. [Arrisku Kapitaleko Basque Funtsa](#), 5.400.000 euroz hornitua, enpresei laguntzeko tresna bat da. Funtsak ematen dizkie enpresei, kapital sozial eran edo partaidetza-maileguen bidez. Dagoeneko Ekintzaile programako onuradun izan diren eta, beraz, hasiera batean balidatutako negozio-plana baduten enpresek erabil dezakete funts hori, baldin eta enpresa-ibilbideko lehen etapak ("heriotzaren harana" deritzen hori) gainditzeko finantzaketa-beharrizanak badituzte.

- 2014an 15 aurkeztu ziren, 9 onartu ziren, eta finantzaketarako 900.000 euro jarri ziren.
- 2015ean 17 aurkeztu ziren, 13 onartu ziren, eta finantzaketarako 1.250.000 euro jarri ziren.

5. Gauzatu - Kanpo Ezarpenak izenekoaren helburua da enpresen nazioarteko lehiakortasuna hobetzea, atzerrian egiten dituzten ezarpen produktiboak babestuz. Inbertsioaren % 35erainokoak izan daitezke aurrerakin itzulgarri moduan emango diren laguntzak. Gehienez ere, 150.000 euroko laguntza emango da sortutako lanpostu bakoitzeko, eta inoiz ez 1.500.000 euro baino gehiago.

6. Industria-partaidetzen sozietatea da Ekarpen. Euskal Autonomia Erkidegorako erakargarritasun estrategikoa eta industria-ehunetik tiratzeko gaitasuna duten sektore berritzaileei laguntzea du helburu,

balioa sortzeko ahalmen handia eta neurri egokia duten proiektuak lor daitezzen. Partaide ditu Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, Kutxabank eta Lagun Aro. Haren kapital gehiena pribatua da. Gaur egun 90 milioi eurotik gorako inbertsio-ondarea kudeatzen du, eta zortzi proiektu estrategikotan 68,5 milioi euroko inbertsio-zorro bizia du.

2. ekimena. Arrisku-kapitalaren eta hazi kapitalaren erabilgarritasuna areagotzea EAEko enpresa berrien eskura ipintzeko

1.2.11 helburua. Proiektu berrien finantzaketa

Arduraduna: Estibaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Arrisku Kapitaleko Basque Funtsa](#), 5.400.000 euroz hornitua, enpresei laguntzeko tresna bat da. Funtsak ematen dizkie enpresei, kapital sozial eran edo partaidetza-maileguen bidez. Dagoeneko Ekintzaile programako onuradun izan diren eta, beraz, hasiera batean balidatutako negozio-plana baduten enpresek erabil dezakete funts hori, baldin eta enpresa-ibilbideko lehen etapak (“heriotzaren harana” deritzon hori) gainditzeko finantzaketa-beharrizanak badituzte.

2. Arrisku Kapitaleko Funtsaren kudeatzaileak, Basque Funtsarekin elkarlanean, estrategia osagarriak garatzen ditu, hala nola:

- Tira egiten duten EAEko enpresen eta enpresa sortu berrien arteko lankidetzaproiektuetarako laguntza.
- Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatzea, business angel-en, hazi kapitalaren eta arrisku-kapitalaren bitartez ekintzailatza-proiektuen finantzaketa sustatuko duten ekimen berriak garatzeko.
- Nazioarteko arrisku-kapitaleko funtsak erakar daitezten sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa berritzaile berriak finantzatzeko aukerak handitze aldera.

3. Eusko Jaurlaritzak, ASLEekin elkarlanean, [Lanpar Programa](#) (Lan Partekatua) bultzatzen du, langileek enpresen kapital sozialean parte har dezaten errazteko. Programa horrek 2,5 milioi euroko hornidura du, eta langileek enpresaren arlo guztietan parte hartzeko moduko enpresa-eredua bultzatu nahi du, eredu horrek bereziki erraztuko dituelakoan jarduera ekonomikoen eta enpleguaren iraupena eta garapena. Bide ematen du, gainera, enpresak modu egonkorrean finantzatzeko, haien kaudimen- eta autofinantzaketa-ratioak hobetuz.

4. Honako hauek izan litezke xede-enpresak, langileek kapital sozialean parte har dezaten interesik handiena izan lezaketenak:

- a.- Negozioaren iraupena ahalbidetzarren bazkideak ordeztzea planteatzen duten sozietateak.
- b.- Sozietate sortu berriak, pertsona osatzaileen ezagutzan oinarritutakoak.
- c.- Zailtasunak dituzten enpresak, langileek erabakitzen baldin badute negozio osoari edo zati bati jarraipena ematea, jabetza euren gain hartuz eta lan-sozietate bihurtzeko prozesuak lehenetsiz.
- d.- ETEak, baldin eta, filosofiagatik, euren enpresa-masa handitu nahi badute langileek parte hartuz edo garrantzi handiagoko parte-hartze prozesuen bitartez.
- e.- Dagoeneko lan-sozietate eta ASLEko bazkide diren enpresak.

Langileek enpresan parte har dezaten sustatzeko arlo horretan, zehazki, eta parte-hartzearen kulturaren sustapenean, oro har, elkarlan handia egiten da beste eragile batzuekin, besteak beste enpresa-konfederazioekin eta foru-erakundeekin.

1. ekimena. Enpresa traktoreen eta enpresa hornitzaileen arteko lankidetzaren bultzatzea, betiere enpresa berrien sorrerara sustatzeko asmoz.

1.2.12 helburua. Jarduera berriak sortzea

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [2013-2016 Industrializazio Planeko](#) jarraibideekin bat etorriz, [Innobideak estrategiak](#) erantzuna ematen die honako jarduketa-ildo hauei: fabrikazio aurreraturako zeharkako estrategia abiaraztea, pertsonen enpresetan parte hartzea bultzatzea, eta teknologikoa ez den berrikuntza-estrategia berrabiaraztea. Horren bidez EAEko enpresen lehiakortasuna hobetu nahi da, batez ere ETE-ena. Horretarako, dibertsifikazioa, pertsonen parte-hartzea eta kudeaketaren hobekuntza sustatuko dira, krisialdiaren egoerari aurre egiteko eta etorkizuneko garapen lehiakorren bultzatzeko oinarri sendoak globalizazioaren esparruan ezartzeko.

2. [Innobideak-Lehiabide](#) programak enpresa-partzuergoen sorrerara babesten du, produktuetan eta merkatuetan berrikuntzak egiteko prozesuak (dibertsifikazioa) sustatzeko. Produktuak, zerbitzuak edota merkatuak dibertsifikatzea ahalbidetzen duten proiektuak egin daitezela sustatzea du helburu. 2013an, 2014an eta 2015ean hurrenez hurren 96, 56 eta 98 eskaera jaso dira, eta horietatik 52, 26 eta 65 onartu; hurrenez hurren 1.498.411 euro, 852.428 euro eta 1.615.285 euro eman dira diru-laguntzetan.

3. Eusko Jaurlaritzak eta Petronor-Repsol Oil&Gas sektoreko hornitzaileen plataforma bat eratu dute. Esparru-hitzarmena sinatu da Oil&Gas sektorean hornitzaileen garapen-plana abian jartzeko eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen (ZTBES) eta Repsoleko Teknologia Zentroaren (CTR) arteko lankidetzarako esparrua egituratzeko.

4. EAEk eta Daimler Mercedes Benz taldeak lankidetzaren indartu dute EAEko hornitzaile-sarea bezalako arloetan. EAEko enpresa hornitzaile homologatuek Mercedes Benz produktu eta zerbitzuen garapenean parte hartzeko aukera aztertu da. Helburua da industria osagarriko enpresen eta hornitzaileen hobekuntzan sakontzea, horiek guztiek enpresaren eskakizunak bete ditzaten, euren I+G lana hasieratik Mercedesekin batera eginez.

5. Enpresek Mexikora egindako bisitan jardunaldi bat egin da, EAEko energia-sektoreko hornitzaileek jakin dezaten, Mexikoko erakunde eta enpresa nagusien eskutik, zer nolako aukera duten euren produktuak, zerbitzuak eta teknologiak eskaintzeko, herrialde horretan onartu berri den energia-erreformaren ondoren. EAEko berrogeita hamarretik gora enpresak parte hartu zuten jardunaldi horretan, eta azpimarratzekoak dira hizlari publiko zein pribatuen maila eta lortutako elkarrizketa gradua.

6. Energiaren Klusterrarekin batera bultzatutako Wave Energy Basque Country markaren itzalpean bildutako EAEko enpresa-ekimen berriek nazioartean parte hartzea sustatu da. Itsas energiari buruzko ikerketarako EAEko proiektuak munduko erreferenteak dira arlo horretan. ICOE 2016 itsas energien azoka eta biltzarrean, Eskozian, EAEko ordezkari talde bat izan da, hain zuzen ere itsas zerbitzu eta teknologien arloko Tecnia, Oceantec, Zunival eta Vicinay Marine enpresak, bai eta Euskal Energia Erakundearen Bimex eta Mutriku ikerketa-azpiegiturak ere, EAEko Energiaren Klusterrak bultzatutako Wave Energy Basque Country markaren pean bilduta.

2. ekimena. EAEko enpresa- eta berrikuntza-zentroen zeregina indartzea, enpresa berritzaileak finkatzeko eta abian jartzeko laguntza eta osoko aholkularitza emateko erreferente gisa.

1.2.12 helburua. Jarduera berriak sortzea

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzak sendotu egin du enpresa- eta berrikuntza-zentroentzako (EBZ-BIC) laguntza: Ceia, Bic Berrilan, Saiolan, Cedemi... Horiei guztiei laguntzen die, bai defizita estaltzeko bai kapital-handitzeetarako edo inbertsioetarako ekarpenen bidez. BEAZekiko lankidetzaren indartzearen bidez, lankidetzaren hitzarmena sinatuz.

2. Etenik gabeko lana egiten da bussines innovation centre edo BIC horiekin, pertsona ekintzaileei eskaintzen dizkieten zerbitzuen zorroa eta katalogoa osatu eta indartzeko.

3. ekimena. EAEko enpresek duten barne-ekintzailtzarako gaitasuna ahalik eta gehien indartzea, bereziki enpresa-proiektu berriak sortzeko eta garatzeko.

1.2.12 helburua. Jarduera berriak sortzea

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Barnekintzaile izeneko programa](#): Ekintzaile izeneko programaren berdin-berdina, baina barne-ekintzailtzako / ekintzailtza korporatiboko proiektuetarako. Kasu honetan, enpresa-idea berriaren jatorria lehendik baden enpresa batetik sortzen da, eta, ondorioz, haren planteamendua eta goranahia bakarkako sustatzaile batenak baino handiagoak izaten dira. Barne-ekintzailtzari Euskal Autonomia Erkidegoan ematen zaion garrantzia dela eta, berriazko bultzatze-ekimen bat jarri da abian, hurrengo atalean labor azalduko dena.

2. Barne-ekintzailtzari bultzada emateko ekimena: Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Planeko lehentasunezko jarduketa-arloetakoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko industria-ehunaren ezaugarriak kontuan harturik, berebiziko ahalmena dago, lehendik badiren enpresen multzotik sortutako proiektuen bidez askatu beharrekoa. Horregatik, EAEko enpresetan barne-ekintzailtzari bultzada eman behar dion ekimen bat proiektatu eta diseinatu da, BIC/CEI zentroekin elkarlanean. Jada lehenengo edizio bat izan zuen 2014an, eta, haren arrakasta ikusirik, 2015ean ekimenaren bigarren edizio handinahiago bat garatu da.

3. Barne-ekintzailtzari bultzada emateko ekimenaren helburua da prestakuntza eta laguntza eskaintzea euren negozio-arloetarako bektore estrategiko gisa barne-ekintzailtzaren bidea arakatu nahi duten enpresei. Xedetzat ditu, batik bat, 50 langiletik gorako industria-enpresak, edo aberastasuna eta enplegua sortzeko ahalmen handiko proiektuak dauzkatenak. Lehendik badiren enpresetatik negozio berriak sor daitezen erraztu eta bizkortu nahi da, eta EAEko enpresa-ehunari gaitasuna eman nahi zaio balio bereizgarri gisa bereganatu dezan enpresen barrutik jarduera ekintzailea sortzeko joera, eta laguntza-esparru aditua eskaini, erreferentziako trakzio-enpresen bitartez.

4. ekimena. Nazioarteko enpresak eta pertsona ekintzaileak erakartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan finkatuko direla errazteko helburuarekin.

1.2.12 helburua. Jarduera berriak sortzea

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [2014-2016 Industrializazio Plana](#) egin da, EAEko industriari laguntzeko gobernu-tresna gisa. Bost ardatz estrategiko ditu: (1) ETEak finantzatzea eta berregituratzea (2) Industria-proiektu estrategikoei bultzada ematea (3) Industria aurreratua sendotzea (4) Industria- eta energia-ingurune lehiakorra sortzea (5) Pertsonen eta giza kapitalaren aldeko apustua. 575 M euroz hornituta dago. EAEko ekonomiaren irekiera gradua handitu nahi da, alde anitzeko nazioarteko lankidetzak eta finantzaketa-proiektuetan parte hartu, eta atzerriko inbertsioa EAera erakarri eta bertan finkatu.

2. Invest in the Basque Country (IBC) delakoak, hots, atzerriko zuzeneko inbertsioak (AZI) erakartzeko eta mantentzeko prozesuak, 2015ean 22 industria-proiektu berri EAEn inbertitzea lortu du. Horrenbestez, aurreko urtean lortutako bost inbertsioak halako 4 baino gehiago lortu dira 2015ean Eusko Jaurlaritzaren ekimen horren bitartez. Hala, bada, 2015ean atzerriko 22 enpresak aukeratu dute Euskal Autonomia Erkidegoa inbertsio berriak egiteko, guztira 137,05 milioi eurokoak. Hura indartu eta soilik bi urtean atzerriko 27 inbertsio erakarri dira: 152,05 milioi euro inbertitu dira, 783 lanpostu sortu dira eta 1.227 lanposturi eutsi zaie. Haien helburu nagusia izan da ekoizpen-lantegiak garatzea eta enpresen I+G+B unitateak sortzea.

3. Atzerriko inbertsio proiektuetarako leihatila bakarra. "Invest in the Basque Country" delakoak eskaintzen dituen zerbitzuen artean azpimarratzekoa da atzerriko inbertsio proiektuetarako leihatila bakar gisa diharduela.

- Aurretiazko informazio espezializatua eskaintzen da
- Led proiektuetarako banakako laguntza
- Led proiektua garatzeko laguntza (Aftercare)
- Hainbat entitatekin lankidetzan jarduten da.

4. [Landhome programa](#). Atzerrira joandako EAEko profesionalak nazioartean lortutako esperientziak balio handia dakarkie gure enpresei, garapenaren eta hedapenaren erronkei aurre egiteko garaian. Izan ere, giza baliabideen arloko politikak era eragingarriagoan kudeatzen dituzten enpresa handiek eta enpresa-taldeek, normalean, lehen mailako betekizuntzat dute kanpoan proiektuetan parte hartu izana, hala sustatu egiten baitira erantzukizuneko postuetara doazen karrera profesionalak.

5. Horiek horrela, bi helbururi begira esku hartzen du Administrazio publikoak: EAEko enpresen premia jakin bat betetzeko, izan ere gero eta beharrezkoagoak baitituzte merkatu globaletan aritutako profesionalak; eta, karreraren zati bat atzerrian egin ondoren, euren lanbide-karrerak baldintza duinetan garatzeari uko egin beharrik izan gabe EAera itzultzeko prest egongo diren profesionalen eskari sozialari erantzuteko. Enpresei Euskal Autonomia Erkidegora itzultzeko profesionalen kontrataziorako diru-laguntzak emateko Landhome programan, 2015eko ekainaren 17ko AGINDUAREN arabera, diru-laguntza ez itzulgarria ematen da, eta horren zenbatekoa, berriz, EAera itzuli eta lehenengo urteko soldata gordinaren portzentaje jakin bat da. Hauxe da laguntzaren muga: soldata-kostu gordinaren % 50, eta gehienez ere 35.000 euro.

5. ekimena: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen artean ekintzailtza bultzatzea eta oinarri teknologiko eta/edo berritzailea daukaten enpresa-ekimen berriak sortzeko orientazioa sendotzea.

1.2.12 helburua. Jarduera berriak sortzea

Arduraduna: Estibaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013-2016 legegintzaldi honetan igaro diren urteetan martxan dira enpresa-ekimen berritzaile eta teknologikoki aurreratuak babesten dituzten programak, EAEko ekosistemako enpresa- eta berrikuntza-zentroekin (CEI) lankidetzan (Ceia, Beaz, Cedemi, Bic-Berrilan eta Saiolan dira zentro horiek) eta, halaber, hiru foru aldundiekin elkarlanean.

2. Ekintzaile izeneko programa: Enpresa-idea berritzaileak edota oinarri teknologikodunak, industriarako eta industriarekin lotutako zerbitzuetarako profila dutenak, umotzeko sortua. Barnekintzaile izeneko programa: Ekintzaile programaren berdin-berdina, baina barne-ekintzailtzako / ekintzailtza korporatiboko proiektuetarako.

-2013an Ekintzaile programako 85 ekimen eta Barnekintzaile programako 39 ekimen bultzatu ziren; zenbatekoa, guztira, 1.848.150 euro izan zen.

-2014an Ekintzaile programako 99 ekimen eta Barnekintzaile programako 36 ekimen bultzatu ziren; zenbatekoa, guztira, 2.109.800 euro izan zen.

-2015ean Ekintzaile programako 92 ekimen eta Barnekintzaile programako 48 ekimen bultzatu ziren; zenbatekoa, guztira, 2.100.750 euro izan zen.

3. [Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Plana](#) tresna bat da, apustu irmo bat ekintzailtzaren alde, ekintzailtza eraldatze ekonomiko eta sozialaren eragilea den aldetik. Plan horrek aukera eskaintzen du jarduera ekintzailea babesten duen EAEko ekosistema hobetzen jarraitzeko. Ekintzailtzaren eta barne-ekintzailtzaren aldeko erakundearteko konpromisoa eta borondatea islatzen ditu. Lehentasuneko ardatzetariko batek xedetzat du ZTBESko eragileekiko lankidetzat indartzea, I+G+B arloko jarduera enpresa-jarduera berrien sorrerara bideratzeko.

4. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea (ZTBES) tresna nagusietakoa da EAEn berrikuntzarako estrategia berria hedatzeko. Hura egokitu, antolatu eta eguneratzeko prozesua ekainaren 23ko [109/2015 Dekretuan](#) gauzatu da. Izan ere dekretu horrek sarearen osaera arautzen eta eguneratzen du, eta aginte-koadro bat jasotzen du, non, besteak beste, oinarri teknologikoko enpresen sorreraren adierazlea baitago. Adierazle hori bete behar da, sareko eragileetako batzuek (teknologia-zentroak eta IKZak) funtsak jaso ahal izan ditzaten Emaitek+ programatik.

5. [Emaitek Plus programak](#) 52,6 milioi euroko deialdia dauka. Baliabide horren bitartez finantzatzen dira teknologia-zentroak eta ikerketa kooperatiboko zentroak (IKZ). Horretarako, haien jardueraren emaitzak ebaluatzen dira, emaitzetara bideratutako zentroen ereduari jarraituta, eta zentro bakoitzeko jarduketaplanen arabera. Xedea da zentroen emaitzak eta gaitasunak hobetu eta merkatura bideratzea, I+G+Baren balio-kate osoan zehar lan eginez eta etorkizunera begirako ezagutza berriak eskuratuz Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean zehaztutako espezializazio-esparruetan; halaber, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen arteko lankidetzat sustatu nahi da.

6. Alde batetik, [Hazitek](#) programak (68 milioi euroko deialdiarekin) laguntza ematen du oinarri teknologikoko enpresa berriak (OTEB) sor daitezen sareko eragileetan; eta bestetik, 109/2015 Dekretuak, Sarea berrantolatzen duenak, eragileei eskatzen die emaitza jakin batzuk lortzeko arlo horretan; horrenbestez, bi ekintzak uztartuta, espero da bultzada emango zaiola enpresa-ekimen berrien sorrerari.

1. ekimena. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea ikerketa aplikatuko programak, euskal enpresa sarean eragina dutenak, egiteko ardaztea.

1.3.1 Industriari laguntzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzak [Ekoizpen Aurreratuko Estrategia](#) ezarri du Euskadin. Horretan, Ekoizpen Aurreratuko Zentroyen bultzadak ezin hobeto erakusten du arlo publikoaren eta arlo pribatuaren arteko elkarlana. Parte-hartzaileak izan dira erakundeak, zientziako eta teknologiko eragileak, kluster motako elkarteak eta trakzio-enpresak. Guztien helburua I+G emaitzak arinago merkaturatzea da.

2. 2014an martxan jarri zen sektore eolikorako ekoizpen aurreratuko zentro bat, Windbox, bederatzi euskal enpresarekin (Antec, Adwen, Erreka, Gamesa Eólica, Gamesa I&T, Glual, Hine, Lau Lagun eta Wec), Energia Klusterrarekin eta IK4-Tekniker teknologia-zentroarekin batera. Hasierako inbertsioa 4,5 milioi eurokoa izan da. Euskadiren posizionamendu teknologikoa hobetzeko eta, euskal hornitzaileen indarrari eta gaitasunari esker, sektore eolikoan gu erreferentzia-herrialdea izateko sortu da. 2015ean, lehen saiakuntza-bankuan abiarazi zen.

3. Era berean, *off-shore* teknologiekin lan egin da, eta euskal enpresek itsas eolikoari buruzko I+G proiektuak batera garatzea bultzatu da, Offshore Wind Energy Basque Country markan bilduta. Energia Klusterrak eta Euskal Herriko Itsas Foroak sustatu dute marka.

4. 2015ean martxan jarri da [Aeronautikako Ekoizpen Aurreratuko Zentroa](#). Hasierako inbertsioa 9 milioi eurokoa izan da, eta Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak egin dute. Oinarrizko ikerketa aplikatuko emaitzak ekoizpen-inguruneari transferitzea eta, aldi berean, ekoizpen aurreratuko proiektuak egitea ditu xede. 11 euskal enpresak parte hartu dute (ITP, Danobat, WEC Velatia, Grupo Alfa, GMTK, Ibarria, Mesima, Metalúrgica Marina, Sikulan, LAIP, Sariki, ONA-EDM, Sandvik). Horrez gain, Hegan eta AFM klusterrak erakunde laguntzaileak dira; eta UPV/EHU agente teknologikoa da.

5. Ekainaren 23ko [109/2015 Dekretua](#), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeko eta eguneratzeko, 2015-07-16an argitaratu zen. Antolamendua berritzeko prozesu horren xedea sareko eragileen efizientzia eta emaitzekiko orientazioa handitzea da, bai eta EAEko ekoizpen-sareari eta sare sozialari egin diezaiekeen ekarpena hobetzea ere.

6. Eusko Jaurlaritzak ZTBESaren antolamendu berria diseinatu du. Helburuak honako hauek dira: merkatutik hurbilago egongo den jarduera zientifiko eta teknologikoa garatzea, herrialde lehiakorrenen ildotik; jarduera Euskadiko espezializazio adimenduneko arloetan kontzentratzea, produktibitatea eta kalitatea handitzeko; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragile guztien bikaintasuna hobetzea; eta merkatura bideratutako lankidetzak-ikerketa sendotzea.

7. Honako hauek dira I+G babesten duten [gaur egungo programa](#) lehiakorrak: Hazitek (enpresak), Elkartek (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak) eta Berrikertu (ikertzaileak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean etan enpresetan txertatzeko). Programa ez-lehiakorrak dira Emaitek+ (zentro teknologikoak eta ikerketa kooperatiboko zentroak).

2. ekimena. Sektore pribatuarekin batera, jarduera ekonomikoa eraginkortasunez bultzatzen duten berrikuntzako "trakzio-proiektuak" zehaztu eta bultzatzea.

1.3.1 Industriari laguntzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. Trakzio-enpresen eta ETEen ikerketa-proiektuak bultzatu dira, [Etorgai programa](#)ren bultzadaren bitartez. Etorgai programaren 2014ko deialdia 29 milioi eurokoa izan zen, eta 2015eko deialdia 28 milioi eurokoa.

2. Gaitek programaren bitartez, produktu berriak garatzeko eta oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak abiarazteko proiektuak sustatu dira. 2014ko deialdian 36.365.716 euro esleitu ziren; eta 2015eko deialdian 34.500.000 euro.

3. [NETS programaren](#) bidez bultzatu dira proiektu berritzaileak. 2014ko deialdiaren zenbatekoa 3.785.714 eurokoa izan da, eta 2015ean programa Gaitek programan txertatuko da.

4. [Hazitek programa](#)ren aurrekontu osoa 2016-01-13an argitaratu zen, eta deialdia 68 milioi eurokoa izan zen. Etorgai, Gaitek eta NET programak ordeztu ditu, eta enpresei zuzendutako bi laguntza-lerro biltzen ditu: proiektu lehiakorrak eta proiektu estrategikoak. Bigarren lerro hori pentsatuta dago ZTBP 2020 arloan lankidetzan zein banaka egiten diren I+G proiektu estrategikoak garatzeko. Zenbatekoa 30 milioi eurokoa da.

5. Euskal industriako I+G proiektuetarako 146.850.000 euro esleitu dira, 2016ko deialdietan. Horren arabera, bi urtean % 18,24ko gehikuntza metatu da (2014: 124.201.430 euro; 2015: 134.742.850 euro). I+G programen arkitektura berria, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen arabera, ekonomia lehiakorragoa bultzatzeko. Programan funtsezkotzat hartuko dira espezializazioa, merkatura hurbiltzea eta enpresen eta ZTBESko eragileen arteko ikerketa kooperatiboak.

6. [ZTBP 2020](#) garatzean, lehentasun estrategikoak ezarri dira. Lehentasun horiek Euskadiko espezializazio-prozesu adimendunean (RIS3) zehaztuta daude. Bertan, ikerketaren, berrikuntzaren eta Euskadiko ekoizpen-gaitasunen arteko sinergia argiak zehaztu dira. Hiru gidatze-talde bertikalak ezarri dira. Taldeotan herrialde-proiektuak lantzen dituzte, lankidetzan publikoaren eta pribatuaren bidez.

- **Fabrikazio aurreratua:** Euskal ekonomiaren ezaugarri industrialak babestu nahi ditu, balio erantsi handiagoko fabrikazio aurreratuko jarduerak bultzatuz. Honako helburu hauetarako ikerkuntzaren alde egiten da: ekoizpen ingurunetan eta sistemetan adimena sartzeko; gaitasunak eta sortzen ari diren teknologiak produktu berrietan eta prozesuetan aprobetxatzeko; balio erantsi handiagoko soluzioetan edo prozesu hobetuetan material aurreratuak sartzeko; erabilitako baliabideen efizientzia eta iraunkortasuna bermatzeko; eta balio erantsi handiko zerbitzuak txertatzeko: «Basque Industry 4.0» estrategia.
- **Energia:** Ikerketa eta garapen teknologikoa eta industrialak egiten dira EnergiBasque estrategian zehaztutako arloetan. EnergiBasque estrategia aplikatzen zaie energia elektrikoari, petrolioari, gasari eta ordezko energiei, Euskadi energia horietan gailentzen delako.
- **Osasuna:** Maila handiko eta enpresa-sektore berriko gaitasun zientifiko-teknologikoak (mikro-nano-bio-ikt) erabilgarri izateko helburua ezarrita dauka.

3. ekimena. Trakzio-enpresen eta ETEen arteko lankidetzarako programa teknologikoak sustatu eta indartzea.

1.3.1 Industriari laguntzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. Etorgai eta Gaitek programen bitartez, mota horretako proiektuen kopuru handia sustatu da. Etorgai 2014 programaren aurrekontua 29 milioi eurokoa izan zen. Guztira 51 proiektu estrategiko onartu zituen, eta haietako 46 lankidetzaproiektuak dira. Gaitek 2014 programaren aurrekontua 36,6 milioi eurokoa izan zen. Guztira 796 proiektu lehiakor onartu zituen, eta haietako 632 lankidetzaproiektuak ziren.

2. Etorgai 2015 programaren aurrekontua 28 milioi eurokoa izan da. Guztira 29 proiektu estrategiko onartu ditu, eta haietako 27 lankidetzaproiektuak dira (gutxienez hiru enpresaren arteko partzuergoa). Gaitek 2015 programaren aurrekontua 34,5 milioi eurokoa izan da. Guztira 739 proiektu lehiakor onartu zituen (592 proiektu lankidetzan egiten dira).

3. [HAZITEK programa](#) berriaren 2016ko aurrekontua 68 milioi eurokoa da, eta programan bildu dira enpresei zuzendutako bi lerro:

- Proiektu lehiakorrak. Produktu berrien garapena sustatzen duten I+G proiektu lehiakorrak eta oinarri zientifiko eta teknologikodun enpresa berriak abiaraztea. Horretarako zenbatekoa 38 milioi eurokoa da. I+G jarduera handia eskatzen dute, bai eta maila handiko ezagutza zientifikoak eta teknologikoak ere. Prestakuntza handiko zientzialarien eta teknologiako adituen parte-hartzea aintzat hartzen da.
- Proiektu estrategikoak. I+G proiektu estrategikoak garatzeko. Proiektuak lankidetzan edo banaka egin daitezke, ZTBP 2020 arloan. Zenbatekoa 30 milioi eurokoa da.

4. Egun arte zeuden Gaitek eta Etorgai programen bitartez –Hazitek [laguntza-lerro berriaren baliokideak](#)–, 2014an, 825 proiektu bultzatu ziren, 957 enpresak parte hartuta. Guztira, 273,1 milioi euroko inbertsioa atxiki zitzaien, eta Eusko Jaurlaritzak 62,5 milioi euro eman zituen.

5. 2016an, [Elkartek programa](#)ren deialdia 24 milioi eurokoa izan zen. Funtsezko ikerkuntza eta industria-ikerkuntza sustatzen ditu, ZTBESko eragileekin elkarlanean egiten bada. 2014an (Saiotek eta Etorrek programen bitartez), 18 milioi euro esleitu zitzaien; eta 2015ean 20,1 milioi euro. Honako hauek onartzen dira:

- Oinarrizko ikerketa kooperatiboak egiteko proiektuak. RIS3 espezializazio-arloetako ezagutzak handitu nahi dira. Diruz lagundu daitezkeen programek gutxienez 500.000 euroko aurrekontua aurkeztu behar dute.
- Industria potentzial handiko ikerketa-proiektuak. ZTBESko I+G-ko enpresa-unitateek nagusi izan behar dute. Trakzio-indar eta merkaturatzeko aukera handiak eduki behar dituzte. Gutxieneko inbertsioa 100.000 eurokoa da.

Diru-laguntzak industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuak bultzatzeko ematen dira; hartara, deialdia egin aurretik jada hasita zeuden proiektuei lehentasuna ematen zaie.

6. Jarduera osagarriak eta bereziki interesgarriak egiten dira, eta tarteko berrikuntza-erakundeek garatzen dituzte: esaterako, azterlanak egitea eta zaintza teknologikoak; lankidetzaren aldeko ekintzak;

ZTB estrategiari buruzko jardunaldiak zabaltzea; I+G+b nazioartera zabaltzeko jardueretan parte-hartzea sustatzea.

4. ekimena. Espezializazio adimendunerako estrategiak bultzatzea ("*Smart specialization*") eta haren presentzia balio kate osoan sendotzea.

1.3.1 Industriari laguntzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. [ZTBP 2020](#) espezializazio-estrategia adimenduna da, eta oinarrian hiru ardatz ditu: jarduera-sektoreak/enpresa-klusterrak; teknologiaren arloko gaitasun zientifiko-tekniko lagungarriak; eta aukera-eremuak/merkatuak. Espezializazio adimenduneko hiru lehentasun zehaztu dira. Fabrikazio aurreratuarekin, energiarekin eta biozientziekin (giza osasuna) lotuta daude. Horrez gain, heldutasun desberdineko zenbait nitxo zehaztu dira, lurraldearekin lotuta.

2. [ZTBESa berrantolatzeko dekretua](#) 2015-07-16an argitaratu zen. Sareko eragileak hiru espezializazio-arlo lehenetsietan espezializatzea sustatzen du.

3. [Basque Industry 4.0 programaren](#) bitartez, manufakturako enpresa industrialei teknologia-hornitzaileen teknologia Transferitzeko Proiektuak babestu nahi dira, betiere, Fabrikazio Aurreratuari aplikaturiko EIKTen (Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologien) esparruan, demostrazio-balioa dutenean, eta, hortaz, lagungarri direnean EIKTen arloko I+G-ko proiektuen emaitzak azkarrago transferitzeko. 2015ean, 18 eskabide egin ziren. Haietako 16 onartu ziren, eta zenbatekoa 1.883.928 eurokoa izan zen. 2016an, berariazko laguntza-proiektuak ezarri dira, 4.0 industria-proiektu bereziei esleitzeko. Zenbateko osagarria 2.211.516 eurokoa da. Duela gutxi hasi denez, baliteke etorkizunean finkatuz joatea, Euskadiko industria-sarearen eskaeren eta beharren arabera.

4. "Basque Industry 4.0" jardunaldia. Euskal industria-ekosistema osatzen duten eragileei jakinarazi nahi zaie 4.0 industriari berez dituen kontzeptuak eta teknologiak prozesu guztietan eraginkortasunez txertatzeko jarduerak egin beharra dagoela. Jardunaldiak horretarako antolatu dira. [2014an lehenengo aldiz antolatu ziren](#), eta agerikoa izan zen gaia eta ikuspegia interesgarritzat jo zirela. 644 pertsonak parte hartu zuten, eta 20 *stand* antolatu ziren. 2014an hain arrakastatsuak izanda, [2015ean](#) jardunaldiak berriro antolatzea erabaki zen (kasu horretan, 840 parte-hartzaile eta 20 *stand*). Are gehiago, 2016an, jada hirugarren aldiz, jardunaldiak berriro antolatzea proposatu zen.

5. Industria Digitala. Hobeki +Digital@ ekimena 2014an egin zen azkeneko aldiz +Digital@ programan. 2015ean, Industria Digitala programa sortu zen. Hauxe da helburua: "Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologiak (EIKT) manufakturako industria-enpresa txiki eta ertainetan (ETE) txertatzen laguntzea".

6. [Industria Digitala](#): Programaren bitartez sustatzen diren proiektuak manufakturako industria-sektoreko jarduerekin lotuta daude. Bereziki bultzatzen dira ekoizpena automatizatze-proiektuak. 2015ean, 313 euskal manufaktura-enpresak 9 milioi euroko inbertsioa egin zuten informazio- eta elektronika-teknologietan. Enpresa horiek 328 modernizatze-proiektu egin dituzte 2015ean, eta diru-laguntzen zenbatekoa 2,67 milioi eurokoa izan zen.

5. ekimena. Berrikuntza ETEetara hurbiltzeko programa bat garatzea, haien eta zentro teknologikoen eta unibertsitateko ikerketa unitateen arteko erlazioak sustatuz.

1.3.1 Industriari laguntzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. [2013-2016 Industrializazio Plan](#)ean ezarri ziren gidalerroei jarraituta, Innobideak Estrategiaren bitartez honako ekintza-ardatz hauek landu dira: manufaktura aurreratuko zeharkako estrategia bat abiaraztea; enpresan pertsonen parte-hartzea sustatzea; berrikuntza ez-teknologikoaren gaineko estrategia berriro abiaraztea. Horren bidez, euskal enpresen lehiakortasuna hobetu nahi da, batez ere, ETEena. Horretarako, dibertsifikazioa, pertsonen parte-hartzea eta kudeaketaren hobekuntza sustatuko dira, krisialdiaren egoerari aurre egiteko eta etorkizuneko garapen lehiakorra bultzatzeko oinarri sendoak globalizazioaren esparruan ezartzeko.

2. Innobideak Prestakuntza ekimenaren bitartez zabaldu da estrategia. Horretarako, Kudeaketa Aurreratuaren, Berrikuntzaren eta Lehiakortasunaren oinarritzko alderdiak ezagutarazteko eta erabiltzen jakiteko jarduerak antolatu dira. Halaber, Innobideak Lehiabide, Innobideak Kudeabide eta Innobideak Pertsonak izeneko programen oinarritzko aldeak ere jakinarazi dira. Programa horiek enpresa-sarearen lehiakortasuna indartzen dute dibertsifikazioaren, kudeaketa aurreratuaren eta pertsonen parte-hartzearen bitartez.

3. [Innobideak Prestakuntza](#) programaren bidez, Kudeaketa Aurreratuari eta Negozio Ereduei buruzko oinarritzko prestakuntza-jarduerak eta kontzeptu horiek ezagutzeko jarduerak antolatzen dira. Lidergo-gaitasunak eta zuzendari izateko trebetasunak zuzendariei jakinarazteko eta garatzen laguntzeko egiten dira, zuzendariak enpresetan dituzten erronkei aurre egiteko gai izan daitezela. 2013an, 70 jardunaldi egin ziren, eta 1.350 pertsonak parte hartu zuten; 2014an, 55 jardunaldi egin ziren, eta 1.602 pertsonak parte hartu zuten; eta 2015ean, 77 jardunaldi, eta 1.294 parte-hartzaile zenbatu ziren.

4. [Innobideak Lehiabide](#) programa bultzatu da, produktuan, zerbitzuan edota merkatuan dibertsifikazioa ahalbidetzen duten proiektuak bultzatzeko. 2013an, 2014an eta 2015ean, hurrenez hurren, 96, 56 eta 98 eskaera jaso ziren; haietako 52, 26 eta 65 onartu ziren, eta 1.498.411 euro, 852.428 euro eta 1.615.285 euroko diru-laguntzak eman ziren.

5. Hiru foru-aldundiekin eta Euskalit fundazioarekin batera, 2014an, [Innobideak Kudeabide](#) programa abiarazi zen. Euskal ETEen lehiakortasuna hobetzeko diseinatuta zegoen, kudeaketaren hobekuntzaren bitartez. Bi urtean (2014-2015) martxan egon ondoren, 361 kontraste (246 eta 115) egin dira; 130 proiektu pilotu abiarazi (67 eta 63); eta 240 finkatze-proiektu (106 eta 134). 50 langile edo langile gehiago dituzten enpresek eskatu dituzten proiektuei dagokienez, 59 proiektu (17 eta 42) jaso dira, eta haietako 47 (12 eta 35) sustatu dira. 2014ko diru-laguntza 101.538 eurokoa izan zen, eta 2015ekoa 440.409 eurokoa.

6. 2015ean, Innobideak Pertsonak deituriko programa martxan jarri, eta estrategia osatu egin zen. Pertsonak erakundeetan parte hartzea sustatzen du programa horrek. 28 proiektu jaso ziren, eta 20 sustatu ziren. Diru-laguntza 357.259 eurokoa izan zen.

7. ETEen berrikuntzak egiteko helburua kluster/prekluster ekimenaren bidez lantzen da, eta urteko

deialdiak egiten dira. Klusterrak eragile nagusiak dira, enpresarien arteko lankidetzak ahalbidetzeko. Eusko Jaurlaritzaren aliatuak dira, kluster politika ezartzeko. Hiru jardute-eremutan jardun behar dute. Hona hemen eremuok: nazioartekotzea, berrikuntza teknologikoa eta enpresa-berrikuntza.

6. ekimena. Industri jabetza eta haren balorizazioa bultzatzea patenteen eskabideak koordinatzen, horien inguruko aholkularitza ematen eta horiek kudeatzen lagunduko duen Patenteen Euskal Bulego baten bitartez, betiere parametro europarretara iristeko helburuarekin.

1.3.1 Industriari laguntzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. ZTBESa berrantolatzeko 109/2015 Dekretuak aginte-taulan ezartzen ditu (ikus [109/2015 Dekretua](#)) industria-ikerketaren emaitzak neurtzeko adierazleak. Adierazleak patenteen eskaeren eta patenteetatik etorritako diru-sarreraren arabera dira. Diseinatu den ereduak ezarri du eragileen finantzaketa, besteak beste, adierazle horien betetze-mailaren arabera izatea. Baldintza horrek bultzatuko du sistemak sortutako jabetza industrial merkatuzatzea, beraz, ezagutzak industrializatzeko gaitasuna ere handituko da. Parametro horiek eta europar herrialde liderretakoak lerrokatzeko helburua ere ezarri da.

2. Zientzia eta Teknologia Euskal Sistemako enpresei eta eragileei laguntza eman zaie jabetza intelektuala defendatzeko, garatu diren berrikuntzak babeste aldera. ZTBESko eragileek eta enpresek patenteen kudeaketan espezializatu diren pertsonen kontratuak egitea sustatu da, patenteen etekina areagotzeko.

3. [Berrikertu](#) programak 2,2 milioi euroko diru-laguntza ematen du, ikertzaileak enpresetan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileetan gehitzeko. Horretarako, itzuli behar ez diren diru-laguntzak ematen ditu, ikertzaileak kontratatuzko, eta lehiakortasuna hobetuko duten teknologia-maila handiko taldeak osatzeko.

4. ZTBESko eragile-tipologietan doktore-tituludun pertsona-kopuru jakin bat egoteko eskakizuna ezarri da. Berrikertu programak horrela erantzun dio [ZTBP 2020](#) planari; plan horretan sustatzen da ikertzaileak enpresetan gehitzea, ezagutzen transferentzia langile gaituen bidez ahalbidetzea eta zientzia- eta teknologia-arloan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murriztea.

7. ekimena. Euskal industriaren ikerketa eta garapen esparruko lehiakortasunari begira beharrezkoak diren inbertsio estrategikoei eustea.

1.3.1 Industriari laguntzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1- Itsaso zabalean itsasoko teknologiak ikertu eta frogatzeko plataforma bat da [Bimpe azpiegitura \(Biscay Marine Energy Platform\)](#), eta itsas eolika flotatzailean saiakuntzak egiteko pentsatuta dago. Itsasoko instalazio eoliko flotatzaileen esparruan Euskadi mundu mailako erreferentzia bihurtzea da helburua. Bimpe azpiegituraren funtzio nagusia ez da ekoiztea, baizik eta balio handiko ezagutza teknologikoak bultzatzea saiakuntzen, ikerkuntzaren eta ekoizteko teknologia berrien garapenaren bitartez. Horretarako, itsas energiak baliatzen ditu, hori ezinbestekoa baita industria-sektore berria energia-arloan sortzeko.

2. [Ur-zutabe oszilatzaileko teknologia-saiakuntzen plataforma](#) (Mutriku). Mutrikuko dikean dagoen azpiegitura bat da: olatuen energia aprobetxatzen du, eta ur-zutabe oszilatzailearen teknologiak frogatu. Teknologoen eskura dago frogak eta saiakerak egiteko. Olatu-energia baliatzen duen azpiegitura hori bakarra da munduan, eta jada bost urte eman ditu energia elektrikoa (sare orokorra konektatua) sortzen. Azpiegitura aitzindaria da, eta jada 1 GWh olatu-energia ekoiztu da bertan. Gainera, bilakaera-prozesuan dago, bertan ikerketak egiteko eta turbina berriak frogatzeko. Turbinak geroago instalatuko dira gailu flotatzaileetan, itsas zabaleko olatuen bitartez elektrizitatea ekoizteko.

3. 2014an, Fabrikazio Aurreratuko Zentroa, WINDBOX, martxan jarri zen, 9 euskal enpresarekin (Antec, Adwen, Erreka, Gamesa Eólica, Gamesa I&T, Glual, Hine, Lau Lagun eta Wec), energia-klusterrarekin eta IK4-Tekniker zentro teknologikoarekin batera. Hasierako inbertsioa 4,5 milioi eurokoa da. Zentroan saiakuntza aurreratuak egiten dira, eta sektore eolikoko azpisistema industrialak balioztatu eta integratzen dira. Euskadiren posizionamendu teknologikoa hobetzeko eta sektore eolikoan gu erreferentzia-herrialdea izateko helburuz sortu da. 2015ean, lehen saiakuntza-bankua abiarazi zen.

4. 2015ean, [Aeronautikako Ekoizpen Aurreratuko Zentroa](#) martxan jarri zen. Inbertsioa 9 milioi eurokoa izan zen, eta Eusko Jurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak eman zuten dirua. Zentroa sortu da oinarritzko ikerketa aplikatuaren emaitzak ekoizpen-ingurunera transferitzeko, fabrikazio aurreratuko proiektuak garatzen diren bitartean. Proiektuan 11 euskal enpresak parte hartzen dute (ITP, Danobat, WEC Velatia, Alfa taldea, GMTK, Ibarria, Mesima, Metalúrgica Marina, Sikulan, LAIP, Sariki, ONA-EDM, Sandvik); Hegan eta AFM klusterrek erakunde laguntzaile gisa; eta UPV/EHU eragile teknologiko gisa.

1. ekimena. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren integrazioa sendotzea eragile publiko eta pribatuen baliabide eta bitarteko eskuragarrien koordinazio handiago baten barnean, gaur egungo egiturak sinplifikatuz eta arrazionalizatuz I+G+b-ko estrategia indartzeko premisaren pean.

1.3.2 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. Herrialde-estrategia I+G arloan zehaztu da, Euskadiren lehiakortasuna bultzatzeko. 2013ko martxoan, Europako txosten batean Euskadiri eskatu zioten Zientzia eta Teknologia sistema hobetzeko neurri batzuk ezartzea. Oro har, sistemaren balioa aitortua eta aintzatetsia da. Egokitze-prozesuan, zehatz-mehatz, [RIS3, Euskadiko espezializazio-prozesu adimenduna](#) definitu eta zabaldu zen, Europak bultzatuta; eta [Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana 2020](#). Plan horretan jasota dago Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sarearen berrantolamendua. Berrantolamenduaren ardatzak dira bikaintasuna, espezializazioa eta merkatutik hurbil izatea.

2. 2015-07-16an argitaratu zen ekainaren 23ko [109/2015 Dekretua](#), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzekoa eta eguneratzekoa. Bertan zehaztu ziren eragile bakoitzaren helburuak eta posizionamendu zehatza, espezializazioari, bikaintasunari eta I+G + b-ko balio-katean duen egoerari dagokienez. Helburuak ZTBESko eragileen efizientzia areagotzea, ekintzak emaitzetara bideratzea eta EAEko ekoizpen- eta gizarte-sarean egiten den balio-ekarpena hobetzea.

3. [I+G bultzatzeko programa berriak](#) –Hazitek, Elkartek eta Emaitek+– diseinatu dira, eta lankidetzaz sustatu da enpresen artean, ZTBESko eragileen artean eta enpresen eta eragileen artean. Horren bidez, sinergiak eta eragileen ezagutzak ahalik eta gehien baliatzen dituzten proiektuak sortu nahi dira.

4. Innobideak strategiaren bidez, euskal enpresen lehiakortasuna hobetu nahi da (ETEena, batik bat), krisialdiaren egoerari aurre egiteko eta etorkizuneko garapen lehiakorra bultzatzeko oinarri sendoak globalizazioaren esparruan ezartzeko. Estrategian honako programa hauek egituratu dira: [Innobideak Lehiabide](#), [Innobideak Kudeabide](#) eta [Innobideak Pertsonak](#). Programa horiek enpresa-sarearen lehiakortasuna dibertsifikazioaren, Kudeaketa Aurreratuaren eta pertsonen parte-hartzearen bidez indartzen dute.

5. Innobasque-k, [Berrikuntzaren Euskal Agentziak](#), berrikuntzaren garapena bultzatzen du Euskadin: berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa, hainbat sektoretako lehiakortasuna handitzeko. Innobasquek lortu du EAEko eremu ekonomiko, sozial, zientifiko, teknologiko eta instituzionaleko lider ezagunek helburu horretan parte hartzea. Bazkideek euskal gizarte osoa ordezkatzen dute: gehienak eragile pribatuak dira, Administrazioako ordezkariekin batera, eta, horrez gain, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko ia kide guztiak ere bazkide dira.

2. ekimena. Euskal Administrazioak zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren eremuetan bideratutako baliabideen interakzio eta eraginkortasun handiagoa sustatzea eta ebaluazio-formula independenteak orokortzea, betiere, lehentasunezko ikerkuntza, garapen- eta berrikuntza-lerroen definizio hobea lortzeko helburuarekin.

1.3.2 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. [ZTBESaren araudi](#) berrian aginte-taula bat ezarri zaie eragileei. Aginte-taulan jasota daude [ZTBESa berrantolatzeko](#) zehaztu ziren 4 ardatzen araberako adierazleak. Ardatz bakoitzari ezarri zaizkio dagokion pisua eta 2020an lortzeko xedea:

- Espezializazioa: Eragileen eta ikerketa-arlo estrategikoen arteko lerrokatze-maila neurtzea, baliabideak eta inbertsioak arlo estrategikoetan biltzen laguntzeko.
- Bikaintasuna: Ikerketa-jardueren ondorioz lortzen diren emaitzen jarraipena egitea, argitalpenen, patenteen eta oinarri teknologikodun enpresa berrien bitartez.
- Jarduera-mixa: Eragileen jarduera-mixa ebaluatzea, oinarrizko ikerketak eta garapen teknologikoa edo esperimentalak bultzatzeko.
- Harremanen eredua: Tokiko eta nazioarteko eragileekiko lankidetzaren maila ebaluatzea, nazioarteko funtsak I+G+b-rako eskuratzen laguntzeko.

Eragile bakoitzak adierazle bakoitzean lortu dituen emaitzak eta urte bakoitzerako ezarri den xedearen betetze-maila nolakoak diren, halakoak izango dira onetsita dauden eragileen finantzaketa ez-lehiakorrari esleitutako baliabideak.

2. SPRIK 2014tik aurrera ezarri du I+G Programen Ebaluazio eta Monitorizatzeko Sistema, gutxienez, lau urterako. Azterketa hiru mailatan egiten da: jarduera lagundua, hots, Eusko Jaurlaritzak baliabideak eman dizkio; jarduera amaitua edo I+G-ko proiektu amaituak; jarduera finkatua edo proiektuen eragin sozio-ekonomikoa (fakturazioaren, sortutako lanpostuen eta abarren araberakoa neurtua).

3. Horren bidez, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Hobetzeko Zuzendaritzarekin ([Dacima](#)) batera, teknologia-arloaren funtzionamendu-dinamikan gehitu nahi da politika publikoak ebaluatzeko sistema. Sistema horren bidez, politika publikoen kalitatea eta baliabide publikoen kudeaketaren efizientzia hobetzen dira, eta balio publikoa sortzen da erkidegorako; bestela esanda, herritarren beharrei edo eskaerei erantzun eraginkorrek eta erabilgarriak ematen zaizkie.

4. 2016ko [Hazitek](#) programa berria zehaztean, eskakizun berri bat ezarri da: aurkeztu diren proiektuak ebaluatze eta kontrolatze aldera, egin diren jarduera egiaztatu guztiek lotuta eduki behar dute ikuskari independente baten txostena. Horrela, enpresek egin nahi zituzten proiektu guztiak zenbateraino gauzatu diren eta benetako kostuak objektibotasun handiagoz aztertuko dira, eta, ondorioz, esleitutako baliabide publikoen kudeaketa eta efizientzia hobek izango dira. Horrez gain, egindako ikerketa-lerroen egokitasunari buruzko oharrek ere jasoko dira.

3. ekimena. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema finantzatzeko erabiliko den eta epe ertain eta luzean egonkortasuna eskainiko duen eredu berri bati ekiteko lana abian jartzea, emaitzen lorpena eta eraldaketa helburu zehatz eta neurgarrien ezarpena berrorientatzeko premisaren arabera.

1.3.2 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeko eta eguneratzeko [109/2015 Dekretuan](#) aginte-taula bat ezarri zaie ZTBESko eragileei. Eragileen jardura antolatu da eragile bakoitzak I+G-ko katean duen posizioaren arabera (oinarrizko ikerketa, ikerketa industrial, garapen teknologikoa). Aginte-taulan ezarritako helburuak eragile bakoitzak zenbateraino bete dituen, erkidegoko arauak onartzen dituzten gehienezko diru-laguntzak zeintzuk diren, eta aurrekontu erabilgarria zein den, laguntzaren ehunekoak ezarriko dira eragileen finantzaketa ez lehiakorra arautzeko programetan.

2. Emaitek Plus 2016 programak 52,6 milioi euroko zuzkidura dauka. Baliabide horren bitartez, zentro teknologikoak eta ikerketa-zentro kooperatiboak (IZK) finantzatzen dira. Horretarako, haien jardueraren emaitzak ebaluatzen dira, emaitzetara bideratutako zentroen ereduari jarraituta, eta zentro bakoitzeko jardute-planen arabera. Helburua zentro teknologikoen eta ikerketa-zentro kooperatiboen kalitatea indartzea da, enpresa-sarean emaitza eraginkorrak sortzen dituzten jarduerak egin ditzaten.

- [Emaitek Plus 2015](#): 50.142.850 euro
- [Emaitek 2014](#): 28.000.000 euro
- [IZK Programa 2014](#)(Ikerketa zentro kooperatiboak): 8.250.000 euro

3. Erakunde bakoitzaren urteko ebaluazioa aginte-taularen arabera ezartzen da, eta bertan biltzen dira lortu behar diren adierazleak eta xedeak. Horren arabera zehaztuko da dagokien esleipena, betetze-maila eta zentroaren dimentsioa zeintzuk diren. 40 adierazle baino adierazle gehiago aztertzen dira. Haien artean nabarmentzekoak dira I+G-ko jardura-mixa, lortu den nazioarteko finantzaketa, argitalpen zientifikoak, patente erregistratuak edo nazioarteko kideen artean egindako proiektuak. Deialdian eskatutako helburuak zenbateraino bete diren, puntuak ezartzen zaizkie, eta dagokion esleipena zehazten da Emaitek Plus programan.

4. ekimena. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren askotariko eragileen arteko lankidetzaren sustatzea, betiere pertsonalaren loturen, mugikortasunaren eta ekimenen integrazioa bultzatuz eta ikerkuntza eta prestakuntza premiak batera definituz.

1.3.2 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema.

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. [I+G-ko programen arkitektura berria](#) osatu da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarearen berrantolamenduaren arabera. Helburua enpresa-sarearen ikerketa-maila handitzea da, ekonomia lehiakorrago bultzatzeko. Programetan funtsezkotzat hartzen dira espezializazioa, merkatura hurbiltzea eta enpresen eta ZTBESko eragileen arteko ikerketa kooperatiboak.

2. ZTBESA berriro antolatzeko [109/2015 Dekretuan](#), adierazleak ezarri dira eragileei zuzendutako agintetulan (eta eragina dute jaso behar den finantzaketan). Adierazleok ZTBESko pertsonen eta enpresen arteko mugikortasuna (bi norabideetan) neurtzen dute; horretarako, argitalpen zientifikoak batera egin diren, patenteak batera garatu diren eta doktorego-tesiak elkarrekin zuzendu diren neurtzen da.

3. I+G bultzatzeko programa berriak –Hazitek, Elkartek eta Emaitek+– diseinatu eta martxan jarrita, lankidetzaren sustatzea enpresen artean, ZTBESko eragileen artean eta enpresen eta eragileen artean. Horren bidez, sinergiak gehien baliatzen dituzten proiektuak sortuko dira.

4. 2016an, [Elkartek programa](#)ren deialdia 24 milioi eurokoa izan zen. Oinarrizko ikerkuntza eta industria-ikerkuntza sustatzen ditu, ZTBESko eragileekin (zentro teknologikoak, IZK, I+G-ko enpresa-unitateak, etab.) elkarlanean egiten bada. 2014an (Saiotek eta Eortek programa baliokideen bitartez), 18 milioi euro esleitu zitzaizkien; eta 2015ean 20,1 milioi euro. Hartzaileak izan ziren honako hauek:

- Oinarrizko ikerketa kooperatiboak egiteko proiektuak: RIS3 planaren espezializazio-arloetako ezagutzak handitzeko.
- Industria-potentzial handiko ikerketa-proiektuak: ZTBESko I+G-ko enpresa-unitateek zuzenduak, trakzio-indar handiarekin eta merkatura heltzeko modukoak.

5. 109/2015 Dekretuan sareko eragile kategoria berria ezarri da: eskaintzaren eta eskariaren arteko bitartekaritza eragileak. Honako hauek dira haien eginkizunak: ZTBESko eragileen ikerketak etapa guztietan –oinarrizko ikerketatik garapen esperimentalara arte– ahalik eta gehien bideratzea merkatura; Euskal Herrian ezagutzetan egiten diren inbertsioen balioa ahalik eta gehien handitzea, eskaintza zientifiko-teknologiko integrala eta bikaina osatzen laguntzeko. Hona hemen jarduera nagusiak:

- Eskaintza eta eskari zientifiko eta teknologikoaren artean bitartekari izatea.
- I+G+b-ko proiektuak eta teknologia aurreratuko ekimen berriak sustatzea eta haietan parte hartzea, lankidetzan jardunez enprekin (batez ere, ETEekin) eta ZTBESko eragileekin.
- ZTBESan sortutako ezagutzak enpresetan zabaltzea.

1. ekimena. EAEko "Basque-Talentia" sareari ezaugarri zientifiko eta teknologikoekin lotutako pertsona talentudunen sare bat bultzatzea, betiere enpresen, zentro teknologikoen eta ikerketa zentroyen arteko interakzioa indartzeko asmoz

1.3.3 "Talentua" sustatzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. [Berrikertu 2015](#) (lehen Ikertu) programaren bidez 2,2 miloi euroko laguntzak eskaintzen dira ikertzaileak enpresetan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES) sartzeko. Helburua maila teknologiko handiko taldeak osatzea da, lehiakortasuna hobetzeko eta enpresetan eta ZTBESan ikertzaileak eta doktoreak gehitzen laguntzeko, kontratu-kostuen finantzaketaren bidez.

- 2014. urtea (Ikertu): 800.000 euro
- 2015. urtea (Berrikertu): 2.000.000 euro
- 2016. urtea (Berrikertu): 2.200.000 euro

2. ZTBESko eragile-tipologietan doktore-tituludun pertsona-kopuru jakin bat egoteko eskakizuna ezarri da. Programak horrela erantzun dio [ZTBP 2020](#) planari; plan horretan sustatzen da ikertzaileak enpresetan gehitzea, ezagutzen transferentzia langile gaituen bidez ahalbidetzea eta zientzia- eta teknologia-arloan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murriztea

3. Ikerbasquek 142 ikertzaile finko eta 59 ikertzaile gazte kontratatuta zituen 2015. urtearen amaieran. Haiek guztiek nazioarteko eskarmentua zuten. 31 herrialdeetako ikertzaileak zeuden, eta euskal unibertsitate eta I+G zentroetan hasi dira. Euskal unibertsitate eta I+G zentroetan lan egiteko kontratatatu ziren mundu osoko ikertzaileek 24 milioi eurotik gora lortu zuten 2015ean, beren ikerketa-proiektuak finantzatzeko. Euskadin BPGd-aren % 2 inguru erabiltzen da I+Grako.

4. Ikerbasque-ko 88 ikertzaile unibertsitateei atxikita daude (UPV/EHU, Deustukoa, Mondragon Unibertsitatea). Beste 113 ikertzaile ikerketa-zentroetan hasi dira, besteak beste, BERC (Basque Excellence Research Centre) zentroetan, ikerketa-zentro kooperatiboetan –biomaGUNE (biomaterialak), bioGUNE (biozientziak), energiGUNE (energia) eta nanoGUNE (nanozientziak)–; osasun-ikerketa egiteko institutuetan –BioDonostia eta BioCruces–; ikerketa teknikoak egiteko CEIT-ik4 zentroan; Tecnalia-ri, Bioef Fundazioari eta Globernance zentroari (pentsamendu politikoa ikertzeko eta zabaltzeko) dagozkien ikerketa-zentroetan.

2. ekimena. Jakintza zientifiko eta teknologikoaren eta prozesu berritzaile aurreratuen arlo eta joera berriak identifikatzea eta, aldi berean, EAEko errealitateari lotutako eremu geografiko eta sektorialak lehenestea.

1.3.3 "Talentua" sustatzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. [Ikertu](#) programaren bidez sustatzen da (2014an, 800.000 euro) doktoreak enpresetan gehitzea.
2. Berrikertu programa 2015-11-11n onartu zen, eta Ikertu (aurreko programa) ordeztu zuen. Programa horrek I+G babesten laguntzen du, eta, horretarako, giza kapital ikertzailea sartzen du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileetan eta euskal enpresetan. Horrela, teknologia-maila handiko taldeak eratzea lortzen du, lehiakortasuna hobetzen laguntzeko. [2015. urtea \(Berrikertu\)](#): 2.000.000 euro / 2016. urtea (Berrikertu): 2.200.000 euro.
3. Lankidetzak-ekimenak bultzatu dira Lanbide Heziketaren arloan, eremu bien arteko sinergiak bilatzeko. Zentro teknologikoekin eta klusterrekin batera lan egiten da, elkarlanean.
4. Martxan jarri dira pilotatze-talde publiko-pribatuak Euskadirako espezializazio adimenduneko prozesuan (RIS3) zehaztutako hiru arlo lehenetsietan eta aukera-nitxoetan. [ZTBP 2020](#) planean bildu dira, eta haietan munduko beste leku batzuen egoera aztertzen da: Fabrikazio aurreratua, energia eta osasuna.
5. Aeronautika Gela Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoak jarri zuen martxan, Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta [Hegan](#) Aeronautika klusterrarekin batera. Martxan jarri da, aeronautikaren sektorea gero eta garrantzitsuagoa baita Euskal Herrian, eta irakaskuntza-lana merkatuaren benetako eskaeretara egokitu nahi delako. Kasu zehatz horretan, euskal enpresek Hegan klusterraren bidez osatuko dituzte espezializazio-ikastaro horretako ikasketa-planaren lerro nagusiak.
6. Aireontzien egiturei eta propulsiioei buruzko teknologia aurreratuenetan prestakuntza emango zaie ingeniariari, eta, horrez gain, ikerketa-proiektuak eta garapen teknologikoko proiektuak egingo dira aeronautika-diseinuaren arloan eta horretarako behar diren euskarri informatikoetan.
7. Esparru-akordioa ezarri da, Leioako Unibertsitatean (UPV/EHU) partikulen azeleragailu baten prototipoa ikertzeko, diseinatzeko eta egiteko. PIT30 (Protoi Itur Trinkoa 30 keV) proiektuan protoien iturri trinkoa, belaunaldi berrikoa, diseinatu eta eraiki nahi dute. Oro har, ingurune zientifikoetan, medikoetan eta industrialetan erabiltzeko egokiak diren korrante- eta energia-ezaugarriak izango dituen protoi-sorta lerro bat lortzeko pentsatuta dago proiektua.

3. ekimena. Euskadiko pertsona talentudunek euren gaitasunak atzerrian sendotzeko bideak ematea, haien itzulera eta garapen profesionala Euskadin bermatuz.

1.3.3 "Talentua" sustatzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. [Global Training izeneko beka-programa](#) bultzatu da, EAeko gazteak EAetik kanpora joan ahal izateko, atzerriko enpresetan eta erakundeetan beren ikasketa- eta lan-prestakuntzarekin bat datozen jardueretan eta proiektuetan parte hartzeko. Beka horien 2015eko deialdian 3.200.000 euro eskaini ziren, gehienez ere 370 beka finantzatzeko. Global Training programako bekadunek aukera izango dute, atzerrian dauden euskal enpresetan ez ezik, beste programa batzuetako erakunde laguntzaileetan ere jarduteko. Besteak beste, honako hauek dira erakunde laguntzaileak: European Foundation for quality management; Movistar; Microsoft; Oxford-eko, Sao Paulo-ko, Bordeleko unibertsitateak; Efe Agentzia; edo The Institute of Cancer Research.

2. Eusko Jaurlaritzak [Nazioartekotze Bekak](#) eskatzeko deialdia egin du. Programa hori etengabe eskaini da azken hogeita hamar urteotan, eta 1.000 pertsonari baino gehiagori kanpoko merkataritzako espezializazioan prestatzen lagundu die. Horrela, pertsonak (giza kapitala) gaitzen eta prestatzearen aldeko apustuari eutsi zaio ekonomia eta euskal enpresak nazioartera zabaltzeko. [2016](#)an, programaren zenbatekoa 3.497.716 eurokoa da, [2015](#)ean baino milioi bat handiagoa.

3. Prestakuntzaren beste alderdi batzuk eta aukera berriak ezarri dira Nazioartekotze Bekak emateko 2016ko deialdian. Bekadun guztiek aukera dute programaren 2. edo 3. fasean atzerrira bidaiatzeko (orain arte, 100 pertsonatik 80k aukeratu dute).

- Egonaldi luzea: 80 pertsona; 20 hilabeteko egonaldia atzerrian (10 edo 12 pertsona, Spri-ko erakunde laguntzaileetan; eta 8 edo 10, nazioartekotu den enpresa batean).
- Egonaldi laburra: 20 pertsona; 8 edo 10 hilabeteko egonaldia enpresa nazioartekotu batean.

Gehienezko adina handitu da, eta 30 urte dira orain. 2016an bertan ikasketa-lizentzia eskuratuko duten pertsonak ere eska dezakete. Alumni zerbitzua osatu da, beraz, programaren historian bekadunak izan diren pertsonak tresna erabili ahal izango dute, lan-harremanak handitzeko.

4. Nazioarteko Bekak emateko 2016ko deialdian hobekuntzak egin dira baldintzetan eta ekonomia-zuzkiduretan. Besteak beste, bisa ateratzeko kostuak gain hartu dira. Egonaldi luzeko banakako zuzkidurak 30.000 eta 60.000 euroren artekoak dira. Egonaldi laburrean 12.000 eta 24.000 euroren (8 hilabete badira) eta 15.000 eta 30.000 euroren (10 hilabete badira) artekoak dira.

5. Aldi horretan egindako balantzetik ondoriozta daitekeenez, bekadunen ia erdiak, azkenean, langile hasten dira praktikaldia egin duten enpresetan. 10 bekadunetik 8k sei hilabete igaro aurretik lana aurkitzen dute. 25 urtean, 800 gaztek baino gazte gehiagok nazioartekotze-prestakuntza jaso dute; eta gazte haietako bostehunek (500) nazioartekotzeari buruzko jardueretan lan egiten dute gaur egun.

4. ekimena. Euskadiko ekoizpen sektoreen eskari eta premietara gehien egokitutako eremuetan kualifikazio handi-handia daukaten pertsonak Euskadira erakartzeko lana bultzatzea.

1.3.3 "Talentua" sustatzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. Zenbait ekimen eta europar akordio landu dira, talentua identifikatzeko eta mugitzeko sinergiak aurkitzeko. Geografia- eta sektore-eremuak hautatu eta lehenetsi dira, estrategia berria osatzeko, eta, estrategiaren bidez, Euskadi "talentuaren geografia" berrian sartu eta bertan posizionatzeko.

2. ZTBESa eguneratzeko proiektuaren bitartez, zenbait eragilerekin batera lan egin da, eta horrek berez dakar "I+G+b nazioartera zabaltzea". Etengabeko lana egin da europar eta nazioarteko sareen sistemako eragileekin.

3. ZTBESko eragileen eta Ikerbasque-ren artean lankidetzak-akordioak egin dira, prestakuntza-maila handiko atzerritarrak zentro teknologikoetan gehitzeko. Pertsona horiek Ikerbasqueren bidez etortzen dira Euskadira. ZTBESko eragileetan sartu diren ikertzaile-doktoreen kopurua hau da: 2013an, 39 ikertzaile; 2014an, 38 ikertzaile; 2015ean, 28 ikertzaile.

4. Ikerbasquek 142 ikertzaile finko eta 59 ikertzaile gazte kontratatuta zituen 2015. urtearen amaieran. Haietako guztiek nazioarteko eskarmentua zuten, eta 31 herrialdeetakoak ziren; euskal unibertsitate eta I+G zentroetan hasi dira. 2015ean, 24 milioi eurotik gora lortu zuten, beren ikerketa-proiektuak finantzatzeko. Haien ikerketa-lanak nabarmen erakutsi ziren argitalpen zientifikoetan: urtean guztira 837 artikulua argitaratu ziren argitalpen indexatuetan.

5. Ekainaren 23ko [109/2015 Dekretuak](#), ZTBESaren osaera arautzeko eta eguneratzekoak, ikertzaileak zentroen eta enpresen artean mugitzea sustatzen du.

6. Invest in the Basque Country (IBC), Spri-ko berariazko unitatea da, atzerriko inbertsio zuzenak eskuratzeko eta mantentzeko (IDE). Horren bidez, 2015ean [22 industria-proiektu berri](#) Euskadin inbertitu dezaten lortu da. Beraz, aurreko urtean egin ziren bost inbertsioak gutxienez 4 aldiz biderkatu dira. Horren bitartez, Euskadi erreferentzia-herri bilakatu nahi da Europako hegoaldean, lehentasunezko nitxoetan IDE bereganatzeari dagokionez. Inbertsioen erakarpinak indartu eta osatzen ditu euskal estrategien eta politiken bidez erabiltzen diren baliabideak, aberastasuna, enplegua eta gizarte-aurrerapena modu iraunkorrean sortzeko.

7. Invest in BC unitateak laguntzen du Euskadi Europako hegoaldeko leku aproposena bilakatzen, balio erantsi handiagoko jarduera berritzaileak bertan egiteko (bereziki, energia-sektorearekin eta fabrikazio aurreratuko soluzioen aplikazioarekin lotuta). BC estrategia indartu zenetik, bi urtean soilik, atzerriko 27 inbertsio erakarri dira; 152,05 milioi euro inbertsioetan; 783 lanpostu sortu dira; eta 1.227 lanpostu mantendu dira.

1. ekimena. Nazioarteko sareetan parte hartzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren kanpo proiektzioa indartzeko helburuarekin.

1.3.4 Zientzia- eta teknologia-sistemaren nazioartekotzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernáez Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. Europako eskualde aurreratuenekin akordio bat (the Vanguard Initiative) lortu da. Garrantzitsua da espezializazio-arloen artean (RIS3) sinergiak eta lantzen ari diren lankidetzak-proiektuak zehazteko. "Abangoardiako" eskualdeak [Europako 15 eskualde](#) ziren (2014an): Euskadi, Baden-Württemberg, Flandes, Valonia, Lombardia, Malopolska, Ipar Renania- Westfalia, Eskozia, Skåne, Herbeheretako hego-ekialdea, Tampere, Asturias, Portugaleko iparraldea, Austria Garaia eta Rhône-Alpeal. Eskualde horiek konpromisoa hartu dute espezializazio adimenduna industria- eta berrikuntza-politiken printzipio zuzentzaile bilakatzeko, lehiakortasuna eta hazkundea bultzatze aldera. Ekimena horren bitartez, espezializazio adimenduna europar politiketan txertatu nahi da, industriaren eta berrikuntzaren alde.

2. [Tecnalia](#)ren bidez, Eartos europar ekimenean parte hartzen dugu. Ekimen horretan parte hartzen dute nazioartean erreferentzia diren europar zentro teknologikoei. Horrez gain, Spri-ren bitartez, European Enterprise Network (Een) sarean parte hartzen dugu. Sare horren helburua europar enpresen lankidetzak bultzatzea da, batik bat, I+G arloan.

3. Lau Eranet ekimenetan parte hartu dugu. Ekimen horietan euskal eta europar ETEen arteko lankidetzak sustatzen da. Manunet zuzendu dugu, eta 2016ko urtarrilean proposamen bat aurkeztu dugu hurrengo Manunet Cofund zuzentzeko. Cofund horrek sustatzen ditu Manufaktura Aurreratuari buruzko I+G proiektuak, eta 27 herrialdek eta eskualdek parte hartzen dute.

4. Berrikuntza komisarioak, ZTBESko eragileak, trakzio-enpresak eta ETEak Euskadira etorri dira eta bi eguneko topaketa antolatu da. Euskadik Europan duen posizionamendua azaldu zaie, bai eta gure apustu batzuen berri eman ere (Europa, Horizon 2020, Ris 3...). The Vanguard ekimenean lan aktiboa egiten dugula ere adierazi zaie.

5. 2015eko azken sei hilabeteetan Eusko Jaurlaritza izan da Vanguard ekimeneko burua. Euskadin informazioa jasotzen dugu industria-garapenei, merkatu-nitxo berriei eta teknologia berriei buruz. "Vanguard Initiative" ekimenean Euskadik (Europako beste eskualde batzuen artean) Europako Batzordeari ematen dizkio ezagutzak eta eskarmentua, Europako Erkidegoaren helburua lortzeko, hots, europar industria berri bultzatzeko, gaur egun, Fabrikazio Aurreratuan arduatua.

6. Vanguard ekimenean Euskadik eta Eskoziak batera zuzentzen dugu proiektu bat, fabrikazio aurreratuari buruzkoa; zehazki, fabrikazio aurreratuaren bidez ingurune zailtan aplikazio energetikoak egiteko. Proiektu pilotua da. Europako herrialde guztietan balio-katea sortu nahi da itsas energia berriztagarrien arloan. Horrez gain, petrolioaren eta gasaren *offshore* erauzketa lantzen dira. Euskal enpresek eta euskal zentro teknologikoei parte hartzen dute proiektu horretan.

2. ekimena. Presentzia handiagotzea ikerketa zientifikoko proiektu, egitasmo eta programa europarretan.

1.3.4 Zientzia- eta teknologia-sistemaren nazioartekotzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. Europako Batzordeak azken urteotan bereziki bultzatu du enpresen parte-hartzea Europako I+G proiektuetan. Zazpigarren Esparru Programan euskal enpresen parte-hartzea gero eta handiagoa izan da programak iraun duen zazpi urteetan: 222 enpresak parte hartu zuten, eta onartutako proiektuetan parte hartu zuten enpresen kopurua urtez urte handitu zen.

2. [Horizonte 2020](#) programan lortu ziren lehenengo emaitzak, 2014koak, oso onak izan dira: 252 euskal erakundek parte hartu zuten 171 I+ G proiektutan, eta proiektu horien % 27 zuzendu dute. Proiektu horietan jaso den finantzaketa guztira 90 milioi eurokoa izan da. Espainiako Estatuan jaso den finantzaketa osoaren % 11,6 osatzen dute emaitza horiek, CDTI zentroaren emaitzen arabera.

3. Euskal eragileek era aktiboan hartu dute parte, “Euskal I+G Europan, Koaderno Estrategikoa” izeneko dokumentuan ezarritako helburuak lortzeko. Adibide moduan aipatzekoa da 2014an aurkeztu ziren proposamenen artean euskal partaidetza zuten proposamenen ehunekoa % 59 handiagoa izan zela, 7. Esparru Programan aurkeztu zirenekin erkatuta. Euskadiko arrakasta-tasa % 17,4 handiagoa izan da; izan ere, Europakoa, % 14, baino handiagoa.

4. Euskal I+G nazioartekotzea eta, zehazki, Europako esparru-programetatik datorren finantzaketa handitzea dira, besteak beste, “Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Euskadi 2020” planean ezarritako helburu batzuk.

5. [Tecnalia](#)k parte hartu du Joint Institute for Innovation Policy (JIIP) sortzen. Europako institutua da, eta ikerketa hartzen ditu berrikuntza eta aldaketa teknologikoa; horietan eragina duten nazioarteko faktoreak eta eragileak; eta horien eragina ekonomian, gizartean eta ingurumenean.

6. Earto-Eurotech Security Research Group izeneko taldean ere parte hartzen dugu, Barne Segurtasunari buruzko ikerketak eta berrikuntzak egiteko arloan (arloan hori sortu berria da) elkarrekin ekimenak sustatzeko.

7. [Innobasque](#) (Berrikuntzaren Euskal Agentzia) jardute-lerro batean informazioa eta laguntza eskaintzen dio euskal ekoizpen-sareari europar programetan proiektuak aurkezteko (zehazki, ingurune zailetan energia-ikerketak egitera bideratutako programetan).

8. Euskadiko enpresei merkatu horietarako urratsa ematen laguntzeko xedea hartuta, [Interlehian programa](#) jarri da indarrean, egoitza Euskadin duten enpresek nazioarteko lizitazioetan parte har dezaten sustatzeko. Enpresen arteko lankidetzak sustatu da, eta enpresek aliantzen eta partzuergoen bidez abiarazten dituzten ekimenek aldeko haztapena izango dute. Programa horren bitartez, euskal enpresei lagundu nahi zaie merkatu horretan sartzen. Hona hemen emaitzak: 9 enpresa eskatzailek guztira 17 eskabide aurkeztu dituzte, eta guztira 12 eskabide onartu dira.

3. ekimena. Zentro teknologikoak Euskadin proiektu eta egitasmo berritzaileak sustatzeko prest dauden multinazionalak hurbiltzea.

1.3.4 Zientzia- eta teknologia-sistemaren nazioartekotzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. [Etorgai programa](#) ezarri da: 2014ko deialdia: 29 milioi euro; 2015eko deialdia: 28 milioi euro.
2. 2016an, Etorgai proiektuak [Hazitek](#) programan gehitu dira, eta deialdia 68 milioi eurokoa izan da. Enpresei zuzendutako bi laguntza-lerro ireki dira:
 - Proiektu lehiakorak. I+G proiektu lehiakorak: produktu berriak –jatorrizkoak eta egungoak baino hobekiak izan behar dute, merkatuen eskaerei erantzuna emateko– garatzea eta oinarri zientifiko eta teknologikodun enpresa berriak abiaraztea sustatu behar dute. I+G jarduera handia izan behar dute, bai eta maila handiko ezagutza zientifikoak eta teknologikoak ere. Prestakuntza handiko zientzialarien eta teknologiko adituen parte-hartzea aintzat hartuko da.
 - Proiektu estrategikoak. I+G proiektu estrategikoak garatzeko. Proiektuak lankidetzan edo banaka egin daitezke, ZTBP 2020 arloan. Kasu horretan, berrikuntzak, enpresen banakako helburuak betetzeaz gain, euskal ekonomian trakzio-eragina sortzeko eta nazioartekotzen laguntzeko ere baliagarria izan behar du.
3. Egun arte zeuden Gaitak eta Etorgai programen bitartez –Hazitek [laguntza-lerro berriaren baliokideak](#)–, 2014an, 825 proiektu bultzatu ziren, 957 enpresak parte hartuta. Guztira, 273,1 milioi euroko inbertsioa atxiki zitzaizen, eta Eusko Jaurlaritzak 62,5 milioi euro eman zituen.
4. Invest in the Basque Country (IBC) programaren bitartez, atzerriko inbertsio zuzenak eskuratu eta mantendu nahi dira; horrez gain, zentro teknologikoak atzerriko multinazionalak hurbiltzea sustatzen da, Euskadin I+G+b-ko proiektuak egin ditzaten.
5. Atzerriko inbertsio zuzenak Euskadira ekartzea Eusko Jaurlaritzaren lerro estrategikoetako bat da, hain zuzen ere. Lerro hori historikoki erabili du industria-arloan eta ekonomia-garapenean. Hala ere, legegaldi honetan 2013an erabilitako metodologiari buruzko hausnarketa egin du, eta lan-lerro hori indartzea erabaki du. Horretarako, landu diren proiektuen kopurua handitu da, bai eta “erakarri” diren enpresen kopurua ere. BC estrategia indartu zenetik, bi urtean, atzerriko 27 inbertsio erakarri dira; 152,05 milioi euro inbertsioetan; 783 lanpostu sortu, eta 1.227 lanpostu mantendu dira.

4. ekimena. Berrikuntzarako Euskal Sistema nazioartean proiektatzea, betiere "Euskadi-Basque Country" marka eta kalitate zientifiko eta teknologikoaren balioa uztartuz.

1.3.4 Zientzia- eta teknologia-sistemaren nazioartekotzea.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. Nazioartean euskal I+G+b sistema marka gisa sustatu da, Euskadi osoaren bereizgarri gaitua eta nabarmena izan dadin. Ezagutza teknikoak (*know-how*) erabili dira, nazioarteko erreferentzia izaten laguntzeko. Herrialde gisa ditugun estrategiei buruz eta gure zientzia, teknologia eta berrikuntza sistemari buruzko jardunaldietan eta lantegietan parte hartu da. Zuzeneko harremana indartu da Bruselarekin eta Alemaniarekin.

- 2013ko apirila. Bi aldeko bilerak, Berrikuntza komisarioarekin eta Oettinger Energia komisarioarekin.
- 2014ko urtarrila. Vanguard ekimenean parte hartzeko sinadura eman genuen Bruselan.
- 2014ko martxoa. A. Tapiak Bilbon aurkeztu zuen De Gucht Europako Merkataritza komisarioa, Nueva Economía Forum erakundeak antolatutako topaketan.
- 2014ko azaroa. Vanguard ekimeneko saioa Milanen: klusterren estrategia aurkezteko parte hartu genuen.
- 2015eko otsaila. Formatu txikiko bilera izan genuen Barne Merkatuko, Industriako, Ekintzaitzako eta ETEen komisarioarekin Bruselan.
- 2015eko otsaila. Europako Batzordeko presidenteordea Euskadira etorri zen, eta formatu txikiko bilera izan zuen enpresekin.
- 2015eko apirila. "ETEEi zuzenduta dauden Europako finantzaketa-tresnak aurkeztea" izeneko jardunaldia Bizkaiko teknologia-parkean.
- 2015eko ekaina. Bilera kontsulekin.
- 2015eko azaroa. Bi aldeko lan-jardunaldia, eta topaketa Bavariako ministroarekin.
- 2016ko urtarrilean, lehendakariak Bruselara bidaiatu zuen. Vanguard ekimeneko saioan parte hartzea + bilera Energia komisarioarekin + bilera Merkataritza komisarioaren kabineterekin.
- 2016ko otsailean. Europako Biltzarrera joan ginen, energia-kostuaren eragina kontsumo intentsiboko industrietan aztertzeko.

2. Zer nitxotan edo zer ikerketa-arlotan gailentzen garen zehaztea bultzatu da, gure ekonomia-sektore nagusien lehiakortasuna mugiarazteko funtsezko elementutzat hartuta. Horretarako, RIS3 estrategiak honako estrategia hauek ezarri ditu: lehentasun horizontalak (besteak beste, ZTBESa berrantolatzea), bertikalak (lehentasunak [ZTBP 2020](#) planean oinarrituta) eta estrategia zehaztuak (manufaktura aurreratua, energetikoa...).

3. Teknologia eta Berrikuntza Europako Institutuan (EIT) sortu dira Knowledge and Innovation Communities (KIC). Bertan biltzen dira ikerketa-proiektuak egin nahi dituzten erakundeak. Duela gutxi, KIC bat sortu du institutuak, manufaktura aurreratuko arloan. 2016an deialdi bat egin du, erakundeek KIC horretan parte hartzeko proposamenak bidal ditzaten. Euskadiren aldetik, Tecnalia, IK4 eta MCC aurkeztu dira.

4. Europako herrialdeen eta eskualdeen artean I+G+b-ko programak eta laguntzak koordinatzeko Eranet tresna sustatu da. Tresna estrategikoa da I+G+b nazioartekotzeko helburuari begira; batez ere, ETEetan erabiltzeko. [ERA-NET Euskadi 2015 deialdia](#)ren bidez, 301 erakundek 360 milioi euro jaso dute.

1. ekimena. Ikertzaileek eta haien jardunak gizarte osoaren aberastasunari eta ongizateari egiten dieten ekarpenari prestigioa ematea gizartean.

1.3.5 Berrikuntzarekiko konpromisoa.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. Hitzarmenak sinatu dira EITBrekin, Euskadin egiten den berrikuntzaren balioa jakinarazten duten programak egin eta zabaltzeko. Ikertzaileei prestigioa ematea gizartean.

2. 2014ko, 2015eko eta 2016ko aurrekontuetan onartu da [Elhuyar](#) Fundazioari Teknopolis saioa egiteko laguntza ematen jarraitzea. Saioaren bidez, zientziak eta teknologiak gizartean duten eragina jakinarazi eta nabarmentzen da, gure gizartearen bizimodurako eta ongizaterako funtsezko elementutzat hartuta. EAEko unibertsitateen, zentro teknologikoen edo enpresen lanaren berri ematen da, baita EAETik kanpokoa ere.

3. Ekainaren 23ko 109/2015 Dekretua onartu zen, ZTBESaren osaera arautzekoa eta eguneratzekoa. Dekretuan eragile batzuetako (zentro teknologikoak, IZK...) ikertzaileen lan-ibilbidea indartzen da.

4. Innobasque-k, Berrikuntzaren Euskal Agentziak, Euskadin berrikuntza koordinatu eta bultzatzen du eremu guztietan, espiritu ekintzailea eta sormena sustatzeko. Besteak beste, Euskadiko Berrikuntza Gida aurkezten du urtero. 2015eko Gidan jaso dira 200 erakunderen ekintza berritzaile nagusiak. Berrikuntza Gida 2015. Berrikuntza Gida 2014. Berrikuntza Gida 2013.

5. I+G eta talentua hedatzeko ekintza batzuk egin dira:

- 2013ko uztaila. Lehendakaria bildu zen Euskadiko zentro teknologikoetako eta IKZko arduradunekin.
- 2013ko urria. Zientzia eta Teknologia Parkeko jardunaldia Gipuzkoan, Manufaktura Aurreratuari buruzkoa.
- 2013ko azaroa. Nazioartekotze Planeko bekadunak aintzat hartzeko ekitaldia, Bilboko Alhóndigan.
- 2013ko azaroa. Dibulgaziozko jardunaldia, Europako Berrikuntza komisarioarekin batera.
- 2013ko azaroa. Teknologia parkeen ate irekien egunaren kanpaina.
- 2013ko abendua. Berrikuntza Gida 2013 aurkezteko ekitaldia.
- 2014ko martxoa. "Negozio Eredu Berriak" jardunaldia (Deusto Entrepreneurship Centre), Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkean.
- 2014ko urria. Basque Industry 4.0 jardunaldia.
- 2014ko urria. EBK Eusko Jaurjaritza hautatu du klusterren politika aurkezteko. Europako Enpresa eta Ekintzailetza komisarioak ere parte hartu du.
- 2014ko abendua. Berrikuntza Gida 2014 aurkezteko ekitaldia.
- 2015eko urria. Basque Industry 4.0 II. Jardunaldia, Euskalduna Jauregian.
- 2015eko urria. Cluster Day, Spri-k antolatua, Azkuna Zentroan
- 2015eko azaroa. Nazioartekotze programako bekadunen topaketa Gipuzkoako Ganberan.
- 2016ko urtarrila. Berrikuntza Gida 2015 aurkezteko ekitaldia.

2. ekimena. Informazioaren eta jakintzaren teknologien (IKT) ezarpena, garapena eta aplikazioa sustatzea gizartearen zerbitzura, betiere kolektiborik ahulenetan sor daitekeen "eten digitala" ahalik eta gehien murriztuz.

1.3.5 Berrikuntzarekiko konpromisoa.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. IKTen erabilera sustatu da prestakuntza- eta zabaltze-jarduerak antolatuz. "Enpresa Digital@" zentroetan egin dira, haien helburua Elektronika, Informatika eta Komunikazio Teknologia (EIKT) sustatzea baita. Honako jarduera hauek egiten dituzte: jarduerak teknologia-parkeetan (jardunaldiak, mintegiak, ikastaro teknikoak...); gertaera bereziak (Indusmedia Biltzarra, Enpresa Digitala Invest Topaketak, EIKT Gipuzkoa...); garapen-erakundeekin batera antolatutako jarduerak; EAE European Digital Agendan ordezkatzeko; lankidetzak barnetegi teknologikoekin.

2. [Euskadiren Agenda Digitala 2020](#): Euskadin Informazio Sozietatea garatzeko plan estrategikoa. Euskadi gero eta digitalagoa eta lehiakorragoa lortzeko estrategia bertan jasota dago. Honako ardatz hauek ditu egituraren:

- Enpresak merkatu digital globalizatuan: Basque Industry 4.0 industria adimenduna
- Gizarte lehiakorra eta aktiboa: herritarrek gaitasun digitalak izatea
- Administrazioa ingurune digitalean: zerbitzu publiko aurreratuak eta modernizatuak
- Lurralde adimenduna eta kohesionatua: konektibitatea ahalbidetzeko egiturak egitea

3. Euskadiren 2020 Agenda Digitalean azaldutako ekimenen eta programen kudeaketa babestu da: Ikanos proiektua (herritarren gaitasun digitalak); PC Laguntza, ordenagailuen berrerabilera; ".eus" domeinua sustatzea; segurtasuna eta konfiantza sarean; lankidetzak KZGuneekin; lankidetzak Eusko Jaurlaritzako pilotatze-taldeekin; MK.Gunea pilotatze-zentroak; NGA sareak zabaltzea...

4. Jarduera-plan bat diseinatu da, herritarrek, enpresetan eta administrazioetan Internet erabiltzeko. Horretarako, balio-zerbitzu berriak eskaini dira Internet bidez, eta balioa gehitzen diote herritarrekiko harremanari (METAPOSTA bidez). Gaur egun, ia 150 igoerlek [METAPOSTA](#) bidez egiten dituzte bidalketak. [METABOX](#) eta [METAFAKTUR](#) (faktura elektronikoak bidaltzeko) diseinatu eta martxan jarri dira. Bi tresna horiek segurtasun- eta konfidentzialtasun-berme guztiak dituzte. Pertsona partikularrei eta enpresei zuzenduta daude. Horrez gain, legezko zaintzari buruzko zerbitzu bereziak, METAFIRMA eta METAZAIN, gauzatu dira.

5. 2015ean, EIKTak sustatzeko bi programa berri abiarazi ziren, industria-enpresetan: Basque Industry 4.0. programa eta Industria Digitala programa.

6. Banda zabal ultraazkarreko sareak zabaltzeko ekimen bat diseinatu da Euskadiko industrialdeetan (>100 Mb baino gehiago enpresa guztietarako). EIKTak enpresan erabiltzea sustatu da zenbait programaren bidez (zibersegurtasunari eta industria-komunikazioei buruzkoak, *Cloud Computing*, Datuen Analitika Aurreratuak, *Business Intelligence*, Robotika konektatua, ikusmen artifiziala edo sentzore bidezkoa).

1. ekimena. SPRIren jarduera sendotzea Nazioartekotzeko Euskal Estrategia Integralaren esparruan.

1.4.1 helburua. Nazioartekotzeko herrialde-estrategia

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. Funtsezko helburua da EAEko enpresei bultzada ematea eta eskura jartzea alde anitzeko merkatua, garapenerako banku multilateralen eta nazioarteko finantza-erakundeen babespean eta haiek finantzatuta egiten diren proiektuak, kontratuak eta ondasun- zein zerbitzu-eskurapenak, bai eta garatzen ari diren herrialdeetan inbertitzeko proiektu pribatuei erakunde horiek eskaintzen dieten finantzaketa ere.

2. Indartu egin da EAEko enpresen eta erakundeen parte-hartzea nazioarteko lankidetzaproiektuetan. Arlo estrategikoak jorratu dira, batetik nazioarteko esparruan negozio-aukera berriak sortuko dituztenak zerbitzu aurreratuen edota ondasun eta ekipamenduen hornitzaile diren EAEko enpresentzat, eta bestetik Euskal Autonomia Erkidegoa nazioarteratzen lagunduko dutenak, jardule garrantzitsu eta erreferentziako eredu gisa, politika publikoetan nahiz arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako politiketan. Horrela gure herrialde-irudia sendotu egingo da atzerrian.

3. [Nazioartekotzen Laguntzeko Euskal Sistema](#) deritzona hainbat eragile publiko eta pribatuk osatutako errealitatea da. Eragileon ezaugarria da EAEko enpresen zerbitzurako laguntza- eta sustapen-lana egitea. Arloan gako diren zazpi jardule identifikatu dira (Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta EAEko hiru lurralde-ganberak), eta horien artean osatu da [Nazioartekotzeko Euskal Partzuergoa](#) (NEP).

4. NEPen jarduera-esparrua: Nazioartekotzen laguntzeko programen baterako ebaluazioa, "Basque Country Lizitazioak" plataforma garatzea, "Basque Country Esportazio Partzuergoak" plataforma abiaraztea, jardunaldiak egitea, NEPen zerbitzuen zorroa, misioen egutegiak eta protokoloa; zuzeneko sustapenerako eredia hobetzea, misioen ebaluazioan oinarrituta.

5. NEPe (Basque Consortium) urtero antolatzen du "[Mundura Begira](#)" gertakaria, enpresak nazioartekotzeari dagokionez erreferentea den urteroko hitzordua. 2016an Partzuergoaren beraren aurkezpena egin da enpresa-ehunaren aurrean.

6. Indartu egin dira "Invest in the Basque Country" unitatearen jarduera eta baliabideak, hura atzerriko inbertitzaileekiko harremanetarako bulego bihurtzeko. IBC estrategia indartu zenetik, bi urtean soilik, atzerriko 27 inbertsio erakarri dira, 152,05 miloi euro inbertsioetan; 783 lanpostu sortu dira, eta 1.227 lanpostu mantendu dira. Inbertsio berriak erakartzeaz gainera, funtsezko zeregina du lehendik badiren inbertsioei eustea eta dagoeneko EAEn inbertitu duten eta inbertitzen jarraitzen duten enpresak zaintzea, "after care" deritzon lana alegia.

7. Euskal Autonomia Erkidegoan badira atzerriko kapitaleko 700 bat enpresa. Horietatik 350 inguruk gure ekonomiarako lehentasuna duten sektoreetan dihardute, espezializazio adimentsurako RIS3 strategiaren ildotik; esate baterako, energiaren sektorean, automozioan edo aeronautikan. Egindako inbertsioak "zaintzeko" estrategian, jarraipen- eta egiaztapen-bisiten egutegia dago, haien egoera eta bilakaera ezagutzeko. Horrela, 2015ean enpresa horietariko 28ri egin zaie bisita.

2. ekimena. EAEko enpresetan eragina izango duen nazioartekotze-sare bat sustatzea, atzerrian izan beharreko parte-hartzea bideratuz.

1.4.1 helburua. Nazioartekotzeko herrialde-estrategia

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. [SPRIk](#) zuzenean jartzen ditu eskura kontaktuak, eta enpresen eta erakundeen lankidetzak sustatzen du helmugako herrialde guztietan. Berme komertziala eskaintzen du, entitate eta eragile ekonomikoekin merkatu estrategikoetan topaketak egiteko. Baditu 15 bulego 60 herrialdetan, aholkulari espezializatuekin. EAEko enpresei laguntzen die 70etik gora herrialdetan.

2. Enpresen arteko alde nabarmenak egoten dira nazioartekotze graduari eta faseari dagokienez. Horregatik, enpresa bakoitzaren neurriko zerbitzuak eskaintzen dira nazioarteratzeko prozesu osoan:

- **Hasiera:** enpresak oraindik ez badu esportatzen. Aztertzen da ea enpresa esportatzeko prest dagoen eta zenbaterainoko ahalmena duen, ikertzen da zein merkatu eta herrialde diren egokienak. Prozesuan sortuko diren beharrianak planteatzen dira, eta nazioarteko merkatuan jarduteko lehen urratsak errazten dira, enpresarentzat berariaz egindako plan erreal eta fidagarri batekin.
- **Sendotzea:** esportazioak hazaraztea. Esportazio-jarduera sendotzen laguntzen da, merkaturatzeko bide egonkorrak garatuz.
- **Ezarpena:** nazioarteko kokalekua sendotzea. Esportazioei luzaroan egonkor eusteko, merkatuko kokalekua finkatzen laguntzen da, merkataritza- edo ekoizpen-egiturak sortuz.

3. Abian jarri da SPRIren Alemaniako bulegoa, Munichen. 2014ko urtarrilean hasi zen lanean, eta Alemaniako merkatu osoa estaltzen du. Alemania, azken 10 urteotan, Euskal Autonomia Erkidegoaren bazkide nagusietako bat izan da inportazioen eta esportazioen arloan. Hala, Frantziarekin batera bera da EAEko esportazioen hartzaile nagusia. Gure esportazioen % 14,2 doaz Alemaniara.

4. Abian jarri da SPRIren Singapurreko bulegoa. Kokaleku estrategikoa da, Hego-Ekialdeko Asiako merkatu orokorrerako atea baita, eta EAEko enpresek ase dezaketen eskaria badagoela detektatu da. Hego-Ekialdeko Asiako Nazioen Elkartearen (ASEAN) lurraldean Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek gehiago parte har dezaten sustatu nahi da.

5. Eusko Jaurlaritzak Hegoafrika aukeratu du EAEko negozioen garapenerako merkatu gisa. Hango natura- eta energia-baliabide handiengatik egin du aukera hori. 2016an lanean ari da, ea bideragarria eta egokia ote den Hegoafrikan SPRIren beste bulego bat zabaltzea.

3. ekimena. Nazioartekotzeko laguntza emateko programa eta egitasmoetan erakundeen arteko koordinazioa hobetzea, laguntza modalitate guztien edukiak birdefinituz, betiere EAEko esportazioen zenbateko eta kopuruak handitzeko helburuarekin.

1.4.1 helburua. Nazioartekotzeko herrialde-estrategia

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Nazioartekotzeko Euskal Partzuergoa](#) (Basque Consortium delakoa) eratu da, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta EAEko hiru lurralde-ganberek 2014ko abenduaren 3an sinatutako hitzarmenaren bidez.

2. Nazioartekotzeko laguntza publikoa sustatzen duten jarduerak koordinatzen hasi dira 2015ean. Horretarako, berriro definitu dira EAEko esportazioen zenbatekoa handitzea helburu duten laguntza modalitateen edukiak, lehentasunezko helburu hauek ezarrita:

- enpresak nazioartekotzeko laguntzaren ibilbide-orri osoa eta komuna eratzea, gure enpresen errealitatearen ikuspegi partekatua abiapuntutzat harturik, eta ahaleginak batzearen aldeko apustua eginez, gure ekintza eraginkorragoa izan dadin
- nazioartekotzeko laguntzen sistema publikoa berrantolatzeko bidean aurrera egitea, hura enpresen gaurko beharrezaneij, arloko ekimen pribatuari eta baliabide publikoen urritasunari egokitzeko

3. Nazioartekotzeko Euskal Partzuergoak baditu lantalde teknikoak, gainera, koordinazio-ekintzak garatzeko eta baterako jarduketa-proiektu berriak diseinatzeko. Nazioartekotzeko laguntza emateko hainbat programaren ebaluazio bateratua egiten ari da.

- [Global Lehian programak](#) barruan hartzen ditu umotze-fase guztiak, ETE-en lehiakortasuna hobetzeko, bakarka nahiz elkarlanean nazioartekotu daitezten. Azpimarratzekoak dira sustapen-eta salmenta-taldeentzako eta esportazio-partzuergoentzako laguntzak, horrelako elkarteetan gauzatzen baita enpresen arteko lankidetzak, tamainari lotutako zailtasunak saihestu ahal izateko, nazioartekotze-ekimenetan.
- [Interlehian programaren](#) azken helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresek nazioarteko lizitazioetan parte har dezaten sustatzea. Enpresen arteko lankidetzak bultzatzen du programak eta balioetsi egiten ditu enpresek hitzarmen eta partzuergoen bidez abiatzen dituzten ekimenak; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa gehienek ez dute tamaina handirik eta nazioarteko lizitazio gehienetan eskaintza zabala egitea irizpide erabakigarria izan ohi da.

4. Nazioartekotzeko Lurraldearteko Kontseilua (CII) eta ICEX Kontseilua. Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak sortutako batzorde horretan parte hartzen dute autonomia-erkidego guztiek, Ganberen Kontseilu Nagusiak eta CEOEK. Elkarlanerako eta lankidetzarako aholku-organoa da. Halaber, Eusko Jaurlaritzak ICEXen administrazio-kontseiluan parte hartzen du.

1. ekimena. Lanerako plataforma iraunkorra sortzea Euskal Autonomia Erkidegoko enpresarik edo enpresa talderik garrantzitsuenekin, nazioarteko proiektiorik handiena duten horiekin.

1.4.2 helburua. Trakzio-enpresekiko lankidetzak publiko eta pribatuak

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Enpresak Nazioartekotzeko 2014-2016 Planak](#) gizartearen parte-hartze hori sustatzen du. Horretarako, EAEko Nazioartekotze Kontseilua enpresen nazioartekotzearen arloan parte hartzeko foro irekiztat jotzen du, beste gauza batzuen artean. Kontseilua aholku-organoa da. Hiru foru-aldundien, ganberen, ugazaben, sindikatuen eta klusterren ordezkariak osatzen dute.

2. EAEko Nazioartekotze Kontseilua (ENK) aztertzen ari da ea bideragarria den programa komunak abian jartzea, parte hartzen duten eragile guztien ahaleginak eta baliabideak elkarren osagarri izan daitezien.

- Programen eta zerbitzuen zabalkunde bateratua. Programak eta zerbitzuak lurraldeetan aurkezteko jardunaldiak egiten dira. Administrazio eta eragile sustatzaileek parte hartzen dute. Basque Consortium-ek nazioartekotzeko ematen duen laguntzaren gidaliburua egin da.
- Lizitazioetarako laguntzarako Basque Country plataforma. Xedetzat du gaur egun zerbitzuan ari diren programak bateratzea, nazioarteko lizitazio eta lehiaketetan eskaintzak aurkezten dituzten EAEko enpresei laguntza emateko.
- Laguntza publikorako programen eraginkortasuna aztertzeko, programen eraginaren eta emaitzaren azterketa bateratua egin behar da, enpresen beharrezan hobeto egokituta, EAEko ekonomiaren esportazio-oinarria handitze aldera.

3. EAEko erakundeak Nazioartekotzeko Euskal Partzuergoan (NEP) bildu dira, eta organo horren jarraipenerako babesa berretsi dute. Partzuergoa sendotu egin da nazioartekotzeari buruzko topaketa-eta eztabaida-foro gisa, bai eta nazioartekotzearen arloan administrazioen ekintza publikoa koordinatzeko plataforma gisa ere. Kanpo-irudi partekatua ematen du, gure herrialdearen eta bertoko enpresa eta eragileen ikusgaitasuna errazten duena. Lau ekintza-ildo ditu:

- NEPEK MUNDURA BEGIRA jardunaldia antolatu du 2016ko martxoan, enpresen nazioartekotzeari buruzko zabalkunderako eta hausnarketarako.
- Euskadi-Mexiko Planaren jarraipena egiten ari da NEPEn batzorde betearazlea. Partzuergoko eragileen ekintzak eta ekimenak sartu nahi dira planean, haren koordinazioa hobetu nahi da eta etenik gabeko ebaluazioa egin nahi zaio.
- Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek nazioartekotzea sustatzeko bultzatzen dituzten programen xehetasunezko ebaluazio teknikoak egin da.
- Baterako edo koordinatutako programa berrien diseinurako aukerak aztertzeko konpromisoa hartu da; balizko programa koordinatu bat iragarri da, laguntza emango lukeena nazioarteko lizitazio publikoetan parte hartzen dutenentzako laguntza-plataforma bateratua eratzeke eta partzuergoak sortzeko.

4. Baterako programak bultzatzeak berekin dakar eragile guztien autonomia errespetatzea, halako moldez non erakunde bakoitzak bere programak hobetzeko esparruen bila jarraituko baitu, erabiltzen diren baliabideek eragin handiagoa izan dezaten. Aztertzen eta lantzen ari dira, batetik, programen banaketa edo bereizketa (eragile/programa bakoitzaren balizko espezializazio-esparruak batera bilatuz) eta, bestetik, administrazio- zein ebaluazio-prozesuen eta irizpideen homogeneizazioa.

2. ekimena. Baterako jarduketa-programa sortzea, enpresa garrantzitsuenen hornitzaile eta azpikontratista diren euskal enpresek bidea beraiekin egin ahal izateko eta merkatu berrietan ezarri ahal izateko.

1.4.2 helburua. Trakzio-enpresekiko lankidetzak publiko eta pribatua

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. Lizitazioetarako laguntza emateko Basque Country Plataforma 2016an abian jartzekoa da. Hona beraren helburua: bakarka edo elkarlanean nazioarteko lizitazio eta lehiaketetan eskaintzak aurkezten dituzten enpresei laguntza emateko gaur egun zerbitzuan ari diren programak batzea.

2. Gure enpresek beste merkatu batzuetan lehiakideen antzeko lehiakortasun-baldintzetan gehiago parte hartzeko beharra kontuan izanik, komeni da enpresen eskura jartzea lehentasunezko finantzaketa-mekanismo bat, nazioarteko merkatuetan haien ezarpen produktiboa sustatuko duena. **Ildo horretan, [Gauzatu - Kanpo Ezarpenak](#)** programaren helburua da enpresen nazioarteko lehiakortasuna hobetzea, atzerrian egiten dituzten ezarpen produktiboak babestuz.

3. Indarrean jarri da Batzordearen 651/2014/EB Erregelamendua, 2014ko ekainaren 17koa, zeinaren bidez adierazten baita zenbait laguntza kategoriatan bateragarriak direla barne-merkatuarekin, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluetan aplikatuta. Ondorioz, programari buruzko araudia Europar Batasunaren arauetara egokitu beharra sortu da eta ezin izan da argitaratu 2015eko deialdia.

4. 2015eko azken hiruhilekoan Gauzatu - Kanpo Ezarpenak programa arautzen duen Agindu Proposamena prestatu da eta Europako Batzordeari igorri zaio. Bai bera bai 2016ko deialdia izapidetzen amaituko da Europako Batzordeak erantzun bezain laster ea programa salbuespenari buruzko 651/2014/EB Erregelamendu horretara bilduko den ala ez.

5. Eusko Jaurlaritzak lanean ari da trakzio-enpresen hornitzaile eta azpikontratista diren EAEko enpresei erraztasunak emateko, askotariko jarduketan bitartez hedatu ahal izan daitezen. Hona adibide batzuk:

- Eusko Jaurlaritzak eta Petronor-Repsol Oil&Gas sektoreko hornitzaileen plataforma bat eratu dute. Esparru-hitzarmena sinatu da Oil&Gas sektorean hornitzaileen garapen-plana abian jartzeko. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen (ZTBES) eta Repsolen Teknologia Zentroaren (CTR) arteko lankidetzarako esparrua egituratu da.
- Euskal Autonomia Erkidegoak eta Daimler Mercedes Benz taldeak elkarlana indartu dute EAEko hornitzaileen sarea eta I+G+B arloa bezalako esparruetan. EAEko enpresa hornitzaile homologatuek Mercedes Benzen produktu eta zerbitzuen garapenean parte hartzeko aukera aztertzen ari da.
- EAEko enpresentzako aukera berrien bila lan egiten ari da Mexikoko energia-sektorean. Enpresek Mexikora egindako bisitan Eusko Jaurlaritzak, EGLSk eta SPRIk jardunaldi bat egin dute, EAEko energia-sektoreko hornitzaileek jakin dezaten, Mexikoko erakunde eta enpresa nagusien eskutik, zer nolako aukera duten euren produktuak, zerbitzuak eta teknologiak eskaintzeko, Erdialdeko Amerikako herrialde horretan onartu berri den energia-erreformaren ondoren (50etik gora enpresak parte hartu dute).

3. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoak atzerrian dituen plataformak sendotzea, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sarearekin eta trakzio-taldeekin lankidetzan jardunez.

1.4.2 helburua. Trakzio-enpresekiko lankidetzaren publiko eta pribatua

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. SPRIren Nazioarteko Sarearen Topaketak EAEn, Intergune 2015. EAeko enpresen eskura jarri da sare hori, interesatzen zaizkien herrialdeetan SPRIko bulego-zuzendariarekin eta aholkulariarekin aurreko bilera egiteko aukera eskainiz. Guztira 474 elkarrizketa egin dira. Europa izan da elkarrizketa ehunetik handieneko eremu geografikoa, 128 elkarrizketarekin (% 27), eta ondoren datoz Latinoamerika, 100 elkarrizketarekin (% 21), Asia, 82rekin (% 17,30), Afrika eta Erdialdeko Ekialdea, 79 elkarrizketarekin (% 16,67), Ipar Amerika, 77 elkarrizketarekin (% 16,24), eta multilateralen eremua, 8 elkarrizketarekin (% 1,69).

2. SPRIren Nazioarteko Sarearen Topaketak EAEn, [Intergune 2014](#). EAeko enpresen eskura jarri da sare hori (bai bulegoak bai aholkulariak). Guztira 598 elkarrizketa egin dira, eta Europa izan da elkarrizketa ehunetik handieneko eremu geografikoa, 213 elkarrizketarekin (% 35,62). Enpresek agertutako interesari dagokionez, honako hauek izan dira elkarrizketa kopuru handieneko herrialdeak: Mexiko (38), Peru (33), Frantzia, Txile eta Kolonia (hiruretan 31), Alemania (30), Erresuma Batua eta Irlanda (26), Errusia eta Estatu Batuak (bietan 24), Maroko eta Brasil (bietan 23).

3. 2014ko urrian SPRIk bere kanpo-sarearekiko topaketak egin zituen, berriz ere [Invexport](#) gertakariaren barruan, BECeke instalazioetan.

4. SPRIren nazioarteko sarearen topaketak EAEn-[Intergune+ 2015](#) izeneko bilera egin zen azaroaren 23an eta 24an. Gertakarian bildu ziren 44 erakusketari, 40 herrialde-ordezkaritari eta SPRI. Horrekin batera, 20 hitzaldi edo jardunaldi eskaini ziren. Gaur egun INTERGUNE+ 2016 edizioari begira lan egiten ari da.

5. Nazioartekotzeko Euskal Partzuergoak ("Basque Consortium") erabaki du urtero "Mundura Begira" izeneko gertakaria antolatzea. Enpresen nazioartekotzearen arloan urteroko erreferente-hitzordua izan dadin lortu nahi da, eta, 2016an, Partzuergoa bera enpresa-ehunaren aurrean aurkezteko balio izan dezan.

1. ekimena. Esportatu ohi duten ETE-[ei laguntzeko tresnak eta lanabesak ezartzea](#), haien merkatuak handitzeko eta dibertsifikatzeko, betiere ETE-[ei zuzendutako laguntza-programaren](#) markoan.

1.4.3 helburua. ETE-en esportazio-oinarria handitzea

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Global Lehian programak](#) barruan hartzen ditu umotze-fase guztiak, ETE-en lehiakortasuna hobetzeko, bakarka nahiz elkarlanean nazioartekotu daitezten. Azpimarratzekoak dira sustapen- eta salmentataldeentzako eta esportazio-partzuergoentzako laguntzak, horrelako elkarrekin gauzatzen baita enpresen arteko lankidetzak, tamainari lotutako zailtasunak saihestu ahal izateko, nazioartekotzekimenean. Global Lehian programak itzuli beharrik ez duten diru-laguntzak ematen ditu, enpresek nazioartekotzeko dagokionez duten heldutasun mailaren arabera ordenatuta: (1) Hastapena. (2) Sendotzea. (3) Kanpo-ezarpenak. (4) Talentua aktibatzea eta antolakundeak merkatu globalera egokitzea.

2. Abian jarri da [Interlehian 2015 laguntza-programaren](#) deialdia, nazioarteko lehiaketa publikoetan eta lizitazioetan parte hartzeko laguntza emateko, arreta berezia jarriz alde anitzeko erakundeek finantzatzeko dituzten horiei. Egia da EAEko enpresak ohituta daudela atzerrira joan eta lehian aritzera, baina nazioarteko lizitazioak merkatu arrotza eta ezezaguna dira enpresa gehienentzat. Merkatu horrek, gaur egun, 100.000 milioi dolarretik gorako bolumena du. Enpresen arteko lankidetzak sustatzen du programak, eta enpresek aliantzen eta partzuergoen bidez abiarazten dituzten ekimenei aldeko haztapena egiten die.

3. Gure enpresek beste merkatu batzuetan lehiakideen antzeko lehiakortasun-baldintzetan gehiago parte hartzeko beharra kontuan izanik, komeni da EAEko enpresen eskura jartzea lehentasunezko finantzaketa-mekanismo bat, nazioarteko merkatuetan haien ezarpen produktiboa sustatuko duena. Ildo horretan, [Gauzatu - Kanpo Ezarpenak](#) programaren helburua da enpresen nazioarteko lehiakortasuna hobetzea, atzerrian egiten dituzten ezarpen produktiboak babestuz.

4. Indarrean jarri da Batzordearen 651/2014/EB Erregelamendua, 2014ko ekainaren 17koa, zeinaren bidez adierazten baita zenbait laguntza kategoria bateragarriak direla barne-merkatuarekin, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta. Ondorioz, programari buruzko araudia Europar Batasunaren arauak egokitu beharra sortu da eta ezin izan da argitaratu 2015eko deialdia. 2015eko azken hiruhilekoan Gauzatu - Kanpo Ezarpenak programa arautzen duen Agindu Proposamena prestatu da eta Europako Batzordeari igorri zaio. Bai bera bai Gauzatu - Kanpo Ezarpenak programaren 2016ko deialdia izapidetzen amaituko da, EHAA argitaratzeko, Europako Batzordeak erantzun bezain laster ea programa salbuespenari buruzko erregelamendu horretara bilduko den ala ez.

2. ekimena. Merkatu berrietan Euskal Autonomia Erkidegoko ETE-en presentzia handitzea.

1.4.3 helburua. ETE-en esportazio-oinarria handitzea

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. Industria arloaren ohiko lana egin da, SPRIrekin lankidetzan. Behean ageri diren programak kudeatu dira legegintzaldiko une honetara arte.

2. 2015eko programak eta emandako laguntza:

- GLOBAL LEHIAN >> 5.520.000 €
- INTERLEHIAN >> 23.631,37 €
- KLUSTER PROGRAMA >> 1.688.660 €
- AURREKLUSTER PROGRAMA >> 711.336 €
- NAZIOARTEKOTZEKO BEKAK >> 940.000 €
- GLOBAL TRAINING BEKAK >> 3.200.000 €
- ELKARTZEN >> 1.593.255,61 €
- HITZARMENA GANBEREKIN >> 1.400.000 €
- HITZARMENA BEC-EKIN >> 150.000 €

3. 2014ko programak eta emandako laguntza:

- GLOBAL LEHIAN >> 5.520.000 €
- GAUZATU - Kanpo Ezarpenak >> 3.921.732,50 €
- NAZIOARTEKOTZEKO BEKAK >> 940.000 €
- GLOBAL TRAINING BEKAK >> 3.200.000 €
- ELKARTZEN >> 1.600.000 €
- HITZARMENA GANBEREKIN >> 1.700.000 €
- HITZARMENA BEC-EKIN >> 150.000 €

4. 2013ko programak eta emandako laguntza:

- PROINTER >> 5.520.000 €
- GAUZATU Kanpo Ezarpenak >> 1.173.740,36 €
- NAZIOARTEKOTZEKO BEKAK >> 940.000 €
- GLOBAL TRAINING BEKAK >> 1.600.000 €
- ELKARTZEN >> 1.500.000 €
- HITZARMENA GANBEREKIN >> 1.000.000 €
- HITZARMENA BEC-EKIN >> 150.000 €

3. ekimena. ETEak "First step export PYMES" izeneko esportazio-jardueraren barruan sartzeko programa pilotu bat garatzea.

1.4.3 helburua. ETE-en esportazio-oinarria handitzea

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. EAEko hiru merkataritza-ganbarekin lankidetzak hitzarmena egin da, EAEko enpresak nazioartekotzen laguntzeko euren proiektuen finantzaketan parte hartzeko. 2015erako hitzarmenean ere [Profex programaren](#) alde apustu egiten jarraitu da. Hitzarmen horren bitartez, esportazioaren arloko profesional baten zerbitzuak lanaldi partzialean partekatzeko aukera ematen zaie nahiko baliabiderik ez duten enpresei.

2. [Global Lehian programak](#) barruan hartzen ditu umotze-fase guztiak, ETE-en lehiakortasuna hobetzeko, bakarka nahiz elkarlanean nazioartekotu daitezen. Azpimarratzekoak dira sustapen- eta salmentataldeentzako eta esportazio-partzuergoentzako laguntzak, horrelako elkarrekin gauzatzen baita enpresen arteko lankidetzak, tamainari lotutako zailtasunak saihestu ahal izateko, EAEko enpresen nazioartekotze-ekimenetan. Global Lehian programak itzuli beharrik ez duten diru-laguntzak ematen ditu, enpresek nazioartekotzeari dagokionez duten heldutasun mailaren arabera ordenatuta:

3. Hasierako etapa, sendotzekoa eta atzerrian ezartzekoa elkarren segidako etapa gisa ikusten dira, oro har, Global Lehian programaren barruan, eta, horregatik, etapa bateko laguntzak lortu ahal izateko, aurreko etapa gainditu izana eskatzen da. Aitzitik, talentua aktibatze eta antolakundeak merkatu globalera egokitzeko etapa potentzialki konkurrentzian egon daitekeela uste da beste hirurekin.

- Guztira 357 eskaera aurkeztu ziren 2014. urtean, eta horietatik 319k baiezko ebazpena jaso zuten. 63 hasierako fasean, 245 sendotzeko fasean, eta 11 ezartzeko fasean. 32 Arabakoak dira, 174 Gipuzkoakoak eta 113 Bizkaikoak.
- Guztira 535 eskaera aurkeztu ziren 2015. urtean, eta horietatik 465ek baiezko ebazpena jaso zuten. 55 hasierako fasean, 396 sendotzeko fasean, eta 14 ezartzeko fasean. Haietatik 47 Arabakoak dira, 253 Gipuzkoakoak eta 165 Bizkaikoak.

4. ekimena. Sektoreetako elkarteei eta klusterrei laguntzea, elkarteko kide diren ETEak nazioartekotzen laguntzeko berariazko planak diseinatu, definitu eta gauzatzeko.

1.4.3 helburua. ETE-en esportazio-oinarria handitzea

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldian laguntzak eman zaizkie EAEko sektore ekonomikoek egiten dituzten esportazioen sustapena ahalbidetzen duten elkarte sektorialen proiektu eta ekimenei.

- 2015ean laguntza eman zaie 30 elkarte sektorial, kluster eta aurreklusterrei.
- 2014an laguntza eman zaie 33 elkarte sektorial, kluster eta aurreklusterrei.

2. [Elkartzen programaren](#) bidez 2014an laguntza jaso duten nazioartekotze-jarduerei dagokienez, honako zenbaki hauek azpimarratu behar dira: 121 azoka atzerrian, zuzeneko 176 misio komertzial eta alderantzizko 59 misio komertzial. 2015ean egindako lanetatik ondoko hauek azpimarratu behar dira: 82 azoka atzerrian, zuzeneko 146 misio komertzial eta alderantzizko 62 misio komertzial.

3. 90eko hamarkadatik, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako kluster politiken aplikazioak EAEko industria-ehuna indartzeko bidea eman du. Ereduaren bilakaeraren ildotik sortu dira Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren eta aurreklusterren ehuna osatzen duten 22 enpresa-elkartek: ACEDE, ACICAE, ACLIMA, AFM, AFV, ALIMENTACIÓN, BBC, EIKEN, ENERGÍA, ERAIKUNE, ESKUIN, FMV, GAIA, HABIC, HEGAN, LANGUNE, MAFEX, MLC – ITS, PAPEL, SIDEREX, SIFE, UNIPORT.

4. Lankidetzako ekintzak Klusterraren Plan Estrategikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren ekonomiaren eta lehiakortasunaren inguruko estrategian zehaztutako jarduketa-arlo estrategikoen ondoriozko logikaren matritzetik sortzen dira. Nazioartekotzea, berrikuntza teknologikoa edota enpresa-berrikuntza bezalako arloak lantzen dira.

5. Hura Euskal Autonomia Erkidegoan abiarazi zenetik 25 urtera, 2015ean, [Basque Cluster Day](#) jardunaldiaren lehenengo edizioa egin zen, gogoeta egiteko klusterren politikaren azkenaldiko eboluzioaz, batez ere EAEkoaz, eta oraingo eta geroko erronkez, Espezializazio Adimentsurako Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiaren (RIS3) hedapenaren esparruan.

1. ekimena. Ikasleen praktikak bultzatzea atzerriko erakundeetan eta enpresetan lanbide-heziketako ikastetxeekin, unibertsitateekin, enpresa-elkarteeekin, foru-aldundiekin eta finantza-erakundeekin lankidetzan.

1.4.4 helburua. Nazioarteko prestakuntza

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko apirilean, NBErekin eta EAeko hiru unibertsitateekin elkarlanean, EAeko profesionalek NBEn lan egiteko dituzten aukerei buruzko informazio-saioak antolatu ziren. Guztira 500 bat lagunek parte hartu zuten jardunaldietan. Ezaugarri hauek zituzten: goi-mailako titulua edukitzea, ingelesa edo frantsesa jakitea, eta lanbide-esperientzia edukitzea finantzetan, enpresen administrazioan eta zuzendaritzan, lege-gaietan, informatikako ingeniarietan eta abarretan.

2. 2014-2015 ikasturtean EAeko Lanbide Heziketako 774 ikaslek parte hartu zuten Europako mugikortasun-proiektuetan. Horretarako, Europako 563 enpresak hartu zituzten EAeko ikasleak. Ikasleok Europako 19 xede-herrialdetan banatu ziren.

3. Askotariko laguntzak eta bekak daude; hainbat erakundek eskaintzen dituzte, bai Europar Batasunean (EB) bai kanpoan. Horietarikoak dira [Gazte Aukera atarian](#) jasotakoak.

2. ekimena. Atzerrian lehendabiziko lan-esperientzia izateko "Global Training" programa bultzatzea.

1.4.4 helburua. Nazioarteko prestakuntza

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Global Training beken](#) programa sustatu da, EAEko gazteak nazioartean mugitzera bultzatzeko, beren profil akademikoari eta profesionalari lotutako jarduerak eta proiektuak atzerriko herrialdeetako enpresetan eta erakundeetan egiteko, aldezturik planifikatutako trebakuntza praktikoko plan batekin (30 urtetik beherakoentzat). 2015eko ekitaldiko beken deialdirako, 3.200.000 euroko hornidura ekonomikoa jarri zen. Atzerrian kokatutako EAEko enpresetan ez ezik, bekadunak lanean ariko dira programen kolaboratzaile diren erakundeetan, hala nola European Foundation for Quality Management, Movistar, Microsoft, Oxfordeko, Sao Pauloko eta Bordeleko unibertsitateak, EFE agenzia edo The Institute of Cancer Research.

2. Eusko Jaurlaritzak [Nazioartekotzeko beken](#) deialdiak egiten ditu. Orain dela hogeita hamar urte hasita, etenik gabe mantendu du programa hori, eta 1.000 pertsona baino gehiago trebatu ditu kanpo-merkataritzako espezializazioan. Beraz, eutsi egiten zaio giza kapitalaren prestakuntzaren eta gaikuntzaren aldeko apustuari, EAEko enpresak eta ekonomia nazioartekotzeko bidean. Programaren helburua da profesional gaituak, motibatuak eta behar bezala trebatuak edukitzea kanpo-merkataritzaren arloan eta, oro har, nazioartekotzearen arloan. Eusko Jaurlaritzaren aldetik programaren zenbatekoa [2016an](#) 3.497.716 euro da, [2015ean](#) baino milioi bat gehiago. Nazioartekotzeko beken hartzaileek mundu osoko bulego ekonomiko eta komertzialen sareetan jarduten dute: Europako eta Amerikako herrialdeetan, bai eta Hegoafrikan, Malaysian, Dubain, Abu Dhabin, Australian, Japonian, Txinan, Thailandian eta Aljerian ere.

3. Prestakuntzaren berrikuntzak eta aukera berriak ezarri dira nazioartekotzeko beken 2016ko deialdian. Programaren bigarren edo hirugarren fasean bekadun guztiak dute atzerrira joateko aukera (orain arte ehunetik 80k egiten zuten). Gehieneko adina 30 urtera igo da, eta lizentzia 2016an bertan lortzen duten pertsonak ere parte hartu ahal izango dute. Alumni Zerbitzua eratu da. Horrela, programaren historian zehar beka izan duten pertsona guztiak izena eman, eta tresna hori baliatu ahal izango dute euren lanbide-harremanak aberasteko.

4. Baldintza eta hornidura ekonomikoen hobekuntzak ezarri dira nazioartekotzeko beken 2016ko deialdian; bisaren kostuak ordaintzen dira. Banakako hornidurak, egonaldi luzeko modalitatean, 30.000 - 60.000 euro bitartekoak dira, eta egonaldi laburragoko modalitatean, berriz, 12.000 - 24.000 euro bitartekoak (8 hilabete) edo 15.000 - 30.000 euro bitartekoak (10 hilabete).

5. Nazioartekotzeko bekei dagokienez, praktikaldia amaitu ondoren bekadunen ia erdiak geratzen dira lanean praktikak egin dituzten enpresan bertan. 10 bekadunetik 8k lortzen dute lana 6 hilabete igaro aurretik. Nazioartekotzeko programan 800 gazte baino gehiago trebatu dira 25 urtean, eta 800 horietatik gaur egun ia 500 ari dira lanean nazioartekotzearekin zerikusia duten jardueretan.

1. ekimena. EAEk Europako eta nazioarteko erakunde eta organismoetan parte hartzea bultzatzea.

1.4.5 helburua. Kanpo-ekintza aktiboa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. 2013ko udaberrian Lehendakaria Bruselara joan zen Europar Batasuneko Kontseiluko eta Batzordeko presidenteeekin elkarrizketatzeko. Helburua Eusko Jaurlaritzaren planak lehen eskutik eramatea zen, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomikoaren berri eman eta lan eta enpresen sustapen politika azaltzeko. Halaber, ETAREN indarkeria amaitu ondoren zabaltzen zen garai politiko berriaz mintzatu zen.

2. 2013ko maiatzean, [Latinoamerikako Garapenerako Bankuaren \(CAF\) ordezkari](#) baten bisita antolatu zen. Bisitaren baitan enpresentzako jardunaldi bat eta zenbait topaketa egin ziren herriko eragileekin, euskal ekoizpen eta enpresa egitura ezagutu eta Latinoamerikan euskal enpresen inbertsioak bultzatzeko balizko lankidetzak aztertze asmoz.

3. 2014ko abenduan Enplegu Kontseiluan eta Gazteriaren Kontseiluan parte hartu zen. Bruselan egin ziren biak. Ekitaldi oso horretan, Europar Batasuneko Kontseiluko lantaldeetan parte hartzen jarraitu zen, batez ere ECOFINen. Halaber, aktiboki parte hartu zen Europako Batzordeko batzorde teknikoetan.

4. Eusko Jaurlaritzak, AEBn duen Ordezkaritzaren bidez, ECOSOC (Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Batzordea) Foroaren zenbait topaketetan parte hartu du, euskal eragileak ordezkatzuz. Zehazki, gazteriaren, hirigintza eta industrializazioaren eta garapenerako lankidetzaren arloei buruzko bileretan.

5. Europako Elkarrizketak ekimenaren esparruan, 2015eko otsailean Europako Batzordeko presidenteordeak Euskal Autonomia Erkidegoa bisitatu eta langabeziari, ekonomiaren suspertzeari eta gazteriari buruzko gaiak jorratu zituen.

6. [SEGIB](#)en alderantzizko misioa: SEGIBeko (Iberoamerikako Idazkaritza Nagusia) idazkari nagusiaren bisita Euskadira, 2015eko irailean, Eusko Jaurlaritzarekiko harremanetan sakondu eta haien jarraipena egiteko. Bisitaren barruan Eusko Legebiltzarrarekin eta euskal erakundeetako beste eragile batzuekin elkartu zen. Lankidetzarako hitzarmen bat sinatu zen Segib-ekin, eremu hauek bilduz: berrikuntza eta lehiakortasuna; gobernu irekia, emakumeak; hiri garapena (11.13)

7. Euskadin [Munduko Landagunea](#) egin zen (2015-09-21-23), Familia Nekazaritzaren Nazioarteko Urtearen (FNUU) lorpenei jarraikortasuna emateko. 5 kontinenteetatik etorritako landa munduko 200 eragile baino gehiago bildu zituen, besteak beste, nazioarteko erakundeak, hala nola Fao, Fida, Pma, gobernuak eta arloari buruzko euskal adituak.

8. Altzairuaren sektoreak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoera ezagutarazi eta Europatik behar diren neurriak hartzen laguntzeko, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun sailburuak, 2016-01-27an, bilera bat izan zuen Merkataritzaren ardura duen Europako komisarioaren ondoko kabinete-buruarekin. Halaber, 2016-01-15ean Europako Batzordeak antolatutako biltzar batean parte hartu zuen. Han, EBko ordezkariak energia-kontsumo handia duten industrien egoera aztertu zuten.

2. ekimena. Europako Gaietarako Euskal Autonomia Erkidegoa-Estatua Aldebiko Batzordea berregitea, partaidetza- eta jarraipen-tresna gisa.

1.4.5 helburua. Kanpo-ekintza aktiboa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Legegintzaldian kontaktuak izan dira Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioarekin eta zenbaitetan errepikatu da [Europako Gaietarako Euskal Autonomia Erkidegoa-Estatua Aldebiko Batzordea](#) deitzeko eskaera, baina Ministerioak ez dio eskaerari inoiz erantzun.

3. ekimena. Euskal partaidetza sendotzea Europako zenbait batzordetan.

1.4.5 helburua. Kanpo-ekintza aktiboa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. 2013ko lehen sei hilekoan Euskal Autonomia Erkidegoak [Eskualdeen Batzordearen](#) bi osoko bilkuratan (apirila eta maiatza) parte hartu zuen. Haietan, 15 zuzenketa aurkeztu ziren eta haietatik 12 onartu ziren. Halaber, eskualde eta toki mailan egiten ari ziren politikak ezagutzeko 7 galdetegiri erantzun zitzairen. Haien xedea une hartan Batasunerako prestatzen ari zen araudiaren ikuspegi berria definitzea eta EBko lurraldeetan zer eragin izan zezakeen ezagutzea zen.
2. Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren bidez Europako Batzordeko batzorde teknikoetako ordezkariak berritu ziren.
3. 2014an, Bruselatik 36 saiotan parte hartu zuen. Arloak hauek izan ziren: kirolak, kultura, lankidetzak, unibertsitatea, turismoa, I+G+B, industria-politika, energia eta garraioa eta mugikortasuna. Bestalde, Kanpo Ekintzako Idazkaritza Nagusiak Eskualdeen Batzordearen 4 osoko bilkuratan parte hartu du; haietan, 81 zuzenketa aurkeztu (haietatik 70 onartu ziren) eta guztira 304 zuzenketatik 207ren alde egin zuen. 2015ean Batzordearen sei osoko bilkuratan parte hartu da.
4. 2015ean Europako Batzordeko batzordeen bilera hauetan parte hartzen jarraitu da: Rica (2), Klima-aldaketa (4) eta Horizon 2020 (6). (
5. 2015ean Kontseiluko (ECOFIN) fiskalitate lantaldeen 30 bileratan parte hartu da

4. ekimena. Ekonomia Ituna defendatzea Europan eta euskal eskumenak legegintza-garapenean eta Europako Erkidegoaren araudiaren betearazpenean, subsidiarotasun-printzipioari jarraiki, eta legitimazio aktiboa Justizia Auzitegiaren aurrean euskal gizartearen interesak defendatzeko.

1.4.5 helburua. Kanpo-ekintza aktiboa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Legegintzaldian Eusko Jurlaritzak eta foru aldundiek Ecofineko (Ekonomia eta Finantza Kontseilua) lantaldeen bileretan parte hartu dute, bai zuzeneko bai zeharkako zergei buruzko arloetan.

2. 2014an Ecofin-en parte hartu zen, zehazki, hogeita zazpi bileratan. Halaber, ELGak Parisen fiskalitateari buruz egindako tailer teknikora joan zen.

3. 2015ean, EBko Ekonomia eta Finantza Kontseiluko (ECOFIN) lantaldeetan parte hartzen jarraitu eta 30 bileratara joan da (kasu batzuetan, Eusko Jurlaritzako edo foru aldundietako arloko arduradunei laguntzeko).

5. ekimena. Beste nazio eta eskualde batzuekin lankidetza iraunkorrerako sareak ezartzea, betiere interes erkideen eta aldebiko edota alde askotako lankidetza formula berrien defentsa bideratzeko asmoz.

1.4.5 helburua. Kanpo-ekintza aktiboa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. 2013ko azaroan Jaurlaritzaren ordezkari batek Kroaziara bisita egin zuenetik, hango Turismo Ministroa buru zela, lankidetzarako ekimenak abiarazi ziren gastronomia, turismo eta lankidetza teknologikoaren eremuan.

2. 2014an bilera bana egin zen Flandria eta Bavariako gobernuetako kanpo ekintzaren arduradunekin, eta haietan lankidetzarako hitzarmen bana lortu zen.

3. 2014ko urtarrilean Eusko Jaurlaritza Vanguard Initiative ekimenari atxiki zitzaion. Ekimen horretan Europako 10 eskualdek baino gehiagok parte hartzen dute, zeinak ahalmen berritzaile handia eta ezartzeko prozesu betean dagoen industria-ekoizpen egitura esanguratsua izateagatik nabarmentzen baitira.

4. 2015-01-18 eta 21 artean Eusko Jaurlaritzaren ordezkari batek Danimarka bisitatu eta elkarrizketak izan zituen gobernuaren zenbait mailatako arduradunekin, herrialde horretan zahartze aktibo eta osasuntsuaren arloan aplikatzen diren ereduak ezagutzeko. Urte bereko martxoan Danimarkako ordezkari batek bisita itzuli zuen.

6. Ipar Irlandako ordezkari batek, SEUPB-ko zuzendaria buru zela (PEACE programa kudeatzeaz arduratzen da) Euskal Autonomia Erkidegoa bisitatu zuen, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak PEACE programaren hurrengo programazioan hauta daitezkeen baterako ekintzak identifikatzeko egindako bisita itzultzeko.

6. Kidego diplomatikoarekin izandako kontaktuei dagokienez, Lehendakariak 50 enbaxadore hartu ditu aldebiko bileretan duela 23 hilabete bere kargua hartu zuenetik. Bestalde, Madrilan topaketak izan ditu EBko, Latinoamerikako eta Arabiar Ligako Kontseiluko herrialdeetako enbaxadoreekin.

7. 2014-12-1 eta 5 artean [“Euskadi Learning Tour” Programa](#) berriaren lehen ekitaldia egin zen. Ekimen horrek aukera aparta ematen du beste herrialde batzuetako pertsona garrantzitsuei Euskal Autonomia Erkidegoko gauzarik nabarmen eta berezianak bisitatzeko. Programa inauguratu zuen Txileko ordezkari batek gobernuaren goi-karguek, senatariek, enpresaburuek eta hedabideetako ordezkariak osatu zuten. 2015eko irailean Mexikoko ordezkari bat hartu zen.

8. 2015eko otsailean Eusko Jaurlaritzaren ordezkari batek Eskoziako Parlamentuko Kanpo Arazoetako Batzordearen saio batean parte hartu zuen, Flandria eta Kataluniako ordezkariekin batera, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzak duen eredia azaltzeko eta batez ere Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Ekintzarako Estrategiaren edukia azaltzeko. Halaber, bilera bat egin zen Eskoziako Kanpo Arazoetako ministroarekin.

9. 2015ean Europar Batasuneko Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzian parte hartzen jarraitu da, lankidetza deszentralizatuko taldearen lanak koordinatuz. Halaber, 2015-11-4 eta 5ean Florentzian egindako batzar nagusian parte hartu zen. Konferentzia horretako Arku Atlantikoaren Batzordean ere parte hartzen da.

6. ekimena. Sektore askotako euskal erakundeen eta eragileen partaidetza bultzatzea nazioz gaindiko sare sektorial erreferentzialetan.

1.4.5 helburua. Kanpo-ekintza aktiboa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Nazioarteko sareetako parte-hartzea jarduera eremu garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore anitzeko interesei laguntzeko eta eragileak kanpoan kokatzeko. Parte-hartzearen helburua estatu-azpiko gobernuak kokatzea ere bada, garapena bizkortzeko gai den gobernantza maila gisa, egiazko autonomia politikoaren bidez. Bestalde, eta helburu orokor gisa, erakunde horiek nazioarteko estamentuen aurrean -besteak beste, Nazio Batuen aurrean- elkarrizketa kanal bat lortu nahi dute. Eremu horretan hauek izan dira gertaerarik garrantzitsuenak:

-2014ko abenduan Lehendakaria Climate Group-ean Elkartutako Eskualde eta Estatuaren Aliantzako Europako presidente berritza. Aliantza hori karbono isuriak murrizteko sare bat da.

-2014ko irailean Eusko Jaurlaritzako ordezkari batek [Garapen Iraunkorraren aldeko Eskualdeko Gobernuen Sarearen \(nrg4SD\)](#) batzar nagusian eta Eskualde Batuen Erakundearen (EBE/FOGAR) batzar nagusian parte hartzea, Eskualdeko Gobernuen Munduko IV. Goi-bileraren kariatara.

-2015eko martxoan Euskal Autonomia Erkidegoa kide den Europar Batasuneko Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziako (IEPK) Arku Atlantikoaren Batzordearen batzar nagusia egin zen Bilbon. Ekitaldian euskal itsas klusterreko presidentek eta energiaren sektoreari lotutako agintariak eta eragileak parte hartu zuten. Bi sektoreak, energiarena eta itsasoarena, lehen mailako erreferentziak dira arku atlantikoa garatu eta finkatzeko. Beste sektore batzuen artean, arrantzarena eta turismoarena ere sartzen dira.

2. Eusko Jaurlaritzak etengabe eta aktiboki parte hartzen du gaikako sare hauetan: Npld (Eleaniztasunaren Ibilbide Orriari buruzko konferentzian (2015) parte hartu zuen), CIneregio (Berlinale- ren esparruko parte-hartzea), Earlall (2015ean sorkuntza eleaniztunari buruzko konferentzia bat antolatuz), Europako Ikaskuntzarako Ituna, Eunic (Etxepare Fundazioak parte hartzen du han).

3. Halaber, Legegintzaldian aktiboki parte hartu da hauetan ere: Arepo (Jatorrizko Produktuen Europako Eskualdeen Elkargoa), Euromontana (Europako Mendialdeen Elkartea) zeinean Euskal Autonomia Erkidegoak presidentzia izan baitu 2015ean, Eriaff (Nekazaritza, Elikadura eta Basoak Eraberritzeko Europako Eskualdeak), Coral, Erlai (European Regional and Local Authorities on Asylum and Immigration) eta Errin, bi lantaldetan (manufaktura aurreratua eta hiri adimentsuak).

7. ekimena. EAEk atzerrian dituen ordezkariak eguneratzea, gaur egungo nazioarteko errealitatearen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko etorkizunarentzat giltzarriak diren jomugen arabera egokituz.

1.4.5 helburua. Kanpo-ekintza aktiboa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Legegintzaldian, besteak beste, jarduketa hauek egin dira:

- Egungo Kanpoko Ordezkaritza Sarea mantendu da beste eraketa geografiko batekin (AEB; Mexiko; Txile, Peru eta Kolonbia (2 kokagunerekin); Argentina-Mercosur; Europar Batasuna eta Madrilgo bulegoa).
- Kanpoko bost ordezkari izendatu eta mobilizatu dira.
- Barneko administrazio eta kudeaketa prozedurak berrikusi eta egokitu dira.
- Ordezkaritza guztiak bisitatu dira ordezkari laguntzeko, taldeekin kontaktua hartzeko eta Kanpo Ekintzako orientazioak aurkezteko.

2. Urteko hiru topaketa egin dira Eusko Jaurlaritzak kanpoan diruen ordezkariekin Euskal Autonomia Erkidegoan (urtarrilean, uztailean eta abenduan) Agendek barneko lan saioak, Kanpo Ekintzarako Planaren eta urteko Kudeaketa Planen prestaketaren esparruan, eta beste gobernu sail batzuekin egindako topaketak uztartzen dituzte.

3. Halaber, zenbait hautapen-prozesu abiarazi dira ordezkarietan hutsik geratu diren plazak betetzeko: AEBko Enpresa teknikaria, Mexikoko Enpresa teknikaria eta AEBko Administrazioa, Txileko Erakunde teknikaria, etab.

4. Protokolo bat egiten ari da ordezkari administrazio kudeaketa prozesu guztiak eta parte diren autonomia erkidegoko administrazioaren egiturarekin dituzten erlazioak jasotzeko.

5. Agiri bat egiten ari da kanpoko ordezkari berriak eta/edo kanpoan presentzia instituzionala izateko modu berriak irekitzeko irizpideak aztertzeko; 2016ko lehen seihilekoan amaituta egotea espero da.

8. ekimena. EAEk atzerrian dituen ordezkariak jarduerak sustatzea, gobernuaren arlo guztiak eta gizarte nahiz ekonomi eragileen presentzia batera bilduz.

1.4.5 helburua. Kanpo-ekintza aktiboa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Euskal Autonomia Erkidegoak [“Buenos Aires Celebra” programan](#) duen parte-hartzea koordinatu zen. Programa 2014ko maiatzaren hasieran egin zen eta Buenos Airesko Kultura Ministerioak antolatzen du hiriko herritarren eta herrialdean finkatutako kolektibitateen arteko topaketa sustatzeko.

2. 2013ko amaieratik aurrera zuzeneko Informatiboa egin dira Eusko Jaurlaritzaren Madrilgo bulegoan (Bakea eta Bizikidetzak, [Gobernu Irekia eta Gardentasuna](#), Turismorako Euskal Estrategia, FIBA 2014–Ertzaintza Segurtasun Dispositiboa, Berdintasun Politika- Emakunde, Lanbide Heziketa eta Basque Country Logistics). 13 hilabetetan Eusko Jaurlaritzaren bulegotik Madrilan kreditatuta dauden enbaxadetak berrogeita hamar ordezkari eta Eusko Jaurlaritzak bere jarduneko gaietan dituen arduradunak igaroko ziren.

3. 2015ean, Lan Gosariak egin dira Kolonbiako ordezkarietan; haietan, topaketa bat antolatu da ANDIko (Kolonbiako Enpresarien Elkarte Nazionala) gerentzarekin eta euskal enpreekin, bigarren topaketa bat Kolonbiako Gobernuaren Energia Zuzendariaekin eta sektoreko euskal enpreekin eta hirugarren topaketa bat Plangintza Sail Nazionalako Uren zuzendariarekin, energiaren sektorean interesa duten eta finkatuta dauden euskal enprei bideratuta.

4. Bestalde, 2015ean hainbat jardura egin dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Bruselako ordezkarietan. Hauek aipa daitezke: Tknika LHko agentziaren eta Flandriako unibertsitatearen lankidetzak dronen arloan (Flandriarekiko lankidetzarako esparru akordioaren baitan aktiba daiteke) eta bilerak EBko zuzendaritza nagusi batzuekin; zuzendaritza nagusi horiek hauek izan dira, besteak beste: MOVE , Enplegua eta Gizarte arazoak, Connect, DEVCO, Lehia, Energia, Osasuna, eta Europako komisarioen zenbait kabinete.

5. Europako Parlamentuan egindako sorkuntza eleaniztunari buruzko Europako konferentzia eta Lanbide heziketari eta ikaskuntzari buruzko konferentzia parte hartu da Bruselan. Euskal unibertsitateak 2015eko martxoan egin zen Unibertsitateak-Enpresak Europako Foroan parte hartzea lortu zen. 2015eko ekainean Euskal Autonomia Erkidegoan egin zen Lanbide Heziketaren Biltzarra antolatu eta Ikaskuntzaren Europako Aliantzaren urteko bi hitzordutan (Brusela eta Riga) esku hartu zen.

9. ekimena. EAEn interesekoak izan daitezkeen herrialde zein eskualdeen bisita instituzional bidirekzionalak antolatzea, EAetik edota EAEn.

1.4.5 helburua. Kanpo-ekintza aktiboa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Lehendakaria buru izan da Eusko Jaurlaritzaren bi ordezkariak kanpora egindako bidaia ofizialetan:

-2013-10-8 eta 14 artean [Ameriketako Estatu Batuetara](#): Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoa ezagutarazi zuen, eremu guztietan: politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean.

-2014-10-26tik 11-2ra [Mexikora](#): Agenda ekonomiaren eta euskal enpresen nazioartekotzearen inguruan mugitu zen, eta topaketa instituzionalak, kulturalak eta hezkuntza eremukoak egin ziren.

2. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak bere kanpoko erakunde-lana areagotu du; hala, 2013ko udaberrian bi bisita garrantzitsu egin dira; izan ere, 2007tik, Euskal Autonomia Erkidegoak ez zuen estatubururik edo gobernubururik hartzen:

-[Uruguai](#)ko Ekialdeko Errepublikako presidenteara, herrialde bien arteko harreman ekonomiko eta kulturalak estutzeko.

-[Peruko](#) lehen ministroarena; herrialde horrek hazkunde etengabe handia du eta hala jarraitzeko aurreikuspenak daude

3. Azkenik, Euskal Autonomiaren Erkidegoko ordezkari bidez, nazioarteko hogeita bisita baino gehiago antolatu dira EAEn; hala etorri dira, besteak beste Txileko UNAF (Familia Nekazaritzaren Batasun Nazionala), Rio Grande do Sulko ordezkariak, Uruguai ANII eta Munduko Bankua, La Matanzako (Argentina) ekoizpen idazkaria edo Smithsoniango (AEB) zuzendaritza taldea.

4. 2015eko ekainean, 14 herrialdeko enbaxadetako 20 ordezkari osatutako talde batek euskal geografiako zenbait puntu bisitatu zituen Euskal Autonomia Erkidegoko kultura eta turismo-eskaintza ezagutzeko eta Eusko Jaurlaritzako arduradunekin biltzeko. Bisita Espainiako ADE-Atzerriko Diplomaten Elkarteak antolatu zuen, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzako Idazkaritza Nagusiaren eta Basquetourren laguntzaz.

5. 2015eko urrian, Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzak Indiako Emakume Enpresaburuen Ordezkaritza bat (FICCI-FLO: Federation of Indian Chamber of Commerce & Industry-FLadies Organization- Indiako Merkataritza Ganbarako emakume enpresaburuen erakundea; haren helburua emakumeak ekintzailatza eta lanbide-bikaintasuna sustatuz ahalduztzea da) antolatu eta Gipuzkoako Parke Teknologikora lagundu egin zuen. Han, Basque Country Nazioartekotzeko Estrategia, Euskal Autonomia Erkidegoko Parke Teknologikoen Sarearen aurkezpena eta BIC bioinkubagailua, BERRILAN eta Tecnalia ezagutu zituzten.

1. ekimena. Garapenaren aldeko lankidetzaren politikaren eraginkortasunean eta giza eskubideen sustapen eta defentsarekiko loturan sakontzea, betiere Garapenaren aldeko Lankidetzaren Euskal Agentzia balioetsiz eta Lankidetzarako Plangintza Estrategiko berria onetsiz neurriak herrialde estratagiaren esparruan elkarloturik.

1.4.6 helburua. Garapenaren aldeko lankidetzaren

Arduraduna: Paul Ortega Etcheverry (Garapenaren aldeko Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria)

Jarduketak

1. Garapenaren aldeko Lankidetzaren Euskal Agentziak, ahal den neurrian bere jarduerak gainerako administrazio erakundeekin egiten dutenarekin integratu eta koordinatu behar dela ulertuta, euren edukia dela eta egokiak diren gobernuko arloen jarduerak euren neurrian garapenaren aldeko lankidetzari lotutako alderdiak sartzeko nahi du. Hala, lankidetzaren eremuak ezarri dituen enplegu eta gizarte arazoetarako arloarekin ([NBE bekak](#)), Uraren Euskal Agentziarekin ([Uraren kanona](#)), edo Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritzarekin ([Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Aldi Baterako Babeserako Programa](#)).

2. 2015eko otsailaren 10ean Gobernu Kontseiluak [Garapenaren aldeko Lankidetzarako III. Plan Gidaria](#) onartu zuen. Geroago, GLEAREN Urteko Jarduera Plana onartu zen. Planak III. Plan Gidarian ezarritako helburuak eta emaitzak garatzen ditu. Era berean, Eusko Legebiltzarreko Europako Gaietarako eta Kanpo Ekintzarako Batzordeak aurretik onetsi zituen (2014ko apirilean) Jaurlaritzaren garapenaren aldeko lankidetzaren politika publikoak planifikatzeko Jaurlaritzaren jarraibideak. [Urte anitzeko 2014-2017 Plangintza Estrategikorako Jarraibideak](#).

3. Zuzentasunaren aldeko Antolakuntza Aldaketarako tresna (GBA) eta Deustuko Unibertsitateko Programa Indigena ebaluatu dira, eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategia diseinatzearen diagnostikoaren esparruan, bi ebaluazio egin dira: hezkuntza formalari dagokiona eta gorabehera prozesuei buruzkoa. Eusko Jaurlaritzak azken hamar urteetan ekintza humanitarioaren eremuan izandako lankidetzaren aztertzen ari da. Halaber, Guatemala, Kuba eta Ekuadorreko Herrialde Estrategien egokitasuna eta inpaktu geografikoa berraztertzen ari dira.

4. Eusko Jaurlaritzaren baitako garapenaren aldeko politiken koherentziari buruzko azterlanak egin da. Gobernu Kontseiluaren aurrean aurkeztu da eta Garapenaren aldeko Lankidetzarako Euskal Kontseiluan aurkeztuko da. Atal hori bultzatzeko, GLEAK kontaktuak hasi ditu zenbait sailekin, lehenagoko harremanak finkatuz eta arlo horretan aurrera egiteko bide berriak irekiz. Ildo horretatik, hizkuntza politikaren arloko lankidetzarako esparru hitzarmen bat sinatu da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin eta uraren euskal agentziarekin.

5. Horretarako ezarritako epeen barruan Garapenerako Laguntza Ofizialaren jarraipeneko inkestentzako erantzunak prestatu dira. Laguntza ofizial horrek aurrekontu-ekitaldi bakoitzean lankidetzaren izandako esku-hartzei buruzko informazioa ematen du. Inkesta hori Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioari bidali behar zaio, ondoren ELGAKO Garapenerako Laguntza Batzordeari (GLB) eramateko.

2. ekimena. Europar Batasunarekiko, Nazioarteko Erakundeekiko eta Nazioarteko Lankidetzaren Agentziekiko harremanak estutzea, baterako jarduerak egiteko ez ezik, euskal erakundeekin finantzaketa- eta lankidetzaren bide berriak ahalbidetzeko ere bai.

1.4.6 helburua. Garapenerako lankidetzaren

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. 2013-2014 aldian nazioarteko zenbait forotan parte hartu da; haien artean, hauek nabarmendu daitezke:

- Lankidetzaren Deszentralizatuko Assises-Eskualdeen Batzordea (2013-06-07),
- Etiopiako Nazio Batuetako Garapeneraren aldeko Lankidetzari buruzko Goi-mailako Sinposiuma: (2013-06-05etik 07ra),
- Horizontal Partnerships for Territorial Cooperation (2013-06-26 eta 09-26),
- Tech4life Mexiko 2013 tailerra "Garapeneraren zerbitzurako gizarte eta teknologia berrikuntza"ri buruzkoa (2013-11-07 eta 08),
- European Development Days (Europako Batzordea) (2013-11-27)
- 2014ko ekainean, herrialde estratergiako bisitaren esparruan bilerak egin ziren NBGP Kuba eta EBrekin.

2. 2014an, Garapeneraren aldeko Lankidetzarako Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzaren Bruselako ordezkariaren laguntzaz, CPMR – Europar Batasuneko Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziako Lankidetzari buruzko Lantaldearen presidentzia hartu du.

3. 2014an, Garapeneraren aldeko Lankidetzarako Euskal Agentziak hitzarmen bat sinatu du ART-NBGPren Innovation in Sustainable Territorial Partnerships Initiative (I-STEPS) ekimena gauzatzeko. Ekimen horretan, NBEz gain, Europako beste eskualde eta tokiko gobernu batzuek parte hartzen dute. I-STEPS ekimen horren esparruan eta NBGPren eskutik, Agentziak identifikazio misioak lagundu ditu Ekuador, Libano eta Montenegro. Era berean, 2015ean izapideak hasi dira NBGP Guatemalarekin justizia trantsizionalaren arloko hitzarmen bat sinatzeko.

4. 2015ean zenbait bilera egin dira Europako Batzordeko eta Europako Inbertsio Bankuko arduradunekin Juncker Planaren esparruaren baitan proiektuak bereganatu aurretik haietarako finantzazioa eskuratu ahal izateko baldintzak ezagutzeari begira.

5. 2015ean, eta garapeneraren aldeko lankidetzarako beste lurralde eremu batzuetako erakundeekin zuzeneko lankidetzaren eremuan, lankidetzaren hitzarmenak sinatu dira Hondurasko Atxilotu Desagertuen Senideen Batzordearekin (COFADEH), Addameer elkartearekin eta Forum Mulher Elkartearekin (Mozambike).

3. ekimena. Elkarre-sarea indartzea, betiere Garapenaren aldeko Lankidetzarako Euskal Kontseilua bultzatuz.

1.4.6 helburua. Garapenerako lankidetzak

Arduraduna: Paul Ortega Etcheverry (Garapenaren aldeko Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria)

Jarduketak

1. Legegintzaldi honetan [Garapenaren aldeko Lankidetzarako Euskal Kontseiluaren](#) funtzionamendu sistema bizkor eta operatiboagoa sartzeari buruz hautatu da. Horretarako, Programetako (PGM) eta Hitzarmenetako batzorde mistoen (ZUZ) esparruan bilera teknikoak egin dira garapenaren aldeko lankidetzaren eremuan diru-laguntzak kudeatzen dituzten hainbat lankidetzak eragilerekiko. Batzorde misto horien helburua, besteak beste, euskal lankidetzaren jarduketak hobetzea eta lankidetzak tresnen alde tekniko eta operatiboak argitzea da.

2. 2013-2014 ekitaldietan arreta berezia jarri zaie [Garapenerako Hezkuntzarako](#) ekimenei. Proiektu deialdietan funtsen portzentaje bat gorde da atal horretarako. Haren azken helburua kontzientzia kritikoa eta euskal herritar aktiboak sustatzea da.

3. Urriaren 21eko [197/2014 Dekretuaren](#) bidez, Garapenaren aldeko Lankidetzarako Euskal Kontseilu arautzailea aldatu zen, haren presidentzia eta haren baitan dauden Jaurlaritzako sailena nork dauzkan teknikoki hobeto identifikatzeko.

4. 2014ko ekitaldian Garapenaren aldeko Lankidetzarako Euskal Kontseiluak parte-hartzearen eta lankidetzaren bidez egin zuen [Garapenaren aldeko Lankidetzarako III. Plan Gidaria](#).

5. Genero-zuzentasunaren aldeko antolakuntza aldatzeko prozesuak sustatzeko erakundeentzako 2014ko laguntza deialdian, bost diru-laguntza esleitu ziren eta haien zenbatekoa 131.594,83 eurokoa izan zen guztira. 2015ari dagokionean, emandako laguntzen zenbatekoa 131.280 eurokoa izan zen guztira. 2015ean eta ekitaldi horretako deialdira aurkezteko asmoa zuten GGKE-ei "on line" sistema ezartzeko behar diren baliabideak emateko, informazio saio bat egin zen.

6. Zenbait lan-tailer egin dira euskal GGKE-ekin lankidetzak erakundeetan genero-zuzentasunaren aldeko antolakuntza aldaketarako (GBA) laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzeko.

7. 2016ko urtarrilean EBk tokiko gobernuen eginkizunari eta lurralde garapenari buruz duen ikuspegiaren gaineko tailer bat antolatu da eta euskal elkarte sareak parte hartu du.

4. ekimena. Lankidetzako “jardunbide egokiak” partekatzea, ekimen berritzaileak bultzatuz, eta lankidetzaren hobetzeko koordinazioa areagotzea, Garapenaren aldeko Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea bultzatuz.

1.4.6 helburua. Garapenerako lankidetzaren

Paul Ortega Etcheverry (Garapenaren aldeko Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria)

Jarduketak

1. Erakunde arteko Batzordea bultzatzeko komenigarritzat jo da bizkortasun handiagoa ematea, horretarako batzorde teknikoak sortuz. Batzorde horiek eratu egin dira dagoeneko eta operatibo daude. Legegintzaldian hiru aldiz bildu da osoko bilkuran.

2. Lankidetzako jardunbide onen elkartrukeari dagokionez, euskal agentziak Autonomia Erkidegoen Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko Topaketetan parte hartu du. Topaketa horiek Bartzelonan (2013), Toledon (2014) eta Madrilen (2015) egin dira. Era berean, Garapenaren aldeko Lankidetzarako Euskal Agentziak estatu mailako zenbait bileratan parte hartu du. Bilera horiek Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioaren eta Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzarako Espainiar Agentziaren (Aecid) jarduerari daude lotuta.

3. 2013an, Garapenaren aldeko Lankidetzarako Euskal Agentziaren barne eremuan, oraindik abian dagoen prozesu bati ekin zitzaion, 2002 eta 2012 artean diru-laguntzak jaso dituzten proiektuei buruz dauden ebaluazio guztiak bildu eta sistematizatzeko, lankidetzako esku-hartzei buruzko ikaskuntza kolektiboa indartzei begira.

4. Garapenaren aldeko Lankidetzarako Euskal Agentziaren ordezkaritza batek estatu mailako zenbait bileratan parte hartu du. Bilerok Lankidetzarako Ministerioaren eta AECIDen jarduerari daude lotuta eta hauek izan dira, besteak beste: 2012ko abenduan AECIDen ebaluazio politikari buruz; 2013ko urtarrilean PACI 2012ri buruz; 2013ko irailean, Espainiak 2015 Ondorengo Agendan duen jarrera eratzeko eztabaida jardunaldian; 2013ko urrian Lankidetzaren Erregimena Erregistroari buruz eta 2013ko azaroan AECIDen 25. urteurrena; 2015eko otsailean erronka humanitarioei eta AECIDeko Ekintza Humanitariorako Bulegoaren ekintza lerroetarako proposamenari buruz.

5. Halaber, AECIDen 2013-2016 Herrialde Elkarte Esparruaren ebaluaziorako elkarriketa batean parte hartu da.

5. ekimena. Lankidetzaren eremuan baterako garapenaren aldeko ekintza eta ekimen berriak bultzatzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen potentzialtasunak aintzakotzat hartuz euren sorterrietako garapen eragile gisa eta gizarte boluntariotzako esperientzien sustatzaile gisa.

1.4.6 helburua. Garapenerako lankidetzak

Arduraduna: Paul Ortega Etcheverry (Garapenaren aldeko Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria)

Jarduketak

1. 2013ko martxoan, Bakeaz-ek Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen erakundeekin antolatutako jardunaldietan parte hartu zuen Agentziak. Etorkinen erakundeek garapenaren aldeko lankidetzarako ekintzak aurkeztu zituzten, Garapenaren aldeko Lankidetzaren Euskal Agentziarekin sinatutako hitzarmen baten esparruan eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Immigrazio arloarekin koordinatuta.
2. 2014ko irailean, Ekuadorreko toki eta eskualdeko agintarien "Eraldatzen diren lurraldeen arteko elkarriketa" jardunbide egokien elkartruke misioaren esparruan, topaketa saio bat antolatu zen Bilbon Euskal Autonomia Erkidegoko ekuadortar komunitatearen ordezkariekin.
3. 2014 eta 2015ean, [Garapenari buruzko IX. Jardunaldi Positiboetan](#) -haien gai nagusia ondasun naturalen erabilera iraunkorra izan zen, ikuspegi feminista batetik- eta [Garapenari buruzko X. Jardunaldi Positiboetan](#) -haien gai nagusia hau izan zen: "Emakumeak erresistentzian: Afrikako eta Asiako Esperientziak indarkeria matxistaren aurrean"-, modu berezian bultzatu zen etorkinek eta haien erakundeek parte hartzea. 2015ean txostengile nagusietako bat Fátima Djarra izan da, "Afrikako lorea" Afrikan Emakumeen Elkartekoa.
4. XI. Jardunaldiak Bilbon egin dira, 2016-03-14 eta 15ean -"Eredu nagusiaren aldeko erresistentziak sexu eta genero dibertsitatetik" eta, besteak beste, Daniel Ahmed Saidek (Nasijekoa) parte hartu du.

1. ekimena. Atzerrian dauden kolektibitate eta euskal zentroi laguntza eta babesa ematea, euskal zentroi loturik dauden gazteak prestatzeko programak sendotuz eta diasporaren oroimena berreskuratzeko egitasmoak indartuz.

1.4.7 Helburua. Euskal diaspora

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Urtero Euskal Etxeentzako laguntza deialdiak izapidetzen dira

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2014ko otsailaren 24ko Ebazpena (43/2014 EHAA); haren bidez 2013rako diru-laguntzak onartzen zaizkie Euskal Etxeei

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2014ko abenduaren 30eko Ebazpena (36/2015 EHAA); haren bidez 2014rako diru-laguntzak onartzen zaizkie Euskal Etxeei

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2015eko abenduaren 16ko Ebazpena (36/2015 EHAA); haren bidez 2015erako diru-laguntzak onartzen zaizkie Euskal Etxeei

2. Era berean, Gaztemundu programako partaideak hautatu dira

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2013ko uztailaren 13ko Ebazpena (154/2013 EHAA); haren bidez Gaztemundu programaren 2013ko ekitaldirako partaideak hautatzen dira

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2014ko ekainaren 25eko Ebazpena (126/2014 EHAA); haren bidez Gaztemundu programaren 2014ko ekitaldirako partaideak hautatzen dira

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2015eko uztailaren 22ko Ebazpena; haren bidez Gaztemundu programaren 2015ko ekitaldirako partaideak hautatzen dira

3. Memoria historikoaren atala www.euskaletxeak.net atarian; haren helburua euskaldunen erbesteratzearen eta migrazioaren historiari buruzko dokumentuak berreskuratzea eta artxibategi digital batean sartzeta da, ikerketen, digitalizazioen, argazkien eta ahozko lekukotasunen bidez.

4. Astero "Euskal Etxeak Digitala" aldizkari digitala 7.000 harpideduni baino gehiagori bidaltzea. Etengabe egiten da.

5. Urazandi bildumako 26., 27. eta 28. liburuak argitaratzea. Liburuak Kuba eta Filipinetako euskal komunitateari eta Ameriketarako euskal erbesteratzeari buruzkoak dira, hurrenez hurren. Kubari eta Ameriketarako euskal erbesteratzeari buruzkoak argitaratu eta aurkeztu dira.

6. Lankidetzaren Deustun, New Yorken eta Habanan egindako "Euskal herria Mugaz Gaindi" mintegiaren hiru ekitalditan.

7. Lankidetzaren New Yorkeko Euskal Etxearen mendeurrenari buruzko bideo-dokumental baten edizioan. Dokumentala Eitb-n eman eta sare sozialetan eta sektorearen aterietan zabaldu da.

8. Abian jarri da "Memoria Bizia" programa Estatu Batuetan eta Kanadan; programa euskal emigrazioaren ahozko lekukotasunak biltzean datza.

2. ekimena. Diasporarekin gazteen elkartrukeak sustatzea, Gaztemundu programa sendotuz eta diasporako pertsonak erakarriz euskal enpresetan garapen pertsonala eta profesionala lor dezaten.

1.4.7 Helburua. Euskal diaspora

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Gaztemundu programa Euskal Autonomia Erkidegoan egonaldi bat egin nahi duten euskal etxeetako gazteentzat dago pentsatuta. Egonaldian lanak eta jarduerak sartzen dira. Haien bidez, euskal jatorriko gazteek aukera dute Euskal Autonomia Erkidegoan lan egin eta bizi diren erakunde, enpresa eta pertsonekin kontaktuak izateko, baita autonomia erkidegoaren barruan nahiz kanpoan gazteen arteko harreman-plataformak sortzeko ere. Legegintzaldi honetan, orain arte, deialdi hauek izapidetu dira

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2013ko uztailaren 13ko Ebazpena (154/2013 EHAA); haren bidez Gaztemundu programaren 2013ko ekitaldirako partaideak hautatzen dira

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2014ko ekainaren 25eko Ebazpena (126/2014 EHAA); haren bidez Gaztemundu programaren 2014ko ekitaldirako partaideak hautatzen dira

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2015eko uztailaren 22ko Ebazpena; haren bidez Gaztemundu programaren 2015ko ekitaldirako partaideak hautatzen dira

3. ekimena. Munduan diren euskaldunekiko hartu-emanak bultzatzea informazioaren teknologia berrien bitartez, betiere munduan barreiatuak dauden eta euskal jatorria daukaten pertsonak elkarlotzeko ekimenak garatuz.

1.4.7 Helburua. Euskal diaspora

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Urtero Euskal Etxeentzako laguntza deialdiak izapidetzen dira

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2014ko otsailaren 24ko Ebazpena (43/2014 EHAA); haren bidez 2013rako diru-laguntzak onartzen zaizkie Euskal Etxeei

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2014ko abenduaren 30eko Ebazpena (36/2015 EHAA); haren bidez 2014rako diru-laguntzak onartzen zaizkie Euskal Etxeei

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2015eko abenduaren 16ko Ebazpena (36/2015 EHAA); haren bidez 2015erako diru-laguntzak onartzen zaizkie Euskal Etxeei

2. Etengabe jarduten da www.euskaletxeak.net atariko eta hari lotutako sare sozialetako (Facebook, YouTube) eduki berriak dinamizatzen.

4. ekimena. Euskal zentroen sarea hedatzea eta haren aintzatespena eta funtzionaltasuna sustatzea, Euskal Kolektibitateen Mundu mailako Biltzarra egiteko aukera bultzatuz.

1.4.7 Helburua. Euskal diaspora

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. 2013an Gobernu Kontseiluaren zenbait erabakiren bidez euskal zentroen bost aintzatespen berri egin ziren eta, une horretan, 187 egoitza zeuden guztira.

2. 2013ko ekainean Euskal Autonomia Erkidegoaren [bulegoa jarri zen martxan Idahon](#). Bulego hori 2012-02-20an Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio nagusiaren eta Idahoko estatuaren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenean zegoen aurreikusita. Bulegoa Boisen dago, Euskal Autonomia Erkidegoaren AEBko ordezkariaren mendekoa da, eta haren helburua estatu horrek eskaintzen dituen negozio aukeretan sakontzea eta AEBko mendebaldeko kostaldean finkatutako euskal komunitateari arreta ematea da.

3. 2011ko Euskal Kolektibitateen Mundu mailako Biltzarretik atera zen lau urteko plana aplikatuz, Ipar Amerikako (Elko, AEB, 2013ko uztaia), Erdialdeko eta Hego Amerikako (Villa María, Argentina, 2013ko azaroa) eta Europa, Asia eta Ozeaniako (Bartzelona, Espainia, 2014ko urtarrila) eskualdeko bilerak egin dira.

4. 2015ean ofizialki aintzatesi da Municheko euskal etxea; hala, 188 euskal etxe dira 25 herrialdetan.

5. 2015eko urriaren 7aren eta 9aren artean [Kanpoko Euskal Kolektibitateen Mundu mailako VI. Biltzarra](#) egin da Gasteizen; Biltzar horretatik Ondorioei buruzko agiri bat atera da eta Euskal Kolektibitateen Aholku Batzordeak onartu beharko du 2016-2019 Lau Urteko Plana bihurtzeko

5. ekimena. Euskal emigrazioaren oroimen historikoaren kontserbazioa bultzatzea, haren ondare immateriala bilduz.

1.4.7 Helburua. Euskal diaspora

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Etengabe jarduten da edukien dinamizazioan www.euskaletxeak.net atariko Memoria historikoaren atalean.
2. [“Euskal Etxeak Digitala”](#) aldizkari digitala etengabe bidaltzen zaie 7.000 harpideduni baino gehiagori, astero.
3. [Urazandi bildumako](#) 26., 27. eta 28. liburuak argitaratu eta aurkeztu dira. Liburuak Kuba eta Filipinetako euskal komunitateari eta Ameriketarako euskal erbesteratzeari buruzkoak dira, hurrenez hurren. Kubari eta Ameriketarako euskal erbesteratzeari buruzkoak aurkeztu dira.
4. “Euskal herria Mugaz Gaindi” mintegiaren hiru ekitaldi egiten lagundu da, Deustun(2013), New Yorken (2014) eta [Habanan](#) (2015).
5. Era berean, New Yorkeko Euskal Etxearen mendeurrenari buruzko bideo-dokumental baten edizioan parte hartu da. Dokumentala Eitb-n eman eta sare sozialetan eta sektorearen aterietan zabaldu da.
6. Abian jarri da ["Memoria Bizia"](#) programa Estatu Batuetan eta Kanadan; programa euskal emigrazioaren ahozko lekukotasunak biltzean datza.

6. ekimena. Kanpoan dauden euskal zentro, federazio eta herritarrekiko lankidetzeta eta babes politika garatzea eta haien partaidetzeta sustatzea, euskal diasporaren kolektiboen asistentzia, proposamen eta lankidetzarekin.

1.4.7 Helburua. Euskal diaspora

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Urtero Euskal Etxeek egiten dituzten jardueretarako laguntza-deialdi bat izapidetzen da:

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2014ko otsailaren 24ko Ebazpena (43/2014 EHAA); haren bidez 2013rako diru-laguntzak onartzen zaizkie Euskal Etxeei

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2014ko abenduaren 30eko Ebazpena (36/2015 EHAA); haren bidez 2014rako diru-laguntzak onartzen zaizkie Euskal Etxeei

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2015eko abenduaren 16ko Ebazpena (36/2015 EHAA); haren bidez 2015erako diru-laguntzak onartzen zaizkie Euskal Etxeei

2. 2011ko Euskal Kolektibitateen Mundu mailako Biltzarretik aterata zen lau urteko plana aplikatuz, Ipar Amerikako (Elko, AEB, 2013ko uztaila), Erdialdeko eta Hego Amerikako (Villa María, Argentina, 2013ko azaroa) eta Europa, Asia eta Ozeaniako (Bartzelona, Espainia, 2014ko urtarrila) eskualdeko bilerak egin dira.

3. Aldian behin deialdiak zabaltzen dira atzerriko euskal kolektibitateetako pertsonen laguntza premiei eta muturreko premiako egoerei erantzuteko laguntzak emateko.

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2014ko urriaren 21eko Ebazpena (206/2014 EHAA); haren bidez prestazio ekonomikoak esleitzen zaizkie euskal zentroi atzerriko euskal kolektibitateetako pertsonen laguntza premiei eta muturreko premiako egoerei erantzuteko.

-Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2015eko maiatzaren 4ko Ebazpena; haren bidez prestazio ekonomikoak esleitzen zaizkie euskal zentroi atzerriko euskal kolektibitateetako pertsonen laguntza premiei eta muturreko premiako egoerei erantzuteko.

4. Kulturaren eremuan laguntza-deialdi hau izapidetu da: Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendariaren 2015eko maiatzaren 27ko Ebazpena; haren bidez diru-laguntzak ematen dira, 2015eko ekitaldirako, kanpoko euskal zentroak finkatuta dauden tokietarako kultura-birak egiteko.

1. ekimena. Kanpo Ekintzarako Plan Estrategiko berri integrala prestatzea, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat lehentasunezkoak izan daitezkeen ekonomi, gizarte, erakunde eta politika intereseko aliantza estrategikoak identifikatuz.

1.4.8 helburua. Kanpoko proiektzioa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. 2014-04-08ko Gobernu Kontseiluak [Nazioartekotzeko 2020 Esparru Estrategia: Basque Country Estrategia](#) eta haren lehen fasean 2014-2016 aldirako bi plan estrategiko gauzatzea onartu zuen. Hauek dira planak: [Kanpo Ekintzako Plana](#) eta [Enpresak Nazioartekotzeko Plana](#). Esparru Estrategiaren helburuak hauek dira: Euskal Autonomia Erkidegoa kanpoan proiektatzea, ekonomia suspertzea eta enplegua sortzea bultzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoa aktore global gisa kokatzea eta gizarte globalagoa eta irekiagoa eraikitzea. Halaber, ikuspegiaren definizioa, nazioarteko jarduketak kokatuta dauden bektore komunak identifikazioa eta gai eta geografia eremuetan ardatzea ere biltzen ditu.

2. Geroago, 2014-06-3an estrategia hori Eusko Legebiltzarreko Kanpo Ekintzarako Batzordearen aurrean aurkeztu zen, eta 2014-06-11n hura egiteko prozesuan parte hartzen duten gobernuz kanpoko berrogeita lau eragileen aurrean.

3. Lehendakariak 2013-06-25ean aurkeztutako Estrategia eta Basque Country Marka ezartzeko prozesuan, ukitutako Jaurkitzako sailekin (Kanpo Ekintza-Lehendakaritza, Industria, Turismoa, Kultura eta Hizkuntza Politika) lan egin da eremu hauetan: markaren erabilera, atxikipen prozesua, weba, aurkezpena, berrirapera eta promoziorako materiala. Bestalde, zabaltzeko eta sustatzeko ekitaldi asko egin dira; haien artean, azpimarra liteke 2014n New Yorkeko Maratoian parte hartu zuten euskal atletei egindako harrera. Euskal Autonomia Erkidegoaren AEBko ordezkariak lehenengo Basque Country taldea antolatu zuen horretarako eta 30 lasterkari baino gehiago izan zituen Basque Country marka zabaltzen.

4. Nazioarteko ospea izango duen Basque Country Sari bat sortzearen bideragarritasuna aztertzen ari da: Marka nazioartean kokatzen lagunduko duen Basque Country Sariaren analisia egin da. Hura proposatzeko 5 eremu aztertuko dira: Proba-bankua; palanka-efektuaren eragileak; Sariaren kontzeptu eremua; ezartzeko elementu kritikoak eta abiarazteko bideragarritasuna.

2. ekimena. Beste eskualde batzuekiko lankidetzaz hitzarmen iraunkorrak bultzatzea, erlazio iraunkorren plataforma bat ahalbidetuko duten interes erkideen sare bat sortzeko asmoz.

1.4.8 helburua. Kanpoko proiektzioa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Europako beste eskualde batzuekin batera lan egiteko eta European presentzia instituzionala izateko helburuz hitzarmen bana sinatu da: (1) 2014-07-02an lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zen [Bavariako Gobernuaren](#) eta Eusko Jaurlaritzaren artean, ISEBen Municheko bulegoaren inaugurazioarekin bat etorrita, eta (2) 2015-06-02an lankidetzaz hitzarmena sinatu zen Flandriako Gobernuarekin. Hitzarmen horretan, alderdi biek konpromisoa hartu zuten osasunaren, ingurumenaren, berrikuntzaren, kulturaren eta lan-merkatuaren eremuetan lan egiteko

2. 2014ko urtarrilean Eusko Jaurlaritza formalki atxiki zitzaion [Vanguard Initiatives ekimenari](#). Ekimen horretan Europako 10 eskualdek baino gehiagok parte hartzen dute, zeinak ahalmen berritzaile handia eta ezartzeko prozesu betean dagoen industria-ekoizpen egitura esanguratsua izateagatik nabarmentzen baitira.

3. Lehendik dauden lankidetzaz-hitzarmenen esparruan (hala nola Txinako Jiangtsurekikoan) harremanak estutzen eta jarduerak abiarazten jarraitzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interesa duten beste eskualde batzuekin lankidetzaz esparru egonkorra definitzen lan egiten ari da. Hala, eta joan den 2015-10-27an Lehendakariak Mexikora egin zuen bisita ofiziala baliatuz, Eusko Jaurlaritzaren eta Querétaroko estatuaren artean Elkar ulertzeko Memoranduma sinatu zen. Hitzarmenaren helburua Baque Country Estrategian lehentasuna duen eskualde batekin alde biko harremanak estutzea da.

4. Querétaroko estatuko gobernadorearen bisita instituzionala Euskal Autonomia Erkidegora joan den 2016-01-18an. Gobernadoreak, enpresen ordezkariak batek lagunduta, 2014an lehendakariarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren esparruan, zenbait topaketa izan zituen eremu publikoan zein pribatuan (ekonomia eta gizarte eragileak)

5. Jiangtsu: Martxoan eskualde estrategiko horretatik etorritako ordezkariak baten bisita. Eskualdeak lankidetzaz hitzarmen bat dauka sinatuta Eusko Jaurlaritzarekin. Bisitaren xedea ikasleak, irakasleak eta ikerlariak trukatzeko hitzarmen bat sinatzea eta EHUren eta Jiangtsuko unibertsitate baten arteko proiektuak batera egitea zen. Eranskin gisa legoke Harreman Adiskidetsuetarako Hitzarmenean. Irailean Jiangtsuko Sistema Juridikoko Propaganda eta Zabalkuntza Bulegoaren zuzendari nagusiaren bisita, Etika Publikoko Batzordearen funtzionamendua ezagutzeko.

6. 2015-12-08an Lehendakaria Quebeceko lehen ministroarekin bildu zen. Ondoren, presidente biek lantalde bat sortu zela iragarri zuten. Haren helburua 2016an gauzatu behar den Euskal Autonomia Erkidegoa-Quebec lankidetzaz hitzarmen bat oinarritzeko eremuak zehaztea da. Hitzarmen horren ardatzak, alde batetik, ekonomiari lotutako gaiak lirateke, hala nola herrialde biko arteko itsas bide bat zabaltzea; kultura jarduerari lotutakoak, bestetik, "Donostia 2016"ren esparruan; ingurumenari lotutakoak beste batetik, nazioarteko sareetan sakonduz eta, azkenik, kanpo ekintzari lotutakoak.

7. 2015ean elkar ulertzeko bi memorandum sinatu ziren; alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Ipar Irlandako gobernuaren artean, trebezien programa sustatu eta batera lan egiteari buruz, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eta Eskoziako gobernuko National Health System-en artean.

3. ekimena. Mugaz gaindiko lankidetzaren mekanismoak garatzea, euskal enpresen nazioarteko garapena errazteko eta Europako korridore atlantikoan integrazio hobea bultzatzeko helburuarekin.

1.4.8 helburua. Kanpoko proiektzioa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Ekintzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. 2014an [Akitania-Euskal Autonomia Erkidegoa LLETk](#) 2014-2020 Plan Estrategikoa onartu eta aurkeztu zuen. Haren bidez, lurralde bien arteko lurralde kohesioa sendotu eta arku atlantikoan kide estrategiko gisa kokatzea ahalbidetzen duten zenbait ekimenetan batera lan egin daiteke. Halaber, zenbait arlotako mugaz gaindiko 40 lankidetzaren proiektu baino gehiago hautatu ziren eta Pirinioetako Lan Komunitatean parte hartzen da. Komunitate hori Pirinioetako komunitateen mugaz gaindiko lankidetzaren foroa da.

2. Akitania-Euskal Autonomia Erkidegoa Euroeskualdeak lankidetzaren eremuak ezarri eta garatu ditu, osasunaren, energiaren, nekazaritzaren eta garraioen arloetan, lurralde bietako enpresen arteko elkarrizketa gehiago ekarri beharko duten beste arlo batzuen artean. Halaber, harremanak daude lurralde eremu bietako kluster batzuen artean.

3. Era berean, LLETk kulturaren, eleaniztasunaren eta hezkuntzaren arloei buruzko mugaz gaindiko hamazazpi proiektu finantzatu ditu eta, halaber, aktiboki bultzatu du Bordeleko Unibertsitatearen eta EHUren arteko lankidetzaren, bikaintasuneko europar campus bat egiteko helburuz (2014-11-19an Bordelen sinatutako hitzarmena).

4. 2014an Euskal Autonomia Erkidegoa eta Akitaniako klusterren arteko lankidetzaren prozesu bat abiarazi zen LLETk finantzatzeko interclustering proiektu baten bidez. Halaber, Akitaniaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zen osasunaren eremuan, arreta berezia jarritz gaitz kronikoen arazoari.

5. 2015-03-17 eta 18an [Arku Atlantikoaren Batzar Nagusia](#) egin zen Bilbon. Batzar Nagusi horretan ardatz atlantikoa sendotzeko eta Europar Batasunaren politikak hura gehiago bistaraz dezala eskatzeko konpromisoa berretsi zen. Arku Atlantikoaren Batzardeak Atlantikoko Itsas Estrategia Baltikoko eta Danubioko Makroeskualdeen Estrategien maila berean aintzatetsia izatea nahi du.

6. 2015eko apirilean LLETren Batzar Nagusia egin eta han aurrekontuen noranzkoak eta ekitaldi horretarako Ekintza Plana onartu ziren 2014-2020 Plan Estrategikoa ezartzeko esparruan. Egin behar diren ekintzen artean proiektuetarako deialdia, 450.000 eurokoa, jaso zen, bi fasetan; lehenengoa kultura, hizkuntza, gazteria... proiektuei begira; bigarrena lehiakortasunari, ezagupenari, I+G+Bri eta abarri buruzkoa.

7. 2015eko amaieran Nafarroako Gobernuak Akitania-Euskal Autonomia Erkidegoa Eskualdearen LLETn sartzea edo hari atxikitzea eskatu du. Hitzarmena eta estatutuak egokitzen lan egin da, indarrean dagoen araudiak agintzen dituen izapideak egin ondoren sar dadin.

8. Lehendakariak Pirinioetako Lan Komunitatearen Kontseiluaren osoko bilkuran parte hartu du, 2015eko urrian. Osoko bilkura horretan Akitaniari eskualdatu zion presidentzia Andorrak. Ekitaldi honetan 2014-2020 POCTEFA programa berria onartu da; 189,5 milioi euro izango ditu eta kudeaketa PBTrri dagokio.

1. ekimena. Autonomoak eta mikroenpresak finantzatzeko laguntza-plan zehatza, bereziki zirkulazioko kapitalaren finantzaketari, ekoizpen-inbertsioaren proiektuei eta autoenplegu-ekimenetarako abalei eta mikrokredituei zuzendua.

1.5.1. Autonomoentzako laguntza integrala

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. Gobernu Programan [autonomoei](#) eta mikroenpresei laguntzeko jasota dauden ekimenen bitartez garatu dira jarduketak. Autonomoen eta mikroenpresen kapital zirkulatzailerako finantzatzeko programa da, haien "itomen finantzarioa" saihestea helburu duena. ETEak eta Autonomoak Finantzatzeko Funtza egokitzea, merkataritzarekin, ostalaritzarekin eta turismoarekin zerikusia duten taldeen finantzaketa-beharrik premiazkoenei heltzeko.

2. Finantza-laguntzari buruzko [9/2014 Dekretuan](#) ezarri zen finantza-erakunde laguntzaileek guztira 280 milioi euroko maileguak emango zizkietela enpresa txiki eta ertainei eta 20 milioi euroko maileguak banako enpresaburuei eta profesional autonomoei. Enpresa txiki eta ertainei, banako enpresaburuei eta profesionalen finantza-laguntza emateko programako beste deialdi bat egin da 2015ean —[4/2015 Dekretua](#)—, eta lehengo zenbatekoei eutsi zaie (Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2015eko otsailaren 2ko Agindua).

2. Legegintzaldian zehar autonomoen eta enpresa txiki eta ertainen aldeko berariazko ekimenak abiarazi dira, besteak beste, ekoizpen-inbertsioak finantzatzeko dituzten kredituen interesetarako diru-laguntzak, edo, adibidez, AFI laguntza-programa: enpresei finantza-laguntzak ematen dizkiena, ibilgetu ez-material eta/edo material berrietan inbertsioak egiteko eta zirkulatzailerako finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-, merkataritza- eta turismo-sektoreetan.

- AFI 2013: 33 eskaera onartuta; 102.346 euroko diru-laguntza.
- AFI 2014: 30 eskaera onartuta; 112.925 euroko diru-laguntza.
- AFI 2015: 14 eskaera onartuta; 95.045 euroko diru-laguntza.

2. ekimena. Pizgarri fiskalak sustatzeko eta autonomoen fiskalitatea hobetzeko neurriak bultzatzea, betiere foru-aldundiekin elkarlanean.

1.5.1. Autonomoentzako laguntza integrala

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. Autonomoen eta enpresa txiki eta ertainen aldeko berariazko ekimenak abiarazi dira, ekoizpen-inbertsioak finantzatzen dituzten kredituen interesetarako diru-laguntzak emateko.

2. AFI laguntza-programa inplementatu da: finantza-laguntzak ematen ditu, enpresek ibilgetu ez-material eta/edo material berrietan inbertsioak egiteko eta zirkulatzaileria finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-, merkataritza- eta turismo-sektoreetan.

- AFI 2013: 33 eskaera onartuta; 102.346 euroko diru-laguntza.
- AFI 2014: 30 eskaera onartuta; 112.925 euroko diru-laguntza.
- [AFI 2015](#): 14 eskaera onartuta; 95.045 euroko diru-laguntza.

3. Autonomoen eta mikroenpresen finantzaketa berariaz babesteko plana. Autonomoen eta mikroenpresen kapital zirkulatzaileria finantzatzen laguntzeko berariazko programa garatu da, haien "itomen finantzarioa" saiheste aldera. ETEak eta Autonomoak Finantzatzeko Funtsa egokitu da, merkataritzarekin, ostalaritzarekin eta turismoarekin zerikusia duten taldeen finantzaketa-beharrik premiazkoenei heltzeko.

[-2014an. 9/2014 Dekretua, finantza-laguntzari buruzkoa. 2014ko deialdiari buruzko agindua.](#)

Ezarrita zegoen finantza-erakunde laguntzaileek guztira 280 milioi euroko maileguak emango zizkietela enpresa txiki eta ertainei eta 20 milioi euroko maileguak banako enpresaburuei eta profesional autonomoei.

-2015ean, enpresa txiki eta ertainei, banako enpresaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko programaren hurrengo deialdiak ([4/2015 Dekretua](#) eta [Ogasun eta Finantzarako sailburuaren 2015eko otsailaren 2ko Agindua](#)) eutsi egin die aurrekoak finkatutako zenbatekoiei.

3. ekimena. Familia-enpresei laguntzea, betiere kudeaketaren profesionalizazioa sendotuz, belaunaldiak aldatzeko prozesuak bermatuz edota jardueraren biziraupena ahalbidetuko duten salmentak bideratuz.

1.5.1. Autonomoentzako laguntza integrala

Arduraduna: Javier Zarraonaindia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, proiektu pilotu bat egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko hiru eskualdetan (Tolosaldean, Gasteizen eta Eskuinaldean). Guztira 43 enpresak hartu zuten parte (Arabako 11k, Bizkaiko 10ek eta Gipuzkoako 22k). Metodologia zehaztu zen, eta prestakuntza-ekintzak burutu ziren; hain zuzen ere komunikazio-plana diseinatu zen, sentikortze-ekintzak burutu ziren, eta, berariaz, saltzaile eta erosleentzako hainbat zerbitzu eskaini ziren, banakakoak, doakoak eta isilpekoak (prozesuaren tutoretza osoa), 250.000 euroko hornidura ekonomikoarekin.

Ukitutako eragileak: EAEko ganberak (Euskoganberak), foru-aldundiak, udalak, garapen-agentziak, enpresa-erakundeak, unibertsitateak, banku-entitateak, enpresak, ekintzaileak etab.

2. [Berriz Enpresa](#): Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko merkataritza-, industria- eta nabigazio-ganberen arteko lankidetzaren hitzarmena, enpresak eskualdatzeko programa garatzeko. Programaren helburua da enpresek bizirik jarrai dezaten bermatzea, eta, horretarako, ixteko arriskuan edo ixten ari diren merkataritza-enpresak, landetxeak eta hotelak eskualdatzeko prozesuak erraztea, modu horretan bateragarri bihurtuz enpresaburuen interesak: negozioa uzten ari denarenak zein haren lekua hartuko duenarenak.

3. 2015ean, "Berriz Enpresa" programak Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzen jarraitu du; zuzkidura ekonomikoa 264.600 eurokoa izan da. Azkenik erosleen eta saltzaileen artean adostu diren proiektuak 13 izan dira. Enpresak eskualdatzeko akordioen kopurua handitu egin daiteke, ordea; izan ere, erosleen 186 bideragarritasun-proiektu daude martxan (97 Bizkaian, 32 Araban eta 57 Gipuzkoan) eta saltzaileen 243 bideragarritasun-proiektu (151 Bizkaian, 65 Araban eta 27 Gipuzkoan).

4. Berriz Enpresa programarekin jarraitzeko asmoa dago [2016rako](#).

4. ekimena. Enpresa-garapenaren aldeko lankidetzak eta sorospen-eremu berriak sustatzea, autonomoen arteko laguntza eta asoziazionismoa ahalbidetzeko asmoz.

1.5.1. Autonomoentzako laguntza integrala

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industriako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014ko ekainaren 19an, Eusko Jaurlaritzak, Confebaskek eta Confebaskeko kideak diren antolakundeek (ADEGI, CEBEK, SEA) [lankidetzak-hitzarmena](#) sinatu zuten Industrializazio Plana 2014-2016 garatzeko, 2014ko ekitaldira begira. Hura aplikatuta, **Euskomer** proiektua garatu da. Euskal Autonomia Erkidegoarentzako informazio geografiko komertzialeko sistema da, txikizkako merkataritzari eta inguruan duen jokalekuari buruzko ezagutza sakona lortzea ahalbidetzen duena. [Giscom](#) Proiektua, hau da, EAEko informazio geografiko komertzialeko sistema abiarazi da 2015ean, hainbat iturritatik datorren eta agregazio maila desberdinak dituen informazioa biltegitatzeko eta, horrela, analisiak egin eta txostenak lortu ahal izateko hainbat mailatan. Udalerrien % 70era iristea izan da 2015eko helburua.

2. 2014an [lankidetzak-hitzarmena](#) sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Euskaldendak - Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza Elkarleen Konfederazioak, elkarrekin lankidetzan aritzeko, erosketak-sare bat sortuta, eta, hartara, EAEko txikizkako merkataritza nazioartekotzeko, batik bat, jantzi- eta kirol-oinetako sektorean. Euskaldendak konfederazioarekin beste lankidetzak-hitzarmen bat sinatzeko asmoa dago 2016an, elkarrekin lankidetzan aritzeko ekintzen garapenerako.

3. 2014ko maiatzaren 26an sinatu zen Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-, industria- eta nabigazio-ganberen arteko **lankidetzak-hitzarmen** bat, merkataritza-banaketa gaineko jardura jakin batzuk garatzeko. Jarduteko hiru proiektu jaso ziren hitzarmenean: 1.- Euskal Merkataritzaren Topaketa. 2.- Nazioartekotzea: ehun-hornidura, prospekzioa eta joeren behatokia. 3.- Merkatarien elkarleen errolda. 2015ean hitzarmena berriro egin da, eta 2016an ere berritzeko asmoa dago.

4. 2015ean hitzarmena sinatu dute Eusko Jaurlaritzak eta hiri-merkataritzaren hiru plataformek (**Hiria 3.1**), Toki Merkataritzaren Foroaren bidez elkarrekin lankidetzak-ekintzak burutzeko. 2016an ere horretan jarraitzeko asmoa dago.

1. ekimena. Merkataritzako hirigintza garatzea eta, aldi berean, EUDELekin eta EAeko udal-erakundeekin lankidetzan, merkataritza-jarduerei buruzko udal-arautegiaren homologazioa sustatzea.

1.5.2 helburua. Hiritako merkataritza-ingurunea hobetzea

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015eko maiatzeko Udal Hauteskundeak egin eta udalak eratu ondoren, **Eudelek** lan-mahaiaren eraketa sustatu du, eta, bertan, Eusko Jaurlaritza beste ordezkari bat gehiago izango da.

2. Zenbait lan-mahai eratu dira alderdi hauek lantzeko: irisgarritasuna eta mugikortasuna udalerrietan:

- zamalanen irizpideak arrazoiz arautzea;
- hornidura-eredu berriak garatzea;
- kaleak oinezkoentzat bihurtzea edo **bizikidetzakale** bihurtzea”;
- aparkalekuak erregulatzea eta eraikitzea;
- erantzukizunpeko adierazpenen **ereduak** homologatzea;
- **garraio publikoaren** politikak sustatzea;
- **hornidurako** udal-merkatuak dinamizatzea.
- **salmenta ibiltariari** dagokionez guneak eta salmenta-moduak berritzea.
- lizentziak **izapidetzeko** prozesuak sinplifikatzea, enplegua eta gure udalerrietarako bizi-tza sor dadin sustatzeko.

2. ekimena. Lizentzien izapide prozesuak sinplifikatu eta erraztea, gure udalerrri eta hirientzat enplegua eta bizitza ekarriko duten negozio berriak sorrarazteko helburuarekin.

1.5.2 helburua. Hirietako merkataritza-ingurunea hobetzea

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga, (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2006/123/CE Zuzentarauak, Europar Batasunarenak, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoak, erabat aldatu zituen administrazio-baimeneko prozesuak, merkataritza-establezimendu handiak ezartzeko. Zuzentarau horren bidez, “interes orokorreko premiazko arazoiek” behar ekonomikoak gainditzen dituzte. Horrela, hiri- eta landa-ingurunearen babesa lehentasunezko bilakatzen da.

2. Hori horrela, 2006/123/CE Zuzentaruari jarraiki, Eusko Jaurlaritzaren eta Eudelen udal-estrategia, legegintzaldian zehar, besteak beste, gure udalerrietan enplegua eta bizitza sortzea sustatzeko lizentzien izapidetze-prozesuen sinplifikazioan oinarritu da.

3. ekimena. Udaletako merkataritza-kontseiluak dinamizatzea, merkataritza-sustapeneko eremuetan merkataritza-berrikuntzari eta merkataritzako hiri-garapenari buruzko ekimenak garatzeko helburuarekin.

1.5.2 helburua. Hirietako merkataritza-ingurunea hobetzea

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga, (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, Eudelekin eta foru-aldundiekin harremanetan egon ondoren, Eusko Jaurlaritzak [Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Batzordea](#) deitu zuen, [Euskal Udal Legearen](#) proiektuaren prozesua eta edukia aztertzeko eta euskal erakunde-egituraren etorkizunari ekiteko, bai eta eskumenak banatzeko sistemari ere (besteak beste, merkataritza-dinamizaziokoak), Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren estatuko Lege berria indarrean sartu ondoren.

2. Gaur egun, udalen eskumenekoa da **Merkataritzako Udal Batzordeen kudeaketa**. Eusko Jaurlaritzak etengabe dihardu **lankidetzan** toki-erakundeekin, eta Batzorde hauekin, baterako lan-taldeak garatzeko, merkataritzako eta marketineko sustapeneko, modernizazioko eta merkataritza-berrikuntzako eta merkataritzako hiri-garapeneko arloetan.

4. ekimena. Merkataritza Orientabideei buruzko Udal Plangintzak bultzatzea, arreta, batez ere, eskualdeetako herri nagusietan, hirigune historikoetan eta eremu behartsuenetan jarriz.

1.5.2 helburua. Hirietako merkataritza-ingurunea hobetzea

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga, (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, Merkataritzako Plan Estrategikoak egin ziren eta gaur egun ezarpen-fasean daude hiru hiriburuetan: Bilbo, [Donostia](#) eta Gasteiz.
2. 2015ean, udalerriko Plan [Estrategikoak](#), [hiru hiriburuetara](#) ez ezik, honako udalerrri hauetara ere zabaldu ziren: Laudio, Bermeo, [Durango](#), [Mungia](#), Ondarroa, Zalla, Arrasate, Beasain, [Eibar](#), [Irun](#), [Tolosa](#) eta [Zarautz](#). Halaber, merkataritzako garrantziagatik, honako udalerrri hauetara ere zabaldu zen: [Barakaldo](#), [Gernika-Lumo](#), [Getxo](#) eta [Erresteria](#). Horren ondorioz, udalerrri batzuek, Laudiok, Arrasatek, Tolosak, Barakaldok eta Getxok, besteak beste, Merkataritzako Plan Estrategikoa egingo dute udalerrietarako.
3. Lankidetzako, Dinamizazioko eta Hiriko Merkataritzako Lehiakortasuneko guneko estrategiak sustatzeko laguntzen [Hirigune Programaren](#) helburua da lankidetzako eta hiriko merkataritza-dinamizazioko estrategien garapenari bide ematea. Helburua da merkataritzako lehiakortasuna eta jarduera gauzatzen duten hiri-eremuen markaren posizionamendua hobetzea. Programa honek eskualdeko udalerrri nagusien merkataritzako plan estrategikoak egiteko aukera eskaintzen du.
4. Hiriko Inguruneen Merkataritzako Dinamizazio [Programaren](#) esparruan jarraitzen da egiten [Ezkerraldea](#) Ezkerraldeko Merkataritza Berbizitzeko Plan Berezia.

5. ekimena. Esperientzia pilotuak diseinatzea hiriguneetako merkataritzan kudeaketa eredu berriak definitzeko, betiere hiri-eremu jakin batzuen erakargarritasuna eta lehiakortasuna handitzeko helburua izango duten "hiri-sustapeneko eremuak" martxan jarritz.

1.5.2 helburua. Hirietako merkataritza-ingurunea hobetzea

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga, (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Lehiakortasuna eta hiriguneen erakargarritasuna areagotzeko, pilotu esperientziak garatzen ari dira, "hiri-sustapeneko arloak" martxan jartzeko. Horren adibide da bisita, 2014ko otsailekoa, Hanburgokoa; hiri eredugarria Bid (Business Improvement Districts) kudeaketan edo Hiriko Enpresa Ekimenen Sustapen Arloetakoa

2. Euskal Autonomia Erkidegoan Bid kudeaketaren aplikazioaren adibide dira hiru euskal hiriburuak, Donostia, Bilbo eta Gasteiz, bai eta beste udalerrri batzuk ere, esaterako, Irun, Eibar, Tolosa edo Sestao. Azken batean, helburua da hiri-nukleoetan merkataritza- eta enpresa-eremuen birgaitzea bultzatzen duen estimulu ekonomikoa sortzea.

6. ekimena. Merkataritza Ekipamenduen Lurralde Plangintza Sektorialean jasotako ezarpenak bultzatzea.

1.5.2 helburua. Hirietako merkataritza-ingurunea hobetzea

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga, (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015ean, Eusko Jaurlaritzak Auzitegi Gorenaren Auzien Salak Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako eta Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sorrera Publikoko Lurraldearen Arloko Planaren inguruan emandako **3866/2015 Epaia**ren aurrean duen jarrera zehaztu zuen txosten juridikoa egin zen.

2. 2015ean, Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzaren eta Merkataritza Zuzendaritzaren arteko lan-mahaia eratzea sustatu zen, **Lurraldearen Arloko Plana** interpretatzeko irizpideak adosteko. Lan-mahai honen lana bultzatzeko, eskualdeko merkataritza-egitura eguneratzeko lan egin zen.

1. ekimena. Merkataritza-enpresetako modernizazio-ekimenak sustatzea, jarduerari bultzada emateko eta kontsumitzaileei prestazio eta zerbitzu berriak eskaintzeko helburuarekin.

1.5.3 helburua. EAEko txikizkako merkataritzaren plana.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga, (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea).

Jarduketak

1. Dendak Modernizatzen [laguntzeko programa](#) ezarri da, eta haren helburua da, hain zuzen, EAEko denden modernizazioa bultzatzea, berrikuntzaren eta kudeaketa-tresnen zein azpiegituren hobekuntzaren bidez. Merkataritza-establezimenduak modernizatzeko inbertsio-proiektuak sustatzen dira, merkataritzako ekipamenduen, obra zibilaren eta altzarien finantzaketaren bidez.

2. Laguntzeko programaren [2015eko deialdiak](#) 1.311 eskaerei erantzun zien; guztira, 3.272.471,28.- €-ko diru-laguntza eman zen eta eragindako inbertsioa 26.959.418,82.- €-koa izan zen. Enpresak elkartegituretan sartzeko eta "[Berriz Enpresa](#)" programan parte hartzeko hobariak emango dira. 2016ko deialdia EHAAn martxoan argitaratzea aurreikusten da.

3. [2014ko deialdian](#), 3.476.200.- € izan ziren, eta 1.106 eskaera onartu ziren; eragindako inbertsioa 20.906,023.- €-koa izan zen eta BEZaren zerga-itzulkina, 5.525.355.- €.

4. Euskal Merkataritzaren Ekintza Plana 2014-2016 planaren estrategia hiru jardun-ardatzetan oinarritzen da:

- Lehiakortasuna hobetzea. Merkataritzaren modernizazioa eta berrikuntza bultzatzea.
- Merkataritza-jarduera sustatzea.
- Erakunde- eta kudeaketa-esparrua optimizatzea.

2. ekimena. Kudeaketa-lanak hobetzea eta onlineko merkataritza bultzatzea, bai eta sare sozialen eta tresna teknologikoen erabilera ere.

1.5.3 helburua. EAEko txikizkako merkataritzaren plana.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015ean, Txikizkako Saltokientzako Comercioelectronico.eus [Programa](#) sortu zen. Helburua da txikizkako saltokiei aholkularitza eta ezarpen teknologikoa eskaintzea. Horrela, onlineko lehiakortasuna hobetu nahi da, erraz, arin eta osotasunez. Banako laguntza eta ezarpen integrala barne ditu, inolako kosturik ez duten 5 lan-jardunalditan. 500.000.- €-an, [comercioelectronico.eus deialdiak](#) 400 enpresari gaitasuna eman die onlineko merkataritza garatzeko.

2. Merkataritza-banaketaren sektorean berrikuntza eta bikaintasuna garatzera bideratutako Laguntza [Programa](#) sektore honetako profesionalen gaitasunak hobetzeko eta merkatuaren benetako beharretara hobeto egokitzeko diseinatu zen. 2014an, bi deialdi izapidetu ziren: **2014ko deialdia** eta **2014/11/12 Ebazpena**, 37 eskaerarekin; 84.394,11.- €-ko diru-laguntza eman zen eta eragindako inbertsioa 152.325,75.- € izan ziren. **2015eko deialdiaren** bidez, programa aldatu zen; merkataritzaren inguruko ezagutza, berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko eta zabaltzeko laguntzen ildo berria ezarri baitzen. 16 eskaerari erantzun zitzairen, eta 40.000.- €-ko diru-laguntza kalkulatu zen, guztira.

3. "[Inplantalaris](#)" programa sortu zen "inplantaris" zerbitzua eta mikroenpresei zuzendutako prestakuntza-zerbitzua ezartzeko, horien lehiakortasuna hobetzeko, informazioaren teknologiak erabiltzeko gaikuntzan lagunduz, Inplantari-aholkulari digitalaren bidez, soluzioen doako ezarpenerako. [Inplantalaris 2015eko deialdia](#) 2015eko abenduan amaitu zen.

4. Euskal Merkataritzako Sariak eman ziren, eta berrikuntzaren kategoria jaso zen: **2014ko Euskal Merkataritzako Sariak**; [2015eko Euskal Merkataritzako Sarien Deialdia](#).

5. 2015ean, "[Lankidetzeta Digitala](#)" [Programa](#) jarri zen martxan, Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak (EIKT) sartzeko enpresa eta/edo profesionalen elkarrekin, diagnostikoak errazago egiteko, ezarpen-planak egiteko eta txikizkako merkataritzako elkarteetan proiektuetarako EIKTak ezartzeko planak gauzatzeko.

6. 2014an, [Programa +Digital@](#) jarri zen martxan; horrek, onlineko merkataritza planteatzen du, negozioak sustatzeko oinarritzko tresna gisa.

3. ekimena. Merkataritza txikizkaria egokitzeko plangintzaren markoan teknologia berrien ezarpena eta erabilera sendotzea, merkataritzan teknologia berriei buruzko beste eraberritze-plangintza bat abian jarriz eta merkataritzako langileei eta kudeatzaileei zuzendutako IKT prestakuntza bideratuz.

1.5.3 helburua. EAEko txikizkako merkataritzaren plana.

Arduraduna: Estíbaliz Hernández Laviña (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuordea)

Jarduketak

1. Mikroenpresa Digital@ programa (Inplantalariak). Autonomoak eta 10 langiletik beherako enpresak informazio- eta komunikazio-teknologia berriak (IKTak) erabiltzen hasia bultzatzen duen programa da. Programa urtean behingoa da. Aurrez aurreko zerbitzua ematen du, informazio- eta komunikazio-teknologiaren alorreko soluzioak negozio bakoitzera egokitzeko. Era berean, praktikak eskaintzen ditu, baita ondoko laguntza-zerbitzu bat ere, kontsulta eta zalantzak argitzeko eta, hartara, informazio- eta komunikazio-teknologiak negozioan zinez erabiltzen hasia ziurtatzeko. 2.153 enpresa onuradunetatik, % 54 (1.162) merkataritzako enpresak dira.

2. 2014an, [Programa +Digitala](#) izapidetu zen, online merkataritzari buruzkoa, ezinbesteko baliabidea den aldetik jarduera ekonomiko eta sozialerako, negozioak egiteko, lan egiteko, komunikatzeko.

3. 2015ean, "[Lankidetzaren Digitala](#)" Programa ezarri zen. Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak (EIKT) ezartzeko jarri zen martxan, enpresen eta/edo profesionalen elkarteek sustatutako proiektuei laguntza ematearen bidez. EIKTak ezartzeko planak diagnostikatzea eta ezarpen-planak lantzea eta gauzatzea du helburu. Txikizkako merkataritzako elkarteek aurkeztutako proiektuak.

4. ekimena. Belaunaldiak txandakatzeko programa sustatzea, enpresa familiarren transmisioa errazteko haien biziraupena bermatuz edota merkataritza-guneetan hutsik dauden lokalen errentamendua ziurtatuz.

1.5.3 helburua. EAEko txikizkako merkataritzaren plana.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea).

Jarduketak

1. **Berriz Enpresa** sortu zen Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberen arteko lankidetzeta-hitzarmen baten ondorioz, enpresa-transmisioko programa bat garatzeko. Programaren helburua da enpresek bizirik jarrai dezaten bermatzea, eta, horretarako, ixteko arriskuan dauden merkataritza-enpresak, landetxeak eta hotelak eskualdatzeko prozesuak erraztea, modu horretan bateragarri bihurtuz enpresaburuen interesak: negozioa uzten ari denarenak zein hasten ari denarenak.

2. 2014an, 250.000.- €-ren bidez, **Pilotu proiektuak** egin ziren Tolosaldean, Vitoria-Gasteizen eta Eskuinaldean; horietan, 43 enpresak hartu zuten parte (11 Araban, 10 Bizkaian eta 22 Gipuzkoan). Metodologia zehaztuta, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak egin ziren eta, bereziki, saltzaile eta erosleei zerbitzu pertsonalizatu, doako eta isilpekoen tutoretzapeko zerbitzua eman zitzaien. Prozesu horretan, Euskoganberak, foru-aldundiek, udalek, garapen-agentziek, enpresa-erakundeek, unibertsitateek, banku-erakundeek, enpresek, ekintzaileek eta abarrek hartu zuten parte. Era berean, Komunikazio Plana egin zen.

3. 2015ean, "Berriz Enpresa" programa **Euskal Autonomia Erkidego osora** zabaldu zen; zuzkidura ekonomikoa 264.600.- € izan ziren. Saltzaile eta erosleen artean, 12 proiektu adostu ziren; kopuru hori areagotu daiteke, izan ere, erosleen 186 bideragarritasun-proiektu daude martxan (97 Bizkaian, 32 Araban eta 57 Gipuzkoan) eta saltzaileen 243 bideragarritasun-proiektu (151 Bizkaian, 65 Araban eta 27 Gipuzkoan). 2016. urterako jarraitzea eta kopuru hori areagotzea aurreikusten da.

5. ekimena. Gure dendetan eta merkataritzan kontsumoaren aldeko erakunde kanpainak garatzea "merkataritza-bonoen" antzeko programen bitartez eta EAEko merkataritzaren irudi eta sustapen kanpainen bitartez, halakoetan bereziki hurbileko merkataritza kontuan hartuz.

1.5.3 helburua. EAEko txikizkako merkataritzaren plana.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea).

Jarduketak

1. "Zure saltokia eta zu. Ikusten duzu aldea? Zure esku ere badago" da [2014ko publizitate-kanpainaren izena](#). 255.000.- €-ko aurrekontu-zuzkiduraren bidez egin zen 2014-10-27tik 2014-11-30era bitartean, komunikabide konbentzionaletan eta online. Kanpainak bizitzaren inguruko bi egoera planteatzen zituen: saltokiekin edo saltokirik gabe. Eta guztiok irabazi eta galdu dezakeguna azpimarratu nahi zuen. Herritarrak tokiko saltokietan erostera animatu nahi ziren.

2. "Bertako dendak, izen-abizenekin" izan zen 2015ean sortutako [publizitate-kanpainaren](#) eslogana, "ahalegin handiz, enplegua sortu eta gure kaleei bizitza ematen dieten pertsonen" lana nabarmentzeko. Kontsumitzailea kontzientziatu nahi zen txikizkako merkataritzak zenbateko garrantzia duen. Horretarako, zuzeneko deia egin nahi izan zen: «*Tokiko merkataritzak zure laguntza behar du. Ez hutsik egin!*» 340.000.- € zuzkidura ekonomikoaren bidez, kanpaina abenduan egin zen, EAE osoan, eta telebistan, irratian, prentsan, Interneten eta kanpo-publizitatean agertu zen.

3. 2016an, Eusko Jaurlaritzak aurreikusten du ekimen horiei jarraitutasuna ematea, diseinatzen eta lantzen ari den kanpaina baten bidez.

6. ekimena. Merkataritza txikiak kreditua lortzeko bideak erraztea.

1.5.3 helburua. EAEko txikizkako merkataritzaren plana.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea).

Jarduketak

1. 2013an, autonomo eta ETEei zuzendutako ekimen batzuk jarri ziren martxan, inbertsio produktiboko proiektuak finantzatzeko kredituen interesak diruz laguntzeko. Horrela, Inbertsiorako Finantza [Laguntzen Programak](#) (AFI) ibilgetu ez-material eta material berrietan inbertsioak egiteko eta zirkulatzaila finantzatzeko laguntza eman zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-, merkataritza- eta turismo-sektoreetan. (Afi [2013](#): 33 eskaera onartuta / 102.346.- €-ko diru-laguntza; Afi [2014](#): 30 eskaera / 112.925.- €; Afi [2015](#): 14 eskaera/ 95.045.- €).

2. 2014an, [9/2014 Dekretua](#) onetsi zen, autonomoentzako eta enpresa txiki eta ertainentzako finantza-laguntzari buruzkoa. Horretarako, [2014ko deialdiaren Aginduak](#) 300.000.000.- € jaso zituen, finantza-erakunde laguntzaileek emateko mailegu gisa (280 ETEentzat eta 20 banako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat). Plana autonomo eta enpresa txiki eta ertainentzako “finantza-estugunea” saihesteko sortu zen. Hori dela eta, Enpresa Txiki eta Ertainen eta Autonomoen Finantzaketa Funtza egokitu egin zen, merkataritzaren, ostalaritzaren eta turismoaren finantzaketarekin lotutako alderdi premiazkoenei ekiteko.

3. Antzeko helburu eta zenbatekoekin argitaratu zen 2015ean enpresa txiki eta ertainentzako, banako enpresaburuentzako eta profesionalentzako finantzarako laguntza-programaren beste deialdi bat ([4/2015 Dekretua](#)) eta ([2015-02-02ko Ogasun eta Finantzen Agindua](#)).

4. 2016-02-24an enpresa txiki eta ertainei, banako enpresaburuei eta profesional autonomoei 2016. urtean finantza-laguntza emateko programa garatzeko [dekretu-proiektuari](#) ekarpenak egiteko fasea amaitu zen. Izapidetzen ari da.

1. ekimena. Merkataritza-jarduera eraldatzeko eta berregokitzeko faktore gisa, berrikuntza eta profesionalizazioa sustatzea eta bultzatzea.

1.5.4 helburua. Merkataritza profesionalizatzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea).

Jarduketak

1. 2014an, Merkataritza-banaketaren sektorean berrikuntza eta bikaintasuna garatzeko laguntza-programa ezarri zen, merkataritza bikainaren eta merkataritzaren berrikuntzaren erakunde sustatzaileak bultzatzeko.

2. Merkataritza-sektorearen beharrekin bat datorren erantzuna eskaintzeko beharraren aurrean, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Arloak 2014an eta 2015ean [Negozio-eredu berrien programa](#) garatu zuen. **Zabalkunde-kanpainak** balio izan zuen merkataritzako enpresak orientatzeko eta prestatzeko, beren lehia-kokapena hobetzeko (2014: 185.000.- € eta 125 enpresa. 2015: 225.000.- € eta 700 merkataritza-enpresa).

3. 2015ean, Eusko Jaurlaritzak prestakuntza-mapa berria ezarri zuen Euskal Merkataritzarako, eskainitako prestakuntzaren kalitatea hobetzeko. Horretarako, [Lanbiderekin](#) lankidetzan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko berrogeita hamar elkarte eta erakunderen parte-hartzearekin, diagnostikoa egin zen.

4. [Euskal Merkataritzaren Plan Estrategikoa 2013-2016](#) planak lehentasun gisa giza kapitalean inbertsio gehiago ezartzen du, merkatarien prestakuntza eta sektoreko beharretara egokitzeko gaitasuna hobetuz. **Prestakuntza-mapa berriak** behar horiei erantzuten die.

5. 2015etik aurrera, [Ezagutza, berrikuntza eta merkataritza-lehiakortasuna sustatzera eta hedatzera bideratutako laguntza-programaren bidez](#) merkataritzako profesionali ematen zaizkien ikastaro guztiak bete behar dituzte egindako merkataritza-banaketaren sektorean prestakuntza-beharren diagnostikoa egin ondoren ezarritako egokitasun-eskakizunak.

6. [Ikusmer](#) Euskadiko Merkataritzaren Behatokiari beste **bultzada** bat eman zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektorea datuz hornitzeko eta, hartara, lehiakortasuna hobetzeko. Horretarako, estatuko eta Europako joerak aztertu dira. Horretarako, lau ekintza mota ezarri dira:

1. Euskal merkatarientzako intereseko informazioa, joera, esperientzia berritzaile eta koiunturari buruzkoak.
2. Kontsulta publikoko funtsa sortzea (merkataritzari buruzko 300 azterlan, 100 gida eta 14.000 albiste biltzen ditu).
3. Newsletterren diseinua, sektoreko informazioarekin, 10.000 enpresari heltzen zaiena.
4. Euskal Merkataritzaren Behatokiaren web-orrialdea, www.ikusmer.com, berritzea, bilatzaile berriarekin eta azkarragoarekin.

2. ekimena. Merkataritzari laguntza teknikoa emateko, lankidetzari lotutako programak garatzea.

1.5.4 helburua. Merkataritza profesionalizatzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea).

Jarduketak

1. 2014an, [Merkataritza-banaketaren sektoreko dinamizatzailak prestatzeko beken programa](#) ezarri zen, eta 31 onuradun izan zituen. 2015ean, onuradunak 26 izan ziren. Besteak beste, hau zen haren helburua: batetik, sentsibilizazio- eta zabalkunde-kanpainak egitea berrikuntzarekin, kalitatearekin eta teknologia berriekin zerikusia duten prozesuei buruz; bestetik, hiriguneen dinamizazioa sustatzea; eta, azkenik, banaketa-katea sustatzea, langile gaituek doako laguntza-zerbitzu teknikoa emanda merkataritzaren alorreko banaketa-sektoreari eta erakundeei.

2. 2014an sortu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza dinamizatzeko Bulegoen sarea, eta helburu du merkataritzako elkarte eta enpresei aholkularitza ematea, jarduerak eraginkortasunez betetzeko. 33 bulego dituen sare horren xedeak honako hauek dira: berrikuntza-prozesuen eta teknologia berrien zabalkundearekin sentsibilizatzea eta hiri-inguruneak eta banaketa-katea dinamizatzen laguntzea. Hori guztia, laguntza teknikoko doako zerbitzu baten bidez, goi-mailako prestakuntza duten langileekin ([2014ko deialdia](#): 1.270.500.- €; [2015eko deialdia](#): 1.270.500.- €), 2015ean, bulegoek Merkataritzako Bulego Tekniko izena hartu zuten.

3. ekimena. Merkataritzan enpresa-lankidetzarako tresnak eta lanabesak sustatzea, merkataritzaren lehiakortasuna hobetze aldera.

1.5.4 helburua. Merkataritza profesionalizatzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea).

Jarduketak

1. 2013an, Eusko Jaurlaritzaren eta hiri-merkataritzako 3 plataformen (Hiria 3.1) arteko lankidetzahitzarmena formalizatu zen, Toki Merkataritzaren Foroaren bidez lankidetzakintza asoziatiboak egiteko.

2. 2014an, Eusko Jaurlaritzaren eta Confebasken arteko lankidetzahitzarmena formalizatu zen, [2014-2016 Industrializazio Plana](#) garatzeko. Hitzarmen honetan jasotako proiektuen artean, [Giscom Proiektua](#) (Euskomer-Euskal Merkatarien Konfederazioarekin lankidetzan) zegoen, "Euskal Autonomia Erkidegorako merkataritzako informazio geografikoko sistema ezartzeko", Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri bakoitzeko merkataritza-, turismo- eta ostalaritza-establezimenduen egoerari buruzko diagnostiko erreala emateko. 2015ean, garapena udalerrien % 70era iritsi zen.

3. Era berean, 2014ko maiatzean Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko Industria, Merkataritza eta Nabigazioko ganberen arteko lankidetzahitzarmena formalizatu zen. Merkataritza-zabalkundearen inguruko jarduerak garatzeko, hitzarmenak hiru jarduketa-proiektu ditu oinarri: Euskal Merkataritzaren Topaketa, Merkataritza enpresaren nazioartekotzea eta merkatarien elkarten errolda egitea.

4. 2014an, lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Euskaldendak Euskadiko Merkataria, Ostalaritza eta Zerbitzu Enpresen Elkarten Konfederazioak, elkarteak elkarlanean aritzeko, eta, hartara, EAEko txikizkako saltokiak nazioarteko bihurtzeko eta, horrela, oinetakoen sektorean erosketa-sarea sortzeko. 2016an, Euskaldendakekin lankidetzahitzarmenaren indarraldiari jarraipena ematea aurreikusten da.

4. ekimena. Asoziazionismoari laguntzeko neurriak sustatzea gaur egunean abian dauden elkarteak balioetsiz eta elkarte berriak abiarazteko informazioa eskainiz.

1.5.4 helburua. Merkataritza profesionalizatzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea).

Jarduketak

1. 2014an Dendak Modernizatzeko [Laguntza-programa](#) arautzen duen agindua. Agindu honen xedea da EAEko merkataritzako saltokien modernizazioa sustatzea, berrikuntzaren, kudeaketa-tresnen hobekuntzaren eta azpiegituren bidez. Programak merkataritzako ekipamenduen, obra zibilaren eta altzarien finantzaketa aurreikusten du.

2. 2014ko deialdiak 1.106 eskaera onartu zituen, 3.476.200.- €-ko aurrekontuarekin, 20.906,023.- €-ko eragindako inbertsioarekin 5.525.355.- €-ko BEZaren zerga-itzulkinarekin. 2015eko deialdiak, enpresak zonako edo gremioetako elkarte-egituretan sartzearagatik hobaria ematen zuenak, besteak beste [Berriz Enpresa](#) enpresa-transmisioaren programan, 1.311 eskaerari erantzun zien; guztira, 3.272.471,28.-€-ko diru-laguntza eman zuen eta eragindako inbertsioa 26.959.418,82.-€-koa izan zen.

3. Zonako estrategiak garatzea bultzatzeko programaren bidez [Hirigune 2014](#), merkataritza-elkarteen eginkizuna eta sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatzea da. 2015eko udan bukatuko dira hiru hiriburuek hiriguneetako saltokiak elkarlanean aritzeko eta hiriguneetako merkataritza dinamizatzeko ezarri dituzten plan estrategikoak. [Hirigune 2015eko deialdia](#). 2016rako laguntza-programaren helburua eskualdeetako buruetan plan estrategikoak ezartzea da.

1. ekimena. Ekimenak sustatzea eta bultzatzea euskal merkataritza-sektoreko eragileen partaidetzarekin, betiere merkataritzaren inguruan indarrean dagoen gaur egungo arautegia hobetzeko merkataritza txikiaren interesak defenditu nahian.

1.5.5 helburua. Merkataritzaren arau-markoa eguneratzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015eko maiatzean Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen hauteskunde-prozeduraren eta gobernu-organoen eraketaren [Arauketa Dekretua](#) argitaratu zen.

2. Era berean, 2015eko urrian, EAEko Merkatarien Elkarteen Errolda sortzeko Dekretua aldatzeko [Dekretua](#) argitaratu zen (2015-10-14ko EHAA, 195 zk.).

3. 20/2012 Errege Lege Dekretua onetsi zenez, Merkataritza Jarduerari buruzko [7/1994 Legea](#) aldatu behar izan zen, turismo ugari guneei dagokienez. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak errekurtsioa aurkeztu zion Konstituzio Auzitegian turismo ugari udalerrietan saltokien ordutegien liberalizazio osoaren Legeari.

4. Araudi hau aplikatzeko, ebazpenak eman dira:

- Bilbo turismo handiko eremutat jotzeko ebazpena
- [Donostiako Alde Zaharra](#) merkataritzako ordutegien ondorioetarako turismo handiko eremutat jotzen dela adierazten duen ebazpena (2015).
- Bilbo merkataritzako ordutegien ondorioetarako turismo handiko eremutat jotzen dela adierazten duen [Ebazpena](#): Abando-Indautxu-Garellano, Alde Zaharra eta Deustu (2016).
- [Donostiako Alde Zaharra](#) eta Zurriola merkataritzako ordutegien ondorioetarako turismo handiko eremutat jotzen direla adierazten duen ebazpena. Alde Zaharra eta Zurriola (2016).

5. 2014-12-30ean, Gobernu Kontseiluak [Merkataritzako Jardueraren Legearen laugarren aldaketako lege-proiektua](#) onetsi zuen, Hazkunderako, lehiakortasunerako eta eraginkortasunerako premia- neurriak onesten dituen urriaren 15eko [18/2014 Legea](#) egokitzeko. Merkataritzako Jardueraren Legearen laugarren aldaketa Eusko Legebiltzarrean ari da izapidetzen.

6. Behin Estatuak Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen apirilaren 1eko 4/2014 Legea egin ondoren, abian jarri zen EAEn ganberen lege berri bat egiteko lan-mahaia. Eremu horretan, 2015eko otsailean, Merkataritza Elkarteen Errolda arautzen duen 148/1997 Dekretuaren aldaketa onartzeko prozedura hasi zen (izapidetzen). Era berean, [78/2015 Dekretua](#), maiatzaren 26koa, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen hauteskunde-prozedura eta gobernu-organismoak arautzekoa, eman zen.

2. ekimena. Gernikako Estatutuak merkataritzaren arloan ezarritako eskumen oso eta eskusiboak defendatzea, bereziki oinarritzko legeria gisa inposatu nahi diren liberalizazio-neurriak onartzeko betebeharraren aurrean.

1.5.5 helburua. Merkataritzaren arau-markoa eguneratzea.

Arduraduna: Sabino Torre Díez (Araubide Juridikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko eta 2014ko jarduketetan, Eusko Jaurlaritzak zenbait errekurso jarri zituen gai honen inguruan, Konstituzio Auzitegian:

- 2013ko apirila. [Errekurtoa](#) Aurrekontu Egonkortasunari buruzko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren aurka, beste gai batzuen artean, merkataritza-ordutegiaren eta promozio-salmentaren arloan. Konstituzio Auzitegiaren erabakiaren zain.

-2014ko otsaila. [Errekurtoa](#) estatuak merkataritza-banaketako enpresen ezarpenean duen esku-hartzearen inguruan, merkataritza-sektorearen defentsan Merkatuko Unitatearen Bermearen 20/2013 Legearen atalei buruzkoa. Urte bereko uztailean, horren gaineko [Erabakia](#) hartu zen Lankidetzako Alde Biko Batzordean Estatuko Administrazioarekin.

-2014ko abendua. [Errekurtoa](#) 18/2014 Legearen aurka, zeinak erabat liberalizatzen dituen turista asko biltzen diren eremuetako merkataritza-ordutegiak. Urte bereko abenduan, onartu eta Parlamentura bidali zen [Merkataritza-jardueraren laugarren aldatetari buruzko Legearen Proiektua](#) (20/2012 Errege Lege Dekretura moldatzeko eta 18/2014 Legea egokitzeko).

2. Behin Estatuak Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen [4/2014 Legea](#) Madrilen onetsi ondoren, abian jarri zen EAEn ganberen lege berri bat egiteko lan-mahaia.

3. 2014ko irailean, Ebazpena onetsi zen, zeinaren bidez argitaratzen den, [Bilbo](#) turista asko biltzen diren eremua izendatzen dela, merkataritza-ordutegiaren ondorioetarako. 2014ko abendua. Beste Ebazpen bat onetsi zen, zeinaren bidez argitaratzen den [Donostiako](#) Alde Zaharra turista asko biltzen diren eremu izendatzen dela, merkataritza-ordutegiaren ondorioetarako.

4. 2015eko maiatzean, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen hauteskunde-prozedura eta gobernu-organoak arautzeko [Dekretua](#) onetsi zen.

5. 2015eko otsailean, Eusko Jaurlaritzak Merkataritza-elkarteen errolda arautzen duen [148/1997 Dekretua](#) aldatzea onartzeko prozedura hasi zuen.

1. ekimena. Kontsumitzaileen babes eta informazioa sendotzea eta haien defentsa aktiboa sustatzea, horretarako informazio eta prestakuntza ekintzak abian jarri.

1.5.6 helburua. Kontsumitzaileen babesa

Arduraduna: Xabier Legarreta Gabilondo (Kontsumobideko zuzendaria)

Jarduketak

1. [Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutoaren](#) webgunea indartu eta garatu da, profil aktiboak bultzatu dira Facebook eta Twitter sare sozialetan eta Blog bat jarri da eskuragarri informazio erabilgarria aurkitzeko. Kontsumobideren lurralde bulegoetatik telefonozko arreta zerbitzua eskaintzen zaie kontsumitzaileei, urtero [liburuxkak](#) argitaratu eta eguneratzen dira eta sentsibilizazio kanpainak egin dira.

2. 2014an, sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak gauzatu ziren Kontsumobideren prestakuntza zentroetan. Berariazko jarduketak egin ziren bereziki ahulak diren kontsumitzaile taldeentzat, adineko pertsonentzat eta Euskal Autonomia Erkidegoko lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeentzat.

3. 2013 eta 2014an prestakuntza ekintzak egin ziren teknikarientzat. 2015ean “Jardunaldi bat Lehiaren Euskal Agintaritzarekin”, “Kontsumitzailea finantza eremuan babestea”ri buruzko ikastaro bat eta “Merkataritza elektronikoa” jorratu zuen bigarren ikastaro bat egin dira

4. Iritzi [azterketak egin dira](#), 2014an Kontsumobideren prestakuntza zentroen erabiltzaileen artean, eta 2015ean gai hauek landuz: “Publizitatea”, “Zerbitzuen kontratazio elektronikoa” eta “Hizkuntza eskubideak”.

5. 2014an lankidetzak hitzarmen bat sinatu zen [Kontsumobideren eta EHUren](#) artean eremu hauetan: erantzukizuna, iraunkortasuna, ezagueraren transferentzia, prestakuntza eta kontsumoari buruzko balioetako hezkuntza. Halaber, lan-jardunaldi teknikoak egin ziren [Kataluniako Kontsumoaren Agentziaren](#) ordezkariekin. Bestalde, Osakidetzako emaginentzako prestakuntzari buruzko proiektu pilotu bat gauzatzen ari da, amatasun/aitatasunaren aurrean kontsumo arduratsua aplikatzeko helburuz.

6. 2015eko martxoan Kontsumobide Nepim-en (europar eskualdeetan Kontsumo Iraunkorra Sustatzeko Sarea) sartu zen.

7. 2014an Kontsumobidek [euskararen erabilera normalizatzeko lehenengo berariazko plana](#) onartu eta hura gauzatzen hasi zen.

2. ekimena. Kontsumobideren zeregina eta kontsumitzaileen bulegoekin izan beharreko erlazioa bizkortzea eta dinamizatzea.

1.5.6 helburua. Kontsumitzaileen babesa

Arduraduna: Xabier Legarreta Gabilondo (Kontsumobideko zuzendaria)

Jarduketak

1. Kontsumobideren lana [Kontsumitzaileentzako 36 Informazio Bulegoekin](#) (OMIC) lerratzeko helburuz bien arteko noranzko biko komunikazio sistema indartu eta bilerak eta prestakuntza ekintzak egin dira batera.
2. 2015ean OMICentzako eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak sustatzen eta defendatzen diharduten elkarte eta toki erakundeentzako laguntzak eta diru-laguntzak onartu ziren. Kontsumobideko zuzendariaren [2015eko abenduaren 10eko Ebazpenaren bidez](#) kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko toki erakundeei eta haien sustatutako erakundeei diru-laguntzak emateko, 2016ko deialdia jakinarazi zen.
3. Kontsumobideren 2014-2018 aldirako [Plan Estrategikoa](#) 2014-07-03an onartu zen. Geroago Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo Batzordean aurkeztu zen urrian.

3. ekimena. Kontsumitzaileen elkartearen zereginaren berri ematea, bai eta elkarte horiek ematen dituzten zerbitzuak handitzen laguntzea ere.

1.5.6 helburua. Kontsumitzaileen babesa

Arduraduna: Xabier Legarreta Gabilondo (Kontsumobideko zuzendaria)

Jarduketak

1. Kontsumoaren arloko lankidetzak publiko-pribatua da Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileen hiru federazioekin (Eke, Eka eta Uce) sinatutako Lankidetzak hitzarmenen (2014-6-1 eta 2ko memoria) oinarria. 2015ean, lankidetzak hitzarmen bat sinatu zen eta 2015-12-31n amaitu zen hura.

2. 2016rako laguntza ekonomikoetarako deialdi bat abiarazi da, kontsumitzaileen elkarteentzat, [2015eko abenduaren 16ko Ebazpenaren](#) bidez.

4. ekimena. Bezeroak artatzeko sistema berriak bultzatzea eta kontsumo gatazkak konpontzeko mekanismoak ezartzea.

1.5.6 helburua. Kontsumitzaileen babesa

Arduraduna: Xabier Legarreta Gabilondo (Kontsumobideko zuzendaria)

Jarduketak

1. 2015 eta 2016an prozedura berriak ezarriko dira on-line erreklamazioak aurkezteko, kontsumitzaileak sistema telematikoko horretan sartzea errazteko. Halaber, partikularren eta enpresen arteko kontsumo-gatazkei irtenbideak bilatzean, bitartekaritza prozeduraren alde egiten eta hura bultzatzen jarraituko da, gatazkak ebazteko sistema gisa.

2. Ildo horretatik, [Kontsumobide](#) bitartekaritza lana egiten ari da Eroskiren eta Fagorren mendeko finantza-ekarpenek (MFE) sortutako gatazkan. Eroskiren kasuari dagokionez, bitartekaritza egin da aldean arteko hurbilketa errazteko eta, horren ondorioz, 2016an Eroski enpresak eskainitako trukea gauzatuko da. MFEak dauzkaten eta hala egin nahi duten pertsona guztiei irtenbidea ekar diezaike horrek. Fagorren MFE-ei dagokienez, Fagor SA hartzekodunen konkurtsoan sartzeak hasitako bitartekaritza amaitzea galarazi du.

3. [Kontsumoko Arbitraje Sistemari](#) atxikitako enpresak, 2015-12-31rako, 14.054 ziren. Urte berean, arbitrajearen ondoren emandako laudoen kopuruei dagokienez, % 79 inguru kontsumitzaileen aldeko baiespenak izan ziren (osoak edo partzialak). 2016an enpresen atxikipenak bilatzeko beste kanpaina bat egitea espero da.

5. ekimena. Merkataritza kalitatea sustatzea eta merkatuko praktika eta jardunbide txarren gaineko kontrola handitzea, ikuskapen kanpainen toki erakundeak eta banaketa enpresa handiak inplikatuz, seguruak ez diren produktuak bazter ditzaten.

1.5.6 helburua. Kontsumitzaileen babesa

Arduraduna: Itziar Epalza Urkiaga (Merkataritza eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Saltokiko kudeaketa aurreratuko "Saltokitik Enpresara" programa [2014-2016 Merkataritza Planaren](#) baitan kokatzen da, eta haren helburu nagusia enpresaren kudeaketa eta merkataria enpresa-ahalmena hobetzea da, saltoki horren eguneroko kudeaketarako tresna eta metodoen bidez. Programa hori [Euskalitekin](#) salmenta prozesuen kalitatea sustatzeko sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren esparruan garatzen da
2. Merkataritza jardueraren gaineko administrazio-ekintza lehia aske eta zintzoaren eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen bidezko interesen defentsaren printzipioen arabera bideratzen da, eta merkataritza jarduera eta merkatuaren gardentasuna arrazionalizatzen eta modernizatzen laguntzen duten neurri guztiak arbitratzen dira. Eusko Jaurlaritzak, bere zaintza zereginak betetz, produktuak, jarduerak, instalazioak eta merkataritza establezimenduak ikuskatzen ditu, eta haiei buruz behar den informazio oro eskatzen die enpresei.
3. ["Euskal Autonomia Erkidegoko zerga-iruzurraren aurkako 2015eko baterako plana"](#) Zerga-iruzurraren aurkako batzordeak lantzen du. Batzorde hori Eusko Legebiltzarrak eskatuta sortu zen eta hiru lurralde historikoek eta Eusko Jaurlaritzak parte hartzen dute. Plan horren babespean, bilera bat egin zen 2015-09-09an banaketa-enpresa komertzial handiekin. Bilera horren helburua zenbait enpresa bultzatzen ari diren "BEZik gabeko egunak", "aurreztu ezazu BEZa", "BEZa kentzen dizugu", "BEZ astea" eta antzeko kanpainei buruz hausnartzea zen.

1. ekimena. Mugimendu kooperatiboa eta gizarte ekonomiako elkarteak sustatzea, kooperatiben kontseilu nagusiaren zereginak indartuz eta gizarte ekonomiaren sektorearen gizarte eta erakunde ordezkariak sendotuz.

1.5.7 helburua. Gizarte ekonomia sustatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldian zehar, Gipuzkoako Lanaren, Enpleguaren eta Gizarte Politiken Ordezkaritzan Kooperatiben Atalak duen antolaketa eta funtzionamendua hobetzen lan egin da; [Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak \(EKGK\)](#) ordezkariak horretan zuzenean esku hartzea bultzatu da.

2. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak 2014-2017 Plan Estrategikoan lan egin du, baina horrez gain, urte anitzeko ekintza plan bat garatzen ere ibili da. 2015ean, Kooperatiben Arbitrajeak 25 urte bete zituen.

3. 2015ean [Kooperatiben Arbitrajearen euskal zerbitzuak](#) 25 urte bete zituen. Zerbitzu horrek administratzen ditu, hain zuzen, EAEko kooperatiben artean sortzen diren gatazkak konpontzeko ezartzen diren prozedurak. Kooperatiben artean sortzen diren auziak ezagutzen ditu, hau da, kooperatiben—edo horien gizarte organoen- eta bazkideen artean sortzen direnak, edo kooperatiba barruko gizarte organoen artean edo bazkideen artean sortzen direnak. Halaber, EAEko kooperatibetan gerta daitezkeen gatazkei aurrea hartzeko neurriak sustatzen ditu, eta arreta ematen die kooperatiben sektorean gatazkak konpontzeko prestakuntzaren bat behar denean.

4. 2014ko otsailean [“Lanpar Funtza”](#) eratu zen. Akordioa ASLEekin-Euskadiko Lan Sozietateen Taldearekin. Arrisku-kapitalaren funtza da. Lan-sozietate anonimoek esku hartzen dute bertan, enpresako langileen parte-hartzea bultzatzeko asmoz (ASLE: 500.000.- €, Eusko Jaurlaritza.: 3 milioi €).

2. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte ekonomiako enpresen elkartze-egiturak sortzeko eta egonkortzeko laguntza ematea.

1.5.7 helburua. Gizarte ekonomia sustatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013. urteaz gero lankidetzaz hitzarmena egin zen Euskadiko Lan Sozietateen Taldearekin (ASLE). Hitzarmen horren arabera, Jarraipen Batzordeak ekintza zehatz batzuk garatu behar ditu, urtero, honako bost ardatz estrategiko hauen gainean: erakundeen ordezkariak, lan-sozietatearen sustapena, enpresei laguntzen neurri zehatzak laguntza teknikoak emateko programen bidez, trebakuntza programak eta partaidetutako enpresaren sustapena.

2. 2014. urtean, Eusko Jaurlaritzak Intentsioen akordioa sinatu zuen Konfekoop-ekin (Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa) eta EKGKrekin (Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua).

3. EKGKren 2014-2017ko Plan Estrategikoa abian da oraindik; dagoeneko bete dira, gainera, 2016. urtera arte ezarritako helburu guztiak.

4. Legegintzaldian zehar Gizarte Ekonomiari lotutako elkartze-egiturak finkatzeko [laguntzen deialdi](#) deialdi bat baino gehiago egin da. Kasu horietan, elkarteek bere gain hartzen dute gizarte ekonomiako enpresen interesak eta horien ordezkariak egiturak ordezkatzeko, defendatzeko eta sustatzeko ardura. Kooperatiben, lan-sozietateen, enplegu-zentro berezien, autonomoen elkarten eta ekonomia solidarioaren egiturentzako laguntzak ere deitu ziren. [2014ko deialdia](#): 612.453.- € (2014ko ekitaldia: 459.339,75.- €, eta 2015eko ekitaldia: 153.113,25.- €). Zenbatekoa aldatu zuen [2015-03-03ko ebazpenak](#). 2015eko deialdia: Izapidetzen ari da

3. ekimena. Proiektu, egitasmo eta ekimenak berreskuratzeko eta abian jartzeko laguntza ematea gizarte ekonomiaren formulen pean, betiere arlo berritzaileetan enpresak agertuko direla edo eraldatuko direla erratuz.

1.5.7 helburua. Gizarte ekonomia sustatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. Gizarte ekonomiari lotutako ekintzailtzarako eta lurraldeko ekintzailtza programaturako laguntzen deialdia. Laguntza horien bidez gizarte ekonomiako enpresak lurraldean modu planifikatuan sustatuko dituen jarduketa plan bat prestatzea, garatzea eta gauzatzea bultzatuko da, betiere lanaren partaidetza, aberastasunaren sorrera eta bidezko banaketa eta enpleguaren sorrera oinarritzat hartuta. Hezkuntza-erakundeek parte hartzen dute proiektu horietan, eskualde jakin batean daude sustraiturik, eta beren egiturak posible egiten du Enpresa Plana aplikatu ahal izateko enpresa-haztegi bat edukitzea.

-2014ko deialdia. 610.000.- € (2014ko ekitaldia: 457.500.- €, eta 2015eko ekitaldia: 152.500.- €)

-2015eko deialdia. Izapidetzen ari da. Laguntzaren agindua "Ekintzailtza eta lurraldeko ekintzailtza programatua"

2. Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek egin duten Ekintzaileen Jarduera Sustatzeko Erakundearen Arteko 1. Planean, besteak beste, gizarte ekintzailtzarako jarduera bultzatzeko erronkak eta helburuak jasotzen ditu.

3. 2016ko ekitaldian [Ekintzaile](#) eta [Barnekintzaile](#) programak garatzen jarraitzen da. Programa horien bidez, hain zuzen, enpresa ekimen berriak sustatu nahi dira, baita gizarte ekonomiari lotutakoak ere.

-2014ko deialdia

-2015eko deialdia

4. ekimena. Ekintzailletza sozialaren espiritua aldezte, herritarrak sentsibilizatzeko eta gizarte onarpena sustatzeko programak bultzatuz eta ekintzaile sozialaren irudia sustatuz.

1.5.7 helburua. Gizarte ekonomia sustatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek abian jarri duten [Ekintzaileen Jarduera Sustatzeko Erakundearen Arteko 1. Planaren](#) bidez bultzada handia eman da, beste erronka eta helburu batzuen artean gizarte ekintzailletzarako jarduera bultzatzekoak ere baititu jasota. Plan horren **emaitza positiboak** aplikatu zen lehenengo urtean bertan hasi ziren nabaritzen; izan ere, herrialde aurreratuenetako parametroekin bat datoz.

2. [Gizarte Ekonomiako laguntzen eta diru-laguntzen](#) deialdiak ezarri dira, gizarte ekonomiako enpresa berriak sortzen laguntzeko honako baldintza hauek betez: enpresa horien balioak eta printzipioak zabalduz eta aitorten handiagoa emanez ekonomia solidarioaren entitateei, enplegu-zentro bereziak garatzen dituzten entitateei eta langile autonomodun sektoreaz gaindiko taldeei. Horretarako diru-laguntzen hamabi ildo ezarri dira.

5. ekimena. Foru-aldundien lankidetzarekin enpresen kontzentrazioa aldeztu eta bultzatu duten pizgarri fiskalak garatzea, betiere gizarte ekonomiako enpresak hazteko eta merkatuan aukera berriak baliatzeko mekanismo eta lanabes gisa.

1.5.7 helburua. Gizarte ekonomia sustatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. [Enplegu Planeko 1.1.8 neurria](#) gauzatu da, eta foru-aldundiekin lankidetzan, zerga-pizgarri batzuk atera dira. Pizgarri horien bidez, hain zuzen, aurrezpen pribatua ETEetara edo enplegu berriak sortzeko enpresetara bideratu ahal izango da.

Aurrezki pribatua bideratzeko zerga-neurrien baitan, honako aldaketak egin dira Tributu Arauan:

a) PFEZean: Hiru lurraldeetan txertatu da merkatu antolatuetan kotizatzen ez duten enpresa sortu berri edo enpresa berrietan inbertsioa sustatzeko kenkaria. Berau, enpresa horietan eskuratutako akzio edo partizipazioen bidezko kopuruaren % 20 kenduko da, hainbat muga dituelarik (Araba eta Bizkaiko PFEZaren Foru Arauaren 90. art, Gipuzkoako PFEZaren Foru Arau proiektuaren 89. art.).

b) Sozietateen gaineko Zergan:

-Ekintzailatza sustatzeko erreserba (53.2d art.): Enpresa-proiektu berri bat garatzeko lehen fasean edo ondorengoetan eta hazteko aukera duten mikroenpresa eta ETEetako kapitalean parte hartzearen bidezko inbertsioa, inbertitzaile pribatu informal edo business angels deiturikoen bidez. Tributu-oinarriaren zenbatekoaren % 45 ere murriz daiteke, erreserbara atxikitzen diren irabaziengatik (mugekin).

-Beste erreserba batzuk: Enpresak kapitalizatzea bultzatzeko neurriak txertatzea, berezko funtsak hazi eta zorpetzera jotzeko beharra murriztea oinarri duten egituren trataera hobetzearekin lotuta (51. eta 52. art.).

2. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak [gizarte ekonomiako laguntzen eta diru-laguntzen](#) hamabi ildo sortu ditu, gizarte ekonomiari lotuta dauden enpresa berriak sortzen laguntzeko eta haien balioak eta printzipioak zabaltzen laguntzeko. Laguntza horien bidez, gainera, aitorten handiagoa eman nahi zaie ekonomia solidarioko entitateei, enplegu-zentro bereziak sustatzen dituzten entitateei eta langile autonomodunak dituzten sektoreaz gaindiko taldeei.

1. ekimena. Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren zeregin dinamizatzailea sustatzea.

1.6.1 helburua. Turismo-administrazioa berrantolatzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015eko azaroan, Vitoria-Gasteizen Turismo Iraunkorrari buruzko [II. Munduko Goi-bilera](#) egin ondoren, Basque Country+20 Turismo Iraunkorrari buruzko [Munduko Gutuna](#) aldarrikatu da. Harrezkero, [Basquetour](#) nagusi da Euskadin Biosphere Kalifikazioaren ezarpenean, turismo iraunkorreko destino gisa, eta, gainera, 2016an, Turismo Arduratsuaren [Institutuarekin](#) batera, Munduko Gutuna nazioarteko eremuan eta turismoko eta beste arlo batzuetako euskal enpresa eta erakundeei zabaltzeko ardura hartu du bere gain.

2. Sustapeneko jarduera sendoaren emaitza ekimen garatu ugari izan dira. Horren adierazle dira Euskadi Gastronomika [Plana](#), [Produktuklubak](#), [Surfing Proiektua](#), Turismo Gastronomikoko Nazioarteko [II. Foroa](#) edo Turismo Gastronomikoko [Munduko I. Foroa](#), Basque Culinary Center-en egin dena, TMEREkin batera.

3. 2015ean, Barne Turismoko [Planaren](#) edukia [Landa Garapeneko](#) eskualdeko erakunde eta elkarteei (LGE) eman zitzaizen, Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetako erakunde bakoitzaren lana koordinatzeko.

4. Nekazaritza arloaren, turismoko lankidetzarako erakundeen eta LGEen arteko lankidetzaren ondorio gisa, Barrualdeko eta Arabako Errioxako [Plan Gidariak](#) azken fasean daude; helmugei lotutako lurralde-kudeaketako ereduaren egitura berria planteatzen dute.

5. Euskal Kostaldeko [Plan Gidaria](#), honako helburu berezi hauek dituena: 1) Administrazioen arteko koordinazioa, Euskal Kostaldea Helmugaren Erakunde arteko [Mahai](#); 2) Ingurumen-arloarekiko lankidetzak, turismo-irizpideak sartzeko portuen kudeaketan. 3) Lankidetzak ekonomia- eta gizarte-eragileekin (Euskal Kostaldeko enpresen [Lehen Networkinga](#)).

6. Halaber, erakunde-koordinazioari ematen zaion sustapena ere aipatu behar da; horretarako, [Donostia 2016](#) esparruaren barruan Turismoa dinamizatzeke plana garatu da, ekitaldiaren turismo-sustapenaren estrategia kohesionatua ezartzeko.

7. Erakundeen arteko koordinaziorako, etengabeko harremana dago turismo-lankidetzako erakundeekin, foru-aldundietako turismoko zuzendaritzako eta hiru hiriburuetakiko turismo-sailekin, proiektu turistikoak ezartzeko ([Euskadi Gastronomika](#) edo [Surfing Euskadi](#)) edo Euskal Autonomia Erkidegoa turismo-ekimenetan egoteko. Halaber, garrantzi berezia ematen zaie [Convention Bureau](#)-ei, Euskadi Basque Country [Mice](#) helmuga gisa sustatzeko kanpoan.

8. Helburu horrekin, [Itourbask](#) sareko bulegoekin, lurralde-lankidetzako erakundeekin, eskualdeetako turismo-mahaiekin eta lotutako ekintza eta aurkezpen guztietan lankidetzan dihardugu, modu berezian Basquetour eta [Helmuga arteko](#) Batzordea nagusi diren proiektuen ondoriozkoetan. Halaber, aktiboki ari gara Itourbask sareko eragile-taldearen prestakuntzan lankidetzan, XXI. mendeko turismo-bulegoak eratzeke.

2. ekimena. Foru-aldundiekin batera sektore turistikoa sustatzeko euskal estrategia bat koordinatzea.

1.6.1 helburua. Turismo-administrazioa berrantolatzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Lankidetzeta estua dago Basquetour – Turismo Zuzendaritzaren, foru-aldundien eta hiriburuetakoko udalen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko turismoa sustatzeko estrategiari balioa ematen dioten ekitaldi guztietan. Horren adibide dira [Enter 2016](#) (Bilao), [Kultur Hiriburutza](#) (Donostia) edo Turismo Irisgarriari buruzko [Munduko Goi-bilera](#) (Vitoria-Gasteiz).
2. Turismo-seinaleztapenaren eredu integral berriaren zehaztapenean lurralde-koordinazioaren helburua betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-seinaleztapenerako [zeharkako taldea](#) sortu da, eta turismo-arloak gidatzen du, foru-aldundiekin eta udalekin lankidetzan. Seinaleztapenaren sistema homogenea ezartzea da helburua, turismo-baliabideen ezagutza eta eskuratzea erraztuko duena; horrela, era berean, helmugako irudia eta turismo-eskaintzaren kalitatea hobetuko da.
3. Foru-aldundiekin eta hiriburuetakoko udalekin lankidetzan, Euskadi Laguntza sektoreko azoka garrantzitsuenetan dago: [Londresko Wtm](#), 2015; [Fitur](#) 2016, Mahatma Toulouse 2016 eta [Berlingo Itb](#), 2016. Kasu guztietan, DSS2016 Europako Kultur Hiriburutzaren programazioaren aurkezpenak egin zitzaizkien nazioarteko agente eta kazetariei.
4. Erakundeen arteko lankidetzaren emaitza gisa, 2020 Euskal Turismoaren [Plan](#) Estrategikoa egin zen, lehentasunezko merkatuei buruzko (Frantzia, Alemania, Erresuma Batua eta Italia) eremu nagusiei buruzko (gastronomia, kultura eta Mice-Meeting-ak, pizgarriak, hitzarmenak, biltzarrak eta ekitaldiak) oinarritzko adostasun batzuei esker. Halaber, bidaiarien profila eta, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoa, tokiko berezitasunak alde batera utzita, herrialde gisa aurkezteko beharra jasotzen ditu. Mezu horrekin bertaratu gara azoketan, besteak beste, Fitur-en, marka bakarrarekin: **Euskadi Basque Country**. Era berean, turismo-mahaian, Euskal Autonomia Erkidegoko Turismoaren [Legea](#) adostu zen; Legebiltzarrean izapidetu behar da.
5. Foru-aldundiekin batera egindako lan zorrotzari esker, Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Seinaleztapenaren [Eredua](#) aurkeztea espero da.

3. ekimena. Administrazioen arteko egitura oso operatibo bat artikulatzea, MICEren euskal merkatua (meetings, sustapenak, konbentzioak, jardunaldiak eta ekimenak) dinamizatzea eta optimizatzea ahalbidetuko duena

1.6.1 helburua. Turismo-administrazioa berrantolatzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Egiaztatu da gora egin duela [Basquetour](#)-en lankidetzak eskatzen duten estatuko, nazioarteko eta gobernuako erakundeek kopuruak, ekitaldiak egiteko, biltzarretarako hautagaitzak prestatzeko etab. Helburu berarekin, lankidetzak estua dago kanpoan ondo kokatuta dauden euskal enpresekin.
2. 2015etik, gurutzaldien turismo-eremuan lan egin da. Horren erakusle da Euskal Autonomia Erkidegoaren presentzia, 2015etik eta Sprirekin lankidetzan, [Miami](#) eta [Hamburgoko](#) gurutzaldien azoketan. Halaber, lankidetzak estua dago [Bilboko Portu](#)arekin. Gainera, 2016an, Euskal Autonomia Erkidegoko Gurutzaldien Turismoaren [I. Jardunaldia](#) egin da. Basquetourren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoa ontziratzeke eta lehorreratzeke portu bilakatzea, Europako turistentzat.
3. Eusko Jaurlaritzak, 2014tik, hegazkin-konpainia batzuekin dihardu lankidetzan: Aena euskal aireportuen Marketin Estrategikoko Batzordeetan sartu zen; horrela, Euskal Autonomia Erkidegora konexio berriak ekarri ahal izan dira eta, aldi berean, nazioarteko aireportuetan areagotu da gure presentzia. Hori horrela, baterako konektibitatearen estrategia batean lan egiten jarraitu behar da, autobusen konpainiak, trenbide-lineak eta ibilgailuak alokatzeko konpainiak ere jasotzen dituen, turistak Euskal Autonomia Erkidegora errazago heltzeko.
4. Negozioen Turismoaren atalean, Euskal Autonomia Erkidegoa bere ordezkartzearekin joan zen Bartzelonako 2015eko [Eitbm-ra](#), [Mice](#) eremuan munduko garrantzitsuenara. Emaizta balorazio altua izan zen. Gainera, 2014ko eta 2015eko Fitur-en edizioetan, [Mice Gida](#) eta [Gida Profesionala](#) aurkeztu ziren.
5. 2015eko maiatzean, Donostian Euskal Autonomia Erkidegoko Pizgarrien Turismorako [I. Jardunaldia](#) egin zen. Formatu berriak, [“Let’s MICE together”](#), 120 enpresa baino gehiago eta estatu eta nazioarte mailako ponenteak erakarri zituen. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoa hainbat ekitalditan egon da: Paris-Meedex Azoka, Varsovia, Milan-Il Salone di Mobile, Marsella, Chicago, Aberdeen...
6. Basquetour hiru [Convention Bureau](#)-ekin koordinatzen da, biltzarrak erakartzeko laguntza-hitzarmenen bidez. Halaber, Jaurlaritzako besteko sail batzuekin elkarreraginean dihardu, arloko biltzarrak erakartzeko. Era berean, SPRIren ordezkartzeke lankidetzan dihardute negozioa erakartzeko estrategian, bai eta ekimen pribatuaren estrategian ere, eta etengabeko harremana ezarri da Biltzarren Antolamendu Profesionaleko Enpresekin, baterako lan-estrategiak sortzeko.

4. ekimena. Arauzko marko turistikoa oso-osorik garatzea, eskualde turistikoetan lurralde-plangintza sektorialak definitzen lagunduko duten baliabide eta bitarteko turistiko interesgarriak eratuz.

1.6.1 helburua. Turismo-administrazioa berrantolatzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Turismo Legearen Proiektua prestatu da, eta haxe proposatzen du: alojamendu-modu berriak sartzea, hala nola turismo-etxebizitzaren alokairua; turismo-enpresak zein diren argi eta garbi bereiztea; turismo-jardueren sektore-arauketa; turismo-arloan administrazioek dituzten erantzukizunak mugatzea. 2016-02-09ko Gobernu Batzordean onetsita, [Turismo Legearen Proiektua](#) Legebiltzarrean izapidetzen ari da.

2. Ikuskaritzako jarduketak direla eta, 2014an, 109 alojamendu ikuskatu ziren, eta % 5i ireki zitzaion espedientea. 2015ean, turismo-alojamenduak merkaturatzen dituzten 230 web baino gehiago arakatu ziren, eta onlineko informazio-unitatea sortu zen, horrelako alojamenduak antzemateko. Halaber, onlineko protokoloa prestatu da, kasu horietan jarduteko irizpide zehatzak ezartzen dituen.

3. Turismo-politika eraginkorra bermatzeko, 2015ean [5/2015 Dekretua](#), urtarrilaren 27koa, [Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Mahaia sortzekoa](#), onetsi zen, alokatzeko turismo-etxebizitzaren batzorde berezi batekin, eta horrek edukiak sartu zituen legearen zirriborroan, turismo-etxebizitzaren, etxebizitza partikularretako logelen, aterpetxeen eta turismo-apartamentuen alokairuaren inguruan.

4. Legegintzaldian zehar, hainbat dekretu onetsi dira, Euskal Autonomia Erkidegoko alojamenduen modalitateei buruzko araudiekin. Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresen [Erregistroa](#), bidaia-agentziak, ostalaritzako establezimenduak, landa-ostatuak, apartamentu turistikoak, [aterpetxe](#) turistikoak, kanpinak eta [dispentsak](#) ostalaritzako sailkapenean

5. 2015ean, ostalaritzako establezimenduen antolamenduari buruzko [6/2015 Dekretua](#) onetsi zen; Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresen Erregistroaren funtzionamendua arautzen du. Dekretu horrek alojamendua emateko irizpide orokorrak eta konpentsazio-alderdiak ezartzen ditu eta, gainera, kategoria-aldaketa araubidea arautzen du eta turismo-enpresak behar dituzten turismo-administrazioaren erregistro-zenbakiak argitaratzera.

5. ekimena. Baliabide turistiko traktoreen inbentarioak egiteko bultzada ematea , baliabide eta bitarteko turistikoen esku-hartzea eta sustapena planifikatzeko eta, zeregin horren bitartez, aurrera eraman litezkeen jarduketak antolatzeko eta balioesteko.

1.6.1 helburua. Turismo-administrazioa berrantolatzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Lurraldea inbentariatu izanak aukera eman du 2016an produktu berriak –besteak beste, familia-turismoa, golf-turismoa, ongizateko turismoa edo ibilbide mitologikoena– garatzeko lanari ekiteko; horrela, Euskal Autonomia Erkidegoa ezagutu eta [touring](#) produktua eta kulturala sustatu ditzakegu.

2. Barnealdeko Plan Gidaria [idaztean](#), 2014an barrualdeko turismo-baliabideen inbentarioa eguneratu zen, horiek sustatzeko, hobetzeko eta sortzeko estrategia ezartzeko eta horien sustapen egokia ekarriko duen egoera lehiatzailea bultzatzeko. Hori guztia dela eta, egoera horretan garatuko diren produktu garrantzitsuenak ezagutu ahal izan ditugu: [Ignaziotar Bidea](#), gastronomia, etab.

3. Merkataritzako eta Turismoko Sailburuordetzak eta Eustatek sortutako lan-mahaiak egindako jardueraren emaitza gisa, 2014an "[Bi urtez behingo Turismoaren Kontu Satelitea](#)" argitaratu zen; bertan, datuak segmentutan banatuta ageri dira, hobeto erabiltzeko.

4. 2020ko Euskal Turismoaren [Plan](#) Estrategikoaren eta 2014-2017 Marketin [Plan](#)aren jarraibideetatik abiatuta, zerrenda bat osatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko 10 top baliabideekin, eta beste bat, bisitari orok gozatu behar dituen 10 top esperientziekin. 10 baliabide eta 10 esperientzia horiek argi batzen dute Euskal Autonomia Erkidegoaren eskaintza turismo-helmuga gisa.

5. Gainera, turismo-eragile guztien lankidetzari esker, beste 50 esperientzia merkaturatzen ari dira, online dugun plataformaren eta gainerako baliabide konbentzionalen bidez. Katalogazio horien bidez, turismo-eskaintza zehatzago eta errazago ezagutu ahalko dugu.

6. ekimena. Herrialdearen kultur eta ondare baliabideak aintzakotzat hartuko dituen eskaintza turistiko bat osatzea.

1.6.1 helburua. Turismo-administrazioa berrantolatzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Foru-aldundiekin eta zeharkatzen dituen eskualdeekin lankidetzan, [Ignaziotar Bidea](#) diseinatu eta sortu zen. Prozesu horretan, udalerriek hartu zuten parte, helburu horrekin sortu zen elkarte baten bidez; dagoeneko Katalunian dagoen elkartera batuko da. Halaber, bideak zeharkatzen dituen gainerako autonomia-erkidegoekin koordinazioan lan egiten da, estatu eta nazioarte mailan sustatzeko erlijio-turismoko proiektu hau. Ekimen hau 2015eko Fitur-en aurkeztu zen.

2. [Basketour](#)ek ondasun material eta immaterialei buruzko lan-taldeetan parte hartzen du, besteak beste: Santiago Bideak, Arabako Errioxako Paisaia etab. Helmugako aniztasunari eta [Touring](#) produktuaren garapenari lotuta dauden ekimenak dira; kultur eta ondare intereseko ibilbideak dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoan turismoa deslokalizatzeko funtsezko elementu gisa agertzen direnak.

3. [Fitur 2016n](#) aurkeztu zen euskal mitologiari lotutako produktu berria; pertsonaia [mitologiko](#)ei (Amari, iratxoak, Erraldoiak, herensugeak, sorginak, lamiak) lotutako 6 ibilbideren katalogoa, horien inguruko elezaharren hariarekin.

4. [Kultur Turismo Plana](#) faseka egiteak kulturari balio handia ematen dio, Euskal Autonomia Erkidegoa turismo-helmuga bakar eta berezi izateko. Planaren garapenaren ondorio izango da turismo-produktu bakan eta erakargarriak sortzea. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegorako industria-turismoaren eredia sustatzeko aukera ere aztertzen ari da.

5. Kultura, ondarea, ohiturak, kirolak, musika eta dantzak herri baten identitatearen zati garrantzitsua dira. [Basque style](#) hori oso presente dago gure turismo-eskaintza egituratzeko orduan, eta esperientzien top hamarrean dago.

6. Bai [Plan](#) Estrategikoak, bai [Marketing](#) Planak bi produktu aurreikusten dituzte eta horiek, duten garrantzia kontuan hartuta, lehentasunezkoak izan behar dute, eskaintza bakarra eta berezia diseinatzeko orduan: gastronomia eta kultura. Hori dela eta, oso garrantzitsua da helmuga erakargarri egingo duten eta jendeak Euskal Autonomia Erkidegotik espero duenari erantzungo dioten kultur eta ondare baliabideak garatzea.

7. ekimena. Seinaleztapenari begirako estrategia erkide bat abian jartzea, ingelesez ematen den informazioaren normalizazioa ahalbidetuz betiere.

1.6.1 helburua. Turismo-administrazioa berrantolatzea.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskal Turismoaren 2020 Plan Estrategikoan aurreratu zen bezala, eta turismo-seinaleztapeneko eredu integral berria zehazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-seinaleztapenerako zeharkako **Taldea** (Gtste) sortu zen, Eusko Jaurlaritzak sustatuta, eta foru-aldundien eta udalerrien (Eudel) parte-hartzearekin. 2015eko irailean, talde horren lehenengo bilerak seinalztapenaren eredu berriaren egoeraren diagnostikoa eta **esparru metodologikoaren proposamena** aurkezteko balio izan zuen.
2. Eusko Jaurlaritzak Gtste-ren bileretan bildutako informazio guztia, turismo-seinaleztapenaren eredu berria zehazteko orduan lurraldea koordinatzeko helburua betetzeko, erakunde parte-hartzaile guztiei bidali zien. Zenbait bilera egin dira eta, horien bidez, eredu adostua ezarri ahal izan da, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-saretik dabilzan turistek eskatzen duten informazioaren egungo eta etorkizuneko beharrei erantzun diezaiekeena.
3. 2015ean, turismo-seinaleztapen homologatuko planaren forma izango duen Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-seinaleztapenaren eredua egiteko kontrataziorako beharrezko administrazio-prozedura egin zen.

1. ekimena. Euskal kulturari bultzada ematea "Euskadi" marka turistikoa ezartzeko oinarrizko erreferentzi osagai gisa.

1.6.2 helburua. "Basque Country" marka turistikoa.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskadik parte hartuko du 2016ko ekainaren 29tik uztailaren 10era bitartean Washington-en egingo den Smithsonian Folk Festival jaialdian. Ekitaldi kultural horretan Euskadi herrialde gonbidatua da. Beraz, Euskadirentzat gero eta garrantzitsuagoa den merkatu horretan erakutsi ahal izango ditu alderdi erakargarri guztiak.

2. [Basque style](#) izenekoari garrantzi handia eman zaio sustapen kanpainetan, gure nortasunari eta kulturari lotutako guztia jasotzen baitu; eta, jakina, horrek beste norako batzuetatik bereizten gaitu. Adibidez, 2013 eta 2014 urteetan "[Euskadi Basque Country bandera](#)" zabaltzeko kanpaina egin zen Bartzelonan. Malaga izan zen 2015eko xedea, eta 2016koa Sevilla izango da. Kirol lehiaketarekin batera sustapen turistikoa egingo da, baita dastatze gastronomikoak eta Euskadiko kirol eta dantzen erakustaldiak ere.

3. [EAEko Turismoko Plan Estrategikoa 2020](#) izeneko planaren ondorioz 2014-2017 marketin plana prestatu zen, eta bertan ezarri zen gure herriaren kultura, nortasuna, ohiturak eta gastronomia, hau da, Basque Style izeneko, lehenetsunez bultzatu behar zela, Euskadi Basque Country marka turistikoa ezartzeko erreferentzia eta bereizgarria zelako.

4. Basque Styleren ezarpena sendotzeko laguntzak jaso zituzten ekitaldi eta hitzarmen batzuk: lankidetzaren hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren eta musikaren Gasteizko Expo Iberoamerikarra elkarte kulturalaren [-EXIB Música](#) - artean; euskal zinemaren IX. Jaialdia Bartzelonan; euskal jantzien erakusketa [Buenos Airesko](#) Euskal Etxean; [Jakitea-k](#) Weisbaden-en (Alemanian) antolatutako gertaera gastronomikoa; Euskadi Basque Country pintxoen [lehiaketa](#) Hondarribian; hitzarmenak [Basque Culinary Center](#) fundazioarekin Donostiako [zinemaldian](#), Gasteizko [Jazzaldia](#) elkartearekin, [Getxo \(jazz\)-en](#) kultur etxearekin, Donostia Kultura-rekin (jazzaldia) eta Hondarribiko Blues jaialdiarekin.

5. 2015eko abendutik aurrera, Euskadi Basque Country marka turistikoa atzerrian bultzatzeko sustapen turistikoa egin da; horretarako [kanpaina](#) egin da. Kanpainan, izan ere, Euskadiko baliabide turistikoak, kulturei eta ondareari lotutako elementuak zituen ikurri bat erakutsi zen. Horrela, gure herriak kultura aldetik dituen berezitasunen, gure ohituren eta euskararen balioa handitu zen.

2. ekimena EAeren interes turistikoa sustatzea, euskal diasporaren kolektibitate guztietan, bereziki hazkunde ekonomiko garrantzitsuak dituzten herrialdeetan kokaturik daudenak.

1.6.2 helburua. "Basque Country" marka turistikoa.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Nazioartean, noizean behin, euskal turismorako moduko preskriptoreekin lankidetzan aritu da eta haiekin topaketak egin dira, hauekin adibidez:

-Txileko, Mexikoko, AEBetako, Argentinako, Kolonbiako, Peruko, Bruselako eta euskal kolektiboetan agerpen garrantzitsua duten herrialdeetako eskualdeetako turismo arduradunekin.

-Euskal diaspora garrantzitsua izan duten eta **Euskal Etxeak** dituzten herrialdeetako **gobernuetako ordezkari**ekin. Sustapenerako materialak eman dira, eta batera gauzatzeko ekintzak diseinatu dira.

- SPRIren **bulegoak**, euskal diasporaren agerpen handiena duten herrialdeetan. Euskadirekin duen harreman komertzialari esker euskal turismorearen preskriptore garrantzitsua da, baia aisian bai negoziotan.

-Lankidetzak hitzarmena formalizatu da Basquetour-en eta Txilen, Mexikon, Argentinan eta AEBetan dagoen sukaldaritzariko **Grupo Sagardi** euskal enpresaren artean, Euskadiren gastronomia, kultura eta eskaintza turistikoa beste herrialde batzuetara zabaltzeko.

2. Gogor ari da lanean kanpo harremanetarako arloarekin, Euskal Etxe aktiboekin eta estrategikoenekin sare bat osatzeko eta, horrela, lan bikoitza egin dezaten lortzeko: alde batetik, kolektibitatea bera Euskadi norako izateko preskriptore izan behar da, sustraiei lotuta duten interesa oinarritzat hartuta; eta bestetik, Euskal Etxeek eman behar diete Euskadi norako turistiko izateko informazioa interesa duten pertsona guztiei.

3. 2014an eta 2015ean Buenos Airesko **Laurak Bat** Euskal Etxearekin lankidetzan aritu zen, eta Euskal Etxe horrek **Buenos Aires Celebra** ekitaldi garrantzitsuan parte hartu zuen. Hirian dauden kolektibitate guztiak bildu ziren ekitaldian.

4. Legegintzaldian zehar bilerak izan ditugu Eusko Jaurlaritzaren atzerriko ordezkariarekin (AEB, Mexiko, Txile, Peru, Kolonbia, Argentina-Mercosur, Madril, Brusela), haien lankidetzak koordinatzeko Euskadiren turismo-sustapenean.

3. ekimena. Turismoko ordezkariak duten erakundeetan parte hartzeari bultzada ematea.

1.6.2 helburua. "Basque Country" marka turistikoa.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko urrian, Euskadi Basque Country marka sendotzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak nazioarteko turismoari buruzko "Turismoa Europan: fluxu berriak erakartzen" jardunaldian parte hartu zuen. Europako Parlamentuan egin zen jardunaldi hori.
2. 2014an, Euskadi [Ecotrans](#) izeneko turismo sare iraunkorrean sartu zen; sare horretan kide gisa onartutako Europako lehenengo eskualdea izan zen. Urte horretan, Europako [Enterprise Experience Programme](#) programaren barruan, Europako Batzordeko Enpresa Turistikoen eta Kulturalen Unitateko zuzendariak Euskadi bisitatu zuen, euskal turismo sektore publikoaren nahiz pribatuaren balio-katea ezagutzeko.
3. Eusko Jaurlaritzak Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren turismoko zuzendari nagusien **mahai-inguruan** parte hartu du, jarduera turistikoari lotutako gaiak eztabaidatzeko eta horien gainean erabakitzeko. Zuzendaritza hori Estatuko Administrazioaren eta autonomia-erkidegoen arteko bitartekaria da. Era berean, gainerako erkidegoekin batera, Bidaia Agentzien eta turismo erabilerarako etxebizitzaren lantaldeetan ari da lanean.
4. 2015ean, Munduko Turismo Erakundearekin eta Basque Culinary Center-ekin lankidetzan, Eusko Jaurlaritzak Turismo Gastronomikoaren Munduko I. **Biltzarrean** parte hartu zuen. Biltzarra Donostian egin zen.
5. 2015ean, Eusko Jaurlaritzak eta Turismo Arduratsuen Institutuak Konpromiso Gutuna sinatu zuten; horren bidez, turismo iraunkorra egiaztatzen duen **Certificación Biosphere** ziurtagiri lortzeko lanean hasi dan Euskadi.
6. Modu oso aktiboan lagundu da [Arku atlantikoan](#) sartuta dauden turismo foroetan, baita Akitania-Euskadi [Euroeskualdearen](#) lantaldean ere. Gainera, modu koordinatuan lan egin da [NecsTour](#) sarearekin, bai haren lantaldeetan bai zuzendaritzan, [Euromeeting](#) delakoaren bitartez.
7. Ekitaldiak antolatzeke asmoz, etengabe egon da elkarlanean Munduko Turismo Erakundearekin. Izan ere, 2016ko urtarrilean Munduko Turismo Erakundeke ordezkariak turismo iraunkorraren **Basque Country+20** Mundu Gutuna jaso zuten. 2015eko azaroan azaldu zuen Lehendakariak.

4. ekimena. Turismo gaiari dagokienez, nazioarteko lankidetzak loturak ezartzen laguntzea gure helmugaren antzekoak diren lekuetan.

1.6.2 helburua. "Basque Country" marka turistikoa.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Frantziatik etorritako turismoak % 45 egin du gora azken bost urteetan; dagoeneko Euskadira datozen pertsona guztien % 15,2 da. Beraz, euskal sektore turistikoan merkatu nagusia hori da. Hori dela eta, Frantziako turismo erakundeek eta Iparraldekoek lankidetzak estua dute:

-Basquetour eta Bearn-Pays Basque departamentuko turismo batzordea 2015. urteaz gero lankidetzan ari dira; **hautagaitza bakarra dute** Europako Poctefako laguntzak jasotzeko. Horrez gain, [Itourbask-ek](#), [Basquetour-ek](#) eta Eusko Jaurlaritzak osatzen duten turismoko bulegoen sareak lan-bilerak egin ditu Iparraldeko bulegoen sarearekin, aukera ona izan delako harremanak estutzeko eta sektore horretan negozio-aukera berriak sortzeko.

-2015eko maiatzean, Eusko Jaurlaritzak **Monein-en** antolatutako jardueretan parte hartu zuen. Nafarroako, Pirinio Atlantikoetako eta Aragoiko sektoreko ordezkariekin lan egin zen. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak eta Bearn-Pays Basque-ko turismo batzordeak **lankidetzak hitzarmena** sinatu zuten, lehentasunezko merkatuetan bien turismoa batera sustatzeko.

-Euskadik eta Iparraldeko elkarrenganako harremana dute, [Basquetour-en](#) eta **Béarn Pyrénées-en** atarien bitartez. Era berean, bi eskualde horiek **baterako sustapenak** egin dituzte Madrilen (Fitur), Euskadi - Pays Basqueren sustapena egin dute Madrilen (Fitur) eta Parisen, eta sektoreari lotutako beste ekitaldi batzuetan ere batera parte hartu dute; adibidez, 2014. urtean, Logis elkarteko sukaldariekin esperientzia gastronomikoa egin zuten [Angelun](#).

2. Frantziarekin eta Iparralderekin ez ezik, Eusko Jaurlaritzak jardun bizia egin du merkatu berriak irekitzeko helburuarekin. Esaterako, **Visit Scotland**-ekin lankidetzan aritu da. Bi norakoen arteko hegazkin bidezko konexioez aritu dira, eta jardun onak trukatzeko asmoa azaldu diote elkarri 2015ean Donostian egin zen turismo enogastronomikoaren II. **Nazioarteko Foroan**.

3. Era berean, Kroaziako Turismo Ministerioaren ordezkariekin harremanetan egon da, turismoari lotutako esperientziak trukatzeko asmoz.

5. ekimena. Gure enpresa turistikoak nazioartekotzeko proiektuetan eta egitasmoetan laguntzea, jarduera turistikoa erakarri ahal izateko.

1.6.2 helburua. "Basque Country" marka turistikoa.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015eko urrian [Meet Basque Country](#) topaketa egin zen Euskadin. Mundu osoko 55 bidaiia-agentzia eta EAEko 700 enpresa baino gehiago batu ziren han. Topaketari esker, Euskadi Basque Country markaren posizionamendua indartu zen.

2. Lufthansa-rekin elkarlanean, Basquetour 2014an egin zen [Baskenland](#) sustapen berezian egon zen, Munich-eko aireportuan. Agendan, besteak beste, informazio turistikoa, dastatze gastronomikoak eta aurkezpenak egon ziren.

3. Basque Country eta BTT Euskadi zentroen norakoa bultzatzeko asmoz, Basquetourrek txirrindularitzari lotutako gertakari batzuk lagundu ditu. Sektorean erreferentzia den [Eurobike](#) azoka lagundu du, adibidez; [Orbea](#) euskal enpresa 2015az gero dago azoka horretan, produktuak erakusteko eta Euskadi [Bbt Euskadi](#) ibilbide desberdinen bidez bultzatzeko. Antzekoa den [Bibe](#) (Bilbao International Bike Exhibition) gertaera ere lagundu zen; lehiaketa honek txirrinduen erreferentziako azoka izan nahi du.

4. Spri-k ere laguntzen du horretan, gainera; atzerriko enpresetako ordezkariak bisitak egiten dituzte eta EAEko ordezkariak bidaiak egiten dituzte. Argentina, Txile, Peru eta Mexiko herrialdeek eta Idahok (AEB) gure turismo berrikuntzako eremuan interesa dute, [Mice](#) turismo norako edo xede gisa ikusten gaituzte. Ondorioz, EAEko enpresa asko herrialde horietara joan dira bisitan, [gure turismo eredua](#) ezartzera edo horri buruzko aholkuak ematera. Gainera, Spri enpresa horiei laguntzen die nazioarteko azoketan: [World Travel Market](#) (Londres), [Itb](#) (Berlin), etab.

5. Basquetourrek [Habic-ekin](#) (EAEko ekipamenduaren, zuraren eta diseinuaren klusterra) lankidetzan lan egin du, sektoreko nazioarteko profesionalen zuzenduta dauden ekintzak antolatuz, atzerrian (Bordele) nahiz Euskadin. Bestalde, Silken hotelen kateak eta Basquetourrek Euskadi MICE modura sustatzeko [baterako ekimena](#) egin zuten 2014an Alemanian, batez ere Berlin, Dusseldorf eta Koloniako ekitaldien agentzia nagusien bitartez.

6. ekimena. "Euskadi" marka nazioarteko foroetan, bilguneetan eta azoketan bultzatzea, Euskadi - Basque Country nazioartekotzeko estrategia aintzakotzat hartuz.

1.6.2 helburua. "Basque Country" marka turistikoa.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea).

Jarduketak

1. Basque Country estrategia bultzatzeko asmoz, esparru horretako nazioarteko foroak erakarri dira Euskadira: turismo iraunkorraren [Munduko Konferentzia](#), bidaia-agentzien III. [Munduko Konferentzia](#) eta [I. Meet Basque Country](#). Gainera, Euskadi nazioarteko azoka espezializatueta egon da: [Ultra Trail](#) (Chamonix), [Eurobike](#), [Flets en Wandelbeurs](#), [Vinexpo](#), [Burdeos so good](#), etab.

2. Euskadik bere estanda izan du, bestalde, turismoari buruzko azoka nagusienetan: WTM, Toulousen; [Fitur](#), Madrilen; [Eibm](#), Bartzelonan; [Berlin](#), [Munich](#), [Cannes](#), Amberes eta [New York](#). Azken azoka hori [New York Times](#)-ek antolatu zuen, eta adituenen artean balorazio oso ona izan zuen.

3. Gurutzaldiei lotutako turismoak ere izan du interesa; adibidez, Miami [Gurutzaldien azokan](#) parte hartu da, [New Yorkeko Spri](#)-ren bulegoarekin elkarlanean, zuzenean ezagutu ahal izateko gurutzontzien inguruan dagoen negozioa eta, horrez gain, [Bilbao Port](#) eta [Pasaia](#)ko Portuarekin batera lanerako estrategia bat ezarri ahal izateko.

4. Eusko Jaurlaritzak oraindik laguntzen die nazioarteko proiektzioa duten enpresei, klusterrei eta elkarteei; denek batera Euskadi marka bultzatzea da helburua. Izan ere, [Milango](#) diseinuaren azokan parte hartu da [Habic](#)-ekin batera. Bestalde, Jaurlaritzaren beste erakunde batzuekin ere lan egin da, [Ihobe](#), SA-rekin esaterako (EAEko Ingurumena Jarduketarako Sozietate Publikoa), Euskadi marka atzerrian posizionatu dezaketen nazioarteko biltzarrak erakartzeko asmoz.

5. Legegintzaldian zehar, Eusko Jaurlaritzak nekazaritzako elikagaien nazioarteko azoketan lagundu du, [Euskadi Gastronomika](#) markaren bitartez; helburua da Euskadi munduko erreferente izatea turismo enogastronomikoan. Honako hauek dira azoka horietako batzuk: [Alimentaria Gourmet](#), [Dusseldorf](#), turismo gastronomikoaren [I. Munduko Foroa](#), Gasteizko turismo iraunkorrerako [Summer School](#), bidaia-agentzien III. [Munduko Konferentzia](#), etab.

7. ekimena. Kontsumo turistikorako potentzialtasun handiagoa duten merkatuei hurbiltzen laguntzea eta helmuga horietan bazkideak lortzea.

1.6.2 helburua. "Basque Country" marka turistikoa.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, Euskadi norakoa Bartzelonan erakutsi zen, Euskadi Basque Country ospatu baitzen bertan. Helburua izan zen [basque style](#) izenekoa edo Euskadi norakoa bultzatzea. EAeko eta Kataluniako enpresaburuen artean merkaturatzeari buruzko jardunaldi bat egin da; bestalde, Bartzelonako surfaren profesionalekin eta komertzioekin topaketa egin zen, gure surfari eta kostaldeari lotutako eskaintza ezagutu zezaten.

2. [Marketin Plana 2014-2017](#) 2013an egin zen, baina 2014-04-10ean aurkeztu zen honako herrialde hauen enbaxadetako ordezkarien aurrean: Frantzia, Alemania, Herbehereak, Belgika, Italia, Norvegia, Suedia eta Finlandia. Aurkezpena Eusko Jaurlaritzaren Madrilgo ordezkarietan egin zen.

3. Lufthansa-rekin elkarlanean eta Be Basque Baskenland leloarekin, Basquetour Munich-eko aireportuko [Baskenland](#) sustapen berezira joan zen 2014 eta 2015 urteetan. Sustapenean Euskadiri buruzko turismo eta enpresa informazioa eman zen; [Afterwork gaia eta Showcooking Vip](#) izan ziren Viktualienmarkt merkatuan egin zen aurkezpena honako hauen aurrean: 30 bidaia-agentzia eta turoperadore, komunikabide ugari, eta EAeko eta Alemaniako erakundeetako ordezkariak.

4. EAeko ordezkari batzuk Oslora joan ziren 2014an, turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko jardunaldian (Kulinarisk Akademi Hovedavdeling) parte hartzera. Basquetourrek antolatu zuen jardunaldia, eta horri esker merkatua sendotu zen: 2011z gero % 11,6 hazi da (Frontur-en datuak). Erakunde ordezkariekin batera, 10 entitatek eta enpresa publikok eta pribatuk ere parte hartu zuten. Euskadi Basque Country norako moduan kokatzeko lankidetzak publiko eta pribatu izugarria izan zen. Harreman komertzial berriak egin ziren, eta Bilbo eta Osloren arteko aireko konexioak eman zituzten ezagutzera Norwegian, Brussel Airlines eta Klm konpainiek.

5. 2014an, Euskadi [Amsterdam-ra](#) joan zen turismo xede moduan aurkeztera. Horretarako workshop bat egin zen. EAeko 10 enpresa, Holandako 40 enpresa baino gehiago eta 15 kazetari espezializatu izan ziren bertan.

6. Frantzia, Alemanian eta Britainia Handian ordezkariak duten enpresekin urtebetez lan egin ostean, emaitza onekin gainera, 2016an Ameriketako Estatu Batuetan ordezkariak duen agentzia bat kontratatu nahi da. Horregatik da garrantzitsua lankidetzan jarraitzea SPRIren bulegoekin, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariarekin, Turespañako bulegoekin eta modu aktiboan elkarlanean gabiltzan elkarte profesionalekin eta komunikabideekin.

8. ekimena. Sustapen ekintzak birdimentsionatzea, Euskadiren eskaintzarako funtsezkoak diren esparru eta inguruneetan indartuta, eta turismo helmugak ezagutzeko aldebiko programak garatzea.

1.6.2 helburua. "Basque Country" marka turistikoa.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, 20 **Presstrip** (prentsa espezializatuarentzako bidaiak) baino gehiago antolatu ziren: UK (The Guardia), India (blog gastronomikoak), Turkia, Italia (La Stampa), Portugal (Evasoes), AEB (Saveur aldizkaria). Besteak beste Belgika, Holanda eta Japoniako MICE agenteekin 30 **Famtrip** baino gehiago antolatu ziren.

2. 2013an Euskadi Gastronomikoa **aurkeztu zen** Madrilen eta Bartzelonan. 2013an, Euskadi norakoa Bartzelonan erakutsi zen, **Euskadi Basque Country** ospatu baitzen bertan. Helburua izan zen **basque style** izenekoa edo Euskadi norakoaren berezitasuna bultzatzea. EAeko eta Kataluniako enpresaburuaren artean merkaturatzeari buruzko jardunaldi bat egin da; bestalde, Bartzelonako surfaren profesionalekin eta komertzioekin topaketa egin zen, gure surfari eta kostaldeari lotutako eskaintza ezagutu zezaten.

3. 2015ean, Euskadi Berlinaleko **Culinary Zinema**-n egon zen; "Campo a Través" dokumentala aurkeztu zen, eta Euskadi aurkeztu zitzaizen gastronomiako kazetari alemaniarrei.

4. En mayo de 2015, el Gobierno vasco participó en las actividades organizadas en **Monein**-en lan egin zen, Nafarroako, Pirinio Atlantikoko eta Aragoiko sektoreko ordezkariekin batera. Ondorioz, Bearn-Pays Basque-ko turismo batzordearekin **lankidetzaren hitzarmena** sinatu zen, lehentasunezko merkatuetan bien turismoa batera sustatzeko.

5. Basque Country eta BTT Euskadi zentroen norakoa bultzatzeko asmoz, **Basketourrek** txirrindularitzari lotutako gertakari batzuk lagundu ditu. Sektorean erreferentzia den **Eurobike** azoka lagundu du, adibidez; **Orbea** euskal enpresa 2015az gero dago azoka horretan, produktuak erakusteko eta Euskadi **Bbt Euskadi** ibilbide desberdinen bidez bultzatzeko. Azokan 14 erakusketa-esparru izan ziren. Guztira 111 herrialdetako 46.300 bisitari joan ziren, baita 21.000 bike-fan eta 46 herrialdetako 1.800 kazetari ere. **Basquetourrek** antzekoa den **Bibe** (Bilbao International Bike Exhibition) gertaera ere lagundu zuen; lehiaketa honek txirrinduen erreferentziako azoka izan nahi du.

6. 2016an, Euskadi Basque Country hurrenez hurreneko bigarren urtean ere egon zen Ameriketako Estatu Batuetako azoka handi eta zaharrenean: **The New York Times Travel Show**. Profesionalei eta azken hartzaileei zuzenduta dago. 2015ean, erakusketari eta 30.000 bisitari baino gehiago izan ziren.

7. Ordezkaritza agentziak edukita errazagoa da merkatuak ezagutzeko eta, halaber, gure agerpena merkatu horietako bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea. Hori kontuan hartuta, nazioarteko honako azoka hauetan agerpen aktiboa izan da: Londres **Wtm**, **Itb-Berlin**, Munich-**Free**, Dublin-**Holiday World**, Paris-**Map**, Las Vegas-**Virtuoso**, **Salon de Vacances**-Brusela, Utrecht- **Vakantiebeurs**, Italia-Rimini, Munich-**Mitt**, Toulouse-**Mahana**, Mosku-**Mit**. Eta Estatuko azoketan: Madrilen **Fitur**, Bartzelonan **Eibtm**, eta Donostian **Sevatur**.

9. ekimena. Basque Country bultzatzea Euskal Herri osoko xede turistiko eta kultural bakar moduan.

1.6.2 helburua. "Basque Country" marka turistikoa.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Basquetour, Bearn-Pays Basque departamentuko turismo batzordea eta Nafarroako Turismo Departamentua 2015. urtetik dabilta elkarlanean, turismoari lotutako produktuak inbentariatzen eta koordinatzen.
2. Ildo horretan, Basquetourrek eta Bearn-Pays Basque departamentuko turismo batzordeak 2015. urteaz gero **hautagaitza bakarra** dute Europako Poctefako laguntzak jasotzeko. Gainera, bi erakundeek lankidetzak hitzarmena sinatu zuten, sektoreen artean esperientziak batzeko eta, batez ere, Pays Basque -Euskadi norakoa batera sustatzeko Parisen eta Madrilen.
3. 2015eko maiatzean, Eusko Jaurlaritzak **Monein-en** antolatutako jardueretan parte hartu zuen. Nafarroako, Pirinio Atlantikoetako eta Aragoiko sektoreko ordezkariekin lan egin zen. Ondorioz, Bearn-Pays Basque-ko turismo batzordearekin **lankidetzak hitzarmena** sinatu zen, lehentasunezko merkatuetan bien turismoa batera sustatzeko.
4. EAEko Turismoko Plan Estrategikoa 2020 delakoan jasotakoaren arabera, Frantziak 16.500.000.- pertsonadun merkatu potentziala du. Horrenbestez, Basquetourrek **kanpaina** bat abiarazi zuen 2014an Frantziako hego-mendebaldean. Frantziako egoiliarrei eta turistei zuzenduta egon da kanpaina hori, batez ere Pariseko; 320.000.- euroko aurrekontua izan du. Kanpainan askotariko baliabideak erabili ziren (Internet, mailina, prentsa eta aldizkariak, kanporako baliabideak eta street marketina), baita Interneteko bilatzaileak eta **sustapen ekintzak** ere. Izan ere, "road show" delakoa edo turismo bus-bulego ibiltaria jarri zen.

1. ekimena. Turismoko produktu lehiakorren sorrera sustatzea.

1.6.3 helburua. Laguntza turismo sektoreari

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzak sektoreko enpresekin lankidetzak aktibora izateko sistema bat bultzatu du. Horren bidez, turismorako produktu berritzaileak, lehiakorrak eta erakargarriak sortu nahi dira. Merkatuaren irizpideak eta bezeroaren profila kontuan hartuta diseinatu da, eta horri esker produktuaren eskaintza hobeto zehaztu ahal izango da.

2. 2013an sortu zen [Surfing Euskadi Produktu Kluba](#), sektorean aitzindaria berau. 62 enpresa baino gehiagorekin, [entitate horrek](#) surfari lotuta dauden turismo produktuak sortzen ditu. Helburua, betiere, Euskadin sektore hori sendotzea eta, era berean, beste urtaro batzuetara zabaltzea da.

3. 2013an eta 2014an [Euskadi Gastronomika](#) bultzatzeko jarduerak egin ziren **Madriilen eta Bartzelonan**. Izan ere, xede horrekin Euskadi Gastronomika 18 [produktu klub](#) sortu ziren. 800 enpresak baino gehiagok parte hartzen dute turismoari lotutako produktu lehiakorren diseinuan, Euskadi turismo gastronomikoaren esparruan liderra eta xede nagusi izan dadin.

4. Legegintzaldi honetan apustu berezia egin da gastronomia, surfa edo natura bezalako produktu turistikoak berritzeko. Halaber, sektorearen esparru berrietan lan egiten ari da: familia turismoa, ibilbideak eta mitologia, ongizatea, etab. 2015ean Donostian egin zen Euskal Kostaldeko Turismo Profesionalen eta Agenteen [II. Topaketa](#) da horren adibide; topaketan inguru horretako agenteen arteko lankidetzak sendotu zen.

5. 2015ean, gainera, [II LET'S MICE](#) egin zen Donostian, pizgarrien turismoaren eskaintza lehiakorra sortzeko asmoz.

6. Turismoko 2015eko laguntzen programak bi ardatz izan zituen:

a) [Turismo enpresak modernizatzen eta haien lehiakortasuna hobetzen laguntzeko programa](#). Turismo eskaintza kalitatezkoa eta lehiakorra sortzea du helburu, eta ezartzen dituen neurrietako bat da enpresen eta bezeroen arteko elkarreragina hobetuko duten komunikazio-tresna berriak ezarri beharra. Bestalde, turismoari lotutako enpresa, zerbitzu eta produktu berritzaile berriak ere sortu nahi ditu. Baina horretarako, gizarte, ekonomia eta ingurumen iraunkortasunerako irizpideak bete behar dira. ETEei, enpresaburu autonomoei eta sozietate zibilei zuzenduta dago. 2013an 754.660.- €-ko hornidura izan zuen, 2014an 750.000.- €-koa eta 2015ean 700.000.- €-koa.

b) [Lurraldeko turismo proiektuei laguntzeko programa](#). Programa horren helburuak dira: Euskadiko xedeak erakargarriagoak eta kalitate handiagokoak izatea eta turismo fluxu berriak sortzea, baina betiere kalitatea, lehiakortasuna, berrikuntza eta iraunkortasuna bezalako irizpideak betez. Udalei, erakunde autonomoei, tokiko enpresa entitateei, merkataritzako sozietate publikoei eta beste entitate eta elkarte batzuei dago zuzenduta (2015ean 1.280.000.- €).

2. ekimena. Jarduera turistikoaren eremuan ekimen berritzaileak sustatzea eta abiaraztea.

1.6.3 helburua. Laguntza turismo sektoreari.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar, [394 enpresak](#) parte hartu zuten turismoaren lehiakortasunari lotutako programetan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKTen) erabilerarako [Jardun onen programaren](#) bidez.

2. I+G+B esparruan [Berrikuntzaren eta jardun onen katalogoa](#) egin da zentro teknologikoekin elkarlanean. Helburua turismoari lotutako enpresei orientazioa ematea eta horiek suspertzea da, turismoaren eskaintza zabal eta hobetu dezaketen ekimen berriak susta ditzaten.

3. Basquetour-ek etengabeko prestakuntza ematen die turismoari lotutako EAeko enpresei; marketing estrategia berriak eskaintzen dizkie, baita merkatu potentzial berriei buruzko informazioa ere. Adibidez, Txinako eta Brasilgo merkatuak ezagutzeko prestakuntza jardunaldiak egin dira, aipatu profiei egokitzen zaien Euskadi MICE xede gisa eskaintza diseinatu ahal izateko.

4. Esparru horretako 2015eko laguntzen programak bi ardatz izan zituen:

a) [Turismo enpresak modernizatzen eta haien lehiakortasuna hobetzen laguntzeko programa](#). Turismo eskaintza kalitatezkoa eta lehiakorra sortzea du helburu, eta ezartzen dituen neurrietako bat da enpresen eta bezeroen arteko elkarreragina hobetuko duten komunikazio-tresna berriak ezarri beharra. Bestalde, turismoari lotutako enpresa, zerbitzu eta produktu berritzaile berriak ere sortu nahi ditu. Baina horretarako, gizarte, ekonomia eta ingurumen iraunkortasunerako irizpideak bete behar dira. ETEei, enpresaburu autonomoei eta sozietate zibilei zuzenduta dago. 2013an 754.660.- €-ko hornidura izan zuen, 2014an 750.000.- €-koa eta 2015ean 700.000.- €-koa.

b) [Lurraldeko turismo proiektuei laguntzeko programa](#). Programa horren helburuak dira: Euskadiko xedeak erakargarriagoak eta kalitate handiagokoak izatea eta turismo fluxu berriak sortzea, baina betiere kalitatea, lehiakortasuna, berrikuntza eta iraunkortasuna bezalako irizpideak betez. Udalei, erakunde autonomoei, tokiko enpresa entitateei, merkataritzako sozietate publikoei eta beste entitate eta elkarte batzuei dago zuzenduta (2015ean 1.280.000.- €).

3. ekimena. Sektorearen profesionalizazioa sustatzea eta turismoaren lanbideak babestea.

1.6.3 helburua. Laguntza turismo sektoreari.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Euskadiko Behatoki Turistikoari](#) esker, EAEko turismoaren sektoreak informazio eguneratu jasotzen du EAEko turismo jardueraren bilakaerari buruz. Horrela, negozio mota horien inguruko erabakiak hartzeko baliabideak ditu.

2. 2014ko ekainean [Turismoaren Iraupenerako I. Jardunaldia](#). Basquetour-ek, Ihobe, SAK eta Energiaren Euskal Erakundeak antolatu zuten, “Ingurumenarekiko iraunkortasun turistikoan aurrerapausoak ematen” leloarekin. Helburua izan zen EAEko turismo arloko enpresei ingurumenaren iraunkortasunari buruzko orientazioa ematea. Hiru entitate horiek, bestalde, badute beste helburu bat ere: EAEko ahalik eta enpresa gehienek lortzea Europako [Ekoetiketa](#). 2015ean, EAEko 15 enpresak hasi zuten prozesu hori.

3. 2014an gero abian da [Enpresak Eskualdatzeko Programa](#) (Berriz Enpresa), Eusko Jaurlaritzaren eta merkataritzako hiru ganberen lankidetzari esker. Programaren bidez, hain zuzen, merkataritza eta turismo sektoreko enpresak eskualdatzeko planak abiarazi nahi dira. Laguntzak emateaz gainera, prozesu osoan zehar laguntzen du, negozioak bizirik jarraitzea eta lanpostuak mantentzea ziurtatzeko. 2014an, Gasteizko, Berangoko, Getxoko, Sopelako eta Tolosaldeko enpresak izan ziren programa horren onuradun (metodologia, prestakuntza, sentsibilizazioa, komunikazioa...). 2015ean Euskadi osora zabaldu zen.

4. Oraindik abian dira [Jardun onen Sicted proiektua](#) eta [Teknologia berrien proiektua](#). 2014. urtean 875 eta 140 pertsona izan ziren, hurrenez hurren, proiektu horien onuradun. Horien adibide dira, Busturialdean egin zen web 2.0ari buruzko ikastaroa edo Arabako Errioxan marketingari buruz egin zen *online* ikastaroa. 2016ko martxoan eman ziren 2015. urteko ziurtagiriak.

5. [Turismo enpresak modernizatzen eta haien lehiakortasuna hobetzen laguntzeko programa](#). Turismo eskaintza kalitatezkoa eta lehiakorra sortzea du helburu, eta ezartzen dituen neurrietako bat da enpresen eta bezeroen arteko elkarreragina hobetuko duten komunikazio-tresna berriak ezarri beharra. Bestalde, turismoari lotutako enpresa, zerbitzu eta produktu berritzaile berriak ere sortu nahi ditu. Baina horretarako, gizarte, ekonomia eta ingurumen iraunkortasunerako irizpideak bete behar dira. ETEei, enpresaburu autonomoei eta sozietate zibilei zuzenduta dago. 2013an 754.660.- €-ko hornidura izan zuen, 2014an 750.000.- €-koa eta 2015ean 700.000.- €-koa.

6. Turismoko profesionalak aitortuko dituzten [ziurtagiri eredu bat](#) eta gaitasun eredu bat izateko lan egiten ari da. Gainera, 2015an, merkataritzako eta ostalaritzako jarduera ekonomikoen zentsua sortu zen, jarduera horrek benetako aitortpena izan zezan hiru lurraldeetan. Hurrengo urratsa [Giscom-Euskadi Sistema](#) abiaraztea zen, eta horretarako merkataritzako estrategia berria garatu behar da EAEko udalerrietan.

7. Kataluniako Generalitat-arekin lankidetzan jardun onen programak garatu dira, bai [belaunaldi txandakatzeari eta enpresen eskualdatzeari dagokienez](#), baita turismoari lotuta ere.

4. ekimena. Turismoko baliabideak Euskadira erakartzea.

1.6.3 helburua. Laguntza turismo sektoreari.

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Baliabide berriak edo gertakari eragileak erakartzea garrantzitsua da, baina baita dagoeneko daudenei balio handiagoa ematea ere. Euskadin hainbat baliabide daude, nahikoa bultzatu ez direnak edo kudeatzean arazoak ematen dituztenak. Horri lotuta, gaur egun daukaguna bultzatzen ari da, horrek eragin ekonomikoa izan dezan lurraldean.
2. Erakundeak elkarlanean ari dira etengabe, gure lurraldera turismoa ekarriko duten kultura edo kirol esparruetako ekintzak laguntzeko. Baterako hautagaitzak egin dira, eta enpresa sustatzaile pribatuekin lankidetzan osoan ari da.
3. Eta baliabide turistikoak erakartzeko lankidetzan horren emaitza dira, alde batetik, [Donostia 2016](#) Europako Hiriburua, eta bestetik, Guggenheim Fundazioak eta Bilboko museoak 2014ko abenduan sinatu zuten 20 urterako **akordioa**.
4. Aurrekontuen eta administrazio bitartekarien erakarpina eta egokitzapena kudeatu da, turismoaren eskaria haien kabuz dinamizatzeko eta enplegua sortzeko gai diren turismoko baliabideak koka daitezten. Gaur egun dauden turismo baliabideak sendotzeko ahalegin bereziak egin dira, baina baliabide berriak sortzeko aukera baztertu gabe. Horretarako, baliabideak kudeatu eta horien sustapena hobetu da. Hots, baliabide horiei lotutako produktu turistikoak sortu dira, nabarmentzeko eta errazago bultzatzeko. Dena den, lehiakortasuna hobetzen lagun dezaketen negozio-aukera berriak aztertzen jarraitzen da.

1. ekimena. EAEko eskaintza turistikorako merkatu objektiboak zehatzago definitzea, bai eta identifikatutako merkatuetan sustapen eta merkaturatze lana egiteko estrategiak ere.

1.6.4 helburua. Turismo jardueraren kudeaketa eraginkorra

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Marketing Plana 2014-2017](#) izenekoan ezarritakoarekin aurrera egin da. Plan horretan, merkatuak potentzialaren eta lantzen dituzten produktuen arabera sailkatzen dira. Legegintzaldian zehar lehentasunezko hiru merkatuetan esku hartu da. Sustapen baliabide zehatzak eta *ad hoc* baliabide ekonomikoak erabili dira. Horrez gain, ordezkaritza-agentziak kontratatu dira. Gaur egun, gero eta garrantzitsuagoak diren bigarren mailako merkatuetan (Ameriketako Estatu Batuetan, adibidez) ari da lanean.

2. [Basquetour-ek errepideen mapa](#) argitaratu zuen 2014ko irailean. Bertan, 10 plan edo esperientzia onenak jasotzen ziren, baita Euskadira datozen bidaiariak ezinbestean ikusi beharreko 10 leku garrantzitsuenak ere. Esperientzien mapa bat ere badago barruan; 50 esperientzia onenen zerrenda jasotzen du.

3. Berriz sakondu da gure bisitariak dakitenaren gainean; hori jakiteko azterlan garrantzitsuak egin dira. Horregatik, Basquetour-ek bi urtean behingo [Ibiltur Ocio](#) eta [Ibiltur Mice](#) ekitaldiak Famtrips eta Presstrips izenekoekin koordinatu ditu.

4. 2014ko martxoan onartu zen [EAEko Turismoko Plan Estrategikoa 2020](#) planaren barruan [I. Marketing Plana 2014-2017](#) egin da, merkatuak definitzeko eta sustapenari eta merkaturatzeari lotutako estrategiak ezartzeko asmoz.

1. ekimena. Eskaintza turistikoaren merkaturatzea sendotzea ohiko formatuen bitartez nahiz proposamen berritzaileen bitartez.

1.6.5 helburua. Produktu turistikoa merkaturatzea

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea).

Jarduketak

1. 2013. urtean merkaturatzen hasi ziren produktu eta esperientzia turistikoek gero eta onarpen handiagoa dute; beraz, merkaturatzeko aukera berriak bilatu behar dira. Izan ere, gaur egun fidelizazio-programek, bidaiaria-agentziek eta plataformak opari-sortak eta abar eskaintzen dituzte. Gainera, nazioarteko turoperadoreekin lan egin da zentzu horretan, eta azkenean lortu da Euskadi haietako turoperadore garrantzitsu (Jet Air adibidez) batzuen eskaintzetan agertzea.

2. Prozesua 2014an hasi zen, ekintza desberdinekin.

a) Akordioa Info-Tactile enpresarekin, esperientzien eskaintza osoa dagoeneko erabiltzen diren euskarrietan jartzeko, 3 hiriburu-tako hotel garrantzitsuenetako sarreran eta Biasteriko turismo bulegoan.

b) 2014an lankidetzak Grupo Silkenekin, Euskadin egonaldia erreserbatu duten bezeroei esperientzia-eskaintza baten gaineko informazioa eman dezan. Banner bat jarri da erreserbatu-eremuetan, eta bidaiaria ostean posta-mezua bidali zen.

c) Produktuaren banaketa estatuko agentzien eta turoperadoreen artean. Esperientziak merkaturatzeko adjudikazioa zuen Viajes Azul Marino agentziaren bitartez, esperientzia batzuk sartu ziren Nervión Travel katalogoan. Aurkezpenak egin ziren Madrilen, Bartzelonan, Palma de Mallorcan, Tenerifen, A Coruña, Valentzian, Sevillan, Santanderren, Valladoliden eta Bilbon.

d) Esperientzien eskaintza turistikoa sartu Gou Euskadi izeneko produktuan (saltokietako posta txartelak), baita Opari box opari kutxetan. "Euskadi Esencial" edo eredu eksklusiboa sartu da Eroski Club, Kutxabank eta abarren fidelizazio programetako eskaintzetan.

e) 2014an Proiektu pilotu bat ezarri da Euskadin, Aste Santuan xedeko plan eta esperientzia turistikoak saltzeko hoteletan, landa turismoetan eta turismo bulegoetan. Euskarri horren bidez erreserbak egin zitezkeen, eta proposamenak, ekintzak, bisitatze moduko tokiak... kontsultatu zitezkeen. Informazioa App euskarrian ere prestatu zen.

3. Turismo webetik merkaturatu ziren produktuez gainera, 2015ean tarteko propaganda atera zen, aldizka, komunikabideetan. Merkaturatzeko moduko esperientzia turistikoaren eskaintzak egin ziren. Bestalde, Euskadiko ostalduarekin lankidetzan, esperientzia turistikoaren sustapenak ere egin ziren.

4. Basque experiences atariaren bitartez, Basketour-ek esperientziak online saltzeko aukera eman zuen, baita Euskadi Gastronomika izenekoan ere.

2. ekimena. Teknologia berrien sarbidea bultzatzea, eskaintza turistikoan proposamen baliotsu berriak sortzeko.

1.6.5 helburua. Produktu turistikoa merkaturatzea

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea).

Jarduketak

1. 2016an, [Enter 2016](#) biltzarra egin da Bilbon. Turismoari lotutako teknologiar buruzkoa izan da biltzarra, eta bertan, EAEko enpresa teknologikoen gure eskaintza turistikoa hobetzeko eta hari balio handiagoa emateko tresna eta aplikazio teknologikoen aurkeztu zituzten. Basquetour-ek enpresa haiek sortutako prototipoak aztertu eta erabili ditu, adibidez **Jokotur**.

2. Basquetour-en webgunea etengabe dago egokitzen, informazio-bilaketa errazago egiteko, kokatze digital sendoagoa lortzeko eta [Turismoko Plan Estrategikoa 2020](#) planean jasotakoa betetzeko.

a) 2014an webari definizio eta diseinu berriak eman zitzaizkion, Euskadi Turismo-ren Interneteko agerpena [Marketing Planean](#) zehazten den esparru estrategikora egokitzeko. Hemen aurkeztu zen: **Fitur 2015**.

b) Web bisuala eta mezu anitzekoa da. Bertan agertzen diren baliabideek ezinbestekotzat jotzen ditugunak azpimarratzen dituzte. Hizkuntza hurbila du, erabiltzailearen interesa pizteko asmoz; eta sinergiak sortzen ditu.

c) Era berean, Natura ataleko **edukien diseinuari** egitura berria eman zaio. Berrikuntzak sartu dira, hala nola: Btt Euskadi (protagonismo handiagoa); Bide berdeak eta parke naturalak; Pasealekuak (berriak); Ibilbide Handiak (GR38 eta GR283 barne); Inaziotar Bidea (landing berria); Euskal kostaldea eta Surfing Euskadi (baliabide berriak eta "surfing"-aren hastapenak dira ostatua bilatzeko irizpideak; klubeko ostatuen fitxetan, gainera, ikono berria sartu da).

3. Sare sozialei arreta berezia eman zaie; dinamizatu egin dira, batez ere [Twitter](#) eta [Facebook](#) sareetan. Visit Euskadi orrialdeak dagoeneko 100.000 jarraitzaile inguru ditu. Bertan jarritako bideoek harrera ona dute; adibidez, ["Herri Kirola & Folklorea"](#) bideoak 2.800.000 bisita baino gehiago izan zituen. *Remarket* edo marketing kanpaina berria abiarazi zen Facebook-erako. Kanpaina hori nazioartera begira egin zen eta merkatu jakin batzuk lehentasunezkoetat jo zituen: Frantzia, UK eta Alemania. Jarraitzaile kopurua bikoiztu zen horri esker.

4. [Turismoko Plan Estrategikoa 2020](#)ren barruan XXI. mendeko bulegoa sortu ari da, teknologiak informazioaren munduan daukan garrantziari erantzuteko asmoz. Bertan, tresna berriak egongo dira, app-ak esaterako, oso garrantzitsuak direlako interesdunen arreta lortzeko eta gero fidelizatuta edukitzeko.

5. 2015eko ekainetik, Euskadiko turismo bulego batzuek tabletak dituzte. Horiekin, bisitarien % 56,34aren beharrianak asetzen dira. Tableten aplikazioak, hasierako menuan, zuzeneko sarbideak ditu ["Basque Country Magazine"](#) aldizkari digitalera eta Euskadiko turismo atariko ["Euskadi Basque Country"](#) aplikaziora; gainera, udalerrri bakoitzeko turismo atarira birbideratzen du.

3. ekimena. Gure turismo baliabideen eskuragarritasunari laguntzea, pribatuak nahiz publikoak izanagatik ere.

1.6.5 helburua. Produktu turistikoa merkaturatzea

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga, (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an Jaurlearitzak turismo ostatuaren gaineko araudia onartu zuen, hutsune legala betetzeko eta sektorearen eskariari erantzuteko. Dekretu batzuk eman ziren, eta horien bidez turismoaren araudia eguneratu eta inguruabar berrietara egokitu zen.
2. Helburu hori kontuan hartuta, 2015ean enpresa pribatuentzako laguntzak sustatu ziren. Laguntzen helburua, hain zuzen, enpresa horien azpiegiturak [Euskadiko turismo irisgarritasunaren eredua](#) araudira egokitzea izan zen.
3. [EAEko Turismoko Plan Estrategikoa 2020](#)ren barruan, 4. helburu estrategikoak ekimen berezi bat du EAEko turismo irisgarritasunaren eredua kalitate turistikoaren kontzeptu zabalagora egokitzeko helburuarekin. Beraz, establezimenduen turismo irisgarritasuna zein den jakiteko azterketa eta diagnostikoa egingo dira; horrez gain, eta beharrezkoa bada, irisgarritasunaren label ziurtagiria egiaztatze laguntza teknikoa emango zaie langileei.
4. Dekretu baten eta agindu baten zirriborroak ari dira prestatzen, turismo ostatua ematen duten enpresen irisgarritasuna bereizteko xedez. Irisgarritasunari buruzko araudian ezarritakoez gainera, beste irizpide batzuk ere jasoko dituzte. Turismo Mahaiari aurkeztuko zaizkio zirriborroak. Gero, mahai horrek, sektoreko ordezkariak bilduko dituen Irisgarritasun Batzorde bat deituko du, eta irizpideak adostu eta araudiaren behin betiko testua zehaztuko dira.

1. ekimena. Lanbide turistikoetako graduondoko curriculumak eskarira eta merkatuen errealitatera orientatzeko eta bideratzeko aukerak sendotzea.

1.6.6 helburua. Sektorearen prestakuntza

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Deustuko Unibertsitateko Turismoko Gradu](#)ko ikasleek eta graduondokoetako ikasleek Basquetour-en egiten dituzte praktikak (curriculumekoak eta bestelakoak). Graduonoko ikasleek prestakuntza osoa jasotzen dute; hots, Basquetour-eko hiru esparruetan sartzen dira (lehiakortasunak, produktua eta marketinga). Ekitaldien gaineko graduondokoa egiten duten ikasleek MICE esparruan lan egiten dute. Halaber, estatuko turismo azoketan praktikak egiten dituzte.

2. Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzaren hitzarmena sinatu ostean, EAEn turismoko **jasate-ahalmena** aztertzen ari da. Datu objektiboak lortu nahi dira, jarduera turistikoko baliabideak modu arrazionalen erabili daitezkeen.

3. Alderdi biek beste lankidetzaren hitzarmen bat ere sinatuko dute, Bilboko eta Donostiako campus-etako ikasleen praktiketan aurrerapenak izateko. Izan ere, honako jarduera hauetan egingo da elkarlana:

- a) Turismoa sustatzeko eta horren gaineko informazioa emateko unean uneko jarduerak, hala nola: galak, aurkezpenak, azokak, merkaturatze-jardunaldiak, workshopak eta abar.
- b) Lankidetzaren [Itourbask](#) Euskadiko Turismo Bulegoen Sarearekin, Basquetour-ekin eta Eusko Jaurlaritzaren [Turismo Zuzendaritzarekin](#).
- c) *San Frantzisko Xabierkoa turismo jardunaldia* egitea. Jardunaldi horretan sektoreko ikasleek eta profesionalek parte hartzen dute. Gainera, Bilboko eta Donostiako campusetan ikasturtean egin diren bi praktika onenei saria ematen zaie.
- d) Trebatzeko bi bidaia, Bilboko eta Donostiako ikasleentzat. Horrela, Euskadin zein baliabide turistiko dauden eta turismoari lotuta zein esperientzia izan diren jakin ahal izango dute.
- e) Laguntza-poltsa bi sortu, gradu amaierako lan bi egiteko.
- f) Basquetour-ek antolatutako azoketan parte hartu, eta praktikak egin haren hiru esparruetan.

2. ekimena. Profesional turistikoak prestatzeko, motibatzeko eta birziklatzeko programa eta egitasmo berriak sustatzea, betiere sustatzaileei eta merkaturatzaileei zuzenduta.

1.6.6 helburua. Sektorearen prestakuntza

Arduraduna: Itziar Epalza Urquiaga (Merkataritzako eta Turismoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Turismoari lotuta produktu berriak sortzen direla kontuan hartuta, **ad hoc prestakuntza** eman zaie sektoreko profesionalari. Horrez gain, turisten, merkatuen edo portaeren gaineko prestakuntza ere eman zaie.

2. Euskadiko Prestakuntza Mapa ezagutzera eman ostean, turismoko prestakuntza-beharren katalogoeguneratua egin da.

3. Turismoko Plan Estrategikoa 2020 izenekoan, enpresak sendotzeko estrategiaren barruan, jasotzen da prestakuntza-beharren gaineko diagnostiko sakona egin behar dela; horretarako, hausnarketa egiteko eta eztabaidatzeko espazio bat sortu behar da. Horri lotuta, bilerak egin dira hauekin: Lanbide, unibertsitateak eta lanbide-heziketako ikastetxeak. Horrez gain, orain arte prestakuntzaren esparruan egin den lana aztertu da Basquetour-ekin.

1. ekimena. EAEko nekazaritzaren azpiarlo ekoizle nagusien lehiakortasuna handitzea, betiere ekonomia-, finantza- eta merkaturatze-kudeaketa hobetuz.

1.7.1 helburua. Ekoizpen-sektoreari laguntzea

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013. urtean nekazaritzako azpisektoreetako laburpen-fitxa mordo egin zen (esnetarako behi-azienda, haragitarako behi-azienda, patata, erremolatxa, esnetarako ardi-azienda, ardoa eta txakolina, baserriko arrautzak). Fitxa horiek [Landa Garapenerako Plana 2015-2020 \(LGP\)](#) eta Sailburuordetzak sustatutako plan sektorialak gauzatzeko oinarri izan dira, eta ekimena Nekazaritza Sektorearen Babes Integralerako Planaren barruan dago.

2. Haragitarako behi-azientaren sektorearen azterketa sakona egin zen 2014an, produktu hori merkaturatzeari begira, funtsean, giltzarri izan baita hala [LGP 2015-2020](#) plana egiteko nola [Nirea ekimenaren](#) esparruan kontuan hartu beharreko baldintzak finkatzeko.

3. 2014. urtean pentsu-fabriken bat-egiteen diagnostikoa egin zen, eta horren ildotik, azken buruan, industria-proiektu berri bat diseinatu da, lehen sektorea pentsu-fabrikekin lotzen duena.

4. Inplementazio-bidean dago [Ekoizpen Ekologikoaren Sustapenerako Plana 2015-2016](#), Nekazaritza Sektorearen Babes Integralerako Planaren barruan.

5. Eraberritzen eta indartzen ari da “[Euskal Baserri](#)” marka. Kalitate-ezaugarri horren erabilera abeltzaintzako produktueta hedatzen ari da.

6. Prestatzen ari da [Elikadura Katea Kontrolatzeko EAEko Plana-EKKP 2016-2020](#): behi-, ardi- eta zaldi-azientaren I+Bko kontrol-programak; albaitaritzako botiken erabilera zentzuduna; abereen elikadura eta landare-osasuna. EAEko Plana burutu aurretik, Nekazaritza Ministerioak onartu behar du EKKP 2016-2020 hori. Nolanahi ere, 2015eko programak eguneratuta daude eta gauzatzen ari dira.

7. Higiene- eta osasun-araudia [berrikustea eta 852/2004/EE Erregelamenduan](#) jasotako malgutzearen aplikazioa erregulatuko duen araudia prestatzea. Higiene- eta osasun-araudiaren erregelamendu teknikoak garatzea; Esnekien Erregelamendu Teknikoaren kasuan, administrazio-izapideak egiteko prozesua betetzen ari da.

8. [Elikagaien Segurtasunaren Ikerketarako Plan Operatiboa 2011-2013 \(2014-2016 epealdira luzatua\)](#) eta [elikedura-arriskuen](#) analisia. Plan horren helburua da ikerketa indartzea, EAEn ahalik eta elikedura-segurtasun handiena lortzeko. Planak xede du baliabide ekonomikoak optimizatzea eta elikedura-segurtasunari buruzko ikerketaren eraginkortasuna hobetzea, I+G+B arloko eragileen eta elikagai-industriaren laguntzaz. 2015eko azaroaren 20an, [Elikagaien Segurtasuna Aztertze Planaren emaitzak gizarteratzeko III. Jardunaldia](#) egin zen.

9. Zuraren sektorea egituratzeko diagnostiko bat egin da, Zuraren Plan Estrategikoan (PEMA) jasorik dagoena, eta hori oinarritzat hartuta, sektorearen antolamendua berregituratu da (BASKEGUR). Lan horiek 2015eko martxoan amaitu dira.

10. [Esne sektorearen azterketa](#) egin da, 2015ean esne-kuotak kenduko direla eta. Azterketa hori oinarritzat erabiliko da neurriak hartzeko, bai LGP planaren barruko neurriak bai Eusko Jaurlaritzaren beraren funtsekin lagundutakoak.

2. ekimena. Eskaintza egituratzeko neurriak bultzatzea, betiere negoziazio-ahalmena handitzeko eta nekazaritzako elikagaien katea osatzen dutenen artean kontratuak sustatzeko helburuarekin.

1.7.1 helburua. Ekoizpen-sektoreari laguntzea

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko ekainean eratu da eta ordutik martxan dago [Arabar Errioxako Olioaren eta Olibondoaren Mahaia](#).

2. 2013an zehar, abeltzaintzako sektoreei laguntzeko neurriak aztertu ziren. Azterketa horren norainokoak balio izan du Ministerioarekin zuzeneko laguntzak negoziatzeko, Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) erreformaren barruan, eta Landa Garapenerako Programa 2015-2020an sartu beharreko neurriak baloratzeko, bai eta Eusko Jaurlaritzaren beraren funtsekin ordaindutako beste babes-neurri batzuk ezartzeko ere. Ekimen hori Nekazaritza Sektorearen Babes Integralerako Planaren barruan dago.

3. [Idiazabal Gaztaren Plan Estrategikoa](#) gauzatu eta aurkeztu da, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta parte hartzen duten eragileek adostutakoa. 2015eko martxoan egin zen planaren aurkezpena.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko elikaduraren eta edarien industriaren egoerari buruzko diagnostikoa egin da, bai eta azpisektorekako [analisia ere](#), Elikagaien Industriaren Lehiakortasunerako Plana 2014-2016 (EILP) delakoaren barruan. Planaren [aurkezpen ofiziala](#) 2015eko otsailean egin zen.

5. Lehenengo urrats gisa, [Elikagaien Industriaren Lehiakortasunerako Plana 2014-2016](#) delakoaren esparrua prestatu aurretik, [Euskadiko Elikaduraren Klusterrak](#) azpisektoreen azterketa egin zuen.

6. [Baserriko Txerria](#) produktuaren kalitate-ezaugarria garatu eta ezarri da, kalitatearen alde apustu eginez, elementu bereizgarria eta lehiakortasun-eragilea den aldetik. Eusko Labela daukan hamaseigarren produktua da Baserriko Txerria. Produktu hori 2013ko bigarren seihilekoan aurkeztu zen.

7. Azpisektore jakinekin edota nekazaritzako elikagaiekin (esne-sektorea, haragitarako behi-azienda, esnetarako ardi-azienda, olibondoa, patata, erlezaintza eta abar) lotutako hainbat eragile sektorialek parte hartzeko mahaiak eta foroak ezarri dira, ekoizpen-sektorearen negoziazio-ahalmena areagotzeko (ekoizpena homogeneizatzea, negoziazioaren bolumena handitzea, ekoizpenaren desestazionalizazioa eta abar) eta EAEko banaketa-sektorearekin harremanak ezartzeko.

8. Aurretiatzko azterketa egin zaio [Elikagaien Industriaren Lehiakortasunerako Plana 2014-2016](#) delakoari, eta, prozesu horren barruan, EAEko elikadura-industrien lehentasunezko merkatuak hautatu dira.

9. Proiektu berriak diseinatu dira, oinarri hauek kontuan hartuta: plataforma logistikoaren garapena, baterako komertzializaziorako egiturak, HORECA sektorea, negozio/merkataritza elektronikoaren eskemak (azken horiek amaitu gabe daude), eta abarrekoak.

10. Tokiko produktuen kontsumoa **sustatzeko FOODLINKS** proiektua garatu da. Proiektuaren helburua da elikaduraren iraunkortasunari buruzko esperientziak trukatzea ikertzaileen, politikarien eta eragile sozialen artean. Zehazki, zirkuitu laburrak, hiri-estrategiak eta jantoki publikoak sustatzeko esperientziak dira. Proiektu hori 2015eko lehen seihilekoan amaitu da.

11. 2015eko maiatzaren 26an onartutako [Landa Garapenerako Plana 2015-2020](#) delakoaren barruan laguntza-ildo berriak ezarri dira **lankidetzaren esparruan**.

1. ekimena. Tokian tokiko produktuari lotutako enpresen elikadura-klusterra sendotzea.

1.7.2 helburua. Lehen sektoreko enpresak

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Elikaduraren Klusterrean](#) jardunaldiak egin daitezten sustatzeko ildoan, Elikaduraren Klusterreko Merkataritza eta Marketin Arloaren jardunaldia eta Hozteko Instalazioen Efizientzia Energetikoari buruzko jardunaldia egin dira. Klusterraren 2015eko Batzar Nagusian 30etik gora enpresak parte hartu dute, eta hainbat produktu berritzaile aurkeztu dituzte.
2. Elikaduraren Klusterrari bere [Sareak Proiektuan](#) laguntzeko lana egiten ari da.
3. Elikagaien Industriaren Lehiakortasunerako Plana 2014-2016 (EILP) ezartzeko garaian, Euskadiko Elikaduraren Klusterra da Eusko Jaurlaritzaren aliatu estrategiko nagusietako bat.
4. Euskadiko Elikaduraren Klusterrak [sustatutako hainbat gertakari eta ekimenetan](#) parte hartu du Eusko Jaurlaritzak.

2. ekimena. Enpresa-lankidetzak bultzatzea eta sustatzea, betiere janari-balioaren katea landa-eremuko eta arrantza-sektoreko elkarrekin eta sareekin, unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin (Azti eta Neiker) integratzeko asmoz.

1.7.2 helburua. Lehen sektoreko enpresak

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Etenik gabe, [Azti](#) eta [Neiker](#) elkarrekin koordinaturik aritu dira hainbat eremutan: berrikuntzan, lankidetzan, proiektu estrategikoetan eta abarretan.
2. Aztin jarduketak burutzen ari dira, Nazioartekotze Zuzendaritzarekin batera, nekazaritzako elikagaien arloko erreferentziazko enpresak Euskal Autonomia Erkidegora erakartzeko. Beste alde batetik, teknologian eta merkatuan lankidetzak-ildoak sustatzen ari dira [Tecnaliarekin](#) eta, batez ere, Neikerrekin. Abian jarri da [elikadura-joeren eta negozio-aukeren nazioarteko behatokia](#). Enpresa-proiektu pilotuetarako ekintza- eta ezarpen-plana diseinatu da, oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzeko helburuz. I+G+B programak eguneratzen eta sustatzen ari dira zientzia- eta teknologia-eragileekin batera, ezagutza ekonomia errealerara transferitzea azpimarratuz, etab.
3. Neiker parte hartzen ari da lehentasunezko azpisektoreak sustatzeko hobekuntza-programa sektorialak eta politika aktiboak prestatzeko lantaldeetan. Lehentasunezko azpisektoreak dira basogintza/zura, ardoa, zerealak, barazkigintza, haragia, esnekiak, ekoizpen ekologikoa, arrautzak, patata, erremolatxa eta beste batzuk. I+G+B programak eguneratzen eta sustatzen ari dira zientzia- eta teknologia-eragileekin batera, ezagutza ekonomia errealerara transferitzea azpimarratuz. Hainbat proiektu zehatz garatzen ari dira sektoreko eragileekin batera, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategietan ekoizpen-kostuak hobetzeko talka-planaren baitan. Ekoizpen-sektoreari aholkularitza emateko zerbitzu pertsonalizatuak eta integralak sendotzen ari dira, eta bereziki, aholkularitza teknikoa eta laguntza tekniko-komertziala, abisuen [webgunea](#) garatuz.
4. Europako programetan eta sareetan parte hartzea bultzatzen ari da, eta kasuan kasu, lankidetzak-hitzarmenak egitea ere bai (adib., [Munduko Landa Foroa](#), Berrikuntza Sareak, EIP/API, Euromontana, USSE, EREPO, Landa Garapenerako Europar Sarea etab.).

3. ekimena. Lehen sektorearen, basogintzaren eta nekazaritzako elikagaien sektorearen finantzaketan laguntzea eta finantza-tresnak bultzatzea, betiere enpresa berrien garapena, hedapena eta lankidetzaren indartzeko asmoz.

1.7.2 helburua. Lehen sektoreko enpresak

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Azterketa egin da, baloratzeko ea zein den [Hazilur](#) funtserako era juridiko eta komertzialik egokiena, funts hori zertarako eratu zen kontuan izanik, eta enpresentzako laguntza-tresnak dibertsifikatzea oinarri hartuta: diru-laguntzen aurrerakinak, kapital sozialeko partaidetza edota maileguak.
2. Sektorea finantza-tresnez hornitzeko aukerei buruzko azterketa egin da, Ogasun eta Finantza Sailarekin elkarlanean.
3. Aztiren bitartez garatu da [inbertsio pribatuko funtsa kudeatzeko programa](#).
4. Nekazaritza- eta elikadura-produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzei buruzko urriaren 7ko 172/2008 Dekretuaren II. eta III. kapituluetakoa laguntzak izapidetu dira ([Lehiatu programa](#)), baita nekazaritza-, elikadura-, arrantza- eta baso-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko beste laguntza-lerro batzuk ere ([Lehiatu - Sustapena programa](#)).
5. Nekazaritzarako, basogintzarako, arrantzarako, elikadura-sektorerako eta landa-garapenerako finantza-laguntza emateko programaren deialdia egin da 2015eko bigarren seihilekoan ([Sendotu 2015 programa](#)). Zenbatekoa, guztira, 20.000.000 euro da. Nekazaritzaren, basogintzaren, arrantzaren, elikagaien eta landa-garapenaren arloetako ETEak dira laguntzen hartzaileak, eta xedea, berriz, hasierako eta jarraipenerako inbertsioak finantzatzea da; horiek finantzaketaren esparruan egituratuko dira, Finantzen Euskal Institutuak finantza-erakundeekin lankidetzan eman beharreko maileguen bidez, maileguok baitira laguntzen euskarria.
6. Aztertzen ari da nekazaritzaren, basogintzaren, arrantzaren, elikaduraren eta landa-garapenaren sektoreetan zirkulatuak sendotzeko programa bat ezartzeko aukera ([Sendotu - Zirkulatuak programa](#)).

4. ekimena. Nekazaritza Politika Erkide berria jasotako tresnak erabiltzea lehen sektoreko enpresa-proiektu eta -egitasmo berriak garatzeko.

1.7.2 helburua. Lehen sektoreko enpresak

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Sailburuordetzaren eta sailari lotutako enpresa publikoen (Azzi, Neiker, Hazi eta abar) arteko eragile koordinatzaile eta dinamizatzaile gisa bultzatzen da [Katilu](#) gunea, nekazaritzaren, nekazaritzako elikagaien industriaren eta landa-garapenaren berrikuntzaren eremuan.
2. Berrikuntzarako talde eragileen eraketarako analisia, Sailburuordetzak bultzatutako estrategiarekin lankidetzan. 2015eko maiatzaren 26an onartutako [Landa Garapenerako Plana 2015-2020](#) delakoaren barruan laguntza-ildo berriak ezarriko dira lankidetzaren esparruan.
3. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin elkarlanean Berrikuntza Plan Bizia egin da, [Euskadi 2020 ZTBP](#) planaren baitan; eta Landa Garapenerako Plana 2015-2020 delakoaren esparruan laguntza-ildo berriak ezarriko dira [lankidetzaren](#) arloan.
4. Katilu gunetik, 2020 ZTBP planaren hedapena koordinatzen ari da "Elikadura" aukera-hobian. Gainera, komunikazio- eta prestakuntza-programa bat garatzen ari da, berrikuntzaren kultura sektorean sustatze aldera; eta zerbitzuak emateko eta enpresa-proiektu berriak finantzatzeko eskaintza egiten ari da, Hazirekin, AZTIrekin eta Basque Culinary Centerrekin elkarlanean.
5. Gobernamentu-taldea sortu da, lehentasunezko ikerketa-ildoak eta lehentasunezko proiektuak zehazteko. Hauek dira taldeko kideak: elikadura-katearen klusterra eta tira egiten duten hiru enpresa, Azti, Neiker, UPV-EHU Euskampus, BCC - Mondragon Unibertsitatea, Elikadura Industrien Zuzendaritza, Erika eta Hazi.

5. ekimena. Lehen sektoreari lotutako oinarri teknologikoko enpresa berrien garapena sustatzea, NEIKER eta AZTI ikerketa-zentroek sortutako jakintza erabiliz, eta nekazaritzako elikagaien sistema teknologikoaren eraginkortasuna hobetzea.

1.7.2 helburua. Lehen sektoreko enpresak

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Neiker](#), 2013an, elkarlanean aritu zen jada amaituta dagoen proiektu batean, Zimbabweko nekazaritza-sarea hobetzeko. Proiektu hori 4M + 3M eurotan baloratuta dago.

2. Enpresa-proiektu berriak bultzatu dira hainbat sustatzailerekin lankidetzan, oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzeko/dibertsifikatzeko. Horren adibide da [Aztik](#) Saudi Arabiarekin hartutako konpromisoa Arabiako Golkoko uretako arrantzalekuak modu iraunkorrean kudeatzeko eta arrantza-flota egituratzeko. Proiektua 1,3 M eurotan baloratuta dago.

3. Teknologiaren transferentzia, Neikertik. Beste jarduketa batzuen artean, honako hauek aipa daitezke:

- Hondakinak pelet bihurtzeko fabrika,
- Ekonek, hondakin erdi-oretsuak tratatzeko irtenbidea, ohiko lohiak izan, nahiz biogasa edo hidrolizatuen konposta ekoizteko lantegietatik datozenak.
- Ozeanori laguntzea, etilenoa eta hezetasuna atzemateko tranpen kontrolean eta hobekuntzan, bidaia luzeetan elikagaiak kontserbatzeko.
- Akuerofiliako arraintzako dietak garatzea, Probiotikarentzat.
- Nekazaritzako elikagaien sektorearen intereseko biomolekulak ekoiztea, Farmarabarentzat.

4. Aztirekin lankidetzan, oinarri teknologikoko enpresa berrien sorreran eta dibertsifikazioan lan egiten ari da hainbat sustatzailerekin. Proiektu hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- Longlines: itsaso zabalean moluskuen haztegi bat instalatzea. Instalaziorako baimenak izapidetzeko fasean dago proiektua gaur egun.
- Patataren balorizaziorako industria-planta berria. Ingeniaritza-proiektuaren xehetasunezko diseinua eginda dago, eta abiarazte-fasean daude eraikuntza, merkataritzako aurretiazko kontratuak eta baimenen izapidetzea.
- Arrantza-produktu berregituratuak lortzea EAEko baxurako ontziek harrapatutako espezie pelagikoetatik. Proiektua I+Gko amaierako fasean dago eta prototipoak merkatuarekin erkatzen ari dira.
- Ostalaritzaren eta kolektibitateen sektorerako elikagai berri osasungarriagoak ekoizteko linea berria. Prototipoak garatu dira eta merkatuarekin erkatu dira; ezarpen industrialaren fasea hasi da.
- Snack osasungarriak lortzea fruta eta barazkietatik. I+G fasea amaitu da, ekoizpenerako teknologiak eta prototipoak garatu dira, eta lehenengo ekoizpen-sortak merkaturatzen hasi dira. Ekoizpen-lerroa hedatzeko inbertsiogile berriak erakartzeko faseari ekin zaio.

5. 2013an eratu zen eta ordutik martxan dago [elikadura-joeren eta negozio-aukeren nazioarteko behatokia](#) (AZTI). [Elikadura-joerei buruzko](#) bigarren txostena egin da. Horren bitartez, helburua da nekazaritzako elikagaien sektoreak egungo merkatura egokitzeke egin beharrekoa antzematea eta etorkizuneko merkatuari aurrea hartzea.

6. Elikadura-industriarentzat [elikagai- eta teknologia-prototipo berriak](#) Aztiren bidez garatzeko inbertsioa.

6. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegora tokian tokiko ekoizpenari lotutako elikagai-enpresak erakartzea eta bertan kokatzen laguntzea.

1.7.2 helburua. Lehen sektoreko enpresak

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Landa Garapenerako Programa 2015-2020an sartu beharreko finantza-ingeniaritzako tresna posibleen aurreiazko analisisia egin da (txandakako mailegu-funtsa, arrisku-kapitalaren funtsa, interesen hobari-sistemak, berme-funtsa, inbertsio-kapitalaren funtsa, etab.).

2. Legealdi honen hasieratik, [Hazilur](#) inbertsio-funtsa sustatzen ari gara. Lehen sektoreko, nekazaritzako elikagaien industriako eta EAEko landa-ingurunekeo eta kostaldeko enpresa-jarduerak sustatzeko funts publiko-pribatua da.

3. Gainera, [negozioak dinamizatzeko helburuarekin](#), inbertsio-funts pribatu bat martxan jarri da. Jatorria EAEn duten sei sozietate inbertsiogilek eta Aztik osatzen dute inbertsio-funts pribatua. Inbertsio-politika proiektu industrialak laguntzea da, ahal den heinean Aztik garatutako I+Gak elikagaien sektorean sustatutakoak, edo euren garapen industrialerako, merkatu-hazkunderako edo nazioartekotzeko finantzaketa behar duten eta sektore horrekin lotuta dauden beste batzuk. Ezarri da partaidetza proiektua zuzendu behar duen sustatzaile pribatu batekin egin behar dela beti. Inbertsio-funts pribatu hori EAEn garatuko diren hiru inbertsio-proiektu aztertzen ari da, 10 milioi euro inguruko inbertsioarekin guztira.

4. Aztertzen ari gara LGP 2015-2020aren baitan finantza-tresnak gaitzea, Europar Batasunaren FEADER funtsekin batera finantzatuta. Aurreikusita dago programa honen ex-ante bat ebaluatzea 2016ko lehen seihilekoan.

5. Zenbait laguntza-programaren deialdiak egin dira ekimen honen barruan, esaterako:

- Lehiatu Programa (nekazaritza- eta elikadura-produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza) hainbat ekitalditan (2013: 5.847.000 euro; 2014: 5.685.094 euro; 2015: 16.749.830 euro)
- Lehiatu Arrantza Programa (arrantzatik eta akuikulturatik eratorritako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza) hainbat ekitalditan (2013: 800.000 euro; 2014: 1.060.000 euro)
- Lehiatu Sustapena Programa (nekazaritzako, elikadurako, arrantzako eta basogintzako produktuak EAEz kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntza) hainbat ekitalditan (2014: 280.000 euro; 2015: 650.000 euro)
- Nekazaritzako, elikadurako eta arrantzako sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzak hainbat ekitalditan (2013: 767.438 euro; 2014: 1.298.000 euro; 2015: 5.750.000 euro)
- Sendotu programa (Nekazaritzako, basogintzako, arrantzako, elikadurako eta landa-garapenekeo sektoreetan laguntza finantzarioa emateko programa) 2015ean, 20.000.000 euroekin.

1. ekimena. Nekazari gazteei zuzendutako Gaztenek Plana eguneratzea, nekazaritza-eskolen, kudeaketa-zentroen eta nekazaritza-arloko sindikatuen lankidetzarekin.

1.7.3 helburua. Belaunaldi-aldaketa

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Gaztenek Plan berriaren eta Landa Garapenerako Programa 2015-2020 delakoaren aurretik, Gaztenek Plan indardunaren berrikuspen kritikoari ekin zitzaion. Alderdi hauek aztertu ziren, besteak beste: 40 urtetik gorakoak programara biltzeko aukera, monitorizazio-planaren ebaluazioa, administrazio guztien irizpideen bateratzea eta abar.

2. Trebakuntza-eredu indarduna berrikusi zen, trebakuntza nekazaritzaren sektoreari lotutako jarduera ekonomikoaren sorkuntzan oinarritzeko, lehentasunez. Ildo horretatik, enplegurako prestakuntzaren 2015eko bigarren seihilekoko katalogoa prestatu da. [Prestakuntzaren katalogo indarduna \(2015eko lehen seihilekoa\)](#).

3. Diseinatuta dago eta martxan jarri da Gaztenek 2020 Prozedura (Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordeak onartu du). Prozedura hori betetzen da lehenengoz kokatu nahi duten gazteei laguntzeko, izapideei, egiaztagarritasunari eta, kasua bada, ezarrita dauden laguntzak —hala nola lehenengo instalaziorako laguntza edo nekazaritzako ustiategietan inbertitzeko laguntza— emateari begira; eta, halaber, Lehen Zutabeko laguntzaren osagarria jasotzeko, lehenengo instalazioa dela eta, edo finantzaketa jaso ahal izateko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak antolatutako programen bitartez (Sendotu programa eta abarrekoak).

4. Martxan jartzeko fasean dago [Gaztenek II Plana](#). Aldez aurretik Gaztenek 2020 Prozedura diseinatu eta abiarazi da, eta **gazteak nekazaritza-sektorean sartzeko neurri berriaren** diseinua burutu da, Landa Garapenerako Programa 2015-2020 (LGP) delakoaren barruan.

2. ekimena. Babeserako politika eraginkorra eta aktiboa egitea gazteak nekazaritza-jardueran barneratzeko Nekazari Gazteen Estatutuaren bidez.

1.7.3 helburua. Belaunaldi-aldaketa

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014ko lehen hiruhilekotik, garatzen eta egikaritzen ari da [Nekazari Gazteen Estatutuari buruzko Dekretua](#), nekazaritzako elikagaien arloko jarduera garatzeko laguntza-esparru gisa.
2. Halaber, trebakuntza-eredu indarduna berrikusi da, trebakuntza nekazaritzako sektoreari lotutako jarduera ekonomikoaren sorkuntzan oinarritzeko, lehentasunez. Ildo horretatik, enplegurako prestakuntzaren 2015eko bigarren sei hilekoko katalogoa prestatu da. [Prestakuntzaren katalogo indarduna \(2015eko lehen sei hilekoa\)](#).
3. Gizartea nekazaritza-sektorearen alde sentikortzeko eta nekazari gazteak erakartzeko hainbat kanpaina bultzatuko dira, Landa Garapenerako Programa 2015-2020 (LGP) delakoaren Jarduketa Planaren baitan.

1. ekimena. Ustiategi profesionalak babesteko erakunde politika ardaztea.

1.7.4 helburua. Nekazaritzako sektoreari laguntzeko plana

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015-2020 Landa Garapenerako Programa onartu aurretik, nekazaritza-sektorearen diagnosi bat egin zen 2015eko maiatzean, hura burutzeko eta laguntza-neurri osagarriak ezartzeko balio izan duena. Era berean, Lan Taldeak eratu ziren, jardueren dibertsifikazioa eta landa-guneetako bizi-kalitatearekin lotutako alderdiak jorratzeko, besteak beste. Prozesu horretan guztian, sektoreko eta lurraldeko 125 eragile baino gehiagok hartu dute parte.

2. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak hala eskatuta, 2013. urtean, europar programen (Feder, Fse, Feader, Femp) arduradunekin bilera egin zen, Funts anitzeko Programaren egituraren oinarritutako laguntza-sistema ezartzeko –gaitzetsi zen– edo Euskadi osoko programekin koordinatutako laguntza burujabeen laguntza-sistemekin jarraitzen den ebaluatzeko.

3. Ekoizpenaren sektoreari eskaintzen zaion aholkularitza-zerbitzu pertsonalizatua eta osoa -bereziki aholkularitza tekniko eta laguntza tekniko eta komertziala- indartzera bideratutako jarduketa bat garatzeko aukera aztertzen eta negoziatzen ari dira Foru Aldundiekin.

4. Metaposta nekazaritzako ustiategiaren alorrean aplikatzeko aukera eta izan dezakeen potentzialtasuna aztertzen ari dira, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak hala eskatuta.

5. Lanerako prestakuntzaren eskaintza etengabe berrikusten da, sektoreen errealitatera egokituta dagoena.

6. 2015-2020 Landa Garapenerako Programaren barruan, ustiategi profesionalen lehentasuna dute laguntzak ematerakoan. Horrez gain, nekazaritza-jardueran hasi nahi duten gizon eta emakume gazteek lehentasunezko laguntzak jasotzen dituzte. Lehentasun hori dela medio, laguntza handiagoak jasotzen dituzte, eta aurrekontu-murriztapenen kasuan, laguntza jasotzen duten lehen ustiapenak dira.

2. ekimena. Nekazaritza lurzoruen fondoak bultzatzea, gazteei sektorean instalatzen eta kokatzen laguntzeko asmoz.

1.7.4 helburua. Nekazaritzako sektoreari laguntzeko plana

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015-2020 Landa Garapenerako Planak, 5. neurrian (Nekazaritzako ustiategi eta enpresen garapena), sektorea gaztetzeari buruzko atal bat dakar, Plana indarrean dagoen bitartean garatuko dena. Neurri horren bidez, lurak erosteko eta alokatzeko laguntzak eman ahalko dira lehenbiziko aldiz, nekazaritzako jardueran hasten diren gazteei soilik.

2. [Nekazari Gazteen Estatutuari buruzko Dekretuak](#), sektorean ekoizteko baliabide nagusia diren nekazal lurrek mugikortasun eskasa dutela eta garestitu egiten dituzten erabilerak izaten dituztela (etxebizitzetarako, industriarako eta azpiegituretarako erabiltzen dira) kontuan hartuta, eta hala ere errentagarria den ekoizgarritasuna lortzeko gero eta lur gehiago behar direla jakinda, ustiategiak ondorengoei transmititzeko banatzea gero eta ohikoagoa izanda, lur horiek eskuratzeko lehentasuna emateko neurriak biltzen ditu.

3. [17/2008 Legean, abenduaren 23koan, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoan](#) (VI. titulua) ezarritakoa betez, gazteei nekazal lurak eta ekoizteko baliabideak lortzeko lehentasuna eman zaie. Era berean, balio estrategiko altua duten lurren eta nekazal lurren babesa areagotu da, bereziki eremurik kaltetuenetan. Hirigintzaren presioa jasaten duten lurren babesa ere areagotu da, kasu horretan Nekazaritza Sektorearen gaineko Eragina Ebaluatzeko Protokoloaren bidez, [Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean](#) bilduta dagoena.

4. Urtegiak kudeatzeko eta ibai-ibilguetan jarduteko politika berria garatzeko helburuarekin, 2013an Lan Mahaia eratu zen Arabako Foru Aldundiarekin, Uraren Euskal Agentziarekin (URA) eta sektoreko eragileekin.

5. 2016an aurreikusita dago Foru Aldundiekin batera Nekazaritza Sektorearen Ebaluazio Protokoloa burutzea.

3. ekimena. Mendi eremuei zuzendutako laguntza zehatza, betiere mendi arloko kalte-ordain konpentsatzaileen azpiprograma zehatz bat bultzatuz eta nazioarteko foro eta bilguneetan eremu horien presentzia indartuz Europako Batzordean izan beharreko etengabeko presentziaren bitartez.

1.7.4 helburua. Nekazaritzako sektoreari laguntzeko plana

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. **2015-2020 Landa Garapenerako Planaren** barruan, hausnarketa-prozesu bat egin da mendiko nekazaritza laguntzeko neurriak hartzeko, eta horren ondorio dira Planaren barruan jasotako neurriak (ordainketak muga naturalak eta bestelako muga espezifikoak dituzten guneei).
2. Foru Aldundiekin harremana mantendu da une oro eta horrela, mendiko produktuak ekoizteko, bereizteko eta sustatzeko lan egin da, gaztaren ekoizpenari dagokionez batez ere. Orain izapidetzen ari den arau batean zehaztuko da hori guztia.
3. Euskadik nazioarteko hainbat forotan parte hartzen jarraitzen du (Euromontana, **Arepo**, **Efi**, **Arev**, etab.). Euskadik modu aktiboan parte hartzen du Mendialdeko Eremuetako Europako Elkartean, **Euromontana**. Euskadik elkarte horren zuzendaritza darama eta 2014. urtean kongresu bat egin zen Bilbon.

4. ekimena. Lehen sektoreko lankidetzak eta integrazio ikuspegia bultzatzea eta nekazaritza azpiegiturarako proiektu eta egitasmoetara bideratutako laguntza sustatzea, betiere nekazaritza eragilean eta administrazio inplikatuaren hautaketarako eta ebaluaziorako partaidetzatik abiatuz.

1.7.4 helburua. Nekazaritzako sektoreari laguntzeko plana

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak hala eskatuta, europar programen (Feder, Fse, Feader, Femp) arduradunekin bilera egin zen, Funts anitzeko Programaren egituraren oinarritutako laguntza-sistema ezartzeko –gaitzetsi zen– edo Euskadi osoko programekin koordinatutako laguntza burujabeen laguntza-sistemekin jarraitzen den ebaluatzeko.

2. Landa-guneetako eta kostaldeko bizi-kalitatea hobetzeko laguntza espezifikoetako lerroak ezarri dira:

- [Erein Programa](#) (2013. urtean: 156.000.- €; 2014. urtean: 156.000.- €).
- [Itsaspen Programa](#) (2014. urtea: 2.300.000.- €; 2015. urtea: 2.300.000.- €).
- Landa-guneak sustatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak onuradun publikoentzat (2015. urtea: 3.310.000 €)

3. Landa-gunean dibertsifikazio ekonomikoa bultzatzen ari da, laguntzarako neurri espezifikoekin bidez:

- Leader Programa (2013. urtea: 397.059.- €; 2014. urtea: 4.056.500.- €).
- Garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzak onuradun pribatuentzat (2015. urtea: 6.000.000.- €)

4. Landa-guneetako Eskualdeetako Garapen Planak prestatzen ari dira, partaidetza-prozesuen bitartez.

5. Banda zabalak Euskadiko landa-gunean duen egoeraren analisi-ikerketak plazaratzeko fasean dago.

6. Arabako Lurralde Historikoan landa-bideak konpontzeko finantzazio-laguntzak deitu dira (2013. urtea: 3.000.000.- €)

5. ekimena. Jakintzaren sorrera eta transferentzia sustatzea zentro teknologikoetatik nekazaritza sektorea garatzeko proiektu eta egitasmoetara.

1.7.4 helburua. Nekazaritzako sektoreari laguntzeko plana

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. **Katilu** bultzatzea, Sailburuordetzaren eta sailari lotutako enpresa publiko ezberdinen (Azt, Neiker, Hazi, etc.) arteko eragile koordinatzaile eta dinamizatzaile gisa, nekazaritzaren, nekazaritzako elikagaien industriaren eta landa-garapenaren berrikuntzaren eremuan.

2. Horrez gain, lankidetzarako 6 proiektu kudeatzen ari dira, sektorea egituratzeko eta tokiko ekoizpena Euskadiko eraldaketa-industriarekin, sukaldaritzaren alorreko enpresekin eta erkidegoekin lotzeko.

3. **Neiker**rek gidatutako hainbat proiektu ere bultzatu dira, besteak beste:

- Patata-hostoan birusa hautemateko metodoen garapena, landatzeko patata ziurtatzeko.
- Animalien balore genetikoen estimazioa, hobekuntza-programetan.
- Partaidetza aktiboa, patataren eta erremolatxaren sektore-planetan.
- Mahasti-zonifikazioa Itsamendirekin edo Solaguen upategiarekin.
- Kaltzio-lohien berrerabilpena, egun kostu handia eragiten duten hondakinentzako irteera ekonomikoa Smurfit Kapparekin.
- Aske dagoen zerriaren ekoizpen-sistemaren garapena, Txerrizaleok-entzat.
- Fusarium kontrolatzeko estatu-legeriaren aldaketarako arau teknikoak.
- Bizi-zikloen eta karbono-aztarnen zein hidrikoen kalkulua, upategietan.

4. Aztik adinekoentzako elikagaien kategoria berria sortzeko eta hori elikagai-industrietara zein Horeca sektorera transferitzeko (hotelak, jatetxeak eta kafetegiak) ekimen estrategikoak bultzatu ditu.

5. Hazirekin batera, abeltzaintzako ustiatzearen ingurumen diagnostikoa egiteko Software bat taxutu da, sektorearen eskura jarri dena. Ingurumen adierazle nagusiak batzen ditu eta kudeaketaren kalitatea adierazten du.

6. Sektorearen eskura jarri da Abisuen estazio bat, web plataforma batean aurki daitekeena. Nekazaritzaren arloko gomendioak ematen ditu eta izurriak prebenitzen ditu denbora errealean.

7. Ekoizpen integraturako arau teknikoak dagokienez, oraingo arauak berrikusteko eta arau berriak emateko prozesua abian da. 2015-2020 Landa Garapenerako Programaren esparruan hartutako neurria da ([10.1 neurria. Ekoizpen integratua](#)).

6. ekimena. Nekazaritza ustiategietako titularrei laguntzea prestakuntzaren bitartez eta ordezkapen zerbitzuen bitartez. Emakumezko Nekazarien Estatutua garatzea, bai eta aldi baterako nekazaritza langileen plangintza berria ere.

1.7.4 helburua. Nekazaritzako sektoreari laguntzeko plana

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Onetsi egin da [8/2015 Legea, Emakumezko Nekazarien Estatutuari buruzkoa](#). Lege hori aho batez onartu zen Eusko Legebiltzarrean, 2015eko urriaren 15ean, landa-eremuko emakumeen nazioarteko egunarekin bat etorritz. Estatutu hau onetsi zen emakumeek nekazaritzaren sektorean jasaten duten diskriminazioari aurre egiteko beharra zegoelako, batez ere lanbide horretan aitortpena lor dezaten eta gizartearen estimatuak izan daitezen, eta eskubide profesional, sozial eta fiskalak erabil ditzaten.
2. Gauzatzeko bidean dago [Sasoikako Lanaren Arretarako 2013-2016 III Plan Integrala](#). Eusko Jaurkitzak, Foru Aldundiek eta Eudelek parte hartzen dute horretan.
3. Indarrean dagoen trebakuntza-eredua berrikusten ari dira, trebakuntza nekazaritzaren sektoreari lotutako jarduera ekonomikoaren sorkuntzan oinarritzeko.
4. Batzorde Mistoaren eta Jarraipen Batzordearen Dekretua zirriborro-fasean dago. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Euskara Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila koordinatzea du helburu, nekazaritza-prestakuntza arautua eta ez-arautua kudeatzeko.

1. ekimena. Batasunaren 2014-2020 Nekazaritza Politikan ingurumenaren alde ezarritako laguntzak bultzatzea (greening, nekazaritza eta ingurumen laguntzak, basogintzako laguntzak eta nekazaritza ekologikoa).

1.7.5 helburua. Ingurumen-iraunkortasuna

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. **2014-2020 Landa Garapenerako Programaren** prestakuntza-esparruan, batetik, nekazaritzako eta ingurumeneko eta ekoizpen ekologikorako neurriak diseinatzeaz eta, bestetik, baso-sektorerako laguntza-neurriak diseinatzeaz arduratuko ziren bi lantalde espezifiko sortu ziren.

2. Diseinatzeko lana amaituta dago, eta neurriak 2015eko maiatzean onartutako 2015-2020 Landa Garapenerako Programan jasota daude. Programazio-epealdi osorako Feader funtsen esleipenean, funts guztien % 45 klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko bideratu da, arauz ezarritako gutxienekoa % 30 den arren.

3. Euskadiko 2015-2020 LGPea garatu eta sartu dira Ingurumenarekin eta Klimarekin lotutako neurri hauek: ekoizpen integratua, erosio genetikoak mehatxatuta dauden tokiko sagardo-sagarrondoan aldaerak kontserbatzea, tokiko animalia-arrazak kontserbatzea, erlezaintza bioaniztasuna hobetzeko, mendiko larreen aprobetxamendua kudeatzea eta mahasti zaharrak kontserbatzea. Gaur egun, laborantza estentsiboa dibertsifikatzeko neurria garatzen ari da.

4. **2015-2020 Landa Garapenerako Programan** jaso dira nekazaritza ekologikoa sustatzeko neurri hauek: nekazaritza ekologikora pasatzea eta nekazaritza ekologikoa mantentzea.

5. Landa Garapenerako Programan sartu dira basoko ingurunearen eta klimaren inguruko zerbitzuei eta basoak kontserbatzeari buruzko neurri hauek: baso-landaketak ingurumen-iraunkortasunaren irizpideekin kudeatzea, espezie aloktonoak dituzten baso-landaketak tokiko basoekin ordeztzea eta tokiko basoak kontserbatzea.

2. ekimena. Jakintzaren transferentzia sustatzea ingurumen iraunkortasunaren esparruan.

1.7.5 helburua. Ingurumen iraunkortasuna

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. **Katilu** bultzatzea, Sailburuordetzaren eta sailari lotutako enpresa publiko ezberdinen (Azzi, Neiker, Hazi, etc.) arteko eragile koordinatzaile eta dinamizatzaile gisa, berrikuntzaren eremuan eta ingurumenaren iraunkortasunaren esparruko ezagutzaren transferentziaren eremuan.

2. Neikerrek proiektu hauek sustatu ditu: LIFE proiektuak: **Life seedcapital**, **Soilmontana**, **Agrolcamanager**, Regenfarming.; baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko proiektuak, karbono-aztarnak zein aztarna hidrikoak eta produktu fitosanitarioek izan dezaketen ekotoxikotasuna murrizteko; hondakin organikoak berrerabiltzea, landareen izurriak eta gaixotasunak, pestizidak gutxiago erabiltzea; eraginkortasun energetikoa: Eficahlo eta Vespacon; eraldatutako eta kutsatutako lurzorua konpontzea: Fitomina, hobekuntzarako betelanak eta klima-aldaketa: Microbs, Charfor, Vidinam, Gei-14, Gasagri, Estraclima.

3. Neikerrek zenbait ekitaldi antolatu ditu, besteak beste: Condegres (Lurzoruaren Degradazioa Kontrolatzeari eta Lurzorua Lehengoratzeari buruzko VII Sinposio Nazionala), "Neot - Nekazaritzako Ekosistemen Osasun Txartelen" autoebaluazioa egiteko tresna sortzeko eta abiarazteko jardunaldiak (2015eko apirilaren 29an eta 30ean) eta Regenfarming jardunaldia: birsortze-nekazaritzako jardunbideak.

4. Aztik ingurumen iraunkortasunaren arloko jakintza transferitzeko hainbat jardueratan parte hartu du: Ingurumenari buruzko doktorego eta masterretan antolatu diren irakaskuntzako ekintzetan parte hartu du; Inia Foroan (2015, 2014) parte hartu zuen, Europako Parlamentuari "Characteristics of multispecific fisheries in the European Union" aurkeztu zion (2014), udako DEVOTES ikastaroa antolatu zuen (Donostia, 2014) eta "Genomic tools in marine ecosystem monitoring" udako ikastaroa ere bai (Donostia 2013).

5. Horrez gain, Aztik ingurumen iraunkortasunari buruzko kongresuak, saioak eta jardunaldiak antolatzen parte hartu du: Sense Conference (Brusela, 2015); Aslo kongresua (Granada, 2015); Sinaval-Eurofishing azoka (Barakaldo, 2015); Devotes-Euromarine (Donostia, 2015) Basque Ecodesign Meeting-Ihobe (2014); Aquaculture Europe (Donostia, 2014); Ipar Atlantikoko Eskualde koordinazio Bilerak (Sukarrieta, 2013).

6. Gainera, AZTIk ingurumen-iraunkortasunari buruzko hainbat jardunaldi eta ekintza jendarteratzailetan parte hartu du. Proiektu erakusgarrietan ere parte hartu du, tartean transferentziarako ekitaldietan, besteak beste: Life Cleanfeed: Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) landare-hondakinen sorrera ekiditea eta animaliak elikatze berrerabiltzea; **Life Valorlact**: "Esnegintzaren sektorean sortutako esnegazuraren aprobetxamendu integrala"; LIFE GISWASTE: "GISen oinarritutako metodologia Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzako elikagaien hondakinak baloratzeko irtenbideei lehentasuna emateko"; **Life Ecolac** "Esnekiek ingurumenean duten eragina prebenitzea ekodiseinuaren bidez"; Life Enviphage: "Akuikulturan bakteriojaleak erabiltzeak bakterio-ekologian duen ingurumen eragina"; Interreg Provalue: "SUDOEn nekazaritzako elikagaien industrian hondakinak balioztatze

irtenbideak sustatu eta kapitalizatzea"; H2020 Discardless: "Europako arrantzarako lekuetan bazterkinak mailaka desagerrarazteko estrategiak";

3. ekimena. Euskadi sustatzea genetikoki aldatutako organismoetatik (GAO) libre dagoen erregio eta lurralde gisa.

1.7.5 helburua. Ingurumen-iraunkortasuna

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskadi [Genetikoki aldatutako organismoetatik \(GAO\) libre dagoen erregioen Europako sareko](#) kide da duela hamarkada bat baino gehiagotik eta ohiko laborantza edo laborantza ekologikoa babesteko politikak aplikatzen ditu. Genetikoki aldatutako organismoen laborantzak ingurumenean, gizartean, ekonomian eta kulturaren duen eragina aztertzen duten bideragarritasun azterlan sendoak hartzen ditu oinarri modura eta kautelaren, prebentzioaren eta etikaren printzipioen eta kontsumitzaileentzat eta oro har herritarrentzat izan ditzakeen ondorio positiboen mende jartzen du jarduketa hori. Jarrera hori mantentzea.

2. Estatuko gobernuari EAEn transgenikoen erabilera baimentzea edo debekatzea erabakitzeo eskumena eta eskubidea Eusko Jaurlaritzarena izateko eskatzeko legez besteko proposamena onetsi da. Transgenikoak ez diren beste aldaera batzuk bilatzeko ikerketa-lerro berriak irekitzeoari dagokionez, produktu transgenikorik ez duen pentsuaren ekoizpena sustatu da eta horrez gain, abeltzaintzan transgenikoetatik libre dauden elikagaiak erabiltzea bultzatu da eta [Eusko Label](#) produktuen ekoizpenean transgenikoetatik libre dauden elikagaiak bakarrik erabiltzea sustatu da.

3. 2015eko urriaren 2an Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioari eta Laguntza Zuzenen Zuzendariorde eta Orokorrari eskatu zitzaion "Euskal Autonomia Erkidego osoan aldaera transgenikoen laborantza bazter zedila...", 2001/18/CE Zuzentaraua aldatzen duen Europar Parlamentuko eta Kontseiluko martxoaren 11ko 2015/412 Zuzentarauak ezarritakoaren arabera. Geroago, Europar Batasunak eskaerari uko egin zion.

4. Batasuneko agintariei Euskal Autonomia Erkidego osoa, lurralde osoa, aldaera transgenikoen laborantzatik at gera dadila eskatzen jarraituko da.

4. ekimena. Karbonoa ezartzen duten basoko eta nekazaritzako espezieen erabilerarako babes publikoa sustatzea eta nekazaritza sektoreak orokorrean ingurumenari egiten dion ekarpenaren inguruan herritarrek kontzientziatzeko kanpainak bultzatzea.

1.7.5 helburua. Ingurumen-iraunkortasuna

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar basoko biomasarekin energia sortzeko estrategia diseinatu zen Industria arloaren laguntzarekin. Era berean, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) biomasari buruzko jardunaldia antolatu zuen 2013ko ekainaren 18an, udal teknikariei zuzenduta zegoena: Biomasa Euskadi 2013 Estrategia.

2. 2014ko ekitaldian zehar Euskadiko basogintzaren eta zuraren sektorea bultzatu zen "Euskadiko zura zure bizitzan" lelopean, [Gure Zura](#) kanpainaren bidez. Sektore horrek ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen iraunkortasunarekiko duen konpromisoa erakutsi zen kanpaina horrekin. Lehengai horrek izan ditzakeen erabilera anitzei buruzko informazioa eskaini zen kanpaina horren bidez. Zura gure eguneroko bizitzarekin estuki lotuta egon izan da gizadiaren sorreratik eta eboluzionatuz joan da, etorkizuneko materiala bilakatu arte: modernoa, naturala, berritzailea, berriztagarria eta erabiltzaileari bizi-kalitate handia ematen diona.

3. 2015-2020 Landa Garapenerako Programan arlo horretako babes neurriak biltzen ditu, indarrean dagoen bitartean ezarri beharko direnak. Neurri horiek barne hartzen dituzte baso-eremuak garatzeko eta basoetako bideak hobetzeko inbertsioak ([08 neurria](#)).

4. Landa Garapenerako Programan sartu dira basoko ingurunearen eta klimaren inguruko zerbitzuei eta basoak kontserbatzeari buruzko neurri hauek ([15 neurria](#)): baso-landaketak ingurumen-iraunkortasunaren irizpideekin kudeatzea, espezie aloktonoak dituzten baso-landaketak ordeztzea eta tokiko basoak kontserbatzea.

5. ekimena. Basogintzako sektorea indartzea, produktibitatearen, transformazioaren eta merkaturatzearen hobekuntzak sustatuz eta baliabide energetiko gisa dauzkan aukerak eta posibilitateak bultzatuz (biomasa).

1.7.5 helburua. Ingurumen-iraunkortasuna

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. [2011-2014 Egurraren Sektoreko Plan Estrategikoa](#) berrikusi da. Planaren diagnostikoa mantendu da, 2015etik aurrera urtero gauzatu beharreko jarduketak ezarri badira ere.

2. 2015-2020 Landa Garapenerako Programan arlo horretako babes neurriak biltzen ditu, indarrean dagoen bitartean ezarri beharko direnak. Neurri horiek barne hartzen dituzte baso-eremuak garatzeko eta basoetako bideak hobetzeko inbertsioak ([08 neurria](#)) eta baita basoko ingurunearen eta klimaren inguruko zerbitzuei eta basoak kontserbatzea ere ([15 neurria](#)).

3. Legegintzaldian zehar, basogintzaren eremuko laguntzetarako hainbat deialdi egin dira, honakoak nabarmentzen direlarik:

- 2013. urtea: nekazaritzaren eta basogintzaren sektorean energia berriztagarriei lotutako azpiegituretan inbertitzeko laguntzak (2013ko ekainaren 19ko Agindua)
- 2014. urtea: nekazaritzaren eta basogintzaren sektorean energia berriztagarriei lotutako azpiegituretan inbertitzeko laguntzak (2014ko urriaren 8ko Agindua); Lehiatu Sustapena Programa (2014ko urriaren 15eko Agindua)
- 2015. urtea: Sendotu Programa (2015eko uztailaren 29ko Agindua); Lehiatu Sustapena Programa (2015eko uztailaren 29ko Agindua); Lankidetzak (2015eko urriaren 13ko Agindua).

4. 2015. urtean zehar "Basoko biomasa energia sortzeko euskal ekimena" izeneko gauzatu zen. Baliabide energetiko autoktono eta berriztagarriak prezio lehiakorrean erabiltzeko aukera modura hartu zen, ohiko erregaien aldean, eta gainera tokiko enplegua sortzen du aprobetxamendu energetiko hori ezartzen duten udalerrietan.

5. Basogintza-ek, Euskadiko Egurraren Elkartek, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako Sailaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien laguntzarekin, 2015eko azaroaren 23tik 27ra [Euskadiko Egurraren I. Astea](#) antolatu zuen, gure herrialdean egurraren sektoreak duen garrantzia ezagutarazteko, tokiko egurraren kontsumoa sustatzeko eta gure ingurumenerako baliabide jasangarria dela gogorarazteko. Halaber, hainbat gai jorrazteko lan-jardunaldiak egin dira, hala nola teknologia berriak egurraren laborantzari eta eraldaketari aplikatuta, jasangarritasuna eta laneko segurtasuna.

1. ekimena. Erakundeen arteko koordinazioa bultzatzea, nekazaritza-sektorearen laguntza-politiketako disfuntzionalitateak saihesteko.

1.7.6 helburua. Gobernantza hobetzea

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Europar Batasunaren barruan eta Estatuaren barruan erakundeen arteko koordinazioa egokia izan dadin, hiru motatako jarduerak egin dira: (1) Nekazaritza eta arrantzako konferentzia sektorialetara joan gara; (2) Erkidegoaren ordezkartzan aritu gara Bruselan, txanda egokituta; (3) foru aldundiekin jarrera bateratua adostea Nekazaritza Politika Bateratua aplikatzeko.

2. [Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordea](#) eratu da. Batzorde hau sarritan biltzen da, bi hilean behin hain zuzen. Erakundearteko organo honetan Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta elikagaigintzako politikak diseinatzen dira eta arlo horietan jarduteko proposamenak lantzen dira.

3. Halaber, erakundeak koordinatzeko lanak egin dira sektore jakin batzuetan eta egoera jakin batzuen aurrean; hona: (1) Elikagai Katea Kontrolatzeko Programen koordinazioa Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean, Elikarekin elkarlanean; (2) Animalien Osasunari buruzko gaietarako mahaia, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien arteko koordinaziorako; (3) Programa sektorialetako koordinazioa (ekologia, ardiak, laborantza estentsiboak -erremolatxa, patata, etab.- oliba, etab); (4) Vespa Velutinaren aurkako ekintzak jarraitzeko eta koordinatzeko mahaia.

4. Landaguneen eta itsasertzeko guneen garapenerako eredia edo paradigma definitzeko eta horren bideragarritasuna ziurtatzeko, gogoetarako prozesu parte hartzailea jarri zen abian. Amaituta dago dagoeneko. Era berean, Landa Garapeneko 2015-2020 Programa idazteko ere prozesu parte hartzailea erabili zen. Arlo honetako politika publikoak elkarrekin sortzeko prozesu honek bi adibide aipagarri ditu: Batetik, etengabeko jarduera arrantzaguneen lurralde garapenean; bestetik, Landa Garapeneko Elkarrekin beste norabide batean jartzeko lanak (koordinazioa eta dinamizazioa), aribidean (agenteekin alderatzen).

5. Gure ustez, etorkizunari begira, sektore honek ezinbestekoa du landaguneetako eta itsasertzeko guneeetako jarduerak dibertsifikatzea. Hori dela eta, Jaurlaritzako beste arlo batzuekin batera, hainbat jarduketa egin dira edo egiten ari dira:

- Ekintzailatza Plana Lanbiderekin elkarlanean eta [Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakundearteko Planaren](#) eremuan.
- [Itsaspen programa](#) sustatu eta itsasertza sustatzeko eta garatzeko politika osagarria bultzatu.
- Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan, proiektu pilotuak edo integralak prestatzen dira etengabe. ([6.1 neurria eta Gaztenek2020](#)).
- Turismo mapa landu eta garatu Turismoko Sailburuordetzarekin elkarlanean.

6. 2016ko otsailaren 4an Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Kontseilua eratu zen. EAEko nekazaritza-administrazioak eta sektoreko eragile adierazgarrienak entzuteko, koordinatzeko, kontsultatzeko eta aholkularitza tekniko emateko organoa da; helburua Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta elikagaigintzako politikak diseinatzea du.

2. ekimena. Elikagaigintza Politikaren Legearen arauzko garapena osatzea eta bertan xedatutako tresna guztiak abian jartzea, ahalik eta eraginkortasunik gehien eskaintzeko.

1.7.6 helburua. Gobernantza hobetzea

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. [422/2013 Dekretua](#), urriaren 7koa, nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien erantzukizunpeko adierazpenen erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.

2. [8/2014 Dekretua](#), otsailaren 4koa, Nekazari gazteen Estatutuari buruzkoa.

3. [43/2014 Dekretua](#), martxoaren 25ekoa, Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpenari buruzko Dekretua aldatzen duena.

4. [177/2014 Dekretua](#), irailaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duena.

5. [227/2014 Dekretua](#), abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatu eta aplikatzeko (OCM Ardoa).

6. Erregelamendu hauen garapena izapideetan daude:

- Nekazaritza eta Elikadura Politikaren Batzordean bi zirriborro aurkeztu dira: Hondamendien Funtsarena eta klimaren arriskuen eta errenten aseguruak arautuko dituen dekretuarena.
- Prestatze-lanetan daude Animalien Elikaduraren Sektoreko Establezimenduen Dekretuaren zirriborroa eta Zaintza Fitosanitariorako Sarearen Araua eta Dekretua.
- [27372002 Dekretua](#), azaroaren 12koa, hazitarako patatak ekoizteko arauak ezartzen dituen berrikusten ari gara, estatuko araudia garatzeke baitago.
- Landa Garapeneko 2015-2020 Programa onartu eta gero, hura garatuko duten dekretuen zirriborroak prestatzen ari gara. Urpekaritzari buruzko Dekretu berria eginda dago; izapidetzen ari da.
- Angularen Arrantzari buruzko Dekretu berria eginda dago; izapidetzen ari da.

7. Elikagaigintzako politiken arloko erregelamendua garatzeaz gainera, 2015-10-15ean Eusko Legebiltzarrak aho batez onetsi zuen [8/2015 Legea, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa](#), Landa-emakumeen Nazioarteko Egunean, hain zuzen.

8. [431/2013 Dekretua](#), urriaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sasoiko Lanari Buruzko Erakunde Arteko Mahaia sortu eta erregulatzen duen Dekretua aldatzeko.

9. [81/2015 Dekretua](#), ekainaren 2koa, tokiko euskal arrazak kontserbatzeko, hobetzeko eta sustatzeko eta animalia-arrazak sustatzeko erakundeak arautzeko.

1. ekimena. Arrantza merkaturatzeko sektorea bultzatzea, i+G+b-ko politikak abiaraziko dituen eta kalitatearen eta kontsumitzailearen konfiantzaren aldeko apustua egingo duen kalitatezko merkataritza egitura lehiakorra bultzatuz.

1.7.7 helburua. Arrantza sektore ekoizlearen garapena

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Saila harremanetan dago, etengabe, elikagai-kateko eragile guztiekin, eta ekoizleen elkarrekin babesten ditu, arrantza sektorearen egitura komertziala lehiakorra izan dadin. Horren ildotik, sasoiko produktuak kontsumitzea bultzatzeko jarduketak egin dira. Urtero [sustapen jarduerak](#) egiten dira hainbat udalerritan antxoatea (martxotik ekainera) eta atunetea (uztailetik aurrera) direla eta.

2. Europako Arrantza Funtzaren (EAF) laguntzarekin ekoizleen erakundeek ekoizpen eta komertzializazio planak egin dituzte. Plan horiek ekoizleen jarduerak elkarrekin kudeatzea ahalbidetzen duten tresna berritzaileak dira; beraiei esker erakundeek beren helburuak lortzeko egokiak diren neurriak har ditzakete.

3. Arrantza sektoreko enpresa-proiektu pilotuen ekintza eta ezarpen plana diseinatu da, [Arrantza Bideratzeko Finantza Tresnak \(IFOP\)](#) finantzatuta.

4. Itsaso zabaleko [akuikultura](#) sustatu da. Helburua da itsasoan akuikulturako parkeak ezartzea, tertzako hazkuntzarako eta itsaso zabaleko beste teknika batzuk aplikatzeko. Akuikulturako parkearen adierazpenaren izapideak egiten ari dira.

5. AZTIrekin elkarlanean, arrantza-baliabideak ebaluatzeko kanpaina zientifikoak eta arrantzagune nagusien jarraipena egiten dira, eta arrantzaren kudeaketarako txosten zientifikoak prestatzen dira. Era berean, ikerketa-proiektuak egiten ari dira berdelaren kudeaketarako, ipar eta hego stocken arteko aldea dela-eta. Horrez gainera plan experimentalak egiten ari dira nekoraren, txangurroaren eta lanpernen ustiapenerako, bai eta ikuskaritza planak ere espezierik garrantzitsuenetarako.

6. Urtero deitzen dira arrantzatik eta akuikulturatik eratorritako produktuak eraldatzeko laguntzak ([Lehiatu Arrantza programa](#)). Deialdiaren zenbatekoa 800.000 €-koa izan zen 2013ko ekitaldian eta 1.060.000 €-koa 2014koan. 2015ean, nekazaritzaren eta elikagaien sektoreak ere sartu ziren deialdian, arrantzatik eta akuikulturatik eratorritakoez gain (16.749.830 € guztira). Era berean, 2015ean finantza-laguntzako programan arrantza-sektorerako laguntzak ezarri ziren Sendotu programaren barruan.

7. Ekitaldi guztietan arrantzaren eta akuikulturaren sektorerako laguntzak deitu dira. Hain zuzen ere, 2013an 9.490.000 € ezarri ziren laguntzetarako, 2014an 6.118.387 € eta 2015ean 3.000.000 €. Laguntza horien bitartez hainbat ekintza babesten dira: arrantzontziak behin betiko gelditzea, inbertsioak egitea arrantzontzietan eta hautakortasuna, konpentsazio sozioekonomikoak, akuikultura, ekintza kolektiboak, merkatu berriak eta sustapen-kanpainak garatzea eta proiektu pilotuak.

2. ekimena. Arrantza azpiegiturak hobetzea arrainaren katearen prozesuan zehar.

1.7.7 helburua. Arrantza sektore ekoizlearen garapena

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Europako Arrantza Funtsarekin (EAF) batera, arrainaren katean zehar arraina hobeto manipulatzeko ekipamenduak erosteko laguntzak eman dira. Esaterako, Getariako Kofradiak eta Orioko eta Hondarribiko arrantzontziek traspaleta elektrikoak erosi dituzte.
2. Garraio Azpiegituren Zuzendaritzarekin koordinatuta, Ondarroako eta Bermeoko lonjetan egingo diren obren lizitazioan parte hartu da. Obra horiek egiten ari dira.
3. [Lehen Salmentako Noten Programa](#) berria egin da. Era berean, [Proiektu pilotuak laguntzeko programa \(FEP 2014\)](#) aprobetxatuz, proiektu pilotu bat egin da Aztirekin elkarlanean: “Trazabilitateko software baten garapena arrantzako produktu freskoen komertzializaziorako katerako, eta software horren balioztapena eskala txikiko proba pilotu baten bitartez”.
4. AIS (Automatic Identification System) sistemaren bitartez flota monitorizatzeko proiektua bukatu da.

3. ekimena. Gaur egungo ekoizle erakundeak bultzatzea, azpiegiturak emanez bertan erauzte-sektoreko era guztietako koordinazio jarduketak gauzatzeko (arrainen harrapaketa eta arrantzaren merkaturatzea, arrantza flota mantentzeko eta sustatzeko lanak...).

1.7.7 helburua. Arrantza sektore ekoizlearen garapena

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Urtero deitzen da [Laguntzen deialdia](#) esparru honetan: Arrantzaren Europako Funtsa (AEF). Laguntza-deialdi hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dira 2013-09-18an, 2014-05-30ean eta 2015-06-29an.

2. Urtero, laguntzak deitzen dira EAeko nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaien sektoreetako elkarte eta federazio profesionalentzat eta enpresarialentzat. [Elkarateak programa](#).

4. ekimena. Itsas zabaleko arrantza freskoaren zein itsasbazterreko arrantzaren eskubideak handitzea, arrantza iraunkorra bultzatuta eta enpresa espekulatuzaileek kuotak pilatzea saihestuta.

1.7.7 helburua. Arrantza sektore ekoizlearen garapena

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Berdela](#) hobeto kudeatzea lortu da iparreko eta hegoko stockak bereiziz; izan ere, ez zeuden egoera berean eta bakoitzak bere kudeaketa-plana behar zuen. Kudeaketa-modu hau onbideratzeko ezinbestekoa izan da sektoreak eta Administrazioak batera lan egitea. Zientifikoek ere bi stockak bereizteko proposamenaren alde egin zuten.

2. Bidean dago negoziazio prozesu bat Arrantza Ministerioarekin eta gainerako autonomia erkidegoekin baxurako gainerako kuoten banaketarako.

5. ekimena. Flotaren dimentsionamendu berria definitzea, Batasunaren Arrantza Politikarekin bat etorri eta itsasontzietan egin beharreko inbertsioak bultzatuz, betiere kalitatea eta ontzian aurrera eraman ohi diren lanak hobetzeko asmoz.

1.7.7 helburua. Arrantza sektore ekoizlearen garapena

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Etengabeko jarduerak egiten dira [ontziak behin betiko geldiarazteko](#) (7 ontzi) eta aldi berean arrantza-ontziak berritzeko prozesua garatzen da etengabe; ontzien eta beraien ekipamenduen modernizazioari lotutako hainbat jarduketa egiten dira. Horretarako [proiektu pilotuak](#) abiarazten dira eta arrantzarako teknologia berriak sustatzen dira.
2. Urtero deitzen da [Laguntzen deialdia](#) esparru honetan: Arrantzaren Europako Funtsa (AEF). Laguntza-deialdi hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dira 2013-09-18an, 2014-05-30ean eta 2015-06-29an.
3. Itsasoaren eta Arrantzaren Europako Funtsaren (FEMP) laguntzen dekretu berria onetsi da, 2015eko azken hiruhilekoan Espainiako Programa Operatiboa onetsi ondoren. (1173/2015 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, Itsasoaren eta Arrantzaren Europako Funtsa garatzen duena arrantza-jarduera behin betiko eta aldi baterako gelditzeko laguntzei dagokienez).

6. ekimena. Sektorean prestakuntza eta gaitasun prozesu berriak sustatzea.

1.7.7 helburua. Arrantza sektore ekoizlearen garapena

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Trebakuntza profesionalerako ikastaroa eman da paketatzaile, neskatila eta saregileentzat.
2. Itsas eta arrantza gaien irakaskuntza etengabeen eguneratzeko eta arrazionalizatzeko prozesuaren barruan, Enplegurako Prestakuntzaren Katalogoa prestatu da 2015eko bigarren seihilekorako.
3. Arrantza Plan Gaztea egiten ari da eta laster abian jartzeko asmoa dago. Planaren arabera ikasleek praktikak egingo dituzte arrantza-ontzietan, beste ekintza batzuen artean.
4. Urtero bekak deitzen dira itsasketa-arrantza ikasketak egiteko [Pasaiaiko Blas de Lezo Itsas Arrantza Prestakuntza Zentroan](#), Bermeoko Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketako Eskolan eta [Ondarroako Antiguako Ama Arrantza](#) eta Itsasketako Lanbide Heziketako Eskolan. Deialdien zenbatekoa 112.757 €-koa izan zen 2013an eta 133.815 €-koa 2014an eta 2015ean.

1. ekimena. Akuikulturako enpresei laguntzeko tresnak eta lanabesak garatzea.

1.7.8 helburua. Akuikulturaren sustapena

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Urtero deitzen da [Laguntzen deialdia](#) esparru honetan: Arrantzaren Europako Funtsa (AEF).
2. Itsasoaren eta Arrantzaren Europako Funtsaren (IAEF) laguntzen dekretu berria onartu da, 2015eko azken hiruhilekoan Espainiako Programa Operatiboa onartu ostean.
3. Urtero deitzen dira arrantzatik eta akuikulturatik eratorritako produktuak eraldatzeko laguntzak ([Lehiatu Arrantza programa](#)). Deialdiaren zenbatekoa igo da ekitaldiz ekitaldi: 800.000 €-koa izan zen 2013an eta 1.060.000 €-koa, berriz, 2014an. 2015ean, nekazaritzaren eta elikagaien sektoreak ere sartu ziren deialdian, arrantzatik eta akuikulturatik eratorritakoez gain (16.749.830 € guztira). Era berean, 2015ean, laguntzak ezari ziren arrantza sektoreari finantza laguntza emateko programaren barruan, [Sendotu programaren](#) bidez.
4. Horrez gain, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak hainbat ekitalditan arrantzaren eta akuikulturaren sektorerako laguntzak deitu ditu. Zehazki, 2013an 9.490.000 €-ko laguntzak deitu zituen, 6.118.387 €-koa 2014an eta 3.000.000 €-koa 2015ean. Laguntza horien bitartez, hainbat ekintza babesten dira: arrantzontzia behin betiko gelditzea, inbertsioak arrantzontzien barruan eta hautakortasuna, konpentsazio sozioekonomikoak, akuikultura, ekintza kolektiboak, merkatu berriak eta sustapen-kanpainak garatzea eta proiektu pilotuak.

2. ekimena. Itsaso zabaleko akuikultura ekoizpenaren ikerketa sustatzea, itsas energia ekoizteko ikerketekiko bateragarritasuna bultzatuz eta enpresa teknologiko berriei bide emanez.

1.7.8 helburua. Akuikulturaren sustapena

Arduraduna: Bittor Oroz Izagirre (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Azti-rekin lankidetzan, muskuilua itsaso zabalean hazteko ikerketa proiektu bat gauzatu da, [Mendexako](#) (Bizkaia) kostaldean jarritako longline sistemaren bidez. Ondorioz, hazkuntza komertzialerako [proiektu bat](#) abiarazi da. Hala ere, oraindik behin betiko emaitzak falta dira.
2. Aztirekin elkarlanean egin dan etengabeko jarduera horren helburu nagusia akuikulturako espezie berriak sustatzen eta erabiltzen laguntzea da. Izan ere, Tilapiaren inguruan proiektu bat garatu da.

1. ekimena. Eraginkortasun eta aurrezpen energetikoa bultzatzea enpresako lehiakortasun-faktore moduan, energia-auditoriak eta energiaren hobekuntza eta aurrezpenerako inbertsioak bultzatuz.

1.8.1 Eraginkortasun eta aurrezpen energetikoa

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Enpresetan argindar-eskaria kudeatzeko zerbitzuekin lotura duten ekimenak sustatzeari dagokionez, 2012. eta 2013. urteetan argindar-eskaria kudeatzeko zerbitzuen proiektu pilotu bat garatu zen EAEko enpresetan, REE ([Espainiako sare elektrikoa](#)) eta EEE ([Energiaren Euskal Erakundea](#)) erakundeen arteko akordioaren bidez.

2. Energiaren sektorean oro har eta zehazki elektrizitatearenean dauden proposamenak eta estatuko arau-garapenak kontuan izanda, zenbait harreman izan dira eta bilerak egin enpresekin, ordezkari sektorialekin eta lotutako beste eragile batzuekin, erreformak industria-enpresen kostuetan eta sektorearen jardueretan zer ondorio izango dituen identifikatzeko. Egindako azterketen emaitzak Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioari aurkeztu zaizkion txostenak izan dira: EAEko [industriaren lehiakortasuna hobetzeko neurrien gaineko txostenak](#); gainera, erreformen aldi osoan zehar, Merkatuen eta Lehiakortasunaren Batzorde Nazionalaren aurrean, [alegazioak ere aurkeztu dira Ministerioak aurkeztutako arau-proposamenak hobetzeko](#).

3. EAEko industriaren elektrizitate-tarifak hobetzeko bi jardute-eremu nagusiak hauexek izan dira: alde batetik, elektrizitatea eteteko sistema hobetzeko proposamenak, eta, beste alde batetik, 30 kV-ko tentsio-mailan konektatutako enpresei sarea erabiltzeko elektrizitate-bidesariak murrizteko proposamenak (hori da euskal industrian zabalduen dagoen tentsio-maila); % 20 inguru murriztu dira azken bi urteetan bidesari horiek.

4. [ETEEi laguntzeko zerbitzua](#) garatu da, energia erosteko dituzten gaitasunak hobetzeko. Gaur egun, ehun ekintza baino ekintza gehiago egin dira. Informazio-plataforma bat lantzen ari gara kontsumitzaileei erreferentziazko energia-prezioen gainean informatzeko, eta ezohikoagoak diren kontratazio-modu batzuk arriskudun merkatuetan edo etorkizun egonkorreko merkatuetan eskaini eta sustatzeko.

5. [Eraginkortasun eta aurrezpen energetikoa hobetzeko laguntza-programak](#) jarri dira martxan industria-sektorean, besteak beste, energia-kudeaketako sistemak ezartzea sustatzeko, energia-auditoria integralak egiteko, ekipo eta prozesuetarako eraginkortasun energetikoan eginiko inbertsioei pizgarriak eskaintzeko eta instalazioetako energia-kontsumoak monitorizatzeko. 2012-2015 aldian, industria-eraginkortasuneko 1.100 industria-proiektu baino gehiago babestu dira, 84 milioi euroko inbertsio-mailakoak, eta 12 milioi euroko diru-laguntzak eman zaizkie.

6. Programak garatu dira, industrian energia berriztagarrietan inbertitzeko diru-laguntzak emateko. Industria-instalazioetan geotrukerako sistemak sartzan ere hasi dira.

7. Zenbait arauen garapenarekin –hala nola 1/2012 ELDa– aldi baterako indargabetu ziren aurrez esleitzeko prozedurak, eta, orobat, kogenerazio bidez, energia-iturri berriztagarrien bidez eta hondakinen bidez energia elektrikoa ekoizteko instalazio berrietarako pizgarri ekonomikoak ere kendu egin ziren. Horrek geldiarazi zuen erregimen berezian potentzia berria gehitzea. 15/2012 Legean

argindar-salmentari eta erregai fosilen kontsumoari ezartzen zaizkien zergak ere eragozpen gehigarriak dira.

2. ekimena. Mugikortasun jasangarria eta energetikoki eraginkorra dena bultzatzea gainerako erakunde publikoekin baterako jardueren bidez, hauek guztiak bultzatzeko: garraio publikoa, ibilgailu elektrikoaren garapena, trafikoa kudeatzeko sistema aurreratuen txertaketa eta salgaiak errepidez garraiatzeari dagokionez ordezeko formulak sustatzea.

1.8.1 Eraginkortasun eta aurrezpen energetikoa

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Laguntza-programak zehaztu dira, udalerrri, enpresa eta jendearen joan-etorriko zentroetako [mugikortasun jasangarria](#) rekin zerikusia duten plan, ekintza espezifiko eta proiektu pilotuetarako.
2. Abian jarri dira kargatzeko bizikleta eta triziklo elektrikoentzako diru-laguntza programak, bizikletak mailegatzeko sistema publikoen laguntzak eta flotak kudeatzeko auditoriak eta horien jarduna hobetzeko gailu teknologikoak sustatu dira.
3. [Bizikleta hirian erabiltzen jakiteko](#) proiektua egiten jarraitu da, prestakuntza hobetzeko. Ibilgailuen [gidatze eraginkorra](#) ere sustatu da zabalkunde-kanpainiei esker.
4. Garraioen eta mugikortasun eraginkorraren arloko diru-laguntzen programaren esparruan, [ibilgailu elektrikoak, hibridoak eta bioerregaien, gas naturalaren, GLParen eta hidrogenoaren bidez mugitzen direnak](#) eskuratzeko diru-laguntzak zehaztu dira, baita erregai horiek hornitzeko instalazioentzako laguntzak ere. Ibilgailu astunetarako eta ordezeko erregaien bidez bultzatutako material mugikorretarako diru-laguntzak eman dira.
5. [IBIL](#) enpresaren bidez bateriak kargatzeko EAEn dauden instalazioez gain, bateriak bizkor [kargatzeko puntuak](#) instalatzeko lana egiten ari da (adibidez, Bilbon; Gasteizen, Donostian eta Barakaldon dagoeneko jardunean dauden kargatze bizkorreko puntuen osagarri izango lirateke puntu horiek).
6. Ibilgailu elektrikoaren sustapena bereziki landu da flota publiko eta pribatuak dituztenekin, eta kolektibo interesgarriekin ahalegina egiten jarraitu da, hala nola [taxi-gidarien kolektiboarekin](#).
7. Era berean, diru-laguntzen programa bat ere jarri da martxan, estatukoaren osagarri, [ibilgailu elektrikoak erosteko eta haiek kargatzeko puntuak instalatzeko](#). Udalekin batera lan egin da, udal ordenantzak egokitzeko, ibilgailu elektrikoaren erabilera sustatze aldera.
8. EEEK eta IBILek europar proiektu bat garatu dute, ibilgailu elektrikoak kargatzen dituzten kudeatzaileek elkarrekin jarduteko. I+G+b programen Europako koordinazioari buruzko Garraioko Era Net plataforman eta garraio-floten kalifikazioari buruzko Europako Ecostars programan parte hartzen ari da.
9. Dinamizatu egin da 2012an Gasteizen abian jarritako [erakustaldi-zentroa](#), mugikortasun elektrikoaren herritarrei eta erakundeei hurbiltzeko. Errepideko garraioan gas naturalaren erabilera sustatzeko ahaleginean jarraitzen da: bai gas natural konprimitua eta bai gas natural likidotua.

10. Itsasontzien sektorean gas natural likidotua (GNL) sartzea bultzatzeko ekintzak hasi dira, Europako Batzordeak ontzat hartu duen [bunkering proiektu](#) baten bidez, Connecting Europe Facility (CEF) programaren bitartez finantzazioa jaso ondoren.

3. ekimena. Sare adimendunen (*smart grids*) hedapenean aurrera egitea, eskaeraren kudeaketa bultzatzeko eta sarean banatutako sorkuntza sartzeko baliabide gisa.

1.8.1 Eraginkortasun eta aurrezpen energetikoa

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzak, EEEK (Euskal Energia Erakundea) eta Iberdrola Distribución Eléctrica enpresak, Energia Klusterraren parte-hartzearekin batera, Bidelek Sareak ekimena bultzatu dute. Helburua hiri-esparruetan sare adimendunak egitea da, argindar-horniduraren eraginkortasuna eta segurtasuna areagotzeko. Horretarako, [Bidelek Sareak](#) enpresa eratu da.

2. Argindar-sare elektrikoetan komunikazio-sistema aurreratuak daude, denbora errealean kontsumoei, sareko zamei eta gertaerei buruzko informazio zehatza jasotzeko. Horri esker, energia-erabilerak optimizatu, galerak murriztu eta gertakariei erantzuteko denbora txikiagotu ahal dira.

- Euskadin sari adimendunak Bidelek Sareak enpresaren bitartez zabaltzen hasi ziren 2012an; Bilbon eta Portugaleten, zehatz-mehatz.
- 2013an, automatizazio aurreratuko plan bat abiarazi zen Lea-Artibai eskualdean: zehazki, azpiestazioak berritu ziren.
- 2015ean, Bidelek Sareak enpresa Gipuzkoan ere zabaldu zen: lehenik, Donostian eta, ondoren, Orio, Aia, Zarautz, Getaria, Zumaia, Zestoa, Aizarnazabal eta Pasai Antxo udalerrietan.

Horri esker, 415.000 kontagailu, 2.400 transformazio-zentro eta hiru azpiestazio instalatu dira guztira proiektuan. Guztira 60 milioi euro inbertitu dira.

3. Teknologia-gaitasunen zabalkundea: zabalkunde-planen artean, nabarmentzekoa da [showroom tekniko](#) bat eraiki zela 2013an, sare adimendunen berri jendeari emateko eta EAEko fabrikatzaileen teknologiak duen funtzionamendu ona erakusteko.

4. [Kontsumitzailearentzako informazioa](#): elektrizitate-eskaeraren informazioan oinarritutako webgune bat jarri da abian. Webgune horren bidez, ebaluatu egiten da etxebizitzetako argindar-kontsumoa, eta zehaztu egiten da kasu bakoitzean zer ekintza egin behar diren energia-aurrezpen maila handienak lortzeko.

4. ekimena. Eraikin eta etxebizitzetan energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna bultzatzea. Lehendik dauden eraikinetako birgaitze energetikora bideratutako ekimenen bidez, energetikoki beregainak diren eraikinen hedapenaren alde eginez eta herritarrak, oro har, energiaren kontsumo arduratsuari buruz sentsibilizatuz.

1.8.1 Eraginkortasun eta aurrezpen energetikoa

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Arau aldetik zenbait zailtasun dauden arren, egun ere laguntza berezia ematen zaie eraginkortasun handiko generazio- eta kogenerazio-erregimen berezian diharduten instalazioak eta energia berriztagarriak garatzeko proiektuei, bai eta instalazioak birgaitzeko edo autokontsumoko proiektuei ere. [Lehendik dauden eraikinetan energia eraginkortasun handiagoz erabiltzeko zenbait jarduketa eta neurri](#) jarri dira eta jartzen ari dira martxan (energia-diagnosiak eta -auditoriak, hobekuntzak ingurutzailerako termikoan, eraginkortasun energetiko oso handiko ekipoak jartzea aurrekoen ordez, etab.); eraginkortasun energetikoko Renove plan zehatzak ere jarri dira indarrean (etxetresna elektrikoak, leihoak, kondentsazio-galdarak, instalazio elektrikoak berritzea), bai eta eraginkortasun energetikoan eta energia berriztagarrietan inbertitzeko diru-laguntzak emateko beste programa batzuk ere. Proiektu horietako asko lehendik dauden eraikinen sektorean aplikatu dira.

2. Eraikinetan energiaren erabilera hobetzeko 2.560 ekintza babestu dira (ingurutzailerak, galdara komunitarioak, barruko argiteria, igogailuak, etab.), eta 46.100 ekipo nahiz energia-sistema berriak dira etxebizitzetan (etxetresna elektrikoak, leihoak, galdarak, elektrizitate-instalazioak). Sektore horretako laguntza-programetan bideratu diren 25 milioi euroen bidez sustatu diren inbertsioak 215 milioi euroan balioetsi dira, eraikin eta instalazio publikoak barne.

3. Energiaren legeriaren garapenean, bultzada bat eman zaio eraikin eta etxebizitzetan energiari buruzko araudiari, eta [eraikinen eraginkortasun energetikoa](#)ren EAEko erregistro telematikoa jarri da abian (2013tik dago jardunean). Ziurtagiri hori nahitaezkoa da eraikitzen diren eraikin edo etxebizitza berri guztietarako eta salgai edo alokagai daudenetarako. 2015eko irailean, EAEn, 100.000 etxebizitzak baino apur bat gehiagok zeukaten eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria.

4. Eusko Jaurlaritzak, EEEn bitartez, Europako zenbait proiektutan hartzen du parte, bizitzeko ez diren eraikinak nahiz etxebizitzak eta argiteria publikoa energiaren aldetik nola birgaitu eta kontsumo-sistemak nola hobetu erakusteko. Pimes, Prolitepartnership, EU Gogle, a2pbeer, fosterreg.

5. EAEko administrazio publikoko eraikin publikoen inbentario bat egin zen 2013 eta 2014 artean eta energiaren kontsumoa eta kostuak identifikatu ziren. Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren, 2015eko urrian, [EAEko administrazio orokorreko eraikinetarako iraunkortasun energetikoari buruzko dekretua](#) argitaratu zen, eta han daude ezarrita eraginkortasun energetikoaren eta Eusko Jaurlaritzako eraikin, instalazio eta ibilgailuetan epe luzera energia berriztagarriak erabiltzearen arloko konpromisoak.

6. Zenbait kanpaina egiten ari dira energia-iraunkortasuna sustatzeari buruz informazioa eta prestakuntza emateko eta kontzientziak zabaltzeko: Meteoberakuntzari buruzko kanpaina (berokuntza zentzuz erabiltzeko): energia aurrezteko mezu laburrak irratian. Energia-kudeatzaileak prestatzeko ikastaroak, zerbitzu-enpresen ekintza-planetan. Horrez gain, jardunaldiak ere antolatu dira.

7. Zenbait [argitalpenetan](#), gomendioak ematen dira gure eguneroko bizitzan, bai etxean eta bai

gainerako jardueretan, energia zentzuz erabili eta modu eraginkorren kontsumitzeko. Berriki, eguneratu egin da “Energia etxean gidaliburua”.

5. ekimena. Udalaren jarduera-eremuan aurrezteko eta energia berriztagarriak zabaltzeko planak bultzatzea.

1.8.1 Eraginkortasun eta aurrezpen energetikoa

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Alkateen hitzarmena, "Itunerantz zuzenduz" eta beste ekimen batzuen bidez 2020ari begira energia arloko udal plangintza zehazteko lanean ari dira, EAEko udalak berak gidari direla. Energia berriztagarrien bidez eta modu ordenatuan energia aurrezteko eta hornitzeko proiektuak ezartzea da azken helburua.

- Alkateen hitzarmenaren arabera, alkate sinatzaileek konpromisoa hartzen dute EBrako ezarritako helburuetatik harago joateko; hau da, 2020rako CO² isurketak % 20 baino gehiago murrizteko udalerrri osoan, horretarako eraginkortasun energetikoa % 20 handituta eta eskariaren % 20 energia berriztagarrien bidez beteta.
- Hori lortzeko, beharrezkoa da Energia Iraunkorreko Ekintza Plan bat zehaztea eta plangintza horren arabera zenbait proiektu ezartzea.
- "Itunerantz zuzenduz" ekimenak hitzarmenaren xede bera du, hau da, plangintza modu ordenatuan definitzea, baina izaera dela-eta, laneko egutegia eta hitzarmeneko helburuak bezain zorrotzak ez diren xedeak behar dituzten udalerriei zuzenduta dago.
- Orain arte, EAEko biztanleriaren % 50 baino gehiago ordezkutzen duten 19 udalerririk izenpetu dute Alkateen Itunaren konpromisoa.

2. Energia-iturri berriztagarrien aprobetxamendua bultzatzeko, sorkuntza termikorako baso-biomasa aprobetxatzeko proiektuak garatzea babesten da. Helburu horrekin, lankidetzak-hitzarmen bat izenpetu da HAZI eta EEEren artean, interesa daukaten toki-administrazioei laguntza teknikoa eta aholkularitza eskaintzeko. Interesa dutela erakutsi duten 26 udalerrietatik 5ek dagoeneko izenpetu dituzte erabilera termikoetarako baso-biomasa sustatzeko hitzarmenak.

3. [Udaletxei laguntzeko programen](#) testuinguruan, "Alkateen hitzarmena" eta "Itunerantz zuzenduz" ekimenetako ekintza-planetan definitutako proiektuak bultzatzen dituzten diru-laguntzak finkatu dira. Eraginkortasun energetikoaren programak diruz lagundu ditu eraikinetan egindako jarduerekin bat datozen proiektu batzuk eta argiztapen publikoko instalazioetan egindakoak, baita auditoriak eta Energia Iraunkorreko Ekintza Planak egitea ere. Halaber, diruz lagundu da baliabide berriztagarrien aprobetxamendua. Bereziki bultzatu dira eguzkiaren bidezko energia, biomasa, geotruke, energia eoliko eta abarretako proiektuak, bai eta bideragarritasun-azterketak egitea ere.

4. Energia Zerbitzuetarako Enpresa (EZE) proiektuetarako berariazko laguntzak: Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta EAEko udalen jabegoko eraikinetan eta instalazioetan egindako inbertsioak mugiarazteko ezarri dira.

5. Euskal autonomia erkidegoko administrazio publikoen iraunkortasun energetikoari buruzko legearen proiektua: izapidetze bidean dago. Arau-esparrua ezartzen du administrazio publikoko eraikin, instalazio eta ekipo kontsumitzaile guztietan eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta energia berriztagarrien erabilera indartzeko.

6. 3E2025, Euskadiko Energia Estrategia berrikusi eta eguneratu da, eta 2025 da erreferentzia-aldi

berria. Izapidetze bidean dago, behin betiko onartu aurretik.

1. ekimena. Energia berriztagarriko instalazio berrien txertaketa bultzatzea, energia eolikoko sorgailuak berritu eta garatuz, itsasoan energia sortzeko instalazio pilotuak bultzatuz, energia berriztagarriko instalazio txikiekin (fotovoltaikoak, hidrauliko txikiak, eoliko txikiak, geotermia eta abar) eta biomasa-proiektuekin.

1.8.2 Energia garbiak eta berriztagarriak

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Haize-energia: 2014an amaitu zen energia berriztagarriak sortzeko instalazioetarako estatuko araudiaren garapen berria. Araudi horrek instalazio eta ekimen berrien gelditze eraginkorra eragin du eta, beraz, inpaktu handia izan du tokiko energia eolikoaren garapenean. Egin dira Energia Eolikoaren eta Lurralde Iraunkorraren 2. Lurralde Plan Sektorialaren hasierako txostenak.

2. Baso-biomasa: biomasa-instalazio berrietan inbertitzeko ekimenei emandako laguntzen harira, nabarmentzekoa da Smurfit Nervión enpresan martxan jarritako kogenerazio-instalazioaren proiektua. Instalazio horrek basoko biomasa erabiltzen du, 21 MW-eko potentzia elektrikoarekin.

3. Nekazaritza-biomasa: hiru lurralde historikoetan, nekazaritzako, basogintzako edo nekazaritzako elikagaien sektoreko hondakin-biomasaren balorizazio energetikorako instalazioak martxan jartzeko aukera aztertu da, errekuntza zuzenekoak batzuk, eta, nekazaritzako elikagaien kasuan, digestio anaerobiko bidezkoak. Ez da orokortu, besteak beste, errentagarritasun ekonomikoa txikia delako, nahiz eta erregimen bereziko argindarra ekoizteko sari-sistema izan.

1/2012 Errege Lege Dekretuaren bitartez, moratoria bat ezartzen da ordainsarien erregimenean energia elektrikoa ekoizteko erregimen berezian dauden instalazioetarako. Horrek geldiarazi egin ditu, epe motzera eta ertainera gutxienez, esparru horretako inbertsio-ekimen guztiak.

4. Martxan jarri dira bi instalazio, eta jarduera garrantzitsuak egin dira olatu-energia ekoizteko.

- [Mutrikuko instalazioa](#): Mutrikuko dikean dagoen azpiegitura bat da: olatuen energia aprobetxatzen du, eta ur-zutabe oszilatzailearen teknologiak bertan frogatzen dira.
- [BIMEP](#): itsaso zabalean itsas teknologiak ikertu eta frogatzeko plataforma bat da (Biscay Marine Energy Platform). Armintzako itsasertzean dago, eta 2015eko uztailan inauguratu zen.
- Daukaten garrantziagatik, 2013an eta 2015ean EAEn egindako [Bilbao Marine Energy Week](#) biltzarrak nabarmendu daitezke. Europa hegoaldeko itsasoko energia berriztagarrien ekitaldirik handiena da, eta sektore horretako nazioarteko aditu eta teknologo ezagunenak biltzen dira bertan.

5. Etxebizitzetan, eraikinetan eta industria-instalazioetan berriztagarrien bidez [argindarra sortzeko instalazioak](#) sustatze aldera, itzuli beharrik gabeko laguntzak ematen ari dira instalazio txikietan inbertitzeko. Laguntza-programari esker, potentzia txikiko energia berriztagarriko 2.500 instalazio ingururi eman zaie laguntza azken 4 urteetan; 40 milioi € inguruko inbertsioa izan da, eta 11 milioi euroko laguntzak eman dira.

1. ekimena. Biltegitratzeko azpiegiturak eta gas naturaleko sare finaren hedapena garatzea dibertsifikatutako hornidura lehiakorra garatzeko.

1.8.3 Gas naturala, trantsizioko energia

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. [BBG, birgasifikazio-planta](#) handitu da. Instalazio estrategikoa da, eta Bilboko portuan dago. Gas natural likidotuko (GNL) 150.000 m³-ko 3. tanga sartu da lanetan. Gainera, itsasontziak gas natural likidotuz hornitzeko sistema bat ere gehitu zen terminalean, instalazioari merkataritza-malgutasun handiagoa emateko. Lanak 2014an bukatu ziren. Inbertsioak 130 milioi eurokoak izan ziren.

2. Gas-sistemaren hornikuntzaren lehiakortasuna handitu da, eta azpiegiturekin batera, Zierbena-Treto gasbidea eraiki da: gas likidotua lurruntzeko Bilboko instalazioa (BBG) eta zerrenda kantauriarreko gasbideak bateratzen ditu gasbide horrek, eta iparraldeko ardatza eratzen du Kantabria eta EAE mendebaldetik lotuz; 2014an hasi zen jardunean, eta 41 milioi euroko inbertsioak egin ziren.

3. [Shesa](#) erakundea partaide da Ebro A eta Cameros 2 baimenetan; baimen horiekin, Viura-1 eta Viura-3 esploratzeko hobiak zundatu ziren 2009tik 2013ra, eta beste hobi bat topatu zuten. Gasa tratatzeko instalazio bat eraikitzen amaitu eta putzuak gasbideen oinarriko sarearekin lotu ostean, iraupen luzeko ekoizpen-proba bat hasi zen 2015eko lehen hiruhilekoan; 2015ean, 56 milioi m³ inguruko bolumena atera zen, eta sarera isuri.

4. 2015eko abenduan, aldeko Ingurumen Inpaktuaren Deklarazioa lortu zen eskatutako ustiapen-emakidarentzat. Era berean, Shesak gas naturala esploratzeko lanekin jarraitzen du partaide den beste baimen batzuetan, lurrean, nahiz itsasoan.

2. ekimena. Merkatuan gasa banatu eta trukatzeko (Hub) eginkizunaren bitartez Euskadin Gas Naturalaren prezioak finkatzeko puntu bat edukitzeko aukera emango duen baliabidea bultzatzea.

1.8.3 Gas naturala, trantsizioko energia

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. [Iberian Gas Hub](#): Hidrokarburoen Sektoreari buruzko 8/2015 Lege berriak gasaren antolatutako merkatua garatzeko esparrua finkatzen du. Euskadin merkatu hori bultzatzen ari da, enpresa sustatzaile baten bitartez. Hub bat sortuta, gas naturalaren salerosketak erraztu nahi dira, baita sistemaren gaitasunak ere. Eta hori guztia, sektorearen gardentasuna eta lehiakortasuna areagotzeko.

1. ekimena. Energiaren produkzio eta eraginkortasunaren alorrean, garapen teknologikoaren, eta produktu eta zerbitzu berriak sortzearen alde egitea: sare adimendunak eta banatutako sorkuntza, produktu eta zerbitzu berriak energia berriztagarrietan (potentzia handiagoko energia eolikoa, *off-shore*ko energia eolikoa, eguzki-energia termoelektrikoa eta itsasoko energiak) eta ibilgailu elektrikoarekin lotutako produktu eta zerbitzuen garapena.

1.8.4 Energiaren sektorearen garapen teknologikoa

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. [Etorgai-Energia programa](#): batetik, sektore estrategikoetan industria-ikerketa proiektuak eta garapen esperimentalak egitea sustatu da, eta, bestetik, lankidetzaz publiko-pribatua bultzatu da Teknologia Ikerketa eta Garapena eta Berrikuntza arloan. Programa honetan urtean 10-20 proiektu inguru aurkeztu dira energia-sektorean, [Energibasque estrategian](#) jasotako garapenekin lotuak. 2014an, programak 29 milioi euroko zuzkidura izan zuen; eta 2015ean, 28 milioi euro. 2016an, [Hazitek programan](#) sartu da, eta zenbatekoa 68 milioi eurokoa da.

2. Etortek-Energia programa: Biltegiatzea eta Itsasoko Energia bi arlo estrategiko dira, eta zenbait ekimen babestu dira bi arlo horiek indartuz energiaren esparruko zenbait ikerketa-lerro garatzeko. 2014an, Etortek programaren zenbatekoa 18 milioi eurokoa izan zen. 2015ean, ordea, [Elkartek programan](#) sartu zen (20,1 milioi euro 2015an; 24 milioi euro, 2016an).

3. Sortzen ari diren energien gaineko programa – itsas energia: erakustaldiak egiteko eta prototipoak baliozkotzeko fasean dauden [proba esperimentaletara bideratutako proiektuak](#) babesten dira (olatuen energia biltzeko gailuak, zimendu flotatzaileko plataformetako haize-sorgailuak, itsasoko haize-sorgailuak, ekipo osagarriak edo osagaiak, etab.).

2. ekimena. Energiaren alorrarekin lotutako enpresen garapena sustatzea, sektoreko enpresa traktoreek egoitza Euskadin finkatzea bultzatuz eta, horrekin, ETEen industria-ehuna bultzatzea EAEn, energiaren sektorearekin lotutako teknologia berrien inguruan.

1.8.4 Energiaren sektorearen garapen teknologikoa

Arduraduna: Javier Zarraonandia Zuloaga (Industria sailburuordea)

Jarduketak

1. Nazioartean erreferentzia izango den sare adimendunen eskaintza integrala sustatzea. [Ingrid](#), sareak ikertzeko zentroa, babestu da. [Bidelek Sareak](#) enpresaren bitartez, sare adimendunen arloan eskaintza teknologikoa hobetzeko aukerak sortu dira. Lantalde bat, [Energia klusterra](#), eratu da, gaitasun teknologikoak nazioarteko eremuan zabaltzeko eta nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko.

2. Euskadi nazioarteko erreferentzia izateko, *off-shore* teknologietan sustatzen ari da euskal enpresek itsas eolikoko I+G proiektuak batera garatzea: [Bimep](#) azpiegitura erabiltzea eta [Energia-kluster](#)rean itsas eolikoko lantalde bat sortzea.

3. Oinarrizko ikerketa bideratua I+G eragileetan, industria-ikerketa estrategikoko proiektuak garatzea eta sektorea dinamizatzea sustatu dira. Teknologia horretan egin dira erreferentziako proiektuak (dorre zentraletakoak eta ispilu parabolikoen bitartezko kontzentrazioa). Eguzki-energia termoelektrikoko hurrengo proiektuetarako baliagarriak izan beharko dute.

4. [CIC energiGune](#) zentroak jada funtzionatzen du energia biltegitzeko ikerketak egiteko zientzia-azpiegitura gisa.

5. Industria-ikerketa estrategikokoak eta [energia biltegitzeko](#) proiektuak garatzeko zenbait ekimen sustatzen ari dira Energia Klusterreko lantaldean, eta elkarlana garatzen ari da nazioarteko ikerketa-proiektuekin.

6. Ur-zutabe oszilatzailearen teknologiak frogatzeko [saiakuntza-plataforma](#) (Mutriku) eta Itsas Energia ikertzeko Zentroa ([Bimep](#)) abiarazita, zientzia- eta teknologia-eskaintza eta olatuen energiaren balio-katea sendotu dira.

7. Balio-katea garatzeko, eta itsas energiaren garapena azeleratzeko estrategia kontuan hartuta, euskal enpresak nazioartean posizionatzea lortu nahi da, Wave Energy bitartez.

8. Mugikortasun elektrikoarekin lotutako teknologia-garapenaren arloan, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak haien hedapen-mailaren arabera gehitu nahi dira. [Klusterren arteko](#) (Energia/Acicae/Gaia) lankidetzak ekintzak garatu dira. [Ibil](#) ibilgailu elektrikoak kargatzeko kudeatzailea da, eta europar proiektu batean parte hartzen du. Erakuspen-proiektua da, eta helburua [ibilgailu elektrikoak kargatzeko kudeatzaileek](#) elkarrekin jardutea da, Euskadi eta Nafarroa artean.

9. Kalitatezko zerbitzu energetikoen merkatua garatzeko asmoa dago, eta lehiakorra eta dinamizatzailea izan beharko du. Horretarako, 100 EZE Plana sustatu da, eraikinen kontsumoa murrizteko. Administrazio publikoari aholkularitza (energia-auditoriak) eskaini zaio, eta eraikinetan energia-zerbitzuak sustatzeko lan egin da.

1. ekimena. Lurralde garapen orekatu eta iraunkorra ahalbidetuko duten lurralde antolamendurako arauzko neurriak sustatzea, hiriak eraberritzeko politikak zabalduz, gune degradatuak berreskuratuz eta ingurunean integratuko diren jarduera ekonomikoak ezarri.

1.9.1 helburua. Lurraldearen oreka

Arduraduna: Miren Izaskun Iriarte Irureta (Lurralde Administrazio eta Planifikazioko sailburuordea)

Jarduketak

1. [EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana](#) aldatu da. Helburu nagusia araudia bateratzea izan da, baita arauetan aldaketa batzuk sartzea eta legedia eguneratzea ere. Zehazki, uholdeen aurka babesteko irizpide berriak sartu dira, eta urpean geratzeko arrisku maila kontuan hartuz lurzoruek eduki behar duten erabilera ezarri da, indarreko legedia betez betiere. Halaber, planeko eduki guztiak Uraren Esparru Zuzentzarauko (Europar Batasuneko 2000/60/EE) xedapenen eta Eusko Legebiltzarraren urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen arabera homologatu dira.

2. [EAEko Nekazaritzako eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Plana](#) onartu da. Plan horren helburua, alde batetik, nekazaritza eta basozaintzako erabilerak kudeatzeko eta planeatzeko jarduerak iradoki eta bideratzea da, lurraldearen antolaketa globalaren esparruan sartuz; bestetik, nekazaritza eta basogintza sektorearen interesak defendatzen ditu bestelako erabileren aurrean. Hori guztia Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legearen 12. artikuluan xedatutako helburuarekin: nekazaritzako luraren erabilera jarraitua eta egokia sustatzea, nekazaritza-jarduerari lotuta, eta gizarteak eskatzen duenaren arabera.

3. Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015-03-27ko Aginduaren bidez [Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala \(Donostialdea eta Bidasoa Beherea\)](#) hasieran onartu da, eta 2015-03-30eko EHAA argitaratu da. Dokumentu berria sortu da; beraz, 2015-03-30etik 2015-09-15era bitartean entzunaldia egin zaio eta jendaurrean erakutsi da. Azkenean, dena den, epe hori 2015-11-15era arte luzatu zen. Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren [2016-02-26ko Aginduaren](#) bidez behin-behinean onartu da. Aurreikuspenen arabera, 2016ko ekainean onartuko da behin betiko.

4. Hasieran onartu da [Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurraldearen Plan Partzialaren](#) aldaketa. Horri alegazioak aurkezteko epea 2014-06-23an amaitu zen. Jasotako alegazioak aztertu dira, eta 2016ko bigarren sei hilekoan behin betiko onartzea espero da.

5. Legegintzaldian zehar, lurralde politikari lotuta hiru biltzar egin dira: Euskal Hiria 2013 biltzarra, [Euskal Hiria 2014 biltzarra](#) eta [Euskal Hiria 2015 biltzarra](#). Azken biltzar horretan, lurraldearen antolaketa berria proposatu zen, lurraldea antolatzeko zuzentzarauak berrikusi ziren eta aldi berean eratu ziren, berrikusketa horretan parte hartzeko prozesuari bultzada emateko. 2016ko biltzarra antolatzen ari da; Donostian egingo da azaroaren 21ean eta 22an.

2. ekimena. Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideak berrikustea eta Lurralde Plan Partzialen eta Lurralde Plan Sektorialen onespena sustatzea.

1.9.1 helburua. Lurraldearen oreka

Arduraduna: Miren Izaskun Iriarte Irureta (Lurralde Administrazio eta Planifikazioko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014ko abenduan onartu ziren Eibarko (Debarrena), Arrasate-Bergarako (Debagoiena), Araba erdialdeko eta Arabako Errioxako arlo funtzionaltako [Lurralde Plan Partzialen](#) jarraipena jasotzen duten memoriako ondorioak. Plan horiek guztiak sailak prestatu ditu, eta garrantzitsuak dira Lurralde Antolamenduaren Zuzentzarauak (LAZ) berrikusteko prozesuan.

2. 2015ean zehaztu da Lurralde Antolamenduaren Zuzentzarauak berrikusteko parte-hartze prozesua. Horren arabera, gizartearen parte-hartzea bultzatzea garrantzitsua da, proposatzen du hirien berritzea, ekosistemen zerbitzuak, azpiegitura berdeak, mugikortasuna, paisaia eta klima aldaketa aztertu eta garatu behar direla. [Lurralde Antolamenduaren Zuzentzarauak](#) berrikusteko prozesu formala 2015eko azaroan egin zen [Euskal Hiria 2015 biltzarra](#) bultzatu eta abiarazi zen.

3. 2015eko ekainean amaitu da jarraipenaren gaineko memoriaren prestaketa-lana:

- [Debarreneneko, Debagoieneko, Araba erdialdeko eta Arabako Errioxako Lurraldearen Arloko Planak](#).
- [EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana](#).

4. Honako hau onartu da: [urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretua](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen dekretua aldatu duena bizitegi-kuantifikazioari dagokionez.

5. [Gobernu Kontseiluaren uztailaren 27ko Erabakia](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Zuzentzarauak berrikusteko prozedura abiatzea adostu zuena ([otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren](#) bidez onartu ziren).

6. [Oinarrizko Agiria onartu da eta azaroan Euskal Hiria 2015 biltzarrean aurkeztu da](#).

7. [EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren](#) zati bat berrikusten hasi da, Auzitegi Gorenak emandako epaiaren arabera deusezak direlako merkataritza-ekipamenduetarako gehieneko azaleran ezarritako mugak. 2016-03-16ko EHLABean emandako LAParen interpretazio-irizpideak onartu dira. Zioak eman ostean erabaki da 2016-03-22ko Gobernu Kontseiluan LAParen zati bat berrikustea.

3. ekimena. Lurzoruaren erabilerari eta planifikazioari buruzko politikak sustatzea, lurralde iraunkorragoa diseinatzeko, lurraldearen artifizializazioa mugatuz betiere.

1.9.1 helburua. Lurraldearen oreka

Arduraduna: Miren Izaskun Iriarte Irureta (Lurralde Administrazio eta Planifikazioko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak](#), 2015-02-18ko bilkuran, “Lurralde Antolamenduaren Zuzentzarauak (LAZ) aldatzea, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez” izeneko espedientearen aldeko txostena egin zuen, behin-behinean onartu baino lehen.
2. 2015eko martxoan Lurzoruaren Legea aldatzeko eta horko arauak garatzeko proposamen teknikoa egin zen. Gai hauek jorratu ziren: lurzoruaren erabileren sailkapen normalizatua, plan orokorren eta garapen planen agiri-moten prestaketa, eta hirigintzari eta eraikitzeari buruzko udal ordenantzen oinarrizko eredia.
3. Gobernu Kontseiluak, 2016-01-19ko bilkuran, Lurralde Antolamenduaren Zuzentzarauak aldatzean bizitegiak kuantifikatzeari buruzko dekretu bat onartu du. Dekretu hori plan orokorretan aplikatzen bada, birgaitzeko, dentsitate berriak ezartzeko eta gaur egungo hirien berritzeko prozesuak sustatuko dira, eta hiri garapen berriak doitu dira.

4. ekimena. Informazio kartografikoa bultzatu

1.9.1 helburua. Lurraldearen oreka

Arduraduna: Miren Izaskun Iriarte Irureta (Lurralde Administrazio eta Planifikazioko sailburuordea)

Jarduketak

1. Esparruko lankidetzak hitzarmen bat formalizatu zen [Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiekin](#), kartografiari, geodesiari eta lurraldearen informazioari buruz eta lantaldeak martxan jartzeko xedez. Horri dagokionez, Batzordeak bi bilera egin zituen 2015ean, eta talde teknikoek aurrera egin dute lurraldearen informazioa trukatzeko, koordinatzeko eta harmonizatzeko lanetan. Bestalde, erakunde biek dagoeneko izapidetu dute, eta laster Arabako Foru Aldundiarekin ere hitzarmena sinatuko da.

2. EAEko informazio geografikoa berrerabiltzea eta modu erraz eta eraginkorrean eskuratzea posible izan dadin, Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura sustatu da erreferentziako geoatari moduan: [IDE-GEO Euskadi](#). Xede horrekin, hain zuzen ere, 2015eko otsailean zehar honako jarduketak garatu ziren batez ere:

- Geo-Euskadi lantegiak, zabalkunderako jardunaldi bat eta udako ikastaro bat EHU/UPVrekin lankidetzan.
- Sektoreen gaineko informazioa zabaltzeko zerbitzu estandar berriak argitaratu dira.
- Distantziak kalkulatzeko zerbitzua eman da; eta plataforman hobekuntzak egin dira, aplikazioetan eta kanpoko web atarietan (besteak beste udal batzuetakoan) ikustailu kartografikoak sartzeko aukera emateko edo horiek sartzeko errazagoa izateko.

3. Udalei diru-laguntzak emateko programa batzuk izapidetu eta ebatzi dira, udalek duten informazio geografikoa hobetzeko eta 2014ko eta [2015eko](#) ekitaldietako udal mapak egiteko asmoz. 2016ko ekitaldiko deialdia martxan dago; dagoeneko 30 udalerrik jaso dute diru-laguntza.

4. Ekoizpen kartografikoari dagokionez azpimarratu behar da 2015ean hegaldi fotogrametrikoa egin zela EAEn, eta horri dagokion ortoargazkia ere atera zela; horrez gain, 1945-46 eta 1956-57ko hegaldi amerikarren ortoargazki historikoak egin ziren eta BTA oinarritzko kartografia eguneratu zen.

1. ekimena. EAEko paisaien berreskurapen eta babesa bultzatzea. Horretarako, EAEko paisaiak babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko bermea emango duen arauzko markoa ezarriko da eta paisaia berezien ikerketa, zabalkundea eta balioespena sustatuko da.

1.9.2 helburua. Paisaiari balioa ematea

Arduraduna: Miren Izaskun Iriarte Irureta (Lurralde Administrazio eta Planifikazioko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ekainaren 3ko [90/2014 Dekretua](#) onartu da, paisaia babestu, kudeatu eta antolatuko dela bermatzeko arau esparru gisa.
2. Etengabe egon da elkarlanean EHU/UPVko Lurraldea, Paisaia eta Ondarea izeneko katedran. Are gehiago, sail honek sustatu zuen katedra hori sortzea eta “[UNESCO Katedra, Paisaia Kulturalak eta Ondarea](#)” moduan ziurtatzea; horretarako, lankidetzaz hitzarmena sinatu zuen Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Lurraldea, Paisaia eta Ondarea Katedra sortzeko, garatzeko eta irauteko asmoz. Trebakuntzaren eta ikerketaren esparruan, katedra horrek antolamenduaren oinarritzko kontzeptuak berriro daitezkeen bultzatzen du eta, horretarako, paisaiak dituen elementuak oso-osorik baloratzearen alde egiten du.
3. Dagoeneko izapidetu eta ebatzi da [udalei paisaiari lotutako ekintza planak garatzeko diru-laguntzak emateko lehenengo programa](#), 2014ko ekitaldiko. Era berean, [2015eko ekitaldiko deialdia](#) izapidetu eta ebatzi da.
4. 2016ko martxoan hasieran onartu dira Arabako Errioxako, Enkarterriko eta Urola Kostako Lurraldearen Arloko Planetako zehaztapenak.

1. ekimena. Erakundeak eta organismo publiko eta pribatuak biltzeko eta koordinatzeko marko bat ezartzeko lan egitea, Pasaiaiko badia biziberritzeari begira aurrera eraman beharreko lanak modu eraginkor eta adostuan antola daitezten.

1.9.3 helburua. Pasaiaiko badiaren biziberritzea sustatzea

Arduraduna: Miren Izaskun Iriarte Irureta (Lurralde Administrazio eta Planifikazioko sailburuordea)

Jarduketak

1. "Pasaiaiko badia biziberritzea: testuinguru sozioekonomikoa, ekintzen mapa, ondorioak eta gomendioak" txostena egin ondoren, Pasaiaiko badia biziberritzea lortzeko erakunde arteko esparru akordioa gauzatzeko lanekin jarraitu zen.

2. 2015eko irailean, [Pasaialdea biziberritzeko plana](#) onartu da. Bertan, garrantzitsuak diren hainbat hirigintza aldaketa jaso dira. Guztira, zortzi hektarearen gainean jardungo dela aurreikusi da. Plana erdibana finantzatuko dute Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, jarduera honek sortzen duen adostasun instituzionalaren lekuko. Proiektuaren barruan lau jarduera arlo nagusi sartzen dira: (1) Herrera mendebaldea eta metrorako sarbidea, (2) Euskadi etorbidea, (3) Hospitalilloko kaia, (4) Trintxerpe eta San Pedroko kaiak. Obrak ekitaldi honetan hasiko dira eta 2018rako amaituta beharko lukete.

3. Gobernu Kontseiluak 2016ko martxoan onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Pasaiaiko Portu Agintaritzaren arteko lankidetzaren hitzarmena, zeinaren bidez Herrerako tren geltokiaren eta Pasaiaiko Trintxerpe auzoaren oinezkoen eta txirrindularien bidea egiten den, hiriaren eta portuaren arteko harremana sustatu eta ingurua biziberritzeko asmoz.

1. ekimena. Euskadiko natur kapitala babestea eta berreskuratzea, betiere natur inguruneak zaintzeko eta ingurumena babesteko premisekin bat etorriz, Garrantzi Komunitarioko Tokien mugak ezarriz, 2000 Natura Sarearen kudeaketa tresnak abian jarritz, Euskadiko Korridore Ekologikoen Sarea amaituz eta ekosistema akuatikoen onarpena bultzatuz.

1.10.1 helburua. Ekosistemak zaintzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1 2014an [“Natura, ongizatearen oinarria: Milurteko ekosistemen ebaluazioa EAE-n”](#) dokumentua argitaratu zen, eta han ekosistemen zerbitzuei kartografia jaso zen: Biodibertsitatea, Uraren zikloa, Higadura, karbonoa biltegitratzea, Jolas erabilerak, kartografiatzea ekosistemen zerbitzuen kontzeptua ingurumeneko erakundeetan ezartzeko eta erabakiak hartzeko premia nagusien artean dagoelako ustean.

2 [Igarobide ekologikoen sarearen](#) eremuan, besteak beste, jarduketa hauek gauzatu dira: hura garatzeko metodologiari egokien azterketa eta hautaketa eta Baiona-Donostia igarobidean lan-metodologiak ezartzeko proiektu bat. (2014/12/12)

3 Legegintzaldian [NATURA 2000 SAREko](#) espazioen izendapena osatu (52 KBE eta 6 HBBE) eta kontserbaziorako neurri proaktiboak ezarri dira.

-Euskadiko NATURA 2000 SAREA osatzen duten gainerako aretarako (52 KBE eta 6 HBBE) izapidetzea egiten jarraitu da.

-Arabako lurralde historikoko 5 ibai Kontserbazio Bereziko Eremu (KBR) izendatu dira. Aprobado por [Irailaren 11ko 35/2015 Legegintzako Dekretuz](#) onartua..

-Urdaibai eremuko eta Gaztelugatze San Juaneko Batasun mailako garrantziko 4 leku Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu dira. [Ekainaren 4ko 358/2013 Dekretua](#).

-Ulia eta Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu dira. [Ekainaren 4ko 357/2013 Dekretua](#).

-“Txingudi-Bidasoa” Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu da. [Ekainaren 4ko 356/2013 Dekretua](#).

-Aiako harria Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu da. [Ekainaren 4ko 355/2013 Dekretua](#)

4 Habitaten eta espezieen kontserbazio egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko proiektu integratu eta osoak gauzatu dira: Mokoabala eta SACRE; koba-kiropteroak, baso-kiropteroak, ibai-karramarroa eta -arrainak, nahiz kostaldeko eta ur-zohikatzeeko habitatak eta larreak.

5 [Matxitxakoko itsasargiko zetazeoen eta itsas hegaztien behatokia](#) eraiki eta martxan jarri da (2014ko irailaren 10ean).

6 [Espazio natural babestuen \(ENB\)](#) jarraipena, koordinazioa eta arauketa egin da:

-URKIOLako Natura Baliabideen Antolamendu Plana (NBAP) aldatu da. [2014/06/03ko 91/2014 Dekretua](#)

-Mehatzaldea Biotopo Babestu izendatu da. [2015/03/10eko 26/2015 Dekretua](#)

-Erabili eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea berraztertu eta dokumentu arauemaile bakarretarako proposamenak (Parkea + Natura Sarea) egin dira: Urkiola, Armañon, Aizkorri-Aratz, Gorbeia, Izki eta Valderejo.

-Natura Baliabideen Antolamendu Plana (NBAP) berraztertu eta dokumentu arauemaile bakarra proposatu da (Parkea + KBE). URKIOLA

-Itsas-eremuak Babesteko Txostena. Egin eta Ministerioari bidali zaio (2014/03/03).

2. ekimena. Euskadiko geodibertsitatea bermatzea eta bultzatzea, eremu horri buruzko ikerketaren garapena sustatuz eta zeregin hori lurralde antolamendurako tresna eta lanabesetan islatuz, bai gune babestuei bai hirigintza plangintzei dagokienez.

1.10.1 helburua Ekosistemak zaintzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, Geodibertsitaterako estrategia onartu aurretik, zirriborro tekniko-zientifiko bat egin eta parte-hartze prozesu bat gauzatu zen Eusko Jaurlaritzako beste sailekin, foru aldundiekin, udalekin, agenteekin eta herritarrekin.
2. Era berean, 2013an [-EAEko Interes Geologikoko Lekuen \(IGL\) Inbentarioa](#) (prestatu zen; inbentarioan Euskal Herriko Unibertsitateko eta enpresa eta erakunde pribatuetako Geologia arloetako adituek parte hartu zuten.
3. 2014ko ekainean [Euskadiko Geodibertsitate Estrategia 2020](#) onartu zen ([Ingurumena eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014.06.26ko Agindua](#)). Bere Ekintza Planaren bidez (2015/04/17) gauzatzen ari da eta haren jarraipeneko txostena egiten ari da.
4. [Geogarapen](#) hitzarmena, Euskal Kostako Geoparkea kudeatzeko elkarte; eusko jaurlaritza bazkidea da, toki-eremuko beste erakunde batzuekin batera

3. ekimena. Biodibertsitatearen estrategia garatzea, foru aldundiekin batera abian jar daitezkeen askotariko ekimenak indartuz

1.10.1. helburua Ekosistemak zaintzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1.- Legegintzaldi honetan [2009-2014 Aldirako Euskadiko Biodibertsitatearen Estrategia](#) ezarri, ikuspegi hau izanik: “biodibertsitatearen galera gelditzea eta EAEko habitat eta espezieen babeserako lagungarri den egoera lortzea 2020rako, horien balioak gizartean aintzatespena izan dezan sustatuz”.

2. Haren indarraldia amaituta, dokumentazioa eta 2009-2014 aldirako Estrategia zein mailatan bete den aztertu da (2015/01/08) hurrengo plangintza aldia diseinatu eta prestatu aurreko urrats gisa.

3. Halaber, 2015eko lehen seihilekoan lan-eskema definitu eta 2030. urtera iristea aurreikusi den denbora mugan lortu behar diren helburuak erabaki ziren. Biodibertsitatearen galera gelditzeko eta EAEko habitat eta espezieen babeserako lagungarri den egoera lortzeko Europar Batasunaren Biodibertsitateari buruzko 2020rako Estrategiarekin, nahiz Ingurumenari buruzko 2020rako Esparru Programarekin lerrokatzeko prozesua gauzatu da.

4. Estrategia berria prestatzeko prozesua hasi aurretik Euskal Autonomia Erkidegoko natura-ingurunearen egoeraren diagnostikoa egin da, 2016.03.30ean amaitua.

5. Egun, [Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia](#) prestaketan [parte hartzeko prozesuan](#) dago eta, aurreikusi denez, Biodibertsitate Estrategiaren azken dokumentuarekin amaituko da, 2016/05/31n.

6. 2016.02.10ean [Biodibertsitateari buruzko Gizarte Foroa](#) egin zen eta EAEko 100 agente publikok eta pribatuk baino gehiagok parte hartu zuten.

4. ekimena. Euskadiko Biodibertsitatearen Behatokiaren Sarea sortzea dagoeneko existitzen diren behatokiaren artean.

1.10.1. helburua Ekosistemak zaintzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak.

1. 2015eko ekitaldian egoeraren analisia egin, helarazi behar diren balioak definitu eta marka-zerbitzu baten diseinu bat aurreratu zen.
2. Egun helburuak, estrategiak eta metodologia definitzen ari dira eta irudi komuna diseinatzen jarraitzen da.
3. Era berean, naturari lotutako zentroen koordinazio foro baterako deialdia aurreikusita dago.

5. ekimena. Espezieak kontserbatzeko jarduketa plangintza diseinatzea

1.10.1. helburua Ekosistemak zaintzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak:

1. Legegintzaldian basa flora eta fauna espezie mehatxatuak kontserbatzeko eta/edo kudeatzeko zenbait plan egin eta gauzatzen ari dira: Euskadiko [Hegazti nekrofagoak kudeatzeko plan bateratua](#), Koleoptero saporilikoak kudeatzeko plana, Kiropteroak kudeatzeko plana, Naiadeak kudeatzeko plana, Odonatoak kudeatzeko plana, Ibai-karramarroa kudeatzeko plana edo Ibai-arrainak kudeatzeko plana.
2. 2013ko ekainean natura-ondarearen elementuen inbentarioak eguneratu eta Basa eta Itsas Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa aldatu zen. ([Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuaren 2013ko ekainaren 18ko Agindua](#)).
3. 2013 eta 2014an Batasunaren eta eskualdeen intereseko habitat kontserbatu, leheneratu eta hobetzeko jarduketak ezarri ziren, zenbait espezierentzat; haien artean, zapo lasterkaria, martin arrantzalea eta Txingudiko uhalde enara.
4. Era berean, jarduketak egin ziren Bizkaiko -Atxurra, Santa Isabel eta Siete Puertas- eta Gipuzkoako -Kobaundi, Aixa eta Sagain-Zela- kobetako saguzar koloniak babesteko. Halaber, Usabelartzako zohikaztegia leheneratzeko lanak egin dira.
5. 2013an Euskadin Ramsar eta Natura 2000 Sarea izendatutako hezgunetako bat leheneratzeko lanak egin dira Oka ibaiaren goiko estuarioan, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban.
6. [Txinbadia 2014/15 proiektua](#): Txingudiko badia leheneratzeko jarduketak egitekoa, Ramsar izendatutako eta Natura 2000 Sarean sartutako hezegunea den aldetik.
7. Hegazti-faunaren babesari buruzko atalean elektrizitate-lineek eragindako inpaktuen aurrean kartografia bat egin da eta hegazti-faunak babesteko eremuen araudia prestatzeko fasean dago.

6. ekimena. Espezie exotiko inbaditzaileei dagokienez, jarduketa plangintza bat diseinatzea.

1.10.1. helburua Ekosistemak zaintzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015ean Nekazaritza eta Abeltzaintzaren Zuzendaritzarekin batera lan egin zen Vespa Velutinaren jarraipen eta zabalkuntza plan bat prestatzen eta Erlezaintzako Vespa Velutinaren kontrolari buruzko jardunbide egokien gida bat prestatzeko prozesuan.
2. 2014an [Baccharis Halimifolia kudeatzeko gidaliburua](#) prestatu zen. Egun udal eta enpresentzako Baccharis Halimifolia kontrolatzeko gida teknikoa prestatzen ari da.
3. [URA-Uraren Euskal Agentziarekin](#) batera lan egin da etengabe [Zebra-muskuilua EAEn hedatzea kontrolatzeko 2013-2015 aldirako ekintza plana](#) gauzatzen eta haren jarraipena egiten.
4. [Especies exotiko inbaditzaileen](#) egoera globalaren diagnostikoa egin zen 2014an. Eta Biodibertsitate Estrategiaren diagnostikoaren dokumentazioan sartu da.

7. ekimena. Klima-aldaketa apaltzea, egokitzapen ekintzak garatuz, karbonoaren hobiaren garapena sustatuz eta CO2 hartzeko gaitasuna handi dezaketen sistemak bultzatuz.

1.10.1. helburua Ekosistemak zaintzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015.06.02an Klima-aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia onartu eta 2015eko irailean legebiltzarrari aurkeztu zitzaion. 2020rako Jarduketa Plana jaso du, 70 ekintza dituen dokumentu batekin. [Lehendakaria](#) buru duen ordezkaritza bat Parisko COPera (Klima-aldaketari buruzko konferentzia) joan da Euskadik klima-aldaketaren arloan dituen konpromisoak aurkezteko.

2. 2014 eta 2015ean Lehendakariak, Quebec eta South Australiarekin batera, The Climate Group States and Regions delakoaren baterako presidentzia izan du. Eskualde eremuan esperientziak partekatzeko eta handik klima-aldaketari buruzko nazioarteko elkarrizketan eta akordioetan eragiteko sare bat da. Sare horretan munduko 35 eskualde daude.

3. 2015eko azaroan Euskadik bat egin zuen Under2MoU-rekin-Klimari buruzko Nazio azpiko Lidergo Globaleko Ulermenerako Memoranduma. Beste 126 toki- eta eskualde-erakunderekin batera, 2050erako bere emisioak mugatzeko konpromisoa hartu du, mendearen amaieran berotze globala 2°C-ren azpitik mugatzen irimotasunez laguntzeko bidean.

4. Toki-eremuko [KLIMA 2050-Klima-aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategiaren](#) edukia eta helburuak Parisko COP21 Klimaren Munduko gailurrean ICLEI Herri eta Hiri Jasangarrien Elkarteak antolatutako [Ekintza Eraldatzaileen Programaren \(TAP\)](#) topaketan; izan ere, Eusko Jaurlaritzak aurkeztu zuen "Hiru euskal hiriburuen klima-aldaketako ekintza" proiektua nazioarteko 24 proiekturik onenen artean hautatu zuten, duen eraldaketa ahalmen positiboagatik. (2015/11/13)

5. (2015/11/27) Udalsarearen bidez, 10 euskal udalek "Compact of Mayors" sinatu zuten eta European "Full Compliant" lortu zuten lehenak izan ziren. Compact-ek plataforma komuna ezarri du toki-ekintzak klima-aldaketaren aurka duen inpaktua biltzeko, isuriak neurtuz, inpaktuak identifikatuz eta esfortzuen berri emanez.

6. 2015eko amai aldera Lehiakortasunari eta klima-aldaketari buruzko azterlana egin zen eta [Euskadiko klima-aldaketari buruzko 12 jardunbide egoki](#) azaltzen dituen agiri bat argitaratu zen. Halaber, 12 jardunbide egoki agiria argitaratu zen; han, enpresek eta euskal administrazioak klima-aldaketaren arloan dituzten 12 jardunbide berritzaile jaso dira.

7. Euskadiko klima-aldaketaren arloko borondatezko ekimenen Dekretua izapidetzen hasi da; haren bidez, euskal erakundeek lagundu ahalko dute, isuriak murriztuz, klima-aldaketara egokitzuz, karbonoaren hobiak sortuz edo euren isuriak konpentsatuz.

8. Klima-aldaketara egokitzearen arloko berrikuntza eta demostrazio proiektuentzako [Klimatek 2016 laguntza deialdia](#) argitaratu da.

8. ekimena. Urdaibaiko Biosferaren Erreserba bultzatzea haren arautegia eta kudeaketa tresnak eta bitartekoak egokituz.

1.10.1. helburua Ekosistemak zaintzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren eremuan urbanizaezin sailkatutako lurzoruan daude bizitegi-eraikinak horizontalki banantzeko aukeraren azterlan bat, eta bideen eta bidezidorren azterlan bat egin zen, Turismorekin, LGE-ekin eta Udalekin koordinatuta. (2014/12/31) Bidezidorrak egokitzeko, seinaleztatzeko eta ezagutarazteko jarduketa bat dago abian.
2. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren [Kartografia](#) berritu da (2015/12/31)
3. [Urdaibaiko Biosfera Erreserban interpretaziorako, ikerketarako, gaikuntzarako eta garapen jasangarrian hezteko plana](#) egin eta 2015/06/02ko Gobernu Kontseiluari ezagutarazi zaio.
4. Arrano arrantzalea berreskuratzeko hezkuntza plana gauzatzea.
5. Presentzia nazioarteko biltzar eta foroetan. Euro MAB Kanada 2013 biltzarra. Euskadik, Quebec eta Eskoziak izango den praktika eta ikerkuntzarako natura-erreserben sare bat hasi dute. [EuroMAB Estonia 2015 biltzarra](#). Urdaibai, Europako eta Ipar Amerikako Biosferaren Erreserben estrategia eta kudeaketarako eredu hautatua. Mediterraneoko Erreserben Sarean (Malta) eta Erakusketa Unibertsalean (Milan) ere parte hartu da.
6. Unesco Etxearekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena ezartzeko fasean dago; haren ingurumen arloaren funtsezko helburua Unescok ingurumena babesteari buruz kontzientziatzeko egiten dituen programak zabaltzen eta sustatzen laguntzea da.
7. [Turismo Jasangarrirako Europako Gutunaren kudeaketa ereduaren ezarpena](#) aintzat hartzea eta Turismo Sailarekin batera [Euskadik helmuga jasangarriaren ziurtagiria](#) izatea lortzeko lan egitea.
8. [Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako Geodibertsitate Estrategiaren](#) jarduketa plana abiaraztea.
9. Abian dago [Urdaibai Erabili eta Kudeatzeko Plan Gidaria](#) (EKPZ) 2025 berritzeko prozesua.
10. Batasunaren eta eskualdeen intereseko habitatak kontserbatzeko, leheneratzeko eta hobetzeko jarduketak gauzatzen ari dira. [Oka Ibaia Proiektua](#).
11. Urdaibairi Balioa Emateko Lan Plana (2014ko iraila) ezartzea
12. Basoa Fundazioarekin jasotako diru-laguntza izendunaren arloan, [Laidabasoko](#) lursail bateko ingurumena leheneratu zen, artadi kantauriarra naturalki gara dadin (2015/12/31)

1. ekimena. Uren kalitatea eta tratamendua hobetzea. Horretarako, uren hornikuntza, saneamendu eta arazketa sareetan hobekuntza neurriak hartuko dira eta uholde arriskuei aurre egiteko identifikatutako ekimenak gauzatuko dira, esate baterako ibaietako eta erreketako ibarrak hobetzeko lanak.

1.10.2 helburua. Ingurumenaren kalitatea hobetzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Sarea: Oion-Oyón kolektoreak. Araba. 2. eta 3. faseetako ondorioa. Hondakin Urak Tratatzeako Planta (Edar) egikaritze fasean dago; URAREN bidez.

2. Martxan jarri da [Santa Katalinako saneamendu kolektore](#) berria, Donostian (martxoa 2014); URAREN bidez, hiriko zati handi bateko hondakin urak Loiolako EDARera eramaten ditu, ondoren araztu eta itsasora isurtzeko.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Plangintza Hidrologikoaren lehenengo zikloa (2010-2015): Behin betiko onartu da [Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa 2009-2015](#) (400/2013 Errege Dekretua, 2013ko ekainaren 7koa), Eusko Jaurlaritzaren ekarpenekin.

4. 2015-2021 Plangintza Hidrologikoaren bigarren zikloa. [Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa 2015-2021](#) berria izapidetu da, URAREN bidez. Hala, urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretua argitaratu da, Kantauri Mendebaldeko, Gualdaquivirreko, Ceuta, Melilla, Segura eta Júcarreko eta Kantauri Ekialde, Miño-Sil, Duero, Tajo, Gudianako mugapen hidrografikoetako espainiar alderdiko eta Ebroko plan hidrologikoen berrikuspena onartzeko. (2016-01-19)

5. URA-Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan, [Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana \(2015-2021\)](#) onartu da, urtarrilaren 20ko 20/2016 Errege Dekretuaren bidez. Dekretu hori Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoaren gainekoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen eremuari dagokionez.

6. Nerbioi-Ibaizabal ibaien bideratzea. Nerbioi eta Ibaizabal ibaiak bideratzeko proiektuaren bigarren fasea egikaritze fasean dago, Urbi-Bengoetxe tartean (2015eko abendua); URA-Uraren Euskal Agentziaren bidez. Basauri-Galdakao tarteko I. faseko obrak eta Bolueta-Urbi tarteko Nerbioi-Ibaizabal hodi biltzaileko obrak (2. fasea) ere egikaritze fasean daude.

7. Urumea ibaiak Donostiako Martutene auzotik igarotzean sortzen dituen uholdeei aurre egiteko proiektua aldatu da. 1. fasearen banakapena.

8. Getxoko Gobela ibaian (Bizkaia) uholdeen aurka babesteko jarduerak egin dira, berau hidraulikoki egokitu eta ingurumen aldetik berreskuratzeko. Tarteak: Errekagane eta Fadura gunea.

9. Villabona-Zizurkilen Oria eta Asteasu ibaietako uholdeei aurre egiteko eta ibai horiek bideratzeko proiektua aldatu da, zehazki, bigarren fasea. 1. separata.

10. [Azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren](#) bidez, aldatu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

2. ekimena. Airearen kalitatea hobetzea, betiere sektorerik konplexuenetan jarduketak sustatuz eta airearen kalitatea zaintzeko eta kontrolatzeko sarea optimizatuz.

1.10.2 helburua. Ingurumenaren kalitatea hobetzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailaren laguntza zehatzak, garapen iraunkorra sustatzeko testuinguruan airearen kalitatea hobetzeko:

[2013 deialdia](#), ebatzia ([2013-12-30 ebazpena](#))

[2014 deialdia](#), ebatzia ([2014-12-30 ebazpena](#))

2016 deialdia, martxan; eskabideak aurkezteko epea 2016/02/04an amaitzen da.

2. 2013an, airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sare berri bat, [webgune berria eta telefono mugikorretarako aplikazioa](#) jarri ziren martxan, eragin zuzenena zuten udalekin lankidetzan.

3. 2015eko irailean, EAeko aire mailak objektiboki balioesteko proiektu bat jarri zen martxan eta sarean airearen kalitate sistema bat ezartzea aurreikusitako da, neurketen kalitatea eta trazabilitatea bermatzeko.

3. ekimena. Kutsadura akustikoa murriztea, betiere zaratotsari aurre egiteko ekintza planak prestatuz eta batasunak eta estatuak zaratotsen gainean emandako jarraibideei dagozkien agindeiak ezartzeko neurriak hartuz.

1.10.2 helburua. Ingurumenaren kalitatea hobetzea

Arduraduna: *Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)*

Jarduketak

1. Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailak garapen iraunkorra sustatzeko ekintzetarako emango dituen laguntzen barruan, zaraten mapak egiteko laguntza. Udalerriei diru laguntzak, zarata mapak egin ditzaten:

2013. urtean: Zalla, Amorebieta-Etxano, Orio, Getxo, Ermua, Andoain, Pasaia, Izurtza, Etxebarri, Mallabia, Elgoibar, Valle de Trapaga-Trapagaran, Azpeitia, Legazpi, Erandio, Leioa, Sestao, Aiara-Ayala kuadrilla, Sopela, Igorre, Durango, Zaldibar 208.728.- €-tan.

2014. urtean: Lemoa, Ordizia, Gorniz, Mungia, Basauri, Gernika-Lumo, Ermua, Arrigorriaga, Lekeitio, Zeberio, Hernani, Bermeo, Lezo, Ondarroa 118.430.- €-tan.

2015. urtean: Ebazteke

4. ekimena. Lurzoru kutsatuen legea aldaraztea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan oraingo legea indarrean sartu denetik eskuratutako esperientzia ingurumen bektore honen gaur egungo eta etorkizuneko diagnostikora eramateko helburuarekin.

1.10.2 helburua. Ingurumenaren kalitatea hobetzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Lege proiektua Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2014ko maiatzaren 6an, eta Legebiltzarrera igorri zen.](#) Bertan, era berean, 2015eko ekainaren 25eko 4/2015 Legea onartu zen, lurzoruaren kutsadura ekidin eta zuzentzekoa.
2. Gaur egun, aipatu araua garatzeko dekretua eta lurzoruen plan berria egikaritze fasean daude: [Lurzorua babesteko estrategia 2020](#).

1. ekimena. Hazkunde ekonomikoari lotutako baliabide eta bitartekoen kontsumoa murriztea, betiere hondakinak prebenitzeko eta murrizteko informazio eta heziketa kanpainak bultzatuz, industri eremuan jardun egokiak abiaraziz eta euskal administrazioen erosketa berdeari buruzko irizpideak ezarriz.

1.10.3 helburua. Baliabideen eta hondakinen kudeaketa iraunkorra

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskal administrazioan [Erosketa eta kontratazio publiko arduratsuaren programa 2011-2014](#) (EKPA) garatu eta ezartzea, 2014ko abendura arte. Haren indarraldia amaitutakoan, 2015eko lehen sei hilekoan zehar programaren jarraipena eta ebaluazioa gauzatu ziren.

2. Onartu egin da [Euskal Autonomia Erkidegoko erosketa eta kontratazio publiko berdearen programa 2020](#). Azpimarratzekoa da programa honen irismena modu integralagoan handitu dela, administrazio maila guztietara hedatzeaz gain, enpresen sektorea ere barne hartu delako eta garrantzi berezia duten kategoriak jorratu direlako, besteak beste, herri lana. Administrazio maila guztien artean adostuta eta era partaidean egindako programa da.

3. Administrazio maila guztietan babes etengabea eman da ([Udalerrietako erosketa publiko berdearen gida](#), 2015eko otsaila), lizitazio publikoetan ingurumen klausulak sartzeko. Horrez gain, beren ingurumen eraginagatik edo interes bereziagatik lehenetsi diren produktu edo zerbitzuentzat ingurumen irizpideak garatu eta eguneratu dira.

4. Eraikuntza eta Eraikuntzako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdean lankidetzan aritzeko mahaia jarri da martxan. Helburua erakundeen talde esanguratsu baten artean berrikuntza eta hobekuntzak sustatu eta horiek administrazioko beste eremu batzuetara hedatzea da.

5. Ekodiseinua: Etengabe sustatu da [ISO14006 ziurtagiria](#). Tartean egon dira 100 euskal enpresa baino gehiago, hau da, estatuko ziurtagiri guztien % 47. Halaber, babesa eman zaio produktuaren ingurumen ziurtagiriari ere, eta, hala, 26 ziurtagiri lortu dira euskal enpresetan, hots, Europa mailako kopuru osoaren % 6.

6. Europako proiektuetan parte hartu da: Life Cycle inPractice (LCiP), Huellas, Agro Lca manager edo Product environmental footprint Wine; Ekodiseinuaren Gelako beka-dunekin proiektuak sustatu dira Irizar, Fagor Industrial, Ideilan design, Dhemmen Design, Elster, Grupo Garniz eta Zliv-en, eta [Basque Ecodesign Center](#) delakoko enpresen proiektuetan lagundu da.

7. Ekoeraginkortasuna: Tresnak hedatu eta argitalpen eta koordinazio lanak egin dira agente pribatu eta publikoekin, "Fabrikazio berdea" IEP 2020 proiektu gakoaren eremuan. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin lankidetzan, fabrikazio aurreratuaren estrategiako ingurumen alderdiak garatu dira (RIS, 3).

8. Enpresa euskaldunak ingurumenaren sari europarrera aurkezteko hautagaien aurkezpenean lagundu da, Biodiversidad fundazioarekin koordinatuta. Guztira, estatuan aurkeztutakoen % 20 izan dira.

9. Elementuak automozioan, makinetan, ekipo osagarrietan, konposite birziklapenean, material kritikoetan eta bestelakoetan berrerabiltzeari buruzko etorkizuneko azterketak egin dira eta ekonomia zirkularraren, ekodiseinuaren eta birmanufacturingaren sare europarretan parte hartu da.

2. ekimena. Hondakinen kudeaketaren planifikazioa sendotzea, hiri eta industria hondakinen aprobetxamendua maximizatzeko eta haien isurketa saihesteko helburuarekin.

1.10.3 helburua. Baliabideen eta hondakinen kudeaketa iraunkorra

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [EAEko hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko plana 2020](#). Definizio, diseinu eta idazketa prozesua amaitutakoan (lurralde plangintzarekin integratuta), sailburuaren 2015eko martxoaren 4ko Aginduaren bidez onartu zen.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko hiri [hondakinen urteko inbentarioak](#) (hondakin arriskutsuena eta ez arriskutsuena) egitea. 2013ko inbentarioa eginda dago eta 2014-2015ekoak esleipen/lizitazio fasean.
3. Hiri Hondakinen Koordinazio Organoaren ([HHKO](#)) estrategia definitzeko prozesu bat gauzatu da 2014-2016an, Eusko Jaurlaritzaren, IHOBEn, eta hiru foru aldundien partaidetzarekin.
4. Legegintzaldian zehar hondakin mota desberdinei buruzko araudia onartzea:
 - [1/2013 dekretua](#), urtarrilaren 8koa, [konposatu organiko hegazkorak igortzen dituzten instalazioei buruzkoa](#).
 - [459/2013 dekretua](#), abenduaren 10ekoa, [lurretik itsasora egindako isuriei buruzkoa](#).
 - [21/2015 dekretua](#), martxoaren 3koa, [Euskal Autonomia Erkidegoko osasun hondakinei buruzkoa](#).
5. EAEko hondakinak prebenitu eta kudeatzeko 2020ko planaren lehen jarraipen txostena egikaritze fasean dago.

3. ekimena. Hondakinen berrerabilpena eta birziklapena hobetzea, kudeaketa sistema integratuen zuzeneko ezarpena bultzatuz ekoizleekin, kudeatzaileekin eta toki erakundeekin lotu beharreko akordioen bitartez.

1.10.3 helburua. Baliabideen eta hondakinen kudeaketa iraunkorra

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ontziak murriztu eta prebenitzeko [Ecoembesekin sinatutako hitzarmena 2014-2019](#) berritzea (2014-06-25ean sinatua). Hitzarmen hori aplikatuz, 2015. urtean EAEko toki erakundeek 20 milioi euro baino gehiago fakturatu dizkiote Ecoembesi.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan beirazko hondakinak eta ontzi erabiliak kudeatzeko [Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta ECOVIDRIEN ARTEKO HITZARMENA](#) berritze fasean dago (aurreko hitzarmena 2015ean zehar luzatu zen).
3. 2014ko abenduan, [Euskal enpresako ekoeraginkortasun programa, Memoria 2011-2013](#) delakoaren emaitzak aurkeztu ziren, euskal enpresako ekoeraginkortasunaren 2015-2020 programa egin baino lehen. Era berean, produktuaren hasierako diseinutik bizi amaierako diseinua sartzeko metodologia eta haren iraunkortasuna hobetzeko lanak gauzatzen ari dira.
4. Hondakinen berrerabilpen, birmanufakturazio edo baloraziorako aukera berri baten bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta ingurumenekoa berretsiko duten frogak eginez enpresa aukerak sortzen lagunduko duten [ekonomia zirkularreko proiektuak babesteko laguntzen deialdia](#) izapide fasean dago. Eskaintzak azterketa fasean daude 2016-03-11z geroztik.
5. Gainditu da [Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia zirkularreko demostrazio proiektuak](#) aurkezteko aurretiazko kontsulten prozesua, 2016-01-29an amaitu baitzen. Halaber, proiektuak aurkezteko epea 2015-03-26an bukatu zen. Prozesua azterketa fasean dago orain (2016ko laguntzen deialdia). Legegintzaldian zehar: [2014. Laguntzak / 2015. Laguntzak](#).
6. Eraikuntza eta Eraikigintzako Hondakinen (EEH) arloko informazioa emateko eta arlo horretako gai administratiboak eta teknikoak ebazteko sistema bat diseinatu da toki erakundeekin.
7. 2014. urtean, [hiri hondakinak kudeatzeko ordenantza eredu mota bat](#) egin zen, lantalde baten bidez. Lantalde horretako kideak honakoak ziren: 80 udalerrri ordezkatzan dituzten toki erakundeak, Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, eta Ihobe S.A. sozietate publikoa, iraunkortasunerako udalerrien euskal sareko (hots, Udalsarea 21eko) idazkaritza teknikoaren lanetan. Era berean, [eredua ezartzeko gida](#) bat egin zen.
8. 2015eko urriaren 19an, [1/2015 Jarrabidea](#) onartu da, EAEko bio-hondakinen erkidegoko konposta instalazioetan bete behar diren administrazio prozedurei dagokienez.
9. Hondakinak prebenitu eta kudeatzeko 2020ko planean aurreikusitako jardueren esparruan, hondakinak balioztatze bide berriak aztertuko dituen programa bat egikaritze fasean dago, sektore pribatuarekin lankidetzan. Halaber, ekoizlearen erantzukizun hedatuaren eraginpeko hondakin korrontek kudeatzeko hobekuntzak diseinatzeko azterketa bat jorratu da, gailu elektrikoaren eta elektronikoaren hondakinak (GEEH) arreta berezia jarritz.

1. ekimena. Iraunkortasuna eta natur ingurunearen iraunkortasuna eta zaintza bultzatzea eta europar arautegiak Euskal Autonomia Erkidegoari begira oharmandako ezarpenak txertatzea.

1.10.4 helburua. Sektore publiko-pribatuaren eta herritarren erantzunkidetasuna

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Iraunkortasunerako Hezkuntzaren 2030erako EAEko estrategia](#) prestatzeko fasean dago eta herritarrei ezagutarazi eta haiek parte hartzeko prozesua 2016ko martxoan amaitu da. 2016ko ekainean onartzea aurreikusita dago.
2. Energia Berriztagarriak-Geotermia Madariaga Dorretxean (Urdaibai) ezartzeko proiektua amaitu da.
3. Ingurumenaren Hiri Parke Publiko berria eraikitzeko fasean dago Azpeitiko [Ingurugiro Etxea ingurumen-museoan](#), baita Meatzaldeko Ingurumenaren Parke Kultural berria ere- Txingudi Ekoetxean aurretiko energia-auditoria amaituta dago.
4. Ingurugiro Etxeko Ingurumenaren Hiri Parke Publiko berria instalatuta eta funtzionatzen dago.
5. [Txingudi 2015-2026 Plan Gidaritik](#) datozen Txingudiko badiaren inguruko naturguneen konektibitatea leheneratu eta hobetzeko proiektuak gauzatzeko fasean daude.
6. Amaituta dago Txingudiren eta Domain de Abadieren arteko mugaz gaindiko ingurumen- ekipamenduetan batera lan egiteko 2014-2015 [Txinbadia proiektua](#) (2015-09-30)
7. Urtero deitzen dira boluntarioentzako diru-laguntza programa, [Eskolako Agenda 21](#) eta [Tokiko Agenda 21](#). 2016ko deialdia hasita dago.
8. [Aztertu Programa](#) 2013-2015. Ingurumen hezkuntzako urteko programa, ingurumena zaindu beharri buruzkoa, ingurunea ezagutzea eta parte-hartzea bultzatzen ditu. Bi kanpainaren bidez egin da: [Azterkosta](#) (2014) eta [ibaialde](#) (2015). Bidean dago ibai eta kostaldee buruzko ingurumen hezkuntzako Aztertu Programa 2016-2018.

2. ekimena. Ingurumenari buruzko IV. Esparru Programa prestatzea 2015-2018ko epeari begira eta Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) ezarritako konpromisoak garatzea.

1.10.4 helburua. Sektore publiko-pribatuaren eta herritarren erantzunkidetasuna

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ingurumenari buruzko IV. Esparru Programa egiteko prozesuan eta hura formulatzen laguntzeko agiri hauek egin dira:

- Ingurumenari buruzko IV. Esparru Programa Lerro Estrategikoak (2013ko abendua)
- Euskadiko Ingurumen Profila 2013 (2014ko apirila)
- Euskadiko Ingurumen-egoerei buruzko agiria (2014ko ekaina)

2. Era berean, 2011-2014 III. IEPren eta 2002-2020 Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiaren jarraipena eta ebaluazioa egin dira. (2014-04-15)

3. [EAEko 2020rako Ingurumenari buruzko IV. Esparru Programa](#) (IV IEP) 2014ko abenduaren 2ko Gobernu Kontseiluan onartu zen, Europar Batasunaren 2020ra arteko ingurumenaren arloko ekintza VII. ekintza programa orokorrarekin lerrotatuta, 75 fitxatako dokumentu batekin eta parte-hartzeari buruzko txosten batekin osatuta; fitxa horietan programan aurreikusitako jarduketek garapena jaso da, eta txostenean gauzatutako prozesua deskribatu eta aztertu da. 2015i dagozkion jarduketek jarraipeneko txostena egin da.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Profila: Ingurumenari buruzko informazioa emateko dokumentu hauek egin dira, EAEn ingurumenak duen egoeraren parametrerik bereizgarrienen bilakaerari buruzko ikuspegi globala emateko:

- EAEko Ingurumen Profila 2013: Goiburuko ingurumen-adierazleak (2014-01-30)
- Ingurumen Profila 2015: Urari buruzko monografikoa (2015-12-31). Eginda
- Airearen ingurumen-eremuari buruzko Ingurumen Profila 2016 egiten ari da.

5. Ingurumenari buruzko IV. Esparru Programari buruzko jarraipeneko bi txosten egin dira: Programaren jarduketek jarraipeneko txostena 2015 eta Ingurumenari buruzko Esparru Programaren funtsezko proiektuen jarraipeneko txostena 2015. (2016-01-15)

6. Funtsezko sei proiektu abiarazi dira, sailarteko lantaldeek bultzatuta; haien helburua ingurumenari lotutako politika publikoei koherentzia ematea da, sinergiak lortuz eta gainjartzeak eta bikoiztasunak saihestuz. Jarraipeneko txostena 2015 egin da. 2016rako aurreikusitako ibilbide-orria egiten ari da.

3. ekimena. Ingurumen eragina duten politika publikoen koordinazioa handitzea sailen artean nahiz bestelako erakundeen artean ere, eta, era berean, sektore pribatuen integrazioa eta herritarren partaidetza bultzatzea.

1.10.4 helburua. Sektore publiko-pribatuaren eta herritarren erantzunkidetasuna

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [IV IEPren](#) esparruan, politika publikoetan ingurumenaren integrazioa indartzea aurreikusi da (5. helburua). Beste ekimen batzuen artean, “Fabrikazio Berdea” funtsezko proiektu gisa jaso da; haren helburua proiektu integralak, berritzaileak eta ekoizpenean, materialen zirkulartasunean eta produktu/zerbitzuan balio-katea dutenak aktibatzea da. Programa merkatuan irtenbideak jartzea dinamizatzen duten tresnetan eta palanketan dago oinarrituta, erakunde publiko eta pribatuen arteko 2 lankidetzeta-plataformen bidez:

-[Basque Ecodesign Center Ekimena](#), euskal enpresen partaidetzarekin, produktuen diseinuan ingurumen-ikuspegia sartzeko eta,

-Ekonomia zirkularreko plataforma (ekoeraginkortasuna prozesu eta materialetan). Horri dagokionez, deialdi hauek egin dira:

- [2014. Laguntzak](#) “Hondakinei balioa emateko eta ekonomia zirkularrerako erakustaldi-proiektuak” egiteko (70.000.- €)
- [2015. Laguntzak](#) enpresa-aukerak sortzen laguntzen duten ekonomia zirkularreko proiektuentzat (95.000.- €)

2. Normalizazio-prozesuetan parte hartzen da: Life Cycle inPractice (LCiP), Aztarnak, Agro Lca manager edo Product environmental footprint Wine; proiektuak bultzatzen dira Ekodiseinu Gelako bekadunekin Irizar, Fagor Industrial, Ideilan design, Dhemen Design, Elster, Grupo Garniz eta Zliv-en eta Basque Ecodesign Center-eko enpresen proiektuetan parte hartzen da.

3. Novia Salcedorekin eta Deustuko Unibertsitatearekin, MUREkin eta EHUekin batera, [Basque Ecodesign Hub](#) eratu da Euskadin ekodiseinuari buruzko prestakuntza-jarduera eskaintzeko. Ekimena Bilbon dago kokatuta eta zenbait jarduketa-ardatz dauka: gazteei, bai ikasten bai langabezia daudenei, prestakuntza ematea, enpresekin, batez ere ETE-ekin, batera lan eginez proiektu teknikoak garatzea, Euskadiko industria-enpresak eta haietako teknikariak gaitzea, ekodiseinuari buruzko ikerkuntzako eta ingurumen-zaintzako sistema bat ezartzea eta ekodiseinuaren eta ekonomia zirkularren arloko ekintzaileei laguntzea.

4. Legegintzaldian erakundeen lankidetzeta sustatzeko mekanismoak hartu dira:

-[Udalsarea 21](#): EAEko 203 udalerrik sarean lan egiten dute tokiko eskalan iraunkortasuna sustatzeko.

-Politika publikoak erkatzeko plataforma aktiboa: Klima 2050, 2030erako Biodibertsitate Estrategia, Iraunkortasunerako Hezkuntzako Estrategia, Elikadura Osasungarria...

-[Europako Herri eta Hiri Jasangarrien 8. Biltzarra](#), ICLEI. EJK, foru aldundiek eta hiru euskal hiriburuek koordinatuta lan egin dute Basque Country iraunkortasuneko politiketan aurreratutako eskualde gisa kokatzeko (2016ko apirila)

-Lankidetzeta sektore pribatuko agenteekin: Hitzarmena ACLIMArekin sektoreko azterlanak egiteko eta enplegu berdea sustatzeko edo Hitzarmena Confebask-ekin ingurumeneko politikek euskal enpresen lehiakortasunean duten eragina egiaztatzeko.

4. ekimena. Zergen eremuan sustatzea foru erakundeek pizgarri fiskalak ezar ditzatela, industri isurketen ingurumen eragina murrizteko asmoz.

1.10.4 helburua. Sektore publiko-pribatuaren eta herritarren erantzunkidetasuna

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Teknologia garbietako tresnen eta zerrenden artearen egoeraren analisia egin da nazioartean.
2. **Teknologia garbien euskal zerrendan** jasotako aktibo teknologikoen zabaltzea garatzeko fasean dago, industriaren eskariaren premiak eta euskal eskaintza teknologikoa lerrotatzuz, beste aktibo tipologia batzuk eta ingurumen-portaera hobea duten ekipamenduak sartuz. Teknologia garbien euskal katalogoa eguneratzen eta onartzen duen Aginduaren aurretiko onarpena izapidetu da; katalogoak 9 teknologia gehiago jaso ditu. (2016ko urtarrilaren 21a).
3. Era berean, Ingurumenari buruzko Esparru Programaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Estrategiaren helburuak betetzen gehien laguntzen duten baliabide- eta energia-eraginkortasuneko teknologia lerroak lehenesteko metodologia berria garatzeko fasean dago. Teknologia garbiak hautatzeko protokolo operatibo berri bat prestatu da eta, sektore pribatuarekin batera, 6 teknologia berriren irizpide zehatzak eta errendimenduak definituko dira zerrendaren hurrengo berrikusketan sartzeko.

5. ekimena. Ertzaintzaren ingurumen-unitateak sendotzea, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-
organoekin harreman hurbilagoa ezarriz.

1.10.4 helburua. Sektore publiko-pribatuaren eta herritarren erantzunkidetasuna

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Segurtasun eta Ingurumen Sailburuordetzen arteko lehen bilerak egin dira lan-eremuak eta antolamendu-eredua adosteko. (2016ko urtarrila)

6. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoari eremu energetikoan dagozkion politiketan iraunkortasun ikuspegia txertatzea, betiere politika horiek aurrezpenera eta eraginkortasun energetikora bideratuz, energia berriztagarriak ezarriz eta gutxien kutsatzen duten pertsona eta salgai garraioak sustatuz.

1.10.4 helburua. Sektore publiko-pribatuaren eta herritarren erantzunkidetasuna

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Garraio Iraunkorrerako Plan Gidaria: Euskal Autonomia Erkidegoa 2020](#) egiteko prozesuan parte hartu da; haren helburuen artean, garraioaren erabilera eraginkor eta arduratsua lortzea dago (5. helburua).
2. Era berean, [Euskal Autonomia Erkidegoa 2025 Energia Estrategia](#) egiteko prozesuan, iraunkortasunaren ikuspegia txertatzen lagundu da, sistema energetiko gero eta iraunkorragoa lortzeko, lehiakortasunari, horniduraren segurtasunari eta karbono maila urriari dagokienez.
3. [Klima-aldaketaren aurkako 2050erako EAEko Estrategiak](#) (2015eko ekaina) politika energetikoa jaso du bere helburuetan. Erreferente orokor gisa, “2050ean energia berriztagarrien kontsumoa amaierako kontsumoaren % 40 izatea” aurreikusi da.

7. ekimena. Ekonomia berdeari buruzko kontzeptua garatzen laguntzea, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interesgarriak diren ekimenak bultzatuz eta ingurumen-sektoreen eta ingurumen-administrazioaren arteko lankidetzak publiko eta pribatua sendotuz, bi alderdiek etekinak izan ditzaten.

1.10.4 helburuak. Sectore publiko-pribatuaren eta herritarren erantzunkidetasuna

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015ean lankidetzak hitzarmena sinatu zen ISEB eta Aclimarekin, euskal ekoindustriarik nazioartekotzearen arloan laguntzeko.
2. [Ingurumenaren arloko bikaintasuneko](#) euskal kasuen katalogoa egin da euskal ekoindustriarik nazioartean sustatzeko (Ihobe SA)
3. Ingurumenaren sektoreko euskal enpresentzako eta zentro teknologikoentzako laguntza Horizon 2020ren esparruaren barruko proiektuetan.
4. Aktiboki parte hartzen da nazioarteko zenbait sareetan, hala nola The Climate Group ([2015ean Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartu zuen, 2014ko abenduan Limako saioan hartutako erabakia](#)), Encore (EAEn Europako ingurumen-eskualdeetako ministroak egon dira, 2014ko urrian) edo, Garapen Iraunkorraren aldeko Eskualdeko Gobernuen Sarean ([nrg4sd](#))
5. Laguntza-esparru bat ezartzea zikloen itxiera eta ekonomia zirkularra sustatzeko erakustaldiko proiektuentzat. [2014. Laguntzak: 70.000.- € / 2015. Laguntzak: 95.000.- €.](#)
6. Ekonomia zirkularreko eta eraikuntzaren sektorean hondakinak baliatzeko [Hiser Europar Proiektuan](#) parte hartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europako zentro teknologikoekin batera lan eginez, HORIZON 2020ren eskemaren barruan (2015eko otsaila)
- 7- [Ekonomia zirkularreko proiektuei laguntzeko 2015eko deialdiari](#) dagozkion zikloen itxierarako eta ekonomia zirkularerako hamabi erakustaldi-proiektu gauzatu dira, Ingurumenari buruzko 2020rako Esparru Programaren "fabrikazio berdea" lerroaren barruan eta aukera berriak identifikatu eta 2016ko deialdiaren aurreko ideia lehiaketa atera da
8. Automobilen osagaien berrerabilpenari, makineria eta ekipamendu lagungarrien berrerabilpenari, konpositeen birziklatzeari, material kritikoei, eta abarri buruzko azterlan prospektiboak eta txostenak egin dira.
9. Ekonomia zirkularreko, ekodiseinuko eta remanucaturung-eko europar sareetan parte hartzea.

1. ekimema. Ingurumen administrazioa sinplifikatzea eta arintzea, sinplifikatzeko modukoak izan daitezkeen prozedura guzti-guztiak aztertuz

1.10.5 helburua. Ingurumen-administrazioa arintzea eta sinplifikatzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Lantaldea sortzea jarraibide tekniko berriak garatzeko. 2013-2014ko aldian barne lantalde bat sortu zen Sailburuordetzan eta egoeraren diagnostikoa egin ondoren jarduketa plan bat egin da eta pixkanaka ezartzen ari da.
2. (Irailaren 10eko 407/2013 dekretuaren bidez) aldi baterako eten da ingurumen-lankidetzako erakundeak arautu eta EAeko Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroa sortu duen 212/2012 Dekretua. Abiarazi den Sinpletzeko eta Arintzeko Proiektua aurrera egitearen mende geratu da.
3. Legegintzaldiko Egutegian aurreikusitako [Legearen proiektua, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa](#) egin eta 2014-05-01eko Gobernu Kontseiluan onartu eta Legebiltzarrera igorri zen; haren ondorioa [lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko uztailaren 25eko 4/2015 Legea](#) izan da. 4/2015 Legearen aplikazioaren euskarria izango den izendapeneko prozedurak garatzeko Dekretuaren proiektua egiten ari da.

2. ekimena. Erakundeen eta sektoreko eragileen arteko lankidetzaren sustatzea, betiere administrazioa arintzeko mekanismo eraginkor eta eragingarriak garatzen lagunduz.

1.10.5 helburua. Ingurumen-administrazioa arintzea eta sinplifikatzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Erakundearteko lankidetzaren sustatzeko mekanismoak hartu dira: [Udalsarea 21](#): EAEko 203 udalerrik sarean lan egiten dute toki mailan iraunkortasuna sustatzeko. Zenbait lan-bilera egin dira foru aldundiekin eta beste erakunde publiko batzuekin hari atxikitzeko. [Informatzeko jardunaldiak](#) ere egin dira.

2. 2014ko abuztuaren [Udalsarea 21](#)en, [Iraunkortasunerako Udalerrien Sarearen 2014-2015 Kudeaketa Plan berria](#) onartu zen

3. Legegintzaldian politika publikoak egiaztatzekeo plataforma aktibo bat sustatu da, honako gai hauei dagokienez: Klima 2050-Euskal Autonomia Erkidegoko klima-aldaketaren aurkako estrategia, 2030erako Biodibertsitate Estrategia, Iraunkortasunerako Hezkuntzako Estrategia, Elikadura Osasungarria, etab.

4. 2015eko maiatzean 2016an egingo den ["8th European Conference of Cities and Towns"](#) ICLEI [iraunkortasunaren aldeko hiri eta eskualdeen nazioarteko sarearekin antolatzea](#) onartu zen. Lan koordinatu bat egin da Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta eta hiru euskal hiriburuen artean Basque Country iraunkortasuneko politiketan aurreratutako eskualde gisa kokatzeko.

5. Lankidetzaren sektoreko agenteekin. [Aclimarekin \(ISEB\)](#) sinatutako hitzarmenak sektoreko azterlanak egiteko eta enplegu berdea sustatzeko, Energiari buruzko enpresen arteko topaketak, eta hitzarmena Confebaskekin ingurumeneko politikek euskal enpresen lehiakortasunean duten eragina egiaztatzekeo.

6. Eskolako Agenda 21en eremuan, batez beste 70 udalerrri 334 ikastetxerekin koordinatu dira eta urtero, gutxi gorabehera, 174.000 ikaslek jardun dute guztira iraunkortasunaren aldeko hezkuntzan.

3. ekimena. Merkatuan dauden ingurumen egiaztapeneko tresnak eta lanabesak erabiltzea, horien alde egiten duten erakundeei eta jardueri sinesgarritasuna emateko, betiere administrazioaren presioa murriztuz.

1.10.5 helburua. Ingurumen-administrazioa arintzea eta sinplifikatzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Enpresek eta erakundeek **EMAS ziurtagiriak** lortzea sustatu da, enpresentzako diru-laguntza deialdia indartuz (Enpresentzako ingurumena babesteko diru-laguntzen programa orokorra)

- 2013an, 13 erakundek lortu zuten diru-laguntza, ziurtagiria ezartzeko eta Ingurumen Kudeaketa eta Auditoria Sistemaren Erregistroan (EMAS) izena emateko.
- 2014an, 6 erakundek lortu zuten diru-laguntza, ziurtagiria ezarri eta EMAS erregistroan izena emateko eta 3 erakundek diru-laguntza lortu zuten EMAS erregistroa berritzeko.
- 2015ean, guztira 13 izen emate berri egin ziren EMAS erregistroan, eta sistemari atxikita zeuden 13 erakunderen inskripzioa berritu zen; halaber, erregistratutako enpresa batena deuseztatu zen eta guztira 81 erakunde geratu ziren atxikita autonomia erkidegoaren eremuan.

2. **EBren Etiketa Ekologikoa** lortzea sustatu da: 7 enpresak eta 51 produktuk gehiagok lortu dute etiketa hori X. legegintzaldian. Gaur egun EAEn 19 euskal enpresak eta 129 produktuk dute Ekolabela

3. Prestakuntza eta sustapeneko ekintzak:

- Ekoetiketak: Kontsumitzailearen eskariaren bilakaera nazioarteko merkatuan (2014ko maiatza),
- Etiketa ekologikoak. Nola identifika ditzakegun (Ficoba, 2014ko ekaina), Basque Ecodesign Meeting 2014- Marketing eta Ekodiseinuko saio paraleloa. Nola jakinarazi egiazko ingurumen-informazioa kontsumitzaileari. Merkatuko tresnak (2014ko azaroa),
- Basque Ecodesign Center-en hornidura-katerako prestakuntza: Marketing ekologikoko tailerra (2014ko urria)

4. Europako Parlamentuaren EBren Etiketa Ekologikoari buruzko 66/2010/EE Araudiaren xedapenak betetz egun Euskadiko 17 erakunderen 140 produktuk eta/edo zerbitzuek dute Europako Etiketa Ekologikoa lortzeko dakarren ingurumen-bikaintasun eta -iraunkortasunari lotutako aintzatespena.

5. Produktuaren ingurumen-ziurtagiria lortzea bultzatzea, euskal enpresetan 26 ziurtagiri lortu arte, guztien % 6 Europa mailan; laguntza Basque Ecodesign Center-eko enpresek ziurtagiria lortzeko proiektuentzat, eta ISO14006 ziurtagiria lortzea bultzatzea 100 euskal enpresa baino gehiago izan arte, estatuko ziurtagiri guztien % 47.

6. Euskadiko turismo-ostatueta Europako Etiketa Ekologikoa bultzatzeko Basquetour proiektu pilotuan parte hartzea (laster bere lehen ziurtagiria izatea dauka aurreikusita).

4. ekimena. Ingurumen kontrola eta ikuskapena sendotzea, administrazioaren sinplifikazioaren eraginkortasunik handiena bermatze aldera

1.10.5 helburua. Ingurumen-administrazioa arintzea eta sinplifikatzea

Arduraduna: Iosu Madariaga Garamendi (Ingurumeneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [2011-2018 Ikuskapen eta Kontrol Plana](#) gauzatzen ari da, eta dagozkion urteko ikuskapen eta kontroleko programak ezarri dira pixkanaka. Webean daude 2013, 2014 eta [2015ekoak](#). 2016koa egiten ari da.
2. Kutsatzea saihesteko eta kontrol integraturako neurriak ikuskatzeko plan (IPPC) bat ezarri da, ingurumen-arriskuen ebaluazio sistematikoan oinarrituta, Industria Isurien Zuzentaraua bete eta araudia eraginkortasunez eta efikaziaz betetzeko.
3. Ingurumeneko arazoak identifikatzen, haien ezaugarriak zehazten eta konpontzen eta ingurumen-intereseko eremuak babesten laguntzea, ingurumen-eremuetan lortzea bilatzen duen ikuskapena kudeatuz, adibidez, zenbait eremutako usainengatiko kexak, eremu batzuetan PM10 gaitzeta, babesak, Natura 2000 Sareko espazioak, etab. Urteko programa egin eta sartu da.
4. Kanpainak egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin korrontariek garrantzitsuenetarako, egiatan kudeatzeko bide egokietara doazela ziurtatzeko; hala, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak, eraikuntza eta eraiketako hondakinak, zepak, lurzoru kutsatuen kokaguneetako materiala. Urteko programa egin eta sartu da.

1. ekimena. Alboko lurraldeetako administrazioekiko koordinazioa bideratzea garraioaren inguruko lurralde planifikazioei dagokienez.

1.11.1 helburua. Mugikortasun iraunkorra

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014ko apirilean [Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren](#) aldaketaren hasierako onarpena egin zen; bertan Jundizko terminal multimodalari buruzko alderdi batzuk aldatu dira eta jendaurreko informazioko izapidea bete da. Behin betiko onartzeko izapidetzen ari da.

2. Halaber, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko martxoaren 27ko Aginduaren bidez, [Donostiako \(Donostialdea-Bidasoa Behera\) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren](#) hasierako onarpena egin zen eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2015eko martxoaren 30ean. Garraio-azpiegituren sareak berraztertu dira Donostialdeako eremuan. Agiri berria aurkeztu zen entzunaldiko eta jendaurreko informazioko beste aldi bat izan zezan eta, amaitutakoan, 2016ko otsailean amaitu den aldi batera iritsi da, zeinean ondorioak atera baitira. [Donostia LPP](#)

3. Sustapen Ministerioak egindako Espainiako Estrategia Logistikoa egiteko prozesuan iradokizunak eta ekarpenak egin ziren. Estrategian Euskal Autonomia Erkidegoak ardatz atlantikoan Europaz haraindiko "funtsezko katebegi" gisa duen eginkizuna jasotzea proposatu zen.

4. Era berean, alegazioak egin zaizkio Sustapen Ministerioak bultzatutako Hondarribiko Aireporturako Plan Bereziari. Abiazio orokorreko pistaren eta terminalaren zerbitzu egoera hobetzeko ekintzak iradoki dira.

2. ekimena. Transferituak izan ez diren zabalera metrikoko eta zabalera iberiarreko aldiriko trenbide sarearen eskumena eskatzea, betiere euskal herritarren beharren arabera garraio publiko eta iraunkorrean planifikatu eta inbertitu ahal izateko.

1.11.1 helburua. Mugikortasun iraunkorra

Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldian elkarrizketak egin dira Sustapen Ministerioarekin trenbideen arloko transferentziak garatzeko alde biko negoziazio bat izateko. Aldi berean, Saila ustiapen-planak aztertzen eta egiten ari da, transferitu litezkeen trenbide lineei dagokienez, EAeko Trenbide Sarearen kudeaketa osorantz aurrera egiteko.

2. Errekurtsoa jarri zen Auzitegi Konstituzionalaren aurrean trenbideen euskal lineak eta zatiak "uztailaren 26ko 11/2013 Legean ezarritako "Estatuaren Interes Orokorreko Trenbide Sareko Linea eta Zatien Katalogoa"n sartzearen aurka, Euskal Autonomia Erkidegoak trenbideen arloan dituen eskumenak urratzen dituela uste delako. 2015eko urrian Errekurtsoa ezetsi zuten.

3. Interes Orokorreko Trenbide Sareko Linea eta Zatien Katalogoa onartzen duen urtarrilaren 30eko FOM/710/2015 Agindua indargabetzeko eskatu zen, ebazteke dagoen [Eskumenei buruzko gatazka positiboa](#) proposatu aurreko urrats gisa.

3. ekimena. Errepideko garraio zerbitzu segurua, fidagarria eta eraginkorra eratzea, trenbide sarea osatzeko, eta errepideko garraio sektoreak merkatuan lehiatzea ahalbidetuko dion dimentsionamendu egokia lortzen laguntzea.

1.11.1 helburua. Mugikortasun iraunkorra

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. [Euskadi 2020](#), [Garraio Iraunkorrerako Plan Gidariaren](#) zirriborroa egin eta [EAEko Garraio Agintaritzaren](#) baitan hura aztertzeke batzorde txostengile bat eratu da. Planaren helburua Jaurlaritzak, hurrengo urteetan eta 2020 arte, egin nahi duen mugikortasunaren eta garraioaren arloko politika komuna definitzea da; haren funtsezko xedea, Euskal Autonomia Erkidegoan garraio eredu iraunkorra lortzeko bidean aurrera egitea da.

2. 2015-06-09ko Gobernu Kontseiluak [Salgaien eta bidaiarien errepideko garraioa hobetzeko laguntza-programa](#) bat onartu zuen. Eusko Jaurlaritzak deialdia egin zuen garraiorako zenbait laguntza emateko; laguntzen xedeak hauek dira: salgaien eta bidaiarien errepideko garraioan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzea; teknologia berriak eta segurtasunaren sistemak ezartzea; elkarte profesional eta enpresariak eta jarduera uztea dela-eta laguntza ematea.

-Salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektorean [kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako](#) sistemak ezartzeko laguntzak emateko deia egiten duen agindua.

-Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko [garraio publikoaren sektorean teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak](#) ezartzeko programa bat ezartzen duen agindua.

-Euskal Autonomia Erkidegoko [errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesional eta enpresariak](#) laguntzak emateko deia egiten duen Agindua.

-[Jarduera uztea dela-eta bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorearentzako laguntza-programa](#) bat ezartzen duen agindua.

3. Prestatzeko fasean dago Errepide Plan Orokor berri bat, [Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Errepide Plan Orokorra](#) ordeztzeko, haren indarraldia 2016an amaituko baita.

4. ekimena. 2013 -2020ko epeari begira garraio iraunkorraren gida plangintza berria onestea integrazio multimodalean oinarrituko den garraio politikaren ezarpenerako erreferentzia esparru gisa, betiere garraioa lurralde politikaren zatitzat hartuz.

1.11.1 helburua. Mugikortasun iraunkorra

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. [EAEko Garraio Iraunkorrerako 2020erako Plan Gidaria](#) agiriaren zirriborroa dagozkien administrazioei eraman zaie eta garraio iraunkorraren arloko europar politika berriaren bigarren Liburu Zuria -Europako garraio politika 2010ari begira: egiaren ordua- eta Klima-aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia kontuan hartuz egin da.

5. ekimena. Bizikletetarako bideen plangintza bat garatzea foru aldundien lankidetzarekin, Euskal Autonomia Erkidegoak ibilbideen jarraikortasuna bermatuko duen sare interkonektatua izan dezan.

1.11.1 helburua. Mugikortasun iraunkorra

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. Bizikletetarako Bideen Plana egin da eta behin betiko onartu aurretik Arabako Foru Aldundiarekin adostea falta da.

6. ekimena. EAEko aireportuen kudeaketan abian jarri beharreko politika ezarriko duen aire kudeaketari buruzko plangintza bat prestatzea, osagarritasunean eta aireportu bat hiru terminal deritzon printzipioan oinarritua, betiere aireportu mugakideen lankidetzarekin, batik batik Miarritzekoarenarekin. Ildo horri jarraituz, aireportuen eta portuen kudeaketaren transferentzia aldarrikatzea.

1.11.1 helburua Mugikortasun iraunkorra

Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. Aireportuak Kudeatzeko Plana egin da, euskal aireportuen kudeaketa eredu integratuan oinarrituta; plan horretan aireportuak koordinatzeko batzordeak eta hiru euskal aireportuak sustatzeko sozietateek parte hartu dute.

7. ekimena. Azpiegitura adimendunen sare bat bultzatzea eta sustatzea operatzaile pribatuekin eta foru nahiz toki erakundeekin elkarlanean.

1.11.1 helburua. Mugikortasun iraunkorra

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. Koordinazioari begira eta operatzaile pribatuekin batera lan eginez Basque Country Logistic (Sare Logistiko Integratua) estrategia sartu da [Mugikortasun eta Logistikaren Klusterrean](#).
2. Abian jarri da ibilgailua partekatzeko sistema Moveuskadi atariaren barruan.

8. ekimena. Azpiegitura berriei lotutako barne eta kanpo kostuen aldez aurretiko ebaluazioa aintzakotzat hartzea inbertsio erabakiak hartzeko orduan.

1.11.1 helburua. Mugikortasun iraunkorra

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. [Garraio azpiegituretako](#) inbertsio proiektu eta azterlanetan haiei lotutako kostuen ebaluazioa egiten da. Donostialdeako Metrorako Proiektuaren barruan ekonomia, gizarte eta finantza errentagarritasunaren analisi bat sartu da. Galdakaorako lotura egiteko 5. Linearen proiektuan kostu-eteकिनaren eta gizarte, ingurumen eta ekonomia errentagarritasunaren analisia sartu da.

2. Prestatzeko fasean dago Errepide Plan Orokor berri bat, [Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Errepide Plan Orokorra](#) ordeztzeko, haren indarraldia 2016an amaituko baita. Plan horretan mota horretako gogoetak hartuko dira aintzat.

9. ekimena. Bestelako ikuspegi sektorialak integratzen lagunduko duten azpiegiturak eraikitzeko laguntza ematea, enpresen lehiakortasuna eta nazioartekotzea hobetzeko, jarduera turistikoari bultzada emateko edo garraibide iraunkorren erabilera handiagotzeko

1.11.1 helburua. Mugikortasun iraunkorra

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskal Autonomia Erkidegoak zuzenean parte hartzen du, beste bost autonomia erkidegorekin batera, [igarobide atlantikoaren](#) eraikuntzan, eta haren lehentasunezko ardatza Europaz Haraindiko Garraio Sarea da.

2. Garraio enpresak birdimentsionatu, modernizatu eta hobetu asmoz, zenbait laguntza-programa izapidetzen ari dira urtero; haien artean, hauek azpimarra daitezke:

a) Laguntza ematen ari da [garraio enpresak nazioartekotzeko](#).

b) Laguntza ematen ari da teknologia berriak sartzeko, adibidez, Garraio publikoaren sektorean teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko laguntza-programaren bidez.

c) Laguntza ematen ari da [garraio enpresak](#) birdimentsionatzeko prozesuetarako, haiek metatzea edo biltzea erraztuz.

10. ekimena. Hiriburuetan eta haien eraginpeko inguruan metropolietako trenbide eta tranbia garraio sistemen garapenean aurrera egitea.

1.11.1 helburua. Mugikortasun iraunkorra

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014-2015 biurtekoan 179 milioi euro erabili dira metropolietako trenbide eta tranbia garraioan.
2. 2015eko apirilean Metro Bilbaoren azken trenbide-pasagunea kentzeko obren lehen fasea amaitu zen, Urdulizen, eta lanak abian daude oraindik.
3. Bilboko metropoliko trenbidearen 5. linearen ingurumen-inpaktuaren adierazpenari buruzko prozesua amaitu ondoren, hura eraikitzeke proiektua idazten ari da. Era berean, 4. linea eraikitzeke proiektua idazten ari da (1. fasea).
4. Prestatzeko fasean dago [Bilboko Tranbia](#) sarea zabaltzeko proiektua. Zehazki, Eusko Jaurlaritza, ETSren bitartez, Autonomia-Zabalburu-Pio Baroja tranbia-eraztuna ixteko proiektua egiten ari da. Proiektu horren baitan egun bide bakarra duen Abando eta Pio Baroja arteko ibilbidea bikoiztea jaso da.
5. Donostialdeako Metroan eraikitzeke fasean daude Herrera-Altza zati berria eta Alzako geltoki berria. Halaber, Loiolako geltokiko eta bidezubiko obrak eta Loiolako geltoki berriko obrak egiten ari dira.

1. ekimena. Inplikaturako administrazio publiko guztien arteko politikaren koordinazioa eta akordioa indartzea, Euskadiko Garraio Agintaritzaren eremuan Garraioaren Lurralde Agintaritzei bultzada emanez eta Euskadiko Garraio Behatokia sendotuz.

1.11.2 helburua. Pertsonen eta salgaien garraio politika

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. [Euskadiko Garraio Agintaritza](#) (EGA) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kontsulta eta koordinazio organo goren gisa duen posizioa finkatzen ari da, garraioaren eta azpiegituren antolamenduaren arloan. 2014an EGAK hiru osoko bilkura egin zituen eta zenbait gaitan aurrera egiten lagundu zuen horrek; besteak beste, [Txartel Bakarraren garapenean](#).

2. [Euskadiko Garraio Behatokiak](#), Euskal Autonomia Erkidegoko garraio sistemaren portaera ezagutzeko, aztertzeko, interpretatzeko eta proiektatzeko dihardu.

2. ekimena. Garraio publikoari laguntzeko mekanismoak eta bitartekoak abian jartzea, esate baterako Garraio Sistema Adimendunak eta garraio iraunkorren gaineko informazio sistemak ezartzea, mugikortasunaren eta zerbitzuen eskaria kudeatzeko, betiere garraio kolektiboaren geltoki inguruetan disuasio aparkalekuak bultzatuz eta Euskadi osoari begira garraibide publiko guztien txartel bakarra indarrean jarritz.

1.11.2 helburua. Pertsonen eta salgaien garraio politika

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. Lurraldeetako txartelen sistema interoperatibo bat ezartzeko [Garraio Txartel Bakarra](#) garatu da, Euskadiko Garraio Agintaritzak (EGA) bultzatuta. Hala, Bilboko eta Gasteizko tranbietan berdin erabil daitezke Bat (Araba), Barik (Bizkaia) eta Mugi (Gipuzkoa) txartelak.

2. Bat-Barik-Mugi interoperatibotasunaren azterlana amaitu eta EAeko Lurralde Agintaritzari aurkeztu zaio. Halaber, Legebiltzarrari gauzatzen ari den [Bat, Barik eta Mugi txartelen arteko interoperatibotasunerako Masterplana](#) aurkeztu zitzaion.

3. 2016ko otsailean Bizkaiko Garraio Kontseilu Nagusiak, Eusko Jaurlaritzatik egindako koordinazio lanaren ondoren, Metro Bilbaon Mugi eta Bat txartelak erabiltzea ahalbidetzen duten hitzarmenak onartu zituen. Gailu horiek metroan diru-zorro modalitatean erabili ahal izateko behar zen adostasuna lortu zen. Urrats hori txartelen erabateko operatibotasuna eta EuskoTren eta Metro Bilbaoko sare nagusian ezartzea lortzeko prozesu iraunkor batean sartzen da.

1. ekimena. "Euskal Y" trenbide sare berria eraikitzen jarraitzea, pasai, ingurumen eta gizarte alderdien integrazioa bermatuz; era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko garraio sistemaren kudeaketa integrala bideratzea eta Nafarroarekiko sarearen konexioa eta Frantziako abiadura handiko sarearen konexioa ere eskatzea.

1.11.3 helburua. Trenbide sare berria, "Euskal Y"

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraioko sailburuordea)

Jarduketak

1. Martxan jarraitzen dute Gipuzkoako Lurralde Historikoan Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berriaren plataformako obrek. Guztira, hamabost tarte daude egikaritze fasean.
2. Hamabost tarteetatik lau onartuta daude: Ezkio-Beasain, Beasain-Oeste, Legorreta, Tolosa-Hernalde.
2. Gaur egun, honako tarteak daude eraikuntza fasean: Bergara-Bergara, Bergara-Antzuola, Antzuola-Ezkio/Itxaso Oeste, Antzuola-Ezkio/Itxaso Este, Ezkio Itxaso, Tolosa, Hernalde-Zizurkil, Zizurkil-Andoain, Andoain-Urnieta, Urnieta-Hernani, Hernani-Astigarraga.
4. Trenbide sare berria Iruñearekin lotzeko proposamena egiteko prozesuan zehar, Sustapen Ministerioak izapidetua bera, iradokizunak aurkeztu eta ekarpenak egin dira. Ildo horretatik, trenbide sare berria Iruñearekin Ezkio bidez lotzeko aukera jakinarazi zaio Sustapen Ministerioari.
5. Aldian-aldian bilerak egiten dira trenbide sare berriko [hiritara sartzeko erakunde arteko batzordeetan](#).

1. ekimena. Estatuari euskal aireportuen transferentzia eskatzea, euskal aireportu sistemaren kudeaketa eredu deszentralizatuari heltzeko eta, edozein kasutan ere, estatuaren administrazioari galdatzea Euskadiko Aireportuak Kontrolatzeko Zentroa sor dezala.

1.11.4 helburua. Aireportuen eredu integratua

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. Ekimen hau Aireportuak Kudeatzeko Planarekin lotuta dago. Plana Aireportuak Koordinatzeko Batzordeari aurkeztu zitzaion. Planaren ardatz nagusia "aireportu bat, hiru terminal" printzipioa da. Planeko lehentasunezko edukietako bat honako hau zen: EAEn dauden hiru aireportuen eskumenak hartzeko ibilbide-orri bat prestatzea, gaur egun Estatuak kudeatzen baititu aireportu horiek AENA entitate publikoaren bitartez. Aireportuak Kudeatzeko Plana erreferentzia estrategikoa da Eusko Jurlaritzak Aireportuak Koordinatzeko Batzordean egoteko eta Estatuako Administrazio Orokorren aurrean agertzeko.

2. ekimena. Aireportu azpiegituren eta Euskal Autonomia Erkidegoko garraio sistema osoaren - bai trenbide sistema bai autobus zerbitzu eraginkor eta fidagarria- arteko lotura sustatzea.

1.11.4 helburua. Aireportuen eredu integratua

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraio sailburuordea)

Jarduketak

1. Ekimen honen ezarpena Aireportuak Kudeatzeko Planari lotuta dago. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko aireportuak kudeatzeko eredu integratua izeneko dokumentuan hiru aireportuen egoera aztertzen da, beste garraio sistema batzuekin lotzeko ikuspegitik eta horien irisgarritasuna kontuan hartuta. Dokumentu horretan, bestalde, aireportu horiek EAEko garraioaren beste azpiegitura sistemarekin integratzen laguntzeko proposamenak jasotzen dira.

2. Aireportuak Kudeatzeko Planeko edukiak erreferentziakoak dira Eusko Jaurlaritzak AENArekin egiten dituen bilera teknikoetan (aireportu bakoitzaren Marketin Planak prestatzeko bileretan), baita hiru aireportuak sustatzeko sozietateekin egindako bileretan ere.

1. ekimena. Euskal Administrazioak lideratuko duen Portu Agintaritza bat bultzatzea Paisaia eta Bilboko euskal portuei begira.

1.11.5 helburua. EAEko portuak hobetzea

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraioko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Lege Proiektua](#) Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari da.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko portuen eta itsas garraioaren lege proiektuan, egun izapide fasean dagoen horretan, zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat sortzeko aukera aurreikusi da tresna nagusi gisa, portuen gaia Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzeko. Kaiak erakundea sortuta, aurrera egin nahi da Euskadiko portu guztien kudeaketa integralerantz, betiere erabiltzaile guztiei kalitate estandar berdinak dituzte zerbitzu espezializatuak bermatuta.

3. Kudeatzaileek merkataritza eragiketen balio erantsia areagotzeko garatzen dituzten plan estrategikoak sustatzeko asmoz, horretarako instalazioak handituz eta horietako trafikoak dibertsifikatuz, Eusko Jaurlaritzak, [Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren](#) bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru merkataritza puntuetako (Bilbo, Paisaia -transferitu gabeak- eta Bermeoko) jarduerak koordinatzen laguntzen du.

2. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko portuen kudeaketa lana hobetzeko beharrezko arauzko neurri erregulatzailerak garatzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei buruzko Legea, Portuen Lurralde Plangintza Sektorial berria eta plangintza bereziak, halakorik ez duten portuetan).

1.11.5 helburua. EAEko portuak hobetzea

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraioko sailburuordea)

Jarduketak

1. Legebiltzarrean izapidetzen ari da [Euskal Autonomia Erkidegoko portuen eta itsas garraioaren lege proiektua](#), Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko portuak guztiz arautzea xede duena, portu ingurua lurralde eta hirigintza aldetik antolatuz eta euskal titulartasuneko portuak ustiatu eta eraikiz.
2. Era berean, idazkuntza fasean dago Portuen lurralde plangintza sektoriala. Azken hori lurralde eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sailek prestatu dute eta, bertan, lurralde antolamendurako gidalerroak garatzen dira. Halaber, [plan bereziak](#) daude portu jakin batzuetan: Bermeo, Hondarribia, Getaria eta Mutrikun.

3. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko portuetako azpiegiturak hobetzea, zenbait lonja, dartsena eta sarbidetan lan eta jarduketak zehatzak eginez.

1.11.5 helburua. EAeko portuak hobetzea

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraioko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014ko neguko denboraleen eragina jasan duten portuak berreraikitzeke laguntza programaren barruan, [Bermeoko](#) eta Orioko portuetan dikeak konpontzeko hainbat lan egin dira, bai eta euskal kostaldeko gainerako portuetan ere.
2. Kaiak urbanizatu eta Mutrikuko Kirol Portuko barne dartsena nautiko-kirolekoa egokitzeko obrak amaitu dira eta azken hori martxan dago berriz.
3. Amaitu da [Ondarroako Portuan Arrain Lonja](#) berria eraikitzeke proiektua.
4. Ur geruzaren erabilerak berrantolatu dira, Donostiako Portuan arrantza, itsas eta kirol erabilerak uztartu eta optimizatzeko. Halaber, lonja birmoldatzeari ekitea aurreikusi da, bere azaleraren zati bat kirol portuetako bulegoetarako eta aisialdi ontzietan eta belaontzietan datozen pasoko turisten zerbitzuetarako erabil dadin.

4. ekimena. Pasaiaiko portua eraberritzeko lanak garatzea, portuaren eremuan, bideragarritasunean eta kudeaketan sakonduko duen azterlan bat ahalbidetuz ekonomi eta ingurumen iraunkortasunaren ikuspegitik.

1.11.5 helburua. Euskal Autonomia Erkidegoko portuen hobekuntza

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraioko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015eko ekainean, Eusko Jaurlaritzak [Pasaiaiko badia eraberritzeko txostena](#) egin zuen eta gizarte eta ekonomia mailan garatu zuen. Bertan, lurralde eta estrategia mailako hainbat jarduera jasotzen ziren eta Pasaiaiko badian ekonomiaren eta enpleguaren errealitatea zehatz-mehatz aztertze eta Herrerari buruzko adostasun instituzionala berriz ere lortzeko gomendatzen zen. Era berean, erakundeen arteko lankidetzak sustatzen zuen, inguru horretan premiaz jarduteko.

2. Badia eraberritzeko eta herritarren sinesgarritasuna berreskuratzeko beharizanari buruzko adostasuna egon badagoela oinarri hartuta, erakunde arteko akordio bat formalizatu da, [Pasaiaiko badia eraberritzeko](#), inguru hori ongizate espazio bat bihurtu dadin, portu hiritar, lehiakor eta iraunkorarekin bizikidetzak orekatuan.

1. ekimena. Eremu logistiko intermodalean sare bat ezartzea, bere barnean garraibide desberdinak hartuko dituen: ohiko trenbidea eta euskal trenbide sare berria eta autopista nahiz autobien sarea, horiek guztiak herrialdeko portu eta aireportu azpiegiturekin konektatuz eta Atlantikoko merkataritza korridorearekin integratuz.

1.11.6 helburua. Plataforma logistikoak

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraioko sailburuordea)

Jarduketak

1. Agente publiko eta pribatuekin lankidetzan, [Basque Country Logistics](#) marka hedatzeko estrategia bat ezartzeko lanak martxan daude. Horren harira, Basque Country Logistics markaren aurkezpena egin zen Bartzelonako Garraio eta Logistikaren Nazioarteko Sarean (SIL'2014).

2. Era berean, SIL'2014 delakoan, Bilboko eta Pasaiako portuak sustatu ziren, biak ere Bizkaiko golkoan kokatuak eta Iberiar Penintsularen barnealdera eta Europako hego-mendebalde atlantikora sartzeko atea baitira. Halaber, gaitasun operatiboa daukate karga, garraio eta logistikaren eremuetan.

2. Euskadiko eskaintza logistikoaren sustapena Basque Country Logistics marka pean garatzen da. 2015ean zehar, Europako azoka eta lehiaketa logistiko nagusietan parte hartu zen. Adibide gisa, FERIA Intermodal Europe (Hanburgo- 2015eko azaroa) delakoan parte hartu zen. Azoka hori edukiontzien garraio, logistika eta industriaren hitzordu nagusietako bat da eta, bertan, logistika eta garraioko euskal zerbitzuak sustatu ziren, Europako hego-mendebaldean.

3. "[Basque Country Logistics](#)" marka, 2016. urtean, honako lehiaketetan ikusi ahalko da:

- Fruit Logística (Berlin) (otsailak 4-5)
- SILT Paris (martxoak 22-25)
- Intermodal Southamerica (Sao Paulo) (apirilak 5-7)
- Expomin (Santiago de Chile) (apirilak 25-29)
- Multimodal (Birmingham) (maiatzak 10-12)
- FERIA Breakbulk (Amberes) (maiatzak 24-26)
- FERIA BIEMH (Barakaldo) (maiatzak 30-ekainak 4)
- SIL/CONGRESO ALACAT (Bartzelona) (ekainak 7-9)
- European Commodities Exchange (Turin) (urriak 6-7)
- Fruit Attraction (Madril) (urriak 5-7)
- Breakbulk (Houston) (urriak 17-20)
- Intermodal Europe (Rotterdam) (azaroak 15-17)
- INTERGUNE (Bilbo) (azaroa).

2. ekimena. Trenbideak Euskal Autonomia Erkidegoko portuekin konektatzeko bultzada ematea eta Foronda-Jundizko trenbide sare berriarekin integratzen den eremu multimodal bat garatzea.

1.11.6 helburua. Plataforma logistikoak

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraioko sailburuordea)

Jarduketak

1. Gasteizko Garraio Zentroa proiektua. Sustapen Ministerioari zera planteatu zaio, [Arabako Erdiguneko Arlo Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean](#) izango duen lurralde sarrera zehaztutakoan, [Jundizko terminal logistiko intermodaleko](#) proiektuen bigarren faseari ekitea.

3. ekimena. Lezo, Jundiz-Foronda, eta Arasurreko plataforma logistiko intermodalak garatzea, trenbide azpiegituren arteko konexioa indartuz eta zama lanetarako portu (Pasaia, Bilbo, Bermeo) eta aireportu (Foronda) azpiegitura handiekin baterako ekintzak bultzatuz.

1.11.6 helburua. Plataforma logistikoak

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraioko sailburuordea)

Jarduketak

1. Herrialdeko terminal logistiko intermodalak garatzeko proiektuaren esparruan, Lezoko eta Jundizko plataforma intermodalek lurralde eta hirigintza arloan duten sarreraren gaineko azterketak egin dira. 2016ko apirilean, Arasurreko bide plataformako obrak hasiko dira.
2. Iradokizunak eta alegazioak aurkeztu dira trenbidearen hegoaldeko saihebidetaren proiektuen aurrerapenerako. Azpiegitura hori, izan ere, funtsezkoa da Bilboko Portuaren lehiakortasunerako.
3. 2013. urtean zehar, Eusko Jaurlaritzak plataforma logistikoak sustatzea (Lezo, Jundiz eta Foronda) ezarri zuen bere helburuen artean. Ildo horretatik, EAEko plataforma logistikoen sistemarekin lotutako garapen planak egiteak eta zentro eta plataforma logistikoetan parte hartzeak zuten garrantzi ekonomikoa azpimarratu zen.

1. ekimena. Erakunde arteko lankidetza mekanismo bateratuak ezartzea, Europar Batasunaren aurrean dauden interes komunak defendatzeko xedez.

1.11.7 helburua. Euskadi-Akitania arteko komunikazioa

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. 2012-2014 aldian zehar, [CA-Effiplatt proiektua](#) ezarri da. Proiektu hori INTERREG Espazio Atlantikoa 2007-2013 programa europarraren hirugarren eta azken deialdian sartzen da eta haren helburua salgaien garraiorako trenbide azpiegitura garatu, planifikatu eta betearazteko bultzada ematea zen, portuen konexiorako behar diren azpiegiturak barne.

2. 2015ean, CA-Effiplat proiektuko emaitzen balantzea egin eta aurkeztu zen, korridore atlantikoan intermodalitatea sustatzeko tresna gisa.

3. 2015eko uztailan, [Pas-de-Calaisetik Vitoria-Gasteizerako trenbide autopista](#) luzatzeko proiektua sustatu zen, eta, hala, salgaien garraio iraunkorrerako Europako lehentasunezko proiektuetako bat gauzatu zen. Horrela bada, Jundizko poligonoa tren berezietan doazen kamioi eta trailerren eta salgaien garraiorako trenbide autopista atlantikoko erreferentziako puntu bilakatuko da.

4. Lankidetza ezarri da [Trenbideen Nazioarteko Batasunarekin](#) (TNB), trenbideen mugikortasunaren sektorean nazioarteko estrategiak zehazteko. Horren harira, Bilbon TNBren Abiadura Handiko eta Intercitien Batzorde Zientifiko eta Teknikoen jardunaldiak ospatu ziren (2015eko azaroa).

2. ekimena. Mugaz gaindiko garraio politikak garatzea Akitaniako tokian tokiko eta erregioetako agintaritzekin lankidetzan, zerbitzuen eskaintza optimizatzeko helburuarekin, (bi aldeen arteko konexioak, Hondarribia eta Miarritzeko aireportuak, Donostialdea eta Baionaren arteko trenbide garraibide zerbitzuak eta Bilbo eta Bordelen arteko komunikazio ardatza sendotzea garraio sare atlantikoaren barruan).

1.11.7 helburua. Euskadi-Akitania arteko komunikazioa

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraioko sailburuordea)

Jarduketak

1. Amaitu egin da [Transfermuga](#) proiektua, 1. fasea. Hala, Hendaiako SNCF geltokian seinaleak jarri dira, erabiltzaileak ETS/Euskotren geltokira zuzentzeko.
2. 2014 ekitaldian, Akitania-Euskadi euroeskualdeko lankidetzaren esparruan, [Transfermuga 2](#) proiektua diseinatu zen. Proiektu horren asmoa bidaiarientzako informazioa eta txartelen igorpen sinplifikatua hobetzea da.
3. 2015eko azaroan, [Akitania-Euskadi euroeskualdea](#) Poctefa deialdira aurkeztu da, bi proiektuekin: lehena, Bordele-Baiona-Donostia (Bilbo) korridorarako eskariaren azterketari buruzkoa, eta, bigarrena, Baiona-Donostia korridorean aldirikoen mugaz gaindiko zerbitzuak ustiatzeko eskakizun tekniko eta juridikoak aztertzeko ikerketa, Hendaia eta Donostia artean etorkizunean hirugarren erraiaren zerbitzua martxan jarriko dela aprobetxatuta.
4. 2016ko lehen hiruhilekoan, Euskotren gune bat jarri nahi da Hendaiako geltokian. Bertan, salmenta makina, ordutegiari buruzko informazioa emango duen pantaila bat eta informazio panel bat jarri nahi dira. Era berean, Hendaiako ETS/Euskotren geltokian hobekuntza lanak egingo dira, eta, hala, Donostiako erdigunera (Amarara) joan nahi duten erabiltzaileentzako seinaleak hobetuko dira.
5. Halaber, Autocar64-Euskotren txartel konbinatua jarri da martxan. Autocars64 da Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko errepide bidezko zerbitzuen operadorea. Txartel konbinatu honi esker, Baiona eta Donostia eta Lasarte/Oria artean bidaiatu daiteke, Euskotrenetako tren eta autobusen artean aldatuta, Irun-Kolon eta Hendaiako geltokietan.
6. Bestalde, [Euskal Trenbide Sarea-ETS](#) delakoan, Hendaiako geltokia handitzeko eraikuntza proiektua egikaritze fasean dago. Horrez gain, SNCF eta Akitania eskualdearekin lanean ari gara, handitze hori Hendaia trenbide espazio osoan integratu ahal izateko. Euskotren Baionako Ganberako Hurbileko Trenbide Operadorearekin (HTO) hitz egiten ari da eta trenbide operadoreen arteko lankidetzaren bide posibleak aztertzen ari dira.

3. ekimena. Euskadi-Akitania kirol portuen eskaintza eta zerbitzuen baterako sustapena.

1.11.7 helburua. Euskadi-Akitania arteko komunikazioa

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraioko sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskaquitaine Elkartearen helburu nagusia Gasconako golkoa itsas eta turismoko jomuga gisa sustatzea da. Bada, elkarre horren bidez, Euskadiko Kirol Portuak (EKP) sozietate publikoak kirol portuen eskaintza garatzen du kanpoan, Akitaniako kirol portuekin batera. Horretarako, erlantz atlantikoko saloi nautikoetan parte hartzen du, besteak beste.
2. Era berean, Euskoquitaine elkartearen eremuan, Euskadiko eta Akitaniako portuen etorkizuneko kokalekuari buruzko hausnarketa estrategikoa egiten ari dira, elkarlanean.
3. Jardunbide onei buruzko trukeak egiten dira APPA bidez (Association de Ports de Plaisance del Atlantique). Elkarre horretako kide dira euskal portuak. Bere helburuen artean dago esperientziak trukitzea, maila desberdinetan topaketak eginez, kide bakoitzari esperientzia partekatuak erabiltzeko aukera emanez eta azterketa eta ekintzak finantzatzuz.

1. ekimena. Lurralde osoa antolatuko duten komunikazioak garatzea.

1.11.8 helburua. Komunikazioak hobetzea Estrategia Atlantikoaren esparruan.

Arduraduna: Antonio Aiz Salazar (Garraioko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ekimenen hau garatzeko, legegintzaldiaren lehen zatian [Effiplat proiektua](#) jarri zen martxan. Proiektu horren helburua salgaien garraiorako [korridore atlantiko](#) iraunkorra sustatu eta garatzea da, trenbidea, portuak eta plataforma logistiko multimodalak lotuz. Irekia. 2015ean zehar, CA-Effiplat proiektuko emaitzen balantzea egin eta aurkeztu da.

2. Effiplat, berau martxan jartzeko fasea burutakoan, topaketa foroa bihurtu da korridore atlantikoko garraioaren eta logistikaren eremuarekin lotutako enpresa eta erakunde desberdinentzat. Effiplateko kideek eguneratutako webgunea martxan jarri da, eta, bertan, korridoreko garraioarekin lotutako albisteak eta ekimenak jasotzen dira.

2. Era berean, abian da [Basque Country Logistics](#) proiektua: Euskadiko azpiegitura sarea garraiorako eta logistikarako. Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko zein Pasaiaiko portu agintaritzek, merkataritza ganberen, enpresen eta euskal kluster logistikoaren laguntzarekin, sortutako baliabide bat da, ekimen, aliantza eta lankidetzen buru izateko eta Euskal Autonomia Erkidegoak, Iberiar Penintsularako sarbidea denez, garraioaren eta logistikaren alorrean eskaintzen duen ahalmena sustatzeko Europako hegomendebaldean.

3. Basque Country Logistics markan eta berau eusten duen estrategian aurreikusitakoaren arabera (estrategia hori euskal garraioaren eta logistikaren eremuko eragile guztien lankidetzan oinarritzen da, merkatu guztietan lehiatu ahal izateko), Euskal Autonomia Erkidegoko logistika sustatzeko ekintzekin jarraituko da, bai barne ikuspegitik, marka eta hari lotutako produktua garatuz, bai kanpo ikuspegitik, azoka eta ekitaldietan parte hartuz.

4. Aurreko bi ekimen horiekin batera, [Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berriaren](#) -Euskal "Y"- proiektuko alderdi eta jarduera guztiak ere aipatu behar dira, Europako sarearen abiadura handiko ardatz atlantikoan sartuta dago-eta proiektu hori. Bere ardatz gipuzkoarra garatzea Eusko Jaurlaritzaren ardura da.

5. Euskotrenekin lankidetzan, eta Akitania eskualdearekin batera, lan estrategia bateratu bat jarri da martxan, [Dourges-Vitoria/Gasteiz trenbide autopistaren](#) aukerak sakondu ahal izateko. Orain arte lehen urratsak eman dira, hots, informazioa trukatu da.

1. ekimena. Bete gabe dauden transferentziak eskatzea eta indarrean dagoen Gernikako Estatutua betetzeko galdatze.

1.12.1 helburua. Aurrerapena euskal autogobernuan

Arduraduna: Sabino Torre Díez (Araubide Juridikoko sailburua)

Jarduketak

1. Espainiako Gobernuari egin gabeko transferentziak eskatu zaizkio, [Gernikako Estatutuan](#) ezartzen den guztia bete behar dela eta. Aldi honetan garrantzi berezia eduki dute trenbide-azpiegiturek. Hain zuzen ere, bilera bat egin zuen [Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak osatutako Aldebiko Lankidetzaren](#) Batzordeko lan-taldeak, eta Estatutua betetzeko eskatu zen.

2. Lehendakariak Espainiako gobernuaren presidentearekin izandako goi-mailako solaskidetzan, oraindik eskuratu ez diren eskumenak eskualdatzea eta Gernikako Estatutua osorik betetzea aldarrikatu da.

2. ekimena. Euskal autogobernuaren urraketa edo gutxiespenaren aurrean erakundeen defentsa, bidezkoak izan daitezkeen prebentzio edota konponketa ekimenak bultzatuz (alde biko negoziazio foroak), Euskal Autonomia Erkidegoko eskumen guztiak oso-osoan beteko direla bermatzeko helburuarekin.

1.12.1 helburua. Aurrerapena euskal autogobernuan

Arduraduna: Sabino Torre Díez (Araubide Juridikoaren sailburua)

Jarduketak

1. Euskal autogobernuaren erakunde-defentsaren esparruan, legegintzaldian zehar Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzak Batzordean sinatutako akordioak landu dira, batez ere gai hauei buruzkoak: [Euskal Zuzenbide Zibila, kultura ondare ukiezina](#) zaintzea, [Sektore Publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzko](#) Legea, [Estatuaren atzerriko jarduna eta zerbitzua](#), [hezkontzaren kalitatea](#) hobetzea, [ingurumen-ebaluazioa](#), [merkatu-batasuna](#) bermatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko [aurrezku kutxei](#) buruzko 11/2012, [Kiroleko dopinaren](#) aurkako 12/2012 Legea.

2. Beste alde batetik, konstituzio-kontrakotasuneko errekurso hauek aurkeztu dira, besteak beste

- Uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren aurkako errekursoa; dekretu horren bidez medikamentuen eta osasun-produktuen bermeei eta arrazoizko erabilarari buruzko Legearen testu bategina onartu zen.
- Otsailaren 28ko 1/2014 Legearen aurkako errekursoa; lege hori aldi baterako langileak babestekoa eta ekonomia eta gizarte arloko presako beste neurri batzuei buruzkoa da. 272/2105 epaia.
- Honen hainbat manuren aurkako errekursoa: otsailaren 27ko 1/2015 Errege Lege Dekretua, bigarren aukeraren mekanismoarena, finantza-karga murriztekoa eta gizarte-arloko beste neurri batzuenak. Abenikoaren behin betiko erabakia. EHAA, 2015-11-30.
- 6866-2013 zenbakiko konstituzio-kontrakotasuneko errekursoa, hain zuzen ere ekintzaileei laguntzeko eta hazkundera eta enplegua sustatzeko neurri buruzko otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretuko 38. artikulua eta eranskinaren kontrakoa, eta 37. artikulua kontrakoa ere bai, lotura dela eta. Konstituzio Auzitegiaren 2105-09-24ko epaiak errekursoa ezetsi zuen.
- 15/2015 Lege Organikoaren aurkako errekursoa; lege horren bidez KALO eraberritzen da KAren ebazpenak betetzeko.
- Uztailaren 21eko 23/2015 Legearen aurkako errekursoa; lege bidez laneko eta gizarte segurantzako ikuskapenaren sistema antolatu da.
- 18/2014 Legea, urriaren 15ekoa, hazkuntzaren, lehiakortasunaren eta eraginkortasunaren aldeko premia neurriak onartzeko. Behin betiko erabaki partziala konstituzio-kontrakotasuneko errekursoaren zati batean atzera egiteko, hain zuzen ere Legeko 92., 98., 102. eta 107. artikuluei dagokienez. EHAA, 2015-11-30ekoa.
- Abenduaren 19ko 16/2014 Errege Lege Dekretuaren aurkako errekursoa; horren bidez enplegua aktibatuzko programa arautzen da 2015-03-04
- 1/2013 Errege Lege Dekretuaren aurkako errekursoa (langabeen prestakuntza eguneratzeko plana) 2015-01-29
- 16/2012 Errege Lege Dekretuaren (murrizketak osasun arloan) eta eskumen-gatazka positiboak haren erregelamendu garapenen aurkako errekursoa. 2014-05-12

- 14/2012 Errege Lege Dekretuaren aurkako errekurtsua (murrizketa hezkuntzaren arloan) 2014-05-12
- 20/2012 Errege Dekretuaren aurkako errekurtsua, sektorea defendatzeko Estatuaren merkataritzako ordutegien eta beherapenen inguruko injerentziaren aurrean. 2013-12-13
- Estatuko 2012ko eta 2013ko aurrekontu legeen aurkako errekurtsua.

1 ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioari buruzko etorkizuneko Legean beharrezko lege neurriak txertatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen kudeaketan gardentasuna ahalbidetzeko, herritarren partaidetza indartzeko bideak ezartzeko eta politika publikoen ebaluazioa bermatzeko.

1.12.2 helburua. Administrazio gardena

Arduraduna: Sabino Torre Díez (Araubide Juridikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuaren izapidetzarekin jarraituta, 2015ean ekimena beste bide batetik eraman da eta Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legearen proiektuan sartu da. Proiektu horren izapideak 2016an egingo dira Eusko Legebiltzarrean.

2. Euskal Sektore Publikoaren [Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legeak](#) administrazio-jardueraren gardentasuna eta publikitatea, gobernu ona, informazio publikora iristeko eskubidea baliatzeko aukerak, politika publikoen ebaluazioa eta herritarrek zuzenean edo zeharka interes publikoak diren erabakietan parte hartzea zabaldu eta indartuko ditu Euskal Sektore Publikoko eta, zehazki, Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde eta entitateetan.

2. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren gardentasunean aurrera egitea, betiere informazio koherentea, egokia eta kalitate altukoa azkar eskaintzeko mekanismoak garatuz sarbide errazeko zerbitzu baten bidez eta herritarrak erabili nahi duen kanala baliatuz.

1.12.2 helburua. Administrazio gardena

Arduraduna: Andres Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzaren [Gardena-Gardentasunaren ataria](#) aldatzea herritarrentzat erabiltzen errazagoa izan dadin. Legegintzaldian zehar webguneko edukiak eten gabe eguneratzea eta eduki berriak sartzea. Modu errazean eta multzoka argitaratzen dira Gobernuaren gardentasunerako garrantzitsuak diren datu guztiak (adierazleak, helburuak, planak, emaitzak, finantza-egoerak, kontratazioa, zerrendak...), legez argitaratzeko modukoak izanez gero. Herritarrek informazio koherentea, egokia, goi-mailakoa eta azkarra lor dezakete nahi duten kanala erabilita, online edo aurrez aurre.

2. Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legearen proiektuaren izapideak egiten ari dira Legebiltzarrean; lege horren bidez euskal administrazio publikoaren gardentasunaren araubide juridikoa antolatuko da.

3. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioaren lidergoari eustea estatuaren gardentasun rankingetan eta arian-arian hobetuz joatea gai honetan Europan eta nazioartean erreferentzia diren eruedetarantz.

1.12.2 helburua. Administrazio gardena

Arduraduna: Jesús Peña Martínez (Lehendakartzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. 2013an [Uraren Euskal Agentzia](#) lehena izan zen ura kudeatzen duten erakundeen artean nazioarteko gardentasunaren estatuko sailkapenean, 93,5 punturekin.
2. Etengabe hobetzeko ahaleginei eta gardentasunaren aldeko konpromisoari esker Euskal Autonomia Erkidegoak lortu du gardentasunaren arloko erreferentziako eruedetako bat izatea Europan eta nazioartean. Lan horren ondorioz 2014an Euskal Autonomia Erkidegoak puntuaziorik handiena eskuratu du [gardentasunaren nazioarteko sailkapenean](#), % 100 beteta.
3. "[Opendata.euskadi.net](#)" [Estatuko atari publikorik hoberena](#) hautatu dute datuen gardentasunean. [www.opendata.euskadi.net](#) atariak saria jaso du Madrilen, Elkarreragingarritasunaren eta Segurtasunaren III. Biltzar Nazionalean-CNIS 2013: "Erreferentziako proiektua administrazio zentral, autonomiko edo tokikoaren gardentasunean".
4. Hainbat hobekuntza aplikatu dira kargu publikoen katalogoko informazioaren eskuragarritasunean, bai Irekia atarian, bai Komunikazio Gidan; besteak beste, garrantzi handiagoa eman zaie ibilbide profesionalaren estekari eta harremanetarako informazioari, Gardentasunaren Kontseiluaren auditoretzak eskatu zuen bezala.
5. Gardentasunaren Kontseiluaren auditoretza Eusko Jaurlaritzak gauzatu du 2016ko urtarrilaren amaieran. Nazioarteko Gardentasunak urtarrilean ustelkeriaz aurkeztutako txostenean aipamen berezia egiten da EAEaz: txostenak dio arautegia betetzen duen administrazio bakarra dela, berak bakarrik jartzen baititu eskuragarri kontratu publiko guztiak: Revascon

4. ekimena. Goi kargu guztiek eta konfiantzazko langile guztiek sinatu beharreko etikari nahiz gobernu onari buruzko kode bat garatzea.

1.12.2 helburua. Administrazio gardena

Arduraduna: Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen etika- eta jokabide-kodea onartu da ([Gobernu Kontseiluaren 2013-05-28ko erabakia](#), [EHAAn argitaratua 2013-06-03an](#), 105. zk.).
2. 2015eko martxoan etika- eta jokabide-kodea aldatu da beraren esparruan zabaltzeko ([Gobernu Kontseiluaren 2015-03-17ko erabakia](#)).
3. Etika- eta jokabide-kodea ezartzeko banakako atxikipena eskatu zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunei eta behin-behineko langileei ([Agindua](#), [2013ko irailaren 6koa](#), [Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena](#)).
4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren [Etika Publikorako Batzordea](#) sortu da. X. legegintzaldi osoan ari da lanean. Kodea 2015eko martxoan aldatu zen; orduko balantzea ona izan zen. Sortu zenetik (2013ko urria) 2015eko abendura arte 38 auzi ebatzi ditu.
5. [2013-2014 Memoria](#) egin da eta 2015eko ekitaldikoa prestatzen ari gara.

1. ekimena. Hizkuntza eskubideak benetan betearaztea, herritarrek administrazioarekin euren nahi duten hizkuntza ofizialean erlazionatu ahal izan daitezen.

1.12.3 helburua. Administrazioaren konpromiso publikoa

Arduraduna: Patxi Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Elebide](#) (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zerbitzua), Merkataritza Zuzendaritza eta Kontsumobide berariazko ekintza-programa bat aztertzen aritu dira kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak apurka-apurka hobeto betetzea lortzeko; asmoa 2015eko ekitaldian zehar hainbat ekimen abiaraztea zen.

2. Eusko Jaurlaritzan eta beraren erakunde autonomiadunetan euskararen erabilera normalizatzeko planak ezarri dira (V. plangintzaldia).

- [Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Plana V. Plangintzaldirako](#)
- [Osakidetzako euskara plana 2013-2019](#)
- [Segurtasun Sailaren Euskararen Erabilera Plana](#) [Ertzaintza Euskalduntzeko Plana](#) (2014ko urria)

3. [Poziktibity4](#). Hizkuntza eskubideen sentsibilizazio kanpaina eta ELEBIDE sozializatu. “Norberaren hizkuntzan aritzeak ematen duen lasaitasuna” (2014.10.24)

4. Elebidek herritarren hizkuntza eskubideen alde lan egiten du.

- [Elebideren 2013ko Memoria](#) (2014-maiatza)
- [Elebideren 2014ko Memoria](#) (2015-apirila)

5. Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio orokorraren eta Ararteko erakundearen arteko lankidetzak hitzarmena sinatu da herritarren hizkuntza eskubideen alde egiteko (2014-03-28)

6. [Zuzenean](#) gai da arreta euskaraz eta gaztelaniaz emateko. Linean jartzen den informazio osoa modu sistematikoan kontrolatzen da, dena bi hizkuntzetan agertzeko.

2. ekimena. Lankidetzaren publiko-pribaturako formula berriak garatzea batera kudeatutako zerbitzuen eraginkortasunean aurrera egiteko, gizartean duten eraginari lehentasuna emanez.

1.12.3 helburua. Administrazioaren konpromiso publikoa

Arduraduna: Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. X. legegintzaldi honetan [EAEko Berrikuntza Publikoaren Plana 2014-2016](#) zehaztu eta onartu da. Planaren 1. ardatzaren arabera (Gardentasuna eta gobernu ona) gizarte berrikuntza bultzatuko da.
2. Gizarte berrikuntza lantzeko, [Basque Social Innovation \(Innobasque\)](#) elkartean aritu gara. Beste agente publiko eta pribatu batzuekin batera gizarte berrikuntzaren erreferentzizko esparrualantzen ari gara. Legegintzaldian zehar bilera ugari egin dira; 2014koetan erreferentziazko esparrua finkatu zen. Beste alde batetik, Europar Batasunaren "Social Innovation Community" ekimenean parte hartzeko aukera aztertzen ari gara.
3. Datu irekien inguruko bi lehiaketa antolatu dira, datu irekiak berrerabiltzeko kultura zabaltzeko, Big Dataekin lan egiteko ildotik aurrera eginez.

3. ekimena. **EAEko administrazio guztien ikuspegia indartzea, "Euskal Autonomia Erkidegoko Artapen Sarea" sortuz eta haren bitartez herritarrei zuzentzen zaien benetako leihatila bakarra eratzea.**

1.12.3 helburua. Administrazioaren konpromiso publikoa

Arduraduna: Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Aurrera egin da [toki administrazioekin elkarreraginean jarduteko hitzarmenak](#) sinatzeko. Hitzarmenak sinatu dira falta ziren lurralde historikoetako hiriburuekin eta biztanle askoko beste udal batzuekin: Donostiako Udala (2013-09-25), Bilboko Udala (2013-11-13), Irungo Udala (2013-12-02), Barakaldoko Udala (2014-04-01), Ermuko Udala eta Txorierriko Mankomunitatea (2014-11), Beasain (2014-12), Bermeo eta Getxo (2015eko urtarrila), Basauri (2015).
2. Abian jarri da zerbitzu elektronikoak eraberritzeko proiektua, herritarrak ardatz hartuta "[desing thinking](#)" bezalako metodoez baliatuz.
3. Beste alde batetik, herritarrekin elkar eragin eredu berriak (leihatila bakarra) dagoeneko onartzen ditu sartzeko-kanal ezberdinak (jende-aurrekoa, web, telefonoa, eta bat-bateko mezularitza), baina ardura duen organo bakar baten menpe: [Zuzenean](#).

4. ekimena. Pertsoneri zerbitzu publikoen katalogo baterako sarbidea erraztea eta beharrezko neurriak garatzea zerbitzu multikanal eraginkor bat eskaintzeko.

1.12.3 helburua. Administrazioaren konpromiso publikoa

Arduraduna: Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Berehalako mezularitza: 2014ko abenduan lehen esperientzia pilotua egin zen WhasApp aplikazioaz; emaitzak onak izan ziren. Horrez gainera modu egonkorrean abiarazi da herritarrekiko harreman-zerbitzua [berehalako mezularitzako Telegram aplikazioaren bidez](#) (Gobernu Kontseiluaren erabakia, 2015-06-16).
2. [Zuzenean](#) zerbitzuak kanal berri bat jarri du eskura, orain arteko presentzialaz eta telefonikoaz gainera: web kanala (euskadi.eus bitartez kontaktatzen duena).
3. Zerbitzu katalogoaren argitalpena (katalogo osoa eta eguneratua) bultzatzen ari gara egoitza elektronikoan: 250 prozedura fitxa tekniko prestatu dira aplikazio berriarekin. Egindako lanak Jaurkitzaren zerbitzu katalogo osoaren % 20 inguru suposatzen du.

1. ekimena. Herri Administrazioaren erreforman eta modernizazioan sakontzea eta zeregin hori herritarrei zuzentzen zaien artapen eta zerbitzua hobetzera bideratzea, herritarrek herri administrazio guztiekin dituzten hartu-emanak erraztuz.

1.12.4 helburua. Berrikuntza, eraginkortasuna eta efikazia

Arduraduna: Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. X. legegintzaldiko [Euskadiko Berrikuntza Publikoaren Plana 2014-2016 \(Pip-E\)](#) izapidetu eta onartu da (2014-04-17). Plan estrategiko honetan jardun-eremu hauek hartzen dira kontuan:

- Gardentasuna eta gobernu ona
- Herritarrekin elkarreragina
- Antolaketaren egokitzapena
- Kudeaketaren hobekuntza
- Administrazio elektronikoa
- Berrikuntza baterako sorkuntzaren bitartez

[Pip-E](#) plana lantzeko eta ezartzeko ildo hauek hartuko dira aintzat: eraginkortasuna eta efizientzia lortzea; herritarrak izatea planean parte hartzeko zeharkako ardatza, genero-ikuspegia txertatuta (Emakunde).

2. 2015-12-22an Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko [Enplegu Publikoaren Legearen proiektua](#) onartu zuen, X. legegintzaldiko legeen egutegiari atxikita. Gaur egun [izapideak egiten ari dira Legebiltzarrean](#).

3. PIP-E plana betetzeko hainbat [proiektu](#) eta ekimen abiarazi dira berrikuntzaren arloan; hona batzuk:

- EAEko sektore publikoa neurritz egokitzeko eta arrazionalizatzeko estrategia landu da (PIP-E baino lehen, 2013ko uztaila).
- [EAEn kudeaketa aurreraturako eredu](#) ezartzeko plana prestatzeko lanak hasi dira (2013ko azken hiruhilekoa-2014ko lehen hiruhilekoa). [AURRERABIDE](#) deritzo; 2015ean ezartzeko lanak egin dira.
- [Lanbide-jarduerako komunitateak](#) bultzatu dira, eta etengabeko berrikuntza eta jarraikako hobekuntzarako prestakuntza ere bai.
- Herritarrekin harremanak izateko kanal berriak aztertu dira (online eta posta elektronikoaren bidez, herritarrekiko harreman-zerbitzua [berehalako mezularitzako Telegram aplikazioaren bidez](#) (2015eko ekaina)
- Langileen eta zerbitzuen ikuskaritza orokorreko zerbitzua eraberritu da, kudeaketaren bikaintasuna sustatze aldera: [KUDEAKETAREN IKUSKARITZA ETA EBALUAZIO ZERBITZUA](#)
- Herritarrak zuzenean zerbitzuarekin zenbateraino dauden pozik neurtzen ari gara (8,5 puntu "asebetetze orokorra zerbitzuarekin" adierazkarian; 2015eko abendua).

4. Gobernu Kontseiluak [EAEko Administrazio Orokorreko Enplegu Plana](#) onetsi du. Planak administrazio orokorra modernizatu nahi du, eta bukatu administrazio orokorreko langileen zahartzearekin, desberdintasunarekin eta bitartekotasunarekin (2015-12-01).

2. ekimena. Teknologia berrien erabilera indartzea, zerbitzuen, informazioaren, segurtasunaren eta bitartekoen eskaintzari dagokionez.

1.12.4 helburua. Berrikuntza, eraginkortasuna eta efikazia

Arduraduna: Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. EAEko Administrazio Orokorrean izapidetze elektronikoa bultzatzen ari gara (2014ko uztailaren 29an Gobernu Kontseiluak erabakia hartu zuen administrazio barruan nahiz beste administrazio batzuekiko hiru komunikazio motatan -kontsultak, txosten- edo irizpen-eskariak, dokumentazio-eskariak- izapide elektronikoa jartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo jakin batzuekin aritzean).
2. Zerbitzuak eta prozedurak digitalizatzea bultzatu da, herritarren esku egon daitezen Euskadi.eus atarian.
3. Euskadi.eus-eko web-orri guztien mugikortasuna bultzatu da, denetariko gailuetan eskuragarri egon daitezen.
4. 2014ko abenduan lehen esperientzia pilotua egin zen WhasApp aplikazioaz; emaitzak onak izan ziren. Balorazioa egin ondoren modu egonkorrean abiarazi da herritarrekiko harreman-zerbitzua [berehalako mezularitzako Telegram aplikazioaren bidez](#) (Gobernu Kontseiluaren erabakia, 2015-06-16).
5. [Zuzenean](#) -Eusko Jaurlaritzaren herritarrentzako zerbitzua- sinadura elektronikoa aurreratu baten eredu berria ezartzeko prestatzen ari da. Hautatutako ereduak -izenpe elektronikoa aurreratu (IEA)- bi osagai dauzka: pasahitz bat eta ontzi-jokoan oinarritutako identifikazio eta sinadura sistema bat.

3. ekimena. Zerbitzu publikoen kudeaketan eta informazioan teknika berritzaileak sustatzea eta txertatzea antolakuntza eredu horizontalagoak sustatuz eta herritarrengandik hurbilago dauden jarduketak formulak ahalbidetuz, betiere emandako zerbitzuen asebetetze maila ziurtatzeko.

1.12.4 helburua. Berrikuntza, eraginkortasuna eta efikazia

Arduraduna: Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014ko urtarrilean [Aurrerabide](#) proiektua abiarazi zen, helburu hau ezarrita: kudeaketa publikorako eredu aurreratua prestatzea EAEko administraziorako. Azken xedea administrazioa eskuragarria eta eraginkorragoa izatea lortzea zen, herritarrek jasotzen duten zerbitzu publikoa hobetzeko.

2. Eusko Jaurlaritzako kudeaketa publikorako eredu aurreratua ezartzeko [Aurrerabide](#) proiektua burutzeko prozesuan, prestakuntza eta ekintzako ["Egiten ikasi"](#) programaren bigarren aldia amaitu da (2014-2015). Aurreko aldian 300etik gora pertsona aritu ziren eta honetan 200etik gora aritu dira.

3. [EAEko Administrazio Publikoaren Legearen proiektua](#) bultzatu zen, izapideak egin ziren eta Gobernu Kontseiluak onartu zuen (Gobernu Kontseiluaren erabakia, 2014-09-16). Gero Legebiltzarrerara bidali zen. Proiektuan lege-testu bakar batean biltzen zen ondoko hauei buruzko arautegia: administrazioaren antolamendua, sektore publikoa, gardentasuna eta gobernantza, eta herritarren parte hartzea. Eusko Jaurlaritzaren beraren ekimenez bertan behera utzi ziren Euskal Administrazio Publikoaren Legearen proiektuaren Legebiltzarreko izapideak (Gobernu Kontseiluaren erabakia, 2015-04-23).

4. Aurreko lege-proiektuaren edukiak biltzen zituzten bi lege-aurreproiekturen izapideak hasi ziren: alde batetik, Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legearen aurreproiektua; beste batetik, Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legearen aurreproiektua. Gobernu Kontseiluak biak onartu zituen 2015-11-10eko bilkuran eta orain Legebiltzarrean legeak onartzeko izapideetan ari dira.

5. 2013ko uztaietan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa neurritz egokitzeko eta arrazionalizatzeko estrategia landu zen.

6. Politika publikoen ebaluazioa indartzea. Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legean politika publikoak ebaluatu beharra arautuko da. Administrazioaren esparru honetatik, gainera, politika publikoen ebaluazioa bultzatzeko planaren lehen zirriborroa prestatu da.

1. ekimena. Administrazio izapideak sinplifikatzea eta herritarren dokumentazioa bateratzea, herri administrazioekiko erlazioa errazteko asmoz.

1.12.5 helburua. Zerbitzu publikoen erlazio eraginkorra

Arduraduna: Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Aurrera egin da [toki administrazioekin elkarreaginean jarduteko hitzarmenak](#) sinatzeko. Hitzarmenak sinatu dira falta ziren lurralde historikoetako hiriburuekin eta biztanle askoko beste udal batzuekin: Donostiako Udala (2013ko irailaren 25a), Bilboko Udala (2013ko azaroaren 13a), Irungo Udala (2013ko abenduaren 2a), Barakaldoko Udala (2014ko apirilaren 1a), Ermua eta Txorierriko Mankomunitatea (2014ko azaroa), Beasain (2014ko abendua), Bermeo eta Getxo (2015eko urtarrila), Basauri (2015), Hernani (2016).

2. Hiru aldundiekin sinatutako akordioak (2015-11-06) ondoko hau ere ziurtatzen du: datuak foru aldundiekin zein haien zerbitzu eta azpiegitura teknikoak erabiltzen dituzten udalekin linean trukatzeko sarea prestatzea. Horrela herritarrek ez dituzte aurkeztu beharko hitzarmena sinatu duten administrazio publikoek badauzkaten datuak eta dokumentuak: eskura egongo dira linean, modu seguruan eta babestuta.

3. Administrazioek elkarrekin jarduteko nodoa garatzen ari da; horri esker hitzarmeneko administrazioek ez dizkiete eskatu beharko eskubideren bat baliatu nahi duten herritarrei besteetako batek badaukan dokumenturik. Beraz, aurrera egiten ari gara administrazio-arretako sarearen sorkuntzan; horretarako elkarreagingarritasunerako hitzarmen berriak sinatu ditugu foru administrazioekin eta toki administrazioekin.

2. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen eskumenen mugaketa kontzeptuarekin aurrera egitea euskal erakunde markoarekin bat etorriz eta foru aldundiekin eta udalerriekin batera balorazio partekatua sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen esku-hartzeko koordinatu behar duten arloei buruz.

1.12.5 helburua. Zerbitzu publikoen erlazio eraginkorra

Arduraduna: Sabino Torre Díez (Araubide Juridikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Gobernu Kontseiluaren](#) 2014-09-23ko erabakia Herri Administrazioak Erreformatzeko Estatuko Batzordeak (CORA) sustatutako neurriei buruz: analisia eta erantzuna.

2. Eusko Jaurlaritzako [sail arteko batzordea](#) sortu eta lanean hasi da bikoiztasun eta disfuntzioei buruzko azterketa burutzeko eta Jaurlaritzaren txosten berri bat proposatzeko euskal erakunde sarea aztertu eta antolatzeari buruz. 2014an bidezko erakunde arteko eztabaida egin zen Eusko Legebiltzarrak horretarako berariaz sortutako ponentzian.

3. Eusko Legebiltzarreko ponentzian bikoiztasunei buruzko txostena onartzeko prozesua. [10/10/06/02/0048 espedientearen jarraipena Eusko Legebiltzarrean](#)

3. ekimena. Udalei buruzko lege proiektu bat onestea eta Euskadiko udal gaiari buruzko arautegia garatzea horren egituraketan parte hartzen duten eragileekin adostutako ikuspegi batetik

1.12.5 helburua. Zerbitzu publikoen erlazio eraginkorra

Arduraduna: Peru Bazako Atutxa (Erakunde Harremanetarako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Euskal Autonomia Erkidegoko udalen legearen proiektua](#), X. legegintzaldiko egutegian sartutakoa bultzatu da, izapideak egin dira eta Gobernu Kontseiluak onespenerako jarri du (Gobernu Kontseiluaren erabakia, 2014-11-11). Lege horren proiektuaren izapidetzan zehar hainbat bilera egin dira foru aldundiekin eta Eudelekin onespenerako bidea leunduko duen akordiora iristeko.

2. Proiektuaren izapideak egiten ari dira Eusko Legebiltzarrean; onespena hurbil dago, ezinbestekoa den adostasuna lortu da eta. [10/09/01/00/0008 espedientearen jarraipena Eusko Legebiltzarrean](#)

1. ekimena. Gobernu programa garden bat onartzea, gizartearen aurrean hartutako hauteskunde konpromisoekin bat datorrena.

1.12.6 helburua. Plangintza estrategiko bat ezartzea, Jaurlaritzaren jardueraren eraginkortasuna hobetzeko.

Arduraduna: Jesús Peña Martínez (Lehendakaritzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Lehendakariak legegintzaldiko gobernu programa eraman zuen [Gobernu Kontseilura](#) 2013ko apirilaren 9an; ondoren, Legebiltzarrera igorri zuen eta 2013ko maiatzaren 2an aurkeztu zuen osoko bilkuran. Programa horretan, hasteko, 160 helburutik gora jaso dira, baita 625 ekimen ere, ardatzetan eta sail bakoitzeko jardun arloetan bilduta. 2014. urtean zehar, onartutako ekimen guztiak martxan jarri ziren. Gobernu programa gardena da, malgua, herritar guztien esku dago [Irekia \(Gobernu Programa 2012-2016\)](#) webgunearen bidez eta aldizka eguneratzen da, betearazpen eta gauzatze maila era dinamikoan ezagutu ahal izateko.

2. Orain (2016ko otsailean), abian daude eta betetzen ari dira konprometitutako ekimen guztiak (629). Herritarrek aukera dute horien jarraipena egiteko, baita horiek gauzatzeko arduradunena ere, Irekiaren atariko helbide honetan: <http://programa.irekia.euskadi.eus/eu/site/home>

2. ekimena. Jaurlaritzak legegintzaldirako bideratzen duen plan estrategikoa ezartzea eta koordinatzea.

1.12.6 helburua. Plangintza estrategiko bat ezartzea, Jaurlaritzaren jardueraren eraginkortasuna hobetzeko.

Arduraduna: Jesús Peña Martínez (Lehendakarietzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Jaurlaritzako Kontseiluak [2013ko ekainaren 11ko akordioaren bidez onartu zuen X. legealdiko plan estrategikoen egutegia](#). Egutegi honek legealdiko 14 plan estrategikoak jasotzen ditu, bai eta [horiek landu, izapidetu eta onartzeko prozedura](#) ere.

2. 2014ko urtarrilaren 28an, [Euskadi 2020 estrategia onartzen da, enplegu eta ekonomiaren susperraldirako](#), 6.475 milioi euro dituelarik 2014-2016 aldirako. Euskadi 2020 strategiak honako plan estrategikoak definitzen dituen jarduera esparrua ezartzen du: enplegu plana, nazioartekotzeko esparru estrategia (eta enpresen nazioartekotze planarekin lotutakoa), industrializazio plana eta zientzia, teknologia eta berrikuntza plana (ZTBP, 2020).

3. Gobernuak legegintzaldian zehar agindutako 14 plan estrategikoak onartu ditu:

1. [Bake eta bizikidetzeta plana \(G.K. 2013-11-26\)](#).
2. [EAEko osasun plana 2013-2020 \(G.K. 2013-12-23\)](#).
3. [Berdintasunerako VI. plana \(G.K. 2013-12-30\)](#).
4. [Enplegu plana 2014-2016 eta ekonomiaren susperraldiaren eta enpleguaren aldeko programa \(G.K. 2014-01-28\)](#).
5. [Nazioartekotzeko esparru estrategia "Basque Country" 2014-2016 \(G.K. 2014-04-08\)](#). Horren barruan sartzen da [Enpresen nazioartekotze plana](#)
6. [Industrializazio plana 2014-2016 \(G.K. 2014-04-29\)](#).
7. [Berrikuntza publikoaren plana \(G.K. 2014-06-17\)](#).
8. [Euskararen agenda estrategikoa \(G.K. 2014-06-24\)](#).
9. [Segurtasun publikoko plana 2014-2019 \(2014-07-15\)](#).
10. [Lanbide heziketako IV. euskal plana \(2014-11-25\)](#).
11. [IV. Ingurumen esparru programa 2020 \(2014-12-02\)](#).
12. [Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana ZTBP 2020 \(2014-12-16\)](#).
13. [Unibertsitate plana 2015-2048 \(2014-12-30\)](#).
14. [Gizarte zerbitzuen plana \(2015-12-01\)](#).

4. Halaber, gaur arte Jaurlaritzak legealdi osorako aurreikusitako sail arteko [43 planetatik](#) 39 onartu ditu, eta beste laurak 2016 ekitaldian zehar onartzeko zain daude, programatutako eran.

3. ekimena. Legegintza egutegia onartzea.

1.12.6 helburua. Plangintza estrategiko bat ezartzea, Jaurlaritzaren jardueraren eraginkortasuna hobetzeko.

Arduraduna: Jesús Peña Martínez (Lehendakaritzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. [2013ko ekainaren 11n, Jaurlaritzaren Kontseiluak](#) Jaurlaritzaren ekimenez X. legegintzaldirako aurkeztutako lege proiektuen egutegia onartu zuen. Gobernuak legealdi honetan 29 lege proiektu onartzearen konpromisoa azaltzen du.

2. 2016ko otsaila bitartean, Jaurlaritzak 23 lege proiektu onartu ditu:

1. Estatistikaren euskal planaren lege proiektua ([G.K. 2013-12-10](#)).
2. Lurzoru kutsatuen lege proiektua ([G.K. 2014-05-06](#)).
3. Eusko Legebiltzarreko hauteskunderen lege proiektua ([G.K. 2014-05-13](#)).
4. Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren lege proiektua ([G.K. 2014-07-01](#)).
5. Larrialdiak kudeatzeko lege proiektua ([2014-07-08](#)).
6. Emakume nekazarien lege proiektua ([G.K. 2014-11-04](#));
7. Euskadiko udal lege proiektua ([G.K. 2014-11-11](#));
8. Adikzioen lege proiektua ([G.K. 2014-12-09](#));
9. Merkataritza jardueri buruzko lege proiektua ([G.K. 2014-12-30](#))
10. Hirugarren sektoreko lege proiektua ([G.K. 2015-02-03](#));
11. Euskal Autonomia Erkidegoko administraziozko zerbitzu juridikoaren lege proiektua ([G.K. 2015-06-23](#))
12. Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzko lege proiektua ([2015-07-07](#))
13. Suteen prebentzio eta itzalketa eta salbamendu zerbitzuak arautzeko lege proiektua ([2015-07-27](#))
14. Banku fundazioen eta aurrezki kutxen aldaketarako lege proiektua ([2015-07-27](#))
15. Euskal Autonomia Erkidegoko portuen eta itsas garraioaren lege proiektua ([2015-11-03](#))
16. Gardentasuna, partaidetza eta gobernu oneko lege proiektua ([2015-11-10](#))
17. Euskal administrazio publikoaren antolaketaren lege proiektua ([2015-11-10](#))
18. Euskal enplegu publikoaren lege proiektua ([2015-12-22](#))
19. Lanbide heziketaren lege proiektua ([2015-12-29](#))
20. Dopajearen aurkako legea egokitzeko lege proiektua ([2016-01-26](#))
21. Euskadiko Agirien eta Agiritegien Lege proiektua ([2016-02-09](#))
22. Turismoaren legea ([2016-02-09](#))
23. Euskal Autonomia Erkidegoan kirol lanbideak betetzearen gaineko lege proiektua ([2016-02-23](#))

1. ekimena. Akordio politiko eta instituzionalak susperraldi ekonomikora bultzatzea.

1.12.7 helburua. Aberri proiektuak garatzeko akordio politiko eta insituzionalak bultzatzea

Arduraduna: Jesús Peña Martínez (Lehendakaritzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. 2013ko maiatzaren 8an, [lehendakaria hiru aldundiekin eta Eudeleko buruarekin bildu zen](#), enpleguaren aldeko erakunde hitzarmen bat aurkezteko.

2. [Lehendakariak, 2013ko maiatzaren 21ean, biltzeko deia egin zuen eta bileran legebiltzar talde guztien ordezkari politikoak izan ziren.](#) Bileran, oinarrizko bost adostasun landu behar zirela erabaki zen: 1) Zergen erreforma; 2) Iruzurraren aurkako borroka; 3) Ekonomia suspertzea eta enplegua; 4) Politika publikoak eta gizarte politika partekatuak; 5) Erakunde eredua.

3. [2013ko irailaren 16an](#), 2013ko maiatzaren 21eko bileraren ondorioz, EAJ-PNV eta PSE alderdi politikoek eta Eusko Jaurlaritzak [hitzarmen politiko instituzional bat izenpetu zuten, ekonomiaren susperraldiaren eta enpleguaren alde](#), lehendakariak aurkeztutako oinarrizko bost akordioak garatzeko. Akordio hau 2014ko urtarrilaren 28an gauzatzen da Jaurlaritzak [Ekonomiaren susperraldiaren eta enpleguaren aldeko esparru programa 2014-2016](#) onartzen duenean.

4. 2013ko irailaren 30ean, erakunde hitzarmen bat izenpetu zen Jaurlaritzaren eta hiru foru aldundien artean, [ekonomiaren susperraldiaren aldeko erakunde arteko plana](#) garatzeko. Plan horretan inbertsio publikoak martxan jartzea aurreikusten da, guztira 180 milioi eurotan. Jaurlaritzak eta Eudelek lortutako akordioaren ondorioz, 2013ko urriaren 16an Gobernu Kontseiluak [enplegurako toki eta eskualde planak](#) bultzatzeko, 21,3 miloi euro onartu ditu. Plan hauek 2013an eta 2014an garatu ziren.

5. Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak hitzarmen bat izenpetu zuten 2013ko irailaren 12an, [defizitaren eta ulermenaren mugak ezartzen dituen](#) 2013 eta 2014rako.

6. Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak [Ekonomia Ituna eguneratzeko](#) erabakia hartu zuten 2013ko azaroaren 29an eta hau 2014ko urtarrilaren 16an gauzatzen da Kupoaren Bitariko Batzordean.

7. Jaurlaritzak eta EAJ, PSE eta PP alderdi politikoek hitzarmenak sustatu zituzten adostutako zerga erreforma bat ezartzeko hiru lurralde historikoetan eta hau 2013ko urriaren 10ean gauzatu zen elkarren arteko [zerga akordio](#) batean. Horrela, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek adostutako zerga erreforma onartu zuten eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera jarri zen indarrean.

2. ekimena. Interes partekatuko proiektuei laguntzeko akordio politiko eta instituzionalak ondoko komunitateekin bultzatzea.

1.12.7 helburua. Aberri proiektuak garatzeko akordio politiko eta instituzionalak bultzatzea

Arduraduna: Jesús Peña Martínez (Lehendakartzako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Errioxarekiko harremanak areagotzea: 2013ko irailaren 12an, Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailburuak eta Errioxako Osasun sailburuak hitzarmen bat izenpetu zuten, Ajuria Enean, osasun alorrean lankidetzan aritzeko eta bi erkidegoetako eremu mugakideetan asistentzia zerbitzuak emateko. 2013ko azaroaren 25ean, [lehendakariak eta Errioxako presidentek lankidetzako protokolo bat izenpetu zuten](#), Logroñon, historian lehen aldiz; zazpi esparru hartzen ditu lankidetzako horrek: osasuna, landa garapena, ingurumenaren babesa, teknologiak, hezkuntza, kultura eta turismoa, eta babes zibila.

2. Nafarroako harremanak areagotzea: 2014ko urtarrilaren 8an, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendariak eta Osakidetzako zuzendariak [lankidetzako hitzarmen bat izenpetu zuten](#) Bortzirietako pazienteei osasun arreta emateko. 2014ko urtarrilaren 17an, Nafarroan EITBren seinalea digitalizatzeari konponbidea aurkitzeko lantaldearen lehen bilera izan zen Iruñean. 2014ko maiatzaren 5ean, lantaldearen beste bilera bat egin zen. 2014ko ekainaren 25ean, Segurtasuneko sailburuak eta Nafarroako Barne sailburuak [Nafarroako Poliziaren eta Ertzaintzaren arteko koordinazioa hobetzeko protokolo](#) bat sinatu zuten Gasteizen. 2015eko urtarrilaren 23an, [Osasuneko sailburuek osasun arloko lankidetzako akordio berri bat sinatu zuten](#).

3. 2015eko azaroaren 11n, Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun sailburuek bi erkidegoen arteko mugaldeko osasun arretaren [baldintzak hitzartu](#) dituzte.

4. 2015eko azaroaren 23an, Euskadiko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua eta Nafarroako lehendakariordea biltzen dira, ekonomiaren eta enpresaren arloko [lehentasuneko jarduerak](#) zehazteko.

5. 2016ko urtarrilaren 11n, Euskadiko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua eta Nafarroako Gobernuako Gizarte Eskubideen lehendakariordea biltzen dira, [gizartearen, familiarren, etxebizitzaren eta immigrazioaren arloko politiken kudeaketan](#) dituzten ikuspegiak eta bizitako esperientziak trukatzeko.

6. 2016ko urtarrilaren 12an, Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura sailburua eta Nafarroako Kultura, Kirola eta Gazteria sailburua biltzen dira, [kultura arloko, kirolaren inguruko nahiz gazteriarekin zerikusia duten gaiez hitz egiteko](#).

7. 2016ko urtarrilaren 25ean, Euskadiko Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura sailburua eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza sailburua biltzen dira, [hezkuntzarekin](#) lotutako gairik esanguratsuenei buruz hitz egiteko.

1. ekimena. Plataforma publiko pribatu bati bultzada ematea, gobernua hobeto kudeatzeko eta antzeko erakundeekin konektatzeko euskal gobernantza publiko baten garapenaren markoan.

1.13.1 helburua. Eragile sozialen partaidetza

Arduraduna Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Herritarrak Hartzeko eta Administrazio Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza [Basque Social Innovation](#) plataformako parte da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte berrikuntzan lanean ari diren hainbat eragilek sortutako nodo edo plataforma esperimental modura eratu baitzen, sektore anitzeko eta aliantza publiko eta pribatuko ikuspegiarekin; eragile horiek "behetik gorako" lankidetzan oinarritutako zenbait printzipio eta balio partekatzen zituzten. Legegintzaldian zehar plataformak hainbat bilera egin ditu, eta hainbat erronkari aurre egin beharko zaiela identifikatu zen, horien artean gobernantza.

2. 2015-02-24ko Gobernu Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez baimentzen den [Asmo eta Borondate Onen gutuna izenpetzea Carchi probintziako \(Ekuador\) Gobernu Autonomo deszentralizatuarekin](#), xedea izanik ahalik eta gardentasun handiena, herritarren lankidetzak eta parte hartzea sustatzea eta jardunbide egokiak trukatzeko Eusko Jaurlaritzako Gobernu Irekiaren zuzendaritzarekin.

2. ekimena. Politika publikoak koordinatzeko lanabesak sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen baterako ekintza bati heltzeko.

1.13.1 helburua. Eragile sozialen partaidetza

Arduraduna: Jesús Peña Martínez (Lehendakaritzaren idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta EUDELen arteko Mahai Instituzionala 2013-05-08an jarri zen abian. Mahai horren barruan, 2013-09-30ean [inbertsio proiektuak garatzeko Lehendakariaren eta hiru foru diputatuen arteko akordio instituzional bat](#) sinatu zen, 180 milioi euroko zenbatekoduna.

2. Eusko Jaurlaritzaren eta Eudelen arteko akordio instituzionala, [enpleguko eskualde eta toki mailetako planak](#) garatzeko Lanbideren bitartez. Enplegurako eskualde eta toki mailako plan horiek urtero gauzatu dira Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko programaren barruan.

3. Gobernu Kontseiluak 2014-11-11n onartu zuen [Euskal Autonomia Erkidegoaren Udal Legearen Proiektua](#), eta gaur egun Legebiltzarrean ari dira izapidetzen; horren baitan [Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua](#) sortuko da, EAEko erakundeen esparruan politika publikoak erakundeen artean koordinatzeko, integratzeko eta bultzatzeko baliabide berri gisa. Kide anitzeko organo iraunkor bat da, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek toki autonomia erabat errespetatuko dutela bermatzea helburu izango duena.

3. ekimena. "Euskal Autonomia Erkidegoko berrikuntza publikoaren estrategia" prestatzea, kalitatezko zerbitzuak eskainiko dituen administrazio berritzaile eta moderno baterantz abiatzeko.

1.13.1 helburua. Eragile sozialen partaidetza

Arduraduna Andrés Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Gobernu Kontseiluak, 2014-06-17ko saioan, [2014-2016ko Berrikuntza Publikoaren Plana](#) onartu zuen. Euskal Administrazio Publiko berritzaile eta ireki bat eraikitzea eta modernizatzea xede duen plan estrategikoa da, gizarteari kalitatezko zerbitzu eraginkorrek eta seguruak eskainiko dizkiona eta, herritarren parte hartze aktiboa bultzatzeaz gain, pertsonak aintzat hartuko dituen aldaketaren protagonista gisa. Hori guztia gobernantzaren balio berrietan oinarrituta: irekitasuna, emaitzetara begira egotea, gardentasuna eta berrikuntza.

2. 2016ko urtarrilean [Berrikuntza Publikoaren Planaren](#) lehenengo jarraipen txostena egin zen; txosten horretan, ideia eta jardun berritzaileak kudeaketa publikoaren esparruan aplikatzeko prozesuan izan diren aurrerapenak eta lortutako emaitzak aztertu ziren, bizi kalitate eta ongizate maila altuagoak dituen gizarte lortzeko administrazio publiko moderno, azkar eta eraginkorra izatea erabakigarria dela ulertze aldera, gizarte balioa sorrarazteko helburuarekin.

3. 2014-2016ko Berrikuntza Publikoaren Planeko 4. Ardatz Estrategikoa (Kudeaketaren hobekuntza) garatuz, Gobernu Kontseiluaren 2014-10-14ko erabakiaren bitartez Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua eta hura ezartzeko oinarritzko prestakuntza eta laguntza proiektua ([Aurrerabide proiektua](#)) onartu ziren.

1. ekimena. Lanabes parte-hartzaileak eta **herritarren partaidetza** egituratzeko protokoloak garatzea eta horiei guztiei zabalkundea ematea.

1.13.2 Gardentasuna, herritarrei entzun eta kontsultatzea

Arduraduna: Andres Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013. urtearen amaieran Irekia Open Government plataformaren software askea eguneratu zen. Eusko Jaurlaritzak erabiltzaile, garatzaile eta herritar guztien eskura jarri du **“Open Irekia – Gobierno Abierto”** izeneko aplikazioa, "European Union Public Licence" lizentziapean.

2. 2014an zehar erraz instalatzen den Irekiaren bertsio bat garatu zen, garapen teknologikoen erkidego bat sortzeko helburuarekin. Garatzaileen erkidego horiek lagungarri izango dira aplikazioak hobetzeko eta esperientziak partekatzeko. Adibide gisa, beste batzuen artean, Irekiaren bertsiora jo dute: Asturiasko Gobernuak, Kataluniako Generalitateak eta Kanaria Handia (Arona) eta Murtzia probintzietako zenbait udalek.

3. Euskal sektore publikoaren **Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Lege Proiektua** Gobernu Kontseiluaren 2015-11-10eko bileran onartu zen, eta une honetan Legebiltzarrean izapidetzen ari da. Proiektuaren IV. titulua herritarren parte hartzeari eta parte hartze prozesuei eskainita dago, eta parte hartze prozesu orok izan beharreko baldintzak eta oinarritzko bermeak ezartzen ditu. Aurrez aurre zein telematikoki parte hartzeko bide berri eta berritzaileak gehitu ditu unean uneko gaitasun teknologikoen arabera, beharrezko bermeak murriztu gabe. Irekia atariak herritarren parte hartzeari eskaintzen dion atalean sartu ditu aurreikuspen horiek.

4. 2016ko urtarrilaren 22an "Bidaia-gida. Parte hartzea. 100 Esplorazio, hurbilketa eta ibilbiderako orientabide" aurkeztu zen, arlo horretako trebetasunak eta jarduna hobetzera bideratutakoa. Gidaliburuaren asmoa parte hartze prozesuak diseinatzeko eta ezartzeko behar diren gaitasun nagusiak eta horiek erabiltzeko tresnak jasotzea da.

2. ekimena. Demokrasiari eta herritarren partaidetzari buruzko liburu zuri bat prestatzea, nazioartean eta, bereziki, Europar Batasunean dagoeneko herritarren partaidetzarako existitzen diren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioei begira egokitu daitezkeen jardun demokratikoak jasoz.

1.13.2 Gardentasuna, herritarrei entzun eta kontsultatzea

Arduraduna: Andres Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Euskadiko Demokrasiari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Liburu Zuria](#) prestatu da, eta 2014-12-19an aurkeztu zen.

2. Aurkeztu zenetik, liburuaren [zabalkundeari](#) ekin zaio, herritarrengandik gertuago egongo den administrazioa lortzeko Eusko Jaurlaritzaren estrategiaren barruan; estrategia horren helburuzko administrazioak eraginkortasun, efizientzia, gardentasun eta erantzukizunaren printzipioen arabera jokatu du. Printzipio horiek gauzatzeko ezinbestekoa da administrazio parte hartzaileagoan aurrera egitea, eta horretarako aipatutako liburu zuria oso oinarri ona da.

3. Zabalkunde horren esparruan, Administrazio [barruko hainbat konpromiso eta lan ildo](#) ari dira garatzen eta nabarmentzekoa da, horien artean, Demokrasiari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Liburu Zurian jasotako herritarrentzako gomendioak Eusko Jaurlaritzako sailen artean ezagutzera emateko barne prozesua:

- Osasuna (aurrekontu gardentasuna, informazio fakturak, langileen parte hartzea, ESI bakoitzean osasun kontseiluak sortzea...)
- Ikaskuntza (irakaslearen irudia berreskuratzea, hezkuntza eredura eragile ekonomikoak eta sozialak gehitzea, balio konpromisoen esparrua...)
- Ingurumena eta ingurunea (parte hartzea gehitzea lurralde antolamenduan, hiri planeamenduetako arauen garapenean, garraioan, energian, datu irekiak eta neurketak, informazio sistemak...)
- Gizarte kohesioa (politika eta zerbitzuen ebaluazioa, zerbitzu berrien analisiak eta diseinua, gazteen enplegua, gizarte kontratu berria...)
- Garapen ekonomikoa (gizarte balioak berreskuratzea enpresa eremuan, eredu ekonomikoari buruzko gogoeta partekatua, Start-up enpresei izapideak malgutzea, talentua erakartzea...)

4. Herri Administrazio eta Justizia sailburuaren 2015-10-23ko Agindua eman zen, balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako Eusko Jaurlaritzaren «Elkarlan» sariak emateko deialdia onesten duena. Hala, eragile sozialen parte hartzeari, gardentasunari eta herritarrei entzun eta kontsultatzeari dagokienez gobernuak hartutako konpromisoa gauzatu nahi da, hain zuzen ere, esperientzia berritzaileen garapena sustatzea gure kultura demokratikoan berriak izan daitezkeen eta parte hartzea bultzatzeko formula desberdinak esperimintatzeko aukera ematen duten proiektu pilotuei babesa emanez.

3. ekimena. Partaidetzarako leihatila elektronikoak ezartzeko lanari heltzea, herritarrek gizarte eraginik handieneko eta esanguratsuenerako erakunde proiektu eta egitasmoen gainean daukaten iritzia jasotzeko formula gisa.

1.13.2 Gardentasuna, herritarrei entzun eta kontsultatzea

Arduraduna: Andres Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. Irekiak, 2013ko azarotik, automatikoki esportatzen ditu bere albisteak Euskadi.net atarira. Gainera, leiho itxurako aplikazio txiki bat eranstean die eta, horrela, Euskadi.net-era inportatutako albiste bakoitza «iruzkindu» dezakete herritarrek. Hori izan da lehen urratsa Euskadi.net interaktibo baterantz. 2014an zehar, iruzkindu daitezkeen edukiak eskaintzen dituen aukera hori orri berrietara hedatu da Euskadi.net-eko eduki kudeatzailearen bitartez.

2. [Gobernu Programaren betetze mailaren jarraipena egiteko](#) aplikazioaren garapena, herritarrei ahalbidetu diezaien legegintzaldi honetarako gobernu programa gauzatzeko arduradun publiko bakoitzak garatutako jarduera guztiak lehen eskutik ezagutzea, partekatzea eta iruzkintzea. 2013-12-13an jarri zen martxan. Horrekin batera, aplikazioari buruzko prestakuntza prozesu bat eman zaie arduradun publikoei, on line bidez eta beren hitzekin eman dezaten aurrera eraman dituzten jardueren berri.

3. Eguneroko komunikazio berezituari lotutako prozesu bat garatu da, 2015eko lehen lauhilekotik, Twitter sare sozialean, gobernuaren programan jasotako helburuen banakako betetze mailari buruz, gobernuaren jarduerari buruzko kontu ematearen inguruko agerikotasuna eta gizartean duen eragina indartzeko.

4. ekimena. Herri administrazioetan informazioa eta argibideak eskatzeko herritarrek daukaten eskubidea berritzea, egokitzea eta sakontzea, gardentasunaren alde hartutako konpromiso orokorraren barruan.

1.13.2 Gardentasuna, herritarrei entzun eta kontsultatzea

Arduraduna: Andres Zearreta Otazua (Funtzio Publikoko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2016-01-22an Gobernuak "[Gardentasun gida](#)" aurkeztu zuen. Gidaren xedea eremu honetako oinarriko kontzeptuak eta printzipioak argitzea da, gardentasunaren kulturaren "ontziratzen" laguntzea eta lagunduko diguten tresnak aurkeztea.
2. 2015eko urtarriletik, Gobernu Kontseiluak herritarren eskaerei [Zuzenean zerbitzuaren](#) bitartez erantzuteko prozedura onartu eta abian jarri zuen. Erantzuna 20 egunetan emateko konpromisoa hartzen du, estatu mailan Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legean ezarritako 30 egunak baino 10 egun gutxiagoko epean. Jarduketa horrekin Euskal Autonomia Erkidegoan urtebete aurreratu dira informazio publikora, publikotasun aktibora eta gardentasunaren eta gobernu onaren kulturara heltzeko neurriak. (Gobernu Kontseiluaren 2015-01-13ko Erabakia).
3. 2016-01-31n Zuzenean zerbitzuak herritarrek egindako informazio publikoa eskuratzeko 30 eskaerei bide eman die.
4. Irisgarritasuna hobetzea Irekian. 2014ko martxotik, irisgarritasuna eta erabilgarritasuna hobetzeko laguntza teknikoen sistema bat ezarri da eta laguntza horiek Irekia atariarekin komunikatzeko aukera ematen die ikusmen edo entzumen arazoak dituzten pertsoneri edo mugikortasuna murriztua dutenei. Hori guztia ahots, teklatu, edo, mugikortasuna larriki murriztua dutenen kasuan, soinu aginduen bidez nabigatzea ahalbidetzen duen software baten bitartez. Software hori bateragarria da ikusmen zailtasunak dituzten internautek jada erabiltzen dituzten pantaila irakurle gehienekin.

1. ekimena. Ekonomia Itunaren Lege berri bat bultzatzea, zerga figura berriak jasoko dituen, esaterako araudi autonomikoarekin hitzartutakoak.

1.14.1 helburua. Harreman ekonomiko eta finantzarioak arautzea

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014-01-16an Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak [zerga arloko hainbat akordio](#) hartu zituen Ekonomia Ituna eguneratze aldera; horrela, Estatuko Administrazioak azken urteetan onartutako zerga berriak txertatu dira Itunean. Era berean, Euskal Autonomi Erkidegoaren eta Estatuaren arteko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordea aldatzeari eta horren osaketari buruzko erabakiak hartu ziren.

2. 2014-03-10ean, Ogasun eta Finantzetako sailburuak [agerraldia](#) egin zuen, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen aurrean, 2014-01-16an Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak izandako bileran Ekonomia Itunaren Legean onartutako aldaketen berri emateko.

3. 2014ko apirilean, apirilaren 21eko [7/2014 Legea](#) onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoarekin Ekonomia Ituna onartu zuen [12/2002 Legea](#) aldarazi zuena.

4. 2014-05-29an, 335/2014 Errege Dekretua argitaratu zen; horren bidez aldatu zen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartu zuena.

5. 2014-07-21ean, Bilbon [bilera bat](#) egin zuen Ekonomia Ituneko [Arbitraje Batzorde](#) berriak; Ekonomia Itunean jaso bezala, zerga arloko eskumen gatazkak ebaztea bere gain hartu duen entitatea da Arbitraje Batzordea.

6. Eusko Legebiltzarreko Autogobernuaren Lantaldeak eskatutako eskaera betetzeko asmoz, Ekonomia Itunari eta kupoari buruzko [txostena](#) idatzi eta Gobernu Kontseiluak onetsi egin du, ondoren Legebiltzarrera eramateko.

2. ekimena. EAEko erakundeak ECOFINeko lantaldeetan sartzeko egituraketa operatiboan sakontzea, Europan eztabaidatu ohi diren zerga harmonizazioari buruzko aldaketetan Ekonomia Ituna kontuan hartzea ahalbidetzeko helburuarekin.

1.14.1 helburua. Harreman ekonomiko eta finantzarioak arautzea

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak (EZKO) 2013ko urrian egindako bileran, Eusko Jaurlaritzak 2011z geroztik izandako parte hartzearen balantzea aurkeztu zen, bai eta ECOFINeko lantaldeetan etorkizunean izango duen parte hartzearen proposamena ere. Horrez gain, aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ECOFINeko lantaldeetan izango duten parte hartzearen antolaketa berriari etorkizunean heltzea erabaki zen.

2. Sail honek eta Europar Batasunerako Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritzak elkarlanean egiten duten lanaren emaitza gisa, 2014. urtetik [Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartzen du](#) ECOFINeko lantaldeetan: D.4. Zerga gaien taldea eta D.5 Jokabide Kodearen Taldea.

3. Europar Batasunerako Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritzarekin lankidetzan [aldizkako txostenak](#) egiten dira; horri esker, [Ecofineko](#) lantaldeei lotutako zerga informazioa kudeatzeko, lantzeko eta kontrolatzeko prozedurak hobetu egin dira.

3. ekimena. Oraingo bosturtekoari begira, Euskal Autonomia Erkidegoko Kupoaren metodologia eta zehaztapena ezarriko dituen lege berri bat onesteko beharrezko akordioak bultzatzea eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa berreskuratzeko Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren finantza harremanetarako akordio eta diseinurako foro gisa

1.14.1 helburua. Harreman ekonomiko eta finantzarioak arautzea

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Legebiltzarreko Autogobernuaren Lantaldeak egindako lanaren barruan eskatutako eskaera betetzeko asmoz, Gobernu Kontseiluak onartu egin du Ekonomia Itunari eta Kupoari buruzko [txostena](#) eta Legebiltzarrera bidali du.
2. 2014-04-14an, Ogasun eta Finantza sailburuak [agerraldia](#) egin zuen Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontu Batzordean, kupoari buruzko negoziazioaren benetako egoerari buruzko ahozko galdera erantzuteko.
3. 2015eko urtarrilean, martxoan eta apirilean Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Finantza sailburuak Legebiltzarreko hainbat galdera erantzun zituen, hain zuzen ere euskal administrazioaren eta Estatuko Administrazioaren artean kupoaren gaineko [desadostasunei](#) buruzkoak, eta bereziki horren [negoiazioa](#) eta [likidazioa](#) tarteko.
4. Kupoari dagokionez, egiteke dauden likidazioen gaineko interpretazio desberdinei buruzko elkarrizketari eusten zaio Estatuko Administrazioarekin, eta prozesu negoziatzailea bukatzea espero da, kupoaren bost urtez behingo legearen proiektua adosteko.

4. ekimena. Baliabideen banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuak finantzatzeko foru aldundien ekarpenak zehazteko metodologiaren lege berria onestea, oraingo bosturtekoari begira.

1.14.1 helburua. Harreman ekonomiko eta finantzarioak arautzea

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2013-10-15ean egindako bileran lau erakundeetako bi ordezkari osatutako lantalde bat eratzea adostu zen. Lantalde horren helburua erkidegoko karga komunak mantentzeko metodologia eta ekarpenen legea berritzea eta lege berri bat abiaraztea da, 2007. urtekoa ordeztuko duena.
2. 2015-10-16an Ogasun eta Finantzarako sailburuak Legebiltzarreko galdera batzuk [erantzun zituen](#) Eusko Legebiltzarrean, Ekarpenen Legeari buruzko interpelazio baten haritik.
3. 2016an zehar, negoziazio prozesua bukatzea espero da, Euskal Kontseiluaren [Finantza Publikoen barruan](#).

5. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoari ekonomia eta finantza arloan dagozkion eta bete gabe dauden transferentziak eskatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoari bere eskumeneren barruko kreditu erakundeen baimen eta kontrol zereginak betetzea ahalbidetzea.

1.14.1 helburua. Harreman ekonomiko eta finantzarioak arautzea

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko martxoan, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzak Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxei buruzko ekainaren 14ko 11/2012 Legeari lotutako [akordioa](#) sinatu zuen.

2. Gobernu Kontseiluak 2014ko abenduaren 2an erabaki zuen baimena ematea Sektore publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legearen zenbait aginduren aurka konstituzio kontrakotasunaren errekurtsoa aurkezteko.

3. 2015ean, Aldebiko Batzordeak [akordio bat](#) lortu zuen Sektore publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeari zegokionez.

6. ekimena. Ekonomia Itunaren eguneraketa eta aurrerapen berriak eskatzea eta Europan behin betiko bateragarri egitea.

1.14.1 helburua. Harreman ekonomiko eta finantzarioak arautzea

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014-01-16an, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak zerga arloko hainbat akordio egin zituen, Ekonomia Ituna eguneratzeko eta zerga irudi berriak sartzeko, Europako harmonizazioaren esparruan, "Fiskalitate Berdea" izenekoari heltzeko.

2. 2014ko apirilean, [7/2014 Legea](#) onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartu zuen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldarazi zuena.

3. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak lankidetzan jarraitzen du foru erakundeekin [Ekonomia Ituna](#) Europan defendatzeko zereginean, eta aktiboki parte hartu du Justizia Auzitegiaren aurrean, Ekonomia Ituna Europar Batasuneko Itunean behin betiko eta egonkortasunez sartzeko defendatzeko.

1. ekimena. Ekoizpen ekonomiaren aldeko finantza tresnak indartzea, finantza erakundeekin eta gizarte aurreikuspeneko erakundeekin elkarlanean, euskal enpresen finantza gaitasuna handiagotzeko, kreditu lineak sendotuz eta abal publikoei buruzko programak eta proiektu estrategikoei laguntzeko egitasmoak definituz.

1.14.2 helburua. Ekonomia produktiborako finantza tresnak

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko ekainean Eusko Jaurlaritzak Industria babesteko programa integral bat prestatu zuen; horri jarraiki ekoizpen sektore horri laguntzeko ildoak diseinatuko dira, eta horren zenbait lanabes honako jarduketa hauetan aipatu dira:

2. EAEko enpresa edo enpresa taldeak finantzatzeko abalak emateko ezohiko programari bultzada ematea, bereziki eraginez industria sareari eta enpleguari (enpresa txiki eta ertain traktoreak) eusteko; hala, kapital zirkulatzailen premiak estaltzeko finantzaketa lortzeko aukera izango dute. 2013: 416/2013/ 2014 [Dekretua](#): 111/2014, 2015 [Dekretua](#): 151/2015 [Dekretua](#):

3. Enpresak Nazioartekotzeko 2014-2016 Planarekin bat etorritik, 2014ko maiatzean Euskal Finantza Erakundeak finantzaketa [lerro berri bat](#) eskaini zuen, enpresa txiki eta ertainen esportazio jardueretarako. Programa ezartzeko, Elkargi eta Oinarri elkarren bermerako sozietateei eman beharreko birfinkatze hitzarmenak formalizatu behar dira, finantza abalen eragiketengatik.

4. 2015ean, [ETE ekimena](#) finantza tresna martxan jarri zen, Europako Inbertsio Bankuarekin, Europako Inbertsio Funtzarekin eta beste finantza entitate batzuekin lankidetzan, kreditua, inbertsio pribatua eta enplegua sortzea errazteko.

5. Finantzen Euskal Institutuak zentro teknologiko eta ikerketa zentro kooperatiboetarako [finantzaketa lerro bat](#) eskaintzen du (2014 eta 2015).

6. 2015ean, [Sendotu Programa](#) jarri zen abian, hain zuzen ere, nekazaritza, basogintza, arrantza, elikadura eta landa garapeneko sektoreko enpresetarako finantzaketa lerroa.

7. Urte horretan bertan, Finantzen Euskal Institutuak kapitalizazio ertaineko eta enpresa txiki eta ertaineko [finantzaketa lerro bat](#) jarri zuen martxan.

8. 21/2016 [Dekretua](#) onartu da, enpresa txiki eta ertainei, enpresaburu indibidualei eta profesional autonomoei 2016. urtean finantza laguntza emateko programa garatzen duena. Ekimen hori 2013., 2014. eta 2015. urteetan ere garatu zen.

9. Halaber, aurreko beste deialdietan bezala, [21/2016 Dekretu](#) horren bitartez ere ETE eta autonomoen alde 2016an garatutako finantza abalak tarteko Elkargi eta Oinarri elkarren bermerako sozietateei eman beharreko birfinkatze hitzarmenak formalizatzea baimendu da.

2. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko antolamendu juridikoa argitzeko zereginari heltzea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eta, oro har, arlo ekonomikoari dagozkien gaietan, betiere honako jarduketa hauek aurrera eramanez: diru-laguntzei buruzko euskal lege bat eginez, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei eta aurrezki kutxei dagozkien arauzko garapenak onetsiz eta ekonomi eta finantza eremuan zereginak betetzen dituen administrazio sarearen eraginkortasuna egiaztatuz.

1.14.2 helburua. Ekonomia produktiborako finantza tresnak

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio araubidea ezartzen duen dekretu proiektua prestatze fasean dago; aurreko araubidea aldaraziko du. Proiektu hori [Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren](#) irizpenaren mende dago.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko diru laguntzen araubidea arautzen duen lege [aurreproiektua](#) aurkeztu da. Aurreproiektu hori Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaren mende dago.
3. 2015ean [203/2015 Dekretua](#) onartu zen, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko 5/2012 Legearen araubidea ezarri zuena.
4. [154/2015](#) Dekretua onartzeari esker, [Urteko Estatistika Programa 2015](#) jarri zen martxan.
5. Gobernu Kontseiluak, 2015eko uztailan, EAEko Aurrezki Kutxei eta Banku Fundazioei buruzko [Lege proiektua](#) onartu zuen. Helburua egungo araudia Estatuko arlo honetako oinarrizko araudira doitzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko banku fundazioen araubide juridikoa arautzea da, Aurrezki Kutxei eta Banku Fundazioei buruzko 26/2013 Legea onartu ondoren. Gaur egun, proiektu hori Legebiltzarreko [izapidetze](#) fasean dago.
6. Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2013-11-15ean egindako bileran lantalde bat eratzea adostu zen, lau erakundeetako bi ordezkari osatutakoa. Lantalde horren egitekoa izango litzateke erkidegoko karga komunak mantentzeko metodologia eta ekarpenen legea berritzea eta lege berri bat abiaraztea. Prozesu hori 2016an bukatzea espero da.
7. 2013-12-10ean 2014-2017 Euskal Estatistika Planari buruzko [lege proiektua](#) onartu zen, 2014-2017 aldian EAEko estatistika jarduna arautzeko. Eusko Legebiltzarrak plan hori onartu zuen (3/2014 Legea).

3. ekimena. EAEko finantza ekintzarako tresnak bultzatzea, Finantzen Euskal Institutua indartuz eta finantzaketa publikoko tresnen kudeaketa bereganatuz.

1.14.2 helburua. Ekonomia produktiborako finantza tresnak

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015ean, EAEn azpiegitura zientifiko eta teknologikoetan eta ekipamenduetan inbertsioak egitea sustatzeko programa bat onartu zen ([244/2015Dekretua](#), abenduaren 29koa).
2. 2015ean [Sendotu Programa](#) jarri zen abian, nekazaritza, basogintza, arrantza, elikadura eta landa garapeneko sektoreko enpresetarako finantzaketa lerroa ([2015-07-29ko](#) eta [2015-11-11ko aginduak](#)).
3. 2015ean, Finantzen Euskal Institutuak kapitalizazio ertaineko eta enpresa txiki eta ertainetarako [finantzaketa lerro bat](#) jarri zuen martxan.
4. 2014tik, Finantzen Euskal Institutuak [finantzaketa lerro bat](#) eskaintzen du zentro teknologiko eta ikerketa zentro kooperatiboetarako ([2014](#) eta [2015](#)).
5. Legegintzaldi honetako helburuetako bat [Finantzen Euskal Institutuaren](#) jardunaren garapena finkatzea da, Administrazioaren kreditu eta finantza agentzia gisa.
6. Sozietateak berrantolatzeari ekin zaio, Euskal Autonomia Erkidegoak sustapen ekonomikoko politikarako bidegabeki dituen finantza tresnen eta [sozietate partaidetzen](#) multzoa Finantzen Euskal Institutuaren inguruan zentralizatu, bildu eta arrazionalizatzeko. Horrela, sortu zenean erakundeari emandako berezko eginkizunek zentzu osoa hartuko lukete. Euskal Administrazio publikoaren finantza kudeaketa hobetzen eta optimizatzen lagunduko du horrek guztiak.
7. [2014-2016 Enpresak Nazioartekotzeko Planarekin](#) bat etorritz, Finantzen Euskal Institutuak [finantzaketa lerro berri bat](#) eskainiko du enpresa txiki eta ertainen esportazio jardueretarako.
8. [217/2010 Dekretuan](#) ezarritakoaren haritik, inbertsio zientifiko-teknologikoak egiteko laguntzen Deialdia 2016 martxan da.
9. 2013an, Finantzen Euskal Institutuak [partaidetza](#) eskuratu zuen Ekarpenean SPE, SA enpresan, otsailaren 12ko 158/2013 Dekretuak baimenduta entitate horren kapital soziala handitzearen ondorioz.
10. Europako Inbertsio Bankuak [mailegu bat](#) eman zion Finantzen Euskal Institutuari 2013an, EAEko enpresa txiki eta ertainak finantzatzeko programa baterako.

4. ekimena. 2014-2020 programazio epealdirako Euskal Autonomia Erkidegoa egoki kokatzea Europar Batasunaren parte hartzearen testuinguruan eta Europar Batasunaren Kohesio Politikaren programazioa dela eta Euskal Autonomia Erkidegoaren programa operatiboen kudeaketa eraginkorra garatu.

1.14.2 helburua. Ekonomia produktiborako finantza tresnak

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015-05-19an, Europako Batzordeak 2014-2020 Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako [Programa](#) Eragilea onartu zuen (POCTEFA); programa horrek 19,33 milioi euro esleitu zizkion EAERI.
2. 2015eko irailean, Interreg V A Espainia-Frantzia-Andorra 2014-2020 ([Poctefa](#)) programako proiektuen lehenengo [deialdiaren iragarkia](#) plazaratu zen.
3. 2015eko otsailean Europako Batzordeak EAeko EGEF [Programa](#) Eragilea 2014-2020 onartu zuen. Dokumentu horrek zehazten du zein diren Euskal Autonomia Erkidegoko esku hartzeko estrategia eta helburu tematikoak EGEF Eskualde Garapeneko Europako Funtsak 2014 eta 2020 bitartean kofinantzatutako jarduketari dagokienez. Laguntzen zenbatekoa 176,45 milioi eurokoa da.
4. 2015-03-23an EAeko EGEF 2014-2020 Programa Eragilearen **Jarraipen Batzordea** eratu zen. Europako Batzordeak eman eta EGEFek finantzatzutako EAeko Programa Eragileak modu eraginkorrean kudeatzean datza batzordearen betebeharra. Aurretik, 2014ko maiatzean, batzorde horrek 2007-2013 Programa bukatu zuen.
5. 2015. urtearen amaiera aldera arte, Europar Batasuneko ekonomia, gizarte eta lurralde [kohesiorako politikan](#) esku hartzeko tresnak 2007-2013 aldian gauzatzeko eta kontrolatzeko kudeaketari eutsi zitzaion. EAeko [EGEF](#) Programa Eragilea 2007-2013 (481,1 milioi euroko inbertsioa guztira eta erkidegoren 240,6 milioi euroko laguntza) eta Frantzia-Espainia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa (POCTEFA).

1. ekimena. Zerga eta finantza arloetako finkatze politikei eustea, aurrekontu zorroztasuneko eta finantza publikoen iraunkortasuneko testuinguruan; hala, aurrekontu tarteak errespetatzea bat etorriko da enplegua sortzeko politikak eta gizarte politikak babestea lehenestearekin.

1.14.3 helburua. Aurrekontu egoera orekatua

Arduraduna: Pedro María Hernando Arranz (Ekonomia eta Aurrekontu sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko [Aurrekontu Orokorrak](#) (2013ko urtarrila) egiteko onartutako jarraibide ekonomiko eta teknikoek haien gain hartu zuten aurrekontu zorroztasunaren eta finantza publikoen iraunkortasunaren testuingurua. Horien arabera landu eta onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoaren 2013rako [Aurrekontu Orokorraren Lege Aurreproiektua](#), zerga eta finantza arloak sendotzeko politika bati jarraiki. Murrizketa nabarmena egin zen gastu arruntean, baina eutsi egin zitzaion enplegua sustatzeko politikei eta politika sozialen babesari ematen zaien lehentasunari. Gerora, proiektu hori Legebiltzarretik baztertu zen; hortaz, 2012. urteko ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren luzapena kudeatu zen batez ere, aurrekontu egonkortasunerako beharrezko tarteak zainduz.

2. 2014-01-16an Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoak aldez aurretik Estatuko eta EAEko administrazioek hartutako bi aldeko akordioak berretsi zituen, aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren arloan. Zehazki, bereziki garrantzitsuak izan ziren defizit helburuei eta 2013. ekitaldirako eta 2014-2016 aldirako zorrari dagokienez 2013ko irailean lortutako [akordioak](#).

3. Aurrekontuen mekanika berberari jarraiki, [2013](#), [2014](#) eta [2015](#), 2015-06-09an onartu ziren [2016](#). urterako EAEko Aurrekontu Orokorrak egiteko jarraibide ekonomiko eta teknikoak. Horrekin bat etorritik, eta prestatzeko eta onartzeko [prozedura](#) bukatu ondoren, Eusko Legebiltzarrak 2016ko Aurrekontuak onartzeko [9/2015 Legea](#) onartu zuen.

2. ekimena. Egiturak urritzea ekarriko duen eta, aldi berean, gure baliabide eta bitarteko publikoen aplikazioan eraginkortasun handiagoa eragingo duen gastu arruntaren murrizketa.

1.14.3 helburua. Aurrekontu egoera orekatua

Arduraduna: Pedro María Hernando Arranz (Ekonomia eta Aurrekontu sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko uztailan, Gobernu Kontseiluan EAEko Sektore Publikoa Berrantolatzeko eta Arrazionalizatzeko [Estrategia](#) onartu zen. Estrategia Eusko Legebiltzarrera helarazi zen, aztertu eta eztabaidatzeko.

2. 2013an onartutako dekretua aplikatuz, goi karguen eta behin-behineko langileen egitura funtzional organikoa murriztu zen. Murrizketa % 21,13koa izan zen, eta 4.000.000 euro aurreztea eragin zuen. Ildo beretik, gastu arrunta murrizteko eta existitzen diren baliabideen eraginkortasuna hobetzeko neurriak hartu ziren.

3. ekimena. EAEko ekonomiaren lehiakortasunerako beharrezko inbertsio estrategikoei eustea, bereziki I+G eta nazioartekotzearen arloetan.

1.14.3 helburua. Aurrekontu egoera orekatua

Arduraduna: Pedro Hernando Arranz (Ekonomia eta Aurrekontu sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, Finantzen Euskal Institutuak partaidetza bat eskuratu zuen Ekarpén SPE, S.A. enpresan, entitate horren kapital soziala handitzearen ondorioz. [Ekarpén](#) enpresak sustatzeko sozietate bat da; Euskal Autonomia Erkidegorako balio estrategikoa daukaten sektore berritzaileei laguntza ematea du helburu, balioa sortzeko eta, dagokien dimentsioan, potentzial handiko proiektuak lortzeko.
2. 2015ean, [Sendotu programa](#) jarri zen abian, hain zuzen ere, nekazaritza, basogintza, arrantza, elikadura eta landa garapenerako sektoreko enpresetarako finantzaketa lerroa ([2015-07-29ko](#) eta [2015-11-11ko](#) aginduak).
3. 2015ean, [Finantzen Euskal Institutuak](#) bi ekimen jarri zituen martxan. Batetik, kapitalizazio ertaineko eta enpresa txiki eta ertainetarako finantzaketa lerro bat, eta bestetik, zentro teknologiko eta ikerketa zentro kooperatiboetarako beste [finantzaketa lerro bat](#) ([2014](#) eta [2015](#)).
4. 2015eko abenduan, Euskal Autonomia Erkidegoan ekipamenduan eta azpiegitura zientifiko eta teknologikoan inbertsioak egitea sustatzeko programa onartu zen ([244/2015 Dekretua](#), abenduaren 29koa).

1. ekimena. Zerga erreforma orekatu, koordinatu eta harmonizatua sustatzea lurralde historikoen artean, zerga sistemaren gehikortasunean eta justizian sakontzera bideratua, eta jarduera ekonomikoa eta inbertsioa sustatzea eta funtsezko zerbitzu publikoak bermatzea.

1.14.4 helburua. Zerga sistema berritzea

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko urrian, [Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak](#) (EZKO) foru arau hauen aurreproiektuen edukia aztertu zuen:

Araba eta Bizkaiko Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Foru Araua eta Ondare Transmisioen eta Dokumentatutako Ekintza Juridikoen gaineko Zergaren Foru Araua aldatzeko foru arauak.

-Bizkaiko Egoiliar ez Direnen Errentaren Gaineko Zergaren Foru Araua.

- Araba eta [Bizkaiko](#) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren foru arauak.

- Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren foru arauak.

2. EZKOk, 2015eko urrian egindako bileran, Gipuzkoako Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren erreformari buruzko foru arauaren aurreproiektuaren edukia aztertu zuen.

2. ekimena. Zerga Kudeaketarako Organoaren funtzionaltasuna bultzatzea erakundeen arteko bilgune eta foro gisa, betiere herritarrei zuzentzen zaien zerga eredu baten egituraketan aurrera egiteko, erakundeen eskumen eremuak bete-betean errespetatuz.

1.14.4 helburua. Zerga sistema berritzea

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, EAEko Zerga Kudeaketarako Organoak (EZKO) [Urteko Txostena](#) argitaratu zuen, EAEko Ogasunaren jardunean integratutakoa.
2. 2013. urtetik gaur egun arte, EAEko Zerga Koordinaziorako Organoak (EZKO), guztira, zerga araei buruzko 122 proiektu aztertu eta 28 kontsulta lotesle aztertu ditu, denak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek aurkeztutakoak.
3. EZKOk Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek aurkeztutako zerga arloko foru arauen aurreproiektu ugari aztertu ditu. Zerga erreformak hiru lurralde historikoetan onartu ondoren, EZKOk txosten bat egingo du Zergapideen Elkarregokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasunari buruzko **3/1989 Legean** aipatzen diren zerga figuretako bakoitzari dagokionez. Txosten horretan aztertu beharko du zer neurritan egokitzen diren elkarri lurralde historikoetako araudiak.

3. ekimena. Foru aldundiekin lankidetzan jardutea zerga iruzurraren aurkako borrokan arauzko tresnen eta lanabesen bitartez eta administrazioen arteko koordinazioaren bitartez.

1.14.4 helburua. Zerga sistema berritzea

Arduraduna: Juan Miguel Bilbao Garai (Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko azaroan Jaurlaritzak eta foru aldundiek Zerga Iruzurari Aurre Egiteko Batzordean izango dituzten ordezkariak izendatu zituzten.
2. Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren (EZKO) baitan 2013-10-14an adostutako akordio baten bidez, Zerga Iruzuraren aurka Borrokatzeko [Batzordea](#) eratu zen, 2013-09-26an zergen gainean egindako eztabaidan onartutako Eusko Jaurlaritzaren 6. ebazpenarekin bat etorritz.
3. 2014-04-14an Ogasun eta Finantza sailburuak [agerraldia](#) egin zuen Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontu Batzordean, iruzur fiskalaren aurkako borrokari zegokionez.
4. 2014ko urrian, Zerga Iruzuraren aurka Borrokatzeko Batzordeko kideek [agerraldia](#) egin zuten Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontu Batzordean, Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko 2014ko Plan Bateratuaren irizpide eta helburuei buruz informatzeko. Helburu berberarekin eta Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko 2015eko Planari begira, urte horretako ekainean kide horiek [agerraldia](#) egin zuten. Plan bateratu horietan ekitaldi bakoitzean egin beharreko jarduketa koordinatuak eta irizpide orokorrak jaso dira.
5. Urtero, Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Batzordeak urteko txostena egiten du, Euskal Autonomia Erkidegoan zerga iruzurraren gainean integratutakoa. 2014 eta 2015 ekitaldieidagozkienak jaso dira.
6. Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru aldundiek [hitzarmen](#) bat sinatu zuten informazio trukea arautzeko baldintzak eta prozedurak ezartzeko eta, hartara, iruzurraren aurkako borroka areagotzeko.

1. ekimena. Herritar guztien estaldura unibertsala eta eskuragarritasuna bermatzea, osasunaren babesa zalantzan ezin jar daitekeen eskubide unibertsal gisa ulertuz.

1.15.1 helburua. Pertsonak: osasun sistemaren ardatz nagusia

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskal herritar guztien osasun aseguramenduko datu baseen berrikuspena balioztatu da, eta etengabeko lotura mantentzen da Osasun Sistema Nazionala, Osakidetza eta Lanbide erakundeekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak dituen aseguramendu datu guztiak zuzenak eta eguneratuak izan daitezen, ahalik eta zerbitzu onena emateko.

2. Pazienteen jarraipena sustatzen ari da telekomunikazio programen parte den Osasun Aholkuaren bidez, nola gaixotasun kronikoetan, hala epe motzean jarraitzea behar duten patologia akutuetan.

3. [Osakidetzaren Osasun Karpeta](#)ren bitartez, paziente guztiek beren alta edo kontsulten nahiz erradiologia eta analitiken txosten guztiak kontsultatu ahal izango dituzte. Halaber, prozesu ohikoenetako itzarote zerrenda kirurgikoak kontsultatzeko aukera izango dute. Gainera, herritarrek informazioan parte hartu eta hura txertatu ahal izango dute, Osakidetzako pazientearen historia klinikoa nahiz pazientearen egunerokoan txostenak txertatuz. Era berean, Osasun Karpetara sartzeko aukera gaitzen ari da, [Osakidetzako app-aren](#) bitartez.

4. 2014ko abenduan, aurrez aurrekoak ez diren kontsulten funtzionaltasuna gaitu da (Osabide Globalak eskatuta), baita horien kudeaketa ere egiteke dauden lan gisa, kontsulta horiek egin ahal izateko ospitale zentro desberdinetan eta Osabide Globala ezarrita duten egoitzetan. 2015ean, aurrez aurrekoak ez diren kontsultak zabaldu egin ziren, bai lehen mailako arretatik arreta espezializatura egiteko, bai hainbat zentrotako ospitale zerbitzuen artean egiteko. Osabide Globalean zehazten diren baimen batzuen bidez gauzatzen da hori.

5. Osakidetzak, 2015eko martxoan, [O-sarean, bertaratu gabeko Osakidetza](#) aurkeztu du: hau da, herritarren eta euskal osasun publikoaren arteko bertaratu gabeko harremanetarako zerbitzu sorta garatuko duen programa bat. Horrela, bertaratu gabeko arretak, dela informazioa emateko, dela hitzorduak kudeatzeko edo izapide administratiboak egiteko, gure osasun sistema publikoa eskuragarriagoa egiten du. Horrez gain, komunikaziorako eta harremanetarako bide berri gisa sendotzen ari da eta ohiko arretaren osagarria da, bai osasuneko profesionalentzat, bai pazienteentzat.

6. ["Jarduera fisikoa preskribatu" proiektuak](#) jarduera fisikoaren mailak areagotu nahi ditu herritarren artean. Horretarako, osasuneko langileek beren kontsultetara doazen pazienteei jarduera fisikoa preskribatuko diete, lehen baino neurri altuagoan.

7. 2015. urtean, SIFCO aplikazio informatiko berria diseinatzeko egin da lan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko Osasun Sistema Nazionaleko pazienteentzako osasun arreta identifikatzeko. Asistentzia hori Osasun Sistema Nazionaleko gainerako zentroetan tratatuak izan diren Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonen ematen zaizkien beste zerbitzu batzuekin konpentsatuko da.

8. Azpiegiturak beharrezanetara egokitzeko etengabeko lanaz gain, legegintzaldian zehar honako jarduketak hauek gauzatu dira: (1) Zabalzana eta Salburuako osasun zentro berriak ireki dira Vitoria-Gasteizen, (2) Goierrri-Urola Garaia ESI -Erakunde Sanitario Integratuak baliabide pediatrikoak areagotu ditu Azpeitian, Legazpin eta Zumarragan, (3) Vitoria-Gasteizen Sansomendi eta Lakuabizkarrako osasun arloa berrantolatatu da.

2. ekimena. Herritarren erantzukizuna sustatzea osasunaren zaintzari dagokionez, betiere gaixotasunen ezagutza, prebentzioa eta kudeaketa ahalbidetuz.

1.15.1 helburua. Pertsonak: osasun sistemaren ardatz nagusia

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko ekainean, Osakidetzak abian jarri zuen **Osasun Eskola (OE)**. Programak: "Informa zaitetz zure gaixotasunaz"; "Informazioa preskribatzea. Osasuna aholkatuz", "Nire diabetesa zaintzen", "Paziente Bizia programa". Halaber, Gornizko ospitalean prestakuntza eskola bat sortu da moztutako pazienteentzat, eta kalte zerebralen eskola bat ere sortu da.
2. 2014an, **Paziente Bizia programak** gaixotasun kronikoei buruzko metodologia generiko berri bat erabili zuen, "nire osasuna biziki zainduz" izenekoa, diabetesari buruzkoarekin jarraitzeaz gainera. 925 paziente trebatu ziren eta 88 ikastaro egin ziren. 2015ean, "Paziente Bizia" programaren barne 750 paziente trebatu ziren eta 74 ikastaro eman ziren.
3. Ezkerraldea-Enkarterri eskualdeak, Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan, abian jarri zuen 2013an Gazteen Ikasgelako Kontsulta proiektua; ekimen horren xedea da erizaintzako profesionalen aurrez aurreko kontsultak egitea ikastetxeetan, publikoetan nahiz itunpekoetan, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan. Osasunaren sustapenaren eta prebentzioaren alderdien baitako jarduera da hori. 2013-2014 ikasturtean, 1.028 hitzordu izan ziren, eta horietan, lehen hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailetako 331 gaztek parte hartu zuten.
4. Uribeko eskualdean, irakasleentzako eta irakasle ez diren langileentzako prestakuntza ikastaro bat garatu da: "Oinarrizko osasun arretea eskola arloko larrialdi medikoetan". Helburuak dira irakasleen eta irakasle ez diren langileen gaitasunak hobetzea eskola ingurunean gerta daitezkeen ezinbesteko larrialdi egoeren aurrean, oso oinarrizko ezagutza batzuk eskaintzea ezinbestekoak ez diren larrialdietan arretea eskaintzeko moduari buruz, eta adingabearen egoera hobetzea, osasun zentro batean artatu arte.
5. Ikastetxeetan profesionalak prestatzeko programa bat garatu da "Larrialdiak eskola inguruan" gaiaren arloan, Osasun Publikoa eta Hezkuntza sailen laguntzarekin.
6. 2014-2015ean, oinarrizko osasun prestakuntzako ikastaroak egin dira hezkuntza laguntzako espezialistentzat, Hezkuntza Saileko ikastetxeen menpekoentzat, Osasun Publikoa Sailarekin eta Osakidetzako profesionalekin lankidetzan.
7. Oncomed plana online zerbitzu bat da, 2014-2015ean abiarazi zena esperientzia pilotu gisa. Plan honek, plataforma baten bidez, irisgarritasun telematikoa ematen die kimioterapia tratamendu aktiboan dauden pazienteei, sintomak beren etxean maneiatu ahal izateko.
8. Barakaldo-Sestao ESik 2015ean "Ikasgela Gaztea" proiektua jarri du abian. Proiektu horretan aurrez aurreko kontsultak egin ahal dira beharizan afektibo eta sexualei buruz nahiz sexu bidez transmititzen diren gaixotasunen prebentzioari buruz, eta erizaintzako profesionalak ematen diete erantzuna kontsulta horiei.

3. ekimena. Osasun artapenean berdintasunari eustea, genero ikuspegia, kolektiborik ahulenak eta beste autonomia erkidego batzuetako inguru mugakideetako biztanleak aintzakotzat hartuz.

1.15.1 helburua. Pertsonak: osasun sistemaren ardatz nagusia

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko irailean, **Euskal Autonomia Erkidegoak eta Errioxako Autonomia Erkidegoak** osasun arretaren arloko lankidetzat **hitzarmena** sinatu zuten, Arabako Errioxako biztanleek segurtasun handiagoa izateko eta bi autonomia erkidegoen arteko harremanak normalizatzeko, bi erkidegoetako biztanleei osasun zerbitzu egokia emate aldera.

2. 2013ko uztailean, Osasun Sailak sailburuaren **Agindua argitaratu zuen, Osasun Sistema Nazionalean aseguratu edo onuradun izaera ez duten pertsonen osasun asistentzia aitortzeko** (bizileku legala ez duten atzerritarrei). Agindu horren arabera, EAEn urtebetez erroldatuta daudela eta baliabide ekonomikorik ez dutela egiaztatzen duten pertsona guztiei EAEn bakarrik erabili ahal izango den eta osasun prestazio guztiak bermatuko dizkien osasun txartela emango zaie. Gainera, urtebetez erroldatuta ez dauden pertsonen orotariko familia mediku bat esleituko zaie, osasun laguntza bermatu ahal izateko.

3. Pertsonen eskaintzen zaien osasun laguntzaren kalitatea hobetzeko helburuarekin, 2014ko urtarrilaren 8an **Osasunbidearen eta Osakidetzaren arteko hitzarmena** formalizatu zen, horrela Bortzirietako herritarren historia klinikoak partekatuz.

4. **Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Autonomia Erkidegoaren artean lankidetzat hitzarmena** sinatu zen 2015eko urtarrilaren 23an, Nafarroako herri jakin batzuetako lehen mailako arretako medikuen kupoen osasun zerbitzuei dagokien atxikipen historikoari eta Irungo espezialitateen ambulatorioari erantzuteko, funtsean bi erkidegoen arteko mugaldeen bizi diren pertsonen osasun arreta hobea emate aldera.

5. 2015. urtean, gaixotasun endokrino metabolikoen jaioberrientzako baheketak kudeatzeko agindua formalizatu zen Kantabriarekin. Horren bidez, ondoko erkidegoarekin bihotz eta biriken transplanteetan eta biztanle mugakideen arretan dituzten harremanak osatu nahi dira (Villaverde Trutzioz).

6. 2015ean, **Lege Psikiatriako Unitatea hitzartu da Arrasateko Aita Menni** ospitalearekin. Bertan, banakako 10 ohe daude, justiziaren menpe dauden, buruko nahasdura larriak dituzten eta autolesioak edo hirugarrenen aurkako lesioak saihesteko segurtasun neurri altuak behar dituzten pazienteentzat.

7. Pertsonen arreta eskaintzeko zerbitzu pertsonalizatua eta egokitua eskaintzeko asmoz, 2015eko abuztuaren 4an **147/2015 Dekretua** argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun sistemako pertsonen eskubideen eta betebeharren adierazpenari buruzkoa.

4. ekimena. Gaixoen osasun artapena hobetzea, haien ezaugarrien eta tipologiaren arabera eta haien premiei ondoen egokitzen zaien aukeraren alde eginez.

1.15.1 helburua. Pertsonak: osasun sistemaren ardatz nagusia

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. EAEko lau unibertsitate ospitaleetan profesional sare bat garatuko da, horiek gaixotasun banaketan koordinaturik lan egin dezaten, batez ere eragin multiorganikoa dutenetan. Halaber, onartu egin da [Euskal Autonomia Erkidegoko gaixotasun arraroen erregistroan jasota egon behar duten kasuak inskribatzeko izapideak finkatzen dituen agindua](#). 2015ean, Osabide Globalen historia klinikoaren barruan integratutako gaixotasun arraroen erregistroa sartu da Osabide Global izenekoan.

2. Osakidetzaren laguntza bidezko giza ugalketaren unitateek bikoterik gabeko emakumeak edo lesbianak hartzen jarraituko dute, ezin baitira pertsonak berezitu haien sexu orientazioagatik edo familia nukleoagatik.

3. Kanpo desfibriladore automatikoak eta erdiautomatikoak osasun esparrutik kanpoko erabilera publikoko gune jakin batzuetan jartzeko beharra eta horien erabilera arautzen dituen [9/2015 Dekretua](#) onartu da.

4. 2014ko azaroan amaitu da 50-69 urte arteko pertsonen egindako lehen gonbidapena, koloneko minbizia baztertzeko. 586.000 pertsonak hartu dute parte eta % 68,9ko parte hartzea izan da. Abian da arestian aipatutako ezaugarriak dituzten pertsonen egindako gonbidapenaren bigarren itzulia. % 70,7ko parte hartzea egon da. 2015eko lehen seihilekoan, 156.599 pertsona gonbidatu dira Euskal Autonomia Erkidegoan; % 70eko parte hartzeari eutsi zaio eta lesio premalignoen eta hasierako faseetan dauden minbizien antzemate tasa handia izan da. Lortutako parte hartze handiak jartzen gaitu ezarritako programen buruan, bai Osasun Sistema Nazionalari, bai Europa, Kanada eta Australiari dagokienez.

5. Emaileen profilaren aldaketaren aurrean, emaile biziaren eta bizi gurutzatuaren giltzurrunetako transplantea praktikatzea bultzatzen da. [Euskal Autonomia Erkidegoa da emaile bizien giltzurrun transplante gehien egiten dituen bigarren autonomia erkidegoa](#). Halaber, nabarmen areagotzen ari da hezur muinaren donazioa.

6. Zaintza aringarrien talde funtzional bat eratu da, arreta zirkuitu guztiak prozesu bakar batean bateratzeko, ospitaleratze unitatearekin, Arabako unibertsitate ospitaleko Santiagoko egoitzan. Etxeko ospitaleratzearen inplikazioa eta lehen mailako arretaren, gizarte zerbitzuen eta pazientearen inguruaren jabeakuntza sustatu dira, zaintzak batez ere etxean eman daitezten.

7. 2016ko otsailean, Eusko Jaurlaritzak eta Emakundek [Emakumeen genitalen mutilazioa prebenitu eta hautemateko jardunbideen gidaliburua](#) aurkeztu du Euskal Autonomia Erkidegoko osasun sisteman. Argitalpen honek jarduteko irizpideak gomendatzen dizkie emakumeen genitalen mutilazioa gauzatzen den herrialdeetatik datozen pertsonen arreta ematen dieten EAEko profesional sanitario eta soziosanitarioei.

5. ekimena. Herritarren informazio eta arreta pertsonalizatua, osoa eta kalitatezkoa eskaintzea, batik bat pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes eta defentsari dagokionez.

1.15.1 helburua. Pertsonak: osasun sistemaren ardatz nagusia

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014ko uztailan, [Kontsumoko erreklamazio orri](#) eta [kontsumitzaile eta erabiltzaileen kexa, erreklamazio eta salaketak artatzeko prozedurari buruzko uztailaren 1eko 142/2014 Dekretua](#) onartu zen, kontsumoko erreklamazio orriak eta erreklamazio eta salaketak artatzeko prozedura arautzekoa.
2. Jendearen eta [Osakidetzaren](#) arteko harremanak teknologia berrien bidez errazteko prozesuan, "Osasun karpeta" martxan jarri da, jendeak datu klinikoak kontsultatu ahal izateko, Interneten zein sakelako telefonoen bidez, osasun zentrora joan beharrik gabe. Halaber, "Osabide Global" historia kliniko digitalaren sistema hedatu da laguntza arlo eta profesional guztien artean.
3. 2013an zehar, Osasun Sailak herritarrei botikei buruzko informazioa emateko [i-botika](#) zerbitzua abiarazi zuen. Esperientzia hori "2013ko hezkuntza sanitarioaren kategoriako ekimen onena" aukeratu dute. i-botika webgunea kode hauekin jarri da: "HONcode" eta "[Web Médica Acreditada](#)".
4. 2014an, historia klinikoan eta preskripzio farmazeutikoaren moduluan (Presbide) sartzeko aukera eskaini zitzaion lurralde historiko bakoitzeko egoitza bati. Bigarren sei hilekoan, Onkologikoa eta Asunción klinika zentro itunduei historia klinikoan eta preskripzio farmazeutikoaren moduluan sartzeko aukera eskaini ahal izateko lan egin zen. 2015ean, proba pilotuak egin ziren.
5. 2014an, pazienteen jarraipena bultzatu zen **Osasun Kontseiluaren** bidez. Bihotz gutxiegitasuna duten pazienteen epe luzeko jarraipena egiten da, United for Health proiektuaren baitan, baita etxeko ospitaleratzea programaren telefono jarraipena ere Araban. 2015ean, Osasun Kontseilua Carewell proiektuan (pluripatologikoen monitorizazioa) eta Mastermind proiektuan (depresio arina edo neurtua duten pazienteen jarraipena) parte hartzen hasi zen.
6. Era berean, 2014an **Web-Padi Osabiderekin** interkonektatu da, Padi programako hortz azterketa sartuta haur bakoitzaren historia klinikoan. Osakidetzaren arreta pediatrikoan hortzen arloko laguntzaren integrazioa handiagoak profesionalen arteko lankidetzaz erraztuko du, 2013-2020ko osasun planean proposatutako haurren hortzen arloko osasunaren eta estalduraren helburuak lortze aldera.
7. Halaber, [gidaliburu](#) bat prestatu da xehekariei, saltoki handiei eta ostalariei laguntzeko, kontsumitzaileei informazioa ematen alergenoei eta intolerantziak sortzen dituzten elikagaiei buruz.
8. Osabide Globalean **jaioberrien errolda espezifiko** bat gaitu da, eta identifikazio bakarra ematen zaie erditzearen erregistroaren ondoren. 2015eko abenduaz geroztik, [jaiotzak Erregistro Zibilar](#) [telematikoki jakinarazteko zerbitzuaren bidez](#), **Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ospitale publikotan jaiotzen diren haurren gurasoek jaioberrien inskripzioa izapidetu ahalko dute, osasun zentroan bertan.**

6. ekimena. Osasun zerbitzuen eta osasun publikoaren plan estrategiko bat zehaztea eta garatzea, pertsonak ardatz nagusitzat hartuta, sistema osoaren kalitatea, atentzioa eta bideragarritasuna bermatzeko.

1.15.1 helburua. Pertsonak: osasun sistemaren ardatz nagusia

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Kudeaketaren gardentasuna areagotzeko, Osasun Sailak legegintzaldi honetarako dituen ildo estrategikoei buruzko dokumentua argitaratu du, Sailak euskal gizartearekin hartutako konpromiso publikoa baita. Ildo horretan, Osakidetzak 2013 -2016 ekintza ildoen dokumentua egin du, jada argitaratuta dagoena.
2. 2013ko abenduaren 23ko Gobernu Kontseiluan, [2013 -2020 osasun plana](#) onartu zen. Oinarrizko dokumentu hori izango da datozen zazpi urteetarako erreferentzia eta azken helburu hauek ditu: euskaldunen osasuna hobetzea eta egungo zein etorkizuneko osasun premiei erantzutea.
3. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak [arreta soziosanitariorako ildo estrategikoen](#) dokumentua onetsi zuen 2013ko uztailaren 3an, gizarte zerbitzuek eta arreta soziosanitarioak ematen duten zerbitzuan aurrera egiteko. Azken helburua da ekintzak koordinatzea, eraginkorragoak izan daitezen, eta, finean, zerbitzu soziosanitario hobe ematea halakorik behar duten pertsonei.
4. 2013ko abenduan, Osakidetzako [pazientearen 2013-2016 segurtasun estrategia](#) onetsi eta hedatu zen. Bertan, definitutako denbora tartean garatu beharreko ekintza ildoak jasotzen dira, zerbitzuen erakunde bakoitzean eskainitako eta hedatuko diren osasun arretari dagokion segurtasuna hobetzeko.
5. Osasun Sailak abian jarri du **Adingabeak eta alkohola** programa, gaian nahasitako erakunde guztiekin era parte hartzailean egindakoa. 35 ekintza barne hartzen ditu programak. Horiek gauzatzen ari dira komunitate ingurunean, hezkuntza arloan, mendekotasunen arloan, osasun arretaren eremuan, araudiaren esparruan eta sentsibilizazioaren alorrean.

1. ekimena. Artapen integratua bultzatzea, osasun emaitzak hobetzeko helburua izanez eta Erakunde Sanitario Integratuen eredu hedatuz.

1.15.2 helburua. Erronka berrien arabeko erantzuna: kronikotasuna, zahartzaroa eta menpekotasuna.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzaren ustez, egungo asistentzia ereduak bilakaera izan behar du, gizarte gero eta zaharragoari hobeto erantzuteko. Zahartzearen ondorioz, hain zuzen, gaixotasun kronikoen eta mendekotasunaren eragina areagotu egiten da. Testuinguru horretan, **integrazio asistentzialerako proiektu** bat bultzatu dute, erakunde sanitario integratuen (ESI) lurralde osoko sorrera eragingo duena. Horrenbestez, Gipuzkoan dauden 4 ESI horiez gain, beste hiru ESI berri sortu dira: [Barakaldo-Sestao](#), [Bilbo-Basurto](#) eta [Barrualde-Galdakao](#).

2. Era berean, 2014ko abenduan bi ESI eraiki ziren Gipuzkoan: [“Donostialdea”](#) eta [“Tolosaldea”](#) eta beste bi ESI Bizkaian: [“Enkarterri-Ezkerraldea-Gurutzeta”](#) eta [“Uribe”](#).

3. 2015eko abenduan, Arabako unibertsitate ospitaleko zerbitzuen antolakuntza eta Araba eskualdea hartzen dituen ESI eratu zen. Horrela, osasun egituren integrazio prozesua amaituta geratu zen.

4. 2014ko azaroaren 26an, laguntza integratioko jardunbide onen I. jardunaldia egin zen, izenburu honekin: [“Jardunbide onak Euskal Autonomia Erkidegoko arreta integratuan: Profesionalen lankidetzakultura indartzen”](#). Integrazioaren eta profesionalen arteko lankidetzaren arloko jardunbide onenetako batzuen bidez agerian geratu da Osakidetzan orain arte egindako bidea. Bata bestearengatik ikasteko aukera izan da eta itzulerarik ez duen bilakaera egon dela egiaztatu da; izan ere, pixkanaka kultura aldaketa ekarri du, non profesionalak eta kudeatzaileak tartean dauden.

5. 2015eko urrian, [“Integrazioan ikasitako lezioak”](#) jardunaldia ospatu zen. Bertan, eremu honetan estatu mailan nahiz toki mailan egondako esperientzia desberdinak azaldu ziren. 2015eko azaroan, jardunbide onen bigarren jardunaldia ospatu zen: [Jardunbide onak Euskal Autonomia Erkidegoko arreta integratuan: elkarlaneko ikaskuntza sarerantz](#). Bertan, elkarlanean oinarritutako sareak integrazio prozesuak sustatu eta errazten dituen tresna gisa duen garrantzia jorratu zen.

6. **2015ean**, lotura onkologoaren figura ezarri da, eskualde ospitaletarako erreferente gisa, eta, bigarren mailan, lehen mailako arretarako, onkologiako pazienteen diagnostiko, tratamendu eta jarraipeneko zalantza guztiak argitu eta arazo nagusiak ebazteko behar diren koordinazio zirkuituak ezartzeko.

7. Mastermind proiektu europarra abian jarri da, depresioa tratatzeko programa ezartzeko. Hala, elkarlanean oinarritutako bideokonferentzia zerbitzu bat jarri da martxan, familiako medikuak tratatzen dituen depresiodun pazienteei arreta emateko eta buru osasuneko adituekin modu azkarragoan kontaktatzeko.

8. 2015eko ekainean, **Integrasarea** proiektua abiarazi zen. Proiektu horren lehen bertsioak egin dira honako eremu hauetan: pazientearen arreta, kudeaketa eta gobernantza ereduak, paziente kronikoarentzako asistentzia ereduak, arreta soziosanitarioa eta erkidego osasuna.

2. ekimena. Informazio kliniko bateratuaren sistema ezartzen eta indartzen jarraitzea, historia kliniko elebidun bakarra lortzeko.

1.15.2 helburua. Erronka berrien arabera erantzuna: kronikotasuna, zahartzaroa eta menpekotasuna.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Osabide Euskaraz proiektuaren barruan](#), "Osabide global" historia kliniko digitalaren eta "Nahiaren" interfazeak euskarara egokitu dira, Osakidetzako profesionalak euskara erabiltzea errazteko, eta, hala, Osakidetzak erabiltzaileei eskaintzen dien kalitatea eta enpatia hobetzeko, bai eta profesionalen eta pazienteen hizkuntza eskubideak errespetatzeko ere.

2. Euskararen erabilera historia klinikoan normalizatzeari dagokionez, batzorde bat sortu da, egiten diren aurrerapenen jarraipena egin eta dagozkion egokitzapenak egiteko. Haren helburuen artean, pazienteei entregatzen zaien informazioa euskaraz izan beharra gailentzen da. Horren harira, odol eta gernu analisien txosten elebidunak argitaratzen hasi dira 2016ko urtarrilaz geroztik.

3. Urratsak ematen ari dira, apurka-apurka euskara historia klinikoan sartzeko. 2015eko martxoan, historia kliniko elebidunaren batzorde iraunkorra sortu zen, proiektuaren jarraipen egokia egin eta beharrezko jarduerak martxan jartzen direla bultzatzeko. Osakidetzak konpromisoa hartu du, pazienteek historia klinikoko dokumentazioa jasotzen dutenean informazio hori apurka-apurka elebiduna izan dadin.

4. 2014ko abenduaren 3an [hitzarmena sinatu da Mutualiarekin](#); horren bidez, mutua hori gehituko da "Euskaraz bai sano!" kanpainara.

3. ekimena. Lehen artapeneko eta ospitale artapeneko zereginak eta funtzioak birbideratzea, itxarote zerrendako eskuragarritasunean modu zorrotz eta gardenean lan eginez.

1.15.2 helburua. Erronka berrien arabera erantzuna: kronikotasuna, zahartzaroa eta menpekotasuna.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Egindako ekintzei eta itxarote zerrendei buruzko informazioa sei hilean behin emateko **konpromisoa** hartu zen legegintzaldiaren hasieran, gardentasuna areagotze aldera. Hala, itxarote zerrendei buruzko datuak jakitera ematen dira, prentsaurreko batean, sei hilean behin. 2013ko uztaila. 2014ko urtarrila. [2014ko uztaila](#). [2015eko urtarrila](#). [2015eko uztaila](#). [2016ko urtarrila](#).

2. Legebiltzarrean "**Osakidetzako itxarote zerrendak hobetzeko**" jarduketa plana aurkeztu zen, eta bertan, zenbait ekintza neurri jaso ziren; horiek atzerapenak areagotzen dituzten faktoreak aztertzea eta aldatzea xedaturik egongo dira, euskaldun gehienak zain egon behar izan duten prozesuetan. Hobekuntza neurriak aztertu ziren begi lausoan, belauneko protesien, aldakako protesien, barizeen eta pareta abdominalaren prozeduretan. Hartu beharreko neurriak onartu ondoren, 2015eko lehenengo hiletan ezarri ziren Osakidetzako ospitale guztietan.

3. 2015ean, **Osasun karpetatik** itxarote zerrenda kirurgikoa kontsultatzeko aukera sartu zen. Prozedura horiek bederatzi zerbitzutan sartzen dira: kirurgia orokorra; kirurgia baskularra; dermatologia; ginekologia; oftalmologia; otorrinolaringologia; traumatologia; urologia eta kirurgia kardiakoa. (begi lausoak, barizeak, belauneko protesiak, prostatektomiak, koloneko kirurgia, mastektomiak eta balbulopatiaren ziozko ebakuntzak).

4. Begi lausoan, pareta abdominalaren (hernien) eta barizeen itxarote zerrenda kirurgikoetan sartzeko protokoloak dagoeneko amaitu dira. Prozesuak diseinatzeko lanetan espezialitate bakoitzeko zerbitzu buruek parte hartu zuten. Diseinu informatikoa amaituta, 2016. urteko lehen lauhilekoan ezartzen ari da.

4. ekimena. Profesionalei birbideratutako erizaintzako rol berriak zabaltzea, bereziki ospitale loturako profilean eta lehen artapeneko praktika aurreratuetako profilean.

1.15.2 helburua. Erronka berrien arabera erantzuna: kronikotasuna, zahartzarua eta menpekotasuna.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Erizaintzak Osakidetzan eskaintzen duen zerbitzua hobetzeko xedearekin, **loturako erizainen** hedapena egin da ospitaleetan eta gaitasun aurreratuak kudeatzeko erizainena, berriz, lehen mailako arretan. Gaur egun eginkizun horiek modu espezifikoa gauzatzen dituzten lanaldi osoko 59 erizain daude. Hurrengo urteetan ere horiek hedatzen jarraituko da.

2. **Emaginaren eta osasun mentalaren erizaintza espezialitateez** gain, 2013az geroztik **erizaintza geriatrikoko espezialitateko** 2 erizainen prestakuntzari ekin zitzaion. **Matia Fundazioan** egiten da prestakuntza, zentro sanitario egiaztatua delako. Halaber, 2013an **familia eta komunitateko erizaintzako espezialitate**erako plazak eskaini ziren eta, 2014an, 9 erizan hasi dira prestatzen.

3. **Aurrez aurrekoak ez diren erizaintzako bi kontsulta** ezarri dira. Bata, lehen mailako arretakoa, profesionalek Ultzeren eta Zaurien Unitateari kontsultak egiteko, lehen mailako arretan bertan osatua. Bestea, berriz, ospitale arretan, profesionalek Ultzera Torpidoen Erreferentzia Unitateari kontsultak egiteko.

5. ekimena. Gaixoei laguntzea euren gaixotasuna autokudea dezaten eta osasun profesionalei prestakuntza ematea autokudeaketa hori ahalbide dezaten.

1.15.2 helburua. Erronka berrien arabera erantzuna: kronikotasuna, zahartzaroa eta menpekotasuna.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Pertsonen ahalduntze estrategia bat lantzen ari da, horien osasunaren kudeaketari dagokionez; izan ere, norberaren zaintza sustatzea eta erabaki klinikoak partekatzea da helburuetako bat. Era berean, eskura dauden zerbitzuen inguruko informazioa eta erabilera arduratsua hobetu nahi da. [Osasun Eskolaren](#) bitartez, zenbait esku hartze garatzen ari dira, honako hauek, esate baterako: pazienteei aktibazio ikastaroak eskaintzea, [Paziente bizia programaren](#) bitartez.
2. Pazienteek norbere gaixotasunaren autokudeaketa errazteko asmoa duen ekimen honen beste alderdi garrantzitsu bat sanitarioaren prestakuntza estrategia garatzea da, horiei pazienteak aktibatzen lagunduko dieten erremintak eskainiz, honako hauek, esate baterako: osasun hezkuntza, taldeko teknikekin, erabaki partekatuetan oinarritutako metodologiaren, sustapen eta prebentzio jardueren, gomendio laburren eta ohitura osasuntsuen preskripzio bidez.
3. 2015eko martxoaren 9an eta irailaren 16an bi jardunaldi ospatu ziren, izenburu honekin: "Osasuna erkidego ikuspegitik lantzeko sentsibilizazioa". Jardunaldiak Osakidetza zuzendari eta profesionalei zuzenduta egin ziren, erkidego osasunean aritzeko kontzeptuak eta metodologia sakontze aldera, batetik, eta ekimen horrek metodologia hori martxan jarri ahal izateko berezkoa duen prestakuntza programa lantzeko, bestetik.

6. ekimena. Koordinazio soziosanitarioa indartzea beste erakundeetako gizarte ongizateko arloekin.

1.15.2 helburua. Erroka berrien araberrako erantzuna: kronikotasuna, zahartzarora eta menpekotasuna.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Martxan dago "Osabide Global" **historia kliniko digitala** zaharren egoitzetara hedatzeko prozesua, horrela, osasun arloko profesionalen arteko komunikazioa errazteko eta pazientearen segurtasuna bermatzeko, **historia kliniko bakar baten** bitartez. Era berean, 2015ean, Farmazeutikoen Elkargoaren lankidetzarekin, preskripzio medikoan elkarreraginean aritzeko aukera sartu zen adineko egoitzetan gehien erabiltzen diren sistema eragileen barruan.

2. Espazio publiko soziosanitarioa garatzearen aldeko apustua egin da, eta, horren ondorioz, 2014. urtetik **BETION telelaguntzako programa** erabat erabilgarri dago EAEko udalerrri guztietan. Programa honi esker, ohiko gizarte zerbitzuak eskuratzeari gain, aurrez aurrekoak ez diren osasun zerbitzuak ere eskuratu daitezke. Telelaguntza eta Telemonitorizazioko programen barruan, gaur egun **gutxiegitasun kardiakoa jasaten duten pazienteen Telemonitorizazio proiektua** dago abian.

3. **Adineko pertsonetan tratu txar fisikoak eta ekonomikoak antzemateko eta tratatzeko tresnaren** pilotajea egin da, gizartearen eta osasunaren arloko lehen mailako arretaren esparruan. Pilotaje hori amaitu ondoren, 2016an Erakunde Sanitario Integratu (ESI) guztietan ezarriko da, lehen mailako arreta soziosanitarioaren taldeen eskutik.

4. Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzak eta Bilboko Udalak **buruko gaitz larrien ondorioz gerta daitezkeen egoera arriskutsuetan prebentziorako protokoloa** sinatu dute. Agiriaren helburua da koordinaziorako eta lankidetzarako lehendik dauden jardunbide egokiak finkatzea eta zabaltzea, eta, horretarako, komunikazio prozedura prestatu dute erkidegoaren eremuan buruko gaitz larriak antzematen direnerako.

5. Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Autismoaren eta Garapenaren Bestelako Nahaste Orokortuen Elkarteak-**Arazoak hitzarmen** batisinatu zuten, 2014ko abenduan, autismoaren nahasmenak (AEN) dituzten Arabako haurrei eta gazteei eskainitako arreta indartzeko.

6. Bizkaiko Foru Aldundiko Haurrak Babesteko Zerbitzuak garatutako lanaren osagarri gisa, 2016ko urtarriletik aurrera **Adin Txikikoak programa** jarri da martxan. Programa horrek bereziki erreparatzen die babesgabezia egoera larrian edo ezbaierik gabe dauden foru zerbitzuen tutoretza edo zaintzapeko adingabeei.

7. 2016an zehar, **tratamendu intentsiboko programa** jarriko da martxan **Bizkaiko nerabeentzat**. Programa horrek arreta emango die 12 eta 17 urte bitarteko neraberik ahulenei, familia patologia, eskolako deslotura edo/eta gizarte arriskuko edo isolamenduko egoerak bizi badituzte eta beren nortasunaren bilakaera arriskuan egon badaiteke.

8. BetiOn telelaguntza zerbitzu publikoak integrazio prozesuak ezarri ditu SOS Deiak eta Osakidetzako Larrialdiak zerbitzuen informazio sistemen artean. Hala, 2016tik aurrera larrialdietako gertaerekin lotutako datuak elektronikoki trukatu ahalko dira, eta, beraz, kudeaketa denborak hobetu, akatsak murriztu, eta, azken finean, larrialdi egoeren koordinazioa indartuko da.

7. ekimena. Farmazia bulegoak osasun eragiletzat hartzea, prestazio farmazeutikoa eremu soziosanitarioan integratuz, preskripzio farmazeutikoa arrazionalizatuz eta errezeta elektronikoaren ezarpenaren alde eginez.

1.15.2 helburua. Erronka berrien araberako erantzuna: kronikotasuna, zahartzarora eta menpekotasuna.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. **Errezeta elektronikoa edo e-errezeta** ezarri zen Euskadin 2013an. Sistema sendoa, arrunta, segurua eta eraginkorra da. 2016ko urtarrilaren 1az geroztik, estupezaharrentzen errezetak sisteman sartzen hasi dira.
2. 2013ko uztailearen 1ean, gainerako erkidegoek baino urtebete geroago, **koordainketa farmazeutikoa** ezarri zen Euskal Autonomia Erkidegoan. **Mugen eredia** aukeratu zen, herritarrentzat hain kaltegarria ez izateko.
3. 2013ko urriaren 19an, Gobernu Kontseiluak zenbait biztanle talde agindutako mediku tratamenduetara atxikitze bideratutako **laguntzak arautzeko dekretua** onetsi zuen. Berau garatuz, **2013ko abenduaren 23ko sailburuaren agindua** argitaratu zen, laguntzak lortzeko betebeharrak eta prozedura arautzen dituen. Era berean, **sailburuaren 2015eko urtarrilaren 21eko aginduaren** eta **sailburuaren 2015eko abenduaren 10eko aginduaren** bidez, agindutako mediku tratamenduetara atxikitzea errazteko laguntzak deitu ziren, 2014, 2015 eta 2016 ekitaldiei zegokienez.
4. Ordainketa partekatua ez denez neurri egokitzat ez bidezkozat jotzen, 2014ko martxoaren 09an haren **kontrako administrazioarekiko auzi errekurtsioa** jarri zen, uste baitzen ospitaleko arreta ibiltariko botiken gastua partekatu beharra ekitate printzipioaren aurkakoa zela.
5. Praktika arriskutsuak izan dituzten pertsonen **GIBaren testa egitea** errazteko programa betez, 2015ean 53 farmaziak parte hartu dute eta 2015eko abendura arte 19.595 GIBaren test azkar egin dira programaren sei urteetan.
6. EAEko Botikarien Elkargo Ofizialarekin batera, akordio bat lantzen ari da **gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen jarraipen farmakoterapeutikoa** egin ahal izateko. Jarraipen hori estrategia garrantzitsutzat hartzen da medikamentuen erabilera, gaixotasunen bilakaera eta etorkizunean egon daitezkeen konplikazioen prebentzioa hobetzeko.
7. **Papereko mediku errezeta eredu berri bat** ezarri da, zeina errezeta elektronikoaren osagarri izango den, oraindik ere beharrezkoak baita egoera jakin batzuetan.
8. Euskadiko Botikarien Elkargoarekin batera, 2009az geroztik lanean ari da botikak maneiatzeko zailtasunak dituzten, beren etxebizitzetan bizi diren eta etxeko laguntza zerbitzuek artatzen dituzten pertsonen botikak hobeto erabiltzeko programa batean. Farmazia bulegoetan prestatzen zaizkie **dosifikatzeko sistema pertsonalizatuak**. 2014an, 670 pertsonak baliatu zuten hitzarmen hori EAEn eta, 2015ean 758k.

1. ekimena. Herritarren osasunaren jarraipena eta haien gaixotasunen prebentzioa indartzea, biztanle heldu eta nagusiengan arreta jarritz.

1.15.3 helburua. Prebentzio kultura eta eta osasuna sustatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Kolon ondesteko minbiziaren baheketak Euskal Autonomia Erkidegoko xede biztanleriaren % 100 aztertu du. 2014an, [Kolon ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarren programa](#) EAE osora zabaltzeko lehen itzulia amaitu zen. Hautemate tasa % 93koa da, eta % 97ko espezifikotasuna du. Horri parte hartzearen datuak eta prozesuaren kalitatea nahiz emaitzak batuta, programa [nazioartean antolaketa zein emaitza hoberenetakoak dituztenetako bat da](#).

2. “Preskribatu bizimodu osasuntsua” ikerketa proiektuaren baitan tresna informatiko bat garatu da. [“Praktikatu bizimodu osasuntsua”](#) izena du eta pertsonaren ezaugarrietara moldatzen da eta dieta osasungarriari, jarduera fisikoak praktikatzeari eta tabakoa uzteari buruzkoa da.

3. [«Aukeratu jarduera fisikoak. Baztertu sedentarismoa. Zu irabazle!»](#) kanpaina garatu zen 2015ean. Kanpainaren xedea da jarduera fisikoak osasunari ekartzen dizkion onurei buruz kontzientziatzea, jarduera fisikoren bat egiteko motibatzea eta egoneko bizitza saihesteko gomendioak eskaintzea.

4. “Kerik gabeko Euskadi” programari dagokionez, Kerik gabeko eskolak programan eta [tabakoarekiko mendekotasuna galtzeko](#) programan lan egiten jarraitu da.

5. [Sortzetiko gaixotasunak jaioberriengan bahetzeko](#) Aholku Batzordearen gomendio bidez, 2014. urtean 5 gaixotasun berri txertatu ziren haur jaioberrien orpoaren proban. Proba doan eskaintzen zaie EAEn jaio diren biztanle guztiei.

6. [Gida bat argitaratu da adineko pertsonentzako aholkuekin, etxe barruan eta kanpoan erorikoak saihesteko.](#) Gida adineko pertsonak beren osasunaren zaintzan inplikatzeko xedez idatzi da. EAEko hainbat udalerritan egiten ari diren prebentzio tailerren osagarria da.

7. 2014ko maiatzaren 20an, [Mugiment plana](#) jarri zen abian, biztanleriaren artean kirolaren eta jarduera fisikoaren ohitura sustatzeko asmoz. Mugiment planaren baitan, Mugisare estrategia jarduera fisikoko tokiko sareak - udalerrri aktiboak garatzen ari da. Lehenengo fasean, lau sare sortu dira Getxon, Lezon, Ermuan, Vitoria-Gasteizen eta Durangon.

8. 2015. urtean, Lisa proiektua jarri da martxan, haurren eta nerabeen artean obesitatea prebenitzeko.

9. Balorazio geriatriko multidimentsionalaren sistema homogeen bat edukitzeko asmoz, egungo gomendioetan oinarri hartuta, prebentziora eta funtzionaltasunera bideratuta eta lehen mailako arretaren errealitatera egokituta, Adinekoa tratatzeko plana diseinatu da.

10. Adingabekoei eta alkoholari buruzko programa bat egin da, eta horren bidez hainbat jarduera zehaztu dira osasun arlo desberdinetan (lehen mailako arreta - ospitale arreta - osasun mentala - larrialdiak eta osasun aholkua), adingabekoetan alkoholaren kontsumoa diagnostikatzeko, tratatzeko eta prebenitzeko.

2. ekimena. Osasun publikoari beste bultzada bat ematea, eta zaintza sistema integrala abiaraztea.

1.15.3 helburua. Prebentzio kultura eta eta osasuna sustatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. “Politika guztietako osasuna” ikuspegia da [2013-2020 osasun plana](#) bideratzen duen oinarritzako orientazioa. Beste ekimen batzuen artean, “Osasunaren lentea” tresna garatu da, Eusko Jaurlaritzako sailietako plan estrategikoei eta ekimen bereziek osasunean duten eragina eta emaitzak aztertzeko eta balioesteko.

2. [EAEko txertaketen eskuliburu](#) berri bat egiten ari da. Aldaketen artean azpimarratzekoak dira haurdunei kukutxeztularen txertoa gomendatzeari buruzko erabakia eta haurren txerto egutegian aldaketak egotea meningokoko C konjugatuaren eta giza papilomaren birusaren txertaketa pautetan. Era berean, lehen aldiz, heldu osasuntsuaren txerto egutegia aurkeztu da.

3. Biztanleei jakinarazi zaie nola prozesatu eta prestatu behar duten zuzen arraina, anisakigatiko intoxikazioak prebenitzeko, eta, halaber, puxika arrainaren presentziari dagokionez kontuan izan behar diren neurrien berri eman zaie.

4. 2014ko bigarren seihilekoan, EAEn ebola birusaren gaixotasuna tratatzeko prebentzio jarduketa desberdinak egin ziren. Hala, EAEn [ebola](#) birusaren gaixotasunaren (EBG) kasu susmagarrien aurrean zer nola jarduteko prozesua diseinatu zen.

5. [Txikizkako merkataritzan eta jatetxeetan elikagaien informazioari buruzko gida](#) egin da. Dokumentu horren xedea da edozein elikagaitan eta elikagai kateko edozein fasetan alergenoei edo intolerantziak eragiten dituzten substantziei buruzko informazioa ematea eta horiek identifikatzea. Horrez gainera, gidaren helburua da eskatutako araudia interpretatzea eta pertsonen babes maila areagotzea.

6. 2016ko urtarrilean, OMEk, Zika birusaren ziozko infekzio kasuak areagotu direla ikusita, nazioarteko osasun larrialdiko egoera aitortu du. Euskal Autonomia Erkidegoan ez da berez mehatxu larria, ez dagoelako bertan kokatutako gaixotasun horren bektorerik; epe laburrean, hala ere, ezin da baztertu gure inguruan inportatuko kasuak agertzea. Horrenbestez, 2016ko otsailean, [gaixotasun infekziosoen agerraldietarako aholku batzordea](#) sortu zen.

3. ekimena. Erakundeen arteko elkarlana indartzea, osasun fase guztietan hobetzeko.

1.15.3 helburua. Prebentzio kultura eta eta osasuna sustatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko abenduan, [Osasun plana 2013-2020](#) onetsi eta argitaratu zen. Funtsezko erraminta horretan, EAEko administrazioek hurrengo urteetarako dituzten konpromisoak jasotzen dira, horien bizi kalitatea areagotzen jarraitzeko, desberdintasunak murrizteko eta antolakuntzari dagozkion hobekuntzak eragiteko.

2. Osasun publikoaren 2008-2012 txostena, Osasun publikoaren 2013ko txostena, eta Osasun publikoaren 2014ko txostena gauzatu eta argitaratu dira.

3. 2014an bian jarri zen [Adingabeak eta alkohola programa](#), gaian nahasitako erakunde guztiekin era parte hartzailean egindakoa. 2015ean, Icerberg programa egin zen, ikastetxeetan alkoholaren prebentzioa lantzekoa, eta 2016. urtean zehar Alkoholaren dekalogoia hedatuko da Euskal Autonomia Erkidegoan barna, substantzia horren kontsumoa prebenitzeko.

4. 2014. urtean, Ihoberekin eta Udalsarearekin batera gida praktikoa bat prestatu zen hirigintzako tokiko ekimenek osasunean duten eragina aztertzeko: ["Osasun eta hiri garapen jasangarria"](#). Bertan, Osasun publikoak, Ihobek SAK, eta EAEko 14 udaletako ordezkariak sortutako Ekitalde izenekoan landutako gaiak jasotzen eta laburbiltzen dira.

5. 2015ean, osasun arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteei, osasun espezialitateetako irabazi asmorik gabeko erakunde zientifikoei eta osasun arloko profesionalen elkargo ofizialei euren jardunerako eta langileen etengabeko prestakuntzaren antolamendurako eman beharreko laguntzen deialdiak onartu ziren.

6. 2015eko otsailaren 12an, Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak [lankidetzaren hitzarmena](#) sinatu zuten, osasun publikoaren arloan. Hitzarmenaren xedea da osasuna bermatzen eta sustatzen jarraitzea tokiko mailan, osoko eta sektore arteko ikusmoldetik.

7. Eusko Jaurlaritzako arduradunen eta diplomatikoen multzoaren artean Madrilen egiten ari diren bileren esparruan, legealdi honetarako plan eta ekimen estrategikoak ezagutarazteko asmoz, bilera bat egin da ["EAEko osasun politikei"](#) buruz. Bilera horretan, diplomatikoen multzoko kideei 2013-2020 osasun planean jasotako osasun politikak aurkeztu zitzaizkien.

4. ekimena. Drogamenpekotasunaren kontrako borrokan arreta berezia jartzea, betiere EAEko 2011/2015 menpekotasun plangintza osatuz eta drogamenpekotasunen arloko prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzko 18/1998 Legea berrikusiz.

1.15.3 helburua. Prebentzio kultura eta eta osasuna sustatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko abenduaren 9an egindako bileran onartu zuen [Menpekotasunei buruzko lege proiektua](#), Eusko Legebiltzarrari bidaltzeko. Proposamena zabalagoa eta egungo gizartearen premiekin hobeto bat etortzen dena da, eta haren xede nagusia da pertsonen osasuna babestea eta, bereziki, adingabekoen eta gizartean ahulenak diren taldeen osasuna zaintzea. Proiektu hau [Osasun Batzordeari](#) aurkeztu zitzaion 2015eko martxoan eta izapidetzen jarraitzen du [Eusko Legebiltzarrean](#).

2. 2013an, [Euskal Autonomia Erkidegoa eta Drogak 2012](#) aurkeztu zen, bi urtean behin gauzatzen den etxez etxeko inkesta; hark 15 eta 74 urte arteko biztanleek dituzten menpekotasunen eragina ezagutzea du helburu, baita horiek drogekin eta drogekiko menpekotasunarekin lotuta dituzten zenbait alderdiri buruzko pertzepzio bat izatea ere. Azken edizio honetan jokoarekiko eta Internetekiko menpekotasunarekin lotutako galderak txertatu ziren.

3. [Deustuko Drogen Menpekotasuneko Institutuarekin](#) batera lan egin zen, hainbat sinopsio eta jardunaldi egiteko: "Ba al dago sustantziarik gabeko menpekotasunik?", "Alkoholaren kontsumoa gazte eta nerabeen artean", eta "Nerabezaroari beste ikuspuntu batzuetatik heldzea. Arriskuekin bizi: drogak, indarkeria, sexualitatea eta teknologia".

4. 2015eko uztailaren 28an, EAEn lan egiten duten irabazi asmorik gabeko tokiko erakundeei eta elkartei laguntza gisa 2.615.613.- € bideratzen dizkien agindua argitaratu zen, **erkidego prebentzioko programak garatu, proiektuak egin eta arrisku eta kalteak murrizteko, bai eta menpekotasunaren gaian jarrera osasungarriak sustatzeko ere**. Azken hori berrikuntza izan da.

5. 2014ko martxoaren 20an onartu zen [zigarreta elektronikoaren](#) erabilera mugatzeko eta arautzeko agindu bat, osasun zentro, ikastetxe eta EAEko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren bulego eta baliabide publikoetan, garraiobideak barne, ez dadin halakorik erabil.

6. Eguneratu eta hobetu egin da [EAEko drogamenpekotasunei buruzko dokumentazio zentroaren webgunea](#) (Drogomedia), gaur egun tresna gehiago dituen, besteak beste adierazleen datu base garrantzitsu bat.

7. [EAEko menpekotasunen VI. plana 2011-2015](#) delakoaren indarraldia amaituta, 2015eko irailean EAEko menpekotasunen VII. plana egiteko prozesua hasi zen eta 2016ko udaberrian aurkezteko asmoa dago.

5. ekimena. HIESa eta sexu transmisioko infekzioak prebenitzea, ukitutako gizarte eragileekin elkarlanean.

1.15.3 helburua. Prebentzio kultura eta eta osasuna sustatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Etengabe lan egiten da [2015-2018ko GIBari eta sexu transmisioko infekzioei aurre egiteko plan estrategikoaren](#) esparruan; izan ere, EAEn GIBaren infekzio berriak erregistratzen jarraitzen dira (143 kasu 2013an, eta 152 2014an).
2. 2015eko apirilaren 27ko Aginduaren bidez, 300.000 euroko zenbatekoa zuten laguntzak tramitatu ziren GIB/IHESA prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak EAEn egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko erakundeentzat.
3. 2015ean, beste bost farmazia hasi ziren [GIBaren test azkarrak egiteko programa](#) gauzatzen. Horrela, badira 50 farmazia programa honekin elkarlanean.
4. Osakidetzak, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, ikastetxeei eskaini die [“GIB/HIESaren, sexu bidezko transmisioko gaixotasunen eta nahi gabeko haurduntzaren programari”](#) buruzko material pedagogikoa.
5. 2015eko maiatzaren 6tik 8ra, Donostian egin zen HIESari eta sexu transmisioko infekzioei buruzko Estatuko XVII. biltzarra. Osakidetzak aktiboki parte hartu zuen biltzar hori antolatzen, eta lankidetzaz hitzarmena sinatu zen HIESaren Diziplina arteko Espainiako Elkartearekin (SESIDAekin).

1. ekimena. EAEko osasun sistemak gaixoen premiei eta beharriaz egokitzen zaizkien azpiegitura aproposak izango dituela bermatzea.

1.15.4 helburua. Sistemaren iraunkortasuna bermatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko urtarrilean, **Gasteizko Menpekotasunen Tratamendu eta Orientazio Zentroa (MOTZ)** jarri zen martxan, Arabako Unibertsitate Ospitaleko **kanpo kontsulten** eraikina inauguratu zen eta **Gernika-Lumoko Ospitalea hedatu zen**, bertara **lekualdatu zirelarik Osasun Mental eta Errehabilitazio Zerbitzuak**, lehen Gorlizko Ospitalean ematen zirenak, eta Larrialdi Sareko anbulantzia medikalizatuaren oinarria. Halaber, **Larrialdi Zerbitzua** inauguratu zen. Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko **laborategien eraikina** ere inauguratu zen, baita Uribe-Areeta eguneko ospitale berria ere, **Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen** baitan.

2. 2014an, **Gernika-Lumo Ospitaleko bloke kirurgikoa inauguratu zen**, eta **Zornotzako osasun zentro berria eraikitzeko lanak hasi ziren**. **Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Kirurgia Handi Anbulatorioko bloke kirurgikoa** jarri zen abian.

3. 2015ean, **Bilbon Karmelo-Santutxu osasun zentro** berria gaitzeko obrak hasi ziren, **Zumarragako Ospitaleko Kanpo Kontsulten eraikina** (ESI Goierri - Urola Garaia) inauguratu zen eta **Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Bloke Kirurgikoko eta Erreanimazioko lanak** egin ziren. 2015. urtearen amaieran, Bilbon Miribillako osasun zentro berria gaitzeko obrak bukatu ziren. Instalazio berriak jarri dira Bilboko eskualdeko ume eta nerabeentzako Osasun Mentaleko Zentroan eta behaketa eremua jarri zen **Bidasoa Ospitaleko Larrialdietan**.

4. Kontsultategi berriak jarri dira **Okondon, Larrabetzun, Berriatuan, Sukarrietan** eta **Salburua** eta **Zabalganeko** osasun zentroetan, Gasteizen, bai eta **Portugaletako Buenavista osasun zentroan**, Mungiakoan, Getariakoan eta Alonsotegikoan ere.

5. Laguntza hobetzeko asmoz, 2015eko martxoaren 31n inauguratu eta abian jarri ziren Gernikako osasun zentroko lokaletan tratamendu asertibo komunitarioko gailuak eta eguneko ospitale berria; biak ere Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen barneko eskualdekoak dira.

6. 2014an, hiru mamografo digital erosi eta instalatu ziren (bi Areilza doktoareen anbulatorioan, eta bat Galdakao-Usansolo Ospitalean). 2015eko ekainean osatu zen mamografoen digitalizazioa, Areetako anbulatoriorako egindako erosketarekin.

7. 2014ko eta 2015eko ekitaldietan, erresonantzia ekipamenduak erosi ziren **Areilza doktoareen anbulatorioan**, **Donostiako Unibertsitate Ospitalean**, eta **Galdakaoko Ospitalean**, eta ekipo berri bat **Zumarragako Ospitalean**.

8. 2015. urtearen amaieran, **azeleragailu lineal berria** erosi da Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Onkologia Erradioterapikoaren Zerbitzuan eta OTA bat Basurtuko Unibertsitate Ospitalerako eta beste bat **Arabako Unibertsitate Ospitaleko Santiago** egoitzarako. 2016an zehar, beste azeleragailu lineal bat jarriko da Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Onkologia Erradioterapikoaren zerbitzuan eta Angiografia eta Ebakuntza gela berriak jarriko dira Basurtuko Unibertsitate Ospitalean eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean.

2. ekimena. Gaixoaren artapen integralerako sistema bat bultzatzea, bikoiztasunak saihesteko eta sinergiezt baliatzeko, administrazio eta kudeaketa egiturak egokitzuz.

1.15.4 helburua. Sistemaren iraunkortasuna bermatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. **Asistentzia ibilbideak** deiturikoak garatzen ari dira. Bertan ezartzen dira asistentzia maila desberdinetako profesionalen eta paziente zirkuituen arteko kolaborazio mekanismoak (lehen mailako arreta, ospitaleak eta gizarte baliabideak). Honako lau prozesu hauei lehentasuna eman zaie programa kontratuen bitartez: paziente pluripatologikoei, gutxiegitasun kardiakoa duten pazienteei, BGBK duten pazienteei eta paziente diabetikoei.

2. **Gipuzkoan dauden onkologia baliabideen erabilgarritasuna aztertu** da, sinergiak aprobetxatu eta herritarrei kalitate oneko arreta onkologiko integrala eskaintzeko. Horrela, 2014ko urtarriletik aurrera, Donostiako Unibertsitate Ospitaleko eta Onkologikoko onkologia erradioterapikoko eta erradiofisikoko zerbitzuak bateratu ziren. 2015. urtean zehar, bi erakunde sanitario horietako arreta onkologikoko gainerako gailuen integrazio funtzionala egiten jarraitu zen.

3. **Debagoieneko ESIan lokomozio aparatuen laguntza ereduak aldatu** zen, lunbalgia eta osteoporosia bezalako laguntza ibilbideak ezartzearen bidez, lehen mailako arretatik erresonantzia magnetiko nuklearra edo dentsitometria bezalako diagnostiko bitartekoetara sartzearen bidez, eta aurrez aurrekoak ez diren kontsultak eginez arlo horretako hainbat espezialitatekin.

4. **Osasun mentalaren plan integral bat** garatzen ari da Barrualde-Galdakao ESIan eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean. Bi erakundeen koordinazio elementu guztiak aurreikusten ditu komunitate arretarekin (lehen mailakoa eta osasun mentala), akutuen eta azpiakutuen ospitaleratzearekin eta errehabilitazioarekin zein egitura soziosanitarioekin.

5. Antolakuntza eta laguntza integrazioa bultzatzeko, **Integra Sarea (IS) aplikazioa** sortu da. Tresna horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko osasun integrazioko esperientziak erraztea, bizkortzea eta sintonizatzea, nola arlo estrukturalago batetik datozenena (Erakunde Sanitario Integratuak sortzea), hala laguntza klinikoko mailakoak direnena.

6. **Donostiako Unibertsitate Ospitalean**, Onkologia Medikoa atalean, minbiziaren aholku genetikoko aurrez aurrekoa ez den kontsulta bat sortu da. Horren xedea da faktore genetikoekin lotuta minbizia izateko arrisku handia duten familiak edo banakoak identifikatzea, eta horiek aurrea hartzeko edo arriskuak murrizteko estrategia horiek baliatzeko aukera izatea.

3. ekimena. Osasunaren lehen artapena indartzea, osasun arazoak konpontzeko gaitasun handiagoa egon dadin.

1.15.4 helburua. Sistemaren iraunkortasuna bermatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, errezeta elektronikoaren harira, Osabideko profesionalek beraien barne laneko ohitura batekin lotuta egindako kexa orokortu bati erantzun zitzaien, eta **Presbide proiektua** bultzatu zen, preskripzio farmazeutikoaren modulua, SUFRE informatika sistema ordezkatzeko.

2. Lehen mailako arreta sustatzeko eta haren azpiegiturak modernizatzeko, legegintzaldi honetan zehar zenbait **osasun zentro** berri jarri dira martxan, batzuk guztiz berriak eta beste batzuk hobekuntza garrantzitsuak eginda. Hain zuzen, honako hauek: **Okondo**, **Larrabetzu**, Berriatua eta Sukarrietako kontsultategi berriak eta **Salburua** eta Zabalzana osasun zentroak Vitoria-Gasteizen, **Buenavista** Portugaleten, Mungia, **Getaria** eta Alonsotegi.

3. 2014an zehar, pazientearen historia farmakoterapeutiko bakarrari ospitaletako farmazietan jasota egon behar duen mediku informazioa gehitu zitzaien. "Ospitaleko kanpo farmazia anbulatorioa".

4. 2013an, diziplina arteko lantalde bat sortu zen, **paziente kronikoetan atxikidura farmakoterapeutikoen jarraipena errazteko tresna korporatiboak diseinatzeko**. Talde hori aldizka biltzen da egon daitezkeen betetze arazoen berri ematen duten alerta elektronikoaren eta erregistroen abian jartzea zehazteko, batik bat paziente kroniko polimedikatuei dagokienez; horrela, tresna horiek hobetzeko estrategiak martxan jar ditzakete. 2015ean, Osakidetzaren historial farmakoterapeutiko bakarrak idcsalud saria jaso zuen, pazientearen segurtasuneko ekimen onena izategatik.

5. Ospitaleko medikutatik lehen mailako arretako medikuetarako komunikazioa eta interkontsultak errazteko asmoz, aurrez aurrekoa ez den kontsulta egintza sortu da, Kontsulta profesional globala deitua. Tresna horren helburu nagusietako bat da lehen mailako arretako medikuak ahalduntzea, ospitaleko profesionalekin hitzartutako esku hartzeetan.

6. Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESIan abian jarri da Kirubide proiektua; proiektu horren xedea da lehen mailako arretarekin lankidetzaren sustatzea ospitaleratzetik gabeko kirurgia prozedura egin dakiekeen pazienteak hautatzean, informatzean eta jarraitzean, prozesu kirurgikoa hasiz eta amaituz. Halaber, sinpletu eta optimizatu egin da kirurgiaren aurreko jarduera, anestesia eta kirurgia kontsultak koordinatzearen bidez eta pazientearen arabera esku hartzea berehala programatzearen bidez.

7. Uribe ESIan, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESIarekin lankidetzan, ostomiei buruzko aurrez aurrekoaz ez diren kontsultak sortu dira. Debagoienako ESIan 2015ean dermatologia zerbitzuaren aurrez aurrekoa ez den interkontsulta bat ezarri zen, telemedikuntza barne hartuta. Era berean, aurrez aurrekoa ez den kontsulta ezarri da traumatologia eta nefrologia zerbitzuan. Uribe ESIan eta Bilbo-Basurtu ESIko lehen mailako unitateetan teledermatologia kontsulta ezarri da. Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko dermatologia zerbitzuak 72 ordutan erantzuna emateko konpromisoa dauka. 2015ean, teledermaren irudia sartu da historia klinikoan.

4. ekimena. Osasun laguntza iraunkorra bermatzea, metodoak, baliabideak eta bitartekoak optimizatuz, sistemari eutsiko zaiola ahalbidetzeko.

1.15.4 helburua. Sistemaren iraunkortasuna bermatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. CRM multimedia plataforma garatzen jarraitzen da, honelako kanpainak garatu ahal izateko: bularreko minbizia goiz antzematea, gripearen 2013ko eta 2014ko kanpainak, edo telemedikuntzako zenbait proiektu. Azken horien artean daude: **BGBK arloko proiektua (Telepoc)**, **Kardiologiako telemedikuntza proiektua**, gutxiiegitasun kardiakoko pazienteen alten jarraipenarekin, eta, azkenik, gutxiiegitasun kardiakoa duten pazienteen alten telemonitorizazioa **U4H Europako Proiektuaren** (United For Health) baitan.

2. Osakidetzan, **“aurrez aurrekoak ez diren kontsultak”** ari dira bultzatzen, bai lehen mailako arretan - 2013an egindako kontsulta guztien % 18 modalitate horretan egin zen-, bai lehen mailako arretaren eta arreta espezializatuaren arteko kontsultetan, historia kliniko digitalaren barruan ere funtzionalitate hori garatu delako. Helburua da arreta erraztea herritarrei, beharrezkoak ez diren kontsultak saihestuta. 2015ean, telefono bidezko kontsultak lehen mailako arretan egindako kontsulta guztien % 20 izan ziren.

3. **"Osabide Global" historia kliniko digitala zaharren egoitzetara** hedatzea, horrela, osasun arloko profesionalen arteko komunikazioa errazteko eta pazientearen segurtasuna bermatzeko, historia kliniko bakar baten bidez.

4. **2014-2016ko Osarean plan zuzendaria** garatu da. Osarean Osakidetzaren zeharkako programa bat da, eta euskal osasun publikoarekin herritarren aurrez aurrekoak ez diren harremanen zerbitzuen kartera garatzen du,. Xedea da Osakidetzako aurrez aurreko laguntza ereduarekin erabat integratuta dagoen egitura bihurtzea, gainerako profesionalekin eta eragileekin lerrokatuta. Sistema eraldatzeko eta hobetzeko xedea du, aurrez aurrekoak ez diren harremanen erreferentziako eredu baten bidez. Pazienteen, herritarren eta osasun arloko profesionalen premiak izango ditu ardatz eta erantzukidetasunaren eta norberaren zaintzaren kultura sustatuko du.

5. **Osakidetzaren etxeko telemonitorizazio** estrategiaren baitan, BGBK duten pazienteen arretarako zerbitzu korporatiboa hedatzen ari da. Telemonitorizazioko zerbitzu teknologikoak telelaguntza zentralak eskaintzen ditu beti, betiOn zerbitzuarekin partekatuz historia kliniko elektronikorekin konektatuta dagoen azpiegitura.

6. **Telegutxiiegitasun kardiakoa** ezartzearen bidez, Bilbo-Basurto ESiko kardiologia zerbitzutik sartzen dira aldizka zerbitzu hori balia dezaketen pazienteak.

7. Eskualdeko (Aita-Menni eta San Juan de Dios ospitaleak) erakunde psikiatrikoekin lanean ari gara, Debagoieneko ESlan **ospitaleratutako paziente psikiatrikoak maneiatzeko protokolo bat** prestatzeko, baita suizidioaren prebentzioa maneiatzeko ere. Bestalde, Ospitalez Kanpoko Osasun Mentala erakundearekin lanean ari gara, suizidioari aurrea hartzeko larrialdietan.

8. 2014an, abian jarri zen **Donostialdeako ESlan Mapac programa** (asistentzia jarduna eta jardun kliniko hobeto egokitzeko proiektua); proiektu horren xedea da onura klinikoak ekartzen ez dituzten prestazioak antzematea, eta, horrela, laguntza kalitate hobea lortzea, baliabideak zentzuz erabiliz.

5. ekimena. Osasun sistemaren kalitatea handitzea, gaixoei ematen zaien zerbitzua hobetzeko, bereziki pazientearen segurtasun klinikoaren gaian arreta jarritz.

1.15.4 helburua. Sistemaren iraunkortasuna bermatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013. urtean, [Pazientearen segurtasunerako 2013-2016 plana](#) egin zen, Osakidetzaen zerbitzuetara joaten diren pazienteei eskaintzen zaien kalitatea eta segurtasuna hobetzeko, eta ahal den neurrian, pertsonen segurtasunaren aurkako errore eta zirkunstantzia oro saihesteko. Plan horren helburua da Osakidetzaen esparru horretan jada egiten den lana berrantolatzea, eta jardunbide onak bateratzea.

2. Erizaintzako zaintzen segurtasunean jardunbide egokiak zabaltzeko zehaztutako ekintza ildoaren esparruan, ekimen bat zehaztu da **presioagatiko ultierra arriskuaren prebentzioaren eta balorazioaren kudeaketa hobetzeko** laguntza esparru guztietan.

3. Osasun laguntzarekin lotutako infekzioen eremuan ospitale arreta eskaintzen duten erakundeek **infekzio nosokomialaren zaintza, prebentzio eta kontrol planak** ebaluatu dira. Era berean, **gernu kateterra erabiltzearekin lotutako gernu traktuko infekzioak murrizteko**, gernu kateterretarako jarraibideen zerrenda adostu bat ezarriko da erakunde guztientzat.

4. Erradiazio ionizatzailea erabiltzea inplikatzeko proba diagnostikoen preskripzioa optimizatzeko, **sentsibilizazio saioak gauzatu dira biztanleria pediatrikoan OTAren preskripzioaren egokitasunari eta inplikazioei buruz**. Gainera, **historia kliniko elektronikoaren historia dosimetroari proba berriak** (mamografiak) gehitu zaizkio, eta erradiologia interbentzionista txertatzeko betebeharrak ezarri dira.

5. [Debagoieneko ESla](#) pazientearen segurtasuna hobetzeko ikuspuntu batean murgildu da, Joint Commission International batzordearen egiaztapenean oinarrituta. Estandarrek bereziki nabarmentzen dituzte prozesu klinikoetan eta laguntza prozesuetan pazientearen segurtasuna eta arriskuak murriztea ardatz duten edukiak. Pazientearen arretaren kalitatea, eraginkortasuna eta jardunbide onenak ebaluatzen ditu laguntza prozesuan.

6. Erditze-erdiberriaren laguntza prozesurako zehaztutako ildoaren esparruan, diziplina askotako hainbat talde lanean ari dira 2014az geroztik ildo hori osatzen duten hiru azpiprozesuetan protokoloak adosten eta ezartzen. Lan horren emaitza da [Jaioberrien segurtasun klinikoaren protokoloa](#).

7. Pazienteak zalantzarik gabe identifikatzeko zehaztutako ekintza ildoaren esparruan, ekimen bat garatu da informazio klinikoko sistemen erabilerekin lotutako identifikazio akatsak murrizteko.

8. 2015ean, Donostialdea ESIn abian jarri zen antimikrobianoen erabilera optimizatzeko programa bat (PROA). Programa horren xede nagusia da antimikrobianoen preskripzioaren kalitatea hobetzea eta pazienteengan emaitza klinikoak hobetzea; gainera, helburua da ahal bezain eragin ekologiko txikiena izatea eta eraginkortasunez jardutea. Halaber, "botiken erabilera zuzentzea" lan egin da, eta polimedikatutako 80 urtetik gorako pazienteengan jarri da arreta berezia.

6. ekimena. Osasun sistemaren gobernantza eredu berria ezartzea, zenbait alderdi indartuz, esate baterako herritarren partaidetza eta gardentasuna.

1.15.4 helburua. Sistemaren iraunkortasuna bermatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdiaren lehen zatian, **herritarren eta erakundeen partaidetza prozesu** baten artikulazioari buruzko hausnarketa egin zen osasun arloan. Hainbat alderditan dauden partaidetza mekanismoak identifikatu eta aztertu ziren, eta jarduketa plan bat egin zen. Azken hori 2014ko bigarren seihilekotik aurrera ezarri zen.

2. Lankidetzan aritu gara "**Demokraziari eta herritarren parte hartzeari buruzko liburu zurian**". Liburu horrek eranskin bat du, **Osasun Sistema Publikoan herritarren parte hartzeari buruzkoa**. Lankidetzan jarraitzen dugu prozesu parte hartzaileak ebaluatzeko gida bat garatzeko.

3. 2013. urtearen erdialdeaz geroztik, Sailean Hirugarren Sektoreko Erakundeen Batzorde Estrategikoaren osoko bilkurak egiten ari dira sei hilez behin; hain zuzen, batzorde hori pazienteen elkarteek, koordinatzaile soziosanitarioak, Osasun Sailak eta Osakidetzak osatzen dute.

4. 2015eko ekainean eta uztailan, "Euskal Osasun Sistemaren osasun arloko partaidetza mekanismoen mapa" osatzeko asmoz, elkarrizketak egin ziren eta galdetegiak bidali zitzaizkion Osakidetzako zerbitzuen erakunde bakoitzari, eta tokian tokiko mailan garatzen ari diren eta herritarren parte hartzearekin lotuta dauden ekimenei buruzko galderak egin zitzaizkien.

5. Osasun arloan herritarren parte hartzeari buruzko gogoetaren baitan, kontraste taldeen eta lantaldeen dinamika bat sortu da osasunaren sektoreko interes taldeetatik datozen pertsonekin. Dinamika horren xedeetako bat da, besteak beste, 2016tik aurrera garatzea osasun arloan herritarren parte hartzea hobetzeari buruzko jarduketa plan berrituaren proposamena.

6. **Osakidetzako zerbitzu erakundearen egiturari buruzko dekretua** egiten ari da. Dekretu horrek aurreikusten du gizarte partaidetzako batzorde bat egitea; batzorde hori udalen eta herritarren ordezkariak osatuko dute, eta ESlen Kudeaketako Zuzendaritza aholkatzeko eta parte hartzeko funtzioak izango ditu.

7. 2016ko lehen hiruhilekoan, Donostian "world cafe" erako jardunaldi bat egingo da, eta, bertan, osasunaren gaineko interes taldeetatik datozen 150 pertsonari egingo zaie dei, helburu hauek betetzeko asmoz:

- herritarrek osasunaren arloan duten parte hartzea sustatzeko ekimena ikusgarri bihurtzea.
- herritarrek osasunean arloan duten parte hartzeari buruz komunikatzea, prestatzea eta sentsibilizatzea.
- Euskal Osasun Sistemaren herritarrek osasunaren arloan duten parte hartzearekin lotuta interesgarriak diren hiru esperientzia aurkeztea.

7. ekimena. Euskal Osasun Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eraginkortasun politikak garatzea.

1.15.4 helburua. Sistemaren iraunkortasuna bermatzea.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, [osasun produktuen fabrikatzaileei funtzionamendu lizentziak emateko baldintzei eta prozedurari buruzko 141/2013 Dekretua](#) ezartzeko lan egin zen eta Euskal Autonomia Erkidegoan Baimendutako Osasun Produktuen Establezimenduen Erregistro Ofiziala sortu zen. Erregistroaren xedea da osasun produktuak neurrira egiten dituzten establezimendu guztiak inskribatuta edukitzea; hala nola, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan osasun produktuak egiten diharduten establezimendu guztiak inskribatuta egotea. 2015. urtearen amaierarako, abian jarri zen osasun produktuen erregistro hori.

2. 2014an eta 2015ean zehar, **zentro soziosanitarioetako farmazia prestazioen araudia** landu da, EAEko zentro soziosanitarioetan farmazia zerbitzuen eta medikamentuen gordailuen erregulazioa zehaztuko duen araudia garatzeko. Gaur egun, dekretu arautzailea izapidetzeari ekin zaio.

3. **Osasun arloko finantzazio eta kontratazio eredia** berrikusi zen, eta, beraz, esparru kontzeptual berri bat garatu zen; hark adierazle berrien eta ebaluazio ikuspegi baten definizioa hartzen du barne, osasun kontratazioaren oinarri gisa jarduteko. Eredu horren ebaluazioa arrakastatsua izan da eta sistema horrekin jarraitzen da programa kontratuetan.

4. **Osakidetzako Laborategien plan gidaria** betez, 2014an eta 2015eko lehen seihilekoan Osakidetzako laborategien arteko proba deribazioen zirkuitua finkatu zen. Genetikako zerbitzuen zorroa ezarri zen eta proba berrien optimizazioa gauzatu zen.

5. 2013. urtean zehar, **Osakidetzako laborategien plan gidariko hamar ildo estrategiko** garatu ziren; horrela, jarduketa zehatzak gauzatu ziren zenbait esparrutan, hala nola, zerbitzu zorroari, informazio sistemai, transfusio prozesuari, erosketa kudeaketari, funtzio tiroideko proben erabilera gomendioei, eskaera elektronikoaren ezarpen orokorrari eta abarrei dagokienez, azterketa klinikoen laborategien esparruan nahiz anatomia patologikoko esparruan.

6. [EAEk lankidetzak hitzarmen bat sinatu behar du Osasun eta Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarekin eta Red.es enpresa erakunde publikoarekin](#), hiru administrazioek Osasun Sistema Nazionalaren (OSN) barruan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sendotzeko ekintzak gara ditzaten, hala aukera izango baita EAEko eta OSNko erabiltzaileen informazioa eta identifikazioa elkarri emateko.

7. Osakidetzako Erakunde Sanitario Integratuen kontratu programen finantzaketan, finantziario atzikor bateranzko ereduaren alde egiten ari da. Gipuzkoako kontratu programek eredu atzikor berri hori 2015ean sinatu dute, emaitzak baliozkotzeko eta hurrengo urteetan gainerako ESletara zabaldu ahal izateko xedearekin. 2016an, eredu hau Bilbo-Basarto ESira zabalduko da.

1. ekimena. Osasun arloko profesionalen partaidetza eta lidergoa handiagotzea, betiere sistema eraberritzeko eta hari eusteko giltzarri gisa.

1.15.5 helburua. Profesionalen protagonismoa eta inplikazioa.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. "Lidergorako gaitasun eredu bat" garatu da eta baliozkotze prozesuan dago, lidergo mota bat definitzen laguntzeko eta prestakuntza bide bat ezartzeko, taldeak eta pertsonak kudeatzeko gai izango diren liderrak indartzeko, partaidetza eta erantzukidetasun ereduak oinarri hartuta.

2. 2016an zehar, ereduak ezartzeko lanei ekingo zaie, eta, hala eskatzen duten erakundeetan, zuzendaritza taldeen autoebaluazioarekin jarraituko da. Bestetik, maila guztietan (ikuskariak...) lidergo estiloa aztertuko da, erakundearen "bikaintasunezko lidergo profila" identifikatzeko asmoz.

3. 2014ko urtarrilaren 30ean, [Giza baliabideen antolamendurako 2014-2016 plana onetsi zen Osakidetzarentzat](#), betiere Osakidetzaren eta EAEko Medikuen Sindikatuaren arteko adostasuna lortu ostean. Bertan, profesionalen erretiroarekin, belaunaldi arteko errelebuarekin eta plantillen planifikazioarekin lotutako gaiak arautzen dira, besteak beste.

4. Osakidetzaren bere giza baliabideen plangintza hobetzen ari da, maila globalean langileen garapenari dagozkion aldizkako txostenak zehaztuz eta zerbitzuak antolatuz, eta azken horiekin beren langileen egoera aztertzen ari da. Azterketaren emaitza gisa, [enplegua bermatzeko plana eta 2014ko, 2015eko eta 2016ko enplegu eskaintza](#) aurkeztu dira. Era berean, erakundearen eta profesionalen arloko premiak aztertzen ari dira, eta premia horien arabera **lanpostu funtzionalak egokitzeko azterlan proposamena** egin da.

5. Aldi baterako kontratazioaren atalean, 2015eko lehen lauhilekoan 2011ko kontratazio zerrenden eguneraketa argitaratu zen, eta, 2015eko urtarrilean, 2011ko lan eskaintza publikoaren (LPE) ondoriozko kontratazio zerrendak egiteko inskripzio epea ireki zen, bai eta aldi baterako kontratazio zerrendak handitu beharra duten bost kategorien kontrataziorako ere .

6. **Lan eskaintza publikoa 2014-15:** 2015eko otsailaren 23an, Osakidetzaren LPEren erabakia hartu zen, 2015. urterako. 2016an zehar, lan eskaintza horri dagokion lehiaketa fasea garatzeko asmoa dago eta, era berean, 2016ko lan eskaintza publikoaren deialdia ateratzea espero da.

7. Era berean, 2016. urtean zehar 2016ko lekualdaketen lehiaketa deitzeko eta ebazteko asmoa dago, 2014-15eko lan eskaintza publikoan deitutako kategorien barruan.

2. ekimena. Karrera profesionala garatzea etengabeko prestakuntza ahalbidetuz, kualifikazio profesional egokia bermatzeko helburuarekin.

1.15.5 helburua. Profesionalen protagonismoa eta inplikazioa.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. "Prestakuntza ibilbideen" definizioan oinarritutako gaikuntza eredu estrategiko berri bat zehaztu da. 2014an eta 2015ean zehar, prestakuntza ibilbideen ereduaren pilotajea egin da bost ospitaleratze unitatetan, eta prestakuntza ibilbide hori hedatzeko lanak hasi dira.

2. 2015eko ekainaren 30ean, langileen prestakuntza jarraiturako eta birziklatze profesionalerako ikasketak egiteko laguntzak emateko deialdia egin zen. Izan ere, ezagutzak eguneratzea funtsezko tresna da pertsonen zerbitzurako eta Osakidetzak ematen duen zerbitzurako. 2013an, 2014an eta 2015ean, 90.000 euro bideratu dira kontzeptu horretan, ekitaldi bakoitzean.

3. Ildo beretik, etengabeko prestakuntzaren eta ezagutzak zabaltzearen alde egiteko, 2015. urtean osasun alorreko profesionalak prestatzeko **bekak eta laguntzak** emateko deialdia egin zen, eta laguntzaren zenbatekoa 190.869 €-koa izan zen guztira. 2013. eta 2014. urteetan, hurrenez hurren, 186.304 euroko eta 190.869 euroko zenbatekoak eskaini ziren kontzeptu horretan, diru laguntza gisa.

4. Profesional guztiek prestakuntzarako aukera izan dezaten, **on-line prestakuntza eskaintza** ari gara handitzen, **LMS-Learning (Jakinsarea) plataforma** garatuta besteak beste. Horretarako, proiektu pilotua hedatzen ari da eta ezarpen globala 2016ko maiatzetik aurrera gauzatuko da.

5. 2014. urtean zehar, **Kudeaketa Sanitarioko master** berria sortzea bultzatu da, Deustuko Unibertsitatearekin batera. Prestakuntza programa horren helburua osasun publikoko erakundeak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatu ahal izango dituzten eta osasun sektorearen barruan eraldaketa prozesuen buru izan ahalko diren kualifikazio altuko kudeatzaileak trebatzea da. Kudeaketa Sanitarioko masterraren bigarren edizioa 2015eko irailean hasi zen.

6. 2013ko uztailaren 18ko akordioaren bidez, **Osakidetzako Administrazio Kontseiluak zuzendaritza karguen ordainsari sistema berri bat** zehaztu zuen. Sistema horretan, batetik, zuzendaritza egiturak murriztu ziren, eta, bestetik, ordainsari eredu berri bat ezarri zen, gardentasunean eta kudeaketa erantzukizunean oinarrituta. Hortaz, ez du oinarritzat pizgarriak jasotzea.

3. ekimena. Erizaintzako profesionalen autonomia bultzatzea eta sustatzea.

1.15.5 helburua. Profesionalen protagonismoa eta inplikazioa.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Osakidetzak **profesional anitzeko hiru ikaskuntza unitateren egiaztapena** lortzeko lan egin du, bat lurralde historiko bakoitzean; bertan, familiako eta komunitateko erizaintzan espezializatutako erizainak prestatuko dira. Horien lehen promozioa 2014ko maiatza amaiera aldera hasi zen. Guztira 9 erizain hasi ziren prestakuntzarekin; 4 Bizkaian, 3 Gipuzkoan eta 2 Araban.

2. 2014. urtean zehar, **Psiko-hezkuntzako esku-hartze taldeak** garatu ziren, zeina lehen mailako arretako erizaintzak eramango duen aurrera, depresio gertaera arinak tratatzeko, [BTS Osasun Mentalaren eta Lehen Mailako Arretaren](#) arteko elkarlanean.

3. Era berean, 2014an "[Osanaia: Erizaintzako zainketen kudeaketa](#)" tresna informatikoa ezarri zen historia kliniko digitalaren baitan, erakunde sanitario integratu guztietan.

4. 2014ko maiatzean, "**familia eta komunitate arloko erizain espezializatuak**" prestatzeko bigarren sustapena hasi zen.

5. Lantalde bat eratu da **Erizaintza pediatriakoa eta Lan arloko erizaintza espezialitateetako askotariko profesionalen irakaskuntza unitateak** sortzeko. Irakaskuntza unitateen egiaztapena 2014ko azaroan eskatu zen.

6. Lau **gomendio gida** sortu dira ebidentzietan oinarrituta, **presioko ultzerak** zaintzeko eta prebenitzeko, **erorketak prebenitzeko**, **kateter periferiko benosen** zaintzarako eta mantentze lanetarako, eta **amatasun prestakuntzarako**, EAE osoan.

7. Martxan dago **Erizaintza, mugikortasuna ohean ondoan** izeneko proiektua. Aplikazioak garatu dira tablet arinetarako, eguneroko asistentziaren praktikan segurtasun kliniko sartzeko, benetako denboran funtzionatzen duen erregistro bakarra edukitzeko, ohe ondoko informazioa eskuratu ahal izateko, eta, hala, erabakiak hartzea errazteko. Proiektu hau bat dator Osakidetzako pazientearen segurtasun estrategiarekin eta profesional gehiagoren artean (laguntzaileak, zeladoreak, fakultatiboek...) eta beste arreta gune batzuetan hedatu daiteke. (Ebakuntzak, etxez etxeko arreta)

4. ekimena. Osasun arloko langileen lan baldintzak, osasuna eta lan segurtasuna hobetzea, modu horretan haien jarduera eraginkorragoa izatea ahalbidetzeko asmoz.

1.15.5 helburua. Profesionalen protagonismoa eta inplikazioa.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdiaren lehen zatian, **lana eta familia bateragarri egiteko egoera aztertu** zen, baimen eta lizentzien aplikazioari dagokionez nahiz zerbitzu erakundeen barneko eta kanpoko mugikortasun irizpideak berrikusiz. 2015eko ekainaren 10ean onartu zen **akordio bat, barneko, behin-behineko eta behin betiko mugikortasunaren bidez lanpostuen hornikuntzarako irizpide orokorrak onartzen dituen erakunde publikoko zerbitzu erakunde guztietan.**

2. Osakidetza zenbait ekimen gauzatzen ari da bere zerbitzu erakundeetan **lan arriskuen prebentziarako kudeaketa sistemaren** ezarpenean aurrera egin ahal izateko, betiere OHSAS18001:2007 estandarra etengabe hobetzeko tresna gisa erabiliz. Osakidetzaren lan arriskuen prebentziarako kudeaketa sistemaren OHSASeko barne auditoriak egin dira, zerbitzu erakundeen % 80an.

3. **Osakidetzako profesionalei egindako erasoak murrizteko ekintzak** ezartze aldera, honako neurri hauek hartu dira:

- Arrisku psikosozialen ebaluazioan erasoei buruzko galdeketa zehatz bat txertatzea.
- Langile ordezkariari informazioa helaraztea, Prebentzio Korporatiboaren Batzordearen esparruan.
- Osakidetzako profesionalei egindako erasoei buruzko behatokia abian jartzea.
- Laneko jardunbide onen eskuliburua ezartzea.
- Prestakuntza zehatza – Erabiltzaileentzako komunikazio tresnak.
- Sentsibilizazio eta informazio kanpainak.
- "Laneko indarkeria" protokoloa aztertzea eta eguneratzea.
- Eraso gertaerean agertu ohi diren berehalako kausak berrikustea.
- Erasoak aztertze irizpideak berritzea.
- Osakidetzako zerbitzu erakundeetan arrisku psikosozialaren balorazioa egitea, ezarritako metodologiaren eta 2015-2016ko plangintzaren arabera.

5. ekimena. Osasun sisteman euskararen normalizazioan aurrera egitea, gure osasun sistemaren profesionalen euskalduntze prozesua sustatuz eta euskaraz ematen den artapena gaixoari ematen zaion zerbitzu gisa ulertuz.

1.15.5 helburua. Profesionalen protagonismoa eta inplikazioa.

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Jaurilaritzak Osakidetzaen euskalduntzea bultzatzeko konpromisoa hartu zuen, kalitatea eta pazientearekiko enpatia hobetzeko eta EAEko hizkuntza eskubideak errespetatzeko. Hori betetzeko, 2013ko abenduaren 13an [Euskararen erabileraren normalkuntzarako 2. plana 2013-2019](#) delakoa onetsi zuen, [Osakidetzaen I. euskara plana 2005-2012](#) aztertu eta ebaluatu ondoren.

2. Zerbitzu erakundeak **euskararen erabilera sustatzeko dagozkion programak** abian jartzen murgilduta daude, eta horietan, normalizazio planaren indarraldirako neurriak txertatu dituzte, erakunde euskara nahitaez jakin beharreko lanpostuak identifikatzeaz eta bi urtez behin gauzatzen den prestakuntza programa euskaraz aplikatzeaz gain.

3. Era berean, II. plana onetsi ostean, "[Euskara Planaren Jarraipen Batzordea](#)" osatu da informazio sistematan egiten den euskararen erabileraren eta presentziaren jarraipena egiteko; horiek, beste neurri batzuekin batera, Batzordearen aldetik sustatzen ari dira, izaera korporatiboarekin.

4. II. Euskara plana modu egokian abian jartzeko, [kontratu programek](#) hainbat helburu txertatu dituzte "Euskara planaren hedapena" izenburuarekin, "zentralitatea pazientean" dimentsioaren barnean.

5. Euskararen erabileraren normalizaziorako II. planak proposatzen dituen helburu nabarmenen artean azpimarratzekoa da % 40tik gorako herritar elebidunei laguntzen dieten erakundeek planifikazioaren lehen hiru urteetan (2013-2016) Bikain ziurtagiriaren erdi mailako ziurtagiria lortzeko gutxieneko helburua; % 40tik beherako herritar elebidunei laguntza eskaintzen dieten erakundeek, aldiz, erdi mailako ziurtagiri hori planifikazio epea amaitu aurretik (2016-2019) lortzea proposatu dute.

6. Hainbat zerbitzu erakundetan zirkuitu elebidunak ezarri dira: arreta espezializatutako eskaintza euskaraz. Bi ospitaletan (Mendaron eta Zumarragan) fakultatibo espezialista elebidunak esleitzeko kodifikazio bereziak garatzen ari dira. Era berean, Donostiako Unibertsitate Ospitalean zirkuitu bat gaitu da, alta txostena euskaraz nahi duten pazienteek dokumentu hori 7 eguneko epean jaso ahal izan dezaten.

1. ekimena. Gaixoaren onurako berrikuntza garatzea, agente publikoekin nahiz pribatuekin eraginkortasunez lan eginez eta berrikuntzaren emaitzak sisteman bertan aplikatuz.

1.15.6 helburua. Ikerketa eta berrikuntza indartzea

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Osasunaren esparruan berrikuntza eta enpresa garapena bultzatzeko ekinbidea ezarri da, [Innosasun](#) deritzona, eragile publikoekin eta pribatuekin elkarlan eraginkorra eta aliantzak finkatzeko helburuari jarraikiz. Honakoak dira lantzen ari diren eremuak: diagnostikoa, errehabilitazioa, hainbat aplikazioarekin softwarearen garapena, ortoprotesia, sistema sanitarioak eta inguru soziosanitarioko ekipamenduak.

2. Osasun sistemako I+G+b jarduerak ustiatu daitezkeen emaitzak ekarri dituzte. 2015ean zehar, **nazioarteko patente bat** (PCT) handitzeaz gainera, **bost patente berri** aurkeztu ziren, bost asmakuntza estaltzen zituztenak; **software garapen baten** marka **erregistratu zen**; **lau asmakuntzaren lau patentagarritasun analisi** zenbatu ziren, eta **jabetza intelektualaren** hiru erregistro daude prestakuntza fasean.

3. 2015ean, biozientziak-osasuna izeneko RIS3 arloa hedatzeko lanak egin ziren. Biozientziak-osasuna eremua aurkeztu zen bi urtez behin egiten den EAEko lehiakortasunaren jardunaldian, [RIS3 biozientziak-osasuna pilotaje taldea](#) eratu zen eta hasierako lau lantalde identifikatu ziren, eremu hori garatzeko: Big Data, medikuntza pertsonalizatua, gaixotasun arraroak eta IKT ekipamenduak.

4. 2013an, EAE zahartze aktiboaren eta osasuntsuaren esparruko Reference Site izendatu zuten (EIP-AHA Europa mailako ekimena). Ordutik hona, osasun arloaren jarduerak jardunbide egoki bihurtu dira, eta webean eta nazioarteko foroetan azaltzen ditu. Gainera, Reference Site Collaborative Network lankidetzaren sarea eratu du, Europa mailan punta-puntako taldea dena.

5. **Ipar Irlandak eta Euskal Autonomia Erkidegoak** elkarlanean dihardute osasun politiketan berrikuntza eta garapena lortzeko: **Bien artean elkar ulertzeko memorandum bat** garatzeko lan egiten ari da. Horren xedea da dagoeneko badagoen lankidetzaren bizi sakontzea. Lankidetzaren ari gara dagoeneko Europako proiektuetan eta Reference Sites lankidetzaren sarea, baita EuroBioforum delakoan ere. Hain zuzen, azken horrek lankidetzaren bultzatzen du ikerketa biomedikoaren arloan ere. Halaber, **EAEren eta Danimarkaren arteko lankidetzaren** sakondu egin da; hain zuzen, Europako hainbat proiektutan kideak dira biak.

6. 2014ko abenduaren 17an, [Akitaniak eta Euskal Autonomia Erkidegoak elkar ulertzeko memorandum bat sinatu zuten osasun arloko ikerketaren eta berrikuntzaren esparruko lankidetzaren indartzeko](#). Lankidetzaren hori ezarri da LifeKIC partzuergoren baitako elkarlaneko esparru handi baten baitan eta IKTei eta integrazioarako informazio sistemai buruzko baterako lehen lantaldea ezarri da. 2015eko maiatzean, memorandumaren garatzeko betiko ekintza plana sinatu zuten.

7. Ikerketa eta berrikuntzako (DG Research), Osasun eta Elikagaien Segurtasuneko (DG Santé), eta Komunikazio, Eduki eta Teknologia Sareetako (DG Cnect) [Europako Zuzendaritza Nagusiekin](#) partekatuta dira EAEn garatzen ari diren osasunaren arloko politiken eta ikerketaren eta berrikuntzaren arloko ildo estrategikoak.

8. Euskal Autonomia Erkidegoko osasun sistema agente aktiboa da, eta, batzuetan, erreferentzia ere, estatu mailan berrikuntzarekin lotutako ekimenetan. Hala, medikuntza eta osasun teknologien gaineko berrikuntzako estatu sarea (Itemas) eta Pinnsa proiektuan parte hartzen du, besteak beste, eta bi

kasuetan, berrikuntzaren jarduera alderdi desberdinetan (biomedikuntzan, antolakuntzan) hobetzeko eta haren neurketa optimizatzeko dokumentazioa sortzen du.

2. ekimena. Berrikuntzaren eta jakintzaren kudeaketa sustatzea, lan horren alderdi estrategiko eta operatiboa aintzakotzat hartuz.

1.15.6 helburua. Ikerketa eta berrikuntza bultzatzea

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014. urtean zehar, osasun arloko lanbideetako langileak etengabe prestatzeko euskal kontseiluak egiaztatutako ia 1.800 ikastaro eo prestakuntza jarduera egin ziren. 2015ean, Kontseiluari 1.700 prestakuntza jarduera edo ikastaro inguru egiaztatzeko eskatu zitzaion. Etengabe prestatzeko batzordearen (Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa) lantaldean parte hartzen da, egiaztapenaren osagai kualitatiboaren balorazio eskala berrikusteko.
2. 2014an aurrera egin zen **Eusko Jaurlaritzaren eta MCC Health** (Ingeniaritza Biomedikoko graduko praktikak, Osasun Kudeaketaren arloko Prestakuntza) erakundearen arteko jarduera bermatzean eta lankidetzaren arlo berriak zehaztean.
3. Prestakuntza espezializatuari dagokionez, 2015ean euskal osasun sistemak **329 plaza** eskaini zituen (prestatuntza sisteman 2016ko maiatzan sartuko dira). Gaur egun, **1.259 pertsona trebatzen ari dira egoitza sistemaren baitan (BAME)**. 2015ean, osasun prestakuntzako 80 tutore berri **egiaztatu** ziren. 2016an, 70 pertsona egiaztatzeko eta beste 440ren egiaztapena berritzeko asmoa dago.
4. 2015ean, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioan irakaskuntza unitateen 10 egiaztapen eskaera aurkeztu ziren. Horien artean 5 irakaskuntza unitate multiprofesionalei zegozkien (erizaintza eta medikuntzako espezialistak trebatuko dira).
5. 2015ean, laguntza eman zitzaion **Fundación CITA-Alzheimer Fundazioari**, 250.000 euroko zenbatekoarekin, Alzheimer gaixotasunean ikertzeko jarduerak finantzatzeko.
6. 2014an, prozedura bat onartu zen, anbulantziak gidatzeko zereginean gaitzeko esperientzia profesionala egiaztatzeko. 2015ean bukatu zen prozedura.
7. Osakidetzako etorkizuneko zuzendarientzako Osasun Kudeaketako Masterraren antolakuntzan parte hartu da eta 60.000 ekarpena egin da, parte hartzaileen matrikularen zati bat diruz laguntzeko.
8. EAEko osasun prestakuntza espezializatua estatuko egoiliarrentzat oso erakargarria da. 2013. eta 2014. urteetan, plaza guztiak bete zituen autonomia erkidego bakarra izan zen, eta, 2015ean, EAE izan zen lehen autonomia erkidegoa bere plazak betetzen.

3. ekimena. Osasun ikerketaren alde egitea argi eta garbi, baliabide eta bitartekoen banaketa arrazionalizatuz eta koordinazioa nahiz planifikazioa sustatuz, bai erakundeetan, bai gizarte eragileen artean ere.

1.15.6 helburua. Ikerketa eta berrikuntza bultzatzea

Arduraduna: Guillermo Viñegra García (Osasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ikerketa biomedikoaren aldeko herritarren babesak hiru mugarri utzi ditu, hala nola: 2013an “Aurten, oparitu bizia” telemaratoia, 304.055.- € bilduta, 2014an “[Erradioterapia, euren bizitzako abestia entzuten jarrai dezaten](#)” telemaratoia, 583.058 €-rekin, eta 2015ean, “Ikara dezagun beldurra” telemaratoia, 373.093 € bilduta. Hirurak ala hirurak Eitb-k antolatu zituen, Bioef-ekin lankidetzan, eta transplantean, minbiziaren eta gaixotasun arraroen arloko ikerketara bideratu ziren.
2. Osasun Ikerkuntzarako Institutu sarea martxan jartzeko lanean ari gara oraindik. 2013ko apirilaz geroztik, Biogurutzetaren egiaztapen prozesua lantzen hasi ginen, Karlos III.a Osasun Institutuak (ISCIII) zehaztutako eskemarekin bat etorritz.
3. Profesionalek **diziplina eta gune anitzeko ikerkuntza sareetan** duten parte hartzea etengabe sustatzen da, esaterako, Ciber izenekoetan. Ciberdem, Cieberer, Cibersam, Ciberes, Ciberesp, Ciberved, Ciberehd, eta Ciberobn delakoetan parte hartzen da. Bioef-ek parte hartzen du kontseilu errektoreen bileretan, euskal osasun sistemaren izenean.
4. Abian jarri da **Berrikuntzako ekintza plana**. Tresna horrek osasunean hobekuntzak ekarriko dituzten osasun sistemako jarduera berritzaileak areagotuko ditu, hobekuntzak ekarriko ditu osasun sisteman bertan, edota garapen sozioekonomikorako aukerak ekarriko ditu.
5. Erosketa publiko berritzailea osasun sisteman izeneko tresnak hobeto erantzun nahi die osasun sistemaren premiei, merkatuan ez dauden irtenbide garapenaren bidez, eta, era berean, sistema hornitzen duten enpresen I+G+b arloan inbertsioa bideratu eta dinamizatu nahi da.
6. Euskal osasun sistemak, Biodonostia eta Biogurutzeta Institutuen bidez, Ikerbasque erakundeak hamabi ikertzaile txertatu ditu (2015eko abenduko datuak). Ekimen horren bidez, EAEn ikerketa zientifikoaren apustua indartu nahi da, Euskal Autonomia Erkidegoa ikerketa talentuaren erakargune bihurtuta.
7. Euskal biobankua sendotu da [ezinbesteko tresna gisa kalitatezko ikerketa biomedikorako](#). Biobankuak, gainera, bere I+g jarduerak ditu, eta, horrek erakusten du beste biobanku batzuetatik bereizteko faktore bat duela. 2015ean, aurrera egin da Biobankuaren eta Gaixotasun arraroen erregistroaren arteko lankidetzan, Osabide historia klinikoarekin elkarrekintzan. Halaber, aurrera egin da ikerketa xedeak dituan begi banku bat sortzeko orduan ere.

1. ekimena. Pertsona guztiei begirako aukera berdintasuna bultzatzea: onetsitako planak abian jarritz, bai eta Dibertsitatearen aldeko Artapen Plangintza Estrategikoa (2012-2016), ikasle immigranteei zuzendutako hezkuntza artapenerako plangintza (2012-2015) eta Ikasle Ijitoak Eskolaratzeko Hobekuntza Plangintza ere (2012-2015).

1.16.1 helburua. Ikasleak, hezkuntza-sistemaren erdigunean

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, beste jarduketa batzuen artean, [Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida-plana](#), onartu zen. Halaber, “[Bidelaguna](#)” programa ezarri zen, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan eskola-uzterik ez gertatzeko. Horrez gain, ijitoen etniako ikasle-kopuru handia duten ijitoen elkarten esku-hartzea eskolatan sustatu zen.

2. 2014an, [hezkuntzaren bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egiteko deialdia](#) izapidetu zen: berrikuntza-proiektu integralak, berrikuntzan hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak eta “partekatuz ikasi”: sare-esperientziak.

3. Era berean, 150 ikastetxetan esku hartu zuten 2014-2015 ikasturtean ekintza-proiektuetan parte hartzeko, hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko. Kasu horietan, hasiera-protokoloa erabili zen. Gainera, 10 ikastetxetan esku hartzeko proiektu integralak garatu ziren. Halaber, aurreko ikasturtean ibilbideari ekin zioten ikastetxeetan (2013-2014) ekintza-planak aplikatzen jarraitu dute. Zerbaki horiek 2015. urtean ere errepikatu ziren.

4. 2012-2015 [Ikasle Etorkinentzat Harrera Plana](#) garatu zen, kulturarteko eskola inklusiboaren testuinguruan. Harrerako hezkuntza-laguntzak eta ikasle ijitoen eskolatzeko-tasaren hobekuntzak ere garatu ziren. Premia bereziak dituzten ikasleak garraiatzeko deialdiak egin ziren, bai eta [Eskolatzeko programa osagarri](#)rako deialdia ere.

5. 2015ean, Dislebi-k, Euskadiko dislexikoen elkarteak, antolatu zituen jardunaldietan parte hartu zen. Elkartearen X. Urteurrena zen. Horrez gain, Bilbon urriaren 2an eta 3an, dislexiari buruz eta ikasteko beste zailtasun berezi batzuei buruz lehendabizi antolatu zen I. foroan parte hartu zen. Era berean, 2015-10-09an, “*La Accesibilidad comunicativa como elemento inclusivo básico*” [Komunikatu ahal izatea, inklusiorako funtsezko elementutzat hartuta] hitzaldia eman zen “*Rompiendo barreras en la Educación Superior*” [Goi-mailako hezkuntzan oztopoak kentzen] mintegian (Euskal Gorrak elkarteak antolatua).

6. 2015-10-14an, GAUTENA Gipuzkoako Autismo Elkartearekin batera, saio bateratua antolatu zen, herritarrei autismoaren arazoak azaltzeko eta ulertarazteko, eta gaitz hori duten pertsonen zerbitzu egokiak eskaintzeko.

7. Halaber, Hamaika Esku programan parte hartzen duten zentroei banakako jarraipena egiten zaie, hezkuntzako-ikuskatzailatzarekin eta erreferentziazko aholkularitzarekin batera.

8. [Ikasle ijitoak hobeto eskolatzeko plana \(2012-2015\)](#). Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako 44 ikastetxerekin era koordinatuan lan egiten ari da. Horrez gain, jarraipena egiten da hiru lurraldeetan eta etengabea da ijitoen erakundeekiko harremana.

2. ekimena. Arreta goiztiarreko eredia bultzatzea (0-6 urte)

1.6.1 helburua. Ikasleak, hezkuntza-sistemaren erdigunean

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, Euskal Autonomia Erkidegoan laguntza goiztiarrerako esku-hartze integralari buruzko dekretua egin zen, Gizarte Politiketako Sailburuordetza, Hezkuntza Sailburuordetza eta Osasun Sailburuordetzaren artean.
2. 2015ean, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzan batzorde bat eratu zen, arreta goiztiarraz arduratzeko. Kideen artean, hezkuntza-premia bereziak (NEES) dituzten haurren zerbitzuko pertsonak eta [Berritzeguneetako](#) aholkulariak zeuden. Era berean, Haur Hezkuntzako irakasleei prestakuntza eskaini zitzaion, [Prest gara](#) planaren bitartez.
3. 2015-10-21ean, Arreta Goiztiarri buruzko ikastaroaren bigarren fasea antolatu zen. Horrez gain, aholkularitza eskaini da. Berritzeguneen bidez, azalpen- eta prestakuntza-jarduerak antolatu dira, Haur Hezkuntzako irakasleei zuzenduta.
4. 2015ean, aplikazio bat egin, eta bertan jaso da ikasle guztiei interesatzen zaien informazio osoa, familiek hasierako matrikula egiten dutenetik.
5. Ikasturte osoan, koordinazio-lan handia egin da [Haurreskolak Partzuergoarekin](#).
6. “Garapenaren Ohiko Zaintza” deritzon prozesuaren testuinguruan, “Haurren Garapena Behatzeko Eskalak” egin dira, [Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa](#)n. Protokolo hori 2015-2016 ikasturtean ezartzen hasi zen, 2 eta 3 urteko ikasgeletan.

3. ekimena. Oinarrizko gaitasunak garatzea, ekitatea bermatzeko eta sistema bikaintasunera bideratzeko helburuarekin.

1.16.1 helburua. Ikasleak, hezkuntza-sistemaren erdigunean

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, [Heziberri 2020 hasierako Plana](#) egin zen, 2020rako Europako markoak ezarritako berrikuntza eta garapenerako ildo estrategikoak elkartzeko asmoari erantzuteko, hezkuntzaren eta prestakuntzaren gainean, eta gure testuinguru eta ingurunearen berezko hezkuntza-erronkak kontuan hartuta. Hiru proiektu hartzen ditu barne: 1) "Berezko hezkuntza- eta pedagogia-ereduaren markoa" osatu eta adostea; 2) Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumak ezartzen dituzten Dekretuak osatu eta adostea; 3) Hezkuntzaren Euskal Legerantz urratsak ematea.

2. 2015ean, Berritzegune Nagusiko aholkularitzei prestakuntza eman zitzaien, gaitasunak garatzeari eta ikaskuntza-egoeraren gaineko irizpideak bateratzeari buruz.

3. 2015-05-20ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, argitaratu zen; horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei dei egiten zaie, eskola-esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko. 2016. Halaber, 2015-06-22ko Ebazpena eman zen; horren bidez, 2015-2016 ikasturtean [Hamaika Esku](#) proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetako zenbait postutan zerbitzuak egiteko deialdia ebatzi zen.

4. 2015-2016 ikasturtea antolatzeke prozesuan, orientabideak jasotzeko eta curriculumak aberasteko aukera eman da. Gainera, UPV/EHUko udako ikastaroetan gai horren gaineko ikastaro berezia antolatu zen.

5. Pertsona Gorren Elkardeen Euskal Federazioak eskatuta, European Deaf Students Union (EDSU) erakundeak antolatutako Ikasle Gorren Europar Mintegian parte hartu zen 2015-10-08an. Abuztu berean, gaitasun intelektual handietarako talde teknikoaren jardura hasi zen. Talde hori osatzen dute Berritzegune Nagusiko kideek, zonako berritzeguneetako ordezkariak, ikastetxeetako kideak eta UPV/EHUko kideak.

6. 2015eko abenduan, [Heziberri 2020 Plan](#)ean jasotako eredu pedagogikoari jarraituta, curriculumeko materialak egiteko eta ebaluatzeke gida banatu zen ikastetxe guztietan.

4. ekimena. Balioetan heztea: Berdintasuna Bermatzeko eta Genero Indarkeria Prebenitzeko Plangintza Estrategikoa onetsiz eta garatuz, urteko elkarbizitza plangintzak abiaraziz, biktimen lekukotzarekin egindako lana ebaluatuz eta egokituz eta teknologien erabilera kaltegarriaren gainean prebenituz.

1.16.1 helburua. Ikasleak, hezkuntza-sistemaren erdigunean

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, [Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida-plana](#) argitaratu, eta Ikastetxeetako Bizikidetzeta Plana egokitzeko gida berrikusi eta hobetu zen. Era berean, berdinen arteko tratu txarrak ikastetxeetan gertatuz gero, ekintza-protokoloa errazago aplikatzeko jarraibideak egin ziren.

2. Euskal hezkuntza-erkidegoak [Gizalegez](#) akordioa sinatu zuen: gizarte-hezkuntza esparruan bakea eta bizikidetzeta sustatzeko konpromisoa.

3. 2013an, Segurtasun Sailarekin Lankidetzeta Hitzarmena sinatu zen, berdinen arteko jokabide desegokien, bortizkeriazko ekintzen eta tratu txarren nahiz eskola-jazarpenerako (*bullying* eta *ciberbullying* kasuetarako) eta ikastetxeko bizikidetzari eragin dakioken edozein egoeretarako prebentzio-neurriak ezartzeko.

4. 2014an, Bakegintza eta Bizikidetzarako Sailarekin batera, prestakuntza-eskaintza antolatu zen, "[Elkarrekin bonoak](#)" Programaren bitartez. "Elkarbizitzen ikastea" ekimena abian jarri zen. Irakasleentzako estrategiak berdintasunean hezteko.

5. 2015eko apirilean eta maiatzean, [Berdindu Programarekin](#) lotutako sentsibilizazio-saioak egin ziren HLH eta DBHko ikastetxeetan, udalen eta mankomunitateen berdintasun-zerbitzuen elkarlanean (besteak beste, Bilbon, Arratiako mankomunitatean).

6. 2015-06-12an, [ICEBERG Programa, adingabeak eta alkohola](#) aurkeztu zen. Osasun Sailarekin, Osakidetzarekin, udalen osasun-zerbitzuekin eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzarekin batera lan egin da, programa martxan jartzeko.

7. [HIESaren aurkako planaren](#) bidez, ikastetxeei eta hezkuntza-laguntzako zerbitzuei baliabideak eskaintzen zaizkie, GIB/HIESA, sexu-transmisiozko gaixotasunak eta nahi gabeko haurduntzak prebenitzeko.

8. Bizikidetzeta onaren arloan, Hezkuntza Erkidegoak parte hartuta, "Ikastetxean elkarrekin bizitzeko plana. Plana egiteko gida" egin da. Horrez gain, 116111 [Zeuk Esan](#) zerbitzuaren erabilera berriro pizteko kanpaina zabaldu da.

9. 2015-2016 ikasturteko lehenengo lauhilekoan, banaka erantzun zaie A ereduan euskara indartzeko ekimenean lan egiten duten ikastetxeei. Halaber, Hizkuntza Foroa martxan jarri da: laguntza-zerbitzuetako hizkuntza-aholkularitzak koordinatzen ditu, ikasturtean aholku, prestakuntza eta jarraipena eman ditzaten EAEko ikastetxeetan.

10. [Gobernu Kontseiluak 2015-12-22ko bileran onartu zuen oinarritzko hezkuntzaren curriculumazartzen duen dekretua](#). Eranskinean etapa-helburuak ezarrita daude, hizkuntza- eta literatura-gaitasunei buruz.

5. ekimena. Irakaskuntza modernoa, mundura irekia eta eleanitza bultzatzea euskara ardatz nagusitzat hartuz, komunikazio gaitasun osoa lortzeko ikastetxeetako hizkuntz proiektuak sustatuz eta irakasleen hizkuntz gaitasuna hobetuz.

1.16.1 helburua. Ikasleak, hezkuntza-sistemaren erdigunean

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, ikastetxe publikoetako irakasleek ingeles hizkuntzan duten hizkuntza-gaitasunaren azterketa eguneratu, eta itunpeko ikastetxeetara hedatu zen. Horrez gain, MET esperimentatu duten ikastetxeetako ikasleen errendimenduaren ebaluazioa neurtu zen:

2. 2014an, [Prest gara programa](#) abian jarri zen, eta Garatu programa ordeztu zuen.

3. Hizkuntza-gaitasunaren arloan, 2014an: 1) jardunaldiak, mintegiak eta ikastaroak antolatu ziren, hizkuntzen irakaskuntzan prestatzeko edo ezagutzak eguneratzeko. Egileak: Berritzen Nagusia, zonako berritzeguneak, IRALE ikastaroak... 2) Ulibarri programako 2014-2018 hezkuntza-normalizaziorako proiektuak aurkeztu ziren, eta 400 ikastetxe barne hartu ziren; 3) Irale ikastaroak egin ziren; eta 4) hirueledun eta eleanitzeko proiektuak egiteko deialdia ebatzi zen. Horrez gain, lurraldeko eta lurraldeen arteko mintegiak egin ziren (Berritzegune Nagusia).

4. 2015ean, hizkuntza-gaitasunaren sustapenean parte hartzen zuten A ereduko ikastetxe publikoek eta itunduek aholkularitza, laguntza eta jarraipena jaso zituzten, bai tokiko berritzeguneetako aholkularitzen eskutik, bai hezkuntza-ikuskatzailearen eskutik.

5. 2015-03-11ko Ebazpena, Hezkuntza sailburuordetzarena; horren bitartez, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikastetxe publikoei deialdia egin zitzaien funtsean hirueledunak (eta eleanitzak) diren hizkuntza-proiektuak garatzeko eta proiektu horiekin lotutako atzerriko hizkuntzako prestakuntza jasotzeko.

6. 2015eko apirilean, maiatzean eta ekainean, [Bizkaidatz Programa](#) garatu zen, literatura zaletasuna eta euskara idatziaren erabilera ikasleen eta pertsona helduen artean sustatzeko.

7. Aurkeztutako hizkuntza-proiektu hirueledunen ebaluazioa egin zen, eta 2015eko deialdian aurkeztutako eskabideak ere ebaluatu ziren, ikastetxe bakoitzari bertako testuinguruaren arabera laguntza emateko, eta 2015-2016 ikasturteko koordinazio- prestakuntza- eta jarraipen-mintegiak antolatzeko.

8. A ereduan euskara indartzeko programan parte hartzen zuten ikastetxeen banakako jarraipena egin zen, hezkuntza-ikuskatzailezarekin eta erreferentziazko aholkularitzarekin batera.

9. 2015-10-20an, Gasteizko Jesus Guridi Musika Eskolan [Eskola Hitzun Bilaren XIX. Jardunaldia](#) egin zen. Edizio horretan, hizkuntza-jokabideei buruzkoa izan zen, eta Ulibarri programan parte hartzen duten 400 ikastetxeek parte hartu zuten.

10. 2015-11-11n, Euskararen Aholku Kontseiluaren bileran parte hartu zen, kontseiluaren proposamenak eta gomendioak curriculumera eta ikastetxeko hizkuntza-proiektua egiteko prozesura egokitzeko.

6. ekimena. IKTetik (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) ITetara (Ikaskuntza eta Jakintzarako Teknologiak) igarotzea: ikas-irakas prozesuan teknologiak erabiliz, azpiegitura digitalak arduratsuki baliatuz eta material digitalak sortuz, bereziki euskaraz.

1.16.1 helburua. Ikasleak, hezkuntza-sistemaren erdigunean

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, [Share hezkuntza Programa](#) jarri zen abian: hezkuntza-sistemaren sareko partaidetza eta konexiorako programa. Bertan, hainbat neurri garatzen dira: "share_hezkuntza gelan", ikasgelan curriculum-materialak sortu eta erabiltzeko proiektu pilotua; irakasleei prestakuntza-tresna digital zehatzen inguruan eta horiek ikasgelan erabiltzearen inguruan, edo material digitala sortu eta Webgune bat abian jartzea, irakasleek sortutako material digitala bildu eta sailkatzeko.
2. 2015eko apirilaren 16ko Ebazpena, Hezkuntza sailburuordearena; horren bidez, dei egiten zaie Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko berrikuntza proiektuan (beste ikastetxe batzuetara hedatuta) parte har dezaten.
3. 2016-10-07an, Hezkuntza sailburuordea, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza eta Ikastetxeen Zuzendaritza ANELE (Liburu eta Irakaskuntzarako Materialen Editoreen Elkarte Nazionala) elkarteko arduradunekin bildu ziren.
4. 2015ean, Practice of Music materialak, banakako errefortzuei buruzkoak, sortu eta ebaluatu ziren. Lehen Hezkuntzako materialak pilotatze-fasean daude.
5. 2015-11-09ko Ebazpena, Hezkuntza sailburuordearena, argitaratu zen; horren bitartez, diru-laguntzak esleitu ziren curriculumeko materialak (unibertsitate-mailatik kanpokoak) euskaraz sortzeko eta egokitzeko ([EIMA 4](#)).

7. ekimena. Adin goiztiarretatik zenbait balio (adibidez, sormena, autonomia pertsonala, ahalegina eta arriskua) bultzatzea.

1.16.1 helburua. Ikasleak, hezkuntza-sistemaren erdigunean

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. [Heziberri 2020 Planak](#) elkartzen ditu 2020rako Europako markoak ezarritako berrikuntza eta garapenerako ildo estrategikoak, hezkuntzaren eta prestakuntzaren gainean, gure testuinguru eta ingurunearen berezko hezkuntza-erronkak kontuan hartuta. Plan horren barnean sartu da “hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparrua”. Proiektu horrek berez dakar paradigmatikoa nabarmena, gaitasunetan oinarritutako hezkuntzatik abiarazten baita. Gaitasunen araberako pedagogiaren ikuspegiaren ezaugarria hau da: eskuratutako ikaskuntzak transferitzea, bideratzea eta konbinatzea egoera funtzional konplexuak konpontzera.

2. Ikasleak hezkuntza-sistemaren erdigunean jartzen dira, eta haien oinarrizko gaitasunak garatzen saiatzen da. “Egiten ikastea eta ekintzaile izatea” zeharkako gaitasuna bereziki lantzen da bizitzaren zenbait arlotan (pertsonala, akademikoa, soziala edo lanbidekoa). Azken helburua ikasleak prestatzea da, bizitzan izango dituen erronkei aurre egiteko gai izan dadin. Bigarren zikloko eta batxilergoko ikasleei dagokienez, nabarmentzekoa da lan-esperientziaren gaineko proiektua (2015-2016).

3. Ikastetxeei dagokienez: ikastetxeen autonomia sustatzea.

- Ikastetxeko hezkuntza-proiektua ikastetxe guztietan.
- Urteko hobekuntza-planak, ikastetxe guztietan esku hartzeko.
- [Hauspoa proiektuak \(28\)](#).
- [Hamaika Esku proiektuak \(53\)](#).

4. Administrazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza-sistema hobetzeko plana garatu da.

8. ekimena. Unibertsitateko ikasle gazteentzako Europako ikasle-mugikortasuneko eta lanbide-heziketako programak indartzea.

1.16.1 helburua. Ikasleak, hezkuntza-sistemaren erdigunean

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. [2015-2018 Unibertsitate Plan Estrategiko](#) berrian ezarritako programa-kontratuetan jasotako zenbait jarduketaren helburu nagusia unibertsitateak nazioartekotzea da, eta ikasleek truke-programetan parte har dezaten sustatzea. Plan horrek laguntzen du Euskadi nazioartekotzeko plan estrategikoan ezarritako helburuak lortzen, eta, besteak beste, EHUBAQ [mugaz haraindiko campusa](#) sustatzen du.
2. Gainera, EAEn 2016ko aurrekontuak 1.071.200 euroko partida esleituta dauka autonomia-erkidegoko ikasleek beste administrazio batzuetatik jasotzen dituzten laguntzak osatzeko. Helburu bat ikasleen mugikortasuna Europan eta nazioarteko beste helmuga batzuetan sustatzea da.
3. Lanbide Heziketako ikasleen mugikortasuna bultzatu da: batetik, ikastetxeko ikasleentzat mugikortasun-proiektuak kudeatzen dituzten Lanbide Heziketako ikastetxe publikoei zuzkidurak egiteko urteko deialdiaren bitartez; eta, bestetik, partzuergoarekin lotutako ikastetxeetako LHko ikasle guztientzat mugikortasun-proiektuak kudeatzen dituzten ikastetxe eta erakunde pribatuei (mugikortasun-partzuergoak: Ikslan, Hetel, Aice, Confebask) zuzendutako diru-laguntzen urteko deialdiaren bitartez. Bai ikastetxe publikoei zuzendutako zuzkidurak, bai ikastetxe pribatuei zuzendutakoak, ikastetxe publikoetan eta pribatuetan lortutako europar laguntzen osagarriak dira. 2015ean, guztira, LHko ikasleentzako 89 mugikortasun-proiektu onartu dira, eta haiek guztiek Eusko Jaurlaritzak lagundutako finantzaketa ere izan dute, guztira 690.319,40 euro.

9. ekimena. Nazioarteko eskariari egokitutako profil profesionalak sustatzea, eskatzen diren premiei erantzuteko, gaitasun eleanitzak eta kulturantzak aintzakotzat hartuz.

1.16.1 helburua. Ikasleak, hezkuntza-sistemaren erdigunean

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. Ikasleei dagokienez:

- [2015-07-10eko Ebazpena](#), Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena; horren bidez, murgiltze linguistikoko egonaldiak egiteko 2.188 plaza eskaintzen dira.
- 2016ko udako ikastaroak atzerrian egiteko plazak. Alemanian, Frantzia, Erresuma Batuan eta Irlandan egonaldiak eta ikastaroak egiteko eskaintza. Plaza horiek EAEko ikastetxeetan eskaintzen dira. Ikastetxe horiek funts publikoen bidez funtzionatzen dute. Plaza horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleei eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetakoei zuzenduta daude.

2. Irakasleei dagokienez:

- 2015-03-11ko Ebazpena, Hezkuntza sailburuordearena; horren bidez, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei deialdia egiten zaie funtsean hirueledunak (eta eleanitzak) diren hizkuntza-proiektuak garatzeko eta proiektu horiekin lotutako atzerriko hizkuntzako prestakuntza jasotzeko deialdia. 2015/-2016 ikasturtea.
- [2015-06-03ko Ebazpena](#), Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena; horren bidez, 2015-2016 ikasturteko lehen aldiko prestakuntza-jardueren behin-behineko zerrenda jakinarazten da.
- 2015-10-28ko Ebazpena, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena; horren bidez, 2015-2016 ikasturteko bigarren aldiko prestakuntza-jardueren behin-behineko zerrenda jakinarazten da.

3. Hezkuntza-erkidegoari dagokionez:

- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua prestatzeko [500012e Gida](#).
- [Erasmus +](#), europar programa zabaltzea.

1. ekimena. Irakasleen prestakuntza sustatzea: irakasleen eta zuzendaritza taldeen hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza; aldaketa metodologikoan berrikuntza erraztuz; esperientziak eta jardun egokiak aztertzeke, elkartrukatzeko eta horiei buruz hausnartzeko sareak edota foroak eratzen lagunduz.

1.16.2 helburua. Hezkuntza lanbide prestigiduna

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013. urtean zehar [Share Hezkuntza Programa](#) garatu zen, prestakuntza tresna digital zehatzei eta horiek ikasgelan erabiltzeari edo material digitala sortzeari buruzko irakasleentzako hezkuntzari zegokionez.

2. 2014an irakasleen etengabeko prestakuntza birformulatu zen, ikastetxe bakoitzaren proiektuetatik eratorritako beharrezanekin zuzenean lotutako prestakuntzarantz abiatuz, [Prest Gara](#) programaren bitartez. Halaber, jarduera, jardunaldi eta ekimen ugari garatu ziren, esaterako Zientzia- hezkuntza, Zientzia-Azoka eta Training Caravan, eskumen zientifikoa sustatzeko.

3. Horrez gain, Berritzegune Nagusiko ["Hamaika haizeetara"](#) eta ["Gure herrietan zehar"](#) deialdiak egin ziren, eta ikastetxeen zuzendaritza berriak eratzeari ekin zitzaion.

4. Hezkuntza Berrizatzeko zuzendariaren 2015eko apirilaren 14ko Ebazpenaren bitartez, unibertsitate mailakoak bestelako irakaskuntza (prestakuntza zikoak izan ezik) irakasten duten Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei deialdia egin zitzaion irakasleen prestakuntza eta berrikuntza proiektuak egiteko hezkuntza zientifikoa, teknologikoa eta ekintzailatzen, 2016-2016 ikasturtean.

5. 2015eko ekainean ikasturtean zehar ikastetxeetan garatutako mintegien zonaldeko balorazioak jaso ziren, Laguntza Zerbitzuen koordinaziopean. Laguntza Zerbitzu horiek irakasleen prestakuntza aukeren zerrenda eremuetako ikastetxe guztietara igorri zituzten. Horrez gain, VSF Herrien Bidezko Elikadura: Elikadura programaren arduradunekin balantzea egin zen, landa eremuko eskolen sarean 2011-2014 aldian egindako prozesuari zegokionez, 2015-2017 aldia antolatzeari begira.

6. Ikastaroak: "Eskola eta Osasuna" Ikastaroak: Eskola eremuko plan bat da, Gipuzkoako Hezkuntza eta Osasun ordezkariak 2013an abiarazi zutena; planaren helburua eskola egoera batzuetan sortutako arazoak kudeaketa erraztea (famiaren, osasunaren eta hezkuntzaren esparruetan) eta horiek saihesten saiatzea zen, antzemanek eta modu goiztiarren landuz.

2. ekimena. Ikastetxeetako hezkuntza kudeaketari eta giza baliabideen zuzendaritzari buruzko karrera profesionalen diseinua eta garapena bultzatzea eta horiek onartzeko sistema bat ezartzea.

1.16.2 helburua. Hezkuntza lanbide prestigioduna

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an tokiko Berritzeguneetan garatutako jardun onak aurkeztu, diseinatu eta prestatzeko jardunaldiak, tailerrak eta mintegiak egin ziren. Hezkuntza lanbideak gizartean onarpen handiagoa izateko kanpaina bat diseinatu eta garatu zen, "[Irakaslea naiz](#)" izenburupean, eta erretiratutako profesionaleri aitorten mezu bat igorri zitzaien.

2. 2015. urtean zehar [Partekatuz Ikasiko](#) prestakuntza eskaintza aztertu eta izandako harrera ebaluatu zen, eta hurrengo deialdian eskaintza handitu zen. Lehen aldiz, Garapenaren Ohiko Zaintzari buruzko prestakuntza antolatu zen, Haur Hezkuntzako irakasleentzat, irakasle kontsultagileentzat, eta PT eta ALEentzat, ikastetxe publiko zein pribatuak.

3. 2015-09-25ean ETEN European Teacher Education Network: ECO and TIG [Leader Meeting 2015](#) egitasmoan parte hartu zen, eta euskal hezkuntza sistemako lerro estrategikoak aurkeztu ziren.

4. 2015-09-28an Galesko hezkuntza arloko profesionalen talde baten aurrean egindako aurkezpenaren Berrikuntzako lerro estrategikoak azaldu ziren, euskararen ardatzaren inguruko eleaniztasunari zegoena bereziki nabarmenduz.

5. Hezkuntza legediaren bilduma (zuzendaritza taldeen prestakuntza): Berritzegune Nagusiko Eskola Antolaketa eta Sareak taldeak antolatutako ikastaroan ikastetxeetako zuzendaritza taldeei haien interesekoak izan daitezkeen legeak eta arauak aurkeztu zitzaizkien.

6. Halaber, legegintzaldian zehar, Helduen Hezkuntza Zentroetako zuzendaritza taldeei zuzendutako mintegiak jarri dira abian, besteak beste, helburu hauekin: [Helduen Hezkuntza Zentroen](#) zuzendaritza taldeen hausnarketa eta lan esparru bat ezartzea, zuzendaritza taldeen prestakuntza sustatzea, esperientziak trukatzeko erraztea eta Helduen Hezkuntza Zentroen antolakuntza ezagutzea. Bidean, Helduen Hezkuntza Zentroen orientatzaileei zuzendutako mintegiak ere martxan daude.

7. Irakasleen ibilbide profesionalaren ezarpenerako oinarriak finkatu ziren, Haur Hezkuntza eta Oinarrizko Hezkuntzako curriculumen dekretuen 20. eta 30. artikuluen bitartez, hurrenez hurren; irakasleek lortu beharreko gaitasunen profila zehaztu zuten, dekretu berean xedatzen den ikasleen irteera profilararen garapenean lagungarri izan dadin.

3. ekimena. Bikaintasuna etengabe bilatuko duen hezkuntza eredu malgu baten bitartez ikastetxeetako autonomia sustatzea, zentro bakoitzaren hezkuntza komunitatea indartzuz, haren hezkuntza proiektua balioetsiz eta kudeaketa nabarmen hobetuz jakintzen, materialen eta tekniken eguneraketa iraunkorraren bidez.

1.16.2 helburua. Hezkuntza lanbide prestigioduna

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013-2014 ikasturtean “Hauspoa” deitutako proiektu pilotua jarri zen abian; hala, zentroi antolatzeke autonomia gehiago eskaintzen zaie, emaitzak hobetzeko. Esperientzian DBHko hamahiru ikastetxe publikok hartu zuten parte, eta horretarako Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua prestatzeko Gida argitaratu da. 1. Gida ikuskari eta aholkulariei aurkeztu zaie, eta proiektua prestatzeko prozesuari buruzko prestakuntza ikastetxeen zuzendariei, Berritzeguneen bitartez eta zonalde ikuskarrien parte hartzearekin.

2. 2014ko azaroaren 4an bikaintasunerantz jotzeko prestakuntza proiektuen deialdia ebatzi zen: Berrikuntzarako proiektu integralak, berrikuntzarako prestakuntza proiektuak, partekatuz ikastea: esperientziak sarean.

3. Legegintzaldian zehar zentroyen autonomia indartu da, Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculum Dekretuaren bitartez, [Plan Heziberri 2020](#)ean jaso zen moduan.

4. 2015ean, eta [Plan Heziberri 2020](#) ikusita, ikastetxeen prestakuntza eskaerak eta Laguntza Zerbitzuek egindako ekarpenak (urteko memoria eta planetan oinarritutakoak), 2014-2017 lerro lehenetsien proposamena eta Laguntza Zerbitzuen 2014-2015 betebeharrak eguneratu ziren.

5. 2016-06-19an argitaratutako Hezkuntza sailburuordearen ebazpen baten bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoen barne antolamendua berritzatzeko proiektuan parte hartzea onartu zen. [Hauspoa proiektua](#). 2015-12-17an proiektuan parte hartu zuten 28 ikastetxeen arteko foroa eta jarraipen batzordeak eratu ziren, Berritzegune Nagusiko aholkularitzaren laguntzarekin, ikastetxeen arteko lankidetzeta eta esperientzien elkartrukea bultzatzeko.

6. 2015eko maiatza eta ekainean zehar, HH/LH eta DBHko itunpeko ikastetxeen eta ikastetxe publikoko hezkuntza proiektuei eta hobekuntza planei jarraipena egin zitzairen 2015-2016 ikasturteari begira diseinatutako hobekuntza proposamenak aintzat hartzeko

7. Eusko Jaurlaritzak, Ingurugelak Laguntza Zerbitzuen bitartez, Bilbon 2015eko azaroan ospatutako ["Etorrizunerako Hezkuntza eta Jasangarritasuna"](#) [Jasangarritasunerako Hezkuntzako EAEko IV. Jardunaldien](#) antolaketa eta edukien garapenean parte hartu zuen.

1. ekimena. Euskal gizartearen erronkei erantzungo dien hezkuntza sistema bat, mundura irekia, sendotzea, euskal curriculumak hezkuntza maila guztietan garatuz eta haren barruan honako osagai nagusi hauek txertatuz: euskal kultura, hezkuntza gaitasunen estrategia eta kultura artistikoaren eta oinarritzko kultura zientifikoaren eta teknologikoaren transmisioa eta sustapena.

1.16.3 helburua. Hezkuntza-administrazio berritzailea

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. Hezkuntza-eragileekin batera 2013ko urrian erabaki zen, [Heziberri 2020](#) Plana martxan jartzea. Planak 2020rako Europako markoak ezarritako berrikuntza eta garapenerako ildo estrategikoak elkartzeko asmoari erantzuten dio, hezkuntzaren eta prestakuntzaren gainean, gure testuinguru eta ingurunearen berezko hezkuntza-erronkak kontuan hartuta. Hiru proiektu hartzen ditu barne: 1) "Berezko hezkuntza- eta pedagogia-ereduaren markoa" osatu eta adostea; 2) Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumak ezartzen dituzten dekretuak osatu eta adostea; 3) Hezkuntzaren Euskal Legerantz urratsak ematea.

2. Era berean, 2013an, zenbait proiektu idatzi ziren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoko ikasleen artean zientzia zaletasuna sustatu eta gaitasun zientifikoa garatzeko, hala nola, "urrutiko laborategiak" proiektua eta "Ekin" proiektua (zientzia alorreko ekintzaitzari buruzkoa).

3. Urtero, [Kultura Ondarea](#) saria ematen da. Horren bidez, euskal kultura- ondorea ondoen hedatzen duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetako ikasleei, Batxilergoko lehenengo mailako ikasleei eta Erdi Mailako Heziketa Zikloko ikasleei saria ematen zaie.

4. 2014-11-12ko Ebazpenaren bidez, [Zientzia-hezkuntza](#) deialdia ebatzi zen; eta ekitaldi berean ezarri ziren irakasleak prestatzeko eta *Science in English* eta Zientzia Azoka ikasgeletan abiarazteko ekimenak.

5. 2015-04-14ko Ebazpena, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, eman zen; horren bidez, unibertsitate kanpoko irakaskuntza ematen duten eta sailaren mende dauden ikastetxe publikoei deialdia egin zitzaizen Berrikuntza proiektuak eta zientzia-, teknologia- eta ekintzaitzeta-hezkuntzan irakasleak trebatzeko proiektuak 2015-2016 ikasturtean egiteko

6. Halaber, zenbait ekimen egin ziren ikastetxeek [Erasmus + \(KA2\)](#), 2015ekoa, ekimenean parte har dezaten.

7. 2014-2015 ikasturtearen hasieran, hezkuntza-laguntzaileei harrera egiteko eta prestakuntza emateko jardunaldiak antolatu ziren. Laguntzaile horiek gure erkidegoko ikastetxe publikoetan daude. Bigarren eta hirugarren hiru hilekoetan, jarraipena eta banakako aholkularitza egin ziren.

8. Euskal Unibertsitatearekin batera, honako jardunaldi hauek egin ziren: "Hezkuntza-hiriak: haurren garapen psikosoziala familia-eskola-komunitatearen arteko hezkuntza bateratuaren bitartez"; Bilbon, 2015eko 10ean, 11n eta 12an.

2. ekimena. Bizikidetza harmonikoa lortzera bideratutako balioetan oinarritutako hezkuntza eredia garatzea: errespetua, demokrazia, elkartasuna, diskriminazio eza eta indarkeria eza.

1.16.3 helburua. Hezkuntza-administrazio berritzailea

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, Bake eta Bizikidetzarako Plana gizarte-hezkuntza esparruan garatu zen, hezkuntza-komunitateak [“Gizalegez Akordioa”](#) hitzarmena egin ostean. Honako hauen bitartez:

- [Elkarrekin bonoak programa.](#)
- [Adi-adian hezkuntza-modulua.](#)
- [Eskola Bakegune webgunea.](#)

2. 2015eko ikasturtean, aniztasunean bizitzen ikasteko gaitasunarekin lotutako programen eta planen jarraipena egin zen, plan horiek egiten dituzten ikastetxeetan. Nabarmentzekoak dira honako hauek: Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko proiektua, Emakunde eta Eudel erakundeekin batera koordinatuta; Bake eta Bizikidetza Planak, Bakegintza eta Bizikidetzarako Nagusiarekin batera; Aniztasunari arreta emateko plan estrategikoa, 2012-2016.

3. 2015-10-19an, [Gogora](#), Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua, era ofizialean irekitzeko ekitaldian parte hartu zen.

4. Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarekin batera, Ingurugela laguntza-zerbitzuen bidez, honako jardunaldi hauek egiteko laguntza eman zen: [EAEko Iraunkortasunerako IV. hezkuntza-jardunaldiak: hezkuntza eta iraunkortasuna, etorkizunari begira](#). Bilbon egin ziren 2015eko azaroaren 26tik 28ra.

3. ekimena. Hezkuntza Administrazioaren egitura garai eta erronka berrietara egokitzea, etengabeko hobekuntzaren eta bikaintasunaren zerbitzupean jarritz.

1.16.3 helburua. Hezkuntza-administrazio berritzailea

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, esku hartzeko bide egokienak eta eraginkorrenak berrikusi ziren, bikaintasuna lortzeko. Era berean, [Prest_Gara Plana](#) abiarazi zen, hezkuntza-erkidegoa prestatzeko. [Berritzegune Nagusiarekin](#) eta zonako berritzeguneeekin batera, zonako, lurraldeko eta lurraldearteko kooperazio-foroak eta mintegiak antolatu ziren.

2. 2015ean, ikuskaritza egiteko prestakuntza- eta egokitzapen-baliabideak eta hezkuntza-laguntzako zerbitzuak diseinatu eta eman ziren, Heziberri 2020 Planaren bigarren proiektuarekin lotuta.

3. 2015-06-08an, Eurobask sariak eman ziren: Francisco Javier Landaburu Civis XII. edizioa, Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua; eta Primus marrazketa-sariaren IX. edizioa, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta. Kalitatea Hezkuntzan sarearen lorpenak eta balizko hobekuntzak aztertzeko saio bat egin zen, Eibarreko Miguel Isasi ikastetxean.

4. 2015-05-27an, [Batxilergoko ezohiko sari](#)en deialdian parte hartzeko eskaera egiteko prozesua zabaldu zen. Ekainaren 25ean, behin-behineko emaitzak aurkeztu ziren. Behin betiko emaitzak 2015-07-01ean argitaratu ziren. 2015-06-05ean, Olinpiada Matematikoan irabazitako sariak eman ziren.

5. 2015-06-07an, Euskal Eskolaren aldeko jaiari parte hartu zen, Elgoibarren. Halaber, Eskola Txikiak deituriko jaiari parte hartu zen, Gabirian, 2015-06-13an; bai eta Familien Egunean (Haurreskolak) ere, 2015-06-27an.

6. 2015-06-22ko Ebazpena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileen Kudeaketako zuzendariarena, argitaratu zen; horren bidez, Hamaika Esku proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetan zerbitzu emateko deialdia ebatzi zen.

7. 2015-9-29an, bilera bat egin zen Iruaritz-Lezama Fundazioko ordezkariarekin.

4. ekimena. Hezkuntza sistema osoan ebaluazioaren kulturari bultzada ematea, etengabeko hobekuntza helburutzat hartuz eta Europa 2020ko adierazleen sistemara egokitutako adierazle sistema bat antolatuz; halaber, hezkuntza sistema ebaluatzea, testuinguru, prozesu, baliabide eta emaitzen adierazleak txertatuz eta zentroek eta sistema osoak gizarteari kontuak emateko kultura sustatuz.

1.16.3 helburua. Hezkuntza-administrazio berritzailea

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, [Arrue azterlana egin zen](#), ikastetxeetako euskararen erabilerari buruzkoa. Erabilera hori egituratutako harreman formaletan zein egituratu gabeko harreman informaletan aztertu da, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleekin. “Ikastetxe eraginkor edo balio erantsi handiko ikastetxeak” deituriko ikerketa egin zen. Azterketatik eratorritako emaitzak ikastetxe bakoitzaren hobekuntzarako planetan bildu dira.

2. 2015ean, Ulibarri programaren bigarren ebaluazio orokorra eta kanpokoa egin da.

3. 2015-10-02an, Hezkuntza sailburuordeak parte hartu zuen euskara-tituluen arteko baliokidetasunak bilatzeko batzordeko bileran. Bertan aztertu ziren euskara-ezagutzak egiaztatzeko probei buruzko orientabideak, edukiak eta emaitzak. 2015-10-30ean, Euskaliten jardunaldian (Hezkuntza, Kudeaketa Aurreratuko Eredua) parte hartu zen.

4. 2015-2016 ikasturteko lehen lauhilekoan, [ISEI-IVEI: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak](#) argitalpenak egiteko webgunea eguneratu zuen, eta bertan jaso zen PISA txostena, ikastetxeei zuzenduta. 2013-2014 proba pilotua, eta hezkuntza-adierazleen euskal sistema.

5. 2015eko abenduan, ikastetxeetan Diagnostiko Ebaluazioari buruzko txostena jaso zen. Ondoren, Esku hartzeko hobekuntza-plana egiteko batzordeak eratu ziren. Hezkuntzako Ikuskatzaitzak txostena egin ondoren, ikastetxe bakoitzak hobekuntza-plan hori urteko planean sartuko du.

6. 2015eko abenduaren 14tik 18ra, Hezkuntzako Ikuskatzaitzak zuzenduta eta koordinatuta, Euskadin bildu ziren “Zuzendarien eta irakasleen eginkizunaren lidergoa eta ebaluazioa” europar proiektuan (Erasmus + programakoa) parte hartzen duten herrialdeetako ordezkariak, tartean, Europako herrialdeetako ordezkari batzuk.

5. ekimena. Deialdi bat: *Training caravan*: Batxilergoko eta Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleei zuzenduta.

1.16.3 helburua. Hezkuntza-administrazio berritzailea

Arduraduna:

Jarduketak

1. 2012-2016 arteko legegaldian, ekimen hori ikastetxeetan garatu ohi da. Helburua ikasleei ikertzaileak izateko gogoia piztea da. [Training caravan](#).

1. ekimena. Lanbide Heziketako sistema eraldatzea ekoizpen sektoreen premietara eta pertsonen enplegarritasunera hobeto egokitzeko, kualifikazio profesionalaren gero eta beharrian handiagoei erantzunez. Ikas-ekinezko erregimeneko hezkuntza duala.

1.16.4 helburua. Lanbide-heziketaren eredu berrirantz

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdian, ikastetxe jakin batzuetan Recibí programa ezarri da, Lanbide Heziketako sistema duala sendotzeko. Ikasleek ikastetxeetan eta enpresetan jasotzen dute prestakuntza. Horrez gain, “ikas-ekinezko euskal sistemaren” erregimenean ikas-ekinezko heziketa dualeko eredu berriak diseinatu dira. Era berean, gaur egungo prestakuntza handitu da, eta espezializazio-ekintzak gehitu dira, enpresetako enplegarritasuna hobetzeko asmoz. Zentroetatik bertatik informazio-jarduerak antolatu dira, industria-sektoreko heziketa-zikloei buruzko interesa emakumeei piztu nahian.

2. 2015. urtean:

- [Ekainaren 2ko 83/2015 Dekretua](#) onartu da; horren bitartez ezartzen da Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala Euskal Autonomia Erkidegoan.
- [Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzko 86/2015 Dekretua](#), ekainaren 9koa, onartu zen; horren bitartez, espezializazio-programa batzuk arautzen dira, besteak beste.
- “*Guía para la incorporación de la perspectiva de género en el currículo y en la actividad docente de las enseñanzas de régimen especial y de Formación Profesional*” [Genero-ikuspegia curriculumean, araubide bereziko ikasketen irakaskuntzan eta lanbide-heziketako irakaskuntzan gehitzeko gida].

3. 2015-12-01ean, [EAEko Lanbide Heziketan Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroa](#) (TKNIKA) eratu zen. Gaur egungo EAEko Lanbide Heziketan Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroa ordezkaturako du, eginkizunak berrikusita. Zentro berriak honako eginkizun hauek izango ditu: lanbide-heziketari aplikatutako ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak dinamizatzea, teknologia behatzea, ikasteko metodologia berriak garatzea, ikerketa eta berrikuntza aplikatua eta I+G+B proiektuen emaitzak transferitzea Euskal Autonomia Erkidegoan lanbide-heziketa ematen duten zentro guztietara. ([222/2015 Dekretua, abenduaren 1ekoa](#)).

4. [Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua](#) sortu zen ([169/2015 Dekretua, irailaren 8koa](#)). Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua ordeztu du; aurrekoa kendu, eta haren eginkizunak berriro zehaztuta. Besteak beste, estrategiak, programak eta prozedurak definitzeko ardura izango du, lanbide-heziketaren, bizitzan zeharkako ikaskuntzaren eta ezagutzen garapenaren ikuspegitik.

5. [Lehen Heziketako Sormen Aplikatuaren Euskal Institutua](#) (IDEATK) sortu zen irailaren 8an, [168/2015 Dekretuaren](#) bitartez. Eginkizun desberdinak eduki arren, erakunde horrek ordezkatu du Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia, azken hori kendu egin baita. Haren eginkizunak honako hauek izango dira: lanbide-heziketa ikasten duten ikasleengan sormen-pentsamendua bultzatzea; teknologia aurreratuen bidezko artisauro-ekoizpenak egiteko sormenguneak garatzea; eta sormen-arlo berrietan ekintzailtza dinamizatzea.

2. ekimena. Zentroetako autonomia handitzea, haien sormena bultzatuz, jarduera berritzaileak garatuz eta lanbide heziketak unibertsitatearekin eta enpresekin, bereziki ETE-ekin, izan beharreko erlazioari lagunduz.

1.16.4 helburua. Lanbide-heziketaren eredu berrirantz

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren bidez eguneratu zen ikastetxeen araubidea. [46/2014 Dekretuan Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide-Heziketako Ikastetxe Bateratuak arautzen dira](#). Horrez gain, martxan jarri ziren ETE-etan aplikatzeko berrikuntza aplikatuko proiektuak.

2. 2015etik aurrera, ikaskuntzan berrikuntza bultzatu da teknologia berrien bidez. Horretarako, lehiakortasuna eta enplegarritasuna bermatzeko eskakizun berriekin lotutako gaitasunak landu dira.

3. Honako dekretu hau argitaratu zen. [85/2015 Dekretua](#); horren bidez Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak eratzen dira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titulartasuneko beste ikastetxe batzuk eraldatuta.

4. [Tkgune](#) proiektua martxan jarri zen, honako hiru arlo hauek lantzen dituzten ETE-etan berrikuntza sustatzeko:

- Ikasteko metodologia berriak
- Ikastetxea antolatzeko modu berri bat
- Irakasteko espazio fisiko berriak zehaztea eta garatzea

5. Adimen lehiakorreko prozesuak txertatu dira, kudeaketa aurreratuko sistemak garatzeko. Helburua ikastetxeak ezagutzen zentro bilakatzea da. Guztira, ia ehun ikastetxek parte hartu dute hainbat diziplinan, eta 700 irakaslek baino irakasle gehiagok parte hartu dute.

6. Euskal enpresekin batera, berrikuntza aplikatuko proiektuak sustatu eta bultzatu dira; batez ere, ETE-etan. Horretan, elkarlan estua garatu da lanbide-heziketako ikastetxeen eta enpresen artean, Euskadin lehiakortasunerako estrategikotzat jo diren arloetan. Zehatz-mehatz, honako hauek landu dira:

- Ingurune estrategikoak: lankidetzaren proiektuen kopurua → 136 proiektu, 21 zentrotan.
- Espezializazio-arloa: 14 arlo desberdin eta 17 proiektu
- Berrikuntza aplikatuko proiektuak: proiektuen kopurua → 47

3. ekimena. Lanbide Heziketari buruzko Euskal Lege baten bitartez, legezko arau marko bat garatzea lanbide heziketari estaldura emateko eta haren garapen zabal, moderno, fidagarri eta sendorako aukera bermatzeko helburuarekin.

1.16.4 helburua. Lanbide-heziketaren eredu berrirantz

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Gobernu Kontseiluak 2015-12-29an onartu zuen [Lehen Heziketari buruzko lege-proiektua](#), eta gaur egun izapidetzen ari da Legebiltzarrean.

4. ekimena. "Euskadiko LH 2015" agenda estrategikoa ezartzea, lanbide heziketaren kontzepzio berria ahalbidetzeko, etorkizuneko proiektio berri batekin eskema berritzaileak garatuz, lehiakortasunaren, prestakuntzaren eta enpleguaren eremuan etorkizuneko joerei aurre hartuz eta joera horiek aldeztu aurretik zehaztuz.

1.16.4 helburua. Lanbide-heziketaren eredu berrirantz

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013-06-05ean, lehendakariak ["Euskadiko LH 2015 Agenda Estrategikoa"](#) aurkeztu zuen Kursalen. Lehen Heziketaren arloko helburuak hurrengo bi urteetarako zehaztu, eta hamaika lehentasun zehaztu ziren.
2. Gobernu Kontseiluak 2014-11-25ean onartu zuen [Lehen Heziketari buruzko IV. Plana](#). Ekoizpen-sektoreetan gertatzen ari diren aldaketa handiei erantzutea eta enplegagarritasuna indartzea dira planaren helburuak. Planean proposatu da Lanbide Heziketaren eredu konbinatua: prestakuntza integratua, berrikuntza aplikatua eta ekintzaitza aktiboa. Formula horren bidez Lehen Heziketa egokitu nahi da enpresen espezializazio-beharretara.

5. ekimena. Lanbide heziketaren eta kualifikazioen euskal sistema integratua indartzen jarraitzea, beharrezko neurriak ezarriz sistema horren barruan unibertsitatearen arlo desberdinak txertatzeko, betiere, jakintza eta esperientzia uztarturik; horretarako, prestakuntza ibilbide malguak egituratzea, gure giza kapitalaren lanbide profila hobetzeko asmoz.

1.16.4 helburua. Lanbide-heziketaren eredu berrirantz

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdian aldizkako koordinazio-bilerak egin dira EAEko hiru unibertsitateekin, Lanbide Heziketako ikasketen kredituak eta unibertsitate-ikasketenak nola baliozkotu zehazteko.

6. ekimena. Lanbide heziketaren euskarazko eskaintza sendotzea, lurralde desberdinetako premia soziolinguistikoen premiei erantzunez eta hirugarren hizkuntza baten jakintza ahalbidetuz, enplegagarritasun aukerak sendotzeko eta gure ikasleen garapen profesionala handiagotzeko lanbide-heziketan abian jarri beharreko plangintza eleanitz baten bitartez.

1.16.4 helburua. Lanbide-heziketaren eredu berrirantz

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014-2015 ikasturtean, 21 ikastetxek parte hartu zuten, eta 33 heziketa-ziklo euskaraz eskaini ziren. Prozesu horretan, 72 irakaslek eta 347 ikaslek parte hartu zuten. Hori dela eta, Lehen Heziketa euskaraz ikasten duten ikasleen ehunekoa 12,5 igo zen.
2. Ziklo hirueledunak egiteko eskaintza ere handitu da 2014tik.
3. Prozesu horren amaieran, 2015etik aurrera B eredua ezarri zen LHn, eta 2013-2016 Euskararen Agenda Estrategikoan jasotako erabakiak bete ziren.
4. Laneki Lanbide Heziketa sustatzeko eta hobetzeko elkarrekin baliabideak prestatzen ditu Lanbide Heziketa euskaraz ikasteko; eta jarduera hori onartu zen.

7. ekimena. Berrikuntza plangintza zehatzak sartzea lanbide heziketako zentroyen ekoizpen, ikaskuntza eta antolamenduaren diseinua hobetzera zuzendutako ekintzen barruan, betiere etengabeko hobekuntza eredu berriak, arinak eta partekatuak ezarriz, eraginkortasunez eta eragingarritasunez lan egiten jarraitzeko.

1.16.4 helburua. Lanbide-heziketaren eredu berrirantz

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Berrikuntza aplikatuko "Innotek" jardunaldiak 2013-07-05ean antolatu ziren, "Tknika" LHRako Berrikuntza Zentroan. EAEko Lanbide Heziketarekin lotutako 350 pertsona bertaratu ziren, gehienak irakasleak; eta 6 alor landu zituzten: egurra, automobilgintza, 3D ikasgela birtuala, energia, material berriak, ikasteko metodologia berriak.
2. 2013-2014 ikasturtean, 42 berrikuntza-proiektu ezarri ziren LHko ikastetxeetan. Ikaskuntza-eszenario berrien gaineko programa garatu zen, LHko zazpi familiatan, eta abian jarri zen goi-errendimenduko zikloa.
3. 2014-2015 ikasturtean, 30 berrikuntza-proiektu garatu ziren ikastetxe publikoetan. Ikastetxe itunduetarako deialdia ere izapidetu zen.
4. 2015. eta 2016. urteetan, eredu berriak landu dira, ikastetxeen garapena eta ikasleen arrakasta-tasa hobetzeko: Euskadiko Lanbide Heziketaren bikaintasun-eredua. [EAEko LH etengabe hobetzeko metodoa \(LEAN\)](#).
5. Kudeaketa-sistema integratuan 28 ikastetxek parte hartzen dute 4 saretan. Halaber, 59 ikastetxe daude, eta prozesuen araberako sistemekin lan egiten dute.

8. ekimena. Lanbide heziketako ikasleei kultura ekintzailea irakasteko eta garatzeko zuzendutako ekintzak dinamizatzea eta handitzea, lanbide heziketako zentroetatik enpresak sortzen lagunduz eta Urratsbat programa bultzatuz eta hobetuz.

1.16.4 helburua. Lanbide-heziketaren eredu berrirantz

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdian, [Ikasenpresa](#) proiektua aurkeztu eta garatu da, ekintzaitza sustatze aldera. Ikasenpresa heziketa-programa da, eta ikasgeletan eskola-enpresak sortzea lantzen da.
2. Era berean, aldizka ezarri da [Urratsbat programa](#) , Lanbide Heziketako ikasleei beren enpresa sortzen laguntzeko.
3. Ekintzaile-kulturaz benetan interesatu diren ikasleen kopurua 6.000 baino handiagoa da, eta azken urteotan 200 enpresa baino enpresa gehiago sortu dira.

9. ekimena. EAEko lanbide heziketa nazioartekotzeko eta Europar Batasunean integratzeko ahaleginak bultzatzea, ikasle eta irakasleen mugikortasunari begira Europako eta nazioarteko programa eta egitasmoetan parte hartuz. Halaber, EAEko lanbide heziketako zentroek Europar Batasuneko beste batzuekin harremanak izateko laguntza emanez, jakintza eta esperientzien trukea lotzeko honako arlo hauetan: prestakuntzan, orientazioan, zentroen kudeaketan, teknologia berrietan eta berrikuntza nahiz hobekuntza dakartzaten guztietan.

1.16.4 helburua. Lanbide-heziketaren eredu berrirantz

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, bilerak egin ziren Hezkuntza, Enplegu, Enpresa eta Industria sailekin, Euskadiko LH 2015 Agenda Estrategikoa jakinarazteko. Horrez gain, Lanbide Heziketan europar programetarako finantzaketa lagunduari eutsi zitzaion. Programa horietako bi [Erasmus](#) eta [Leonardo Da Vinci](#) dira.
2. 2014an, Bruselako Euskadi Ordezkaritzarekin lan egin zen, Europako beste erakunde batzuekiko harremana bultzatzeko. Europako Erasmus programari buruzko hausnarketa-jardunaldia egin zen.
3. 2015eko maiatzean, Eusko Jaurlaritzak buru-lana egin zuen EARLALL Euroeskualdeen elkartean. ([EARLALL \(European Association of Regional and Local Authorities for Lifelong Learning\)](#)).
4. 2015. eta 2016. urteetan, mugikortasun-programa batzuetan parte hartu da. Programok ikasleei zein irakasleei zuzenduta zeuden, eta helburua Euskadiko LH nazioartera zabaltzea zen. Horrez gain, Lanbide Heziketako Nazioarteko Campusa sortu da.

10. ekimena. Lanbide Heziketari buruzko Lege bat aurkeztea, prestakuntza mota hori modu orekatuan txertatzeko ikaskuntza iraunkorraren eredian eta enplegatzailleek eta garapen bideko sektoreek lan merkatuari begira eskatzen dituzten premietan.

1.16.4 helburua. Lanbide-heziketaren eredu berrirantz

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdiaren hasieratik prestatzen ari da Lanbide Heziketari buruzko lege bat EAEn egiteko proiektu batean. Proiektu hori Espainiako Estatuan onartu diren azkeneko legeen arabera moldatu behar izan da, eta Euskadiko eragile nagusien parte-hartzea eta adostasuna bildu dira. Lan horren ondorioz, Gobernu Kontseiluak 2015-12-29an onartu zuen [Lehen Heziketari buruzko lege-proiektua](#), eta gaur egun izapidetzen ari da Legebiltzarrean.

1. ekimena. Bizitza osoan zehar ikasteko lege bat garatzeko lan egitea, gizarte prestatua izateko beharrezko ekintzei estaldura emanez, zentzu kritikoa landuz, elkarbizitzen, erlazionatzen, jakiten eta egiten ikasteko gaitasuna areagotuz eta gizarte konplexuago eta lehiakorrago batean jokatzeko ikasteko prestakuntza egokia emanez.

1.16.5 helburua. Etengabeko ikaskuntza

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. X. legegaldaren hasieran, lege-proposamen moduan izapidetu zen. Eusko Jaurlaritzaren aldeko irizpidea jaso, eta, urriaren 10ean, 1/2013 Legea onartu zen. [Bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko Legea](#) EHAAn argitaratu zen, 2013-10-10ean.

2. Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuari buruzko proiektua garatzeko arau-zirriborroa idazten ari da.

3. 2015ean, ikasleei orientabideak emateko eta pertsonen bizitzako hezkuntza-beharren gaineko orientabideak emateko eredu berriaren diseinua landu zen. Era berean, eskarmentuaren eta bide ez-formalen bidez eskuratutako gaitasunen gailua ezarri zen. Gailu hori arautuko duen dekretua izapidetzen ari da.

4. Dekretu bidez eratu ziren: [Lehen Heziketako Sormen Aplikatuaren Euskal Institutua \(IDEATK\)](#); [EAEko Lanbide Heziketan Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroa](#); eta [Lanbide Heziketari buruzko Ezagutzaren Euskal Institutua](#).

2. ekimena. Gaitasunak lantzerantz bideratzen diren ekintzak gehitzea ikaskuntza ez-formalen eta informalen bitartez.

1.16.5 helburua. Etengabeko ikaskuntza

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Lan-eskarmentuaren edo bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-gaitasunen prozedura EAEn ezartzen duen dekretua izapidetu ondoren, zenbait deialdi egin dira legealdian, lan-eskarmentuaren edota bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-gaitasunak egiaztatzeko. Horrez gain, irakasleak ikaskuntza-eszenario berrietan trebatzeko proiektuak garatu dira.

3. ekimena. Prestakuntza-ekintzak gehitzea eskaintza partzialeko formatuan, betiere kualifikazio profesionalak eskuratu, eguneratu edo hobetu nahi dituzten pertsona guztien ikaskuntza aukerak areagotuz eta malgutuz.

1.16.5 helburua. Etengabeko ikaskuntza

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdian, Lehen Heziketako moduluen irakaskuntza-eskaintza egin da, eskaintza partzialeko modalitatean.
2. [2014-12-30eko Ebazpena, Lanbide Heziketako sailburuordearena](#), argitaratu zen; horren bitartez, bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko jarduerak egiteko diru-laguntzak ematea erabaki zen.
3. [211/2015 Dekretua, azaroaren 10ekoa](#), argitaratu da; horren bidez, lan-eskarmentuaren bidez edo prestakuntzarako bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzekeo prozedura eta antolamendua ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoan.

4. ekimena. Herritarrei zuzendutako orientazio estrategikoko mekanismoak sortzea eta ezartzea, enpleguranzko prestakuntza ibilbide pertsonalatuak definitzeko.

1.16.5 helburua. Etengabeko ikaskuntza

Arduraduna: Jorge Arévalo Turrillas (Lanbide Heziketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdian, ikaskuntza-bitartekarien jarduera garatzeko prozesua abian jarri da. Horren harira, Lanbide Heziketako ikastetxeetan orientazio-sistema berria diseinatu da. Bertan bestelako antolaketa jaso da.

2. [2014ko urriaren 27ko Ebazpen bateratua](#), Lanbide Heziketako sailburuordearena eta Enplegu eta Laneko sailburuordearena; horren bidez, gaitasun-unitate jakin batzuei dagokienez lan-eskarmentuaren edo/eta prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurara deitu zen.

3. 2015eko azaroan, [211/2015 Dekretua](#) argitaratu zen; horren bidez, lan-eskarmentuaren edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez [eskuratutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura eta antolamendua ezartzen dira](#).

4. 2015eko abenduan, [Ebazpen bateratua, Lanbide Heziketako sailburuordearen eta Lanbideko zuzendari nagusiarena](#) argitaratu zen; horren bidez, berriro ere deitu zen lan-eskarmentuaren edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura.

1. ekimena. Euskal unibertsitate sistemaren gaur egungo egoera ebaluatzea, betiere gobernantzaren, irakaskuntzaren eta ikasketa eskaintzaren eremuan hobekuntzak ezartzeko helburuarekin.

1.16.6 helburua. Euskal Unibertsitate Sisteman kalitate gorakorra

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko ekainean zabaldu zen gradu-, master- eta doktoretza-tituluen jarraipen-plana. Horrek eskaintzen ditu errendimendu akademiko eta enplegarritasunaren gaineko emaitzak, baita tituluekin lotutako baliabide material eta giza baliabideak zenbateraino bete diren jakitea ere.
2. 2014. urtean jarriko da abian tituluen egiaztapena berritzeko programa pilotua. Horren helburua da unibertsitateko bederatzi titulu, gradu bat eta zortzi masterren egiaztapena berritzeko prozedura probatzea, euskal unibertsitate sisteman.
3. Halaber, Eur-Ace programa sinatu da, europar ingeniari-tituluak egiaztatzeko. Horren bidez, europar eremuko tituluen aitortpena homologatuko da Mondragon Unibertsitateko Ingeniari-titulu baten bitartez.
4. 2014-12-30ean, Gobernu Kontseiluan onartu zen [V. Unibertsitate Plan Estrategikoa](#), eta Legebiltzarrean aurkeztu zen 2015-02-25ean.
5. Ondoren, programa-kontratuak idatzi eta adosteari ekin zitzaion, Unibertsitate Planaren arabera Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateen artean egin behar ziren eta –Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea–.

2. ekimena. Pertsona tituludunen enplegarritasuna sustatzea, enpresetan praktikak egiteko programak eta egitasmoak abiaraziz, ekintzailtzarako gaitasunak sustatuz eta doktoreen jakintza eta berrikuntza transferitzeko gaitasunak balioetsiz.

1.16.6 helburua. Euskal Unibertsitate Sisteman kalitate gorakorra

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, [Lehen Aukera Programa pilotua](#) abiarazi zen. Unibertsitateko gradu- eta master-tituludun gazteei zuzendua dago, lanbide-praktikak enpresetan eta ingurune sozioekonomikoan egin ditzaten hiru hilabeteko epean, Enplegu Planaren testuinguruan. 2015. urtetik, Lehen Aukera programa berrietan Lanbiderekin egin da elkarlana, programa horiek unibertsitateko tituludun gazteei zuzenduta baitaude. [2015eko deialdia](#).

2. 2015-2018 Unibertsitate Plan berriak eta bertan ezarritako programa-kontratuek indarra hartzean, abiada eman zitzaion zenbait jarduketari; izan ere, [2014-2016 Enplegu Planean](#) [1] ezarritakoaren arabera zeuden jasota programa-kontratueta. Helburua enplegarritasuna, ekintzailtza eta laneratzea sustatzea zen, profil egokietarako prestakuntzaren eta bizialdi osoko prestakuntzaren bidez. Adibidez, doktoreen enplegarritasuna eta lan-merkaturatzea sustatzeko jarduketak: unibertsitateek enplegarritasun-planak eta ekintzailtza-programak egiten dituzte, hala ikasleentzat nola titulua lortu dutenentzat.

[1] [Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa](#).

3. ekimena. Gradu ondoko eskolen bikaintasuna eta nazioartekotzea sustatzea, gutxien-gutxienik ekimen publikoko zentro batek oso maila altua lortzeko helburua izanez, haren prestakuntza eskaintzaren kalitateari dagokionez; era berean, zentro hori bikaintasuneko ikerketa taldeentzat erakargarria izatea erdiestea, betiere nazioarteko sailkapenak prestatzeko erabiltzen diren irizpideekin bat etorriz.

1.16.6 helburua. Euskal Unibertsitate Sisteman kalitate gorakorra

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, [UPV/EHUko graduondokoan mapa](#) egin zen. Horri esker, geroago, plan estrategiko bat egin zen: batetik, lehentasuna eman zitzaien bikaintasuneko masterrei; eta, bestetik, eskaintza indartzea behar zuten taldeak eta alorrak identifikatu ziren.

2. 2014an, Master eta Doktorego Eskola bultzatzeko jarduketa hitzartua sartu zen 2015-2018 Unibertsitate Planean.

3. [2015-2018 Unibertsitate Plan](#) berriak ezarritako programa-kontratuen barruko jarduketa batzuek helburu nagusitzat dute Euskal Unibertsitate Sistemaren balibideak eta gaitasunak garatu eta bideratzea bikaintasuneko ikerketa egitera, nazioarteko proiektioarekin; hartara, inpaktu handieneko ikerketa bultzatuko da, Euskadiko Zentzuzko Espezializazio Estrategiaren erronken ildotik doana, unibertsitatearen bikaintasuna eta nazioartekotzea sustatze aldera.

4. Ikerketa bultzatzeko helburu berean bildu dira ikertzaile gazteak prestatzeko jarduketak. Era askotarikoak dira, beraz, jarduketak, eta hauek nabarmendu daitezke: ikertzaileak nazioarteko irizpideekin kontratatuzera bideratuak, Nazioarteko Bikaintasun Campusak bultzatzekoak, Ehubaq mugaz gaindiko campusaren sustapena edo ikertzaileen prestakuntzarako laguntzak. Hartara, [Euskadi Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa](#)ren helburuak erdiesteko laguntza emango da, bai eta, eskumeneko duen neurrian, Akitania-Euskadi Plan Estrategikoa eta Euskadi 2020 Agenda Estrategikoa bultzatu ere.

4. ekimena. Unibertsitate-ikasketen titulazioen mapa sendotzea Unibasq kalitatearen euskal agentziaren laguntzaz, betiere European Quality Association-en erregistroan haren sarbidea ahalbidetuz.

1.16.6 helburua. Euskal Unibertsitate Sisteman kalitate gorakorra

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdian abian jarri da Unibasq-en ebaluazio-prozesua, Kalitatearen Europako Agentziak egin (ENQA).
2. Zenbait kudeaketa eta urrats egin ondoren, 2014ko urrian jaso zen Enqa-ren ([European Quality Agencies Registry](#)) egiaztapena. Horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena dauka gradu-, master- eta doktorego-tituluak egiaztatzeko. Hurrengo hilabetean, azaroan, Enqa-n erregistratzeko baimena jaso zen.
3. 2015. urtean, [Unibasq](#) Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak egiaztapenak berritu zizkien Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako titulu ofizial gehienei.
4. 2015ean, halaber, [2016-2020 Plan Estrategikoa](#) prestatu eta onartu zen. Unibasqeko Gobernu Kontseiluak 2015eko abenduko bileran onartu zuen Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lehenengo programa-kontratua.

5. ekimena. Master eta graduiko ikasleen mugikortasuna sustatzea, haien nazioarteko esperientzia eta gaitasuna hobetzeko asmoz.

1.16.6 helburua. Euskal Unibertsitate Sisteman kalitate gorakorra

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, atzerrian masterrak ikasteko laguntzak emateko programa zabaldua eta berria diseinatu zen Unibertsitate Politika arloan.
2. 2014an, [Erasmus+ programaren](#) bitartez, atzerrian master-ikasketak egiteko diru-laguntzen kopurua nabarmen handitu zen, aurrekoarekin erkatuta.
3. 2015eko azaroan aurkeztu zen Zientzia Euskadin 2014ko Txostena. Ikerbasque-k prestatu zuen, [Ikerboost - Zientziaren Euskal Behatokia](#)ren bitartez. Txosten horretan jasotakoaren arabera, Euskadik postu bat egin du gora autonomia-erkidegoen sailkapenean, eta argitalpen zientifiko indexatuak 5.000 baino gehiago izan dira. Ikus daitekeenez, era berean, Euskadiko ekoizpen zientifikoa hirukoiztu egin da azken hamarkadan, eta ekoizpen zientifikoaren hazkunde hori nazioarteko lankidetzari handiagoarekin batera gertatu da, argitalpenetako lidergoari eutsita.
4. [2015-2018 Unibertsitate Planak](#) indarra hartzearekin batera –plan horren jarduketetako asko bat datoz [Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2020 Planean](#) eta [Ikerbasque 2014-2017 Plan Estrategikoan](#) bultzatzen direnekin–, bikaintasunezko ikerkuntza bultzatzen da, eta ikerketa eta transferentziarako programa-kontratuak frogatzen du hori; bertan jasotzen diren jarduketa batzuen helburua nazioarteko garrantzia eta proiektzioa izango duen ikerkuntza bultzatzea da.

6. ekimena. Unibertsitate plangintza berritzea, hiru zikloetan kalitatezko tituluen eskaintza harmonikoa sendotzeko eta Unibertsitate Sistemak Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sistemara egin beharreko ekarpen ikertzailea indartzeko.

1.16.6 helburua. Euskal Unibertsitate Sisteman kalitate gorakorra

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014. urtearen hasieran, [2014-2017 Ikerbasque Plan Estrategikoa](#) aurkeztu zen. Bertan, oinarrizko helburu bi ezarri dira, ikerketa-jarduerak hobetzeko: 2017an, 7.000 artikulua argitaratuta izatea; eta autonomia-erkidegoen sailkapenean hiru postu igotzea.
2. Horrez gain, [Ikerboost Txostena](#) aurkeztu zen 2014an, Zientziaren Euskal Behatokian Txosten horretan jasotakoaren arabera, Euskadik postu bat egin du gora autonomia-erkidegoen sailkapenean, eta argitalpen zientifiko indexatuak 5.000 baino gehiago izan dira.
3. Gobernu Kontseiluak [V. Unibertsitate Plana 2014-2017](#) onartu zuen 2014-12-30ean. Honen bitartez jasotako ekimena betetzeko, erreferentzia-dokumentuetako bat da hori, hain zuzen ere.

7. ekimena. Nazioartean erreferentziazkoak diren unibertsitateetan euskal katedren sarearen koordinazioa hobetzea eta Euro Campus sarea sortzea.

1.16.6 helburua. Euskal Unibertsitate Sisteman kalitate gorakorra

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko urrian, [Eurobaq Europako Bikaintasunaren Campusa](#) sortu zen Bordeleko Unibertsitatearen, Pauko Unibertsitatearen eta UPV/EHUren artean. Horren helburua da baterako tituluak eskaintzea eta ikerkuntzarako alor estrategikoetan elkarlanean aritzea.
2. 2014-11-19an, Bordeleko Unibertsitateko errektoreak eta UPV/EHUko errektoreak sinatu zuten [Ehubaq sortzeko hitzarmena](#), lehendakariaren eta Akitania eskualdeko lehendakariaren aurrean.
3. Europako Bikaintasunaren Campuseko topaketak aldizka antolatzen dira. Azkena 2015. urtearen amaieran egin zen, abenduan.

8. ekimena. Unibertsitate zerbitzu kopuru handiagoa ematea e-Administrazioaren bitartez.

1.16.6 helburua. Euskal Unibertsitate Sisteman kalitate gorakorra

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, bekak eskatzeko X75 informatika-aplikazioak hobetu ziren. Y44 aplikazioa abiarazi zen, Erasmus bekak, lankidetzak-bekak, doktoratu aurreko eta ondoko bekak, mugikortasuna sustatzeko bekak, ikerketa-biltzarrak eta -proiektuak sustatzeko bekak eskatu eta kudeatzeko.

2. 2014ko maiatzean, Eusko Jaurlaritzaren informazio-webguneko atal bat diseinatu zen, [euskal unibertsitateko sisteman eskaintzen diren titulu](#)ei buruzkoa. Honako aplikazio hauek martxan jarri ziren:

- W20, erregistroko aplikazioa da, eta, aldaketak eta hobekuntzak egindakoan, graduen gaineko akreditazioak eta egiaztapenak izapidetzeko balio du.
- X75 aldatu da. Aplikazio horren bidez beka orokorren eskabideak kudeatzen dira.

3. Horrez gain, UPV/EHUrekin hitzartutako jarduketa bat erabaki zen, e-Administrazioaren bidez eskaintzen diren zerbitzuak handitzeko.

4. 2015eko lehenengo hiruhilekoan amaitu ziren egokitzapenak eta aldaketak bekak kudeatzeko aplikazio informatikoetan, Unibertsitate Zuzendaritzari eta unibertsitateei eurei dagokien guztian. Aurrera egin da, baita ere, diputazioekin informazioa trukatzeko sistema informatikoan, eta espero izatekoa da 2016ean zehar hobekuntzak lortuko direla informazioa trukatzeko erakundearteko esparruan.

5. Halaber, [Euskadiko Ikerketa](#)sariaren eskaera bide telematikoz egin ahal izatea lortu da. Horri esker, Zientzia Politikoaren arlotik kudeatzen diren deialdi publiko guztien % 100 bide telematikoz kudeatzen dira.

9. ekimena. Euskal Unibertsitatearen sistema publikoaren finantzazio sistema egokitzea, haren nahikotasuna bermatuta, helburuen arabera kudeaketa eredu sendotuz joateko.

1.16.6 helburua. Euskal Unibertsitate Sisteman kalitate gorakorra

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, programa-kontratuen emaitzak ebaluatu ziren, [EHU/UPV](#)rekin batera. Maiatzaren 30ean, Unibertsitate Planari buruzko jardunaldiak egin ziren, eta EAEko unibertsitate-sistemako hiru unibertsitateek parte hartu zuten. Jardunaldi horietan, hitzartutako bederatzi helburuak zenbateraino bete izan ziren ebaluatu eta 2015-2018 Unibertsitate Planaren lerro estrategikoak (Eusko Jaurlaritzak ezarrita) eztabaidatu ziren.
2. 2014ko lehenengo sei hilekoan, unibertsitate-jardunaldiak antolatu ziren. [Innobasquek](#) parte hartu zuen, gai horren gainean egindako plangintza estrategikoaren ebaluazioaren emaitzak jakinarazteko, euskal sistemako unibertsitateen arteko jardunbide egokiak transferitze aldera.
3. 2015. urtean, jarraipena eman zitzaion EHUren gerakin edo geldikin espezifikoen azterketari. 2015eko ekainean, Ministerioan egindako bilera bat egin zen, unibertsitate publikoetan kontabilitate analitikoaren ezartzeko proiektuan parte hartzeko.
4. Kontabilitate-sistema garatzean azterketa bat egin da herri-unibertsitatearen I. aurrekontu-kapitulua aurkezteko moduari buruz, kapitulu hori eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko zerbitzuek erabiltzen dituzten moduak bateratzeko, gainjartzerik edo interpretazio-zailtasunik ez egote aldera.

10. ekimena. Lankidetzak-akordioak eta aliantzak indartzea atzerriko prestakuntza-zentroekin, trukeak eta zentro horietan Euskadiko gazteak sartzeko aukera sendotuz.

1.16.6 helburua. Euskal Unibertsitate Sisteman kalitate gorakorra

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldian, [Erasmus+](#) programan sustatu dira mugikortasuna bultzatzeko bekak. Ikasleek aukeratu ditzaketen mugikortasun mota konplexuagoak eta askotarikoak gehitu dira: besteak beste, curriculum-ziklo guztietan mugikortasun-ekintzak egiteko aukera dute, baita curriculumetik kanpokoetan ere. Izan ere, gradua amaitutakoan, praktikaldia egin dezakete atzerriko enpresa batean.
2. Horrez gain, [2015-2018 Unibertsitate Planeko](#) programa-kontratuetan zenbait ekintza jaso dira, ikasleei eskaintzeko Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko zentroetan, beste herrialde batzuetako zentroetan eta zenbait estatutan egoitza duten enpresetan elkarlanak egitea edo parte hartzea.
3. Ikasleen mugikortasunaz gain, ikasleen, ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen mugikortasuna bultzatzeko jarduketak egin dira 2015ean, bai eta irakaskuntza nazioartekotzeko ere. Jarduketa horien helburua da egitura egonkorra lortzea –akordioak eginda atzerriko unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin– eta sareetan parte hartzea, atzerriko ikasleak ere erakartze aldera Euskal Unibertsitate Sistemara, ikasi eta ikertzeko, edota euskal enpresetara, haien nazioartekotzea sustatze aldera, praktika-programekin edo tesiekin adibidez.

1. ekimena. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Sarearekin elkarlanean eta lankidetzan, ikerketa sustatzea, bereziki haren kalitateari men eginez, ikertzaileen mugikortasuna erraztuz eta euskal sare sozioekonomikora irekiz, betiere Europako eta munduko testuinguruan lehiakorragoa izan dadin.

1.16.7 helburua. Politika zientifiko indartua eta jasagarria

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013-10-13an, ESSBilbao Teknologia neutronikoen zentroko Kontseilu Errektoreak erabakia hartu zuen, partzuergoa berritu eta ASS Lund-ekiko harremanean Eusko Jaurlaritzaren partaidetza indartzeko, eta adostutako ekarpen finantzarioak aldatzeko.
2. 2014an, ESSBilbao zentroak, ESSLund-en norgehiagokan, lortu zituen bideragarritasun-planear planifikaturik zeuden hiru lan-paketeak: Target, MBET, RF. ESSBilbaon betetzeko 13 lanpostu eskaini ziren, lortutako hiru lan-pakete horiek abian jartzeko.
3. 2015ean, Estatuko Administrazio Orokorrarekin negoziatu zen ESSBilbao zentroaren hitzarmenaren aldaketa. Aldaketa horren bidez, zentroaren jarduera laborategi zientifiko-teknologiko independentea izango balitz bezala finantzatu daiteke, Eric europar esparruan. Helburua "Espalazio bidezko neutroien europar iturria" eraikitzea eta martxan jartzea da.
4. 2015eko azken sei hilekoan, Batzorde Betearazleak eta Kontseilu Errektoreak bilera batzuk egin zituzten, 2016ko aurrekontua onartzeko. Horrez gain, beste leku batzuetan dauden pertsonak eta sistemak Zamudiora lekualdatzea erabaki zuten, zerbitzua hobeto egiteko eta eraginkortasuna areagotzeko.

2. ekimena. Jakintzan lan egiten duten ikertzaileen, jakintza transferitu behar duten agenteen eta jakintza abian jartzen duten enpresen eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.

1.16.7 helburua. Politika zientifiko indartua eta jasangarria

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdian, zenbait informazio-jardunaldi antolatu dira; batetik, [OIBZ](#) (Oinarrizko ikerketa eta bikaintasun-zentroak), [CIC](#) (instrumentazio zientifikoko zentroak) eta [Bio Ikerketa-zentroak](#); eta, bestetik, [Ikerbasque Plan Estrategikoa](#) jakinarazteko, haien artean integrazio eta lerrokatze handiagoak lortze aldera.
2. Koordinazio hori gero eta hobe izan dadin, etengabeko harreman erraza bermatzen da, [Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasunerako sailburuordetzarekin](#).

3. ekimena. OIBZ programa indartzea eta ikerkuntzako talde egonkortuen finantzazioa sustatzea, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sistemaren oinarritzko ikerketa aplikatuaren eragile nagusi gisa.

1.16.7 helburua. Politika zientifiko indartua eta jasangarria

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014ko urtarrilean, [2014-2027 OIBZ Programaren](#) deialdia egin zen. Ondoren, zenbait bilera egin ziren OIBZ zentroekin (Oinarritzko ikerketa eta bikaintasun zentroak), bien arteko zirrikituak, deialdia eta programa ezagutarazteko.
2. Aurreko aldiko diru-laguntzen deialdia bukatutakoan, 2015eko azaroan, [EAeko Unibertsitate Sistemako diru-laguntzak eskatzeko deialdia](#) zabaldu zen (talde finkatuak), eta 2016tik 2021era ahalbidetuko du haien finantzaketa.
3. 2015eko abenduan, OIBZ zentroen jarraipena egin zen, eta bereziki aztertu zen jarraipen-adierazleen sistema.

4. ekimena. Talentua erakartzeko eta berreskuratzeko politiketan sakontzea, talentua erakartzeko zereginari lehentasuna emanez Euskadiko gizarte eta ekonomi garapenari loturik dauden eremu estrategikoetan.

1.16.7 helburua. Politika zientifiko indartua eta jasangarria

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. [Ikerbasque Research Fellows Programme](#) deituriko programaren bidez, legealdi honetan 100 ikertzaile inguru etorri dira Euskadira. Era berean, ikertzaileak kontratatzeke moduaren aldaketa abian jarri da, atxikitze-zentroek ere kontratazioa egiteko ardura gain har dezaten; % 40ko parte-hartzea dute.
2. [Ikerbasque Research Professors](#) izateko deialdiak ere egin dira, ikertzaile finkatuei zuzendutako lanpostuak esleitzeko; batez beste, hogeit hamar irakasle urtean. Marie Curie europar programak finantzatzen du programa hori. 2014ko deialdian 25 plaza *–research professor* eta *reseach fellow* modalitateetan ebatzi ziren.
3. 2013ko uztailean, Ramon Rubial saria eman zitzaion Ikerbasque Programari.
4. 2015ean, Ikerbasque *research fellow* ikertzaileen ikerketa-ibilbidea jarraitzeko aukerak aztertu ziren, eta Ikerbasque Research Associate figura proposatu zen.
5. 2015eko azaroan, [Euskadi 2015eko Zientzia Txostena](#), Ikerbasquek egin, aurkeztu zen.

5. ekimena. Bikaintasuneko zentro publiko baten bideragarritasun ekonomiko eta akademikoa aztertzea, ikerkuntza proiektu zehatzak erakartzeko, eta zentro hori talentua erakartzeko eta hari eusteko toki bihurtzea, gure inguruan jarduera ekonomikoa sorrarazteko eta, aldi berean, nazioarteko prestigioa erdiesteko.

1.16.7 helburua. Politika zientifiko indartua eta jasagarria

Arduraduna: Adolfo Morais Ezkerro (Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015ean, bikaintasun-zentro publiko baten bideragarritasunari buruzko barneko azterketa egin zen. Asmoa zentro horretan ikerketa-proiektuak bultzatzea eta bideratzea zen. 2015eko azaroan, Drug Delivery Systems ikertzeko Industria Zentroaren bideragarritasun ekonomiko eta akademikoari buruzko proposamena aurkeztu zen.

1. ekimena. Topaketa eta lankidetzaren eremuak garatuko dituzten akordioak lortzea hezkuntza eragileekin eta hizkuntza normalizazioan, osasunean, gizarte zerbitzuetan eta abarretan eskudunak diren erakunde eta organismoekin

1.16.8 helburua. Hezkuntza-akordio egonkorra

Arduraduna: Cristina Uriarte Toledo

(Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua)

Jarduketak

1. Legealdi osoan, Jaurlaritzako sailekin lan egin da: Segurtasun, Osasun eta Enplegu eta Gizarte Politika sailekin. Horrez gain, sail horietako sailburuordetzekin ere lan egin da, azterketaren arabera, ikasleentzat interesgarriak izan litezkeen programetan.

2. ekimena. Euskal hezkuntzaren eskumen markoaren defentsa eta garapena sustatzea, euskal autogobernuaren oinarritzko osagai gisa.

1.16.8 helburua. Hezkuntza-akordio egonkorra

Arduraduna: Miren Arantza Aurrekoetxea Bilbao (Hezkuntza sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdian, Eusko Jaurlaritzak behin eta berriro adierazi du LOMCE legearen aurkako iritziak, eta etengabe bilatu ditu EAEko hezkuntza-sistemaren babes eta garapena bermatzeko akordioak. Jarrera horri laguntza eta babes handia eman diote hezkuntza-erkidegoak eta Legebiltzarrak.

2. Zenbait “frontetan” lan egin da: Hezkuntza Konferentziako eta Ministerioko bileretan parte hartu da Madrilan. Euskadin hainbat bilera egin dira hezkuntza-eragileekin, egoera aztertzeko, hausnarketak egiteko eta jarrera partekatuak eta adostuak hartzeko. Halaber, hezkuntzako sindikatuekin bilerak egin dira, gure jarreraren berri emateko eta LOMCE legearen edukiei buruzko zalantzak entzuteko.

3. Horrez gain, [Heziberri 2020 Plana](#) osatu, aurkeztu eta adostu zen. Plan horrek 2020rako Europako markoak ezarritako berrikuntza eta garapenerako ildo estrategikoak elkartzeko asmoari erantzuten dio, hezkuntzaren eta prestakuntzaren gainean, gure testuinguru eta ingurunearen berezko hezkuntza-erronkak kontuan hartuta. Hiru proiektu hartzen ditu barne: 1) “Berezko hezkuntza- eta pedagogia-ereduaren markoa” osatu eta adostea; 2) Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumak ezartzen dituzten dekretuak osatu eta adostea; 3) Hezkuntzaren Euskal Leherantz urratsak ematea.

4. Eusko Jaurlaritzak baliabide eskuragarri guztiak erabili ditu, EAEko ikasleen interesak defendatzeko, beharrezkoa zen babes juridikoa erabilita. Besteak beste, nabarmentzekoak dira honako hauek:

- Eskumengabetasun-errekerimendua, eskumen-gatazka positiboa planteatu aurretik, Ministroen Kontseiluak honako artikulua hauek indargabe ditzala: 3.1. a) eta b) 6. eta 7.; 4; 5; 8.4 artikulua lehen zenbakia; 12.4, lehen zenbakia eta bosgarren xedapen gehigarria; otsailaren 28ko 126/2014 Errege Dekretuaren lehenengo eta bigarren letrak (Dekretu horren bidez ezartzen da Lehen Hezkuntzaren oinarritzko curriculumak) (Gobernu Kontseiluaren 2014-04-29ko akordioa).

- Bi Aldeko Kooperazio Batzordearen akordioa –Estatuko Administrazioa eta EAEko Administrazioa– , Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premia buruzko 14/2012 Errege Lege Dekretuaren gainekoa (Bi Aldeko Batzordearen Akordioa, 2013-01-18koa).

- Bi Aldeko Kooperazio Batzordearen akordio partziala –Estatuko Administrazioa eta EAEko Administrazioa– , Hezkuntzaren kalitatea hobetzeari buruzko 8/2013 Lege Organikoaren gainekoa (abenduaren 9ko 8/2013 Legea) (Bi Aldeko Batzordearen Akordioa, 2014-08-29koa).

- Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa, 8/2013 Lege Organikoaren zenbait manuri buruzkoa (8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren Kalitatea hobetzeari buruzkoa) (Gobernu Kontseiluaren Akordioa, 2014-02-25koa).

3. ekimena. Euskal hezkuntza sistemari koherentzia eta egonkortasuna emateko hezkuntza akordioa bultzatzea eta sustatzea, Hezkuntzari buruzko Euskal Lege bateranzko urratsak emanez, Lanbide Heziketari buruzko Lege batekin eta bizitza osoan zehar ikasteari buruzko lege batekin.

1.16.8 helburua. Hezkuntza-akordio egonkorra

Arduraduna: Cristina Uriarte Toledo

(Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza-eragileekin batera, [Heziberri 2020 Plana](#) abian jartzea erabaki zuen (2013ko urrian). Plan horrek 2020rako Europako markoak ezarritako berrikuntza eta garapenerako ildo estrategikoak elkartzeko asmoari erantzuten dio, hezkuntzaren eta prestakuntzaren gainean, gure testuinguru eta ingurunearen berezko hezkuntza-erronkak kontuan hartuta. Hiru proiektu ditu:

- “Berezko hezkuntza- eta pedagogia-ereduaren markoa” osatu eta adostea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumak ezartzen dituzten dekretuak osatu eta adostea.
- Hezkuntzaren Euskal Leherantz urratsak ematea.

2. Heziberri 2020 Plana garatzeko epe guztiak betetzen ari dira, lehenengo bi proiektuei dagokienez, hirugarrenari ekiteko asmoz. Legea: hezkuntza-eragileekin, sindikatuekin eta, laster, Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politikoekin ere bilerak egiten hasi da, lege-proiektua osatzeko urratsak egiten hasteko.

1. ekimena. Herritar helduen artean euskal hiztunen kopurua handitzen jarraitzea, helduak euskalduntzeko sistema sendotuz eta finkatuz HABEren bitartez.

1.17.1 helburua. Euskararen gizarte hazkundera

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Diru-laguntza indibidualen deialdia](#) duela ia 10 urte arri zen abian ikaskuntza prozesu eraginkorrak sustatzeko eta ikasleek matrikulazio-gastuen zati bat berreskuratzeko. 2012an aurreko gobernuak bertan behera utzi zuen deialdia; horregatik lehentasun osoa eman zaio berriz ezartzeari, eta material berriak sortu eta [Ikasten](#) plataforman digitalizatu dira: [Murgilduz](#) eta [Dendaketan](#).

2. 2013an [Habek](#) arautegi aplikagarria eguneratu zuen herritarren beharretara moldatzeko: [179/2003 Dekretua](#); helduei euskara irakasteko oinarritzko curriculumari buruzko aginduak; euskaltegien erregistroari buruzko agindua; euskaltegiei diru-laguntzak emateko baldintzak ezartzen dituen ebazpena; urteko barne ebazpena; etab.

3. 2014an ikasleentzako [2015eko banakako laguntzen deialdia](#) egin zen, 2014ko matrikula-gastuen zati bat berreskuratzeko. Hornidura: 800.000.- €, aurreko deialdian baino % 25 gehiago. [Poziktibity](#) proiektuaren barruan helduak euskaltegietan matrikulatzeko kanpaina sustatu zen.

4. 2015eko uztailan helduei euskara irakasteko [oinarritzko curriculum](#) eta euskararen gaitasuna ziurtatzeko sistema onetsi ziren. Testu berriak Europako hizkuntzen markoan ezarritako sei mailak zehazten dira: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2). Gaur egun beste testu batzuk ari gara lantzen curriculum berriak bildutako irizpideak txertatzeko.

5. 2015ean beste ekimen batzuk ere abiarazi ziren: Euskal etxeentzako 2015/2016 aldiko [deialdia](#); [Heoc](#) ezartzen duen agindua (indarrean 2015-10-01etik); A2 maila egiteko ikasmaterial integrala prestatu zen eta B1 mailakoa prestatzeko kontratua esleitu zen; [“Dendaketan”](#) ikasmateriala digitalizatu eta on line jarri zen; 2015-2016 aldiko laguntzak udal euskaltegientzat eta euskaltegi pribatu homologatuentzat; [“Iraila Poziktibity da”](#) kanpaina 2015-2016 helduak euskaltegietan matrikulatzeko; gure maila-eskala Europako markora moldatu zen eta Markoaren irizpide batzuk gure egoera soziolinguistikora egokitu ziren, haren oinarri pedagogikoak barneratuz.

2. ekimena. Euskararen erabilera gizarte eremu desberdinetan sustatzea, bereziki gazteek beren aisialdia eta ohiko hartu-emanak garatzen dituzten eremuetan eta lan nahiz gizarte eremuetan. Bidenabar, elebidun pasiboek euskararen erabileraren zabalkundeari emandako laguntzaren gizarte aitortzea bultzatzea

1.17.1 helburua. Euskararen gizarte hazkundera

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskararen sustapenerako "Euskalgintza 2013" deialdiaren bidez 136 proiektuk jaso zuten diru-laguntza. Ildo beretik, "LanHitz 2013" deialdiaren bidez 179 erakundek jaso zuten laguntza ekonomikoa (2012an baino % 10 gehiago izan dira). Urte berean enpresa gehiagok jasan zuten kanpoko ebaluazioa Hizkuntzaren Kalitatearen Kudeaketari buruzko **Bikain** ziurtagiria lortzeko.
2. 2013an, 2013-12-26ko aginduaren bidez, **Euskalgintza 2014** deialdia egin zen. Haren bidez 131 proiektu finantzatu ziren.
3. 2014an **LanHitz 2015 laguntzen** deialdia argitaratu zen; horren bidez diru-laguntzak eman ziren entitate pribatuek Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten lantokietan euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko.
4. 2015eko otsailean bi urterako deialdia egin zen Ebpn/Esep 2015/2017 planak gauzatzeko. Horrez gainera **Euslan** programa pilotua abiarazi zen xede honekin: euskara lan-hizkuntza izatea enpresetan.
5. 2015eko uztailan **Euskalgintza 2015-2016** deialdia egin zen: 219 proiektu aurkeztu ziren eta 130ek jaso zuten diru-laguntza. Diru-laguntzak eman ziren euskara eremu informaletan bultzatzeko eta sendotzeko proiektuak egiteko: astialdiko begiraleak, gizarte harremanak, kirol jarduerak...). Lehenetsuna eman zitzaizkien haurrak eta gazteak xede zituzten proiektuei. Zuzkidura 758.000.- €-koa da, Euskalgintza deialdiaren % 77,43.
6. 2015eko abenduan Lehendakariak **Bikain** euskararen kalitate ziurtagiria eman zien arlo guztietako 65 erakunderi.

3. ekimena. Euskararen bizitokiak eta eremu funtzionalak sustatzea eta indartzea, familia bidezko transmisioa bermatuz, haurren eta gazteen gaur egungo belaunaldientzako familia hizkuntza izango dela ziurtatzeko eta guraso euskaldun berriek ere ondorengoei pasatuko dietela errazteko.

1.17.1 helburua. Euskararen gizarte hazkundera

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015ean aurrera egin zuen [Poziktibity](#) proiektuak; kanpaina hauek egin ziren: “[Partekatzea poziktibity da](#)” “[Iraila Poziktibity da](#)”, “[Nahi izatea Poziktibity da](#)”, [Euskaldun berria kalea](#). Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, euskaldun berriak omendu ziren. Aitormen berezia egin zitzaien euskara ikasi duten gurasoei edota seme-alabek euskaraz heztea hautatu dutenei.
2. 2015eko abenduan [Hakobak Euskararen txantxangorria](#) sortu zuen; txantxangorri hau euskararen ikurra da eta herritarrei euskara erabiltzeko gonbidapena luzatzen die. Ildo beretik, [Euskalgintza 2015-2016](#) deialdiko zati bat euskara familia giroan transmititzeko aukerak sendotzeko proiektuetarako izan da.
3. 2015eko otsailean bi urterako deialdia egin zen [Ebpn/Esep 2015/2017](#) planak gauzatzeko. Horrez gainera [Euslan](#) programa pilotua abiarazi zen xede honekin: euskara lan-hizkuntza izatea enpresetan.
4. 2014an eta 2015ean diru-laguntza izendunak eman zitzaizkien [Topaguneari](#) (2015) [Bidaide](#) proiektua garatzeko eta [Mintzapraktika](#) programak koordinatzeko eta lantzeko.
5. 2015ean Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera sustatzeko hainbat hitzarmen sinatu zituen [Eudel](#) eta Uemarekin.

4. ekimena. Eskaintza sendotzea eta dibertsifikatzea, hiltun mota berrien beharrianei erantzuteko, eta elebitasun pasiboari prestigioa ematea eta bultzatzea, euskararen erabilerak dituen aukera sozialak areagotzeko eta herritarren hizkuntza-integrazioa handiagoa izan dadin ahalegintzeko.

1.17.1 helburua. Euskararen gizarte hazkundera

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015eko abenduan Herri Aginteen Koordinaziorako Batzordeak ([Hakoba](#)) [Euskararen txantxangorria](#) sortu zuen; txantxangorri hau euskararen ikurra da eta herritarrei gure hizkuntza erabiltzeko gonbidapena luzatzen die.
2. Kanpaina 2016an abiarazi da "Eman hegoak euskarari" leloarekin. Euskararen txantxangorriaren [web orrian](#) agertzen da eta sarritan azaltzen [telebistan](#) eta beste formatu batzuetan.

5. ekimena. Euskararen giza garapenerako plan bat bultzatzea, Euskera 21 dokumentuan oinarrituta, Euskararen Aholku Batzordearen hausnarketarako barne prozesuetan egindakoa eta erabakitakoa.

1.17.1 helburua. Euskararen gizarte hazkundera

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Euskararen Aholku Batzordearen Terminologiako](#) batzorde-atal bereziak ondoko lanak egiten ditu: 1) Terminologiaren arloko lehenetasunak ezartzen ditu; 2) Terminologiako lanerako irizpideak proposatzen ditu; 3) Kontzeptu bakarra izendatzeko hainbat termino daudenean, horien arteko lehenetasunak ezartzen ditu; 4) Egindako terminologia-lanak onartzen, zabaltzen eta gomendatzen ditu; 5) Erabiltzaileekin jarduten du eta gomendatutako terminologiak ebaluatzen ditu; 7) Lanerako proposamenak egiten ditu eta urteko jarduera-planean sartzen ditu.

2. 2013an hainbat lan egin ziren Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ingurua ([ESEP](#)); plan hori Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordean aurkeztu eta onetsi da.

3. 2014ko abenduan Euskararen Aholku Batzordeak AMIA analisia egin zuen [ESEP](#) osatzeko. Horrez gainera [Ekintza Plana](#) 2013/2016 onetsi zuen.

4. 2014an tresna berriak sartu ziren [EAEko Izendegi Geografikoa](#) datu-basea mantentzeko eta eguneratzeko aplikazioan.

5. 2014ko laguntzei esker 30 udal-mapa zuzendu ahal izan ziren; [2015ean](#) ildo beretik jardun genuen. Jaurlaritzako, udaletako, [Euskaltzaindiako](#) eta enpresetako teknikariak lankidetzan aritzen dira toponimiako lanak koordinatzeko. [Toponimia](#) eta kartografia erabiltzen dituzten Eusko Jaurlaritzako sailen arteko informazio-trukea koordinatu da. Horrez gainera erabiltzaileen esku jarri da Irekia zerbitzuak bildu eta kudeatutako toponimia.

6. 2015ean zehar aurrera egin dute [Euskalterm](#) Terminologiako Banku Publikoa eguneratzeko eta mantentzeko lanek; hainbat bilera egin dira zerbitzuaren jarraipenerako.

7. 2015eko urtarriletik maiatzera arte Terminologia Batzordeak 5 hiztegi terminologiko onetsi zituen: [‘Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak](#) (Consumidores y usuarios), [‘Merkataritza eta Marketina’](#) (Comercio y Marketing), [Prozedura kriminala](#) (Procedimiento criminal), [Zigor-arloa eta espetxe-zaintza](#) (Ámbito penal y vigilancia penitenciaria) eta [Errugbia](#) (Rugby). Horiez gainera [‘Hizketa-ereduak’](#) lana ere onetsi zuen. Lan horretan euskaraz ahoz erabiltzen diren esamolde-ereduak erakusten dira gaztelaniazko baliokideekin.

1. ekimena. Herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko zeregina sendotzea, eskubide horiek errespetatzeko jardunak sustatuz bai eremu publikoetan bai eremu pribatuetan eta Elebide zerbitzuari bultzada emanez (Hizkuntz Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua).

1.17.2 helburua. Hizkuntza eskubideak erabiltzeko berme osoa

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldiaren hasieratik [Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Orokorra](#) ezartzen ari da Eusko Jaurlaritzako sailetan eta haiei atxikitako sozietate eta erakunde publikoetan. 2013an "EAEko herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak" izeneko dokumentua prestatu zen; gero Plan Orokorreko II.3 atalean sartu zen (V. plangintzaldia).

2. 2014an [lankidetzeta-hitzarmena](#) sinatu zuten EAEko Administrazio Orokorrak eta [Arartekoaren](#) erakundeak hizkuntza eskubideez.

3. 2015ean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutuak, Merkataritza Zuzendaritzak eta Turismo Zuzendaritzak [jarraipen-batzordea](#) eratu zuten kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko.

4. [Elhuyar-en](#) kanpo-aholkularitzaz baliatuz, Eusko Jaurlaritzako sailak eta erakunde autonomoak kudeaketa-planak ezartzen ari dira. Euskararen Normalkuntzarako Teknikariaren Batzordea 4 aldiz bildu zen 2015ean. Eusko Jaurlaritzako sailak eta erakunde autonomoak ahozko zein idatzizko komunikazioa bermatzeko neurriak ezartzen ari dira. Datuak bildu dira plangintzaldiaren erdiko ebaluazioa egiteko. Orain datuak aztertzen ari gara.

5. Legegintzaldian zehar [Elebidek](#) jarraipen-txostenak aurkezten ditu urtero. Ildo horretatik, Merkataritza Zuzendaritzak eta [Kontsumobidek](#) ekintza-programa bat prestatu zuten hizkuntza eskubideen betetze-maila hobetzeko, 2015. urtean ekimen berriak bultzatzeko.

6. 2015-02-09an agerraldia egin zen Legebiltzarrean; bi xede zeuden: batetik, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuaren burutzapenari buruzko azterlana aurkeztea; bestetik, arlo honetan ezarriko diren jardun-ildoen berri ematea.

7. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimen batek eraginda, Araubide Juridikoko Sailburuordetzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak 2015ean txosten juridikoa egin zuen Gobernuaren Ordezkaritzak aktetan erabiltzen den hizkuntza dela eta EAEko udal batzuen kontra irekitako auzietan oinarritzat hartzeko.

1. ekimena. Euskararen corpusak izandako aurrerapena sendotzea eta horretan sakontzea, bereziki hizkuntzaren lexikoa eta adierazgarritasuna aberasteko zereginari helduz eta gazteen gizarte eta erlazio bizitzaren komunikazio eskakizun berrien araberako etengabeko egokitzapena sustatuz.

1.17.3 helburua. Lexikoa eta komunikazio gaitasuna aberastea

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an zehar lankidetzeta-hitzarmenak sinatu ziren ekimen hau gauatzeko [Euskaltzaindiarekin](#), [Etxepare Euskara Instrukzioarekin](#) eta [Labayru Ikastegiarekin](#).
2. Diru-laguntza izendunak eman ziren: EHUko Euskara Institutua, Euskaltzaindia, Labayru Ikastegia, [Euskal herriko bertsozale Elkartea](#), [Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartea \(EIZIE\)](#) eta [Mintzola](#).
3. 2015eko ekainean hiru foru aldundiekin eta Euskaltzaindiarekin [kontratu-programa](#) sinatzea onetsi zen. programa 2015-2018 aldian egongo da indarrean.

1. ekimena. Etorkinei euskarara hurbiltzeko bideak eskaintzea, gizarte erabilerari eta elkarrekiko aberasteari buruzko ideia bikoitzean sakonduz onarpen eta errespetuzko dinamika baten barruan.

1.17.4 helburua. Euskara etorkinei hurbiltzea

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015ean zehar [Euskalgintzaren](#) bidez diru-laguntza jaso zuten euskara euskaldun ez diren EAEko pertsonei eta etorkinei hurbiltzeko [7 proiektuk](#). 2014an 6 proiektuk jaso zuten laguntza hori.
2. Urtero zuzeneko diru-laguntza bana jasotzen dute [Topaguneak](#) eta [Uemak Auzoko programa](#) gauzatzeko; programaren xedea euskara urruneko duten pertsonei hurbiltzea da.
3. 2015eko otsailean, toki administrazioan euskara sustatzeko programaren barruan, euskara bultzatzeko eta sustatzeko Ebpn/Esep planak gauzatzeko diru-laguntzen 2015-2017 [bi urterako deialdia](#) egin zen.
4. [HABEK](#) euskaltegiekin eta udalekin lankidetzan dihardu euskara ezagutzeko [Aisa ikastaroak](#) bultzatzen. Ikastaroak 60 ordukoak dira; 2015ean 55 ikastaro eman ziren eta 568 etorkinek hartu zuten parte.
5. Euskalgintza-2015 deialdiaren bidez laguntzak eman zitzaizkien euskara euskaldun ez diren EAEko pertsonei eta etorkinei hurbiltzeko proiektu eta ekimen batzuei.

2. ekimena. Etorkinei euskarari eta euskal kulturari buruzko informazioa eta argibideak ematea, irakaskuntzako hizkuntza aukeren berri ematea eta helduak euskalduntzeko zerbitzuak zeintzuk diren jakinaraztea.

1.17.4 helburua. Euskara etorkinei hurbiltzea

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015ean zehar [Euskalgintzaren](#) bidez diru-laguntza jaso zuten euskara euskaldun ez diren EAeko pertsoneri eta etorkinei hurbiltzeko 7 [proiektuk](#). 2014an 6 proiektuk jaso zuten laguntza hori.
2. [HABEK](#) euskaltegiekin eta udalekin lankidetzan dihardu euskara ezagutzeko [Aisa ikastaroak](#) bultzatzen. Ikastaroak 60 ordukoak dira; 2015ean 55 ikastaro eman ziren eta 568 etorkinek hartu zuten parte. 2013-2014 ikasturtean 45 ikastaro eman ziren.
3. Urtero [Topaguneak](#) eta [UEMAk](#) zuzeneko diru-laguntza jasotzen dute [Auzoko programa](#) gauzatzeko; programa horren xedea euskara EAeko beste hizkuntza batzuetako hitzunei hurbiltzea da.

1. ekimena. Euskarak modernitatearekin daukan lotura estua agirian jartzea eta gizarte kohesioari eta kultur garapen iraunkorrari egindako ekarpen handia nabarmentzea

1.17.5 helburua. Euskara modernotasun, dibertsitate eta elkarbizitzari buruzko balioekin lotzea

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an sentsibilizaziorako [Poziktibity Programa](#) abiarazi zen. Programa horren xedea euskararen erabilera modu positiboan eta atseginean sustatzea da.

2. 2015eko abenduan [Hakobak Euskararen txantxangorria](#) sortu zuen; txantxangorri hau euskararen ikurra da eta herritarrei euskaraz hitz egiteko gonbidapena luzatzen die. Ildo beretik, Euskalgintza 2015-2016 deialdiko zati bat euskara familia giroan transmititzeko aukerak sendotzeko proiektuetarako izan da.

2. ekimena. Euskararen ikaskuntzari eta erabilerari gizarte eta komunikazio eremu guztietan prestigioa ematea.

1.17.5 helburua. Euskara modernotasun, dibertsitate eta elkarbizitzari buruzko balioekin lotzea

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014. urtean hitzarmenak sinatu ziren Eusko Jaurlaritzaren eta [Udalergi Euskaldunen Mankomunitatearen](#) (UEMA) artean eta Eusko Jaurlaritzaren eta EUDEL-en artean. Halaber, hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Kutxabank-ek ere. 2015ean hitzarmen hori EAEn ari diren beste banku-erakunde batzuetara zabaldu zen; xedea erakundeon lan-eremuan euskararen erabilera sustatzea da.
2. Euskararen erabilera sustatzeko lanean ari diren erakunde publikoekin eta pribatuekin hasitako lankidetzarekin jarraituz, 2015ean Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza izenduna eman zion [UEMAri](#), euskara udaletan erabiltzeko planak aztertzeko eta bultzatzeko.
3. 2014an hainbat [laguntza-deialdi](#) egin ziren Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) ezarritakoa gauzatzeko.
4. Orobat, hitzarmena sinatu zuten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Arartekoaren erakundeak (2014, martxoa) hizkuntza eskubideak bermatzeko.

3. ekimena. Euskarari naturaltasuna ematea gazteen hartu-emanen eremu guztietan, haren erabilgarritasun eta erakargarritasuna agerian jarritz.

1.17.5 helburua. Euskara modernotasun, dibertsitate eta elkarbizitzari buruzko balioekin lotzea

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015eko otsailean bi urterako laguntza-deialdia egin zen [Ebpn/Esep 2015/2017](#) planak gauzatzeko. Horrez gainera [Euslan](#) programa pilotua abiarazi zen xede honekin: euskara lan-hizkuntza izatea enpresetan. 2014an 131 proiektuk jaso zuten diru-laguntza; 103 eremu ez-formaletakoak eta astialdikoak ziren.

2. [Euskalgintza laguntzen](#) aldizkako deialdiei esker euskara gazteen artean sustatzeko programak bultzatu ahal izan dira. Halaber, Euskalgintza deialdien bidez diru-laguntzak ematen dira euskara eremu informaletan eta astialdian bultzatzeko eta sendotzeko proiektuak egiteko: begiraleen eskolak, gizarte harremanak, kirol jarduerak...). Lehenetsuna eman zaie haurrak eta gazteak xede dituzten proiektuei; azken aurrekontu-zuzkidura 758.000.- €-koa izan zen, deialdiaren guztirako zenbatekoaren % 77,43.

1. ekimena. Euskararen arte eta kultur sorkuntza eta ekoizpena sustatzea, haren dibertsifikazioaren alde eginez eta lehentasunez komunikazioaren eremua jorratuz.

1.17.6 helburua. Euskara, komunikazio eta erlazio sistema berrien kultur hizkuntza gisa

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, Euskara Sustatzeko [Ekintza Planaren barruan \(ESEP\)](#), azterketa bat egin zen euskarazko hedabideen erabiltzaileen eta publiko potentzialaren komunikazio-beharrizanen berri jakiteko.

2. 2014ko amaieran [Eusko Jaurlaritzak eta Canal+-ek](#) lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten telebista-kateak jatorrizko bertsioan estreinatzen dituen filmetako asko euskarazko azpigituluekin emateko. Egiteko hori 2014-2016 aldian burutzeko diru-laguntza eman zitzaion Dts-i telebista-saioei euskarazko azpigituluak jartzeko.

3. 2014an bertan zuzeneko diru-laguntza eman zitzaion [Huhezi](#), Koop. Elkarteari euskarazko hedabideak neurtzeko tresna bat diseinatzeko eta probatzeko.

4. Legegintzaldian zehar Hedabideak laguntzen deialdiak egin dira; laguntza horien helburu nagusiak euskarazko hedabideak sendotzea, garatzea eta normalizatzea dira. [2014ko deialdian](#) 83 agentek aurkeztutako 122 proiekturi eman zitzaien diru-laguntza. [Hedabideak-2015](#) deialdia **-Ebazpena-**: Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko dena, izapideetan dago.

5. [Tokikom S.L.](#) entitateari diru-laguntza izenduna eman zitzaion 2015-2016 aldiko jarduna finantzatzeko.

6. Eusko Jaurlaritzaren (Euskaltzaindiaren bidez) eta ONCE erakundearen arteko lankidetzari esker euskara Braille Daisy sisteman sartu da; ehunka agerkari eta aldizkari dira.

7. Oraingo legegintzaldian diru-laguntza izenduna eman zaio [Galtzagorri](#) elkarteari [Bularretik Mintzora proiekturako](#); helburua eskoletan euskaraz irakurtzeko programak bultzatzea da.

2. ekimena. Euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzea on-line komunikabideetan.

1.17.6 helburua. Euskara, komunikazio eta erlazio sistema berrien kultur hizkuntza gisa

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an smartphoneetarako App-ak eta itzulpen-sistema automatikoak sortu ziren, eta alemaniera-euskara hiztegia argitaratu zen.

2. [2014-06-18ko Aginduak](#), gaztelaniazko hedabideetan euskararen erabilera areagotzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duenak, ezartzen duena aplikatuz, 2014an 7 proiektuk jaso zuten diru-laguntza. Urte berean [Ikt deialdia](#) (2014-06-04ko Agindua) ere egin zen, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko. Ikt-[2015](#) deialdian 193 eskaera hartu ziren aintzat; 2016ko deialdia abian dago.

3. 2014ko amaieran [Eusko Jaurlaritzak eta Canal+-ek](#) lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten telebista-kateak jatorrizko bertsioan estreinatzen dituen filmetako asko euskarazko azpitoluekin emateko. Egiteko hori 2014-2016 aldian burutzeko diru-laguntza eman zitzaion DTS-ri.

4. Legegintzaldian zehar Hedabideak laguntzen deialdiak egin dira; laguntza horien helburu nagusiak euskarazko hedabideak sendotzea, garatzea eta normalizatzea dira. [2014ko deialdian](#) 83 agentek aurkeztutako 122 proiektu finantzatu ziren. Besteak beste, 43 komunikabide digitalek jaso zuten diru-laguntza. [Hedabideak-2015](#) deialdian -Ebazpena- 50 komunikabide digitalek jaso zuten diru-laguntza.

3. ekimena. Euskararen erabilera eta presentzia bultzatzea informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT), eremu horretan daukan presentzia handiagotuz.

1.17.6 helburua. Euskara, komunikazio eta erlazio sistema berrien kultur hizkuntza gisa

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an 807.000.- € banatu ziren euskara informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloan sustatzeko, zabaltzeko eta normalizatzeko; diru-laguntzak IKTetarako euskarazko tresnak eta aplikazioak prestatzen dituzten enpresek eta Interneten euskararen presentzia handitzeko ekimenek jaso zuten.

2. 2014ko abenduan "Ikt euskaraz" zabalkunde-mintegia antolatu zen IKTak euskaraz erabiltzeko tresnak eskaintzeko eta baliagarri dauden produktuen eta zerbitzuen gaineko informazio eguneratua emateko.

3. [2014-06-18ko Aginduak](#), gaztelaniazko hedabideetan euskararen erabilera areagotzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duenak, ezartzen duena aplikatuz, 2014an 7 proiektuk jaso zuten diru-laguntza. Urte berean [Ikt deialdia](#) (2014-06-04ko Agindua) ere egin zen, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko. [2015eko](#) deialdian 193 eskaera hartu ziren aintzat; [2016ko deialdia](#) abian dago.

4. 2014tik Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak app bat erabil dezake [Euskalterm](#) kontsultatzeko smartphone eta iPhoneekin. Google Playn eta Apple Storen eskuratu daiteke.

5. [Hedabideak 2014](#) deialdian diru-laguntza eman zitzairen Interneteko euskarazko 43 komunikabideri. [Hedabideak-2015 deialdia](#) -Ebazpena-

6. Elhuyar-en euskara, frantses eta ingeleseko hiztegien MS Office, OpenOffice eta Libre Office 4X-rako pluginak erosi dira-. [Ostoa](#) funts entziklopediko digitalizatuaren 14 liburuki eskuratu dira eta euskarazko Wikipedian sartuko dira. Beste alde batetik, euskarazko [doktorego-tesien](#) corpusa osatzen segitu dugu.

7. Diru-laguntza izenduna eman zitzaion [Tokikom S.L.](#) entitateari 2015-2016 aldiko jarduna finantzatzeko, tokiko komunikabideekin koordinatzeko eta jardueran sortzen diren sinergiak aprobetxatzeko.

1. ekimena. Euskararen presentzia aldezteko nazioarteko hezkuntza eremuan eta haren nazioarteko ikuspena eta aintzatespena indartzea.

1.17.7 helburua. Euskararen nazioarteko proiektzioa eta eleaniztasunaren kudeaketa aldezteko

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an zuzeneko diru-laguntza eman zitzaion UNESCO Etxeari 2014ko Giza Garapenari buruzko txostenaren laburpen exekutiboa euskarara itzultzeko eta editatzeko.

2. 2015eko irailean, EHUren Udako Ikastaroetan mintegi hau antolatu zen: "Euskararen eta gainerakoek tokia hizkuntza aniztasunean, Koldo Mitxelena eta Ramón Piñeiroren ekarpenen harira".

3. 2015eko urrian Kanpoan diren Euskal Gizataldeen VI. Biltzarra egin zen Gasteizen. Biltzarrean 70 entitate izan ziren, besteak beste: [Habe](#) eta [Nabo](#) eta [Europakoak](#) euskal etxeak.

4. 2011tik Etxepare Institutua [Bernardo Atxaga Cuny katedra](#) (Universidad de Nueva York) bultzatzen ari da. [2015eko](#) urrian izan zen azken edizioa.

5. 2013an, Bruselan, [Fenetre Ouverte sur le Pays Basque](#) ekitaldia antolatu zen Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan, Etxepare Institutuaren lankidetzarekin. Azken edizioa 2015eko irailean egin zen.

2. ekimena. Eleaniztasunaren kudeaketaren eredu aurreratuak aztertzen eta abiarazten laguntzea, kohesio eta iraunkortasun faktore gisa.

1.17.7 helburua. Euskararen nazioarteko proiektzioa eta eleaniztasunaren kudeaketa aldezte

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2007an sinatu zen hitzarmenari esker Kolonbiako gobernuarekin lanean ari gara hizkuntza politikaren inguruan.
2. 2014an lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, Ekuatorreko gobernuak eta Fundación Ecuatoriana de Acción, Estudios y Participación Social-Fedaeps izeneko fundazioak. Hitzarmenaren xedea herrialdearen garapen-ereduan genero-ikuspegia eta askotarikotasuna sartzea da.
3. 2015-01-16an Eusko Jaurlaritzak eta Txileko Corporación Nacional de Desarrollo Indígena (Conadi) erakundeak asmo-protokoloa sinatu zuten hizkuntza lankidetzarako adostasun-memoranduma prestatzeko.
4. 2015eko martxoan Eusko Jaurlaritzak eta [Garapenerako Euskal Lankidetzeta Agentziak](#) garapenerako hitzarmen markoa sinatu zuten nazioarteko lankidetzarako hizkuntza irizpide batzuk finkatzeko.
5. 2015eko azaroan [Paraguaiko Hizkuntza Politiketarako Idazkaritzak](#) eta [Eusko Jaurlaritzak](#) akordioa sinatu zuten **guaranieraren** normalkuntza bultzatzeko **euskararen** hizkuntza garapenean izan diren esperientzien bitartez.

1. ekimena. Nafarroako eta Iparraldeko erakundeekiko lankidetzak bultzatzea eta erraztea, bakoitzaren lurralde eta eskumen eremuak errespetatuz, lurralde guztietan euskararen sustapenaren aldeko ahaleginak biltzeko, guztien ondare erkidea den aldetik.

1.17.8 helburua. Adostasun politiko eta soziala

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013-03-31n Eusko Jaurlaritzaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzak hitzarmenaren urteko eranskina sinatu zen. Haren bidez Eusko Jaurlaritzak 400.000.- € eman zituen EEPrekin batera Iparraldeko hizkuntza politikako lan-programak finantzatzeko. 2014an ere 400.000.- € eman zituen.

2. [Euskararen Erakunde Publikoarekin](#) (EEP) sinatutako lankidetzak hitzarmenari helduta, 2015-03-31n 2015eko ekitaldiko eranskina sinatu zen. Eusko Jaurlaritzak 400.000 euroko ekarpena egin zuen EEPrekin batera Iparraldeko eragileen euskara sustatzeko lan-programak eta proiektuak diruz laguntzeko.

3. [Nafarroako Euskara Kultur Elkargoaren lan-programak](#) sustatzen ditugu eta burutzen laguntzen dugu.

4. 2015-03-24an [Euskararen Adierazle Sistemaren](#) (EAS) lantaldea bildu zen EAS proiektuan egindako lana adituei aurkezteko eta iritziak emateko eta ekarpenak egiteko eskatzeko. Ondoko erakundeak ari dira proiektu horretan: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuaren [Euskarabidea](#), Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Lehen bilera 2014ko maiatzaren 13an izan zen.

2. ekimena. Eztabaida iraunkorreko dinamika bat bultzatzea eta gizarte agente eta erakunde nagusiekin adostasuna bilatzea

1.17.8 helburua. Adostasun politiko eta soziala

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak ([EGOD proiektua](#)) landu zen; helburua diskurtsoak aztertzea eta adostasun sozial eta politikoaren aldekoak izan daitezkeen batasun-elementuak identifikatzea zen.

2. Legegintzaldian zehar, urtero [Lanhitz programako](#) diru-laguntzen deialdia egiten da. Diru-laguntzak enpresek eta entitateek jasotzen dituzte euskara planak eta hizkuntza kudeaketako planak ezartzeko. Finantza-bide hau esparru sozioekonomiko pribatuan euskararen erabilera sustatzeko erabiltzen den baliabide ekonomikoa da. [Bikain programa](#) xede berarekin eta antzeko aldizkotasunarekin egiten da.

3. 2015-03-24an [Euskararen Adierazle Sistemaren](#) lantaldea bildu zen EAS proiektuan egindako lana adituei aurkezteko eta iritziak emateko eta ekarpenak egiteko eskatzeko.

3. ekimena. Ikerketa soziolinguistikoaren zeregina iraunkorki sustatzea hizkuntz politikaren eraginkortasun eta adostasun faktore nagusi gisa.

1.17.8 helburua. Adostasun politiko eta soziala

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an [V. Inkesta Soziolinguistikoa](#) argitaratu zen eta euskara sustatzeko erabiltzen diren giza baliabideen, aurrekontuen eta diru-laguntza publikoen analisia egin zen, 2012ko aurrekontu gauzatua oinarritzat hartuta.

2. 2013an ikerketa-prozesuak egin ziren ondoko gai hauen inguruan:

- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideen babesaren legeriaren betetze-maila finkatzeko ikerketa.
- [Aldahitzek](#) eta [Eralanek](#) lan-munduan euskara nola erabiltzen den aztertze eta erabilera sustatzeko egiten duten lanaren inguruko ikerketa.
- Euskaltegietakako ikasleen eta erabiltzaile potentzialen pertzepzioaren inguruko ikerketa.

3. 2014an azterketa osagarria egin zen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideen arautegiaren betetze-mailari buruz; 2015-02-09an aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean. 123/2008 Dekretua, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoa: betetze-mailaren gaineko analisia. V. Mapa Soziolinguistikoa argitaratu eta banatu zen.

4. Legegintzaldiko bigarren zatian ikerketa-prozesu hauek hasi dira:

- "Euskararen estatistikak EAEko udalerrietan" gaiaren inguruko ikerketa.
- Euskara sustatzeko baliabideak, aurrekontuak eta laguntzak 2014ko aurrekontu gauzatuaren arabera.
- [Soziolinguistika Klusterra](#) entitatearekin lankidetzan, 2015ean zehar euskararen sustapenaren inguruko ikerketa eta ekintzarako programa hauek abiarazi ziren Eusko Jaurlaritzaren esparruan: "Aldahitz", "Liderrak eredu" eta "Jendaurrean erabili".
- [Euskarazko komunikabideei buruzko azterketa](#)

4. ekimena. Erakundeen arteko lankidetzaren sareak eta gizarte sareak sendotzen laguntzea eta horiek sustatzea bai estatuan bai Europan, eleaniztasunaren kudeaketa iraunkorra errazteko asmoz.

1.17.8 helburua. Adostasun politiko eta soziala

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Kataluniako Generalitatak, Galiziako Xuntak eta Balear Uharteetako Gobernuak Estatuko eleaniztasunaren kudeaketan sakontzeko.

2. 2013an Eusko Jaurlaritzak Europako [NPLD](#) (Network to Promote Linguistic Diversity) sarean aritu zen, hain zuzen ere Hausnarketa Batzordean (Think Tank) eta Zuzendaritza Batzordean (Steering Committee).

3. Eusko Jaurlaritzak burutzan jardun zuen Europako NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) sareak antolatutako "Hizkuntza eta ekonomia" mahai-inguruan (Brusela, 2015-01-21). Horren ondorioz Europako Parlamentuari "Hizkuntza dibertsitateko ibilbide orria" aurkeztu zitzaion (Brusela, 2015-02-05), eta bertan izan ziren Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak etorkizunerako egiturak eta eginkizunak aztertzeke sortutako lantaldean jardun zuen (Bartzelona, 2015-02-31).

4. 2015eko ekainean Hizkuntza Politikarako sailburuordea [NPLD](#) Hizkuntza Dibertsitateko Europako Sareko [presidente](#) izendatu zuten. Izendapen-ekitaldian, Helsinkin, sailburuordeak Eusko Jaurlaritzak euskararen inguruan aplikatzen duen estrategia politikoa azaldu zuen. Beraren zuzendaritzapean NPLDk hainbat ekitaldi antolatu ditu: [Euskararen balio eta eragin ekonomikoa](#) txostena aurkeztu du Donostian eta hizkuntza dibertsitatearen [ibilbide orriaren](#) behin betiko testua aurkeztu du Bruselan, 2015eko azaroan.

1. ekimena. Hizkuntz politika gobernuaren ekintzaren zeharkako ardatz gisa ezartzeko beharrezkoak diren arauzko tresnak eta sailen arteko lanabesak garatzea.

1.17.9 helburua. Hizkuntza politika, Gobernuaren ekintzaren zeharkako ardatz gisa

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an Eusko Jaurlaritzako sailetan eta haiei atxikitako Zuzenbide Pribatuko sozietate eta erakunde publikoetan [Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Orokorra](#) onetsi zen (V. plangintzaldia, 2013-2017).

2. 2015ean, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimenez, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak lege-txostena egin zuen aktetan euskara erabiltzen duten EAEko hainbat udalen aurka hasitako auzibideetan oinarri moduan erabiltzeko. Horren ildotik, [Udalen Legearen](#) aurreproiektuan hizkuntz normalizaziorako neurriak ezartzen dira.

3. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimenez, Eusko Jaurlaritza Gobernuaren Ordezkaritzak aktetan erabiltzen den hizkuntza dela eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal batzuen kontra irekitako bost auzitara bertaratu da.

2. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoan erakundeen arteko koordinazioa dinamizatzea HAKOBAREN markoan (Erakundeen arteko Koordinazio Batzordea) eta Eusko Jaurlaritzaren Erabilera Plangintza prestatzea eta aurrera eramatea V. Plangintzaldiari begira (2013-2017), Euskadiko herri administrazioen euskararen erabilera plangintzak prestatzeko irizpideak ezarri epealdi berean.

1.17.9 helburua. Hizkuntza politika, Gobernuaren ekintzaren zeharkako ardatz gisa

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an Euskararen Aholku Batzordeak eta Hizkuntza Politikaren Batzordea - [HAKOBak](#) (Eusko Jaurlaritza, hiru foru aldundiak, hiru hiriburuetakoko udalak, EUDEL eta UEMA) 2013 -2014 aldiko lantaldeen eta lan-programa onetsi zituzten.

2. 2015ean zehar egin zituen hiru bileretako batean HAKOBak Araubide Juridikoko Sailburuordetzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak [udal-aktetako hizkuntzaz](#) egindako txostena aurkeztu zuen.

1. ekimena. Euskara bultzatzeko jarduera komuneko esparrua garatzea.

1.17.10 helburua. Euskara, gizadiaren ondarea

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2009an Eusko Jurlaritzak eta Nafarroako Gobernuaren [Euskarabide](#) erakundeak sinatu zuten [lankidetz-hitzarmena](#) sakontzen ari gara.
2. [Office Public de la Langue Basque](#) erakundearekin lankidetz-hitzarmena sinatu zen 2013an, 2014an eta 2015ean, bai eta zabaldu ere.
3. Ohi bezala, Frantziako Estatuak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Karta berresteko eskaera sustatzen ari gara. Eskaera nazioarteko hainbat forotan egin ohi da, eta [NPLD sarearen](#) bidez ere bai (Eusko Jurlaritzak kide sortzailea da).

2. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoan erakundeen arteko koordinazioa dinamizatzea HAKOBAREN markoan (Erakundeen arteko Koordinazio Batzordea) eta Eusko Jaurlaritzaren Erabilera Plangintza prestatzea eta aurrera eramatea V. Plangintzaldiari begira (2013-2017), Euskadiko herri administrazioen euskararen erabilera plangintzak prestatzeko irizpideak ezarri epealdi berean.

1.17.9 helburua. Hizkuntza politika, Gobernuaren ekintzaren zeharkako ardatz gisa

Arduraduna: Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro (Hizkuntza Politikarako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an Euskararen Aholku Batzordeak eta Hizkuntza Politikaren Batzordea - [HAKOBAK](#) (Eusko Jaurlaritza, hiru foru aldundiak, hiru hiriburuetakako udalak, EUDEL eta UEMA) 2013 -2014 aldiko lantaldeen eta lan-programa onetsi zituzten.

2. 2015ean, ohiko jardunetik kanpo, Araubide Juridikoko Sailburuordetzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak [udal-aktetako hizkuntzaz](#) egindako txostena aurkeztu zen HAKOBAn.

1. ekimena. Kulturaren baterako erantzukizuna daukaten erakundeetan (Eusko Jaurlaritzza, foru aldundiak eta udalak) eta sektore bakoitzeko agenteen arteko elkarlanean, koordinazioan eta jarduketan aurrera egiten jarraitzea.

1.18.1 helburua. Topaketa, koordinazio eta lankidetzarako kultura politika

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, “[Kultura Auzolanean](#)” agiria egin zen. Prozesu horretan hainbat bilera egin ziren erakunde eta agente inplikatuekin, bai zuzenean, bai Aholku Kontseiluen bidez.
2. 2014ko martxoan, “[Kultura Auzolanean](#)” aurkeztu zuen Erakundearteko Batzordeak. Agiria euskal administrazioen (orokorra, forukoa eta udalekoa) eta agente pribatuen artean partekatutako lanean, berdintasunean eta adostasunean oinarrituta idatzi zen eta kulturaren arloko plan estrategikoa jasotzen zuen, 2014-2015 urteetarako.
3. [Kulturaren Euskal Kontseiluak](#) 2014ko ekainaren 25ean egin zuen X. legegintzaldiko lehen bilera, organo hori eratu ondoren. Bilera hartan, "Kultura Auzolanean" agiria onartzeaz gain, lantalde guztiak martxan jarri ziren eta erakundearteko prozesu bat zehaztu zen, lanen jarraipena egiteko.
4. 2016ko otsailean, Kulturaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkura egin zen. Bertan, Kultura Auzolanean 2014-2015 proiektuen balorazioa eta itxiera egin ziren, eta 2016rako partekatu behar diren lan eta kudeaketa ildo estrategikoak planteatu ziren.

2. ekimena. Koordinazio sektoriala aurrera eramatea, kultura politikaren jarduketa ildoak garatuz kulturaren askotariko sektoreetako ordezkariekin elkarlanean eta adostasunean.

1.18.1 helburua. Topaketa, koordinazio eta lankidetzarako kultura politika

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. Legealdian zehar handitu egin dira kasuan kasuko sektorean duten jarduera egituratzailearen ondorioz sektorearentzat estrategikoak diren [elkarteentzako partidak](#) eta, adostasun eta lankidetzaz ildoak mantendu dira batzordeak eta lantaldeak osatzean.
2. Era berean, aldizka bilerak egin dira baterako kultura politikak garatzeko eta sektorearentzako proiektu bertebralak garatzeko diru laguntza izendunak jasotzen dituzten sektore elkarrekin.

3. ekimena. Kultura politiken garapenari begira gobernuaren sailen eta zerbitzuen arteko harremanak, lankidetzak eta elkarlana estutzea eta, bereziki, Kultura, Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Gazteriaren artean.

1.18.1 helburua. Topaketa, koordinazio eta lankidetzarako kultura politika

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldiaren hasieran, harremanak izan eta bilerak egin dira Ogasun, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailekin eta [Elkargirekin](#), AV eta ICCen sektorerako finantza laguntzak berriz zehazteko eta, kultura industrien finantza tresnak erabili ahal izatea bermatuta eduki dezaten, beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

2. 2013an, laguntza eman zitzaion [Paisaia, Lurralde eta Ondareko Unesco Katedrari](#), Zain [fundazioa](#) oinarri hartuta. Zehazki, Gesaltza Añana lehengoratzeko, dinamizatzea eta ondare unibertsal izendatzea sustatzen zen Unescoren eskutik, Gesaltza Añana Fundazioak bultzatuta.

3. Era berean, kultura eragileek ikastetxeetan egindako kultura/pedagogia jarduerak berrantolatzeko prozesua hasi zen, proiektu koherente bat egiteko, Hezkuntza eta Kulturak ikuskatuta. Lehen zirriborroa egin zen, sailak eta EHUko Arte Eder Fakultateak proiektu bat egin zezaten batera, artista profesionalek ikasleen lantegi praktikoetan parte hartzeko.

4. 2014an zehar, Zerga Administrazioako Zuzendaritzari txostena eman zitzaion, zerga koordinaziorako mahaiarentzat eskaerekin: kultura babesteko neurri fiskalak aztertzea, eta neurri berriak ezartzeko aukera planteatzea (kultura kontsumoa piztea eta mikromezenasgoa, adibidez).

5. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailekin koordinazioan, EAEko sorkuntza industrien eta hauei laguntzeko bideen azterketa bateratua egiteko eskatu zitzaion Euskampusi. Horrez gain, kultura enpresei finantza bideak izan ditzaten laguntzeko azterketa egin zen Elkargirekin.

6. Hezkuntza arloarekin koordinazio handiagoa abiatu zen, kultura elkarteek gure sailarekin dute harremanari dagokionez, barne bikoiztasun batzuk saihesteko asmoz: idazleen bisitak eskolara, zine zirkuitua ikastolatan, eta abar.

7. 2014an, "Kultura Ondarea" proiektu hezitzailea osatu zen. Bere helburua euskal ondare kulturalarekiko Batxilergoko eta Lanbide Heziketako erdi mailako ikasleari interesa eta grina sustatzea eta bultzatzea da.

8. 2015ean zehar, Zerga Koordinaziorako Organoari, Ogasun arloarekin eta kultura sektorearekin koordinatuta, ikus-entzunezko ekoizpenerako pizgarrien araudia hobetu eta zehazteko gauzatutako kontsulten emaitzak entregatu zitzaizkion.

9. [Kultura Paisaiari buruzko Unesco katedra](#) eratu da.

1. ekimena. Arauzko markoa eta baliabide publikoak berrantolatzea, eraginkortasun handiagoa lortzeko eta kultura agenteen eta herritarren premiei erantzun hobea emateko.

1.18.2 helburua. Kulturarako baliabide publikoen berrantolaketa

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1.- 2016ko otsailaren 9ko Gobernu Kontseiluan, [Agiri eta Artxiboen Lege Proiektua](#) onartu zen. Azken horrek, [Kultura Ondarearen Lege Proiektuarekin](#) batera (gaur egun barne tramitazioko azken fasean dagoena) batez ere arauzko markoa eta gai honetako baliabide publikoak berrantolatzen ditu.

2. ekimena. Irakurketa Publikoaren Sarea bateratzeko lanean aurrera egitea, lurraldeko eta unibertsitateetako liburutegiekin lankidetzan eta horiek guztiak sarean jarritz, eta EAEko Liburutegiaren ondare proiektua eta proiektu digitala garatzen segitzea.

1.18.2 helburua. Kulturarako baliabide publikoen berrantolaketa

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar, kudeaketa eta zaintza sistema diseinatu zen, funtsa osatzeko; gaur egun, Arabako Artxibategi Historiko Probintzian dago kokatuta. Euskal ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa eguneratzeko eta aberasteko prozesua hasi zen. Halaber, Euskal ondare bibliografikoa osatzen duten egile eskubiderik gabeko elementuak digitalizatzeko prozesua hasi zen.

2. Online mailegu eredu bat garatu zen, Ministerioak sustatuta, honako elementu bereizgarri hauekin: (1) Berezko plataforma, (2) Liburuaren eskaintza bi hizkuntza ofizialetan, (3) Mugarik gabeko lizentzien erosketak, (4) Egile eskubideen ordainketa.

3. Bilboko liburutegiak (Alhondigakoa barne), Santurtzikoa, eta, ondoren, Donostiakoa liburutegi sarean sartzea erabaki zen. 2016an, liburutegi horiek guztiak [EAEko irakurketa publikoko liburutegien sarera](#) migratzeko prozesu informatikoa burutzen ari dira. Hala, EAEko udalerrri guztiak sare honetan sartuko dira. Irakurketa klubak sustatu ziren, irakurketa kultura, aisia, hezkuntza eta lan esparruetan sartzeko.

4. 2014an, euskal ondare bibliografikoa Europako fundazioan sartu zen. Zenbait erakunde publiko nahiz pribaturen ardurapean dagoen euskal ondarea munduan eskuragarri eta ikusgai izan dadin plataforma egokia da hau.

5. Irakurketa klub birtuala martxan jartzeko aukera aztertu zen eta bi proiektu berritzaile abiarazi ziren, irakurketa publikoko liburutegien sarea sustatzeko, Interneteko aplikazio baten bidez ("[liburutegiak](#)" [app-a](#)), eta liburutegi publikoetako liburu elektronikoen maileguari dagokion zerbitzu berria sortzeko.

6. 2015ean zehar, mailegu digitala jarri zen martxan eta 5.000 liburu inguru eskaini ziren, 2016an 15.000 liburu ingurura iristeko helburuarekin. Halaber, euskarazko irakurketa bultzatzeko ekimen desberdinetan lagundu zen, [111 Akademiarekin](#).

7. 2016an zehar, [eLiburutegiko](#) liburuaren eskaintza osatuko da. Era berean, euskal argitaletxeen liburu elektronikoko lanak egokituko dira, ikusizko ezintasunen bat duten pertsonen pantailan irakurtzeko erraztasunak izan ditzaten. Ildo beretik, euskarazko irakurketa sustatuko da, formatu digitalean, eRakurleak irakurketa klub birtualaren bidez.

8. Era berean, euskal bibliografia gauzatzen lan egingo da, eta, zehatzago, 1959 eta gaur egun artean euskaraz eta gaztelaniaz argitaratutako argitalpenen ikus-entzunezko, musika eta liburuaren edizioen erregistroan, ondo zaintzen direla eta erraz eskuratu daitezkeela bermatzeko, eta, aldi berean, euskal bibliografia aldizka egiteko aukera ematen duen eredu bat ezartzeko. Eduki digitalak erregistratzeko, bilatzaile berri bat egingo da, Bilatzailea. Horri esker, EAEn digitalizatutako eta OAIIn (Open Access Iniatitave) gordailuetan bilduko ondare bibliografikoa aurkitu ahalko da.

3. ekimena. Ondarea zaintzeko eta hedatzeko legezko markoa eguneratzea, Kultura Ondarearen Lurralde Plangintza Sektorialean arreta berezia jarritz, eta arauak bultzatzea eta erregulatzea ondare immateriala identifikatzeko, babesteko, ikertzeko eta zabaltzeko.

1.18.2 helburua. Kulturarako baliabide publikoen berrantolaketa

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar, lege berrian jaso beharreko aldaketen memoria justifikagarria eta diagnostikoa egin ziren. Lege proiektua barne tramitazioko azken fasean zegoen eta EAEko [Aholkularitza Juridiko Batzordeari](#) igorri zitzaion 2016ko otsailaren 24an. Horrenbestez, 2016ko lehen seihilekoa amaitu baino lehen Gobernu Kontseilura bideratzea espero da. Proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko ondare higiezin, higigarri eta immaterialaren araubide juridikoa arautzen du, eredu eguneratu eraginkorragoa ezartzeko asmoz, ondare horren babesa, zaintza, balioztatzea eta hedapena bermatze aldera.

2. Era berean, Lurralde Plangintza Sektorialaren aurrerapena egin zen, eta oraintsu amaitu da, kultura ondarearen antolaketari dagokionez. Halaber, EAEko museo eta bildumak aitortzeko prozesuaren arautzeko lanak hasi ziren.

3. 2014an zehar, [Euskal Autonomia Erkidegoko](#) ondare higigarrien inbentarioa berrikusi, berritu eta berriz diseinatzeko lanak egin ziren eta gobernantza eredu berri bat diseinatzeari ekin zitzaion, ondarea zaintzeko orduan eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzeko asmoz.

4. ekimena. EAEko artxibo publiko guztiak sarean antolatzeko zereginen aurrera egitea, sarbide eta eskuragarritasunerako erraztasunean eta unibertsaltasunean arreta jarritz.

1.18.2 helburua. Kulturarako baliabide publikoen berrantolaketa

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar, atari bat diseinatzen hasi zen. Hari esker, estandar komun batzuetan oinarrituta, bibliografia, artxibategi, monumentu, museo, musika eta ikus-entzunezko ondarearekin zerikusia duten eskubiderik gabeko eduki digitalak zabaldu ziren.
2. 2014an, domeinu publikoko kultura edukien euskal atariarentzat, nazioarteko estandarrak identifikatuko zituen azterlana amaitu zen.
3. 2015ean, EAEko artxibo [historikoa](#) inauguratu eta martxan hasi zen Bilboko egoitza berrian.
4. 2016an, artxiboen atari berria sarean jartzen ari da. Horren harira, foru aldundiekiko lankidetzak sustatzen ari da, EAEko agiri ondarearentzat sarbide bakarreko toki bat sortzeko asmoz. Halaber, lankidetzak ezarriko da Nafarroako Erreinuako artxiboarekin eta Iparraldeko artxiboekin ([Archives départementales. Pôle de Bayonne et du Pays Basque](#)). Hala, Euskal Herri osoko agiri ondarearako sarbidea edukitzeko aukera sustatuko da.

1. ekimena. Sektorean berrikuntza, nazioartekotzea eta modernizazioa bultzatzea eta sustatzea, dinamizazio ekonomikoari eta enpleguaren sorkuntzari begirako tresna eta lanabes gisa.

1.18.3 helburua. Kultura eta sorkuntza industriei laguntzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar, bilerak egin ziren sektore osoarekin, baita sektoreko ordezkariekin ere, politikak horien beharretara egokitzeko: inguru digitalera; liburu dendetako kontsumo altuagora; azoketan gehiago egotera... Horren ondorioz, [Zineuskadi](#) proiektua birplanteatu egin zen, baliabideak optimizatzeko eta euskal zinemaren, Europakoaren nahiz euskarazkoaren ekoizpena, banaketa eta erakusketa sustatzeko plataforma gisa. Zinemaldia, Filmoteka eta Eitb Zineuskadiko kide gisa hartu ziren.

2. 2014an zehar, musikaren bulegoaren proiektua garatu zen, sektorearekin partekatutako politika eta programa integralak garatzeko eta herri musika euskalduna (grabatuta zein zuzenean) ekoizteko, banatzeko eta programatzeko plataforma gisa.

3. Dantzako euskal eragileekin egiaztatu ondoren, EAEn Mov's jaialdia aurkeztu zen, hots, Mov's profesionalentzako nazioarteko jaialdia (Gorputz politikak. Pentsamendu eta ekintza kolektiborako espazioa).

4. Era berean, 2014an [filmazpit programa](#) garatu zen, Zineuskaditik kudeatzeko, euskarazko zinemaren zabalkuntza koordinatze aldera. Halaber, bigarren urtez, [Zinegabonak programa](#) aktibatu zen eta umeei euskarazko filmak euro batengatik ikusteko aukera eman zitzairen. ETB ere sartu zen programan. Horrez gain, EAeko zinema aretoen elkarteak martxan jarri zen, sektoreari laguntzeko eta euskarazko eta Europako zinemaren difusioa sustatzeko.

5. [Zinema Euskaraz programaren](#) bitartez bikoiztutako filmak berriro editatu dira, [Durangoko Azokarako](#) eta publikoei, familiei batez ere, euskarazko filmak erosteko aukera errazteko. Gainera, hizkuntza txikien filmografien ordezkariekin lantalde bat jarri zen martxan, elkarlana sustatzeko eta gure filmografien difusioa Europan sustatzeko.

6. 2015ean zehar, zuzeneko musika aretoen elkartearekin (Kultura Live), [Bihar Kontzertura](#) beherapen kanpaina jarri zen martxan, eta, horrez gain, sentsibilizazio jarduerak egin ziren.

7. Sormen eta kultura industria sustatzeko estrategia garatu zen, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015-2020 delakoaren esparruan. Horren harira, ikus-entzunezko proiektuei zerbitzu banakakoak eskaini zitzaizkien, nazioartekotzeko, eta presentzia eta laguntza bereziak bultzatu dira Donostiako eta Berlineko jaialdien merkatuetan.

8. Kultura enpresetarako finantzazioaren inguruko aholkularitzak eman dira Elkartegirekin batera, eta % 30eko zerga aringarria ezarri da, ikus-entzunezko ekoizpenean inbertitzeko.

2. ekimena. Kultura eta sorkuntza industriei laguntzea gizarte digitalera egokitzeko eginkizunean, politika publiko eraginkorrak garatuz, herritarrak kultura eremuko jabetza intelektualaren alde sentsibilizatzeko asmoz.

1.18.3 helburua. Kultura eta sorkuntza industriei laguntzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar, aurrekontu partida bereziak sortu ziren, artxiboak digitalizatzeko laguntzeko (Eresbil, Filmoteka), eta, horrenbestez, haien hedapena sustatzeko. Halaber, plataforma berriak sustatu ziren, hala nola online liburutegi mailegua eta OnZinema (zinema sarean ikustea), eta egungo plataformak indartu; besteak beste, Kulturklik eta [Euskal Filmoteka](#).
2. 2014an zehar, [Kulturkliken](#) kontratazio berria esleitu zen. Besteak beste zera lortu nahi du: euskal kulturaren sareko partaidetza indartzea eta mundu digitalean herritarrekiko harremana sendotzea.
3. 2014an, kultura artxibo publikoen homologazioa aztertzeke ikerketa egin zen (Filmoteka, Eresbil, Liburuklik, Dokuklik, Emsime), Europako estandarretara egokitzeko, eta horrela, hauen edukiak herritarrentzako eskuragarriago izan daitezzen.
4. Lantalde bat jarri zen martxan, kultura ohiturak sustatzeko epe ertain-luzeko neurriak aztertzeke, eta, era berean, zinemaren, antzerkiaren eta musikaren sektorean kontsumoa babesteko proiektu bereziak garatu ziren.
5. Eitb eta sektoreekiko akordioak indartu dira, euskal kulturaren industriari ikusgarritasuna emateko.
6. Proiektu bat garatu zen, euskaraz egon daitezkeen (jatorrian, bikoiztuta edo azpi titulaturatuta) filmen izenburu guztiak biltzeko, bai eta horien eskubideen titulartasuna jasotzeko ere, euskarazko kultura eskaintzaren irisgarritasuna hobetzeko asmoz.
7. Dantza tradizionalaren artxiboa digitalizatzeko proiektuaren fase pilotua amaitu zen eta, beraz, proiektua finkatuta geratu da.

3. ekimena. Sektoreekin lankidetzan eta elkarlanean, kultura finantzatzeko eta hari laguntzeko ildoak birdefinitzea, betiere sorkuntza, ekoizpen, erakusketa eta negozio marko berrietara egokituz.

1.18.3 helburua. Kultura eta sorkuntza industriei laguntzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar, kultura planifikatzeko partekatutako “[Kultura Auzolanean](#)” prozesua hasi zen, kultura eragile pribatuen eta erakundeen parte hartzearekin lantaldeak abian jartzeko.
2. Ogasun Sailarekin eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin hainbat bilera egin ziren, lankidetzarako eta enpresa esparruetatik kultura industriei laguntzeko irizpideak zehazteko; gainera, sektoreko elkarreak indartu ziren, sektorea gehiago profesionalizatzeko.
3. 2014an, kultura kontsumoko joerei buruzko txosten/panel bat garatu zen, bai eta EAEn kultura kontsumoa sustatzeko proposamen eta eszenatokiak jasotzen dituen txosten bat ere.
4. Erakundeetako eta sektoreetako eragileek osatzen duten [Kulturaren Euskal Kontseilua](#) martxan jarri zen, bai eta legegintzaldiko lehen bileran adostutako lantaldeak ere.
5. Eitb-rekin eta sektoreekin batera, euskal kulturaren ikusgarritasuna indartzeko eta kultura komunikaziorako proiektu bat jarri da martxan.
6. 2015ean eta 2016an zehar, EAEko sorkuntza industrien eta hauei laguntzeko bideen inguruko azterlana eskatu zitzaion [Euskampusi](#). [Elkargirekin](#) akordio bat lortu da, kultura eta sorkuntza industriek beraien alorreko proiektuak baloratzeko solaskide bat izan dezaten.
7. Kultura Auzolanean proiektuaren barruan antzerkiaren diru laguntzen mapa berraztertzeke martxan jarri zen lantaldeak proposatutako aldaketak sartu dira antzerkiaren finantzaketan.
8. [EZA](#), EAEko zine aretoen elkarrekin neurri bereziak adostu dira, euskal zinemaren erakusketa hobetzeko.

4. ekimena. EAEko sorkuntza enpresei nazioartekotzeko laguntza ematea, euskal sortzaileen, euskararen eta euskal kulturaren proiektzioa eta sarbidea bultzatuz nazioarteko sareetan, berezik Etxepare Institutuaren bitartez.

1.18.3 helburua. Kultura eta sorkuntza industriei laguntzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar, [Etxepare Institutuak](#) hainbat deialdi izapidetu zituen, musika taldeei nazioarteko biretan laguntzeko. Sektoreak nazioarteko azoka profesionaletan daukan presentzia babesteko laguntzei eutsi zitzairen, bai herri musika euskalduna ezagutarazteko, bai harreman profesional berriak izateko eta azken joerak ikasteko. Sektorearekin batera, nazioartekotze jarduketak Musikaren Bulegoaren plataformaren bidez nola ezarriko ziren zehaztu zen.

2. 2013az geroztik, Zinemaldiarekin lan egiten hasi zen, sektorearekiko komunikazioa izanda, Zinemaldiak euskal ekoizleentzako plataforma profesional gisa betetzen duen eginkizuna indartzeko (euskal presentzia koproduktio foroan, matchmaker-ak eta abar). Filmak legez ikusteko OnZinema plataforma digitala abian jarri zen, kanpoko profesionalek eta programatzaileek euskal zinema ikusteko aukera izan dezaten. Zinemaldiarekiko lankidetzaren nabarmen indartu da, cine regio sare europarraren bidez, hizkuntz txikiak zinemagintzaren ikusgarritasuna eta elkarlana sustatzeko.

3. Era berean, unean uneko lankidetzaren indartu da Basque Country markarekin, ezinbesteko tresnak martxan jartzeko, sektorea nazioartekotu eta euskal kultura nazioartean hedatze aldera.

4. 2015ean, [Etxepare Institutuak deialdia](#) argitaratu du, antzerki konpainiei beren biretan laguntzeko. 2016rako beste deialdi bat egiteko asmoa dago.

5. Globalak ez diren hizkuntzen filmografien [sare globalaren](#) bigarren bilera egin da. Truke honen esparruan, euskal zinemak Tatlin, Tromso eta Reikjavic-eko jaialdietan parte hartu du.

6. Era berean, 2015ean, ikus-entzunezko proiektuei zerbitzu banakakoak eskaini zitzaizkien, nazioartekotzeko, eta presentzia eta laguntza bereziak bultzatu dira Donostiako eta Berlineko jaialdien merkatuetan.

1. ekimena. Sorkuntza prozesuen finantzazio lerroei eustea, bai eta nazioarteko egonaldi eta trukeetarakoei ere.

1.18.4 helburua. Arte eta kultura sorkuntza bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013az geroztik, sorkuntzarako deialdi bereziari eutsi zaio: antzerki testuen idazketa, musika konposizioa eta gidioen idazketa. Sektorearekin aztertutakoan, azken urtean indartu egin da sormen lantegiei buruzko lerroa.
2. Urtero sari guztiak deitu eta eman dira, beren hornidurekin. ["Gure Artea"](#) eta [Euskadi Literatura Sariak](#).
3. Lehiaketa libreko deialdietako diru kopuruari eutsi zaio, aurreko zailtasunak izanda ere, eta sorkuntza babesteko lerro guztien ekarpenekin. Era berean, sektorearekin birdefinitu ondoren, [sormen lantegiaren](#) lerroa indartu da.

2. ekimena. Laguntza ildoak birdefinitzea eta egokitzea.

1.18.4 helburua. Arte eta kultura sorkuntza bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013aren hasieran, ekimen batean lanean hasi ziren, [gobernuaren laguntzen](#) eragin kulturala ebaluatzeko, eta, horrela, kulturaren sartutako diru publikoa itzultzea etengabe hobetzeko.
2. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin hitz egin da, partekatutako eskumen eremuei buruzko definizioa eta metodologia komunaren gainean lan egiteko, esterako [sorkuntza eta kultura industrien](#) gainean. [Kulturaren Euskal Behatokiak](#) txostena egin du, definizio, metodologia eta eremu banaketan lehen proposamen bat edukitzeko.
2. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin lankidetzan, EAEko kultura eta sorkuntza industrien mapari buruzko diagnostikoa egiten ari da.

3. ekimena. Arte, kultura eta pentsamendua sortzeko guneak eratzeko eta egonkortzeko laguntza ematea EAEko lurralde oso-osoan.

1.18.4 helburua. Arte eta kultura sorkuntza bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013. urtean zehar, [sormen lantegiaren](#) laguntzen deialdiari eutsi zitzaion, eta proiektuen edukiei erreparatu genien bereziki. Halaber, batzorde teknikoa berritu zen eta begirada desberdinak ahalbidetzen dituen txandaketa sistema bat sustatu zen.

2. Proiektua birdefinitu eta sortzaileen beharretara gehiago moldatzeko proposamena [Auzolanean](#) planera eraman zen gainerako erakundeekin lan egiteko, bai eta ireki eta gainerako erakundeekin partekatze ere. Halaber, EAEko egungo sorkuntzari buruzko erakusketa kolektibo baterako deialdi irekia jarri zen martxan.

3. 2014an zehar, euskal artearen difusiorako web gune berria aktibatu zen, hiru hizkuntzatan [Eremuak-en](#) erakusketaren deialdiaren ebazpena zabaldu zen eta erakusketa Artiumen egon zen ikusgai.

4. 2015ean eta 2016an, sormen lantegien 2015eko deialdirako hornidura indartu zen eta sektorearekin adostutako hobekuntzak sartu ziren. Bi urteko laguntzak eman dira sormen lantegien Sorgune zentroetarako.

5. 2015eko irailean, [Tabakalera](#) jarri zen martxan, kultura garaikideko nazioarteko zentro berria eta sorkuntzarako erreferentziatzko zentroa bera.

4. ekimena. Sorkuntza, ekoizpena eta herritarrekiko baterako sorkuntza bultzatzen eta sustatzen duten azpiegiturei, proiektuei eta egitasmoei laguntza ematea, hala nola Tabakalerari edo Kulturaren 2016ko Hiriburutzari,

1.18.4 helburua. Arte eta kultura sorkuntza bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015 eta 2016an zehar, proiektuak babesten jarraitzen da, eta haien jarraipena egiten dugu Administrazio Kontseiluen bidez.
2. 2015ean, bultzada eman zitzaion [Donostia 2016an Europako Kultura Hiriburu](#) izateari, urte anitzeko aurrekontuari buruzko akordio instituzionalaren eta zuzendaritza berria indartzearen bidez. Donostia 2016an Europako kultura hiriburua gisa 2016ko urtarrilaren 23an inauguratu zen ofizialki.
3. Erakundeek [Tabakalerari](#) emandako laguntza eta lankidetzaren areagotu egin ziren. Obrak amaitutakoan, kulturaren arloko erreferentziatzeko zentro hau [2015eko irailean inauguratu zen](#).

1. ekimena. Museoak eta proiektu museologiko traktoreak egonkortzeko eta garatzeko laguntzari eustea artegintzan, ondarean eta natura ondarean.

1.18.5 helburua. Kultura egitura eta ekimen traktoreei laguntzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar, gogoeta prozesu bat hasi zen Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, euskal erakundeen eta New Yorkeko S.R. Guggenheim Foundation-en arteko akordioa berritzeko eta sustatzeko. Horren ondorioz, beste 20 urterako luzatu eta berritu zen hitzarmena eta era egokian funtzionatzen ari da.

2. Ondare Historikoaren Kontseiluak eta Kultura, Hezkuntza eta Kirol Ministerioak [Añanako Gatz Harana](#) proiektuaren hautagaitza onartu eta babestu zuten, Unescori munduko ondare izendatzeko eskatzeko, eta Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailaren proiektuan jaso zen.

3. Era berean, legegintzaldian zehar besteak beste honako jarduketak gauzatu dira, kultura proiektuei babesa ematearekin lotuta:

- [Artiumen](#) aldeko apustuari eutsi zaio, bere finantzazioa babestu da, eta Eremuak programaren kudeaketa esleitu zaio.
- [Gasteizko katedrala](#) lehengoratu eta berreraikitze proiektuaren musealizazioa finantzatzen jarraitzen da.
- Unescori dossier bat aurkeztu zaio, Arabako Errioxako eta Errioxa Garaiko Ardoaren eta Mahastien kultura paisaiaren hautagaitzarako.
- Monumentu eta toki historiko artistikoen nazioarteko kontseiluak (Icomos) Donejakue Bidearen iparraldeko bidea ondare unibertsal izendatzeko gomendatu du.
- Arrakastatsu amaitu da lehen denboraldia, OSEko zuzendari orokor berriarekin eta zuzendari artistiko berriarekin.
- Euskal Filmotekaren izaera zentralaren aldeko apustuari eutsi zaio, euskal zinemaren ezagutza eta gizarteratzearen eremuan.
- [Eresbilen](#) izaera zentrala babesten jarraitu da.

4. 2016an, EAEko museoetako bilduma eta erakusketak hedatzen dituen ataria berritu da, [Emsime](#), hain zuzen. Bestalde, Arabako Errioxako eta Errioxako nahiz Añanako Gatz Hareneko paisaia kultura munduko ondarerako aurkezteko hautagaitza proiektuak birformulatu dira. Era berean, foru aldundiekin lankidetzan, Pasaian Albaola kultura proiektua sustatuko da.

5. Euskal kultura ondarea babestu eta hedatzeko politikari dagokionez, Bilboko burdinazko gerrikoa babesten ari da, Lehendakariarekin lankidetzan, eta memoria historikoa berreskuratzeko politika zabalagoa baten esparruan, memoria horren aztarnak dirauen udalerrri eta erkidegoen lankidetzan sustatuko da.

2. ekimena. Erakunde traktoreei laguntzea eta indartzea

1.18.5 helburua. Kultura egitura eta ekimen traktoreei laguntzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar, aurrekontuak finkatu egin ziren, eta berriazko bultzada eman zitzaion digitalizazioari, funtsak sarearen bidez zabaltzeko eta eskuragarri izateko. Sektoreko plataforma egituratzailer den [Zineuskadiren](#) kide egin zen Euskal Filmatekaren fundazioa. Horrek aukera eman zion Zineuskadiren areto sarean sartzeko, EAE osoan haren sozializazioa bultzatze aldera.

2. 2013an, aurrekontua finkatu eta partida berezi bat sartu zen dantzaren dokumentuak artxibatzeko, eta aparteko laguntza berezi bat digitalizaziorako eta artxibo digitalak eskuragarri jartzeko.

3. 2014an zehar, sarean euskal artxiboen presentzia indartzeko eta eskuragarriago bihurtzeko azterketa abiarazi zen eta [Euskal Herriko Gazte Orkestrako](#) (EGO) karguak berri ziren.

4. 2015. eta 2016. urteetan, honako jarduketak garatu dira:

-[Guggenheim Bilbao Museoaren](#) eta New Yorkeko Salomon Guggenheim Foundation fundazioaren arteko kudeaketa akordioa 20 urtez luzatzeko hitzarmena sinatu zen.

-[Artiumen](#) aldeko apustuari eutsi zaio, berau finkatu da, eta Eremuak programaren kudeaketa esleitu zaio.

-Bigarren mailako euskal museoen jarduketa eta funtzioak indartzeko deialdia ezarri da.

-Eusko Jaurlaritzak Gasteizko katedrala lehengoratu eta berreraikitze proiektuaren musealizazioa finantzatzen jarraitu du, bakarrik.

-[Gatz Harana Fundazioa](#) finantzatzen jarraitzen da, Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailarekin koordinatuta, eta Unescori dossier bat aurkeztu zaio, Arabako Errioxako eta Errioxa Garaiko Ardoaren eta Mahastien kultura paisaiaren hautagaitzarako.

-ICOMOSek Donejakue Bidearen iparraldeko bidea ondare unibertsal izendatzeko gomendatu du.

-Arrakastatsu amaitu da lehen denboraldia, [Euskal Herriko Orkestra Sinfonikoko \(OSE\)](#) zuzendari orokor berriarekin eta zuzendari artistiko berriarekin.

-Euskal Filmotekaren izaera zentralaren aldeko apustuari eusten zaio, euskal zinemaren ezagutza eta gizarteratzearen eremuan.

-[Eresbilen](#) izaera zentrala babesten jarraitzen da.

-[Tabakaleraren](#) babesa finkatu egin da, ireki den lehen urtean.

-[Zinemaldiarekin](#) elkarlana indartu da, euskal sektorearentzat plataforma estrategiko bihurtzeko, Industry-ren barruan proiektuei nazioartekotzeko ematen zaien aholkularitzaren bitartez eta global sarearekin elkarlanean.

3. ekimena. Zine, musika eta antzerki jaialdi traktoreetarako laguntzari eustea, haien kultura, gizarte, turismo, ekonomia eta hiri eta herrialde markagatik.

1.18.5 helburua. Kultura egitura eta ekimen traktoreei laguntzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an zehar, Gobernu honek [Zinemaldiaren](#) alde egindako hautua berretsi zen, Kultura arloak haren finantzaketari eutsi zion eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren ekarpena finkatu egin zen. Zinemaldiari Zineuskadiko kide izateko gonbidapena egin zitzaion.

2. Halaber, eutsi egin zitzaion [OLBERren](#) aldeko laguntzari, eta musika hamabostaldiaren aurrekontua finkatu zen. Partida handitzea aurreikusi zen, erakunde horrek programazio berezia egin dezan bere 75. urteurrenean. Orokorrean, jaialdiak, zikloak eta beste zenbait kultura jarduera egiteko deialdietarako partida handitu zen.

3. 2014an, Zinemaldirako ekarpena finkatzeaz gain, baterako jarduketak diseinatu ziren EAEko ikus-entzunezko sektorearentzat.

4. 2015ean zehar, honako jarduketak garatu dira eta horietako batzuek 2016an zehar jarraituko dute:

-[Euskal Filmoteka](#) eta [Eresbilen](#) babesari eutsi zaio.

-Arrakastatsu amaitu da lehen denboraldia, [Euskal Herriko Orkestra Sinfonikoko \(OSE\)](#) zuzendari orokor berriarekin eta zuzendari artistiko berriarekin.

-[Gatz Harana Fundazioa](#) finantzatzen jarraitzen da, Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailarekin koordinatuta, eta Unescori dossier bat aurkeztu zaio, Arabako Errioxako eta Errioxa Garaiko Ardoaren eta Mahastien kultura paisaiaren hautagaitzarako.

-ICOMOSek Donejakue Bidearen iparraldeko bidea ondare unibertsal izendatzeko gomendatu du.

-Guggenheim Bilbao Museoaren eta New Yorkeko Salomon Guggenheim Foundation fundazioaren arteko kudeaketa akordioa 20 urtez luzatzeko hitzarmena sinatu zen.

-Artiumen aldeko apustuari eutsi zaio, berau finkatu da, eta Eremuak programaren kudeaketa esleitu zaio.

-Bigarren mailako euskal museoen jarduketa eta funtzioak indartzeko deialdia ezarri da.

-Eusko Jaurlaritzak Gasteizko katedrala lehengoratu eta berreraikitze proiektuaren musealizazioa finantzatzen jarraitu du.

4. ekimena. Proiektu traktore berriak handitzeko eta abian jartzeko aukera aztertzea eta, hala badagokio, horiek bultzatzea eta sustatzea.

1.18.5 helburua. Kultura egitura eta ekimen traktoreei laguntzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, jarraitzen du etengabeko negoziaketa batean, [Chillida Leku](#) ireki dadin, haxe baita zalantzarik gabe egitasmo traktorea.
2. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin lankidetzan ari da, "EAEko museo eta zentro enogastronomikoen sarea" izeneko sustatzen. Sare hori hiru lurralde historikoetako zazpi museo eta gastronomia eta enologia zentrok eratzen dute, sagardoa, txakolina, ardoa, gazta eta txokolatea EAEko kultura eta tradizioari lotutako produktu gisa sustatzeko elkarlanean.

1. ekimena. Eitb bultzatzea zerbitzu publiko gisa, euskalduntze eragile gisa, ikus-entzunezko sektorearen bultzatzaile gisa eta gizarte kohesiorako tresna eta lanabes gisa.

1.18.6 helburua. Eitb eta ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013az geroztik, [Eitb-n](#) zerbitzu publikoaren jarduketa hiru euskarriotan garatzen da: telebistan, irratian eta Internet bidez, finantziario mistoaren bitartez. Zerbitzu honen edukiak 2013ko maiatzean onartutako programazio ildo orokorretan jasota zeuden.

2. Eitb [EAEko ikus-entzunezkoen klusterraren](#) bazkide sortzailea da. Entreenimenduaren eta egunean eguneko berrien esparruan egiten dituen ikus-entzunezkoak lankidetzara publiko eta pribaturekin gauzatzen dira. Era berean, Eitb-k euskal sistemaren proiektu nagusiak finantzatzen ditu eta estaldura bermatua eta ona dauka EAEn eta Iparraldean.

3. Eitb kate berezia eta beste kate publiko eta pribatuen osagarria da. Bereizgarri ditu euskal herritarren interesekiko hurbiltasuna eta konpainia. [Eitb sortzeari buruzko 5/1982 Legeko](#) II. kapituluaren jasotako printzipio orokorretan inspiratzen da kate hau.

4. Legegintzaldi honetan, Eitb-k printzipio horiek eguneratzen dituzten bi agiri garrantzitsu onartu ditu. Zehazki: "Eitb-ren programazio ildo nagusiak" agiria eta "2013-2016 plan estrategikoa". Bi agiriok agente inplikatuaren partaidetzara zabaldu daude eta printzipio horiek taldeak dauzkan kate desberdinetako edukietan garatu eta inspiratzea dute xedetzat.

5. 2016ko otsailaren 09an egindako Gobernu Kontseiluan, [Eitb-rekin 2016-2019 programa kontratu](#) berria onartu zen.

2. ekimena. Baliabideak erabiltzerako orduan eraginkortasunean aurrera pausuak ematea ahalbidetuko duen bikaintasunaren kudeaketa bultzatzea.

1.18.6 helburua. Eitb eta ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea)

Jarduketak

1. Eitb-k behin eta berriz esan du hedabidearen iraunkortasuna dela helburu nagusia, diru sarrerak eta gastuak orekatuz, eta emaitza aipagarriak lortuz audientzian eta gizarte prestigioan. Kudeaketa eredu horren ondorioz, Eitb-k kudeaketa zorrotz eta zehatza du.
2. Eitb-k eskarmentu handia du kudeaketa eredu aurreratuetan; 2004tik 2009ra kudeaketa bikaintasuneko sari garrantzitsuenak lortu ditu, bai bertakoek, bai nazioartekoak. Gaur egun, Eitb-k kudeaketa estandar horiekin kudeatzen du enpresa, bai enpresa politiken garapenari begira, bai emaitzak lortzeari eta neurtzeari dagokienez.
3. Urte anitzeko programa kontratuaren eredua 2011 arte egon da indarrean, eta 2012 eta 2013an urtebeteko kontratuak izan dira. 2016ko otsailaren 9an Gobernu Kontseiluak onartu zuen Eitb-rekin [2016-2019 kontratu programa berria](#), non kudeaketa eta eraginkortasuna aurreikusten dira baliabideak erabiltzeko orduan.

1. ekimena. Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Plana prestatzea, EAEko Gazteri Politika Integralaren Marko Orokorren garapen gisa.

1.19.1 helburua. Gazteriaren zeharkako politika bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013. urteko ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako III. Gazte Planaren (Gaztegingtza) lehen zirriborroa prestatzen hasi zen. Horretarako, zenbait sailen lankidetzaz izatea lortu zen, hain zuzen ere, gazteen emantzipazioan inplikazio zuzena duten sailena, [EAEko III. Gazte Planaren Marko Orokorra 2020](#) lanean jasotako diagnostikotik eratorritako jarduketa lerro nagusiak III. Gazte Planean txertatzeko.

2. 2013-11-19an Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordean egindako agerraldian, Sailak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari eta foru aldundiei aurkeztu izana jakinarazi zuen, baita zirriborroa [Gazteen Euskal Behatokiaren](#) webgunearen eta [Gazteaukera](#) atari gaztearen bidez zabaldu izana ere, herritarren proposamenak jasotze aldera, bereziki, gazteenak.

3. Horrez gain, prozesu parte hartzaile eta ireki hori Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen bileretara hedatu zen, eta bertan [Euskadiko Gazteriaren Kontseilua](#) (EGK) ere izan zen.

4. [Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Plana 2014-2016](#) 2014ko urriaren 28an onartu zuen Gobernu Kontseiluak.

2. ekimena. Gazteen enplegua eta ekintzailtza sustatzea, gazteen lehendabiziko lan esperientzia erraztuko duten beken programa baten bitartez, prestakuntza eta praktika egitasmo zehatzen bitartez eta egokitzapen profesionalari eta enplegu birziklapenari buruzko programa baten bitartez, betiere lana lortzeko sarbide kontratuak indartuz eta unibertsitateko gazteen lan esperientzia erraztuz.

1.19.1 helburua. Gazteriaren zeharkako politika bultzatzea

Arduraduna: José Andrés Blasco Altuna (Enplegu eta Lan sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldia hasi zenetik, arloan inplikaturako eragileen artean koordinatzeko eta bitartekaritza lana egiteko premia antzeman zen, neurriak eraginkorrak izateko. Hala, herritarrek politika publikoetan duten parte hartzea sustatzeari eta bitartekaritza lanari eutsiz, etengabeko harremanak izan dira arloan inplikaturako sailen artean, baita Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin ere, urtero ezarri beharreko gazteria enplegu politikei buruz informatzeko eta dagoeneko garatutako ekintzen emaitzak aztertzeko.

2.- **III. Gazteria Plana 2014-2016** dokumentuan gazteriari dagozkion enplegu eta ekintzailtzarako neurri eta proposamenak jaso dira, eta garatzeko beharrezko programak jaso ziren.

3. ekimena. Gazteek etxebizitza eskuratzeko aurrez aurreko plana prestatzea.

1.19.1 helburua. Gazteriaren zeharkako politika bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldia hasi zenetik, arloan inplikaturako eragileen artean koordinatzeko eta bitartekaritza lana egiteko premia antzeman zen, neurriak eraginkorragoak izateko. Hala, Etxebizitza sailburuordetzarekin koordinatzeko eta horrekin eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin bitartekaritza lana egiteko betebeharra garatu zen.

2. **III. Gazteria Plana 2014-2016** dokumentuan gazteek etxebizitzarako sarbidea izatea errazteko Etxebizitza Sailburuordetzak abiaraziko dituen neurri eta proposamen guztiak jaso ziren.

3. Hain zuzen ere, honako ekimen hauek jarri ziren martxan, gazteek etxebizitzara sarbidea izatea errazteko:

- Hutsik dauden etxebizitzak hartzeko programak, etxebizitzen parke publikora bideratzeko: [Bizigune Etxebizitza Hutsen Programaren](#) eta [ASAP \(Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa\) Etxebizitza Libreak Alokatzeko Merkatuan Bitartekaritza Programaren](#) bitartez.

- Proba pilotu bat martxan jartzea, etxebizitza publikoen euskal parkean merkataritza, enpresa eta hiri apartzeria ezartzeko aukera aztertu ondoren, etxebizitzak edo lokalak birgaitzen dituzten pertsonen ondoren denbora zehatz batez horietaz goza dezaten.

- Eskatzaile gazteei arreta emateko zerbitzuak zabaltzea eta hobetzea, eta, horretarako, emandako arreta pertsonalizatzea, eta e-administrazioako tresnak gehiago erabiltzea bai Etxebidek emandako zerbitzuetan, bai [Bizilagun zerbitzuaren](#) bidez etxebizitza libreekin lotutako gainerako kontsultetan.

- [Gazteentzako alokairu sozialeko eskaintza publikoa](#), etxebizitzarako sarbiderako formula berriak aztertuz, bereziki gazteentzat egokitutakoak, erosketa edo alokairurako bitartekaritza figurak garatuz, erosteko aukerarekin, etab., etxebizitza izatea sustatzeko, errazteko eta malgutzeko alternatiba gisa.

- Etxebizitzen truke mekanismoa berrikustea eta beharrezko hobekuntzak aplikatzea.

4. ekimena. Gazteen osasuna sustatzeko eta bizi ohitura osasungarriak bultzatzeko jarduketa programa integrala abian jartzea.

1.19.1 helburua. Gazteriaren zeharkako politika bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013. urtean, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) hitzaldiak eta ikerketak egin zituen, gazteak eragin diezaieketen arazoez sentsibilizatzeko. Sailen arteko lankidetzaren esparruan, alkoholari eta gazteei buruz Osasun Sailak antolatutako batzorde batean parte hartu zen. Horrez gain, kirola eta osasuna binomioari buruzko politikak diseinatzean ere parte hartu zen.

2. 2014an, [Mugiment](#) Plana baliozkotu zen, gizarte aktiboagoa sustatzeko. Eudel eta foru aldundiak ere inplikatu ziren.

3. [Gobernuaren III. Gazte Planean](#) gazteentzako osasun arlotik ezarri beharreko neurri eta proposamen guztiak jaso ziren; batez ere honako hauek nabarmendu behar dira:

- Prebentzio unibertsaleko programak, gazteei zuzendutakoak, osasunerako hezkuntza dute helburu, baita ohitura eta jokabide osasungarriak ezagutzera eman eta sentsibilizatzea ere.
 - Osasun arloko hezkuntza, besteak beste, ariketa fisikoa, elikadura, ahoko higiena, istripuen prebentzioa, eskuak garbitzea, fotobabesa, jarrera higiena eta tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzea prebenitzea bezalako gaiak landuz
 - Elikadura Osasungarriko Plana, barazki freskoak, fruta eta lekaleak kontsumitzea areagotzeko, animalia koipea, azukre findua eta gatza kontsumitzea murriztuz, pertsona pobreak elikagai osasungarriak lortzeko eskuragarritasuna areagotzeko, tokiko ekoizpena eta bereziki nekazaritza iraunkorra laguntzeko.
 - "[Kerik gabeko ikasgelak](#)" programa, tabakismoa prebenitzea sustatzeko 12 eta 14 urte arteko ikasleen artean (DBHko 1. eta 2. mailak) eskola inguruan.
 - "Adingabeak eta alkohola" Batzordea, lantaldeak dinamizatuz esku-hartze esparruak proposatzeko eta adingabeen artean alkoholaren kontsumoa murrizteko ekintzak proposatzeko, beste erakunde eta sail batzuekin modu koordinatuan bultzatuko direnak.
 - Guraso elkarteentzako eta unibertsitate ez beste irakaskuntzako ikastetxe titularren irakaskuntza kooperatibetarako diru-laguntzak, ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak garatzeko eta eskola bideak dinamizatzeko.
 - Gazteek txertoak jartzeko programa.
 - Adikzioen zerbitzua
 - Gazteen artean aisialdian droga kontsumoari lotutako arriskuak eta arriskuko kontsumoa murrizteko programak martxan jartzea.
- Prebentzio Selektiboaren maila:

4. Legegintzaldian zehar [Gazteen Euskal Behatokiak](#) prestakuntza eta azterlanak egin ditu gazteek osasun arloan dituzten arazoen berri izan eta horien prebentzioan laguntzeko. Osasun Sailak alkoholari eta gazteei buruz antolatutako batzorde batean parte hartzen ari gara.

5. ekimena. Gazteen mugikortasuna erraztea mugikortasun iraunkorrari buruzko politikarekin koordinatuz eta nazioarteko esperientziak bultzatzea, betiere gazteen elkartruckerako garapena bultzatuz.

1.19.1 helburua. Gazteriaren zeharkako politika bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, [Gazteak Ekinean Programara Europarraren](#) barruan zenbait jarduketa kudeatu ziren (1) gazteen elkartrukeak (2) eta gazte ekimenak (3) sustatzeko, ikastaroak eta mintegiak kudeatzeko (3) eta gazteria politiken arduradunak eta gazteak elkartzeko (4).
2. EAEk Bruselan duen ordezkarezarekin lankidetzan, 2013an zenbait jarduketa egin ziren, batetik, [Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak \(EGK\)](#) Europa mailako gazteen arloko organismoetan parte har zezan, eta, bestetik, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak aukera izan zezan Europar Batasunak 7 urterako (2014-2020) laguntzen planean ezarritako laguntza jasotzeko.
3. Urtero [gazteen mugikortasun proiektuen esparruko laguntzetarako programaren](#) deialdia egin da.
4. 2014an Eusko Jaurlaritzak Bruselan duen ordezkartzak kudeatutako bisita bat egin zen Europako hainbat erakundetara, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Europako gazte arloko erakundeetan parte hartzeko aukera ezagutzeko.
5. 2014an, Gazteak Ekinean proiektuko aurreko programaren ordezkari, [Europar Batzordearen Erasmus plus programa](#) berria hasi zen, eta honelako proiektuak kudeatu ditu: Horren haritik, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) programa europar horri buruzko prestakuntza ikastaro bat eskaini zuen, gazteria arloan lan egiten dutenentzat. 2015ean programa horri buruzko beste bi ikastaro eskaini ziren.
6. Europako Batzordearen Erasmus Plus programa garatzean, 2014an honelako proiektuak gauzatu ziren: Gazteen arteko bederatzi elkartruke programa, horietatik bost gauzatu dira. Europako Boluntario Zerbitzua, kudeatu eta gauzatutakoa; gazte langileen prestakuntza eta mugikortasuneko bost proiektu.
7. Urtero mugikortasun gida eguneratu eta argitaratzen da, gazteei zuzendutakoa eta "Helmuga Europa" izenekoa; Europa ezagutzeko, bertan lan egiteko edo ikasteko baliabide eta aukera guztiak eskaintzen ditu.
8. 2015ean, [Erasmus plus: Gazteak Ekinean programaren haritik](#), elkartruke proiektuak, gazte ekimenak, Europako Boluntario Zerbitzua, mintegiak eta gazteria arloko arduradunak eta gazteak elkartzeko topaguneak kudeatu dira. Horrez gain, Gazteen Euskal Behatokian gazteen mugikortasun programa horri buruzko prestakuntza ikastaroak eskaini dira gazteen arloan lan egiten duten pertsonen zuzenduta.

6. ekimena. Kultur garapena eta elkartrukea sustatzea eta balioetan hezteko modulu eta plangintza zehatzak bultzatzea ikastetxeekin elkarlanean.

1.19.1 helburua. Gazteriaren zeharkako politika bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1.- 2013ko ekitaldian zehar, Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzaren, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin etengabeko elkarlana eta bitartekaritza prozesu bat garatu zen, bigarrenak parte har dezan [Bake eta Bizikidetzaren 2013-2016 Planaren](#).

2.- Deskribatutako lankidetzaren prozesua gauzatzearen ondorioz, honako ekintza hauek garatu ziren:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin batera Irlandara egindako bidaia batean parte hartu zuen, eta bertan gai horri buruzko kasu praktikoak aztertu zituzten.
- 2013an, 2014an eta 2015ean urteko diru-laguntza izendun bat eman zitzaion [Gernika Gogoratuz Fundazioari](#).
- Lankidetzarako hitzarmen bat sinatu zen Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren artean, Bake eta Bizikidetzaren 2013-2016 Planaren jardun ardatzak partekatze, diseinatze eta garatzeko, gazteriaren eta hezkuntza ez formalaren esparruan.

1. ekimena. Gazteen erakundeen gaur egungo ordezkaritza egiturentzat oinarri sendoak jartzea (CJE-EGK).

1.19.2 helburua. Parte hartzea eta elkartasuna bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. Urteko diru-laguntza nominatiboa eman zaio Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari. Legegintzaldian zehar oso lankidetzaren harreman estua finkatu da Gazteria eta Kirol arloaren eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren artean.

2. Urteko diru-laguntza nominatiboa eman zaio [Gernika Gogoratuz fundazioari](#).

3. Lankidetzarako hitzarmen bat sinatu zen Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren artean, [Bake eta Bizikidetzaren 2013-2016 Planaren](#) jardun ardatzak partekatzeko, diseinatzeko eta garatzeko, gazteriaren eta hezkuntza ez formalaren esparruan.

2. ekimena. Parte hartze eta informaziorako bideak sendotzea sare sozialen bitartez.

1.19.2 helburua. Parte hartzea eta elkartasuna bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldian zehar lankidetzaren harreman estua egon da Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin, gazteen eta herri administrazioen arteko bitartekari gisa.

2. 2014an, Gazteak Ekinean programako aurreko programaren ordean, [Europar Batzordearen Erasmus plus programa](#) berria hasi zen; horren haritik, harrezkero, [Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak](#) programa europar horri buruzko prestakuntza ikastaro bat eskaini zuen, gazteria arloan lan egiten dutenentzat.

3. [Gazteukera](#) atariaren bitartez, gazteen artean parte hartzerako beste kanal berri bat sortu da, eta hortik harremanak izan ditzakete (foroak, txatak, iragarkia...), elkartu, informatu daitezke, besteak beste. Parte hartze aktiboa modu berritzailean sustatzeko, hainbat ekimen eta lehiaketa jarri dira martxan, eta horien bitartez gazteek haien esperientzia kontatzen dute argazkien, testuen, bideoen eta argazkien bitartez Youtube, Ficker, eta Gazteukerako blogeko kanaletan.

-2012: Blogariak Londresko Joko Olinpiar eta Paralinpikoetan.

-2013: Auzokontalariak: - Blogariak EAEko auzolandegietan.

-2013: Gazte Ibiltariak: - Euskal Herrian zehar bizikletaz egindako ibilbidea kontatzen duten blogariak, beste kirol batzuk txandakaturik, esaterako surfa, eskalada edo mendi lasterketak.

-2015: Goazen Boisera: aurtengo udan Boiseko jaialdira joango diren blogariak.

4. Sare sozialen bitartez (Facebook, You Tube eta Flickr), informazio garrantzitsua zabalduko da, eta gazteekin komunikazio zuzena izateko kanalak ezarriko dira, parte hartzea sustatuz. Gazteukerak blog bat dauka, eta aldizka gazteentzat interesgarriak diren gaiak lantzen dira. <http://gazteukera.blog.euskadi.net>

5. Honako diru laguntza hauek eman dira toki entitateentzat, toki mailan gazte ekipamenduen sareak bultzatzeko.

-2013. urtean: 20 laguntza, guztira 289.827 eurokoak.

-2014an: 23 laguntza, guztira 289.844 eurokoak.

-2015. urtean: 27 laguntza, guztira 289.991 eurokoak.

3. ekimena. Gazte boluntariotzako programak eta lankidetzak bideratzea eta bultzatzea.

1.19.2 helburua. Parte hartzea eta elkartasuna bultzatzea

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldian zehar, [Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren](#) deialdiak urtero egin dira, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteak sentibilizatzeko hegoaldeko herrialdeetan garapenerako lankidetzak ekintzetan eta euskal gazteen artean herrien eta kulturen arteko elkartasun kultura sustatzeko; guztira, 84 gaztek hartu dute parte jardueretan Hirugarren Munduan.

2. 2013an belaunaldien arteko auzolandegien udako programa garatu da. Auzolandegi bana egin zen Bergaran eta Lekeition, eta 80 gaztek hartu zuten parte. Esperientzia hori errepikatu egin da antzeko zifrekin, bai 2014an, bai 2015ean.

3. 2015eko deialdian, [Auzolandegiak](#) programak 260 plaza aurreikusi ditu Euskal Autonomia Erkidegorako, 117 estatu mailan eta 100 atzerrian.

1. ekimena. EAEko haur, nerabe eta gazteei buruzko politikak planifikatzeko, antolatzeko, administratzeko, kudeatzeko, ikuskatzeko eta ebaluatzeko eredu sistemaren diseinu eta erregulaziorako legegintzaldi ekimena eta arauzko garapena abiaraztea.

1.19.3 helburua. Gazteria politiken zuzendaritza estrategikoa

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. [Gazteaukera](#) atariaren bidez, gazteek parte hartzeko beste bide bat zabaldu dugu, bertan harremanak izateko (foroak, txatak, iragarkiak), elkartzeko eta informatzeko.

2. Testua prestatzeko prozesuaren ondoren (Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ere parte hartu du), eta herritarrei ireki eta gero, [Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Plana](#) 2014-2016 (Gaztegitzan) betearazpen fasean dago.

3. EAEko III. Gazte Planaren jarraipen eta ebaluazio lan egokia egite aldera, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) diseinatutako Adierazleen Panel bat prestatu da; Euskal Autonomia Erkidegoan gazteen errealitateari buruzko 25 helburu estrategikoen proposamena jaso da bertan. 25 helburu horiei 29 adierazle lotu zaizkie, eta horietarako 2016. urtean lortu beharreko balio edo joera batzuk finkatu dira (urte horretan bukatzen baita Eusko Jaurlaritzako III. Gazte Plana); data bat dator esparru planaren bitarteko berrazterketa.

4. 2015-03-30ean GazteBizHitza ataria aurkeztu zen: EAEko gazteentzako orientazio eta aholkularitzako doako on line zerbitzua da. Interneteko atari horretan hezkuntza, enplegu eta etxebizitzari buruzko informazio gaurkotua eta kalitatezkoa ageri da. Gainera, arreta pertsonalizatua eskaintzen da, gazteen zalantzak erantzuteko: talde aholkulari batek gazteen zalantza eta galderak erantzuten ditu Whatsapp, posta elektronikoko edo telefono bidez. [GazteBizHitza](#) Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektu bat da, euskal gazteen emantzipazioari lotutako beharrei erantzuna emateko. Proiektu hau Lanbide, Etxebide, Zuzenean eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren arteko elkarlanaren emaitza da.

2. ekimena. Ikerkuntzarako, gazteria politiken etengabeko erkaketarako eta gazteri arloko eragileen trebakuntzarako dauden egitura eta baliabideak sendotzea.

1.19.3 helburua. Gazteria politiken zuzendaritza estrategikoa

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburua)

Jarduketak

1. 2013an gazteriar buruzko politiken inguruko ikerlanak eta azterlanak aurkezteko eta hedatzeko jarduera ugari egin ziren, modu erregularrean. Adibide gisa honako hauek aipa daitezke: Gazteen lonjak eta lokalak EAEn, EAEko gazteen sinesmenak eta erlijiozaletasuna, Euskal gazteen kontsumo arduratsua, Gazteen irakurketa ohiturak, Atzerrira egindako emigrazioei buruzko datuak, Genero desberdintasuna eta sexismoa gizarte sareetan, Gazteen kirol jarduna, Europa helmuga 2013 - Mugikortasun gida, Gazteriaren Erretratuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013 edota Egoitza emantzipazioaren kostua EAEn 2017-2013.

2. [Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean](#), astero, mota guztietako azterlan eta argitalpenak plazaratzen dira, EAEko gazteen egoerari buruzko azterketa eguneratu eta ahalik eta osoena gazteekin lan egiten duten pertsonen eskura jartzeko. Horrez gain, 2014tik Gazteen Euskal Behatokiaren Adierazleen Online Sistema etengabe eguneratzen da, eta sektoreko profesionali informazio estatistikoa eskuragarri jartzen die, EAEn gazteen egoeraren diagnostiko eguneratua izateko.

3. [Gazteen Euskal Behatokiaren Dokumentazio Zentroak](#), gazteriar buruzko dokumentuak biltzeko lanarekin jarraituz, urtero 100 titulu berri inguru jasotzen ditu. Zentroak 3900 titulu monografiko ditu erregistratuta, eta 71 argitalpen seriatu, inprimatuak eta digitalak. Prestakuntza arloan, gazteriaren esparruko profesionalentzako sei ikastaro egin dira.

4. Prestakuntza arloan, 2013tik gazteentzako eta gazteria arloko langile teknikarientzako 10 ikastaro inguru egin dira urtero, eta 200 profesional inguruk hartzen dute parte; hainbat gai lantzen dira: sexualitatea, nortasun digitala, cibervilleak, nerabeak eta droga, proiektuen diseinua eta kudeaketa, [Erasmus +](#),...

5. 2015eko martxoaren 9an Aurrera Begira 2014 azterlana aurkeztu zen, gazteen espektatiben adierazleekin. Ikerketaren helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko gazteek etorkizuna epe labur eta ertainean nola antzematen duten jakitea zen, hamar adierazleren bitartez. Bigarren edizio honetan, gainera, azken urteko espektatiben bilakaera aztertu ahal izan da, azken emaitzak Aurrera Begira 2013 azterlanarekin erkatzerakoan.

6. Gazteen Euskal Behatokiari emandako babesaren honako jarduketa hauetan jaso da, 2015. urtean zehar: 8 azterlan argitaratu ziren, bankuan 111 estatistika adierazle zeuden, eta 53 aldiz eguneratu ziren. 48 azterlan estatistiko labur argitaratu ziren webgunean, euskal gazteen egoerari zegokionez, eta prestakuntzako 10 ikastaro eskaini ziren; gazteria arloko 189 teknikaririk eta eragilek hartu zuten parte; honako hauek nabarmendu behar dira: IKTen erabilera gazteen sexualitatearen arretan: errealitateak eta aukerak ikastaroa, Nerabeen bikote harremanetako bortxaren prebentzioa edo Gazteen Ekimenen eta Gazteen arteko Trukeen diseinua eta kudeaketa Erasmus + programan: Gazteak (bi edizioak).

1. ekimena. Kalitatezko kirol sistema orekatu berria sustatzea eta bultzatzea, betiere kirolaren marko juridikoa eta antolamenduzkoa eguneratuz eta, bereziki, kirol esparruko lanbideak erregulatzeko legearen proiektua prestatuz.

1.20.1 helburua. Kalitatezko euskal kirol sistema

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. [391/2013 Dekretua](#), uztailaren 23koa, eskola kiroleko lehiaketan diziplina araubideari buruzkoa onartu zen.

2. 2014ko azaroan, [Kirol arloko lanbideak egikaritzeari buruzko EAEko lege proiektua](#) izapidetzen hasi zen, eta Gobernu Kontseiluak onartzearekin batera bukatu zen, 2016ko otsailaren 23an; proiektua dagoeneko Eusko Legebiltzarrera igorri da.

3. Dopinaren aurkako Mundu Kodea aldatzeko Legearen ondorioz Dopinaren aurkako Legea aldatu egin beharko da. Proiektu hori ez da hasieran aurreikusi X. legegintzaldiko legeen egutegian, baina lege proiektu gisa izapidetu da 2014. urteko azaroaz geroztik. Lege egutegian jaso ondoren, 2016ko urtarrilaren 26an Gobernu Kontseiluak egindako bileran onartu zen.

4.- Dopinaren aurkako borrokaren esparru horren barruan 2015ean honako arau hauen garapena egin da:

- Dopina kontrolatzeko prozesuak arautzeko dekretu proiektua.
- Dopinaren alorrean diziplina zehapenak ezartzeko eta berrikusteko prozedura arautzen duen dekretu proiektua.
- Dopinaren aurkako Euskal Agentzia sortzeko eta arautzeko dekretu proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko kirolean debekatuta dauden substantzia eta metodoen zerrenda argitaratzea agintzen duen agindu proiektua.

5. Osasun Sailarekin eta gainerako euskal erakundeekin lankidetzan, Osasun eta Jarduera Fisikoko Euskal Plana prestatu da, [Mugiment](#) izeneko; planaren helburu nagusia gizarte aktiboagoa sortzea da.

6. [Eskolarteko Kirol Jokoak 2015](#) antolatu ziren foru aldundiekin batera, eta [Euskadiko Unibertsitatearteko 2015eko Kirol Txapelketak](#) antolatu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateekin batera. (Arrasate/ Mondragón Unibertsitatea).

2. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko federazioen sarea berrantolatzen jarraitzea, haren egitura eta jardunbidea eraginkortasun irizpideen arabera egokituz eta euskal kirol eredu berriaren eraikuntzan daukan zeregina birdefinituz Euskal Federazioen Batasunaren lankidetzaz estuarekin.

1.20.1 helburua. Kalitatezko euskal kirol sistema

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1.- EAeko federazioak berrantolatzeko, Federazioen Batasuna sustatu da, zenbait betebeharrak komun bere gain har ditzan. Etorkizunean, gastuak eta kudeaketaren eraginkortasuna optimizatzen jarraitu nahi da aipatutako Federazioen Batasunarekin batera.

2.- [15/2016 Dekretua](#), otsailaren 2koa, Euskadiko Kirol Federazioen Dekretua aldatzen duena onartu da.

3. ekimena. Lehiaketarako euskal eremua sendotzea, lehiaketetarako egiturak arrazionalizatuz eta haien formatua gaur egungo errealitate sozioekonomikora eta kirol eragileen premietara eta itxaropenetara egokituz.

1.20.1 helburua. Kalitatezko euskal kirol sistema

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. -Euskadiko lehiaketa esparruari buruzko ikerketa bat garapen fasean dago, lehiaketa egiturak arrazionalizatzeko eta lehiaketak arrazionalizatu eta optimizatzeko.
2. - [Errugbi modalitatean lehiaketa marko berri bat ezartzeko plana](#) prestatu da eta ezartzen ari da.

1. ekimena. Fadurako Perfekzionamendu Teknikorako Zentroaren funtzionamendu eta jardunbidea eta maila altuko garapenari begirako teknifikazio zentroaren kontzeptua eta haren funtzionamendua ere birdefinitzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko maila altutako zentroen mapa eta haren antolamendua ere, inbertsio estrategien premiak eguneratzeko helburuarekin.

1.20.2 helburua. Goi mailako kirola eta nazioarteko kirola

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. [Perfekzionamendu Teknikorako Zentroa, Faduran dagoena](#) (Getxo), berregituratu egin da, eta Euskadi Kirola Fundazioko (Basque Team) koordinatzaile berria dauka; helburu nagusia gure goi mailako kirolarientzat lan koordinatu eta batasunaren irudia ematea da. Beste lan prozedura bat zehaztu da: zerbitzua ematen zaien goi mailako kirolarien esparrua zabaldu egin da, maila jaitsi egin baita, eta laguntza ematen baitzaie oraindik goi mailara iritsi ez direnei.

2. 2013an hiru foru aldundiekin hainbat hitzarmen sinatu ziren, goi mailara iritsi daitezken kirolariei laguntza eta babes biomediko eta teknikoa eman ahal izateko Faduratik. Horrez gain, lankidetzak akordioak sinatu ziren teknifikazio proiektuetarako piraguismo, errugbi eta atletismoko federazioekin; ondoren luzatu egin ziren. Azkenik, hiru euskal unibertsitateetako arduradunekin harremanak izan ziren, goi mailako kirolariei laguntzeko unibertsitate bakoitzak aplikatutako babes politikak ezagutzeko, eta horrelako laguntza eskatzen zuten kirolariei informazioa eman zitzaien.

3. 2014an, euskal federazio guztiekin bilera ugari egin ziren, [Basque Team Fundazioari](#) teknifikazio proiektuak aurkezteko. 2015ean euskal kirolari ez profesionalei baliabideak emateko jardunari eutsi zaio, nazioarteko lehiaketa altuenetan parte hartzea errazteko; ekitaldi honetan Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan parte hartzea izango da ardatz nagusia.

2. ekimena. Kirol zuzendaritzaren teknikarien eta kirol federazioen arteko talde lana eta koordinazioa bultzatzea eta sustatzea, maila altuko kirolari kopuru handiagoa lortzeko, eta aldundiekiko lankidetzaren eta elkarlana erraztea talentudun kirolariari edo etorkizun oparoko kirolariari jarraipena egiteko eta laguntza emateko.

1.20.2 helburua. Goi mailako kirola eta nazioarteko kirola

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. Teknikazio zentzuzko lanak etengabeko harremana du bere jardunean EAEko kirol federazioetan egiten den lanarekin. Era berean, eta horretarako, [Euskal Kirol Federazioen Batasunak](#) Durangotik Fadura aldatu du egoitza.

2.- Talentua duten kirolariarentzako laguntzaren eta haien jarraipenaren esparruan, behar-beharrezkoa da lankidetzaren aritzea foru aldundiekin, eta, horrenbestez, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako aldundiekin sinatutako akordioak luzatu egin dira.

3.- Berrikuntza sustatzeko, [Europar Batasunaren proiektu batean \(Replay proiektua\)](#) kolaboratzen ari da; bertan parte hartzen dute, batetik, kirol gaelikoek (Irlanda) eta, bestetik, euskal pilotak (Euskal Autonomia Erkidegoa). Xedea da bi kirolen historia zaintzea eta kirolak digitalizatzea, bai eta, teknologia berrien bidez, mugimenduak 3D-tan digitalizatzea eta produktu informatiko bat sortzea ere. Fadura-Getxon horri buruzko jardunaldi bat antolatu da.

3. ekimena. BAT (Basque Team) marka bultzatzea eta euskal balioetara egokitzea, parte hartzaileen kopurua handitzeko eta hurrengo Olinpiar Jokoetan domina eta diplomak erdiesteko xedez.

1.20.2 helburua. Goi mailako kirola eta nazioarteko kirola

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013tik diru laguntza eman zaio Euskadi Kirola Fundazioari, eta hainbat kirolari, teknikari eta epaile goi mailakotzat jo dira [Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko azaroaren 23ko Aginduaren](#) bitartez.
2. 2014an zehar, EAeko kirol federazioei eta Euskadiko Kirol Federazioen Batasunari lagundu zaie nazioarteko ekitaldiak antolatzeko eta horietan parte hartzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko txirringularitza elkarrekin batera, Euskal Herriko Itzulia eta Donostiako Klasikoa antolatu ziren. Munduko Pilota Batzarrari lagundu egin zaio, nazioartean posizionatzen eta egiten dituen jardueretan.
3. 2013tik, urtero 50 beka inguru banatu zaizkie kirolariei, goi mailako 16 teknikariri eta goi mailako 21 epaileri. Horrez gain, teknifikazioko 6 proiekturi laguntza eman zaie.

4. ekimena. Euskal selekzioak, Euskadi-Basque Country, indartzea eta euskal kiroleko selekzio nazionalen ofizialtasunaren onarpena bultzatzea eta sustatzea.

1.20.2 helburua. Goi mailako kirola eta nazioarteko kirola

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldian zehar modalitate desberdinetako euskal selekzioei lagundu zaie, kasuan kasuko kirol federazioen bidez.

2. 2014an [Federazioen Batasunak](#) euskal selekzioak babestu ditu ekitaldi hauetan: • Atlantikoko Itsas Jokoak Portugalen (surfa, urpeko kirolak, igeriketa, piraguismoa...). • Australiako Munduko Kayak Surf Txapelketa

• Tunisia-Euskadi, gizonezkoen saskibaloia. • Senegal-Euskadi, emakumezkoen saskibaloia. • Euskal-Amerikar eskubaloia txapelketa • Nazioarteko EBA Boxeo Txapelketa Gasteizen • Kuba-Euskadi softbol partida • Europako Xake Txapelketa • Euskadi-Venezuela waterpolo partida.

3. 2015ean Federazioen Batasunak euskal selekzioak babestu ditu ekitaldi hauetan: • Atlantikoko Itsas Jokoak Euskal Autonomia Erkidegoan / Orio Zarautz (surfa, urpeko kirolak, igeriketa, piraguismoa, bela eta arrauna). • Munduko Kayak-Surf Txapelketa Kalifornia. • Munduko Saskibaloia Txapelketa Bilbon Gizonezkoen EAeko Hiruko Txapelketa • Eskubaloia, Nazioarteko Partida Gabon Kopa • Boxeo, EBA Gasteiz Nazioarteko Torneoa • TWUIF Biltzarretara joatea (AEB eta Londres) • Miami eta San Franciscoko Pilota Lehiaketa • Futbola, Euskadi-Irlanda, Emakumezkoen Absolutua • Europako Xake Lehiaketa • Beisbola/Softbola, Emakumezkoen Nazioarteko Open Kanada • Errugbia, Errugbia A7 Paris Nazioarteko Torneoa. • Miami eta San Franciscoko Pilota Lehiaketa • Futbola, Euskadi-Irlanda, Emakumezkoen Absolutua • Kirol egokitua, Europa mailako txapelketa Bartzelonan • Igeriketa, Bartzelonako Nazioarteko Torneoa • Nazioarteko Gimnastika Gala • Nazioarteko Gimnastika Gala • Basket Basque Tour 2014 Saskibaloia • Emakumezkoen Euskadiko Saskibaloia Selekzio Absolutua • Herri kirolak. Irlanda Belfast bidaiak • Herri kirolak. Munduko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa • Nazioarteko Tennis Torneoak

4. 2014an euskal selekzioen ofizialtasunaren inguruko txosten juridiko bat egin zen eta kirolaren arloko eragileen aurrean aurkeztu zen. Herri kirolen federazioak TWIF-n ([Nazioarteko Soka Tira Federazioa](#)) ofizialtasuna izan dezan ere txosten juridiko bat egin zen.

5. Legegintzaldian zehar, Euskal Futbol Selekzioak jokatzeko dituen nazioarteko lagun arteko partidak direla eta, zenbait jarduera garatu dira, euskal kirol selekzioen ofizialtasuna sustatzeko, besteak beste, lan jardunaldi bat.

6. Nazioarteko kirolaren esparruan Euskadi-Basque Country aitortzeko aurrerapauso handia eman da herri kirolen selekzio nazionala aitortu baita herrialde gisa parte har dezan soka tiraren modalitatean; aurrerapauso handia da euskal selekzioen nazioarteko ofizialtasuna lortzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Federazioa Nazioarteko Soka Tira Federazioan (Twif) onartzea ekarri du.

1. ekimena. 2020 plangintza estrategikoa diseinatzea Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek egingo duten jarduera fisikoan erreferentzia bat izan dadin, eta aldaketa kultural eta sozial bat sustatzea osasuna jarduera fisikoaren sinonimoa izan dadin, betiere gure pertsonen bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Jarduera fisikoa haurtzarotik sustatzea, haurren gizentasuna saihesteko helburuarekin.

1.20.3 helburua. Kirol jardunaren sustapena. Dopinean tolerantziarik ez

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. Osasun eta Jarduera Fisikoko Euskal Plana prestatu da, [Mugiment](#) izeneko; planaren helburu nagusia gizarte aktiboagoa sortzea da. Jarduera fisikoa sustatzeko plan orokor hori Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak, Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzak eta Osasun Publikoaren Zuzendaritzak batera egindako lana da, Eudelekin eta hiru foru aldundiekin koordinatuta. Xedea Euskal Autonomia Erkidegoa urte gutxi barru Europan euskal herritarren jarduera fisiko iraunkorragatik erreferentzia izatea da; horretarako, esku hartzeko zenbait esparru zehaztu dira, besteak beste, zaharren, gazteen eta haurren kirol jardunera zuzenduta.

2. 2016ko urtarrilean hainbat ekimen aurrera atera dira Mugiment gizarteari ezagutarazteko asmoz, eta, bide batez, gizarte aktiboagoa eta osasuntsuagoa izateko proposatzen dituen esparru eta aukera guztien berri emateko. Eusko Jaurlaritzak ekimen hori bultzatzen du jardun fisikoa praktikatzeko areagotzeko eta sedentarismoa gutxitzeko.

3. ['Mugibili' webgune](#) berria martxan jarri da, kirol jarduerak eta jarduera fisikoak aurkitzeko bilatzailea; dagoeneko 10.000 pertsona daude erregistratuta.

2. ekimena. Dopinaren aurkako Euskal Agentzia sustatzea eta bultzatzea, dopinaren kontrako borroka indartzeko Dopinaren kontrako Mundu Agentziarekin lankidetzan estu-estuan, eta dopinaren aurkako borrokan eredugarriak izatea, tolerantziarik gabe jardunez, Euskal Autonomia Erkidegoa mundu mailako erreferentzia izan dadin dopinaren aurkako borrokan.

1.20.3 helburua. Kirol jardunaren sustapena. Dopinean tolerantziarik ez

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. Araubide Juridikoaren sailburuordearen [2013ko martxoaren 27ko Ebazpenaren](#) bitartez, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzan Batzordearen akordioa argitara eman zen, Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearekin lotutakoa.

2. Horren ondorioz, Dopinaren aurkako Legea aldatu egin beharko da, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen Legearekin bat etorriz. Lege proiektu hori hasieran ez zen aurreikusitako X. legegintzaldiko legeen egutegian, baina lege egutegian jaso ondoren, 2016ko urtarrilaren 26an Gobernu Kontseiluak egindako bileran onartu zen.

3. 2013an, [Dopinaren aurkako Euskal Agentzia](#) sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan dopinaren aurkako politika aktiboak sustatzeko eta garatzeko. 2013an 200 kontrol egin ziren, 2014an eta 2015ean 250 kontrol inguru, eta 2016an 300 kontrolleko kopurura iristea espero da.

1. ekimena. Kirolean berdintasuna bultzatzea, betiere emakumezkoek euskal kirolaren eremu desberdinetan (praktika, kudeaketa, antolakuntza eta zuzendaritza esparruetan) aurkitzen dituzten oztopoak eta diskriminazioak ezabatzeko asmoz.

1.20.4 helburua. Berdintasuna euskal kirolean

Arduraduna: José Ángel María Muñoz Otaegi (Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea)

Jarduketak

1. Emakunderekin elkarlanean, [Kiroleko Berdintasun Plana](#) prestatu da, eta hainbat ekimen jaso dira gai orokorrari eta kirol modalitate zehatz batzuei dagokienez. Halaber, diagnostiko bat prestatu da eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Kirolaren Sektorean Sustatzeko Plana betearazpen egoeran dago. Azken bi urteetan plan horren ebaluazioa egin da kirolaren sektorean, eta 2016rako plangintza zehaztu da.

2. Legegintzaldian zehar Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren mendeko kide anitzeko organoen osaeran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea zaindu da.

3. 2013an berdintasuna sustatzeko jardueretan parte hartu da Hernaniko eta Aretxabaletako udaletan. Halaber, emakumeen presentzia daukaten zenbait kirol jarduera sustatu dira, esaterako "Emakumeen XXVII. Euskal Bira", Euskadi-Basque Countryren bidez, futbol eta eskubaloiko emakumeen euskal selekzioen nazioarteko ekitaldiak. Horrez gain, Replay proiektuan euskal pilotan emakumeen parte hartzeari buruzko atal zehatz bat jaso da.

4. Euskaltel eta Euskadi Kirola Fundazioaren arteko hitzarmena handitu egin da, emakume kirolariak hedabideetan duten presentzia areagotzeko jarduerak garatzeko.

5. Emakunderekin batera, Kirolean Emakumeen Kontrako Sexu Jazarpena eta Abusuak Prebenitzeko Gida prestatzeko kolaboratu eta hedatu da. Halaber, goi mailako kirolean haurdunaldiei buruzko azterlanak egin dira, eta Emakumezkoen kirolaren presentzia eta tratamendua Euskal Herriko kirol arloko egunkarietan azterlana ere egin da.

6. Arlo honetan hainbat sentsibilizazio eta hezkuntza ekintza egin dira, nazioarteko foroetan parte hartuz, hitzaldietan, jardunaldietan, hedabideen programetan, baita genero mainstreaminga eguneko jardunean jasoz ere (kanpo komunikazioa, estatistikak, genero eraginaren alde aurreko ebaluazio txostenak, webguneak...). Horrez gain, Argia aldizkariaren ale zehatz bat ere prestatu zen.

7. Gazteria eta Kirol arloaren webgunean "[Berdintasuna kirolean](#)" atal zehatza sortu da, eta sortutako material guztiak bertan plazaratzen dira.

1. ekimena. Pertsonarik behartsuenentzako gizarte laguntzak mantentzen direla bermatzea.

1.21.1 helburua. Pertsona behartsuentzako gizarte laguntzaren bermea.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Planifikaziorako esparrua, gaur egun, [Gizarteratze aktiboko III. euskal plana \(2012-2016\)](#) da. 2013an, planak indarrean egindako lehen urtearen ebaluazioa egin ondoren, berau berrituz orientatzeko eta formulatzeko prozesua gauzatu genuen. Ekintza eta hobekuntza zuzenera bideratutako plana ekarri zuen birformulazio horrek. Helburu hori betetzeko, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean adierazitako organoak aktibatu ziren. Zehazki, [Gizarteratzeko Sail Arteko batzordea](#) eratu zen. Gizarteratze aktiboko planaren birformulazioa egin zen eta zegokien partaidetza organoetan kontrastea egin zen.

2. GGLL, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak: urteroko agindua moldatu egin zen, bi helbururekin: batetik, indarrean dagoen legedira moldatzeko eta diru laguntza hauek jaso ahal izateko zegoen muga bat kentzeko; izan ere, aurreko legealdian onartutako mugak araudia apurtzen zuen. Bestetik, udalerrri bakoitzak dituen beharretara ahalik eta modu egokienean banatu ahal izateko moldatu zen. [2015eko otsailaren 25eko Agindua](#) aipatu aldaketen arabera bete da. 2015ean, laguntza horietarako partida 22 milioi eurokoa izan zen.

3. 2015 ekitaldian, 200.000 euroko aurrekontu partida gaitu zen, pobrezia energetikoko egoerei aurre egiteko. Laguntza hori Gurutze Gorriaren bidez kudeatuko da, eta, beharrianak aztertu ondoren, laguntzak modu parekidean banatuko dira.

4. Era berean, lantalde bat eratu da, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aztertu eta hobekuntza proposamenak egiteko.

2. ekimena. Gizarte zerbitzuen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzea erraztuz eta bazterkeriaren kronifikazioa saihestuz, eta diru sarrerak bermatzeko errenta balioestea gizarte kohesiorako lanabes eta tresna gisa.

1.21.1 helburua. Pertsona behartsuentzako gizarte laguntzaren bermea.

Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Garapen eta tutoretza helburuetarako, lantalde bana sortu da esparru bakoitzean, maila teknikoan: lehena, Lanbideko teknikariek, Gizarteratze Zuzendaritzako teknikariek eta EAEko Administrazioaren eremuko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako teknikariek osatzen dute, eta, bigarrena, bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiko, Eudeleko eta Enplegu eta Gizarte Politika Saileko teknikariek (gainerako aldundietara ere hedatu daiteke).

2. Laneratzeko prozesuetan jarraipen hurbilagoa eta kualifikatuagoa egiteko asmoz, [Lanbideren Orientazio Zerbitzua](#) laneratze ibilbide pertsonalizatuak ezartzeko lanean hasi zen.

3. [Abenduaren 23ko 18/2008 Legeak](#) (65. artikulua), Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko [azaroaren 24ko 4/2011 Legearen](#) bidez aldatuak, eskubide bikoitza zehazten du: prestaziorako eskubidea eta aktibaziorako eskubidea. Horrenbestez, [Gizarteratzeko Hitzarmena](#) nahitaez bete behar da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jaso ahal izateko.

4. Administrazio publikoaren kontratazioa arautzen duten baldintza agirietan gizarte klausulak sartzeko lehen esperientziak garatu dira. Horren adibide da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren espedienteetako agiriak tratatu eta kudeatzeko zerbitzuaren kontratazioa.

5. Bi urtez behin, urrian (azkena 2014an), [egoitza egoera larrian dauden pertsonen zenbaketa](#) egiten da, EAEko hiru hiriburuekin lankidetzan. Azken zenbaketa horretan zazpi hiri handi ere sartu ziren.

6. 2015eko urrian, Euskal Autonomia Erkidegoko [egoitza bazterkeria larriari buruzko bigarren jardunaldiak](#) ospatu ziren. Jardunaldi horretako emaitzen ondorioz, etxerik ezaren eragina ahalik eta gehien mugatuko duen estrategia integral bat garatzeko lanak hasi dira eta 2016ko ekainean amaitzea espero da.

3. ekimena. Emandako laguntzen eta gizarte politiken fiskalizazioa, gizarte iruzurra kontuan hartzea eta kontrolatzera zuzendutako neurrietan arreta berezia jarritz.

1.21.1 helburua. Pertsona behartsuentzako gizarte laguntzaren bermea.

Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Hilero txosten bat egiten da laguntzen zenbatekoak, bizikidetza unitateak eta laguntzak jasotzen dituzten unitateen ezaugarriak zertan diren jakiteko eta horien bilakaera jasotzeko. Gainera, azterlan bat egin da sistemaren eraginkortasuna aztertzeko eta, horrez gain, estatuko ereduarekin eta Europako beste batzuekin alderatzeko.
2. 2015ean, Lanbideren Kontrol eta Ikuskaritza Unitatea eratu eta martxan jarri da. Azken hori [Lanbideren Estatutueta](#)n zehaztuta zetorren. Bitartean, Lanbidek Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak jasotzen dituzten pertsonen egin die, beren lan egoera ikuskatu eta kontrolatzeko hitzorduetarako.
3. 2016an, Lanbidek bere kudeaketa prozedura bidez ezartzeko prozesu bat hasi du eta helburua kudeaketako kalitate ziurtagiria lortzea izango da.

1. ekimena. Gizarte zerbitzuen sistemaren iraunkortasuna bermatzea, zerbitzuen multzoaren garapen osoa burutuz eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari beharrezko baliabide eta bitartekoak emanez lankidetzaren publiko-pribatuaren eredu mistoan aurrera egiteko.

1.21.2 helburua. Gizarte zerbitzuak, ongizate estatuaren laugarren zutabe gisa

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Abenduaren 5eko 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legea egoki garatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta haren prestazio eta zerbitzuen karteraren ebaluazio ekonomikoa egin da erakundeen artean adostuta, behin betiko onartu ahal izateko. Dagokion Gizarte Zerbitzuen mapa ere egin da, bai eta [Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoa](#) ere.

2. 2014ko abenduan, [Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoak](#) txostena egin zuen Kartera Dekretuari, karteraren kostua adierazten duen memoria ekonomikoari eta finantzaketa aukerei buruz, bai eta gizarte zerbitzuen mapa ere. 2015eko urtarrilean, [Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren](#) bileran, [Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzu eta Prestazioen Karterako Dekretuari](#) buruzko nahitaezko txostena egin zen, eta, azkenik, 2015eko urriaren 6an, Gobernu Kontseiluak onartu zuen.

3. [Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Legea](#): Administrazioaren jarduera guztia amaitzean, 2015eko otsailaren 3an, legearen aurreproiektua onartu zen Gobernu Kontseiluan. Dokumentua legebiltzarrerara igorri zen, eztabaidatzeko eta, ondoren, lege gisa onartzeko.

4. Pertsona adingabeak adoptatzeko prozedura arautzen duen dekretua: Apirilaren 30ean, EHAAan argitaratu zen [50/2014 Dekretua](#), [apirilaren 8koa](#), Adingabeen adopzioan Foru Aldundiek jarraitu behar duten jarduera prozedura arautzen duen Dekretuaren bigarren aldaketari buruzkoa (irizpide bateratua ezarriz).

5. [424/2013 Dekretua](#), urriaren 7koa, gizarte zerbitzuetako irabazi asmorik gabeko erakundeak gizarte intereseko deklaratzeari buruzkoa onartu zen. 2014. urtean zehar, 56 elkarte gizarte intereseko aitortzeko txostenak egin ziren. Halaber, [385/2013 Dekretua](#), uztailaren 16koa, onartu zen, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena. Dekretu hori 2013ko abuztuaren 7ko EHAAan argitaratu zen.

6. [353/2013 Dekretua](#), maiatzaren 28koa, onartu zen, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa.

7. 2016ko otsailean, onartu egin da [Atentzio Goiztiar Osoaren Dekretua](#) Euskal Autonomia Erkidegoan.

8. Koordainketako Dekretuaren izapideak egiten ari dira; alegia, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren doakoak ez diren prestazioen eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzeko betebeharra duten pertsonen partaidetza ekonomikoari buruzko dekretuaren izapideak. Beste sail batzuen txostenak bildu dira eta testua kontsulta eta partaidetza izapideen pean geratu da. Gaur egun, alegazio eta txostenak aurkezteko fasean dago, ondoren Gobernu Kontseiluan onartzeko.

2. ekimena. Gizarte zerbitzuak eskaerari egokitzea sustatzea, eta zerbitzu soziosanitario berrien garapena bultzatzea.

1.21.2 helburua. Gizarte zerbitzuak, ongizate estatuaren laugarren zutabe gisa

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014. urtean, bost estrategia ildoak egin zituzten Erakundearteko Batzorde Soziosanitarioan. [Estrategia Ildo Soziosanitarioen dokumentua](#). Halaber, hiru egoitzatan historia klinikoa sartu zen, modu esperimentalean. “Osabide egoitzetan” bigarren estrategia ildo soziosanitarioko proiektu pilotu bat da, xedezat Osakidetzako historia helduen egoitzetara igortzea duena.
2. 2015eko martxoaren 24an, 2013. urtean zehar, Añanan, Etxean Ondo proiektu pilotuaren testuinguruan burututako urrutiko laguntza aurreratuko proiektu pilotuaren emaitzak aurkeztu zituzten.
3. 2015. urtean amaitu zen [Etxean Ondo proiektua](#), pertsonan zentratutako arreta ereduak definitzeko helburua duena, eta ereduak aplikatzeko [koaderno didaktikoak](#) argitaratu dira. 2014an zehar, Etxean Ondo proiektuaren proba pilotu bat egin zen, adimen desgaitasuna duten pertsonentzako bi foru baliabidetan. Ondoren, arreta modeloa erabilgarritzat hartu da, eta egindako dokumentuak erakundeen esku geratu dira, eredu gisa.
4. Azterketa bat egin da pertsona gorrei ematen zaizkien zerbitzuei buruz. Une honetan, Europan kolektibo horrentzat dauden baliabideen azterketa bat egiten ari da, azterketa horrek Euskal Autonomia Erkidegoan jarraitu beharreko planteamendua orientatu dezan.
5. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren Dekretuaren proiektua egiten ari dira, eta [69/2011 Dekretua](#) ordeztuko du, apirilaren 5ekoa, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluarena. Aldaketa hori eginez, Lurralde Kontseilu Soziosanitarioak aktibatu eta koordinatzaile soziosanitarioen irudia sustatu nahi da.

3. ekimena. Osasun sistemaren eta gizarte zerbitzuen artean lankidetzaren mekanismoak garatzea, bazterketa arriskuan dauden pertsonen jarraipena egiteko eta laguntza emateko.

1.21.2 helburua. Gizarte zerbitzuak, ongizate estatuaren laugarren zutabe gisa

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014. urtean, bost estrategia ildoak egin zituzten Erakundearteko Batzorde Soziosanitarioan. [Estrategia Ildo Soziosanitarioen dokumentua](#). Halaber, hiru egoitzatan historia klinikoa sartu zen, modu esperimentalean. "Osabide egoitzetan" bigarren estrategia ildo soziosanitarioko proiektu pilotu bat da, xedetzat Osakidetzako historia helduen egoitzetara igortzea duena.

2. 2015ean, Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu soziosanitarioen zerrenda egin eta garatzeko prozesua hasi zen. Prozesu hori antolakuntza mailako erronka da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarentzat. [Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren](#) lan planaren laugarren estrategia ildoan, jomuga kolektiboeta arreta soziosanitarioa garatzeko asmoa dago, baztertuta edo babesik gabe garatzeko arriskuan dauden pertsonen arretarako berariazko jarduerak jasotzeko.

4. ekimena. Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaz bultzatzea eta elkarlan publiko-privatuaren eremua sustatzea, gizarte zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko asmoz.

1.21.2 helburua. Gizarte zerbitzuak, ongizate estatuaren laugarren zutabe gisa

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Abenduaren 5eko 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legea egoki garatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta haren Prestazio eta Zerbitzuen Karteraren ebaluazio ekonomikoa egin da erakundeen artean adostuta, behin betiko onartu ahal izateko. Era berean, dagokion gizarte zerbitzuen mapa egin da.

2. 2014ko abenduaren 19an [Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoak](#) egindako bileran, nahitaezko txostena egin zen Kartera Dekretuari, karteraren kostua adierazten duen memoria ekonomikoari eta finantzaketa aukerei buruz, bai eta gizarte zerbitzuen mapa ere. 2015eko urtarrilaren 23an, [Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren](#) bileran, [Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzu eta Prestazioen Karterako Dekretuari](#) buruzko nahitaezko txostena egin zen, eta, azkenik, 2015eko urriaren 6an, Gobernu Kontseiluak onartu zuen.

3. 2015eko otsailean, [Hirugarren sektore sozialaren legearen aurreproiektua](#) onartu zen. Gaur egun, agiria Eusko Legebiltzarrean eztabaidatu eta onesteko fasean dago.

4. 2015eko abenduan, [Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoa](#) onartu zen. Bertan, mapa eta memoria ekonomikoa jasotzen dira eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema era koordinatuan hedatzeko mekanismoak ezartzen ditu.

5. ekimena. Adostasun zabaleko gizarte hitzarmena sustatzea, gizarte zerbitzuen sistemaren aldeko aurrerapena sendotzeko asmoz.

1.21.2 helburua. Gizarte zerbitzuak, ongizate estatuaren laugarren zutabe gisa

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an zehar, [Elkarrizketa Zibileko Mahaia](#) sustatu zen, EAEko gizarte esku hartzeko hirugarren sektoreko erakundeak ordezkartzen dituen, horren lanak koordinatzen eta errazten dituen eta hiru hilean behin batzen den idazkaritza teknikoa sortuz.
2. Abenduaren 5eko 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legea egoki garatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta haren prestazio eta zerbitzuen karteraren ebaluazio ekonomikoa egin da erakundeen artean adostuta, behin betiko onartu ahal izateko. Dagokion gizarte zerbitzuen mapa ere egin da, bai eta [Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 plan estrategikoa ere](#).
3. 2014ko abenduaren 19an [Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoak](#) egindako bileran, nahitaezko txostena egin zen Kartera Dekretuari, karteraren kostua adierazten duen memoria ekonomikoari eta finantzaketa aukerei buruz, bai eta gizarte zerbitzuen mapa ere. 2015eko urtarrilaren 23an, [Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren](#) bileran, [Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzu eta Prestazioen Karterako Dekretuari](#) buruzko nahitaezko txostena egin zen, eta, azkenik, 2015eko urriaren 6an, Gobernu Kontseiluak onartu zuen.

1. ekimena. Autonomia pertsonalaren maila txikia daukaten pertsonen gizarteratze eta laneratze prozesuak sustatzea.

1.21.3 helburua. Autonomia pertsonalaren sustapena.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015. urtean, laguntzen programa izapidetu zen, pertsona, talde eta komunitateekin, esku hartze sozialeko jarduera egiteko. Diru laguntzen lerro honetan, pertsonekin, familiarekin, taldeekin eta komunitateekin esku hartze soziala duten jarduerak jaso dezakete finantziazioa; hau da, pertsonen autonomia eta komunitatean integratzea sustatzea eta babestea helburu duten jarduerak, eta, batez ere, esperimentazioa edo berrikuntza dakartenek.

2. Era berean, 2015ean zehar, kontrataziorako eta ekintzaitzarako diru laguntzak gauzatu ziren. Enpresetan langile minusbaliatuak izaera finkoarekin kontratatze laguntzak; enplegu zentro berezietan jarduera profesionalean laguntzeko unitateak eratzeko laguntzak; enplegu zentro berezietan langile minusbaliatuen enplegua mantentzeko laguntzak; tokiko ekintzaitza proiektuen esparruan enpresa ideia berriak sustatzen dituzten pertsonentzako laguntzak; eta tokiko ekintzaitza proiektuen esparruan enpresa jarduera berriak martxan jartzea bultzatzera zuzendutako laguntzak.

3. Gizarte esku hartzearen sektorera 2013, 2014 eta 2015 ekitaldirako bideratutako laguntza ekonomikoek laguntza programa informalak, prebentzio programak eta autonomia maila txikiagoa duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko akonpainamendu programak barne hartu zituzten. 2015 ekitaldian, 206 elkarte ezberdinek bideratutako 290 proiektu lagundu ziren diruz.

2. ekimena. Autonomia pertsonalaren maila txikia daukaten pertsonen kolektiboek berriaz zuzendutako prestakuntza ekimenak eta enpleguaren sorkuntza formulak bultzatzea.

1.21.3 helburua. Autonomia pertsonalaren sustapena.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. [Laida proiektu pilotuari](#) esker (dagoeneko amaitua bera), familia zama dituzten emakumeentzako eta iraupen luzeko langabeentzako talde bat Alemaniara joan zen prestakuntza jasotzera, lan merkatuan hasteko eta prestakuntzarekin jarraitzeko helburuarekin.

3. ekimena. Minusbaliotasuna daukaten pertsonak artatzearen aldeko testuinguru bat garatzea, biziaren eredu independenteak sustatuz eta menpekotasun egoerak prebenitzeko neurriak ezarriz.

1.21.3 helburua. Autonomia pertsonalaren sustapena.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Gaur egun, gainerako administrazio publikoak eta hirugarren sektorea negozio lanetan ari dira, [minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako egoitza zentroi buruzko dekretu](#) proiektua onartzeko.
2. Era berean, bi dekretu proiektu idazketa fasean daude, ondoren onartzeko. Alde batetik, [minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako eguneko zentroi buruzkoa](#), eta, bestetik, [minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako lanbide zentroi](#) buruzkoa. Biek ala biek, bizimodu independenterako ereduak sustatu eta prebenitzeko neurriak aurreikusten dituzte.

4. ekimena. Pertsonen, haien bizi kalitatearen eta kudeaketaren etikaren inguruan bilbatzen diren zerbitzuak planifikatzea.

1.21.3 helburua. Autonomia pertsonalaren sustapena.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Lurralde historikoetako etika batzordeekin lankidetzan, [pertsonan zentratutako arreta ereduaren gidak](#) egin eta aurkeztu dira.
2. [Lurraldeetako etika asistentzialeko batzordeekin](#) elkarlanean, bizitzaren amaieran arreta osoa emateko eta zaintzen alderdi etikoei buruzko gida landu eta aurkeztu da. Gomendio etikoen gida agiria.
3. 2015. urtean, pertsonan zentratutako arreta ereduak definitzeko helburua duen ikerketa proiektua osatu da, eta [eredua aplikatzeko koaderno didaktikoak](#) argitaratu dira.

5. ekimena. Hezkuntza bazterketa espirala apaltzeko funtsezko osagai gisa bultzatzea, absentismo kopuruak eta ez-eskolaratzeak murriztuz eta, aldi berean, haur hezkuntzarako sarbidea erraztuz.

1.21.3 helburua. Autonomia pertsonalaren sustapena.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko familiak babesteko erakundearteko III. plana 2011-2015 aplikatuz, laguntzak eman dira beren seme-alabak haur hezkuntzako lehen zikloan (0-3 urte) has daitezen errazteko.
2. Eskola inklusiboaren kontzeptuaren esparruan, hainbat ekintza espezifiko egin dira egoera ahulean dauden taldeentzako, EAEko ikasle guztiek aukera berdinak izan ditzaten bermatzeko. Horren harira, eskola inklusibo eta kulturartekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza arreta emateko 2015eko plana aipatu behar da.
3. Legegintzaldiaren hasieratik, Gizarte Politikako Sailburuordetzaren eta Hezkuntza Sailburuordetzaren arteko koordinazioa egon da, egoera ahulean dauden taldeei arreta osoa eskaintzeko eta babesik gabeko egoerak edo arrisku hori dutenak prebenitzeko - Familia plana - LGTB Politikak - Immigrazioa - Ijito Herriaren Arreta.
4. Bidelaguna programarekin (lehen PROA) jarraitu da, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Helburua eskola goiz uzten dela murrizteko ahaleginak eta bitartekoak kontzentratzea da.

6. ekimena. Gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatzea eta sustatzea, oinarrizko gizarte zerbitzuak sendotuz bazterketa arriskuan dauden pertsonen hasierako orientatzaile modura.

1.21.3 helburua. Autonomia pertsonalaren sustapena.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. 150 hitzarmen sinatu dira oinarrizko gizarte zerbitzuekin. [Gizarteratze aktiborako](#) hitzarmenak dira, Lanbideren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen artean koordinatutako arreta emateko, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat: 35 dira Araban (32 udal eta 3 kuadrilla), 17 Gipuzkoan (udalak guztiak) eta 98 Bizkaian (89 udal, 8 mankomunitate eta zerbitzuen partzuergo bat).

2. Lanbideren bidez, aurrera pausuak eman dira **arreta pertsonalizatuko eredu**a definitzeko orduan. Eredu hori berariaz diseinatu da ahulen dauden taldeentzat eta horien artean daude, zehazki, enplegarritasun oso txikia edo hutsala duten pertsonen arreta emateko kasuak.

1. ekimena. Etxebizitzaren eskuragarritasuna, emantzipazioa eta bizitza independentea erraztea, bizi proiektuaren garapena ahalbidetzen duten lanabes eta tresna gisa.

1.21.4 helburua. Pertsona guztientzako bizitza duina

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. Etxebizitza Sailburuordetzak zenbait etxebizitza gizarte esku hartzeko [hirugarren sektoreari](#) utzi dizkio, bazterketa egoeran dauden pertsonekin eta taldeekin laguntza programak garatu ahal izan dezaten. Laguntza programa hauetara 12 etxebizitza bideratu dira une honetan. 2016ko urtarrilean, Bizkaiko Foru Aldundiak 42 etxebizitza laga dizkio [Alokabideren](#) etxebizitza parkeari, eta, hala, talde ahulei arreta emateko bere erreserba areagotu du.

2. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren lan planaren laugarren estrategia ildoan, buruko gaixotasunak, menpekotasunak, menpekotasun bereziak... dituzten pertsonen mugikortasuna eta bizimodu independentea errazteko neurriak garatu nahi dira.

2. ekimena. Pertsonen esku gizarteratzeko bitartekoak eta mekanismoak jartzea, bizi erabaki propioak hartzea ahalbidetzeko xedez.

1.21.4 helburua. Pertsona guztientzako bizitza duina

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko ekainean, [egoitza arazo larriak dituzten pertsonen azterketa](#) egin eta hedatu zen.
2. 2014ko martxoan, [EAEko egoitza bazterketari buruzko I. jardunaldi](#) bereziak ospatu ziren, hiru hiriburuetakoa udalekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza bazterketari buruzko azterketaren emaitzak hedatzeko. Hala, ondoren. egoitza bazterketa larriaren arazoari irtenbidea emateko moduak jorratuko ziren.
3. Era berean, 2015eko urrian [EAEko egoitza bazterketari buruzko II. jardunaldiak](#) ospatu ziren eta, horietan, [EAEko gizarte bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen buruzko II. azterketa](#) zabaldu zen.
4. 2015ean, erkidegoaren onurarako jarduerak eginez Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonen enplegarritasuna hobetzeari buruzko azterketa bat egin zen.

1. ekimena: Etxebizitzari buruzko erakunde arteko akordioak lortu, etxebizitzaren arloari dagokionez, Administrazio Publiko guztien kooperazioa eta elkarlana sustatu asmoz,

1.22.1 helburua. Pertsona behartsuenei zuzendutako etxebizitza-estrategia berria.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. Zenbait udalerrri eta foru aldundirekin jada formalizatutako hitzarmenak:

- 2013-03-05: Eibarko Udalarekin hitzarmena, Egazelai sektorearen elkarlan-sistema kudeatzeko.
- 2013-07-23: Bilboko Udalarekin hitzarmena, Txurdinagan, Arangoitin eta Peñascalen BOE, UET eta AZBak egiteko.
- 2013-12-04: Hitzarmena Hondarribiko Udalarekin Muliaten 65 BOE sustatzeko, erosketa- eta alokairu-erregimenean.
- 2013-12-30: Visesa 2013 programa-kontratua, 2013., 2014., 2015., 2016., 2017. eta 2018. urteetan, babes ofizialeko 692 etxebizitza sustatzeko.
- 2014-05-22: Hitzarmena Loiuko Udalarekin lokalak erosteko.
- 2014-12-30. Visesa 2014 Programa Kontratua babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko honako leku hauetan: Txurdinaga, Bilbo, 50 BOE errentamenduan, Errenteria, 60 BOE erregimen orokorrean, Peñascal, Bilbo 70 BOE erregimen orokorrean eta Zorrotzaurre, Bilbo BOE erregimen tasatuan eta orokorrean, UE-1en.
- 2015-06-22. Orubideren Zestoako lurzoruen eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Hernanin dituen lurzoruen arteko trukea egiteko konpromisoari buruzko akordioa.

2. Txomin Enearen (Donostia) hiri-berroneratze proiektua:

- 2014-03-31: VISESaren Administrazio Kontseiluaren eta Donostiako Udalaren arteko akordioa, etxebizitza babestuak egiteko "LO.05 Txomin Enea" Hirigintza Areako egikaritze-unitatean eta "A.300.1 lursaila kostu bidez eskuratzeko akordioa, 116 BOE eraikitze". Izapideetan dago Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren hitzarmena Txomin Enean beste lursail bat erosteko.

3. Zorrotzaurrearen (Bilbo) hiri-berroneratze proiektua:

- 2013-03-04: Bilboko Udalarekin elkarlan-hitzarmena, Zorrotzaurren (Bilbo) eremua garatu, kanala ireki eta sarbideak eraikitze.
- 2013-10-15: Hitzarmena, UE-1en hitzarmen-sistemaren bidez Zorrotzaurreko 1. jarduketa integratua kudeatzeko.
- 2013-10-15: Zorrotzaurre eremuko jarduketa integraturako UE-1 hitzarmen-batzordea sortu da.
- 2015-11-16: Hitzarmena Sailarekin. Zorrotzaurreko zenbait lursail [VISESA](#)ri lagatzeko proposamena urbanizazio-kargak eta beste betebeharrak batzuk bere gain hartzearen ordainetan.

2. ekimena: Lehentasunezko intereseko kupo sistemari lotutako etxebizitza publikoa esleitzeko prozesuak berrikustea eta hobetzea, pertsonarik eta kolektiborik behartsuenak aldezteko xedez.

1.22.1 helburua. Pertsona behartsuenei zuzendutako etxebizitza-estrategia berria.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. Stockean dauden etxebizitza babestuak zuzenean saldu ziren VISESAren bidez: 255 etxebizitza.

- 2013, Gasteizen, Iruña Okan, Eskoriatzan eta Beasainen abian jarrita, eta 15 kontratu.
- 2014, Ugaon, Durangon, Derion, Eibarren, Laudion eta Sestaoko Vega Galindon abian jarrita, eta 18 kontratu formalizatuta.
- 2015, Irunen eta Boluetan (PTE eta BOE), Leioan, Pasaian, Areta-Laudion, Hernanin eta Barakaldon abian jarrita. 117 kontratu formalizatuta.

2. Stockean zeuden etxebizitza babestuak alokatu egin ziren erosketa-aukerarekin VISESAren bidez: 300 etxebizitza, 11 lokal eta 40 garaje + trasteleku.

- 2013, Gasteizen eta Iruña Okan abian jarrita eta 72 kontratu formalizatuta.
- 2014, 123 kontratu formalizatuta.
- 2015, Ugaon, Beasainen eta Eskoriatzan abian jarrita. Modalitate hori abian jarrita garaje, lokal eta trastelekuetarako ere. 156 kontratu formalizatuta.

3. Etxebizitzen esleipena, erosketan, VISESAk sustatuta: 577 etxebizitza.

- 2013, 480 etxebizitza, babes ofizialekoak eta tasatuak, VISESAk sustatuak (Bilbo, Barakaldo, Leioa, Eibar eta Irun).
- 2014, Hondarribian babes ofizialeko 32 etxebizitza egiteko prozeduraren hasiera.
- 2015, 65 etxebizitza Basaurin eta 32 etxebizitza Hondarribian. Gainera, 2015ean Arangoiti-Bilbon babes ofizialeko 53 etxebizitza eta San Juan-Santurtzin babes ofizialeko 32 etxebizitza esleitzeko prozedura hasi zen.

4. Etxebizitzen esleipena, alokairuan, lehenengo aldiz gizarte-beharrari buruzko irizpide bat aintzat hartuta egindako baremazio baten bidez esleituz: 665 etxebizitza.

- 2013, 301 etxebizitza (Legutio, Barakaldo, Ermua, Beasain eta Arrasate).
- 2014, 171 etxebizitza sozial Gasteizen, 79 zuzkidura-bizitoki Gasteizen, 68 etxebizitza sozial Pasaian eta 12 zuzkidura-bizitoki Iruña Okan.
- 2015, 34 etxebizitza sozial Hernanin eta 50 etxebizitza Basaurin.

5. Parke publikoko etxebizitzen esleipen zuzena alokairu-erregimenean etxebizitza-behar bereziak zituzten bizikidetzaren unitateei (hipoteka gauzatu ostean etxebizitza galtzea, errentak ez ordaintzeagatik kaleratzea, genero-indarkeria, birkokatzeak...): 2013, 57 esleipen zuzen; 2014, 92 esleipen zuzen; eta 2015, 78 esleipen zuzen.

6. 2013ko apirilaren eta ekainaren artean [Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa](#) eta zuzkidura-bizitokiaren eguneratu zen, eskaria errealitatera egokitzeko; 20.000 pertsonak erantzun zioten eguneraketari.

3. ekimena: Etxebizitzen ikuskaritza-plan bat egitea, titulartasuna, gizarte-egoera eta bizigarritasuna aztertzeko.

1.22.1 helburua. Pertsona behartsuenei zuzendutako etxebizitza-estrategia berria.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. Babes ofizialeko etxebizitzaren (BOE) gaineko **ikuskapenak** egin ziren: 31.027 ikuskapen-fitxa gehitu ziren: 1.491 egoera irregular eta 499 zigortzeko espediente (320k zigorra jaso dute).

- 2013. 9.072 ikuskapen-fitxa: 339 egoera irregular eta 199 zigortzeko espediente izapidetuta, 115 espedienteri zigorra ezarri.

- 2014. 10.802 ikuskapen-fitxa: 537 egoera irregular eta 181 zigortzeko espediente izapidetuta, 132 espedienteri zigorra ezarri.

- 2015. 11.153 ikuskapen-fitxa: 615 egoera irregular eta 119 zigortzeko espediente izapidetuta, 73 espedienteri zigorra ezarri.

2. Babes ofizialeko etxebizitzaren tanteoak egin ziren Eusko Jaurlaritzaren alde, transmisioan irregulartasunak antzeman baitziren: 2013an 2, 2014an 3 eta 2015ean 2.

4. ekimena: Fiskalitate berria bultzatzea foru aldundiekin elkarlanean, etxebizitzaren eskuragarritasuna ahalbidetzeko.

1.22.1 helburua. Pertsona behartsuenei zuzendutako etxebizitza-estrategia berria.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2013an Eaj-Pnv eta Psoe-Pse alderdien artean akordio bat formalizatu zen, ohiko etxebizitzaren tratamenduan PFEZ aldatzeko:

- Kreditu fiskala 36.000 eurotan mantenduko da. Erregimen orokorra % 18 izango da eta % 20ra arte handituko da gazteentzat eta familia ugariarentzat.

- Urteko zerga-pizgarria murriztuko da, urteko gehieneko zenbateko kengarria 1.530 €-ra murriztuz (1.700 €-ra gazteen eta familia ugarien kasuan).

- Alokaturako etxebizitzak. Kenkari erregimen orokorra % 20koa izango da, 1.600 €-ko mugarekin eta, familia ugarien kasuan, berriz, % 25 eta 2.000 €-ko muga.

5. ekimena: Euskal etxebizitza-politikarako finantziazio-aukerak identifikatzea eta balioestea.

1.22.1 helburua. Pertsona behartsuenei zuzendutako etxebizitza-estrategia berria.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. Europar finantziazioa lortzea, Visesak birgaitzearekin eta eraikuntza jasangarriarekin lotutako laguntza-programetan parte hartuz:

-2010-2015 Proiektua ETE (ID.003): (FP7 Energy-2008-Tren Concerto [deialdia](#)). Bizitoki-garapen eredugarriak eraginkortasun energetikoari eta iraunkortasunari dagokienez.

-[FosterREG proposamena](#), 2015eko otsailean onartutakoa. Helburua, "administrazio barruan maila ezberdinetan gaikuntza, koordinazioa eta lankidetzaren erraztea energia-birgaikuntzaren eta hiri-berrikuntzaren arloan erabakiak hartzeko katean oztupoak kentzeko.

-[Osirys](#) (ID.007) proiektua eko-materialak garatzeko.

- Europako [Papyrus](#) eta [EU Guble](#) programak Sesta Berri sozietate publikoaren bidez (% 50eko parte dauka).

-2016ko urtarrilean [Horizon 2020](#) programa abiarazi da: IKTetan oinarritutako soluzio berriak energia-efizientziarako.

-[Phoebus](#) (02.2015) proposamena. "Energia-efizientzia handiko eraikin berrietarako eraikinak diseinatzea" du xede, "(...) ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez jasangarria den diseinu bat teknologikoki egingarria eta merkatuan bideragarria dela frogatzeko, bai eta banako eraikinen eta hiriko eraikin-multzoen diseinua ere".

2. Azalera-eskubidean lagatako [lurzoruaren salmentak](#):

-2014, lurzoruaren 4. salmenta fasea hasi, azalera-eskubidean eraikitako 19.000 higiezinentzat. 6,14 milioi euro bildu ziren 425 erosketa-espeditu izapidetuz.

-2015, azalera-eskubidean eraikita dauden lurren salmentaren 5. faseari ekin, 19.430 higiezinena. 2,7 milioi euro bildu ziren (3,2 milioi euro BEZa gehituta) onartutako 246 eskaeren ondotik.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko [Esku-hartze Komunitarioko 2014-2020 Programak](#) , [Federrek](#) kofinantzatutakoak, Etxebizitza Birgaitzeko Renove Planaren birgaitze arloko laguntzak barne hartzen ditu.

4. 2015eko maiatza eta 2016ko otsaila bitartean Gasteizko Koronazio auzoa berronertuko da. Visesak [SmartEnCity](#).proposamenean parte hartuko du. Helburua energia-efizientzian, garraioan eta IKTetan soluzio integratuak eta orekatuak identifikatzea, garatzea eta zabaltzea, hiriguneetan bizi-kalitate jasangarria izateko. Gasteizen, Tartu (Estonia) eta Sonderborg (Danimarka) hirietan, faro-hiri gisa, proba pilotuak egin ziren.

6. ekimena: Sustapeneko kooperatibak bultzatzea, baldin eta tasatutako prezioak eta BOE etxebizitzak bat etortzen badira.

1.22.1 helburua. Pertsona behartsuenei zuzendutako etxebizitza-estrategia berria.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. Egun izapide bidean dago [EAEko Kooperatibei buruzko Legearen](#) aldaketarako arauzko xedapena egiteko prozesua, beste zenbait helbururen artean, etxebizitza-kooperatibak sustatzeko aukera emango duena. Nobedade gisa gehituko dira [Andel ereduko kooperatibak](#): Etxebizitza-kooperatiba ekologikoa kideentzako erabilera mugagabeko lagatzearekin. Planteamendu horrek jabetzaren kontzeptu berria exijitzen du. Alokairuaren eta jabetza pribatuaren aukerekin batera, andel eredu etxebizitza eskuratzeko hirugarren aukera bat da, alegia, etxebizitza-kooperatiba baten barruan kide-partaideia izatea; bertan, bakoitzak dituen metro koadroen arabera ordaintzen du eta ohiko alokairuen zenbatekoa baino baxuagoa den hileko kuota baten bitartez.

7. ekimena: Etxebizitza-politika beste gizarte-politika batzuekin koordinatzea, mendeko pertsonen eta baztertuak izateko arriskuan daudenei zuzendutako neurriak lehenetsiz.

1.22.1 helburua. Pertsona behartsuenei zuzendutako etxebizitza-estrategia berria.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2014an 1/2014 Jarraibidea onartu zen, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren etxebizitza-parkeko alokairu-errentei buruzkoa; haztatutako sarreraren %30era mugatzen du errenta gehienez.

2. Halaber, 2013an 2/2013 Jarraibidea onartu zen, EAEko etxebizitza-parkeko errenten kalkuluan salbuespen-neurriak aplikatzeari buruzkoa. [Alokabidek](#) kudeatzen du eta bat-batean jazotako inguruabarrengatik egoera ekonomiko larrian dauden errentariei zuzenduta dago. Urte horretan bertan, Alokabidek onartu zuen sozietate publikoak ordainduko zuela [ondasun higiezinaren gaineko zerga](#).

3. 2013an [Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eudelen arteko lankidetzaren hitzarmena](#) formalizatu zen, geroago BFA batu zen. Hitzarmen horrek hipoteka gauzatu ostean etxebizitza galtzearen edo errentak ez ordaintzeagatik kaleratzearen zioz bazterkeria-arrisku egoerak berehala antzemateko aukera ematen du.

4. Legegintzaldian zehar hainbat etxebizitza eman zaizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeei Gizarte Politiken sailburuordearekin koordinazioan arituz, aipatu erakundeetan talde behartsuei (etorkinak, gizarte bazterkeria egoeran geratzeko arriskua duten pertsonak, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak...) zuzendutako gizarte balia bideak ezartzeko. 2013: 35 etxebizitza/ 2014: 12 etxebizitza/ 2015: 16 etxebizitza.

5. Era berean, alokairu-erregimenean etxebizitza publikoak esleitu zaizkie etxebizitza-behar bereziak zituzten bizikidetzaren unitateei (hipoteka gauzatu ostean etxebizitza galtzea, errentak ez ordaintzeagatik kaleratzea, genero-indarkeria, birkokatzeak...): 2013: 57 esleipen zuzen/ 2014: 92 esleipen zuzen/ 2015: 78 esleipen zuzen.

1. ekimena: Alokairuko gizarte etxebizitzaren gaur egungo parkea indartzea, alokairu araubideko etxebizitzaren promozio berriak bultzatuz eta eremu honetan erabilitako baliabide publikoak politika honen sustapenera zuzenduz

1.22.2 helburua. Alokairua sustatzea.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2014ko azaroa eta 2015eko martxo bitartean Alokabideren bitartez hutsik dauden etxebizitzak gaineratzeko ["Zabaldu zure etxea"](#), irabazi segurua kanpaina burutu zuen.

2. 2014an, [merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP \(Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa\) programa sortzen den Dekretua](#) aldatzen duen irailaren 23ko [180/2014 Dekretua](#) onartu zen. [ASAP programaren](#) bidez programaren eraginkortasuna hobetu nahi da, etxebizitza bat eskatu eta esleitzeko prozedura aldatuz. 2015-03-31n, Bizigune programa 4.605 etxebizitzek osatzen dute eta 190 etxebizitzek, aldiz, ASAP programa.

3. Era berean, alokairuko etxebizitza-parkea sustatzeko neurriak hartze aldera, 2013ko abenduan ["Bizigune" Hutsik dauden Etxebizitzaren Programa arautzen duen 466/2013 Dekretua](#) onartu zen. Stockean dauden pertsona juridikoen etxebizitzak gaineratu eta "Bizigune" programa arrazionalizatu nahi da.

4. Alokairuko etxebizitza-parke publikoaren egoeraren bilakaera hauxe izan da legegintzaldi honetan: 11.667 etxebizitza (11.418 2013an, 11.355 2014an eta 11.667 2015ean)

5. Babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) alokairu-erregimenean esleitzeari ekin zaio gizarte premia kontuan hartuta egindako baremazio baten bitartez eta ez zozketa eginez. 665 etxebizitza.

-2013: 301 etxebizitza (Legutio, Barakaldo, Ermua, Beasain eta Arrasate).

-2014: -250 etxebizitza Gasteizen (171 etxebizitza sozial eta 79 zuzkidura-bizitoki), 68 etxebizitza sozial Pasaian eta 12 zuzkidura-bizitoki Iruña Okan.

-2015: 34 etxebizitza sozial Hernanin eta 50 etxebizitza Basaurin.

2. ekimena: Alokairu pribatua sustatzeko neurri berriak bultzatzea, hutsik dauden etxebizitzaren parkea mobilizatuz, errentamendua zailtasunak dituzten pertsoneri erraztuz eta alokatzailearen eta maizterren eskubideak bermatuz

1.22.2 helburua. Alokairua sustatzea.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2016ko urtarrilean [Azpiegiturak eta Alokabideren arteko lankidetzaren hitzarmena](#) sinatu da, zaurkortasun-egoeran egotearen ondotik Bizkaian dauden etxebizitzaren sozialaren premiei erantzuna emango dieten 42 etxebizitza emateko.
2. 2015-07-30ean, [Alokabide eta Sareben arteko lankidetzaren hitzarmena](#) formalizatu zen. Horren bidez, finantza-erakundeak 10 etxebizitza emango ditu alokairu sozialaren erregimenean errentatzeko.
3. 2015-03-30ean [Alokabide eta Caixabanken arteko lankidetzaren hitzarmena](#) sinatu zen. Horren bidez, finantza-erakundeak 18 etxebizitza emango ditu alokairu sozialaren erregimenean errentatzeko.
4. 2014-10-23an [Elkargune jardunaldia](#) ospatu zen, hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzeko pizgarriei buruz, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak antolatuta.
5. 2014-07-29an [Alokabide eta Kutxabanken arteko lankidetzaren hitzarmena](#) formalizatu zen. Horren bidez, finantza-erakundeak, pixkanaka, gehienez ere 100 etxebizitza emango ditu alokairu sozialaren erregimenean errentatzeko.
6. 2014-06-17an [180/2014 Dekretua](#), irailaren 23koa, merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP (alokairu segurua, arrazoizko prezioa) programa sortzen duen dekretua aldatzen duena, onartu zen.
7. Halaber, 2013-12-23an [466/2013 Bizigune Dekretua](#) onartu zen, pertsona juridikoek stockean dituzten etxebizitzak eskuratzeko eta programa arrazionalizatzeko.

1. ekimena: Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei emantzipatzen laguntzeko estrategia berria garatzea, etxebizitzaren eskuragarritasuna erraztuz gizarte alokairuaren bitartez.

1.22.3 helburua. Gazteek etxebizitza bat lortzeko aukera izatea.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2015eko urtarrilean, Alokabidek gazteentzako [pisu partekatuen programa](#) abian jarri zuen Gasteizen. 35 urte baino gutxiago dituztenei zuzenduta dago eta hileko kostua arrazoizkoa da (125 €, gehi gastuak); gainera, alokairua ez da izango ezein kasutan 3 urte baino gehiagorako. Ekimen horrek euskal gazteek emantzipatzeko dituzten zailtasunei aurre egin nahi die, kontuan hartuta egun gazteek haien soldataren % 60 etxebizitzako gastuetarako gordetzen dutela.

2. Programa Gasteizen modu esperimentalean hasi dira garatzen, etxebizitza eskatzaileen artean zer onarpen duen ikusteko baina Eusko Jaurlaritzaren asmoa, arrakasta badu, gainontzeko herri eta lurralde historikoetara zabaltzea da. Adinez nagusiagoak diren beste kolektibo batzuetara -adibidez, bananduak edo dibortziatuak- zabaltzeko aukera ere aztertzen ari da.

2. ekimena. Gazteek eta adinekoek partekatutako etxebizitzak eskuratzeko aukera izan dezaten sustatzea, Administrazioa egiteko bermatzaileaz arduratuz.

1.22.3 helburua. Gazteek etxebizitza bat lortzeko aukera izatea.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2013-03-31n, Alokabideren Administrazio Kontseiluan gazteentzako [pisu partekatuen](#) programaren programa pilotua onartu zen.

2. 2015eko urtarrilean, Alokabidek gazteentzako [pisu partekatuen programa](#) abian jarri zuen Gasteizen. 35 urte baino gutxiago dituztenei zuzenduta dago eta hileko kostua arrazoizkoa da (125 €, gehi gastuak) eta alokairua ez da izango ezein kasutan 3 urte baino gehiagorako. Ekimen horrek euskal gazteek emantzipatzeko dituzten zailtasunei aurre egin nahi die, kontuan hartuta gaur egun gazteek haien soldataren % 60 etxebizitzako gastuetarako gordetzen dutela.

3. Behin proiektuaren emaitza aztertuta, programa horrek adinekoak eta/edo bananduak edo dibortziatuak barne har ditzan sustatu nahi da (informazio +).

3. ekimena. Gazteek eta adinekoek partekatutako etxebizitzak eskuratzeko aukera izan dezaten sustatzea, Administrazioa egiteko bermatzaileaz arduratuz.

1.22.3 helburua. Gazteek etxebizitza bat lortzeko aukera izatea.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2013ko irailean, Visesak [erosteko aukera ematen duen alokairu-programa](#) abian jarri zuen stockean zituen babes ofizialeko etxebizitzentzat (Gasteiz eta Iruña Oka). Indarrean egon den bitartean ekitaldi bakoitzeko emaitzak honako hauek izan dira:

- 2013, 72 kontratu formalizatuta
- 2014, 123 kontratu formalizatuta
- 2015, 105 etxebizitza, 11 lokal eta 40 garaje + trasteleku.

1. ekimena. Aldi baterako alojamenduen sare publikoa sortzea zenbait kolektiborentzat (tratu txarrak jaso dituzten pertsonak, ostatu eman behar zaien pertsonak eta etxea utzarazi dieten pertsonak, etorkinak etab).

1.22.4 helburua. Bazterkeria-arriskuan dauden etxerik gabeko pertsonak babestea.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2013tik eta 2015era bitartean, irabazi-asmorik gabeko erakundeei 63 etxebizitza eman zitzaizkien (2013an, 35; 2014an 12; eta 2015etan 16). Ekintza horrek, Gizarte Politiken Sailburuordetzarekin koordinazioan arituz, aipatu etxebizitzetan lehentasunezko kolektiboetara zuzendutako hainbat baliabide sozial txertatzeko eta garatzeko aukera eman zuen.

2. Legegintzaldian zehar [zuzkidura-bizitoki](#) autonomikoak esleitzeko prozesua etenik gabe garatzen egon da.

- 2013, 57 zuzkidura-bizitoki Ermuan, premia sozialari lotutako irizpideak oinarri hartuta.
- 2014, 12 zuzkidura-bizitoki, Iruña Okan.
- 2015, 79 zuzkidura-bizitoki Gasteizen eta 53 Hernanin.

2. ekimena. Etxebizitarik gabeko pertsonen egonkortasuna, babesa eta integrazioa laguntzen dituen eta etxeak utzaraztearen ondorioak arintzen dituen programa integral bat bultzatzea.

1.22.4 helburua. Bazterkeria-arriskuan dauden etxerik gabeko pertsonak babestea.

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2013tik 2015era bitartean, alokairu-erregimenean parke publikoko 58 etxebizitza zuzenean esleitu zitzaizkien hipoteka gauzatu ostean etxebizitza galdu zuten, errentak ez ordaintzeagatik kaleratu zituzten edo egoera ekonomiko larria izateagatik etxebizitza galdu zuten bizikidetzta-unitateei.

2. 2013an [Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eudelen arteko lankidetzta-hitzarmena](#) sinatu zen, geroago Bizkaiko Foru Aldundia batu zen. Hitzarmen horrek hipoteka gauzatu ostean etxebizitza galtzearen edo errentak ez ordaintzeagatik kaleratzearen zioz bazterkeria-arrisku egoerak berehala antzemateko aukera ematen du.

1. ekimena Hiri eraberritzea eta birsorkuntza sustatzen laguntzeko programa bat abiaraztea, gai honi buruz Etxebizitzari eta Hiri Biziberritzeari buruzko 2010/2013 Gida Plangintzan egindako ezarpenak birformulatuz.

1.22.5 helburua. Etxebizitzen egokitzapena eta eraberritzea eta eraikuntza iraunkorra

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2013ko maiatzean, [Etxebizitza Birgaitzeko Renove Plana](#) 2013-2016 aurkeztu zen:

- [Partikularrei eta jabeen erkidegoei eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak emateko programa](#): 2013-2015 bitartean 37.551 etxebizitza birgaitu ziren (emandako diru-laguntzen guztizko zenbatekoa: 44.559.495,87.- €).
- Udalentzako, tokiko erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako [irisgarritasunaren arloko laguntzen programa](#): 81 diru-laguntza eman ziren 2.500.000 €-ko guztizkoarekin. Irisgarritasunaren alorreko laguntzen programa udalentsat eta toki erakunde txikientzat, 198 diru-laguntza eman ziren 1.800.000 €-ko guztizkoarekin.
- [Diru-laguntzen programa](#) Birgaitze Integratuko Areetan (BIA) edo Bizitegi Area Degradatuetan (BAD) ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko. Aurrekontua 2015. urtean 700.000.- €; 2014an 5.500.000.- € eta 2013an 319.393,93.- €.
- Etxebizitzen eta eraikinen [birgaitze eraginkorraren](#) arloan laguntzak emateko programa, eraikitako ondarean esku-hartze programak garatzeko. 16 eraikini eta 690 etxebizitzari eman zitzaizkien laguntzak (aurrekontua: 6.060.000 €). (2014ko ekainaren 23ko EHAA).
- 2014ko ekainean, diru-laguntza bat izapidetu zitzaion Sestao Berri 2010 S.A. sozietate publikoari, Sestaoko Los Baños kaleko 51. zenbakian dagoen eraikina birgaitzeko (guztira: 331.000,00 - €). 2014ko abenduan zuzeneko diru-laguntza eman zen Abanto-Zierbenako Santa Juliana auzoaren hiri birsorkuntzarako (1. fasea); 350.000 €-ko diru-laguntza.

2. 2013an, [Etxebizitzaren 2013-2016 Gida Plan](#) berria onartu zen, zuzkidura esanguratsuak barne hartzen dituena etxebizitzen birgaitzeari dagokionez.

3. 2014ko urtarrilean, [2014-2016 Enplegu Plana](#) onartu zen, Etxebizitza Renove Ekimena bideratzeko asmoa duena, [Renove-Birgaitze Programaren](#) funtsezko ardatz gisa (51.628.336.- €-ko inbertsioa eta birgaitutako 37.306 etxebizitzen gainean eragina espero da).

2. ekimena. Premia bereziak dituzten pertsonen egokitutako etxebizitza irisgarriak sustatzen jarraitzea.

1.22.5 helburua. Etxebizitza egokitzapena eta eraberritzea eta eraikuntza iraunkorra

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. Udalentzako, tokiko erakunde txikiak eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako [irisgarritasunaren arloko laguntza programa](#). 2015ean 81 laguntza eman ziren (aurrekontua: 2.500.000 - €). 2014an, berriz, 198 izan ziren (aurrekontua: 1.800.000 - €).

2. 2015ean eta 5.500.000 - €-ko aurrekontua izanda, [Birgaitze eraginkorrerako laguntza programa](#) ezarri zen, eraikitako ondarean esku hartzeko proiektuak lantzeko. 2014an, 16 eraikini eta 690 etxebizitzari eman zitzaizkien laguntzak (aurrekontua: 6.060.000 €).

3. [Partikularrei eta jabeen erkidegoei eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak emateko programa](#): 2013. urtean 13.409 etxebizitza birgaituta (zenbatekoa guztira: 14.532.144,99.- €); 2014an 1.632 etxebizitza (zenbatekoa guztira: 13.452.132,51.- €); 2015ean 12.510 etxebizitza (zenbatekoa guztira: 14.575.218,37.- €).

4. [Renove-Birgaitze Programaren](#) 1., 2., 4. eta 5. proiektuak abian jarri dira. Programa horien bidez erraztasunak eman nahi zaizkie partikularrei eta jabeen erkidegoei, etxebizitzak egokitu ditzaten, eta diru-laguntzak eman nahi dira irisgarritasun-proiektuetarako eta proiektu horien ondorioz herri-administrazioei eta irabazi-asmorik gabeko nahiz xede sozialeko erakundeei eskuordetutako obretarako.

5. 2014ko ekainean, diru-laguntza bat izapidetu zitzaion Sestao Berri 2010 S.A. sozietate publikoari, Sestaoko Los Baños kaleko 51. zenbakian dagoen eraikina birgaitzeko (guztira: 331.000,00 - €).

3. ekimena: Arkitektura berdeko eta eraikuntza iraunkorreko eredu berriak bultzatzea eta sustatzea.

1.22.5 helburua. Etxebizitzen egokitzapena eta eraberritzea eta eraikuntza iraunkorra

Arduraduna: M^a Covadonga Solaguren Santamaria (Etxebizitzako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2015-12-31n jarduera honen hasieratik bildutako datuek agerian jarri dute erregistratutako Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EIT) guztira 3.522 izan direla.

- Telefono bidez kudeatutakoak (jasotakoak eta bidalitakoak): 2862.
- Posta elektronikoz kudeatutakoak (jasotakoak eta bidalitakoak): 4177.
- Sarbide-gakoa eskatu duten udalerririk: 251 udalerritik 229k.
- Prestakuntza: 52 prestakuntza-ekintza; 973 parte-hartzaile baino gehiago.

2. 2014ko maiatzean, EAeko Eraikinen Ikuskapen Teknikoak arautzen dituen dekretua aldatzen duen [80/2014 Dekretua](#) onartu zen. Urte bereko ekainean, Eraikinen Ikuskapen Teknikoen informaziorako eta kudeaketarako ataria abian jarri zen “Euskoregite”.

3. 2014-12-09an [226/2014 Dekretua](#), [abenduaren 9koa](#), onartu zen, eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriari buruzkoa.

4. 2015eko maiatza eta 2016ko otsaila bitartean Gasteizko Koronazio auzoa berroneratuko da. Visesak [SmartEnCity](#) proposamenean parte hartuko du (Smart Cities & Communities” SCC1-2015 Europako deialdia). Proposamena 2015eko maiatzean aurkeztu zen eta urte bereko irailean onartu zen. Helburua energia-efizientzian, garraioan eta IKTetan soluzio integratuak eta orekatuak identifikatzea, garatzea eta zabaltzea, hiriguneetan bizi-kalitate jasangarria izateko. Gasteizen, Tartu (Estonia) eta Sonderborg (Danimarka) hirietan, faro-hiri gisa, proba pilotuak egin ziren. Europako Batzordearen diru-laguntza hauxe da: 27.890.138,75.-€; Visesak 5.814.562,52.-€ kudeatzen ditu.

5. Halaber, legegintzaldian zehar [Etxebizitzak Birgaitzeko 2013-2016 Renove Planaren](#) 1. eta 4. programak abian jarri dira, partikularrentzako eta jabeen erkidegoentzako etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzen dutenak.

-Eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko partikularrentzako eta jabeen erkidegoentzako 1. programak 17.694.- laguntza eman ditu 2013an (zenbatekoa guztira: 14.532.144,99.- €) eta 2014an 14.328 laguntza (zenbatekoa guztira: 15.300.000.- €).

[Etxebizitza eta eraikinetako birgaikuntza eraginkorreko laguntzen 4. programa; ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko.](#) 2014ko deialdian 16 eraikinek eta 690 etxebizitzek laguntzak jaso zituzten (aurrekontua: 6.060.000.- €.) eta 2015eko deialdian aurrekontua 5.500.000.- €-koa da. Horrez gain, 2016ko ekitaldiari dagokion deialdia izapide-bidean da.

1. ekimena: [Partaidetza aktiboa sustatzea gizartean, bizi osoan zehar ikasteko ideia praktikara eramanez eta adin horretan espiritu solidarioa eta boluntariotza bultzatuz.](#)

1.23.1 helburua. Zahartze aktiboa eta belaunaldi arteko elkartasuna.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Adinekoen Batzorde Sektoriala, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren mendekoa den partaidetza-organo sektoriala, berraktibatzeari ekin zitzaion.

2. [Betion telelaguntza zerbitzuak](#) bere ohiko zerbitzuaz gain, hainbat kanpaina espezifiko egiteko aukera ematen du. Jazo daitezkeen isolamendu-kasuak antzemateko kanpaina bat egin da eta, 2014an bezala, horren bidez gripearen aurkako txertaketa-kanpaina sustatu zen.

3. Legegintzaldi horretan [Zahartze Aktiboaren Euskal Estrategia](#) prestatu, argitaratu eta aurkeztu zen, jarduketarako hiru arloekin:

- 1.-Gizartea zahartzera egokitzea. Gobernantza-eredu berria
- 2.-Aurrea hartu hobeto zahartzeko
- 3.- "Adiskidetasun" paradigaren orokortzea sustatzea, zahartzen diren pertsonen protagonismoa bermatuz

4. Horren adibide da esperientziaren gela bat ezartzea eta adineko pertsonak gonbidatzea, irakasleei eta LHko ikasleei jakintza zabaltzeko.

5. [Euskadi Lagunkoia](#) ekimena gehitu da, gure errealitatera Osasunaren Mundu Erakundearen proiektu bat egokitzea ("Age-friendly Environments Programme" ekimena). Adinekoen partaidetza sustatzea eta haiek gizartera zuzendutako ekarpenei garrantzia ematea du xede. Helburu hori aintzat hartuta, udalentsako gida praktikoa bat egin da, metodologia hori udalerrietan ezartze aldera. [Zahartze aktibo eta osasuntsurako gida](#) ere egin da.

6. Kostu txikiko edo kosturik gabeko praktikak ematen dituzten kontseiluen bidez hezkuntza-kanpaina batean datzan "Ezarpen lagunkoia" programa martxan dago, enpresek bezero nagusiagoak erakar ditzaten laguntzeko, pertsona guztientzako inguru lagunkoia sortuz. [Ezarpen lagunkoiari](#) buruzko online prestakuntza hobetu da, prestakuntza horri narriadura kognitibo arina duten bezeroen autonomia antzeman, tratatu eta sustatzeko modulu bat gehituz.

2. ekimena. Pertsona helduen gaineko pertzepzioa aldatzea, betiere gizartean daukaten zeregina balioetsiz eta belaunaldien arteko topaketak aldeztuz.

1.23.1 helburua. Zahartze aktiboa eta belaunaldi arteko elkartasuna.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea)

Jarduketak

1. "Zahartze aktibo eta osasuntsurako gida". Agiri honek adinekoei haien osasunarentzat onuragarriak diren bizitzeko erak hartzen laguntzeko informazioa, gomendioak eta ariketak biltzen ditu haien ahalmen fisikoak, mentalak, sozialak eta autonomiari eta bizitzari berari lotutakoak kontserbatzeko jarraibide erabilgarrienak emanez. Lankidetzaren Osasun Sailarekin garatuta, adinekoen egoitzetan, osasun zentroetan eta anbulatorioetan zabaltzeko asmoa dago, adinekoen elkarteek, erretiratuen klubek eta sektoreari lotutako organismoek adinekoekin harreman erraza izan dezaten.

2. [Zahartze Aktiboaren 2015-2020 Estrategia](#) abian jarri da, [EAEko 55 urte eta gehiagoko helduen bizibaldintzei buruzko azterlana](#) eta krisi ekonomikoak talde horretan izandako eragina aztertu ostean. Euskal Autonomia Erkidegoko zahartze aktiboaren eta osasuntsuaren indizearen kalkulua ere barne hartu da.

3. "Adinekoak Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomikoan" azterlana argitaratu da, Eusko Jaurlaritzarentzako M^{re} Ángeles Durán andreak egindakoa (Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorena), adinekoen jarduketak Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian duen egitekoa jorratzen duena.

4. Urtero, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailarekin elkarlanean, Nagusi aretoa topagunea da aisiari buruzko informazioa eta bizi-kalitatea hobetzeko prestakuntza bilatzen duten pertsona horientzat guztientzat (adinekoak, familiakoak, zaintzaileak, profesionalak, etab).

5. 2013an, Familien Kontseiluak familientzako estrategia berriaren ekintzak onartu zituen [Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Planaren](#) esparruan. Belaunaldi arteko elkartasunari buruzko Familien Planaren hirugarren arloan jasotako ekintzak gehitu dira berritutako estrategia honetan. Ildo horretan, 2014ko maiatzaren 16an, ["Tratu egokian eta lotura seguruan oinarritutako familia-harremanak"](#) jardunaldia ospatu zen eta bertan adinekoek familietan duten egitekoaren gaia jorratu zen.

6. [Matia Fundazioarekin Euskadi Lagunkoia-Euskadi Amigable hitzarmena](#) sinatu da, bizitza independentera, zahartze aktibora eta autonomia pertsonalera gidatuko duten inguru lagunkoia bilatuz. Eusko Jaurlaritzako zenbait alorren arteko (Gizarte Zerbitzuak, Etxebizitza, Hezkuntza, Kultura, Turismoa, Kirola, Osasuna, etab.) lankidetzaren barruan ekimen berri bat.

3. ekimena. Pertsona helduen artean asoziazionismoa bultzatzea eta haien gizarte partaidetza eta laguntza sustatzea pertsona helduen elkarte edo erakundeen bitartez.

1.23.1 helburua. Zahartze aktiboa eta belaunaldi arteko elkartasuna.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzaren eta Hego Euskal Herriko erretiratuen eta pentsiodunen arteko hitzarmena indarrean dago ([Federpen](#)), 21.240.- euroz hornitua.

2. [Euskadi Lagunkoia-Euskadi Amigable hitzarmenean](#) adinekoen elkarten partaidetza eta konpromisoa funtsezkoa da, hortik erretiratuen eta pentsiodunen federazioarekin garatzen ari den lan estua.

3. Adinekoen elkarteek Eusko Jaurlaritzaren mendeko partaidetza- eta kontsulta-organoetan parte hartzen dute, adibidez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan -Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala barne hartzen duena- eta [Elkarrizketa Zibilerako Mahaian](#).

4. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegorako Zahartze Aktiboko Estrategia lantzea.

1.23.1 helburua. Zahartze aktiboa eta belaunaldi arteko elkartasuna.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua).

Jarduketak

1. Arduraren ikuspegitik biztanleriaren zahartzea jorratzen duen [EAEko Zahartze Aktiboaren 2015-2020 Estrategia](#) 2015ean egin zen eta egun ezarpen fasean dago. Egoeraren behar bezalako diagnostikoa ezartzeko asmoz, EAEko 55 urteko edo gehiagoko adinekoen bizi-baldintzei buruzko azterlan bat egin zen eta emaitzak 2010ean gauzatu zenarekin alderatu ziren, krisi ekonomikoak talde horretan eduki ahal izan duen eragina ikusteko eta strategiaren diseinurako abiapuntu-informazioa edukitzeko.

2. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko zahartze aktiboaren eta osasuntsuaren indizea kalkulatu zen, zahartze aktibo eta osasuntsurako adinekoen gainean esplotatu ez den potentziala neurtzen duen adierazle bat dena.

1. ekimena. Pertsona heldua sistemaren erdigunean kokatzea, betiere arreta gizatiartuz eta artapen sistema desberdinen eta administrazio maila desberdinen arteko koordinazioa ahalbidetuz.

1.23.2 helburua. Inoren mende dauden adineko pertsonen beharrak asetzea

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2014an [MACP koaderno praktikoak](#) argitaratu ziren, pertsoneri emandako arreta eredua eguneko zentro edo egoitzetan ezartzeko, baita adinekoei laguntza eta arreta emateko arloan berrikuntza-proposamenak barne hartzen dituzten material didaktikoak eta jarduketa edo plan pilotu berrien garapena ere.

2. Adinekoen aurkako txarrak hautemateko azterlan bat oinarri hartuta, aipatu tratu txarrak antzemateko baliabide bat diseinatzeko, onartu zen 2015ean [EAEn adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura](#) . Tresna hori pilotatu da eta pilotatzean zehar ikasitakoarekin hobetu egin da. Tresna hori jada aurkeztuta, 2016an zehar erabiliko duten profesionalei formakuntza emango zaie.

3. 2013an udal eta foru gizarte zerbitzuek nahitaez erabili beharreko [gizarte-bazterkeria baloratzeko tresna](#) onartu eta argitaratu zen, gizarte-bazterkeriaren arrisku-egoerak izan zitezkeenak, gizarte-bazterkeria egoerak eta aipatu egoeren zizoko premiak baloratzeko.

4. 2013ko ekainean [353/2013 Dekretua](#), maiatzaren 28koa, onartu zen, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Soziala eta gizarte-diagnostikoa euskal herri-administrazioetako tresna tekniko komunak dira, gizarte zerbitzuen esku-hartze irizpideetan homogeneotasuna bermatze aldera.

5. Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluaren osoko bileran onartu zen "[informazio eta komunikazio soziosanitarioko sistemaren ezarpena](#)" ildo estrategikoa, [2013-2016 Plan Estrategiko Soziosanitarioak](#) barne hartzen duena.

6. Agiriaren betetze-mailaren balorazioa amaituta, "[Zahartzen direnen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen](#)". Ekintza-plan baterako oinarriek 2015ean [EAEko Zahartze Aktiboaren 2015-2020 Estrategia](#) egiteko abiapuntu gisa balio izan zuten ondorioek.

7. [Elkargune ekimenaren](#) baitan eta [Matia Fundazioarekin](#) lankidetzan, jardunaldi bat egin zen bizitzaren amaierako zainketen irizpide etikoei eta arreta integralari buruz. Horren emaitza gisa Gomendio etikoen gida. egin zen.

2. ekimena. Mendetasuna artatzeko zentroyen arautegia eguneratzea, betiere administrazioarekiko hitzarmenak ahalbidetzeko eta mendetasunaren artapenerako sistema arin eta eraginkor baten alde egiteko.

1.23.2 helburua. Inoren mende dauden adineko pertsonen beharrak asetzea

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2015eko otsailean Gobernu Kontseiluan [Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektorre Sozialaren Legearen](#) proiektua onartu da. Agiria Eusko Legebiltzarrean dago, onartu aurreko izapidean. Agiriak irabazi-asmorik gabeko gizarte zibilaren erakundeetako premiei erantzuna emango die, adibidez, KPEei, 3.000 - elkarte, 125.000 - boluntario eta 30.000 - enplegu biltzen dituen sektore batean.

2. Halaber, desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroyei buruzko dekretuaren eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako eguneko zentroyen eta zentro okupazionalen dekretuen proiektuak administrazio izapidean daude.

1. ekimena. Foru aldundiekin eta udalekin koordinaturik eta elkarlanean, prestakuntza eta atsedeen programak bultzatzea zaintzaileei laguntzeko eta eurak ere zaintzeko, bidenabar pertsona nagusiei ahalduntzeko aukera emanez.

1.23.3 helburua. Etxean geratzeko aukera ematea, pertsonak hala nahi duenean

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2016an zaintzailea zaintzeko hainbat ekintza garatuko dira. 2016ko otsailean telelaguntzako BetiON zerbitzu publikoaren bidez [Zaintzailea Laguntzeko Telelaguntza Plan](#) (ZLTP) berritzailea abian jarri da.
2. [Etxebizitza Sailburudetzak](#) laguntzak ematen ditu etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko — partikularrentzat eta auzo-elkarteentzat—, oztopo arkitektonikoak kentzeko udalentsako laguntzez gain.
3. 2014an [Matia Fundazioarekin](#) (Gerontologia Institutua) lankidetzaren hitzarmen bat formalizatu zen; besteak beste, zaintzaile profesionalentzako zein ez-profesionalentzako prestakuntza-ekintzak biltzen dira bertan.

2. ekimena. Administrazioen eta familiaren arteko zainketa partekatuak sustatzea, pertsonen zainketa eta zaintzaileen bizitzaren garapen optimoa bateragarri egiten dituen sistema bat ezarriz.

1.23.3 helburua. Etxean geratzeko aukera ematea, pertsonak hala nahi duenean

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. [Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa](#), hiru hilean behin biltzen dena, funtsezko elementua da administrazioek ematen dituzten zerbitzu eta programak koordinatzeko.
2. Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Planaren barruan [mendetasun-egoeran dauden edo egoera sanitario larrian dauden familiak zaintzeko laguntzak](#) daude. Helburu hori jorratzeko, 300.000 € erabiliko dira lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko.
3. 2015eko urriaren 6an, [zerbitzu-zorroari eta prestazioei buruzko dekretua](#) onartu zen. Era berean, sistemaren benetako kostuari buruzko memoria ekonomiko bat egin zen, eguneratutako datuekin. Datu horiekin Gizarte Zerbitzuen Mapa egin zen eta Plan Estrategikora moldatu. 2015eko abenduaren 1ean, Gobernu Kontseiluan [Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa](#) 2016-2019 onartu zen.

3. ekimena. Pertsona nagusiei zuzendutako gizarte eta osasun artapeneko programa zehatza garatzea, 2013-2017 Gizarte eta Osasun Plangintza Estrategikoaren eremu zabalagoaren barnean.

1.23.3 helburua. Etxean geratzeko aukera ematea, pertsonak hala nahi duenean

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Xede-kolektiboak izenekoak (horien artean desgaitasunen bat duten pertsonak edo/eta adinagatik mendetasun-egoeran dauden pertsonak) arreta soziosanitarioa ematea hizpide duten zenbait jarduketa biltzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Soziosanitarioaren Ildo [Estrategikoak](#) agiriaren esparruan. Jarduketa horiek egun martxan daude.

2. Halaber, Erakunde arteko Batzorde Soziosanitarioan [planaren bost ildo estrategikoak](#) aurkeztu dira:

- Koordinazio soziosanitarioa osatzen duten elementu formalak definitzea.
- Komunikazio-espazioa eta bere ezaugarriak definitzea; hori garatu eta zabaltzeko tresnez hornitzea.
- Eremu soziosanitarioko agente partaide desberdinekin koordinazioa sustatzea.
- Xede-kolektiboentzako zerbitzu soziosanitarioak garatzea.
- Eremu soziosanitarioan formakuntza, ikerketa eta berrikuntza bultzatzea.

4. ekimena. Pertsona nagusientzako artapenean jakintza bultzatzea, unibertsitateekin eta zentro teknologikoekin elkarlanean.

1.23.3 helburua. Etxean geratzeko aukera ematea, pertsonak hala nahi duenean

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2015eko irailean [EAEko 55 urteko edo gehiagoko adinekoen bizi-baldintzei buruzko azterlan-ikerket](#)a aurkeztu zen; azterlan horrek datuek Zahartze Aktiboaren 2015-2020 Euskal Estrategiari forma emateko balio izan dute. Aipatu azterlanaren edukia 2010ean egindakoarekin egiaztatuko da, kolektibo horren premien bilakaera eta artatzeko behar dituzten baliabideak ikusteko. Halaber, azterlan honi esker, EAEk duen zahartze aktiboaren indizea atera da.

2. [Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren Estatistika Organoaren](#) indartzearen inguruan lan egin da, sail horretan txostenak egin daitezen eta datuak esplota daitezen.

5. ekimena. Gizarte berrikuntzako programak sustatzea pertsona nagusiak artatzean eta eurei zerbitzuak ematean, adineko pertsona horien premiak asebetetzera bideratzen diren zerbitzu eta produktuen sare bat garatzeko helburuarekin.

1.23.3 helburua. Etxean geratzeko aukera ematea, pertsonak hala nahi duenean

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. [Zahartzaroaren](#) eskutik mendeko adinekoen aurkako tratu txarrak hautemateko gida egin zen. Tresnaren pilotatzea gauzatu da eta laster horren harira ateratako ondorioak ezagutarazi ahal izango dira.
2. Eusko Jaurlaritzaren eta [Matia Fundazioaren](#) (Gerontologia Institutua) arteko [hitzarmenak](#) adinekoen arloan berrikuntza sozialaren ekintzen garapena bultzatzeko aukera eman du (esparruan garatzen ari direnak).
3. [Telelaguntza zerbitzu publikoaren](#) balorazio-maila handitu da. Kontuan hartuta 4,5eko nota daukala 5en gainean, urtero nabarmen egiten du gora; 2014ko abenduan erabiltzaileak 34.132 izan ziren, 2013an baino % 9 gehiago. Erabiltzaileen % 80 emakumeak dira eta zerbitzuaren estaldura honako hau da: 65 urte edo gehiagoko adinekoak % 7,68; 80 urte edo gehiagoko adinekoak % 20,14; eta 85 urte edo gehiagoko adinekoak % 27,12. Horrez gain, ekitaldiaren amaieran Osakidetzarekin aurretiko 9.127 hitzordu eta osasun-arloko aholkua jasotzeko telefono bidezko 19.076 kontsulta zenbatu ziren. 197 erabiltzailerik osasunaren telemonitorizazioa aplikatu zitzaizen.
4. 2015aren hasieran adinekoei laguntzeko eta arreta emateko ekintza berritzaileak hasi ziren, [Etxean Ondo proiektuan](#) amaitu zirenak. Proiektu horrek pertsona oinarri duten arreta-ereduak definitzea du xede. Aipatu ekimenak ereduak aplikatzeko koaderno didaktikoen argitalpena barne hartu zuen.

1. ekimena. Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko 2011-2015 Plangintza birformulatzea, Familien Euskal Behatokiak ikusten dituen beharrian eta egoera berriei egokitua.

1.24.1 helburua. Familiaren gainerako politika familia-eredu berrietara egokitzea.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. [Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko 2011-2015 Plana](#) Familia Kontseiluaren osoko bilkuran onartu zen 2013ko uztailean (kontseilu hori erakundeetako ordezkariak eta gizarte erakundeetakoek osatzen dute). Plan horren [birformulazioak](#) familiei laguntzeko euskal estrategian hainbat nobedade gehitzen ditu bateratzearekin, [gurasotasun positiboarekin](#), belaunaldi arteko harremanekin, etab. zerikusia duten 16 ekintzen bidez.

2. ekimena. Familiei laguntzeko ezarri beharreko neurri eta ekimenak behar bezala osatu eta koordinatzea, zerikusia daukaten elkarte eta erakundeekin lankidetzan eta Familiaren Euskal Kontseiluari bultzada emanez.

1.24.1 helburua. Familiaren gaineko politika familia-eredu berrietara egokitzea.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Sare sozialak, bideojokoak eta smartphone-ak erabiltzearen abantailen eta desabantailen inguruen gazteak sentsibilizatu nahi dituen [Egon Line proiektua](#) 2013ko azaroan abian jarri zen. EAEko sare publikoko bost zentrotan esperientzia pilotu bat abiapuntu izanda, unitate didaktikoak egin ziren DBHko lehen zikloan Internetekin zerikusia duten gaiak jorrazteko. 200 bat ikaslek parte hartu zuten. 2014ko otsailean "[Safer Internet Day](#)" eguna ospatzearen ondotik, unitate didaktikoak aurkeztu ziren.

2. Familiako bizitza eta lanbidea bateratzeko familientzako laguntzen araudia aldatu da, familiako bizitza eta lanbidea bateratzeagatik diru-sarrera gutxiago dituzten horientzako zenbait laguntza ekonomiko zuzenetan familiako errenta estandarizatuaren irizpidea gehituz.

- [31/2015 Dekretua](#), familiako bizitza eta lanbidea bateratzeko laguntzei buruzko dekretua aldatzen duena.

- [32/2015 Dekretua](#), martxoaren 17koa, familia-politiken esparruan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko dekretua aldatzen duena (154/2012 Dekretu aldaketa).

3. [Familiei Laguntzeko Euskal Estrategiak](#), 2013ko uztailan onartutakoak, ezartzen ari diren honako ekintza hauek hartzen ditu barne: familiako bizitza eta lanbidea bateratzeko talde sustatzailea sortzea; foru aldundiekin batera, zerga-politiken bidez familiako bizitza eta lanbidea batera daitezen ezartzeko azterlana; estatuko administrazioarekin elkarlanean, bateratzearen arloko lan-eskubideak hobetzea eta zabaltzea aztertzea, etab.

3. ekimena. Familiaren Euskal Estrategiaren baitan aurreikusten diren lan ildo estrategikoen garapena burutu.

1.24.1 helburua. Familiaren gaineko politika familia-eredu berrietara egokitzea.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Sare sozialak, bideojokoak eta smartphone-ak erabiltzearen abantailen eta desabantailen inguruen gazteak sentsibilizatu nahi dituen [Egon Line proiektua](#) 2013ko azaroan abian jarri zen. Euskal sare publikoko bost zentrotan esperientzia pilotu bat abiapuntu izanda, unitate didaktikoak egin ziren DBHko lehen zikloan Internetekin zerikusia duten gaiak jorrazteko. 200 bat ikaslek parte hartu zuten. 2014ko otsailaren 10ean, "[Safer Internet Day](#)" eguna ospatzearen ondotik, unitate didaktikoak aurkeztu ziren.

2. [Adingabeak eta Internet Euskal Sareari](#) dagokionez, sarean parte hartzen duten kideekin aldebiko zenbait bilera egin ziren jarduketan eta eskuragarri dituzten materialen berri edukitzeko. Bildutako informazioa oinarri hartuta, gaiaren inguruan lankidetzarako plataforma bat sortzen ari da. 2014ko otsailaren 10ean, "[Safer Internet Day](#)" eguna ospatzearen ondotik, lan-sare honen aurrerapenak ezagutarazi ziren.

3. 2013an onartutako [Familiaren Euskal Estrategiak](#) jarduketarako 4 eremu garrantzitsu ezartzen ditu: bateratzea, [gurasotasun positiboa](#), belaunaldi arteko elkartasuna, laguntza ekonomikoak.

4. Gurasotasun positiboa ahalbidetzeko ekintzak abian jartzea: 0-2 Profesionalentzako online ikastaroa, 2-6 Profesionalentzako online ikastaroa, [Gurasotasun positiboari buruzko weba](#). Joan den martxoaren 17an, 18an eta 19an EAEko hiru hiriburuetan hainbat [jardunaldi](#) izan ziren; horietan, gurasotasun positiboaren gaiari lotutako kontuak jorratu ziren. Aipatu jardunaldiak Eusko Jaurlaritzak antolatzen ditu beste erakunde batzuen artean.

1. ekimena. Familiari laguntzeko neurri egokiak garatzea, seme-alabak dauzkaten familientzat berdintasunezko tratamendua bermatzeko.

1.24.2 helburua. Familiari laguntzea gizarte kohesiorako elementu gisa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2013ko uztaietan [Familiei Laguntzeko Erakunde arteko 2011-2015 Plana](#) onartu zen. Familia Kontseiluan, erakundeetako ordezkariak eta erakunde sozialetakoek osatutakoan, plan berri hori onartu zen; horren bidez familiei laguntzeko euskal estrategian hainbat nobedade gehitu dira bateratzearekin, [gurasotasun positiboarekin](#), belaunaldi arteko harremanekin, laguntza ekonomikoekin, etab. zerikusia duten 16 ekintzen bidez.

2. ekimena. Familia, lana eta bitzita pertsonala bateratzeko politiketan sakontzea, aldi berean ekimen mota hauetan parte hartzen duten erakundeei laguntza emanez.

1.24.2 helburua. Familiari laguntzea gizarte kohesiorako elementu gisa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Enplegua sustatzeko Lanbideren [laguntzen programak](#) familiako bitzita eta lanbidea bateratzeko laguntza-ekarpenak ezartzen ditu. Onuragarria izan da 1.700 bat pertsonentzat. ([177/2010 Dekretua](#), egoera guztietan errenta-irizpideetara doitzeko 31/2015 Dekretuaren bidez aldatu den familiako bitzita eta lanbidea bateratzeko laguntzei buruzkoa. 2013an ekarpena 1.965.493.- €; 2015ean, berriz, 2.200.000.- €-ko ekarpena egin zen.

2. [Familiei Laguntzeko Euskal Estrategiak](#), 2013ko uztailean onartutakoak, honako ekintza hauek hartzen ditu barne: familiako bitzita eta lanbidea bateratzeko talde sustatzailea sortzea; foru aldundiekin batera, zerga-politiken bidez familiako bitzita eta lanbidea batera daitezen ezartzeko azterlana; estatuko administrazioarekin elkarlanean, bateratzearen arloko lan-eskubideak hobetzea eta zabaltzea aztertzea, etab.

3. ekimena. Familia ugariei laguntzea gainerako euskal erakundeekin elkarlanean eta lankidetzan.

1.24.2 helburua. Familiari laguntzea gizarte kohesiorako elementu gisa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Familia Ugarien Elkarteen Federazioarekin koordinazioa eta [lankidetz](#) areagotu da, 2014an sinatutako lankidetz-hitzarmenari esker.

2. Familientzako laguntzak arautzen dituzten hainbat dekretu aldatu ziren egoera guztietan errenta-irizpideetara doitzeko. Honako hauek dira: [255/2006 Dekretua](#) abenduaren 19koa, laguntza ekonomikoak arautzen dituena eta [154/2012 Dekretua](#), uztailaren 24koa, familia-politiken esparruan familia-errenta estandarizatzeko sistema definitzen duena.

4. ekimena. Haurreskoletako inskripzioetan hobekuntzak bideratzea, horietan izena emateko sistema malgutuz.

1.24.2 helburua. Familiari laguntzea gizarte kohesiorako elementu gisa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. [Haurreskolak Partzuergoak](#) izena emateko hiru aldi eskaintzen ditu urtean (urtarrila-maiatza-iraila) baina edozein unetan egin daiteke plazen % 75 bete arte. Une horretatik, kasuak banan-banan aztertzen dira eta egon daitezkeen eskariaren arabera. Eskaria esanguratsua izatea espero bada, hurrengo aldira arte itxaron beharko da kasuan kasuko baremazioarekin; hori guztia aukeren berdintasunaren alde.
2. Gizarte Politiken eta Hezkuntza Sailburuordetzek koordinazio sistematikoa mantentzen dute bi sistemetan (hezkuntza- eta gizarte-arlokoa) garatzen diren jarduketan garapen eta jarraipenerako, baita sistemaren inguruan egin daitezkeen hobekuntzak ere. Koordinazio-bileren agendan familiei arreta ematea dago, horien artean, Haurreskolakek emandakoa.

5. ekimena. Familiaren haustura gertatuz gero, seme-alabentzako aukerarik onena lehenestea, zainketa partekatua bultzatuz, beste batzuen aldean aukerarik onena dela pentsatzen denean.

1.24.2 helburua. Familiari laguntzea gizarte kohesiorako elementu gisa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. [Familia-bitartekaritza zerbitzuak](#) ezarri dira. Bikotea hautsiz gero, familiei prozesu judizial bat ireki aurretiko erabakiak hartzen laguntzea du xede. 2014ko datuek agerian jarri dute zerbitzuaren balorazioa (9koa 10en gainean) eta 1.983 espediente kudeatu direla (2013. urtean baino % 4 gehiago). 2015eko memoria egiten ari dira.

2. Legegintzaldiaren hasieran eta Banandutako Gurasoen Elkarteak aurretik eskatuta, elkarte horren eta Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren ordezkarien artean bilera bat egin zen. Kontu horietan saila adingabearen ongizateaz arduratu behar da beti. Ekimen hori 2015ean seme-alabak kargura dituzten gurasoen bizikidetzaren haustean [guraso-erantzunkidetasunari eta familia harremani buruzko 7/2015 Legea](#) onartuz amaitu zen.

6. ekimena. Familia-bitartekaritza indartzea, gatazkak apaltzeko eta minimizatzeko zerbitzua handituz.

1.24.2 helburua. Familiari laguntzea gizarte kohesiorako elementu gisa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2015eko martxoan, Eusko Jaurlaritzak [Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin hitzarmen](#) bat baimentzen duen akordioa sinatu zuen bitartekaritzaren eta arazoak konpontzeko beste modu baketsu batzuen arloan. Bide horretatik eramandako prozedura juridikozionalako datuak oinarri hartuta, akordioak familiaren esparrurako garrantzi handia dauka.
2. Herri-administrazioek herritarrek familia-bitartekaritza eskuratzeko aukera izan dezaten bermatu behar dutela kontuan hartuta, baita legeak jasotako terminoetan doakoak izan daitezen ere, EAEko hiru lurraldeetarako bitartekaritza-zerbitzuaren kudeaketa bakarra lehiaketa baten bidez kontratatuta dago.
3. [2013ko datuei](#) dagokienez, 2014an lortutakoek agerian jarri dute bitartekaritza-zerbitzuaren balorazioa (9koa 10en gainean) eta kudeatutako espedienteak % 4 hazi direla (guztira 1.983: Bizkaian 1.063, Araban 490 eta Gipuzkoan 430). 2015eko memoria egiten ari dira.

1. ekimena. Informazio eta komunikazio politika berria sustatzea, pertsona eta kultura guztiekiko errespetua bultzatzeko.

1.25.1 helburua. Borroka egitea arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1 Immigrazioagatiko ituna hobe dadin lanean dihardugu, alde biko zenbait bilera eginez erakunde eragile eta talde politikoekin, itunaren agiriari beren atxikimendua emateko. Lan horren ondorioz, eta Migratzailearen Nazioarteko egunaren ondotik, 2014ko abenduan [Immigrazioaren aldeko Adierazpen Instituzionala](#) egin zuen lehendakariak.

2. 2014ko irailean [euskal gizartea immigrazioaren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina](#) abiarazi zen, etorkinen kontrako aurreiritziei aurre egiteko eta jokabide arrazista eta xenofoboetan dautzan zehaztapen posibleak saihesteko.

3. 2013an [Immigrazioaren 2014-2016 Euskal Estrategia](#) onartu zen herritar etorkinen integrazio eta gizarte partaidetzarako foroaren esparruan. Estrategia honek informazioa, tresnak eta hausnarketak eskaintzen ditu "aurreiritziak eta estereotipoak" oinarri dituzten diskurtsoei aurre egiteko.

4. [Immigrazioaren Euskal Estrategiaren](#) eremuan, 2013an diseinatu eta onartu zena herritar etorkinen integrazio eta gizarte partaidetzarako foroan, [4. blokean](#) (Partaidetza, kultura-aniztasuna eta bizikidetzak. Bereizkeriarik ezaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka) "aurreiritziak eta estereotipoak" oinarri dituzten diskurtsoei aurre egiteko informazioa, tresnak eta hausnarketak eman eta bideratzeko atal bat jorratzen da, herri-administrazio guztiei, hirugarren sektoreko gizarte eragileei eta erakundeei zuzendutako materialak eginez. Foroko lantaldeek egindako azken [balorazioa](#).

5. [Biltzen: Integrazioarako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua](#) hobetzeko lanetan Eusko Jaurlaritza sendo inplikaturik dago. Zerbitzu horren xedea euskal gizartean dauden kultura-komunitate desberdinen artean elkarrizketa dinamizatzea da, baita komunitate horien eta administrazioaren artean ere.

6. [Ikuspegin](#) (Immigrazioaren Euskal Behatokia) modu jarraituan eta sistematikoan Euskal Autonomia Erkidegoko immigrazioaren fenomenoaren eta euskal herritarrek horren inguruan duten pertzepzioa aztertzen dira. "Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn" da argitaratutako azken azterlana.

1. ekimena. EAEko udaletan erroldatutako etorkinak artatzeko protokolo bat garatzea, oinarritzko gizarte zerbitzuen taldeak indartuz.

1.25.2 helburua. Etorkinen integrazioa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Europako krisi humanitarioaren eta migratzailearen ondorioz, gobernu kanpoko erakundeek eta instituzioek osatutako hainbat [lan-mahai](#) koordinazio-kontuak ari dira jorratzen errefuxiatuentzako arreta homogeneizatu eta errazteko.

2. 2016an indarrean diraute Eusko Jaurlaritzarekin eta zenbait elkarterekin sinatutako hitzarmenek, horiek etorkinak har ditzaten, aholkuak eman diezazkieten eta haiekin joan daitezen. Honako hauek dira elkarreak: Cear- Euskadi, Afroamerikarren elkarrea, Gurutze Gorria, Goiztiri elkarrea, Caritas, Cosmopolis elkarrea, Cite elkarrea, Adiskidetuak elkarrea eta Abokatuen elkargoa.

2. ekimena. Etorkinek zerbitzu publikoak eskura izatea berdintasunezko baldintzetan, administrazioarekiko erlazio erraza ahalbidetuz.

1.25.2 helburua. Etorkinen integrazioa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1 [2014ko abenduaren 17ko aginduak](#) laguntzen programari jarraipena ematen dio eta langile teknikoak eta administratiboak kontratatzeke laguntza ekonomikoak emateko eta erakunde publikoek gizarte esku-hartzearen arloan jarduketak bultzatzen oinarriak onartzen ditu. [2015eko abuztuaren 31ko ebazpenak](#) ekitaldi honetarako laguntza berak iragarri zituen.

2. Halaber, 2015ean erakunde publikoentzako laguntza ekonomikoen programa bat izapidetu zen, erkidegoko, immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren arloko langile teknikoak eta administratiboak kontratatzeke. Guztira 13 erakunde publikok laguntza horiek eskatu zituzten 16 teknikari kontratatzeke. Immigrazioaren arloko jarduketak garatzeko 33 erakunde eskatzaile laguntzak eman zitzaizkien (35 ziren guztira).

3. [Eusko Jaurlaritzaren eta Eudelen arteko hitzarmenak](#) etorkinak udalerrietan behar bezala hartzeke tresnak ezartzen ditu, itzulpen-zerbitzua barne.

3. ekimena. Euskarazko irakaskuntza sustatzea eta bultzatzea gizarte integrazioarako mekanismo eta tresna gisa.

1.25.2 helburua. Etorkinen integrazioa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Euskararen inguruan etorkinen eta gainontzeko herritarren artean bizikidetzatza-loturak ezartzeko esperientzia pilotuak abian jarri dira. [Auzoko programa](#) esperientzia horien adibide bat da.
2. [Euskalgintza](#) laguntzen deialdiak etorkinak euskarara eta euskal kulturara hurrera daitezen xede duten jarduketak bultzatzen ditu, hori guztia gizartearen ahalik eta ondoen integra daitezen errazteko. [2015eko deialdia](#). [2016eko deialdia](#) jada argitaratu da.

4. ekimena. Kirolaren jarduna sustatzea integratzeko eta elkar ezagutzeko bitarteko gisa.

1.25.2 helburua. Etorkinen integrazioa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. EAEko gizarte esku-hartzearen eremuan [hirugarren sektoreko jarduketak sustatzeko diru-laguntzen urteko programak \(271/2012 Dekretua, abenduaren 4koak\)](#), etorkinen integrazioarako jarduketa desberdinak finantzatzen ditu, zenbait programa integralei laguntzeko 350.000.- € emanaz. 2016ko deialdia izapide-bidean da.

1. ekimena. Kirolaren jarduna sustatzea integratzeko eta elkar ezagutzeko bitarteko gisa.

1.25.3 helburua. Bizikidetza eta aniztasunaren kudeaketa

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Eusko Jaurlaritzak ikasle etorkinen inklusiorako baterako ekimenak ezarri ditu. Horren adibide da [Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko 2012-2015 plana](#). Aipatu planaren helburua araudia, programak eta protokoloak egokitzea da ikasleen eskolatzeko inklusioa ahalbidetzeko. Halaber, planak ikasle etorkinen inklusioa bultzatzearen inguruan Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza eta sail batzuekin batera egindako ekimenak erraztea barne hartu du.

2. Legegintzaldi honetan zehar, [Biltzen](#), Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua, [Berritzeguneetan](#) profesionalentzako formakuntza-saioak garatzen ari da.

2. ekimena. Ikasle etorkinen integrazioari laguntzeko diren programa eta jarduketa berriak sustatzea.

1.25.3 helburua. Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketa

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko 2012-2015 planean (plangintza-aldi berri bati begira dagokion jarraipen- eta ebaluazio-txostena egingo da). jasotako ekintzak ezarri dira.
2. Legegintzaldi honetan zehar, [Biltzen](#), Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua [Berritzeguneetan](#) profesionalentzako prestakuntza-saioak garatzen ari da.
3. Osasun, Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika eta Enplegu eta Gizarte Politiken Sailen arteko koordinazio-mekanismoak bateratu dira kolektibo espezifikoei laguntzeko politikak koordinatze aldera. Horren adibidea da [herritar etorkinen integrazio eta gizarte partaidetzarako foroa](#).

3. ekimena. Irakasleen prestakuntza eta gaitasuna hobetzea eskoletan kulturen arteko elkarbizitzari eta dibertsitatearen kudeaketari buruzko gaietan.

1.25.3 helburua. Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketa

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Legegintzaldi honetan zehar, [Biltzen](#), Integrazioarako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua, [Berritzeguneetan](#) profesionalentzako prestakuntza-saioak garatzen ari da.

2. Ikuspegi inklusibo batetik eta kultura artekotik lan egiten duten zentroen sare bat abian da. Horrez gain, aipatu zentroak koordinatzen dituen egitura bat sortu da. Ekimen horiek [eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko 2012-2015 planaren](#) (kultura arteko ikuspegiaren eragina duen hezkuntza esku-hartzea erraztuko duen zentroaren proiektu osoak bultzatzea). 1.1 ataleko inplementazioari lotuta daude.

4. ekimena. Etorkinak integratzera bideratu beharreko programa edo egitasmo bat abiaraztea, lan baldintza duinak zainduz eta euskal enpresetan dibertsitatearen kudeaketa kontuan hartuz.

1.25.3 helburua. Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. **Osalanek** lan baldintzei eta segurtasun, higiene eta osasunaren arauetako lotutako prestakuntza-ekintzak bideratzen ditu etengabe. Etorkinek ekintza horiek eskura ditzakete.
2. 2014an etorkinak enpresetan integratzeari buruzko sentsibilizazio-gida bat egiteko azterlana gauzatu zen.
3. Legegintzaldian zehar, **Biltzen**, Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuak, kultura-aniztasunaren arloko prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak sustatzen ditu etengabe beharrezkotzat jotzen duen eremu orotan (justizia, segurtasuna, osasuna, etab.).

5. ekimena. Emakume etorkinari laguntzeko eta hura defendatzeko programa integrala abiaraztea, berdintasuna sustatzeko, Emakunderekin koordinaturik.

1.25.3 helburua. Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Egun, [Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sail arteko Batzordea](#), Emakunderi atxikitakoa, operatibo dago, emakume etorkina babesteko asmoa gauzatzeko eta horretarako diseinatutako ekintzak garatze aldera. "Atal arteko ikuspegia bereizkeria-egoerak jorratzean" [jardunaldia](#) , 2015.11.11n izandakoa, horren adibide da.

6. ekimena. Osakidetzako langileei zuzendutako etengabeko prestakuntza programa bat egitea dibertsitatearen kudeaketari eta alderdi multikulturalei buruz eta beste bat gaixoei zuzenduta osasun heziketari eta autozaintzetari buruz.

1.25.3 helburua. Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketa.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. **Biltzen:** Integrazioarako eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuak eta **Berdinduk**, aniztasun afektiboaren eta sexualaren arloan laguntza emozionala ematen duen zerbitzuak, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak egiten dituzte aniztasun kulturalari, afektiboari eta sexualari lotutako gaietan, beharrezkoa den arlo guztietan; oso kontuan hartzen dute osasun-arloa.

1. ekimena. Erakundeen arteko elkarrizketa iraunkor bat ezartzea, immigrazioarekin erlasionatutako politika koordinatzeko asmoz.

1.25.4 helburua. Etorikinen arretarako politika propio berria.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetzaren (2010-2013) III. Planari dagokion balantzea aztertu ostean, 2015. urtearen hasieran, [Immigrazioaren Euskal Estrategia](#) lan-plangintza gisa onartu zen falta zen legealdirako. [Etorikinen integratziarako eta partaidetzarako foroarekin](#) elkarlanean garatu eta onartu zen aipatu estrategia.

2. [Etorikinen integratziarako eta partaidetzarako foroaren](#) osoko hiru bilera egin dira eta horietan etorikinen integratziaren arloan diharduten hirugarren sektoreko erakundeek eta zenbait administratziotako ordezkari hartzen dute parte.

2. ekimena. Laguntzarik gabeko adingabe atzerritarrak hartzeko premiazko protokolo komuna sortzea, ukitutako erakunde guztiekin adostutakoa.

1.25.4 helburua. Etorkinen arretarako politika propio berria.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Laguntzarik gabeko adingabe atzerritarrei dagokienez errespetatu behar diren bermeak barne hartuko dituen erakunde arteko jarduketa-protokolo komun bat egiteko prozesua jorratzen ari gara. Ekimena bakarrik dauden adingabe atzerritarrei laguntzeko bermeei buruzko Arartekoaren ekainaren 17ko 5/2013 Gomendio Orokorra da.

3. ekimena. EAEko herritar etorkinen integrazio eta gizarte partaidetzarako foroa sustatzea eta bultzatzea.

1.25.4 helburua. Etorkinen arretarako politika propio berria.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Behin [Immigrazioaren Euskal Estrategia](#) definituta, egikaritzea etorkinen integrazioarako eta partaidetzarako foroarekin partekatzen ari gara. Xede horrekin foro hori indartu eta dinamizatu duten bost lan-talde sortu ziren.

2. 2014ko urrian etorkinen integrazioarako eta partaidetzarako foroa egin zen eta bertan [Immigrazioaren Euskal Estrategia](#) onartu zen, lau helburu garrantzitsu jorratuz 22 jarduketatan:

- Immigrazioaren eta herritarren euskal politika egituratu eta antolatzea erakunde artean eta erakunde barruan.
- Enplegua, prestakuntza eta eskola-arrakasta eskuragarri izatea, integrazeko bide den aldetik, erabateko herritartasuna lortzea eta baliabideak mobilizatzea.
- Zerbitzu eta programa publikoetan aniztasuna sartu eta kudeatzea.
- Parte-hartzea, kultura-aniztasuna eta bizikidetzeta. Diskriminazioaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka.

4. ekimena. Errefuxiatutako pertsonak artatzeko programa bat bultzatzea, foru aldundiekin eta udalekin elkarlanean eta lankidetzan.

1.25.4 helburua. Etorkinen arretarako politika propio berria.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Erakunde arteko lankidetzak sustatzen ari gara errefuxiatuentzako harrera-programak sortzeko etorkinen integrazioarako eta partaidetzarako foroaren bidez. [Immigrazioaren Euskal Estrategian](#) jasotako helburu bat da.

2. Siriako gatazkaren eta Europako errefuxiatuen krisiaren ondorioz, harrera-protokolo bat egin da eta zerbitzu-zorro bat definitu da: harreraren hasierako fasean eman beharreko zerbitzuen zerrenda. Aldi berean, EAEn hartuko diren errefuxiatuak lurraldetan banatzeko planteamendua ere xedatu da. Bertan, Eusko Jaurlaritzak, aldundiek, Eudelek eta EAeko hiriburuek parte hartzen dute.

1. ekimena. Gizarte itun bat bultzatzea, ordainsari berdintasunean aurrera egiteko, eta erantzukizuneko postuetan emakumeen presentzia sustatzea.

1.26.1 helburua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Arduraduna: Miren Izaskun Landaia Larizgoitia (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria)

Jarduketak

1. Legegintzaldian zehar hainbat ekimen bideratu dira genero-etenak identifika daitezen sektore pribatuko ardura-lanpostuetan emakumeen eta gizonen artean eta ordainsarrietan, baita eten horiek desagerrarazteko jarduketak honen bidez identifika daitezen ere:

-Enpresetan berdintasun-planak egiteko laguntzen deialdia:

-Ebazpena 2013ko deialdia (96.000 € 17 onuradunen artean banatuta)

-Ebazpena 2014ko deialdia (100.000 € 16 onuradunen artean banatuta)

-Ebazpena 2015eko deialdia (100.000 € 16 onuradunen artean banatuta)

-Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaileen onarpenerako txostenak.

2. Halaber, sektore publikoko ardura-postuetan emakume eta gizonen arteko genero-etenak identifika daitezen bultzatu da eta eta haiek desagerrarazteko jarduketak identifikatzea toki eremuan berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko deialdia eginez, baita foru eta toki administrazioen berdintasun-planei buruzko txostenak eginez eta gobernuaren arauak generoaren arabera duten eragina ebaluatzeko prozesuan txostenak eginez ere.

3. EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena prestatzen jarraitzen du Emakundek. 2013ko zifrak. 2014ko zifrak. EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena (2015).

4. Zenbait gida editatu dira: (1) Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa enpleguaren esparruan eta (2) Genero berdintasunaren arloko lan-eskubideen gidaliburua

5. 2013ko ekainean, lan honen bigarren edizioa aurkeztu zen: Virginia Wolf Basqueskola: toki eremuan emakumezko politikarien sare bat sortzeko ekimena, aitzindaria estatuan. Virginia Wolf Basqueskola. 2015-12-17an, Emakunde eta Eudelek EAEko emakumezko alkate eta zinegotzientzako Virginia Woolf Basqueskola-2016 programa berria aurkeztu dute, euskal udaletan politikan diharduten emakumeentzako "espazio propioa".

6. EAEko Berdintasunerako VI. Planak,X. Legegintzaldirako onartutakoak (30.12.2013), besteak beste, barne hartzen du emakumeen ahalduntze kolektibora zuzendutako 3. Programa Operatiboa, emakumeen enplegu-lorpena eta lan-baldintzak eta lanbide-sustapena hobetzeko zenbait neurri hartuz, kolektiboen eta egoeren aniztasuna aintzat hartuta.

2. ekimena. Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko aukera bultzatzea, erantzukidetasuna eta ordutegien malgutasuna eta arrazionalizazioa sustatuz eta haur-eskolen eta laguntza-zerbitzuen sarea indartuz.

1.26.1 helburua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Arduraduna: Miren Izaskun Landaida Larizgoitia (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria)

Jarduketak

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gizonen inplikazioa sustatzera zuzendutako Gizonduz ekimenaren programak garatzen dira legegintzaldian. [Prestakuntza-programa Bloga](#)
2. Halaber, legegintzaldian [enpresetan berdintasun-planak egiteko laguntzen deialdiak](#) mantentzen dira eta horiek bateratze-neurrietan, arduraren lanpostuetan edo ordainsarrietan etenak identifikatzen laguntzen dute, zuzenketari heltzeko. Antzeko helburuarekin [emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaileen onarpenerako](#) neurrien inguruan sakondu da.
3. [Gaiaren egoerari, zaintza partekatuaren ikuspegiari eta iritziei buruzko jardunaldia](#) egin zen 2013ko urrian. Zaintza partekatuaren inguruan herritarrek informazio garrantzitsua, egiakoa eta erabilgarria izan dezaten, egungo egoerak ezagutzeko eta esperientziak trukatzeko. Horrez gain, gaiaren egoerari eta zaintza partekatuaren profesional adituen iritziei buruzko azterlan bat egin da.

3. ekimena. Hezkuntza-sistemarekin batera berdintasuna bultzatzea, ikasleen alderdi pertsonala, soziala eta komunitarioa garatzeko.

1.26.1 helburua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Arduraduna: Miren Izaskun Landaida Larizgoitia (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria)

Jarduketak

1. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin elkarlanean, genero-ikuspegia araubide bereziko curriculumetan gehitu da eta LHko irakasleentzako eta curriculumaren edukiak genero-ikuspegitik irakasteko materialak prestatzeari ekin zaio.

2. 2013-2015 aldiko bi ikasturteetan [Nahiko programa](#) garatu da: Tutoretzako baterako hezkuntza-programa, Lehen Hezkuntzan emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko eta hori saihesteko. 2015eko irailean, [Nahiko 2015-2017 programa](#) honen edizioa aurkeztu zen eta bertan Lehen Hezkuntzako 2.500 ikaslek parte hartzea espero zen, 32 ikastetxe berrirekin.

3. Emakunde Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin elkarlanean aritu zen 2013ko azaroan editatutako [Hezkuntza-sisteman genero-indarkeriari aurrea hartzeko eta baterako hezkuntza lantzeko gida-plana](#) prestatzeko prozesuan. [Genero-ikuspegia curriculumean eta eta araubide bereziko eta lanbide heziketako irakaskuntza-jarduketetan gehitzeko gida](#) bat egiten ere lagundu da.

4. Emakundek foru aldundiekin, Eudelekin eta ikastetxeekin garatzen duen [Beldur Barik proiektuaren](#) barruan, legegintzaldi honetan, DBHko ikastetxeetan esperientzia pilotua gauzatuko da: Unitate didaktikoen diseinua eta irakasleentzako prestakuntza-ikastaroak egitea Eusko Jaurlaritzako baterako hezkuntzaren planaren eremuan.

5. Urtero-urtero EHUko ["Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko online masterrari](#) laguntza ematen zaio, irakaskuntzan babesa emanez, Emakunden praktikak eginez eta diru-laguntzak emanez.

4. ekimena. Zientziaren eta ikerketaren eremuan aukera berdintasuna bultzatzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen barnean.

1.26.1 helburua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

*Arduraduna: Miren Izaskun Landaida Larizgoitia (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakunde*ko zuzendaria)

Jarduketak

1. Urtero-urtero EHUko Udako Ikastaroetan parte hartzen da.

- 2013. urtean: "Genero-begiradak, zientzia, teknologia eta berrikuntzari".
- 2014. urtean: "Komunikazio soziala, generoa eta balio-aldaketa" eta
- 2015. urtean: "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legeak 10 urte: aurrerapausoak eta erronkak"

2. 2013ko irailean Emakundek [Ikerketan, garapen teknologikoan eta berrikuntzan generoaren eragina aztertze](#)ko gida eta [Informazioaren gizar](#)tean generoaren eragina aztertzeko gida editatu ditu.

3. 2014ko apirilean. Emakundek Eusko Jaurlaritzako KZguneak Sarearekin elkarlanean [Emakumeak Sarean](#) programako [3. edizioa](#) abian jarri du, emakumeen elkarteei formakuntza digitala ematea sustatzeko.

4. Emakunde Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean aritzen da Emakume Teknologoarentzako Ada Byron sarian, honako edizioetan: [2014](#), [2015](#) eta [2016](#).

5. [109/2015 Dekretuak](#), ekainaren 23koak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen osaera arautzen eta eguneratzen duenak, hainbat elementu txertatu ditu zientziaren eremuan aukera-berdintasun hori bidera dadin:

- Zentroetako langileen osaerari buruzko informazio guztia eskatu da, gizonak eta emakumeak bananduz, sareko ikerketa-jarduketaren barruan bi sexuen benetako partaidetzaren berri edukitzeko.
- Agenteek aurkeztu beharreko agiriei dagokienez, Berdintasunerako Plana eskatu zaie.
- Lanbide-karrerako planak diseinatzean eta abian jartzean, lanpostu bakoitzean familiako bitzita eta lanbidea bateratzeko aukerak ere kontuan hartu beharko dira.

1. ekimena. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko garapen arauemailea bultzatzea, maila ekonomikoan eta moralean ordaina hartzeko eta gizarte aldetik onartzeko neurri zehatzak ezarriz.

1.26.2 helburua. Genero-indarkeria desagerraraztea

Arduraduna: Miren Izaskun Landaida Larizgoitia (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria)

Jarduketak

1. 2014-04-01etik aurrera Emakundek mahaigaineratutako ildotik garapen arauemaile baten aukera eta posibilitateen lehen analisia abiarazi du.

2. 2015ean "Desbiktimizatorantz bidea" proiektuari hasiera eman zaio. Onarpen sozialaren bidez genero-indarkeriaren biktimei erreparazioa egiteko proiektua, genero-indarkeriaren biktimen elkarrekin hausnarketa-prozesua bat gauzatzea eta erabakiak hartzea barne hartzen duena, emakumeek defini ditzaten administrazioek erreparazioa egiteko abian jarri behar dituzten jarduketak.

2. ekimena. Genero-indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio- eta babes-jarduketa gehiago bultzatzea.

1.26.2 helburua. Genero-indarkeria desagerraraztea

Arduraduna: Miren Izaskun Landaida Larizgoitia (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria)

Jarduketak

1. [EAEko Berdintasunerako VI. Planak](#), X. Legegintzaldirako onartutakoak (2013ko abenduaren 30a), ezartzen du esku-hartzeko haren hiru ardatzetako bat "Emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeari" lotutakoa dela. Legegintzaldirako guztira 20 xede operatibo garatzen dituzten bi programa operatibo ditu (7. eta 8.).

2. Emakumeen aurkako indarkeriaren [sentsibilizazio- eta prebentzio-programen](#) garapenean parte hartzen eta elkarlanean aritzen jarraitzen du Emakundek.

- Gazteentzako [Beldur Barik proiektua](#), emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta Berdinsarea Sarea garatzen duena (Emakundek foru aldundiekin, Eudelekin eta ikastetxeekin elkarlanean sustatutakoa).
- [Gizonduz proiektua](#), emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gizonen kontzientzia- eta partaidetza eta inplikazioa sustatzeko.
- [Nahiko programa](#): Berdintasun, errespetu eta indarkeriarik ezarako baterako hezkuntza-programa, balio-hezkuntzaren bitartez eta giza eskubideak eta genero-rolen azterketa oinarritzat hartuz. Behin 2013-2015 aldia amaituta, [Nahiko 2015-2017 programa](#) aurkeztu da.

3. [Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal gizonen Karta](#) errubrikatu da.

4. [Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioei aurre egiteko edo/eta murrizteko zenbait ekimen](#) bultzatu dira.

- Indarkeriazko jokabideei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa sustatzen eta bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioei laguntzak emateko programa. [2013, 2014, 2015 eta 2016ko deialdiak](#)
- [Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza ekonomikoak](#) (Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari dagozkionak, gizarte zerbitzuen zorroan sartuta).
- Emakumeen kontrako genero indarkerian esku hartzeko unibertsitate master ofizialaren edizioa egiteko laguntzak.

5. Emakundek emakumeen aurkako indarkeriari lotutako hainbat ekimen nabarmenetan hartu du parte.

- Emakumeen trafikoaren biktimei laguntza osoa emateko programa.
- [2016-02-17an](#) EAEko osasun sisteman emakumeen genitalen mutilazioa prebenitu eta hautemateko jarduketan gida bat aurkeztu da.
- 2015ean eta 2016an, [emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzeko prestakuntza-jardunaldiak](#) egin dira EAEko osasun-, hezkuntza- eta gizarte zerbitzuetako profesionalentzat.

3. ekimena. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimenganako arreta hobetzea, erakunde arteko koordinazioaren bidez.

1.26.2 helburua. Genero-indarkeria desagerraraztea

Arduraduna: Miren Izaskun Landaida Larizgoitia (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria)

Jarduketak

1. EAEn indarkeriaren biktima diren emakumeen mendeko adingabeei laguntzeko prozesu eta baliabideei buruzko diagnostikoa egitea. Diagnostikoa etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak egindako bileran aurkeztu eta eztabaidatu zen. (2014-06-27).

2. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren funtzioak Emakunderi eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuei berresleitzeko proposamena egin, egiaztatu eta onartzea. [Abenduaren 2ko 34/2013 Dekreturen](#) bidez onartutako funtzioen eta baliabide pertsonal eta materialen berresleipena.

3. [Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Akordioko](#) erakunde sinatzaileen artean koordinazioa hobetzeko Jarraipen Batzorde bat sortu zen, akordioaren edukiaren betetzearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Jarraipen Batzordeko kideei beharrezko laguntza teknikoa ematea haien zereginak behar bezala burutu ditzaten eta, horretarako, Erakunde arteko Talde Teknikoa sortu da.

4. Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen dieten profesionalentzako [Jabetuz online ikastaroa](#) ematen jarraitzen da. Ikastaro horren eskaintza berritu egin da eta, hala, 2016.02.29an prestakuntzaren oinarritzko ikastaroaren hirugarren edizioa hasi da.

5. Emakundek buruzagitza- eta koordinazio-lanak egiten ditu emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduketa-protokoloak homogeneizatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Ildo horretan, erakundeak protokoloei buruzko txostenak egiten ditu. Hala, toki administrazioek erreferentziarako esparru bat izango dute, baldin eta toki administrazioek hala eskatzen badute.

1. ekimena. Enpresei zuzendutako sentsibilizazio-programa bat prestatzea, genero-ikuspegia beren jarduketaren arlo guztietan txerta dezaten, bide batez enpresaren garapena eta lehiakortasuna bultzatuz.

1.26.3 helburua. Berdintasuna sustatzea

Arduraduna: Miren Izaskun Landaida Larizgoitia (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria)

Jarduketak

1. Pertsonak eta haien askotariko egoerak kontuan hartuko dituen enpresa-kulturaren gaineko aldaketa bat sustatzen da. Enpresetan berdintasun-planen sentsibilizazio- eta aholkularitza-lanei eta plan horiek egiteko eta abian jartzeko lanei laguntza ematen die Emakundek, baita ildo horretatik enpresen lanen onarpen publikoan ere. [Enpresetan berdintasun-planak egiteko laguntzen deialdia \(2013, 2014, 2015\)](#)

- Ebazpena 2013ko deialdia (96.000- € 17 onuradunen artean banatuta)
- Ebazpena 2014ko deialdia (100.000- € 16 onuradunen artean banatuta)
- Ebazpena 2015eko deialdia (100.000- € 16 onuradunen artean banatuta)
- 2016ko deialdia (100.00- € izapide bidean)

2. [Berdintasunerako lankidetzak-erakundeak aitortzea](#). Azaroaren 8ko 424/94 Dekretua ordezkatzeko duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuak arautzen du figura hori. Emakumeen eta gizonen berdintasun handiagorako eta aipatu berdintasuna eragotziko duten traban bazterketarako aukera emango duten eta hori sustatuko duten jarduketak garatuko dituzten erakundeek aitortzea jaso dezakete.

-2016-02-24: Berdintasunerako [73 enpresa eta erakunde aitortzen ditu Emakundek](#).

-2013-11-15: [Hamalau erakunde laguntzaile berri](#) aukera-berdintasunean.

-[Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Laguntzaileen Zerrenda](#).

3 [Aholkularitza-enpresak homologatzeko](#) prozesua, berdintasun-gaietan laguntza teknikoa emateko. Homologazio hori [ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuaren](#), bidez arautzen da ([abenduarien 28ko 348/2010 Dekretuaren](#) bidez aldatua). [Homologatutako aholkularitza-enpresen](#) zerrenda.

4. Emakundek genero-ikuspegiaren enpresa-eremuan sentsibilizazioarekin zerikusia duten hainbat jardunaldi antolatzen ditu eta horietan parte hartzen du. Honako hauek gailendu behar dira: [Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europako Astea](#) (urteko ekitaldia), [Enpresetako berdintasunari, osasun psikosozialari eta bikaintasunari buruzko jardunaldia](#) (2013), [Laneko jazarpen sexualari eta sexistari buruzko prestakuntza-jardunaldia](#), [Berdintasunaren eta Bikaintasunaren enpresa traktoreen jardunaldia](#) (2014) edo 2015ean egindakoak. (1) [Enpresa eta erakunde pribatuentzako kontratuaren berdintasun-klausulei buruzko aholkularitza](#). (2) Estrategia eta pertsonak: balioa ematen duten genero-elementuak nola integratu (3) Berdintasuna komunikaziorako eta publizitaterako estrategia aurreratu gisa enpresetan (4) Jazarpen sexuala eta sexista: prebentzioarako eta desagerrarazteko tresnak.

5. Emakundek genero-ikuspegiaren enpresa-eremuan sentsibilizazio-lanetan laguntzen jarraitzen du, adibidez honako gida hauek argitaratuz: [Ekintzailatza eta ETEetan generoaren eragina aztertze gida](#) (2013), [Kontratazioetan berdintasuna bermatzeko enpresentzako gida](#) (2014) eta [Emakumeak kontratatze gida eta emakume ekintzaileei laguntzeko bi gida](#) (2015).

2. ekimena. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerketa-programa bat bultzatzea, jakintza-diziplina eta -arlotan genero-ikuspegia txertatzeko.

1.26.3 helburua. Berdintasuna sustatzea

Arduraduna: Miren Izaskun Landaida Larizgoitia (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakunde zuzendaria)

Jarduketak

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ikerketa-lanak egiteko beken urteko programarekin jarraitzen du Emakundek (hiru beka, aurreikusitako mota bakoitzarentzako bana). Deialdiak: [2013](#), [2014](#), [2015](#) eta [2016ko deialdiak](#)

- [2013](#): 69.999.- €
- [2014](#): 69.999.- €
- [2015](#): 69.999.- €
- [2016](#): 69.999.- €

2. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerketa-lanak argitaratzeko urteko lehiaketa. [2013](#), [2014](#) eta [2015eko deialdiak](#)

- 2013ko I. Lehiaketako saria Feminismoa eta amatasuna, harreman deserosoa? izenekoarentzat izan zen.
- 2014ko II. Lehiaketa eman gabe geratu zen.
- 2015eko III. Lehiaketa balorazio-fasean dago.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko azterlanak egin eta argitaratzen dira.

- EAEko emakume helduen ahalduntze-prozesuei buruzko txostena. Emakunde, 2013
- Sexismoa jokoan eta jostailuen 2013ko publizitate-kanpainan. Emakunde, 2014
- Sexismoa Europako 2014ko Hauteskundeei egindako publizitate- eta informazio-tratamenduan . Emakunde, 2015
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioak duen eragina EAEko batxilergoko 2. urteko ikasleek, neska eta mutil, goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzerakoan. Argitaratze-prozesuan dago.
- EAEko egoitza-bazterkeria larria genero-ikuspegitik. Argitaratze-prozesuan dago.

1. ekimena. V. Planaren betearazpena ebaluatzea eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana (2014-2017) prestatzea.

1.26.4 helburua. Berdintasun-politikak koordinatzea

Arduraduna: Miren Izaskun Landaida Larizgoitia (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria)

Jarduketak

1. [EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana](#) EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren helburua, funtsean, esku hartzeko zenbait ildo eta jarraibide zehaztea da, euskal herri-aginteeek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango duten jarduketa zuzentzeko.

- 2013ko urtarrila-2013ko abendua: Plana egiteko prozesua
- 2013-12-30: [Gobernu Kontseiluak onartzea](#)
- 2014-03-31: [Eusko Legebiltzarraren aurrean aurkeztea](#)
- 2015-12-18: 2014ko Jarraipen Txostena onartzea.

2. Hurrengo plana egin aurretik [EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren Ebaluaketa 2010-2013](#) egin zen.

2. ekimena. Genero-berdintasuneko politiken arloan, erakundeen arteko koordinazioa indartzea, Emakunderen balioa nabarmenduz eta koordinazio-, kontsulta- eta partaidetza-organoak sortuz.

1.26.4 helburua. Berdintasun-politikak koordinatzea

Arduraduna: Miren Izaskun Landaida Larizgoitia (Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria)

Jarduketak

1. Erakundeen arteko koordinazio-lanak egiteko, honako organoak gailentzen diren sarea dago: [Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea](#), administrazio erkidegoan, foru eta toki administrazioan garatzen diren berdintasunaren arloko politikak eta programak koordinatzeko organoa eta [Berdintasunerako Sail arteko Batzordea](#), berdintasunaren arloan Eusko Jaurlaritzaren jarduketak koordinatzeko organoa. Halaber, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeei laguntzeko arreta hobetzeko [Erakunde arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea](#) aipatu behar da. Batzorde horren zeregina erakundeen arteko koordinazioa hobetzea eta akordioaren edukien betetzearen jarraipena eta ebaluazioa egitea da.

2. Tokiko mailan [Berdintasuna](#) aipatu behar da: Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako udalerrien sarea eta [Berdinbidean](#), biztanleria gutxiago duten udalerriei berdintasun-politikei buruzko aholkuak emateko eta dinamizatzeko zerbitzua.

3. 2015eko maiatzean, Emakunde eta EAEko berdintasun-politikek [Nazio Batuen lehen saria](#) jaso zuten Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legea ezartzean bikaintasuna agerian jartzeagatik. ([Aurkezpen bideoa](#)) Halaber, Oncek Emakunde saritu zuen X. Sari Solidarioak ONCE EUSKADI sarietan.

4. Urtero-urtero [Emakunde Saria](#) eman da: [2013. urtea: Posada de los abrazos elkarte/ 2014. urtea: María de Maeztu Forum Feminista/ 2015. urtea: Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarea "Baserriko Emakumeen Elkarte](#) 2013ko maiatzean, 2012ko Emakunde Sariaren ematearekin bat eginez (Errekaldeberriko, Deustu-San Ignazioko eta Irala-Auzolongo arreta psikosozialaren moduluak), eraman

5. Martxoaren 8ko kanpainak: Emakumeen Nazioarteko Eguna, sentsibilizazioko hainbat kanpaina sustatzeko baliatzen den data bat da. Erakundeak azken legegintzaldian egindako kanpainak honako hauek dira: 2016: Berdintasunik eza ez da jaiotzen, egin egiten da. Alda dezakegu. Berdintasuna egin dezagun. 2015: Gizartea aurrera doa berdintasunerantz. Ez dezagun atzera egin. 2014: Berdintasunarekin aurrera goaz. Eman pausoa. 2013: Berdintasuna Emakunderen 25. urteurrena ospatzea baino zerbait gehiago da.

6. Emakunde urtero-urtero abian jartzen ditu "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foroa", [Berdintasunerako XII. Foroa 2015](#) Gizartea aurrera doa berdintasunerantz. Ez dezagun atzera egin / [Berdintasunerako XI. Foroa 2014](#) Berdintasunarekin aurrera goaz. Eman pausoa/ [Berdintasunerako X. Foroa 2013](#) Berdintasuna: giza eskubide bat, onura bat gizaratearentzat.

7. Begira/Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordea. Sortze-Dekretua_ 2013ko ekainean batzordearen erregulazioa eguneratu zen [batzorde hori erregulatzen duen eta bere jarduketan informazio gehiagorako ekainaren 30eko 360/2013 Dekretuaren](#) bidez.

1. ekimena. Lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarteak eta kolektiboak indartzea, diru-laguntzetarako lanabes eta tresnak berrikusiz, agenteak espezializatuz eta proposamenen osagarritasuna sustatuz.

1.26.5 helburua. Aniztasun afektibo-soziala errespetatzea.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Berdinduk eta Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak sustatuta, [2016ko otsailaren 18an EAEko LGBTBI Dokumentazio Zentro Birtuala](#) aurkeztu zen. Zentro horren eratzean gure lurraldeko bost LGBTBI erakunde garrantzitsuk parte hartu dute: **Aldarte**, **Ehgam**, **Errespetuz**, **Gehitu** eta **Guztiok** izenekoek. Horiek guztiek haien artxiboak gizarte osoari eman dizkiete eta eskuragarri utzi dizkiete. **Hegoak**, **Pikara Magazine** eta **Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroa** deiturikoek ere haien edukiak laster gehituko dituzte.

2. [2014ko abenduan](#) tratu-berdintasunaren aldeko eta bereizkeriarik ezaren sarea “Eraberean sarea”, abian jarri zen, LGBTBI elkarteekin, ijitoekin eta etorkinekin elkarlanean.

3. Lesbianen, Gayen, Transexualen eta Bisexualen (LGTBI) zenbait elkarteren bidez, [Berdindu](#) barruan konfiantzazko zerbitzu bat lehenetsi da. Jarduketa 2016-01-11n formalizatu zen Aldarte, Errespetuz, Gehitu eta Guztioken partaidetzarekin.

2. ekimena. Langileak aniztasun afektibo-sexualaren eta genero-identitatearen kudeaketan prestatzea Eusko Jaurlaritzaren politika guztien barnean.

1.26.5 helburua. Aniztasun afektibo-soziala errespetatzea.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2014ko otsailean Aniztasun afektibo-sexualaren aurreko jarrerak ikasgeletan gida egin eta argitaratu zen.
2. Genero-identitateagatik ez baztertzeari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 4/2012 Legea betez, 2015eko abenduan Erregistro Zibilean haien sexua zuzendu arte eta haien genero-identitatearekin bat datorren tratamendua jaso arte [EAEn transexualek erabili beharreko agiri administratiboak arautzen dituen dekretua](#) onartu zen. Aipatu dekretuak zenbait eskubide ematen dizkiete. Ondorioz, Hezkuntza edo Osasun Sistemetak arreta zuzeneko langileei prestakuntza eman behar zaie.
3. [Berdindu](#) unibertsitate-sistemearekin elkarlanean ari da, eskola-edukiak gehituz Irakasleen (3 talde), Gizarte Hezkuntza (2 talde) eta Gizarte Laneko (3 talde) ikasketetan. Aniztasun afektibo-sexualari lotutako edukiak Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzarako Masterrean ere gehitu dira. Halaber, [Berdindu Eskolak](#) lan-ildoaren bidez, eskolaren eremuan sor daitezkeen premiei erantzuna eman ahal zaie.
4. Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei laguntzen dieten langileen prestakuntza-beharrak aztertzen ari gara. Horrez gain, [Virginia Wolf Basqueskola](#) sortu zen, toki eremuan emakumezko politikarien sare bat sortzeko ekimena, aitzindaria estatuan. Ekimen horiek guztiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) [Berdintasunerako 2008-2018 Prestakuntza Planaren](#) esparruan kokatzen dira.

3. ekimena. Aniztasun afektibo-sexualaren eta genero-identitatearen gaineko Aholku Batzorde bat eratzea, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko eta politikak adosteko.

1.26.5 helburua. Aniztasun afektibo-soziala errespetatzea.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2014ko abenduan, [Era Berean](#) (tratu-berdintasunaren aldeko eta bereizkeriarik ezaren sarea) aurkeztu zen, etorkinen, LGTB eta ijitoen erakunde ordezkariak osatua.

2. "[Eskola Segurua. Talde Egonkorra](#)" abian jarri da. Bertan, Eusko Jaurlaritza (Berrikuntza, Berritzeguneak, Hezkuntza Ikuskatzailletza), Arartekoa (Haurrak eta LGTB), EHUko Ikasleen Kontseilua eta Eskola Publikoko Familiak LGTB Mugimenduan koordinatzen dira, Gobernuak berak eta Berdinduk hala eskatuta.

4. ekimena. Orientazio sexual eta genero-identitate arrazoiengatik diskriminazioari aurre egiteko 2011-2013 Lan-Plana ebaluatzea eta aniztasun afektibo-sexualari buruzko jakintzaren garapena bultzatzea.

1.26.5 helburua. Aniztasun afektibo-soziala errespetatzea.

Arduraduna: Lide Amilibia Bergaretxe (Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea).

Jarduketak

1. Genero-identitateagatik ez baztertzeari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 4/2012 Legea betez, 2015eko abenduan Erregistro Zibilean haien sexua zuzendu arte eta haien genero-identitatearekin bat datorren tratamendua jaso arte EAEn transexualek erabili beharreko agiri administratiboak arautzen dituen dekretua onartu zen.

2. Orientazio sexualagatik eta genero-identitateagatik ez baztertzeko 2011-2013 Lan-Planaren ebaluazioaren ondorioz, [Berdindu](#) zerbitzuko arreta-eredua berriro definitu eta lehenetsi da LGTB mugimenduko zenbait erakunderen partaidetzarekin. Jarduketa 2016ko urtarrilaren 11n formalizatu zen Aldarte, Errespetuz, Gehitu eta Guztioken partaidetzarekin.

3. Berdinduren bidez, 2011-2013 Lan-Plana ebaluatu da eta 2014-2016 aldirako LGTB Estrategia abian jarri da.

1. ekimena. Zerbitzu zentroa eta irudi korporatiboa berreskuratzea bere ezaugarriak sendotuz, era horretan Ertzaintzak erkidegoan integrazio iraunkorra izan dezan.

1.27.1 helburua. Ertzaintzaren integrazioa eta hurbiltasuna gizartearekin

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoak](#) kanpoko komunikazio plan bat egitea aurreikusi du, hala aintzatespen maila ona lortzeko bai hurbiltasunagatik, bai eraginkortasunagatik. Planaren diseinua lantzen aritu ziren, dagoeneko 2014. urtean.

2. Gizartearekin komunikatzeko kanal berriak martxan jarri eta gizarte sareetan dugun parte hartzea areagotzea. Kanal askotako komunikazio egitura (eraginkorra eta koordinatua) diseinatzeko ahalegina egin da, eta horretarako, gizartearen eskarira egokitutako tresnak erabili dira. Poliziak, egungo munduaren isla den heinean, abiadura eta informaltasuna behar ditu bere zerbitzuen hartzaile nagusi den publikoarekin komunikatzeko.

3. 2014an, [2012-10-31ko Aginduari jarraikiz](#), uniforme berria ezartzeko lana egin da. Aginduaren helburua prozesua urte horretan bertan amaitzea zen. Era berean, eta [2016rako Plan Estrategikoaren](#) testuinguruan, martxan da «Etorkizuneko uniformeei buruzko hausnarketa estrategikoa».

4. 2014ko urriaren 22an, [Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Lehen Plana](#) aurkeztu zen, herritarrei arreta elebidunaren zerbitzua hobetzeko. Gaur egun, plana ezartzen ari da.

2. ekimena. Ertzain etxeak berrantolatzea, herritarrentzat zabalik dauden zerbitzu eta laguntza bulego gisa harturik.

1.27.1 helburua. Ertzaintzaren integrazioa eta hurbiltasuna gizartearekin

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoaren zuzentzarau aipagarrienen artean dago Ertzaintzaren neurrien plangintza eta exekuzioa, ertzain etxeetan baliabide gehiago jartzeko. Helburu horrekin, 2014an kontingente bat berrantolatu eta ezarri zen, eta 400 agente gehiago jarri ziren herritarren segurtasuna indartzeko ertzain etxeetan bertan.

2. Halaber, hainbat ekintza ezarri ziren herritarren segurtasunaren kudeaketa hobetzeko:

- Autoz eta oinez egin beharreko patruila eredu berriak zehaztu ziren ("korrika").
- Administrazio eta antolamendu baliabideak murriztu eta optimizatzeko, eremu topogeografiko berean dauden bi ertzain etxeren kudeaketa partekatuari ekin zitzaion: Azkoitia eta Zarautz. Tolosa-Beasain eta Bergara-Zumarragara hedatu da. 2014ko urrian aztertu eta berrantolatu ziren Arabako hiru ertzain etxeen <http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/21970-departamento-seguridad-revisa-reordena-las-demarcaciones-las-tres-ertzain-etxeas-alava-para-reforzar-mejorar-seguridad> mugapenak, segurtasuna areagotu eta hobetzeko asmoz. Segurtasuneko sailburua Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordean izan zen 2013-09-20an eta 2014-09-11n, garapena azaltzeko.
- Elkarrizketa eta koordinazio harremanak sendotu ziren uda garaian populazioa areagotzeak dakartzan segurtasun arazoak aztertzeko.
- 2016ko otsailean, Ondarroako ertzain etxea eraberritzeko eta birmoldatzeko proiektu berria aurkeztu zen; helburua herritarrei zerbitzua hurbiltzea eta arreta hobetzea da.

3. Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoak herritarrekin konfiantza eta lankidetzaren harremanak ezartzea bultzatzen du, arreta pertsonalizatua hobetzearen bidez (arreta prozedurak, ertzain etxeak atseginago egitea...). Hala, Ertzaintzak Bilbon egin zuen 2014-11-15ean bere lehen ate irekien jardunaldia agenteen familientzat.

2015ean bertan, ate irekien hainbat jardunaldi egin dira Polizia Zientifikoaren Unitateetan eta Inteligentziaren Bulego Nagusian.

3. ekimena. Erkidegoarentzat hurbiltasun eta lankidetzaren handiagoa sustatzea; era horretan, herritarrekiko eta erakunde zein gizarte eragileekiko elkartasuna eta laguntasuna eraginez, onura partekatuak lortzeko.

1.27.1 helburua. Ertzaintzaren integrazioa eta hurbiltasuna gizartearekin

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an, [Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Segurtasun Sailaren arteko lankidetzaren akordioa](#) formalizatu zen, ikaskideen arteko portaera desegokiak, indarkeriazko ekintzak zein tratu txarrak eta eskola jazarpena (bullyinga eta ziberbullyinga) prebenitzeko neurriak buruzkoa, eta, oro har, eskola eremuko bizikidetzaren eragina izan dezaketen egoera guztiei buruzkoa.

2. 2013ko urrian, Ertzaintzaren emakumeak sartu zirenetik **30 urte** igaro zirenean, esker ona azaltzeko jardunaldia egin zen. Era berean, ETBn aipatu erakundearen emakumeen presentziak izandako eboluzioari buruzko erreportajea eman zuten: «Ertzaintza: mujeres detrás de un uniforme».

3. Hurbiltasuna bultzatu eta agente instituzionalen eta sozialean ezagutza areagotzeko, 2014 eta 2015 ekitaldietan [Erakunde, Segurtasun eta Justiziako Legebiltzar Batzordeak](#) Polizia Zientifikoaren instalazioak bisitatu zituen, Arabako epaile eta fiskalek Ertzaintzako Polizia Zientifikoa bisitatu zuten Erandion, eta [Murtziako Unibertsitateko](#) Kriminologiako ikasleek Ertzaintzaren instalazioak bisitatu zituzten.

4. Helburu horrekin, lankidetzaren protokoloa formalizatu zen kirol arloko klub, sozietate eta federazioarekin, indarkeriaren, arrazismoaren eta xenofobiaren prebentzioa eta kontrola bultzatzeko; hitzartutako futbol eta saskibaloiko klub eta federazioek kirolaren indarkeriaren aurkako kontzientzia aste bat egitearen alde jo zuten, eta Tolosan sinatu zen [erakundearteko jarduketa eta koordinazioko tokiko lehen protokoloa](#), genero indarkeriaren eta sexu erasoaren biktima diren emakumeei arreta emateko.

5. Asmo hori lortzeko, [Bide indarkeriaren biktimen oroimenezko nazioarteko egunean](#) parte hartu zen, Emakundek bultzatutako Berdintasunerako XI. Foroaren esparruan ["Bide segurtasuna eta generoa"](#) jardunaldia antolatu zen, Ertzaintzak ["IX Berdintasunerako Gunea / Foro para la Igualdad 2014"](#) ekimenean parte hartu zuen, Emakundek antolatuta, eta Ertzaintzako agenteek genero indarkeriari aurre egiteko jarduketa protokoloak azaldu zituzten.

6. Era berean, nabarmentzekoak dira Ertzaintzak sinbolikoki parte hartu zuen hainbat ekintza: (1) [Ertzaintzaren XXIV. Promozioko ikasleek Korrikaren lekukoa eraman zuten Arkautetik igarotzean](#) (2) Segurtasun Sailak eta Ertzaintzak bat egin zuten Tolosako Udalak festak bakean bizitzeko konpromisoa azaltzeko eginiko adierazpenarekin, eta (3) EHUko eta Ekintza Ikastolako danborradak Ondarretako ertzearen aurrean geratu ziren 2016an.

7. Prestakuntzaren eremuan, Arabako Ertzaintzaren Polizia Judizialaren Atalak prestakuntza eskolak eman zizkien EHU/UPVko zuzenbideko ikasle eta graduatuak, nagusiei aholkuak eman zizkien [Feria Nagusian](#) delituak prebenitzen laguntzeko, eta Bizkaiko ehun bat alkate eta zinegotziri azaldu zien islamismo erradikalaren egoera lurralde historikoan eta [euskarazko sektore guztiei islamismo erradikalaren errealitateari buruzko informazioa emateko prozesuarekin jarraitzen du.](#)

4. ekimena. Prebentzio antolamenduak indartzea, herritarrak babesteko eta hautematen den segurtasun sentsazioa handiagotzeko.

1.27.1 helburua. Ertzaintzaren integrazioa eta hurbiltasuna gizartearekin

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko azaroaren 20ko Aginduaren bidez, Ertzaintzaren egitura onartu zen. Agindu horren bitartez, Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoan bildutako jarraibideei erantzuteko moduan berrantolatu nahi da erakundea, zenbait alderditan hain burokratizatuta egongo ez den eta herritarren babesera eta giza baliabideen eta baliabide teknikoen kudeaketa eraginkorragora bideraturiko polizia integral baten premia funtzionalekiko egokiagoa izango den polizia integral baten eredu funtzionalerantz aurrera eginda (lekualdaketen azken lehiaketaren ondoriozko hedapen berria).

2. 2014-09-17an formalizatu zen [lankidetzako protokoloa kirol arloko klub, sozietate eta federazioekin indarkeriaren, arrazismoaren eta xenofobiaren prebentzioa eta kontrola bultzatzeko](#).

3. Arreta berezia jarri zaio kirol arloko hainbat gertaera prebenitzeko dispositiboiei:

-Saskibaloia Mundiala 2014, 2014-08-24.

-[Athletic-Torino](#), 2015-02-24.

-Ertzaintzak Athleticeko zaletuei gomendatu die segurtasun arauak betetzea eta *fan zone* delakoan biltzea Espanyol taldearen aurkako partiduan, 2015-03-02.

-Ertzaintza lankidetzan aritu da Mossos d'Esquadrekin Errege Koparen finalean, Bartzelonan, 2015-05-26.

4. Ertzaintzaren zenbait unitatek erreskate simulakro bat egin dute [Ehiztariaren eta Arrantzalearen XXIII. Egunean](#), 2015-06-21.

5. Estatuak oro har 2015eko ekainetik aurrera hartutako neurriekin bat etorritik, 4. mailara igo zen mehatxu terroristaren arriskua. 2015eko udan, [Ertzaintzaren Kontseiluan](#) eta (2015-07-02) Legebiltzarrean (2015-09-23) aurkeztu zen Islamismo Erradikalaren aurkako Plan Estrategikoa. Lau zutabetan oinarrituta dago: prebentzioa, babesa, jazarpena eta erantzuna.

6. 2015eko urrian, Ertzaintzak ohartarazi du gora egin duela biktimaren argazki intimoak zabaltzearen mehatxupean Internet bidez eginiko [estortzioen](#) kopuruak (sextorsioa).

5. ekimena. Jarduera sozialetan Ertzaintzaren presentzia eta partaidetza sustatzea, horretarako konfiantza eta lankidetzaren harreman sendoak ezarriz eta pertsonetikiko kontaktuak bultzatuz.

1.27.1 helburua. Ertzaintzaren integrazioa eta hurbiltasuna gizartearekin

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoan jasotako herritarrekiko konfiantza eta lankidetzaren harremanak ezartzeari lehentasuna emateko, 2013tik aurrera hainbat kolektibori (haurrak, adinekoak) zuzendutako dibulgaziozko programak jarri ziren abian, hain zuzen, hirugarrenen jokaera desegokiak edo indarkeriazkoak prebenitzeko neurriei buruzkoak.
2. Gizartean Ertzaintzaren presentzia areagotzeko jarduerak egin dira. Hala, [Securimax erakusketaren](#) lehen edizioan parte hartu da, Bilboko Euskalduna Jauregian, 2015eko ekainean Euskal familiek udan harreraren hartutako hurrek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia bisitatu zuten.
3. Ertzaintzak hogeita bederatzi domina lortu ditu [Polizia eta Suhiltzaileen Munduko Txapelketan](#) (Fairfax-AEB); horietatik hamaika, urrezkoak.
4. [Ertzaintzaren Musika Bandak](#) urtean berrogeita hamar kontzertu egin ditu batez beste, eta horietako asko adinekoen egoitzetan.

6. ekimena. Informazioaren gardentasuna handitzea, helburuak eta bitartekoak argi azalduz, baita urte arteko bilakaera eta berorien eboluzioa ere.

1.27.1 helburua. Ertzaintzaren integrazioa eta hurbiltasuna gizartearekin

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2016rako Plan Estrategikoaren xedea Ertzaintzaren irudi korporatiboa indartzea da eta bere baitan kanpoko komunikazio plan bat garatzeko asmoa dago; plan hori 2014. urtean jarri zen abian.
2. 2015eko lehen hiruhilekoan, Legebiltzarrari igorri zitzaion 2014ko Ekintzen Txostena, hain zuzen, Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoarena.

7. ekimena. Beren eraginagatik eta garrantzi objektiboagatik, gizartean gailentasuna duten delituei lehentasunezko arreta eskaintzea.

1.27.1 helburua. Ertzaintzaren integrazioa eta hurbiltasuna gizartearekin

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013tik aurrera, aldatu egin da [etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren biktimei arreta emateko eredu](#) eta espedientean adierazitako ertzain etxean bertan egiturako da. Hala, etxeko eta genero indarkeriaren biktimek zerbitzu integrala jasoko dute (arreta pertsonalizatuarekin) salaketa jartzen dutenetik balizko arriskuak eta kasuan kasu behar diren babes neurriak definitzen diren arte.
2. 2013. urte amaieran formalizatu zen EHUrekin lankidetzaz hitzarmena, tratatu txarrei loturiko faktore psikosozialak ebaluatzeko eta ebaluatutakoari dagokion arrisku eskala balioztatzeko.
3. 2013ko urrian, [Ingurumen Kriminologiari buruzko jardunaldiak](#) egin ziren, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak antolatuta.
4. 2014an formalizatu zen Tolosan [genero indarkeriaren eta sexu eraso biktima diren emakumeei arreta emateko erakunde arteko jarduketa koordinaziorako lehen tokiko protokoloa](#), eta horren ondoren beste batzuk ere egin dira, esaterako, Ermuan edo Eibarren.
5. 2015eko martxoan izan zen [3. Parez Pare jardunaldia](#), hain zuzen, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian, gorroto eta bazterkeria delituen inguruko hausnarketan oinarrituta.

1. ekimena. "Barne kontroleko" zerbitzuak berrikustea eta egokitzea.

1.27.2 helburua. Legitimitate demokratikoa eta elkarbizitza sendotzea

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoak](#) proposatzen du barne kontrolaren zerbitzuak aztertzea eta egokitzea, baita gizartean eragina duten ikerketen diziplina eta sistematizazioa ezartzeko irizpideak zehaztea ere. 2014an horren inguruan lan egin zen, dagokion polizia prozeduran hausnarketa horiek jasotzeko asmoz.

2. Prozedura bat ezarri da gizartean eragina duten ikerketak jorratzeko, eta 2016an arau bilakatuko da. Horrez gain, diziplina araubidea eguneratzeko proposamena ere egin da.

3. Sailak 2015eko urrira arte eginiko kudeaketaren polizia jarduketei edo beste egoera mota batzuei buruzko informazioa emateko eta azalpenak zabaltzeko arloan, sailburuak 31 agerraldi egin ditu [Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordean](#).

4. [Euskal Poliziaren Legea bosgarrenez aldatzen duen legearen](#) aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak onartzeko izapidetze fasean denak, honako gai honi eskaintzen dio bere II. kapitulua: Polizia jarduera kontrolatzeko mekanismoak arautzea. 2016ko lehen seihilekoan zehar Gobernu Kontseiluan lege proiektu gisa onartuko dela espero da.

2. ekimena. Kudeaketa eredu berria garatzea eta ezartzea, Ortzimuga 2016 Ertzaintzaren Plan Estrategikoan ezarritako helburuen garapenari buruzko barruko nahiz kanpoko neurketa, jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten adierazleen eta ebidentzien arabera.

1.27.2 helburua. Legitimitate demokratikoa eta elkarbizitza sendotzea

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013ko apirilaren 23an aurkeztu zen [Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoa Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordean](#). Barneko egikaritze prozesua nabarmendu zen, kudeaketa plan zehatza jasotzen baitzuen eta kalitatea hobetzeko metodologian oinarrituta baitzegoen. Hala, Plana lau ardatz estrategikotan oinarrituta dago, eta legealdian garatuko diren 33 helbururen eta 120 ekintzaren gida gisa balio dute. 2015eko urtarriletik aurrera, jardueren jarraipena egiten da aginte koadro berriaren bidez, non poliziaren prebentzioaren eta eraginkortasunaren baitan kriminalitate tasetan oinarritutako hainbat adierazle dauden.

2. 2015eko lehen hiruhilekoan, Legebiltzarrari igorri zitzaion [2014ko Ekintzen Txostena](#), hain zuzen, [Ekinbide-Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoarena](#).

3. Azalpen gisa, estatistikako datu batzuk aurreratu dira EAEko delinkuentzia mailekin lotuta.

-[Delituak eta arau hausteak % 2,29 igo ziren EAEn 2014an \(2015-02-02\)](#).

-[Donostian 2014an % 4ko jaitsiera erregistratu zen delituetan, eta % 2koa arau hausteetan \(2015-03-06\)](#).

-2015aren lehen seiuhilekoan, delinkuentziak % 4,64 egin du behera (2015-07-22).

-[% 3,21 egin du behera delinkuentziak EAEn, 2015ean, \(2016-01-28\)](#).

-[Bilbon % 0,9 jaitsi zen delitu kopurua 2015ean, aurreko urtearen aldean \(2016-02-19\)](#).

3. ekimena. Kode deontologikoa betetzen dela zaintzea, etika profesionalaren kontrako jokabideak saihesteko eta aintzatespena ekar dezaketenak indartzeko helburuarekin.

1.27.2 helburua. Legitimitate demokratikoa eta elkarbizitza sendotzea

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoa](#) barne kontrolerako zerbitzuak berrikusten eta egokitzen ari da, diziplina ezartzeko irizpideak finkatzeko eta gizartean eragina duten ekintzen ikerketa sistematizatzeko.

2. Prozedura bat ezarri da gizartean eragina duten ikerketak jorrazteko, eta 2016an arau bilakatuko da. Horrez gain, diziplina araubidea eguneratzeko proposamena ere egin da.

3. Ertzaintzaren polizia lana jendaurrean aintzatesteko ekitaldiak:

-[Zerbitzuan hildakoei omenaldia](#) (2013-06-02)

-[Polizia jarduerengatiko esker onak](#) (2013-06-05)

-[Polizia lana aintzatesteko domina banaketa](#) (2013-11-28)

-[Hildako ertzainak gogora ekartzeko eta dominak banatzeko urteko ekitaldia](#) (2014-06-01)

-[Domina banaketa eta hildako ertzainen oroitzapena](#) (2015-06-07).

-[Erretiratutako ertzainei eta euren senideei omenaldia](#), (2015-11-14)

4. 2015eko ekainaren 27an [Segurtasuneko sailburua Madrilera](#) joan zen, terrorismoaren biktimei omenaldia egitera.

5. 2015-09-01ean, Berroziko (Araban) monolitoa inauguratu zen Alfonso Mentxaka ertzainaren omenez.

1. ekimena. Helburu hauek dituen EAEko Segurtasun Plan Orokorra ezartzea: prebentzio jarduera erreakzio jardueraren aldean lehenestea, herritarren segurtasuna eta ikerketa bultzatzea eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetuko duen kudeaketa eredu zehaztea.

1.27.3 helburua. Prebentzioan oinarritutako polizia eraginkorragoa

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014-07-15ean onetsi zuen Gobernu Kontseiluak EAEko Segurtasun Publikoaren Plana, eta ondoren, Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zuen, 2014-09-11n, Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordean. [Euskadiko Segurtasun Publikoaren 2014-2019 Planaren testua](#).

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen erregelamendu bidezko garapenean onetsi zen [382/2013 Dekretua](#), uztailaren 9koa, EAEko Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzorde Mistoa martxan jartzekoa; 15/2012 Legearen 57. artikulua bidez sortu zen, segurtasun pribatuaren sektorearen eta administrazioaren artean topaketa eta esperientzien trukea errazteko eta EAEko segurtasun pribatuko eragileei harrera formala egiteko asmoz.

3. Era berean onetsi zen [458/2013 Dekretua](#), abenduaren 10ekoa, EAEko Segurtasun Publikoko Kontseiluaren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituen, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko aholkularitza eta partaidetzarako organo gorena den heinean, ideiak eta esperientziak elkar trukatzeko eta horrela segurtasun publikoaren politikan esku hartzen duten eta tartean dauden askotariko entitate eta erakundeen jarduketei koherentzia emateko.

4. Autonomia erkidegoko legeria Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2004 Legeak ezarritako esparrura egokitzeko onetsi zen [207/2014 Dekretua](#), urriaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoak segurtasun pribatuaren arloan dituen eskumenak arautzen dituen, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoak segurtasun pribatuaren arloan dituen berezko eskumen eta eskuduntzen kudeaketa mekanismoen egitura eguneratzeko eta horiek gauzatzeko zer Segurtasun Sailtako organori dagokion ezartzeko, sektoreari eragiten dion legezko esparru berria aintzat hartuta.

2. ekimena. Prebentzio eta hurbiltasun zerbitzu polizialak sendotzea, gizarteak agente legitimoa duten segurtasun zerbitzuetan konfiantza handiago izan dezan.

1.27.3 helburua. Prebentzioan oinarritutako polizia eraginkorragoa

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoaren](#) helburua da Ertzaintzaren uniformeen presentzia areagotzea EAEko eremu osoan, unitateak ezartzeko irizpideak aztertzea eta horretarako 53. zenbakidun instrukzioa aztertzea. 2015eko uztaillean, 53. zenbakiko instrukzioa indargabetu eta 79. zenbakiko instrukzioa sortu zen. Ezarritako lanpostuen zerrenda berria helburu horretara bideratuta dago, Ertzaintzaren egitura finkatzeko eta unitateei euren eginkizunak gauzatzeko benetan behar dituzten zuzkidurak eskura jartzeko.

2. 2014an herritarren artean segurtasun sentrazioa areagotzeko, kotxez eta oinez («Korrikak») patruilatzen ibiltzeko eredu berriak definitu zituzten. Gaur egun, inplementazio eta ebaluazio fasean ari dira ertzain etxeetan. Helburua delitu indize altuenak dituzten eremuetan Ertzaintzaren presentzia areagotzea da, segurtasun sentrazio handiagoa sortzea jende gehien dabilen lekuetan, eta prebenitzeko ekintzak gauzatea zonalde edo sektore bakoitzeko entitate eta erakunde adierazgarrienekin etengabe lankidetzan arituz, bai hiriguneetan, bai landa inguruetan. Bi ertzain etxeren kudeaketa partekatuari ekin zitzaion: Azkoitia eta Zarautz.

3. 2014an, [Urola-Kosta kudeaketa partekatuaren eredia zabaldu zen Bergara-Zumarragako eta Tolosa-Beasaingo ertzain etxeetara](#), herritarren babesean presentzia handiagoa izateko eta ikerkuntza finkatzeko.

Aztertu eta [berrantolatu ziren Arabako hiru ertzain etheen mugapenak](#), segurtasuna areagotu eta hobetzeko asmoz.

4. [Ertzaintzaren XXV. promozioa](#) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren prestakuntzarako oinarritzko ikastaroa egiten ari da, lortu nahi diren helburuetarako behar diren baliabideak izateko (2015-11-16). 2015eko ekainean, bi sexuetakoko 3.011 gaztek egin dute Ertzaintzara sartzeko azterketa.

5. Ertzaintzak [pertsonak identifikatzeko lanetan elkarrekin jarduteko protokolo bat](#) izenpetu du hiru hiriburuetakoko eta Basauriko tokiko poliziekin.

6. 13/2015 ebazpena, martxoaren 6koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Donostiako, Barakaldoko, Getxoko eta Irungo udalekin droga toxikoak, estupefazianteak eta substantzia psicotropikoak legez kontra edukitzearekin eta horien kontsumo publikoarekin loturiko arau hauste administratiboen arloko lankidetzak hitzarmenak jasotzen dituen.

7. Ertzaintzak azken urtean antzemandakoaren arabera, gora egin dute alarmak nahi gabe edo oker baten ondorioz aktibatzen diren kasuek; ondorioz, polizia ekintza ugari jarri dira abian azken buruan alferrikakoak izan diren egiaztatzeak egiteko. (2015-03-30)

8. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean koordinazioa eta lankidetzak bultzatzeko asmoz, 2015. urtean dekretu hauek onetsi dira: [57/2015 dekretua](#), [maiatzaren 5ekoa](#), tokiko polizia koordinaziorako batzordeen osaera eta jarduteko araubidea erregulatzen dituen, eta [58/2015 dekretua](#), [maiatzaren](#)

[5ekoa](#), EAEko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkien esparru arauak ezartzen dituena.

3. ekimena. Pertsoneri modu aktiboan entzuteko mekanismoak bultzatzea eta, aldi berean, herritarren partaidetzarako prozesuak ahalbidetzea.

1.27.3 helburua. Prebentzioan oinarritutako polizia eraginkorragoa

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoak](#) honako helburu hauek aurreikusten ditu aipatutako ekimenarekin lotuta: 1) Herritarrekin konfiantza eta lankidetzaren harremanak ezartzea, 2) Hizkera egokia, 3) Banako arreta hobetzea, 4) Ezagutza partekatzea. Alderdi horiei guztiei garrantzia emango zaie legegaldian, pixkanaka-pixkanaka dagozkion polizia prozedurak ezartzeko.

2. Gobernu Kontseiluan onetsi zen 181/2015 Dekretua, irailaren 29koa, Ekinbide-segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoarena, eta horren antolamendua eta funtzionamendua arautu zen. [Ekinbideren](#) eskumenak Segurtasun Sailaren ardura guztietara zabalduko dituzte.

3. Ertzaintzak mugikorretarako aplikazio informatikoa (APP) garatzea, herritarrei Ertzaintzarekin azkar eta uneoro komunikatzeko aukera emateko eta polizia kidegoko informazioarako eta zerbitzu orokorretarako sarbidea izateko. Ezarpen fasean dago.

4. ekimena. Inteligentzia eta ikerketa sistemak garatzea, bai delituen prebentzioan, bai horrek sorrarazten eta/edo indartzen dituzten aldagaien jakintzan ere.

1.27.3 helburua. Prebentzioan oinarritutako polizia eraginkorragoa

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoan, prebentzio aktiboan eta inteligentzia eta ikerketa kriminal eraginkorrean oinarritutako zerbitzua eskaintzeko eginkizun argia ezarri da, hau da, prebentzio aktiboaren prozesua nahiz ekintzak modu eraginkorrean definitzeko. Horretarako, mehatxu berrietara bideratutako informazio egiturak egokitu dira eta antolamendu egitura osoan eredu integrala eta bateratua ezarri da, egungo ikerketa eredua aztertuz eta polizia tekniko eta zientifikoaren zerbitzuak sustatuz, hori dena [antolaketa egitura berria](#) eta Lanpostuen Zerrenda (LPZ) onestearen bidez, EHAAn 2015-11-09an eta 6an, hurrenez hurren, argitaratutako aginduen bidez.

2. 2014ko ekitaldian, berriz definitu zen [Kriminologiaren Euskal Institutuarekin](#) sinatutako hitzarmena, ikerketa prozesuak hobetze aldera.

3. 2014. urteko azken zatian, Ertzaintzak hainbat [informazio bilera](#) egin zituen prestakuntza enpresa eta zentroekin, eta horietan ikusgai jarri zituen Euskal Autonomia Erkidegoak segurtasun pribatuaren arloan dituen eskumenak arautzen dituen 207/2014 Dekretua onestearen ondorioz ezarritako beritasunak.

4. [EAEko Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Batzorde Mistoa](#) bildu da Segurtasun Pribatuko Unitateko memoriaren 2015eko datuak aztertzeko ez ezik, SPUren eta segurtasun pribatuaren sektorearen arteko lankidetzak ekimenak ere aztertzeko.

5. Delituak prebenitzeko eta horiek sortu eta/edo sustatzen dituzten aldagaiak ezagutarazteko atalean, besteak beste egintza hauek garatu dira:

- Astero, atentatu yihadista posible baten arriskuaren balorazioa eta [islamismo erradikalari buruzko topaketa](#). Ertzaintzaren Kontseiluari Islamismo Erradikalaren aurkako Plan Estrategikoa aurkeztu zaio,
- 100.000 gidariri egin zitzaizkien alkohol eta droga kontrolak 2014an,
- Urtero Euskadiko ostatuetatik igarotzen diren milioi bat eta erdi bisitariak kontrolatzen dira,
- Arabian DBE iruzurrez jasotzen duen erakundea desegin da,
- Ertzainor Unitatearen esku hartzeen % 60 baino gehiago drogen aurkako operazioak dira, estupefazianteen trafikoaren aurkako borrokaren esparruan [berri ere konfiskatu da PMMA eta horren arriskua ekarri da gogora](#), 2015ean 70 pertsona atxilotu edo inputatu dira marihuana landatu edo trafikatzeari,
- Estanpatxoaren eta tokomotxoaren iruzurrean ari diren kaleko taldeen inguruan ohartarazi da,
- Ertzaintzak [ohartarazi du gora egin duela biktimaren argazki intimoak zabaltzearen mehatxupean Internet bidez eginiko estortzioen kopuruak](#),
- Ertzain boluntarioek prebentzioari buruzko hainbat hitzaldi eman dituzte EAEko ikastetxeetan (2015-11-26).

5. ekimena. Polizia zientifikoa sustatzea eta indartzea, informazio eta ikerketa sistemei bultzada emateko ekarpen gisa.

1.27.3 helburua. Prebentzioan oinarritutako polizia eraginkorragoa

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoa betez, hainbat laneko prozesu dira martxan polizia teknikoaren eta zientifikoaren zerbitzuak sustatzeko [begi ikuskapenaren](#) prozesua deskribatzeko eta ebidentziak aztertzeke eta tratatzeko prozesua berrikusteko garaian.
2. Segurtasuneko sailburuaren Aginduak, 2015eko martxoaren 12koak, Ertzaintzaren lanpostu zerrenda aldatzen duenak lan prozesu hauei buru eman zien eta [ikerketa sustatu zuen zuzeneko ikuskapenak hobetzeko plan bat ezarriz](#), Ertzaintzaren lurraldekako zuzeneko ikuskapenentarako taldeak batuz, ikerketa proiektua indartuz eta lurraldeetako ikerketa zerbitzuetako hornidurak handituz. Hori guztia ikerketan funtzionamendu ona bermatzeko beharrezkoak diren zuzeneko ikuskapenen prozesuak hurbiletik eta modu eraginkorrean egiteko.
3. 2016an, Ertzaintzaren Zuzeneko Ikuskapenentarako Eskuliburuaren (2006) azken bertsioa berrikusi eta argitaratu da.

6. ekimena. Udaltzaingoekin eta foru zerbitzuekin koordinazio batzordeak eratzea, era horretan beren eskuduntzak elkarren artean indartzea ahalbidetzeko.

1.27.3 helburua. Prebentzioan oinarritutako polizia eraginkorragoa

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoan, polizia aliantzen programa garatzea proposatu zen, baita egungo akordioak aztertzea eta harreman ereduak definitzea ere. Hala, urrats hauek eman dira, beste askoren artean: Ertzaintzak lankidetzak estutu du Durangaldeko udalekin, herritarren segurtasuna hobetzeko (2014) eta [Ertzaintzak koordinazioa areagotu du Ezkerraldeko Udaltzaingoekin, delituei erantzun hobea emateko](#). 2014an Bilbon izandako segurtasunaren eta delitu ekintzen egoeraren aurkezpena egin zen: delitu egintzen kopurua % 7,6 jaitsi da eta Gasteizen % 12,86.

2. Segurtasun Sailaren eta [Donostiako](#) eta [Barakaldoko](#) udalen artean lankidetzak hitzarmenak sinatu ziren, Ertzaintzaren Unitate Zientifikoak Udaltzaingoak atzemandako drogaren analisiak egin ditzan. (2013)

3. [Bartzelonako Aldundiko ordezkariak](#) batek Ertzaintza bisitatu du, eta [Ertzaintzak eta Valentziako Udaltzaingoak](#) berrikuntza teknologikoaren eta Europako proiektuen arloan izandako esperientziak trukatu dituzte.

4. [EAEko eta Nafarroako gobernuek](#) akordio bat sinatu dute, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzak areagotzeko. (2014)

5. [Ertzaintzak pertsonak identifikatzeko lanetan elkarrekin jarduteko protokolo bat](#) izenpetu du hiru hiriburuetakoa eta [Basauriko udaltzaingoekin](#). (2015)

6. [Trafiko Zuzendaritzak Ertzaintzak eta Udaltzaingoak](#) 2016. urtean egingo duten zaintza eta kontrolerako egutegia aurkeztu du. (2016)

7. 2015-03-31ko Gobernu Kontseiluaren bidez baimena eman zen Gasteizko Udalarekin lankidetzak hitzarmen bat sinatzeko, hirian ezarritako zirkulazioaren kontrol kameretatik datorren bideo seinalea lagatzeari begira.

8. Bi dekretu hauek onartu ziren:

-[57/2015 DEKRETUA](#), [maiatzaren 5ekoa](#), Tokiko polizia koordinaziorako batzordeen osakerari eta jarduteko araubideari buruzkoa.

-[58/2015 DEKRETUA](#), [maiatzaren 5ekoa](#), EAEko udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru arauak ezartzen dituena.

1. ekimena. Estatuko Segurtasun Indarrak egokitu daitezen eta atzera egin dezaten eskatzea, betiere Segurtasun Batzordeak polizia kidegoen arteko koordinazioan eta lankidetzan duen zeregina indartuz.

1.27.4 helburua. Polizia integralaren eredia

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013-03-06an, bilera bat egin zen Barne ministroarekin. Bilera hartan, Segurtasuneko sailburuak formalki eskatu zion, jaramon egin ez bazitzaion ere, Segurtasun Batzordea deitzeko koordinazioko hainbat gai jorratzeko; bereziki, Estatuko Segurtasun Indarren presentzia egungo egoerara egokitzeari buruzkoa, [Gernikako Autonomia Estatutuaren](#) 17. artikulua ezartzen dituen eskumenak zorrotz betez.

2. 2014-03-17an, [Segurtasuneko sailburuak beste bilera bat egin zuen Barne ministroarekin, eta ez zen lortu Segurtasun Batzordea deitzeko akordiorik](#). Bi arduradunek erakutsi zuten elkarriketa irekita uzteko eta mahai teknikoak bultzatzeko gogoia, elkarrekin aztertzen ari diren gaiak lantzen jarraitzeko.

2. ekimena. Ertzaintza polizia integral gisa Europako Segurtasun Espazioan oso-osoan txertatzeko zereginean aurrera egitea, baita lankidetzazko nazioz gaindikoa mekanismo guztietan ere.

1.27.4 helburua. Polizia integralaren eredia

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoak](#) Ertzaintza nazioarteko polizia foroetan sar dadin eta nazioarteko polizia erakundeetan parte har dezan bultzatzea planteatzen du.
2. Polizia lankidetzazko horren baitan sartzen dira Europako Poliziekin koordinatzeko gailuak, Athletic Club de Bilbaok Europa League-n parte hartzearekin edo Baskoniak Euroligan parte hartzearekin lotuta, eta, oro har, EAEko kirol taldeek Europako txapelketetan parte hartzen dutenean.
3. Ertzaintza, 2015etik aurrera, lankidetzazko arituko da Europar Batasuneko beste polizia batzuekin, enpresa teknologikoekin eta unibertsitateekin Europako esparruan polizia ikerkuntza eta herritarren segurtasuna hobetzea xede duten ekimenak diseinatzeko. Ekimena Europako Batzordeak sustatu du eta «H2020» programa gisa da ezaguna, hau da, [xede gisa 2020. urtea duen ikerkuntza eta berrikuntzarako esparru programa](#). Haren helburua Europako polizia kidegoen erantzuteko gaitasuna hobetzea da, teknologia berriek talde kriminal antolatuei eskaintzen dizkieten baliabideen aurrean, [Basque Country estrategiaren](#) esparruan. Bertan izan ere, segurtasunaren arloko politikak atal propioa dauka.
4. Ertzaintza izan da [ENFSIren](#) (Auzitegi Zientzietako Institutuen Europako Sarearen) 2016. urteko txopaketa antolatzeko aukeratutako erakundea. Sare horrek 64 polizia eta auzitegi laborategi koordinatzen ditu Europako erreferentziazko 36 herrialdetan. [Segurtasuneko sailburua ENFSIko Zuzendaritza Batzordearekin bildu da Erandion](#).

3. ekimena. Ertzaintzaren presentzia garatzea beren jarduketan eremua gainditzen dituzten delituak prebenitzeko eta jazartzeko lana aztertzen eta lantzen duten nazioarteko polizia foroetan.

1.27.4 helburua. Polizia integralaren eredia

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2016ko Plan Estrategikoaren xedea da Ertzaintzak nazioarteko polizia foroetan parte hartzea, baita nazioarteko polizia erakundeetan parte hartzeko interesa agertzea ere. Ildo horren baitan daude Europako Polizia-koordinaziorako dispositiboak, hain zuzen, Athletic Club de Bilbaok Europa Leaguen parte hartzearekin eta Baskoniak Euroligan parte hartzearekin lotuta, baita gainerako kirol taldeek Europako txapelketetan parte hartzearekin lotuta ere. Ertzaintza lankidetzan aritu zen [Italiako poliziarekin](#) Athletic Club de Bilbaoren eta Torinoren arteko partiduko segurtasuna bermatzen eta koordinazioan aritu zen Augsburgereko poliziarekin (Alemania), FC Augsburgen aurkako partidua ikustera joan ziren zaletuei segurtasunerako hainbat informazio eta gomendio emateko.

2. Beste polizia batzuen bisitak: Mexikoko Polizia Federalaren bi agregaturen bisita Erandioko egoitza nagusira; bilera horren helburua bi kidegoen arteko etorkizuneko elkarlanerako eta lankidetzarako bideak ezartzea zen. [Valentziako Udaltzaingoaren ordezkari baten bisita](#) egin zen Ertzaintzaren instalazioetara, berrikuntza teknologikoan eta Europako proiektuen lankidetzan izandako esperientziak trukatzeko, eta [Kataluniako polizia ikuskatzaile izateko hautagaiek Erandioko Ertzaintzaren egoitza bisitatu zuten, funtzionamendua eta egitura ezagutzeko.](#)

3. [Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak polizian negoziatzaileei eskaini die laugarren «Parez Parez» jardunaldia.](#) Argentinako Poliziaren kidegoetako, FBIko, Mossos d'Esquadra, Polizia Nazionaleko eta Guardia Zibileko espezialistek parte hartu zuten.

4. [Ertzaintzako hainbat buruk eta Segurtasun Saileko arduradunek Security Forum 2015 delakoan parte hartu dute](#) eta [Ertzaintzak Milipol 2015 segurtasuneko munduko azokan](#) parte hartu du, erakundea bera polizia integral gisa sendotzeko nazioarte mailan.

5. 2015eko uztailan, Ertzaintza [European Network of Policewomen](#) sarean sartu da. Ertzaintza sarean sartu ostean, 18 herrialdeetako 25 polizia kidegok osatzen dute. Gaur egun, Bartzelonan du egoitza. Sareak aholkularitza estatusa du Nazio Batuetan, eta hamabost urteko ibilbidea soinean; emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea du helburu, non eta poliziaren gisako esparru batean, zeinak, tradizioz, ezaugarri maskulino nabariak izan baititu.

6. [Segurtasuneko sailburuak Segurtasun Pribatuko EAEko II. Biltzarra inauguratuko zuen 2015ean.](#)

1. ekimena. Segurtasun premia berrien araberako antolaketa egitura berri baterantz abiatzea, betiere haren eraginkortasuna optimizatuz.

1.27.5 helburua. Baliabideen kudeaketa eraginkorraren eredua

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoak](#) Ertzaintzaren egitura berrikustea proposatzen du, eta horrek egitura funtzionala deskribatzea dakar berekin: Dibisioak eta unitateak eta aginte egitura egokitzea, bai eta egituraren ordena aldatzea ere. Hori guztia bi Agindutan hezurmamitu da, [antolakuntza egitura berriari](#) eta Lanpostu Zerrendari (LPZ) buruzkoak, EHAAn argitaratuak 2013ko abenduaren 9an eta 10ean, hurrenez hurren.

2. Gainera, egitura berriak herritarren babeserako, ikerketa kriminalerako eta polizia inteligentziarako jarduerak antolatzeko eredua eratzen du. Horri esker, jarduera horiek integra daitezke herritarrengandik hurbilen dagoen esparrutik erakundeko organorik zentralenetara eta espezializatuenetara.

3. [Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketa egiteko legearen](#) aurreproiektua Gobernu Kontseiluan onartzeko bideratu da. Hark berrikuntzak dakartza berekin, esaterako polizia eredu berria eta kontuak emateko mekanismoak indartzea, Polizian berdintasun neurriak eta emakumeak Polizian izatea sustatzea eta Ertzaintzan egindako lanbide karrera hobetzea.

2. ekimena. Ertzain etheen planifikazioa eta kudeaketa optimizatzea, etengabeko hobekuntzaren bitartez bikaintasuna lortzeko testuinguru batean.

1.27.5 helburua. Baliabideen kudeaketa eraginkorraren eredia

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Ertzaintzaren [2016rako Plan Estrategikoan](#) finkatutako jarraibideen barruan, nabarmentzekoa da, duen esanahiagatik eta norainokoagatik, Ertzaintzak ertzain etxeetan [baliabide gehiago jartzeko neurriak planifikatu eta gauzatu dituela](#).

2. Halaber, ertzain etxeetan ezarpen eta ebaluazio fasean dauden patruilatze eredu berriak, auto bidezkoak nahiz oinezkoak («korrikak»), definitu ziren. Helburua delitu indize altuenak dituzten eremuetan Ertzaintzaren presentzia areagotzea da, segurtasun sentrazio handiagoa sortzea jende gehien dabilen lekuetan, eta prebenitzeko ekintzak gauzatea zonalde edo sektore bakoitzeko entitate eta erakunde adierazgarriekin etengabe lankidetzan arituz, bai hiriguneetan, bai landa inguruetan.

3. Administrazio eta antolamendu baliabideak murriztu eta optimizatzeko, eta trukean, herritarren segurtasunera eta ikerketara laneko baliabide gehiago bideratzeko asmoz, eremu topogeografiko berean dauden bi ertzain etxeren kudeaketa partekatua gauzatu da: Azkoitia eta Zarautz. [Segurtasuneko sailburua Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordean izan zen 2013/09/20an](#) eta 2014-09-11n. 2014an, [Urola-Kosta kudeaketa partekatua eredia zabaldu zen Bergara-Zumarragako eta Tolosa-Beasaingo ertzain-etxeetara](#) herritarren babesean presentzia handiagoa izateko eta ikerkuntza finkatzeko (2014-07-17).

4. Bestalde, elkarrizketa eta koordinazio harremanak sendotu dira uda garaian populazioa areagotzeak dakartzan segurtasun arazoak aztertzeko.

5. [Arabako hiru ertzain etheen mugapenak aztertu eta berrantolatatu dira](#), segurtasuna areagotu eta hobetzeko asmoz. (2014-10-01)

6. 2013an, Segurtasun sailburua Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordearen aurrean agertu zen, hark berak eskatua, Azkoitiko eta Zarauzko komisarien baterako kudeaketaren inguruko ebaluazioaren aurkezpena egiteko. «Urola-Kosta» [kudeaketa partekatuko eredia Bergara-Zumarraga eta Tolosa-Beasaineko ertzain etxeetara](#) zabaldu da, herritarren babeserako presentzia handiagoa egon dadin eta ikerketa indartzeko.

7. 2015eko martxoaren 31n, Legebiltzarrari igorri zitzaion [Ekinbide - Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar ekimenen bulegoaren 2014ko Ekintzen Txostena](#).

8. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean koordinazioa eta lankidetzak bultzatzeko asmoz, 2015. urtean dekretu hauek onetsi dira:

- [57/2015 Dekretua, maiatzaren 5koa](#), Tokiko polizia koordinaziorako batzordeen osaera eta jarduteko araubidea erregulatzen dituena.

- [58/2015 Dekretua](#), maiatzaren 5koa, EAEko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkien esparru arauak ezartzen dituena.

3. ekimena. Baliabideen kudeaketa arrazionalizatzea, betiere erreferentziatzen ekonomia eta gizarte iraunkortasuna hartuz.

1.27.5 helburua. Baliabideen kudeaketa eraginkorraren eredua

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015eko aurrekontuaren bidez bete beharreko helburu nagusiek eskatzen zuten 250 ertzaineko promozio berri bat prestatzea, parke mugikorra berritzea, uniformetasuna osatzea eta euskararen erabilera sustatzea.

2. Ogasun eta Finantzetako eta Segurtasuneko sailburuen [2014ko abenduaren 3ko Aginduaren](#) bidez, Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako kontratazio mahaiak sortu eta arautu ziren.

3. Segurtasuneko sailburuaren [2013ko maiatzaren 9ko Aginduaren](#) bidez, Segurtasun Sailak eskaintzen dituen zerbitzuen prezio publikoa finkatu zen, estatistika datuen ustiapenen salmentagatik.

4. 2015eko maiatzean, [Segurtasun Sailak Ertzaintzaren parke mugikorra berritzeari ekin dio, 120 patruila ibilgailu bereizgarridun berri esleituta.](#)

5. Langileen kudeaketaren esparruan nabarmentzekoak dira 2015eko irailean eta urrian jazotako hiru jarduketa:

-Ertzaintzako bederatzi intendentek beren egiaztapenak jaso zituzten.

-Ertzaintzaren XXIV. promozioak [kredentzialak jaso zituen.](#)

-Akordioa lortu zen ESAN, Euspel eta Comisiones Obreras sindikatuarekin eta Arabako eta Bizkaiko ertzain etxeetan 120 lanpostu zerbitzu eginkizunetan betetzeko deialdia egin ziren.

4. ekimena. Antolakuntza eta egitura lidergorako eskema berriak txertatuz egokitzea eta; halaber, erantzukizunak argituz, kanpo eta barne komunikazioa indartuz eta "egiten jakitea" estandarizatuz.

1.27.5 helburua. Baliabideen kudeaketa eraginkorraren eredua

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. [Ortizimuga 2016 Plan Estrategikoak](#) lidergo eredu berria sustatu du Ertzaintzan; hain zuzen, 2013ko abenduaren 9ko eta 10eko EHAAn, hurrenez hurren, argitaratutako [antolaketa egitura berrian](#) eta [Lanpostuen Zerrendan \(LPZ\)](#) agertzen baita eta aldatuta [2015eko martxoaren 12ko Aginduan](#).

2. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean koordinazioa eta lankidetzak bultzatzeko asmoz, 2015. urtean dekretu hauek onetsi dira:

- [57/2015 Dekretua, maiatzaren 5koa](#), Tokiko polizia koordinaziorako batzordeen osaera eta jarduteko araubidea erregulatzen dituena.
- [58/2015 Dekretua](#), maiatzaren 5koa, EAEko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkien esparru arauak ezartzen dituena.

5. ekimena. Lanbide trebakuntza, barne koordinazioa eta talde lana bultzatzea.

1.27.5 helburua. Baliabideen kudeaketa eraginkorraren eredia

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak legegintzaldi honetan honako jarduketak gauzatu dira, lanbide trebakuntza sustatzeko asmoz:

- [Akademia-Prestakuntza Plana 2015](#) eta [Akademia-Prestakuntza Plana 2016](#).
- Brigada Mugikorreko ikastaroa, 2014ko ekitaldian gauzatua.
- [Herri eta hirietako gune historikoetan dauden eraikinen segurtasunari buruzko jardunaldi teknikoa, 2013](#).
- [EAEko Segurtasun Pribatuko I. Batzarra, 2013](#).
- [24. promozioiko 120 ertzain trebatzeko prozesua, 2014](#).

2. Era berean, urtero antolatu diren Parez Pare polizia jardunaldiak:

- 2014: [Delinkuentzia antolatua, ziberdelinkuentzia, herritarren segurtasunerako ikuspegi berrien azterketa, lurralde antolamenduaren, urbanismoaren, ondare historikoaren eta ingurumenaren aurkako delituen azterketa, profil kriminologikoaren printzipio teorikoak eta operatiboak...](#)
- 2015: [Adingabeen kriminalitatea, Poliziak eta fiskaltzak gorroto delituen aurrean agertutako jarrera ...](#)
- 2016: [Zigor Kodearen lege erreformak eta eta horren ondorioak polizia eremuan, Zigor Kodeko lege erreformen azterketa...](#)

3. [Ertzaintzaren 2016rako Plan Estrategikoak](#) giza eta teknika alorreko trebakuntzaren ebaluazioa sustatzen du, ereduaren arabera prestakuntza beharrak identifikatuta, Ertzaintzaren eredia erantsita prestakuntza akademikoan eta Ertzaintzak prestakuntza diseinatzen eta ematen parte har dezala sustatuta.

6. ekimena. Polizia eta Larrialdietako Akademia honela eratzea eta garatzea: ezagutza kudeatzeko zentro gisa eta jakintzaren, ikerketaren eta garapen teknologikoaren behatoki gisa, betiere etengabe eguneratuz doan euskal segurtasun eredu baten zerbitzura.

1.27.5 helburua. Baliabideen kudeaketa eraginkorraren eredia

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Legegintzaldian zehar, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren alorrean, Ertzaintzaren XXIV. eta XXV. promozioetako ertzainen prestakuntza eta onarpen prozesua gauzatu da.
2. Zuzendaritza Kontseiluak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren [2013ko prestakuntza plana](#) onartu zuen bere lehenengo osoko bilkuran. Akademiak bere prestakuntza planaren bidez lortu nahi zuen helburu nagusia prestakuntza EAErentzako «segurtasun integraleko eredu berri batera» bideratzea izan zen.
3. [2014ko prestakuntza plana](#) 2013ko abenduaren 18an onartu zen, eta guztira 180 ikastaro jaso zituen Ertzaintzan, Udaltzaingoetan, Larrialdi eta Babes Zibilean eta bestelako kolektiboetan aurreikusitako 20.000 matrikula baino gehiagorentzat.
4. Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Kontseiluak [2014ko prestakuntza plana](#) onartu zuen 2014ko abenduaren 11n, eta ikastaro kopurua 246ra zabaldu zuen 22.191 matrikulako aurreikuspenaren aurrean.
5. Era berean, urtero prestakuntza eta dibulgazio lana gauzatzen da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak antolatutako «Parez Pare Jardunaldien» bidez.
6. 2015eko abenduaren 17an, Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Kontseiluak [2016ko prestakuntza plana](#) onartu zuen. Guztira 235 prestakuntza ikastaro antolatuko dira eta 23.000 leku baino gehiago eskainiko dira.

7. ekimena. Etengabeko hobekuntzan, erkidegoaren itxaropenekiko arreta hobean eta langile guztien inplikazio aktiboan oinarritzen den kudeaketa eredia sustatzea.

1.27.5 helburua. Baliabideen kudeaketa eraginkorraren eredia

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, ertzainek osatutako 30 lantalde eratu ziren Ertzaintzan, honako gai hauen inguruko gogoeta egiteko eta ideiak emateko:

- Ertzaintzaren lidergo eredia definitzea.
- Ereduaren arabera prestakuntza beharrak identifikatzea.
- Ertzaintzaren eredia (zeregina, ikusmoldea eta balioak) gehitzea prestakuntza akademikoan.
- Ertzaintzak prestakuntza diseinatzen eta ematen parte har dezala sustatzea.
- Barne komunikazioko politika ezartzea,
- Hobekuntza taldeak ezartzea,
- Irakokizun prozesu bat sortzea eta abiaraztea,
- Diziplina aplikatzeko irizpideak ezartzea,
- Gizartean eragina duten jarduketan ikerketa sistematizatzea,
- Ebaluazio elementuak identifikatzea,
- Araudiak 56 urtetik gorakoengan eta bigarren jardueran duen eragina aztertzea,
- Elkarrizketa mailak ezartzea.

2. 2014ko irailean, bai Kirol Zuzendaritzarekin eta bai federazioekin eta klubekin gauzatutako lankidetzaren prozedura baten ondorio gisa, [lankidetzaren protokolo bat formalizatu zen kirol klubekin, elkartekin eta federazioekin, indarkeriaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren prebentzioa eta kontrola sustatze aldera.](#)

3. 2014ko otsailean, Joko Zuzendaritzak [arduraz jokatzeari buruzko kontzientziario kanpaina bat kaleratu zuen, gogorarazteko 18 urtetik beherakoek debekatuta dutela joko apustuak egitea.](#)

4. 2015eko apirilaren 23an, topaketa bat antolatu zen prentsarekin, islamismo erradikalaren ezaugarrien eta Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoeraren berri emateko. [Islamismo erradikalari buruzko topaketa.](#)

5. 2015eko otsailaren 23an, Segurtasuneko sailburuak Legebiltzarrean aurkeztu zuen [Islamismo erradikalaren aurkako plan estrategikoa](#). Lau egun geroago, 2015eko otsailaren 27an, Eusko Jaurlaritzak EAEko Jokoaren II. Liburu Zuria aurkeztu zuen.

6. 2016ko urtarrilaren 19an, Ertzaintzak [islamismo erradikalaren](#) Bizkaiko egoeraren berri eman zien Bizkaiko ehun bat alkate eta zinegotziri.

8. ekimena. Ertzaintzaren jarduketa prozesuak eta prozedurak hobetzea, haren jarduketan homogeneotasun mailarik handiena bermatuz.

1.27.5 helburua. Baliabideen kudeaketa eraginkorraren eredua

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2013an eta 2014an, hainbat barne prozesu gauzatu ziren indarraren eta materialen erabileraren inguruan gogoeta egiteko, eta gai horren definizio berri bat ekarri zuten, bai eta material berrien erabileraren aldeko apustua ere.
2. Era berean, emaitzen ebaluazioan oinarritutako kudeaketa eredu bat abiarazteko lan egiten ari da.
3. Aurretiko gogoeta lan hori guztia etengabe berrikusten diren operazio argibide eta aginduetan aldi berean jasotzen diren prozesuetan eta prozeduretan islatzen da, eta horiek arreta eskaintzen diete bai delinkuentzia errealitate berriei (islamismo erradikalari, adibidez), bai segurtasun arloko esparru berriei (4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa, Zigor Kodearen aldaketak, e.a.). Horren adibide gisa, 2015eko uztailan Segurtasuneko sailburuak [Ertzaintzaren Kontseiluari](#) eta [Eusko Legebiltzarrari](#) aurkeztu zien islamismo erradikalaren aurkako plan estrategikoa, oinarritzko lau zutabetan oinarritua: prebenitu, babestu, esetsi eta erantzun.

9. ekimena. Berrikuntzaren kultura sustatzea kudeaketa eredia ezartzeko eta hobetzeko ezinbesteko baldintza gisa.

1.27.5 helburua. Baliabideen kudeaketa eraginkorraren eredia

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Etengabe kalitatea eta hobekuntza bilatzeak aintzatespena jaso du [Sestaoko ertzain etxeari](#) emandako sariaren bitartez, komisaria horrek Euskalitek emandako 5S saria lortu baitu, (2014). Lan eremua optimizatzeko polizia zentro horretan ezarritako prozesuak aintzatesten ditu sariak. Hark polizia zentro horrek lortutako hobekuntzak saritu ditu, komisariak bere lan eremuetan lanaren garapena errazteko egindako arrazionalizazioari dagokionez. 9 ertzain etxetan, polizia biltegietak kudeaketan, 5S metodologia ezarri da.
2. 2014ko urriaren 24an, [Ertzaintzako kudeaketa aurreratua aztertzeke jardunaldi bat](#) antolatu zen.
3. 2015eko maiatzean, udal hauteskundeetako emaitzen hedapena errazte aldera, widgetak sortzeko zerbitzu bat jarri zen publiko orokorraren eskura www.elecciones.eus web-orrialdean. [Udalerrietako hauteskundeetako emaitzen widgeta](#).
4. 2015eko urtarrilean, [Valentziako Udaltzaingoko](#) ordezkari batek Euskal Autonomia Erkidegoa bisitatu zuen, Ertzaintzarekin berrikuntza teknologikoko esperientziak partekatu eta Europako proiektuetan elkarlanean aritzeko lan topaketa baten harira.
5. 2015eko urrian, «[Kudeaketa Aurreratuko Jardunbide Egokiak](#)» gaiari [buruzko jardunaldia](#) antolatu zen, Ertzaintzak aurkeztua, Euskalit-en Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astearen.

1. ekimena. Biztanleei larrialdietan laguntzeko erkidego zerbitzuak sektore anitzetatik diseinatzea, horrela segurtasun zerbitzu integralari bultzada emanez.

1.27.6 helburua. Hobekuntza larrialdien arretan, informazio meteorologikoan eta bide segurtasunean

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Alor horretan egindako lana funtsean Legegintzaldian zehar sortutako Krisi Mahaietan gauzatu da, edo esaterako udalei zuzendutako aholkularitza teknikoan, Ikuskizun Publikoen eta Josteta Jardueren Legeari jarraikiz.

2. 2014an, [lehenengo boluntario txartelak](#) entregatu ziren Poliziako eta Larrialdietako Euskal Akademian. Txartel horiek egiaztatuko dute txartelok eramaten dituztenak boluntarioak izango direla etorkizuneko larrialdi egoeretan; hori guztia [2013ko ekainaren 14ko Aginduari](#) jarraikiz, Segurtasuneko sailburuarena, Euskadiko Babes Zibileko boluntarioen toki erakundeetako kideak egiaztatzeari buruzkoa.

3. Legegintzaldian zehar etengabeko lana egiten ari da [lokalen edukiera kontrolatzeari](#) dagokionez, aisialdian segurtasuna bermatzeko Halloween, Gabonak eta bestelako jai giro garrantzitsuetan. Halaber, 2014an [informazio eta prebentzio kanpaina bat egin zen euskal diskoteketan](#), bertan segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko..

4. 2013an, indarrean jarri zen Autobabes Planen Erregistroa, 277/2010 Dekretuari jarraikiz, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes betebeharrak arautzen dituen, larrialdiei aurre egiteko. Horren helburua zen Larrialdien Euskal Sistemaren (LES) operazio zerbitzuek tresna azkarra edukitzea jarduera, zentro edo establezimendu horien tipologia, antolakuntza eta planoak ezagutzeko. Gaur egun, erregistratutako 2.300 plan baino gehiago jarri dira LESren eskura.

5. Gobernu Kontseiluak lau plan berri eta 13 berrikusketa onartu ditu [Seveso](#) izeneko enpresen arrisku kimikoaren inguruan.

2. ekimena. Larrialdien koordinazio eta jarraipen sistema hobetzea, bereziki basoetako suteen eremuan, ubideen eta urtegien kontrolean eta bide segurtasunean, betiere gainerako erakundeekin eta agente pribatuekin elkarlanean.

1.27.6 helburua. Hobekuntza larrialdien arretan, informazio meteorologikoan eta bide segurtasunean

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015eko maiatzera arte egindako jarduketa batzuk:

- Larrialdiei aurre egiteko euskal sistemari buruzko hitzaldia
- [Arriskua eta erantzukizuna mendian gaiari buruzko hitzaldia](#), Euskal Mendizale Federazioak antolatua,
- Larrialdietako boluntarioei buruzko hitzaldia XXI. Asbovoca kongresuan, Agramunten (Lleida) (2014-02-22),
- [Udalentzako segurtasun gida](#),
- Ubide ozeanografikoentzako neurgailu berriak (radarra, kontrol zentroak),
- Alpify aplikazioa, pertsonak mendian lokalizatzeko,
- Arrisku eta larrialdien kudeaketari buruzko Donostiako jardunaldietan parte hartzea, 2013-2014-2015ean, suteen prebentzioari, [itsasoko eta kostaldeko fenomeno](#)ei eta “112 zenbakia alderantziz: prebenitzeko informatzea” gaiari buruzko hitzaldiekin,
- [Itsas fenomenoengatiko abisu meteorologikoen sistema berri](#) da, [hemendik aurrera itsasoak kostaldean duen inpaktua ere kontuan hartuko baita](#), egungo olatuei eta galernei buruzko aldagaiez gain.

2. [Berrazterketa berezi bat onartu zen Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea-LABI deritzan EAEko herri babeseko planean](#). Era berean, [Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen ziozko Larrialdiko Plan Berezia onartu zen](#). Halaber, [2015eko uztailaren 22an suteen prebentzio eta itzalketa eta salbamendu zerbitzuak arautzeko lege proiektua onartu zen](#), EAEn zerbitzu hori lurralde bakoitzaren premia eta berezitasunak aintzat harturik ordenatzeko, arautzeko eta bermatzeko.

3. [EAEko bide segurtasun eta mugikortasun seguru eta iraunkorreko 2015-2020 plan estrategikoa onartu da](#).

4. 2015eko abenduaren 23an, [Eusko Legebiltzarrak abenduaren 23ko 10/2015 Legea onartu zuen](#), [Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena](#), eta hala formalizatu egin zen Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 1ean onartutako lege proiektuaren izapidetzea. Lege hori 2016ko urtarrilaren 8an jarri zen indarrean, 2016ko urtarrilaren 7ko EHAAn argitaratu ondoren.

5. 2014an, [lankidetzaren protokoloa izenpetu zen Segurtasun Sailaren eta kirol klub](#)en, [kirol sozietate anonimoen eta kirol federazioen artean](#), [kirol arloko indarkeriaren](#), [arrazakeriaren](#), [xenofobiaren eta intolerantziaren aurka](#).

6. Gobernu Kontseiluaren 2014ko ekainaren 5eko akordioaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko arrisku erradiologikorako larrialdi plan berezia onartu zen, arrisku teknologiko horri erantzun egokia emate aldera.

7. Akordioak eta hitzarmenak Gasteizko eta Donostiako Udalekin, bai eta Metro Bilbaorekin ere, larrialdirik egotekotan erakunde horien kameretatik ateratako irudiak erreproduzitzeko SOS DEIAKen koordinazio geletan, koordinazioa eta dagokion erantzuna hobetzeko asmoz.

3. ekimena. Euskalmet - Euskal Meteorologia Agentziak prestatutako informazio meteorologikoaren aukerak bultzatzea, betiere larrialdiei aurre egiteko eta euskal komunitatearentzako komunikazio erabilgarriaren zerbitzua emateko aliantza estrategikoaren alderdi bikoitza jorratuz.

1.27.6 helburua. Hobekuntza larrialdien arretan, informazio meteorologikoan eta bide segurtasunean

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. 2014an, [Euskalmeten App berria](#) aurkeztu zen, telefono mugikorretan eta tabletetan informazio meteorologikoa emateko, eta, 2015ean, [Euskalmetek 'zeure garai berean' 25 urte bete dituela ospatzeko ekitaldiak](#) hasi ziren.
2. Sare sozialetako lana areagotu eta hobetu da ([Ertzaintza](#), [Euskalmet](#), [Trafikoa](#) eta [112](#)).
3. 2014tik aurrera, herritarren eskura jarri zen [ibaien arroko uraldien jarraipena egiteko tresna bat](#).
4. 2015ean, [itsas fenomenoengatiko abisu meteorologikoen sistema berri](#) zen, ordutik aurrera itsasoak kostaldean duen inpaktua ere kontuan hartuko baitzen, egungo olatuei eta galernei buruzko [aldagaiez gain](#).
5. Urtean 330.000 posta elektronikoa eta 65.000 SMS baino gehiago bidaltzen dira instituzioei, organismoei, zerbitzuei, hedabideei eta oro har herritarrei informazioa emateko.

4. ekimena. Bide segurtasuneko plan estrategikoa prestatzea, besteak beste herritarren artean trafikoaren eta mugikortasunaren gaineko jarrera arduratsua eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzeko asmoz.

1.27.6 helburua. Hobekuntza larrialdien arretan, informazio meteorologikoan eta bide segurtasunean

Arduraduna: Josu Zubiaga Nieva (Segurtasuneko sailburuordea)

Jarduketak

1. Gobernu Kontseiluaren 2015eko otsailaren 3ko akordioaren bidez onartu zen 2015-2020 Bide segurtasuneko plan estrategikoa. EAEko bide segurtasun eta mugikortasun seguru eta iraunkorreko 2015-2020 plan estrategikoa.

2. Honako hauek dira legegintzaldian zehar egindako jarduketa batzuk

- Errepidean ibili behar duten kirolarientzako gida eta Familiar eta bizikletari buruzko gida argitaratu ziren,

- Errepideko istripuen prebentziorako kanpaina aurkeztu zen,

- 2014an, *App berri bat* aurkeztu zen euskal errepideetako gertakarien berri emateko,

- 2014an, Trafiko Zuzendaritzak *herritarren zahartzeari eta bide segurtasunari buruzko jardunaldi bat antolatu zuen, eta 64 urtetik gorako pertsonen zuzendutako sentsibilizazio kanpaina bat,*

- 2015ean, 2014ko EAEko kaleetan eta errepideetan izandako zirkulazio istripuen balantzea aurkeztu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoan izandako istripu larriak % 48 murriztu zirela nabarmendu zen,

- Trafiko Zuzendaritzak *joko interaktibo bat diseinatu zuen errepidean prebentzioa, erantzukizuna eta autonomia sustatzeko (2015).*

- Trafiko Zuzendaritzak 2015ean *bideetako arriskuen prebentzioa ikasgelan izeneko online ikastaroak eskaini zitkien irakasleei.*

3. Seguru baietz kanpaina gauzatzeko bi kamioi eta erabilera anitzetarako egokitutako bi karpa daude, bai eta komunikatzeko zenbait euskarri ere, biztanleei, oro har, helarazteko zein garrantzitsuak diren jokabide seguruak istripuak prebenitzeko. Seguru baietz / Sí seguro lelopean, mugikortasun seguruari lotutako gizarte eragileek sustatutako jarduera eta ekintzak babesten dira (2015).

4. Bide segurtasunerako hezkuntzaren esparruan 2015ean hainbat ekintza gauzatu dira, besteak beste, ikastaroak, online ikastaroak, mintegiak, kontzientziazio kanpainak, tailerrak, programak, gidak, jardunaldiak...

5. 2015ean, garraio berezien zirkulazioa baimentzeko eskuduntza kudeatzen hasi zen, ordura arte foru aldundiek egindako lana izan arren.

6. 2015eko abenduan amaitu zen Segurbide proiektuaren lehen atala, Osalanekin elkarlanean egina, euskal enpresa espektroa eta bide segurtasuna aztertzea eta euskal enpresetarako jardunbide egokien dekalogo bat sortzea helburu duena.

1. ekimena. Herritarren zerbitzuean jardungo duen bulego judicial berria sendotzea.

1.28.1 helburua. Justizia modernoagoa eta herritarrengandik hurbilago

Arduraduna: Ana Aguirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Fiskaltzaren instalazio berriak Bizkaian. Aldez aurretik administrazio izapidetze lan handia egin behar izan da, eta Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra modu puntualean aldatu behar izan da; horren ondoren, 2015-07-27an, Henao kaleko 9. zenbakiko eraikina Birgaitzeko proiektua idazteko eta obra zuzendaritzaren [proiektua](#) adjudikatu da, Fiskaltzaren instalazio berriak jartzeko, 347.539,83 eurotan (formalizatzen denetik 90 egunera aurreikusita).

2. Bergarako Justizia Jauregia birgaitzea. 2013ko abenduan oinarrizko proiektu berria aurkeztu zen udaletxean, jarraibideekin bat etorritik, jakinarazte aldera, eta 2014ko azaroan orubearen azterlan geoteknikoa egin zen, 13.669,84 euroko zenbatekoan. Justizia Jauregia birgaitzeko eta handitzeko kalkulaturako kostu globala 13.400.000 eurokoa da, lanak egiten diren bitartean epaitegiak behin-behinean hartuko dituzten lokalak birgaitzea barne.

3. Gasteizko Justizia Jauregiaren instalazioak egokitu egin behar izan dira [Bulego Judicial Berriaren](#) (BJB) antolakuntza egitura hartzeko. 2014-03-14an Gasteizko BJB inauguratu zen, Euskal Autonomoa Erkidegoko hiriburuei dagokien lehenengoa.

4. Gasteizko Santa Olaja kaleko 1. zenbakian deribazio judizialeko Familia Elkargunea egokitu zen. Lanak 2014-12-30ean bukatu ziren, 180.802,69 euroko zenbatekoan.

5. [Barakaldoko Justizia Jauregia](#) egokitu da Bulego Judicial Berriaren antolakuntza eskemara moldatzeko; horretarako, hirugarren eta laugarren solairuan lanak egin dira. (2015eko iraila)

2. ekimena. Bulego judizialen barne antolakuntzako sistema berria garatzea, espezializazioan eta zerbitzuaren arrazionalizazioan oinarritua.

1.28.1 helburua. Justizia modernoagoa eta herritarrengandik hurbilago

Arduraduna: Ana Aguirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Bulego Judizial Berria (BJB) ezartzeko lanak egiten ari dira, hain justu ere, martxan dagoen barruti judizialetan (Azpeitia, Bergara, Eibar, Irun, Tolosa, Balmaseda, Durango, Gernika, Getxo, Gasteiz eta Barakaldo). Hobekuntza eta koordinazio taldeekin bilerak egiten ari da.
2. Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Bulego Judizial Berria jartzea, 2013-07-01ean martxan jarri.
3. Legegintzaldian zehar, Bulego Judizial Berrien ezarpenaren jarraipen eta ebaluazio lana egiten ari da, bilerak eginez horrelako bulegoak hartuko dituzten barruti judizialetako ezarpen taldeekin, informazio eta komunikazio jarduerak kudeatu dira eta Bulego Judizial Berrien aurrez aurreko zein online ikastaroak eskaini dira, taldean lan egiteari eta taldeak kudeatzeari buruzkoak barne.
4. [Gasteizen Bulego Judizial Berria](#) ezartzea. Lanpostu zerrendak argitaratzea. Zerbitzu komunak ezartzea. Hizkuntzaren araberrako lehiaketa espezifikoak. Kudeatzaile arduradunaren plazetarako deialdia. Egokitzea.
5. Bake Epaitegietako aplikazio informatikoa instalatzea, prestakuntza ematea, mantentze-lana egitea, garatzea eta erabiltzeko babesa ematea, kooperazio judizialeko lanetarako eta Erregistro Zibilarri dagokionez, baita autonomia erkidegoko bake epaitegi guztietako (Portugaletan izan ezik) datu estatistikoen plantila ere, justizia administrazioko funtzionarioekin.
6. Bulego Judizial Berrien lanpostuen zerrendak onartu zituzten zazpi dekretuak aldatzea, plaza generikoak amortizatuz, derrigortasun data diferitua 2015eko urtarrilean jarri eta plaza kopuru berbera sortuz hizkuntzari dagokionez, kasu bakoitzean esleitutako hizkuntza eskakizuna betetzeko derrigortasunarekin.
7. Bulego Judizial Berria ezartzea Barakaldon. Lanak amaitu eta gero, lanpostuen zerrendak argitaratu eta zerbitzu komunak sortu ondoren, [2015-07-06an martxan jarri zen](#).

3. ekimena. Herritarrei arreta egitean, kalitatea eta eraginkortasuna sustatzea eta bultzatzea, informazio eta komunikazio jardueretan garrantzia jarritz.

1.28.1 helburua. Justizia modernoagoa eta herritarrengandik hurbilago.

Arduraduna: Ana Aguirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Getxoko barruti judizialera bisita egin da, baita Bulego Judizial Berria jaso duten gainerako barruti judizialetara ere, eta "Herritarrak hartzeko" protokoloa eta tresna informatikoaren bitartez informazioa bilatzeko jarraibidea betetzea bereziki nabarmendu da.
2. Zerbitzua modu homogeneoan emateko prozedurak ezartzea Justizia Administrazioako langileek zaindutako bake epaitegietan.
3. Organo Komun Orokorren eta Betearazpen Organoen zerbitzuak egiaztatzeko adierazleak eguneratzea (egunekoak zein astekoak eta hilekoak), jarraipen sistema berriak finkatuz, organoari jarraipen hobea egiteko kudeatzaile arduradunei laguntza emango dietenak, kontsultak garatuz Justizia Bateko SCG eta SCEJ moduluetan; horiei esker, zerbitzua azkar egiaztatzeko aukera egongo da, egunero kontsulta azkarrak eta egiazkoak egin ahal izango dira, erregistratzeke dauden betearazpen kopurua, edo aurreikuspen edo prozesuak bultzatzeko (ezarritako epeen arabera). Gauza bera asteko edo hileko egiaztapenekin.
4. Inplikaturako eragileen artean koordinazio eta kudeaketa lanak egitea (Justizia Ministerioa, bake epaitegiak, udalak...) Erregistro Zibila linean aplikazioa (Inforeg) udalerrietako erregistro zibiletan ezartzeko, prestakuntza emateko eta erabiltzeko, 2011-2012 ikasturtean ezarri ezin zirenak. Aurretik aplikatzea ezinezkoa izan zen erregistro zibiletan Inforeg aplikazioa ezartzeari eta prestakuntza emateari ekin zaio berriz ere 2015ean, osasun zentroek erregistro zibilei jaiotzak modu telematikoan jakinarazteko aukera dela eta.
5. Erregistro Zibilaren eta Osakidetzeta-Justizia Ministerioaren artean komunikazio eta koordinazio lanak egin dira, jaioberrien jaiotza inskripzioei dagokienez, [osasun zentroetatik 250 Erregistro Zibil ingururi](#) modu telematikoan jakinarazi ahal izateko neurria 2015eko abenduan ezartzeko.
6. Estatistika Institutu Nazionalarekin ere lankidetzan ari gara, bake epaitegien datuak jasotzeko atariaren hedapena hobetzeko.
7. Epainet bake epaitegiatarako prozesu kudeaketako aplikazioa hobetzeko bilakaerari eutsi zaio, eta bake epaitegi horiei atxikitako langile berrien prestakuntzari ere eutsi zaio.

4. ekimena. Kalitateari buruzko Batzorde Autonomikoa abiaraztea, eskudunak diren administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazio mekanismoak bultzatuz.

1.28.1 helburua. Justizia modernoagoa eta herritarrengandik hurbilago

Arduraduna: Ana Aguirre Zurutuza (Justiziako sailburua)

Jarduketak

1. 2013-09-19an Erakunde Arteko Batzorde Mistoaren bileran Kalitate Batzordea eratzea onartu zen, bai eta batzorde horretan botere judizialak, fiskalak, idazkari judizialek eta Eusko Jaurlaritzak parte har zezatela ere. Kalitate gidaliburuaren (2014ko uztaila) proposamena prestatu da. Zerbitzua emateko prozesuak jaso dira gidaliburu horretan, bai eta kalitate kudeaketaren berezko prozesuak ere. Gainera, Fiskaltzan kalitateari buruzko ikastaroak ere eskaintzen dira, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuan eta Gasteizko Bulego Judizial Berrian.

2. 2014-06-06an Erakunde Arteko Batzorde Mistoaren bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren ordezkartzearekin, eta 2014-07-01ean, Fiskaltzaren ordezkartzearekin, Kalitate Batzordeko kideek konpromiso bat sinatzea erabaki zen, Batzordearen Idazkaritza Teknikoa martxan jartzeko; hartara, "Idazkaritza Teknikoaren Onespina" dokumentua sinatu zen.

3. e-Kolabora proiektua ezarri zen, eragile judizialekin batera. Sortzeko eta diseinatzeko fasean dago, idazkaritza koordinatzaileekin batera, sharepointen ingurune kolaboratzailearekin. Hiru kolaborazio sare sortu dira, proposatuko diren lantaldeekin: 1) barne sareak: barruti judizial bati dagozkion sare orokorrak. 2) zeharkako barne kolaborazio sareak: organo berberari dagozkionak/Organo Komun Orokorrak/Betearazpen Organo Komunak/UPADs/Erregistro Zibilak/bake epaitegiak... 3) zeharkako kanpo kolaborazio sareak: UPAD-Ertzaintza/UPAD-SCG/UPAD-bake epaitegiak/UPAD-IVML/ UPAD-Fiskaltza...

4. Estatistika Judizialaren Batzorde Nazionalaren bilkuran parte hartzea; 2015ean bi bilera izan dira (maiatza eta abendua). "CNEJ lantaldeak" proposatuta, buletin judizialean aldaketa eta eguneratze proposamenak onartu eta jaso dira, baita aditu, itzultzaile edota IVMLi dagokienez datu kuantitatiboak jasotzean koordinatzea ere. Helburu horiek guztiak (beste askoren artean) **Estatistika Judizialaren Plan Nazional**ean jaso dira.

5. 2015eko urrian "CNEJ lantaldea" sortu zen, buletin judizialak eguneratzeko lehen auzialdian, instrukzioan, gizarte eta adingabeen gaian, eta hobeto koordinatzeko **Estatistika Judizialaren Batzorde Nazional**arekin. Jardunbide onen eskuliburua prestatzea, idazkari judizialek buletin judizialak ongi egin ditzaten.

6. 2015-10-28an topaketa bat egin zen Organo Komun Orokorraren eta Betearazpen Organoen idazkari zuzendari guztiekin, eta beste lau topaketa (urriaren 30ean, azaroaren 6an, 13an eta 20an) zerbitzu horien kudeatzaile arduradun guztiekin, gai ugari partekatzeko, eztabaidatzeko, zalantzak argitzeko, irizpideak bateratzeko, eta hobetzeko proposamenak egiteko. Orotara 43 gai landu ziren, eta gorabehera edo garatzeko eta hobetzeko proposamen gisa jaso ziren.

1. ekimena. Dagoen bitartekotza sistema eraginkortasunaren parametroetatik abiatuta aztertzea, ebaluatzea eta berriro antolatzea.

1.28.2 helburua. Bitartekaritza, justizi eredu leheneratzaile gisa

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea).

Jarduketak

1. 2016. urteko lehenengo seihilekoan ebaluazio txosten bat egin da, Gipuzkoako barruti judicial guztietan bitartekaritza intrajudizial penalari buruz egindako mintegien garapena aztertzeko.

2. Bizkaiko probintzia mailako Fiskaltzarekin bilera egin zen 2016ko otsailaren 12an, Fiskaltzaren egoitzan bertan, lankidetzeta eta koordinazioa finkatzeko delituen biktimen arretaren gaian eta, bereziki, etxeko eta/edo genero indarkeriako biktimei dagokienez, [Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak](#) garatutako jarduketan eta Fiskaltzaren organoei aldi baterako Fiskalaren Estatutuan esleitu zaizkien jarduketan artean.

3. Bitartekaritza intrajudizial penalerako deribazio protokoloa aplikatzeko baldintzak Fiskaltzarekin adostu dira. Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legea argitaratzeak deribazio protokoloa birformulatzea ekarri du, bitartekaritza intrajudizial penalari dagokionez; izan ere, bitartekaritza modalitate horren alderdi batzuk partzialki arautu ditu.

4. Urtero Euskal Autonomia Erkidegoko [Bitartekaritza Intrajudizialerako Zerbitzuen Memoriak aurkezten dira](#); horri esker agerian jartzen da goi aldeen arteko akordio maila, Estatuko batez bestekoari dagokionez.

2. ekimena. Bitartekotza sustatzea justizia leheneratzailearen eredu gisa alor juridikzional guztietan.

1.28.2 helburua. Bitartekaritza, justizi eredu leheneratzaile gisa

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Ordena zibilean bitartekaritzari buruzko proiektu pilotu bat egin da Donostiako epaitegietan, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiarekin eta Notarial Signum fundazioarekin lankidetzan. 2015eko azaroan Bilboko Justizia Jauregian administrazioarekiko ordenan bitartekaritzarako aukerei buruzko azterlan jardunaldi bat egin zen; bertan epaileek, fiskalek, abokatuek, justiziako zerbitzu publikoko kideek, bitartekariak eta bestelako profesionalak hartu zuten parte.

2. BJKNko lurralde mailako bokalarekin eta Lan Harremanen Kontseiluarekin bilera egin zen, ordena juridikzional sozialean bitartekaritza proiektu bat garatzeko.

3. 2014ko maiatzean Bilbon egin zen Bitartekaritza Elkarten estatu mailako III. Biltzarrean parte hartu zen, eta Medyar elkartearekin batera bitartekaritzarako prestakuntza praktikoko bi jardunaldi antolatu ziren; Gasteizen egin ziren, 2015eko martxoaren 6an eta 7an.

4. Gipuzkoako barruti judizial guztietan lan mintegiak antolatu dira, segurtasun espazioak sortzeko auzitegi barruko bitartekaritza penalaren arloan. Epaileek, fiskalek, idazkari judizialek, kudeatzaileek, abokatuek eta Justizia Zuzendaritzako Auzitegi Barruko Bitartekaritza Zerbitzuko arduradunek hartu zuten parte. Esperientzia positiboa izan zen, eta 2015. urtean Araba eta Bizkaiko lurralde historikoetara ere hedatu zen.

5. European Forum for Restorative Justice erakundearekin eta Madrileko Carlos III unibertsitatearekin batera justizia leheneratzaileari buruzko prestakuntza topaketa bat antolatu zen, "Developing judicial training for restorative justice: [Towards a European approach](#)" proiektu europarraren hirugarren etapako kide diren epaile eta fiskalentzat.

6. European Forum for Restorative Justice erakundearekin batera, Summer School 2015, Summer School 2015, udako eskola antolatu zen; forumak bi urterik behin antolatzen du bitartekaritza eta justizia leheneratzaileko profesionalentzat, arloan eredu europarra finkatzeko, baita Europar esperientziak eta jardun onak trukatzeko bide gisa ere; Lisboan egin zen, uztailaren 13tik 17ra.

7. 2014an Belfasten egindako hitzaldian, Eusko Jaurlaritza European Forum For Restorative Justice erakundeko zuzendaritza batzordeko (Board) kide aukeratu zuten, eta Justizia Zuzendaritzak prestakuntza bilera bat egin zuen Lisboan, 2015eko martxoaren 9an eta 10ean, hiri horretan uztailan egingo den udako eskola prestatzeko.

8. UPV/EHU babestu da, Kriminologiaren Euskal Institutuaren bitartez eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren Presidentziarekin lankidetzan, Justizia Leheneratzaileari eta Gatatzak Konpontzeko Metodo Alternatiboei buruzko Unibertsitate Ikastaro Osagarria antolatu zen; 2015-2016 ikasturtean bigarren edizioa antolatu da. Horrez gain, UPV/EHUren "Justizia Leheneratzailea: eremu penaleko bitartekotza" uda ikastaroa babestu zen eta bertan parte hartu zen. Donostian egin zen, uztailaren 23an eta 24an.

3. ekimena. Bide judizialaren barruan zein kanpoan bitartekotza zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea, bikoiztasunak eta irizpide desberdintasuna saihesteko helburuarekin.

1.28.2 helburua. Bitartekaritza, justizi eredu leheneratzaile gisa

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015-03-24an Gobernuak baimena eman zuen [Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin hitzarmen bat sinatzeko](#), bitartekaritza eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko beste neurri batzuetan lankidetzak baldintzak finkatzeko.

2. Familia Bitartekaritzako Aholku Batzordeak 2015-05-11n egindako bileran Justizia Zuzendaritzak ere parte hartu zuen, arlo horretan bere jardunaren berri emateko eta Familia Bitartekaritzako Zerbitzu Estrajudizialarekin existitzen zen harremana aztertzeko.

3. Auzitegi Barruko Bitartekaritza Zerbitzuaren "Lan Plana 2016" prestatu eta urtarrilean onartu zen.

4. ekimena. Lan Harremanen Kontseiluarekin lankidetza sustatzea, gizarte jurisdikzioan bide judizialaren barruko bitartekotzaren arloan.

1.28.2 helburua. Bitartekaritza, justizia eredu leheneratzaile gisa

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Ordena sozialean auzitegi barruko bitartekaritzarako proiektu pilotu bat ezartzeko bideragarritasunari buruzko azterlan bat egin zen.
2. Egindako lehenengo proiektu pilotuari buruz Lan Harremanen Kontseiluak emandako dokumentazioa ebaluatu da.

1. ekimena. Doako Laguntza Juridikoaren erregulazioa aldaraztea, babes judizial eragingarrirako eskuragarritasuna bermatzeko xedez.

1.28.3 Helburua. Babes judizial eragingarrirako eskuragarritasuna

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Abokatuen Elkargoak aurkeztutako proposamenaren testua aztertzea eta erkatzea, indarrean dagoen Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean jasotako araudiari dagokionez, Prozedura Zibileko Legea aldarazi zuen urriaren 5eko 42/2015 Legeak jasotako aldaketen ondoren.

2. Koordinazio bilerak Doako Laguntza Juridikoko Batzordeko arduradunen artean zerbitzuko arduradunarekin, jokatzeko irizpide komunak ezartzeko, doako justiziaren onura emateko edo ukatzeko eskatzen diren eskakizun formal eta materialei dagokienez. Horrez gain, 2015eko azaroan bilera bat egin zuten, doako laguntza juridikorako eskabideen inprimaki ereduak ezartzeko eta datuak modu telematikoan igortzeari buruzko zenbait gai finkatzeko, baita batzordeek emandako ukapen ebazpenen aurkako sistema berriari dagokionez ere.

3. Legelarien Euskal Kontseiluak doako laguntza juridikoaren dekretu arautzaile proposamen bat aurkeztu zuen 2016ko urtarrilean, une honetan indarrean dagoena ordeztuko duena. Justiziako Sailburuordetzak testuaren gainean egindako oharrak otsaileko lehen astean igorri zituen. 2016ko martxoaren amaierarako bilera bat deitu da, Abokatuen Elkargoarekin, testuari buruzko proposamenak eztabaidatzeko. Gizarte graduatuen eta prokuradoreen elkargoekin apirilean edo/eta maiatzean elkartzea aurreikusi da.

2. ekimena. Abokatuen elkargoekin lankidetzan eta elkarlanean jardutea, eremu horretako interes profesionali men egiteko helburuarekin.

1.28.3 helburua. Babes judizial eragingarrirako eskuragarritasuna

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Eusko Jurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan doako laguntza juridikoaren eskaria erantzuteko zuzkidurak areagotu ditu (krisi ekonomikoa eta estatu mailako legediak ezarritako tasa judizialen eragina)

-2013an, EAEko aurrekontuetatik Justiziako Sailburuordetzari dagokion atalean, 9,8 milioi euroko kopurua ezarri zen doako laguntza juridikoa bermatzeko.

-2014an, arreta jaso zuten pertsonen eta beharrezko zuzkiduren bilakaera areagotu egin zen aurreko urtearekin alderatuta.

-2015ean, Euskal Autonomia Erkidegoko doako laguntza juridikoaren 19.000 pertsona potentzialki onuradun aurreikusi dira, eta 14,5 milioi euroko zuzkidura bideratu da.

-2016an, Aurrekontuen Proiektuaren aurreikuspenetan ekitaldi honetarako 14,5 milioi euroko zuzkidurari eustea jaso da.

2. Gobernu Kontseiluaren 2015-07-07ko akordioaren bitartez, Elkarlan Zuzenbidearen Euskadiko Elkarteari 24.000 euroko diru laguntza eman zitzaion, elkarteak Justizia Zuzendaritzarekin batera egiten dituen elkarlan zuzenbidearen hedapen jardueri eusteko.

3. 2015-09-08an beste jarraipen bilera bat egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko abokatuen elkargoekin eta Legelarien Euskal Kontseiluarekin; Euskal Autonomia Erkidegoan LEXNET aplikazioa erabiltzen hasteari buruz eztabaidatu zuten.

4. 2016ko urtarrilean Legelarien Euskal Kontseiluak 2015eko Prestakuntza Planari buruzko memoria igorri zuen, eta otsailean 2016rako Prestakuntza Plana aurkeztu zuen, doako laguntza juridikoko zerbitzuak ematen dituztenentzat, genero indarkeriaren eta espexeko lege laguntzako gaietan

5. Eusko Jurlaritzak, legegintzaldian zehar, zenbait diru laguntza eman dizkie Euskal Autonomia Erkidegoko abokatuen elkargoei Euskal Autonomia Erkidegoan Doako Laguntza Juridikoan Zuzenbideko profesionalak prestatzeko eta espezializatzeke (2016. ekitaldirako izapidetzea aurreikusi da).

-2014. [Gobernu Kontseiluaren 2014-07-15eko Erabakia, 40.000 eurokoa.](#)

-2015. [Gobernu Kontseiluaren 2015-05-12ko Erabakia, 40.000 eurokoa.](#)

6. 2015. urterako EAEko Aurrekontu Orokorren bitartez, Eusko Jurlaritzak 40.000 euroko zenbatekoaren bitartez finantzatu zuen Arabako Abokatuen Elkarte, Abokatutzaren XI. Biltzar Nazionala antolatzeke; 2015eko maiatzean izan zen, Gasteizen.

7. Interpretazio osagarriaren emaitzen aplikazioa, abokatuen elkargoekin batera egindakoa, Doako Laguntza Juridikoa arautzen duen eta indarrean dagoen dekretu arautzailearen hutsune batzuei dagokienez.

1. ekimena. Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan berri bat onartzea langileen euskalduntzea eta euskarazko agirien normalizazioa bultzatzeko eta suspertzeko xedearekin.

1.28.4 helburua. Justiziaren administrazioarekiko harremanetan hizkuntza aukeratzeko eskubidea

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. EAEANren Gobernu Salaren eta Fiskaltzaren laguntza eta kolaborazioa. 1) Gobernu Salaren akordioa, 2015eko martxokoa, honako hau sustatzeko: bulego judizialean talde elebidunak eratzea, jarduteko protokoloan aurrerapausoak ematea euskarari dagokionez, eta epaile eta magistratuen komunitateak jarrera positiboak izatea. 2) Fiskaltzaren konpromisoa (Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiaren Memoria 2013 dokumentuan jakinarazi da), "Auzia Euskaraz" batzordeko bileran, 2014-03-27an fiskal euskalduna bidaltzeko euskarazko gaietan 3) Gobernu Idazkaritzaren akordioa, 2014ko abendukoa, talde elebidunak sortzeko eta herritarrei epaitegiko zitazioetan hizkuntza hautatzeko aukera emateko.

2. [Inprimaki juridiko elebidunak](#) prestatu dira abokatu eta prokuradoreentzat, eta euskarazko material juridiko guztia [webgune](#) berean bateratu da, euskarazko itzulpen juridikoen 330.000 unitate kontsultatzeko sarbidearekin.

3. Eusko Jaurlaritzak Itzulpengintza eta Interpretazio Zerbitzua eskainiko die organo judizialei, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. 2013an Itzulpengintza eta Interpretazio Zerbitzu horrek 1.180 aldiz esku hartu du (% 78,9 idatzizko dokumentuen itzulpena, gainerakoa ahozko prozedurak). 2014an Itzulpengintza eta Interpretazio Zerbitzu horrek 1.012 aldiz esku hartu du (% 77,4 idatzizko dokumentuen itzulpena, gainerakoa ahozko prozeduretan lagunduz).

4. Eusko Jaurlaritzak ["Trebataileak" Zerbitzua](#) ahalbidetu du Bizkaian eta Gipuzkoan eragile juridikoei arreta eman eta lantaldeak dinamizatzeko betebeharrak egiteko. Gai judizial guztietan euskara erabiltzea sustatzeari lotutako ekimen guztietan modu antolatuan eta koordinatuan jokatuko dute.

5. Arlo juridikoari eta euskaltzaleari ["Auzia Euskaraz"](#) proiektua aurkeztea, 2013ko abenduan garatutako ekitaldian. Proiektu honen helburua gai bat erabat euskaraz izapidetzeko aukera ematea da, hasieratik, abokatu batek salaketa bat aurkeztuz, barne izapidetzera arte, bulego judizialean, eta epaia eman arte. Proiektu pilotua martxan jartzea (Bergara-Gernika).

6. 2008an [Justizia Administrazioako Hizkuntza Normalizazioko Plana](#) prestatu eta onartu zen, juridikoki 152/2008 Dekretuan oinarritutakoa, Justizia Administrazioako hizkuntza normalkuntzarako prozesua arautu zuena. Dekretu hori partzialki baliogabetu zen, eta horrek eragina izan zuen aipatutako plana martxan jartzean. 2010ean [174/2010 Dekretua](#) onartu zen; erabat indarrean dago, aurretik onartutako Hizkuntza Normalizaziorako Plana egokitzea ekarri zuen, eta 2011-2020 aldirako moldatu zen. Justizia Administrazioako langileak euskalduntzeko deialdiei eutsi zaie.

2. ekimena. Botere Judizialaren Lege Organikoaren aldaketa bultzatzea hizkuntzen ofizialtasun bikoitza duten autonomia erkidegoetan tokiko hizkuntzaren behar bezalako ezagutza eta ezagutza nahikoa egiaztatzeko dagoen betebeharraren irismena eta edukia zehazte aldera.

1.28.4 helburua. Justiziaren administrazioarekiko harremanetan hizkuntza aukeratzeko eskubidea

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Uztailaren 21eko 7/2015 Lege Organikoaren behin betiko testuak ez du jaso Botere Judizialaren Lege Organikoaren Aurreproiektuari egindako alegazioak, Eusko Jaurlaritzak estatuko administrazioari 2014-06-09an bidalitakoak.

1. ekimena. [Erkidegoko gazteen justiziarako hezkuntza zentro bakoitzean hezkuntza proiektuen eraketa sustatzea.](#)

1.28.5 helburua. Adin txikiko arau hausleak gizarteratzean aurrera egitea

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Kontratu txiki bat sinatzea enpresa espezializatu batekin, zentroko hezkuntza arduradun profesionalen eta taldeen kanpo ikuskaritza psikosoziala egiteko; hala, 2015-03-06an onartutako 25/2015 Legez besteko proposamenean Eusko Legebiltzarrak eskatutakoa beteko da.

2. 2015eko urrian, Ibaiondo Hezkuntza Zentroko (Zumarraga) Egunerokotasun Taldeek, zuzeneko kudeaketa publikodunek, oinarritzko dokumentu berri bat prestatu dute, zentroko araudi gisa; zentroan bizi diren pertsona guztiek elkarbizitza errazteko prestatu dute, banakako zein talde mailako eskubideak errespetatuz.

3. 2015eko abenduan hirugarren sektoreko entitateekin lankidetzak hitzarmenak berriro dira, zeharkako kudeaketa duten gazte justiziarako sei hezkuntza zentroak kudeatzen dituztenak (Berriztu, Gaztarao Ekin eta Irse/Ebi Bizkaia), eguneko hiru zentroak (Berriztu) eta ingurune irekiko neurrien hiru zerbitzuak (Berriztu eta Irse Araba). Hitzarmen berrietan areagotu egin dira Uribarri Hezkuntza Zentroan plaza kopurua, giza baliabideen eskuragarritasunaren magnitudea, eta esku hartzeko proiektuak birformulatzea, adingabe arau hausleen profil berrien arabera.

4. 2014ko abenduan [Ibaiondo Hezkuntza Zentroa](#) berrantolatu egin zen adingabe arau hausleen profil berrietara egokitzeko: gertaera larriengatik neurri luzeagoak.

5. 2013-11-12an Eusko Jaurlaritzak estatuko administrazioarekin zeukan hitzarmena berriro zuen, [Auzitegi Nazionalak zigortutako euskal adingabeek zigorrak Euskal Autonomia Erkidegoan bete ditzaten.](#)

2. ekimena. Gazte Justiziarri buruzko IV. Plangintzaren prestaketa sustatzea, funtsean hura hobetzera eta berrerortze mailak murriztera bideratuz, behin aldez aurretiko plangintza ebaluatu eta gero.

1.28.5 helburua. Adin txikiko arau hausleak gizarteratzean aurrera egitea

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015-09-22an Gobernu Kontseiluak "[EAEko Gazte Justizia IV. Plana 2014-2018](#)" onartu zuen, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuak plana Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuen 2015-11-18an egindako agerraldian.

3. ekimena. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dagokienez, erakundeen arteko lankidetzaz suspertzea.

1.28.5 helburua. Adin txikiko arau hausleak gizarteratzean aurrera egitea

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Uztailaren 28ko 26/2015 Legearen laugarren xedapen gehigarria aztertzea, haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duena, jarrera arazoak dituzten adingabeak babesteko erakunde publiko eskudunen entitate pribatu kolaboratzaileen zentro zehatzen araubide juridikoari buruzkoa. Irismena zehaztea eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean jasotzeko ukapen ziurtagiria izateko betebeharrak zabaltzea adingabeekin ohiko harremana izango duten pertsona guztientzat.

2. Justizia Zuzendaritzak bilerak ditu Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin estatu mailako eta erkidegoko araudia aztertzeko adingabe arau hausleen kasuan eta, aldizka, foru aldundiekin batzartzen da jokabide protokoloen aplikazioa berrikusteko.

3. Justizia Zuzendaritzak, gainera, MENAS (bakarrik dauden atzerritar adingabeak) eta JENAS (bakarrik dauden atzerritar gazteak) lantaldeko bileretan ere parte hartzen du, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin, foru aldundiekin, Adingabeen Fiskaltzarekin, Gobernuak Bizkaian duen ordezkariordetzarekin eta Polizia Nazionalarekin batera.

4. ekimena. Buruko desorekak dituzten gazte arau hausleentzat zentroetan sartzeko eta tratamendu terapeutikoa jasotzeko neurriak ezartzea bultzatzea.

1.28.5 helburua. Adin txikiko arau hausleak gizarteratzean aurrera egitea

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2016. ekitaldirako luzatu egin da Arrasateko Aita Menni Ospitalearekin zegoen hitzarmena, 2014ko irailean sinatutakoa, Ibaiondo Hezkuntza Zentroan dauden adingabeei espezializatutako arreta psikiatriakoa zentroan bertan eta, beharrezkoa denean, ospitalean emateko.

2. Adingabe arau hausleak, araubide irekia badaukate, Osakidetzan edo Eusko Jaurlaritzako Justizia arloak finantzatutako terapeuta pribatuekin tratamendua terapeutikoa jasotzen dute.

5. ekimena. Atzerriko adingabeei doako laguntza juridikoa erraztea haien adina zehazteko diligentsiak hasten direnetik, betiere doako laguntza juridikoa arautzen duen dekretuaren aldarazpena sustatuz.

1.28.5 helburua. Adin txikiko arau hausleak gizarteratzean aurrera egitea

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Adingabeentzako doako laguntza juridikoa Doako Laguntza Juridikoaren Lege berria bermatzen da biktima diren kasuetan, eta Doako Laguntza Juridikoari buruzko ekainaren 19ko [110/2012 Dekretuaren](#) araubide orokorra jarraitzen da, gainerako kasuetan indarrean dagoena adina zehazteko proben emaitzak judizialki inpugnatuz gero.

6. ekimena. Adingabeen Bide Judizialaren barruko Bitartekotza Zerbitzua ezartzea.

1.28.5 helburua. Adin txikiko arau hausleak gizarteratzean aurrera egitea

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Talde Psikosozial Judiziala osatzen duten langileek bi prestakuntza ekintzetan parte hartzea sustatu da, bitartekaritza arloan, etengabeko prestakuntza bermatzeko; izan ere, ezinbestekoa da adingabeekin egin ohi duten bide judizialaren barruko bitartekaritza lana betetzeko.

2. 2015eko ekainean [adingabeen bide judizialaren barruko bitartekaritzari lotutako 2014ko balantzea](#) argitaratu zen; bitartekaritzarekin itxitako gazte justiziaren 263 kasu izan ziren, eta kasuen % 84an akordioa lortu zen. Itxitako kasu gehienak Bizkaian gertatu ziren, % 53,2 (140 kasu). Araban 59 kasu egon ziren, eta Gipuzkoan 64. Bitartekaritza lan gehienak, % 77,9, mutikoekin egiten da.

3. 2015-04-27an Eusko Jaurlaritzak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak hitzarmen bat sinatu zuten, informazioa trukatzeko eta prestakuntza plan zehatzak garatzeko [bide judizialen barruko bitartekaritzaren](#) arloan (adingabeen bitartekaritzaren irismenarekin).

1. ekimena. Espediente elektronikoa judiziala bultzatzea eta sustatzea.

1.28.6 helburua. Informazio teknologiak txertatzea

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Justizia Administrazioaren Egoitza Judizial Elektronikoa sortzeko aginduaren zirriborroa prestatze fasean dago, EAEko esparru judizialari dagokionez. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, Administrazio Judizial Elektronikoaren Estatuko Batzorde Teknikora eta Datuak Babesteko Euskal Bulegora bidali zen 2016-02-22an.

2. JustiziaBat Prozesua Kudeatzeko Sistemaren moduluak ezartzea. Une honetan martxan dauden moduluen bilakaera eta mantentze-lana alde batera utzita, honako aplikazio hauek ezarri dira: 2014ko urrian Fiskaltzaren modulu Arabako Probintzia Fiskaltzan; 2015eko martxoan Gipuzkoako Probintziako Fiskaltzan, eta 2015eko apirilean Bizkaiko Fiskaltzan.

3. JustiziaInf aginte taula 2015eko bigarren seihilabetean ezartzea. Justizia Administrazioaren antolakuntza eta jardunaren ezagutzaren informazio gordailua, datu globalei buruzko joerak lortzera bideratutako adierazleak, modu grafikoan, zenbaki xehetasunen aurretik eta adierazleen azterketa eta txostenak lortzea.

4. Erakundeen arteko lantaldeetan parte hartu da, espediente judizial elektronikoari, eskema eta izapidetze fluxuei, estatistika judizialei dagokienez.

5. Euskadiko Abokatuen Elkargoaren eta Doako Justiziaren aplikazioaren artean elkarreragina existitzen da, eta Idazkaritza Koordinatzaileak kudeatzeko aplikazio bat finkatu da.

6. Bulego judizialen eta prokuradoreen arteko komunikazioak gaitu dira, komunikazioa azkartzeko JustiziaSip aplikazioaren bitartez.

7. [Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazioan Sistema Informatiko Judizialaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezko zerbitzuak](#) emateko kontratua betearazpen fasean dago.

2. ekimena. Justizia hobetzeko beharrezkoa eta nahitaezkoa den tresna gisa teknologia berrien erabilera orokorra bultzatzea.

1.28.6 helburua. Informazio teknologiak txertatzea

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Kudeaketa sistemak pixkanaka ezartzeko prozesua, Justizia Administrazioan parte hartzen duten eragileei zuzendutakoak:

-Lantalde psikosoziala: Familia eta babes epaitegien esparrura bideratuta, adituen txosten eskaerak bidaliz, eta adingabe, zigor epaitegien eta fiskaltzaren esparrura bideratuta, bitartekaritza eta aholkularitza eskaerak bidaliz.

-Espetxe Zaintza Exhorto, baliabide eta gai propioen erregistro informatikorako lanak erraztera bideratutakoak.

- Gauzen gordailua: Zigor kausetan jasotako objektuak modu bateratuan zaintzera bideratutakoa.

-Perituak: Ingurune judizialean perituen lana kudeatu eta izapidetzeari lotutako premiak betetzera bideratutakoa.

-Doako Justizia-kudeaketa ekonomikoa: Kudeaketa ekonomikoa erraztera bideratutakoa, lurraldearen ikuspuntutik zein doako justiziarik lotutako gastu eta diru-sarreraren ikuspuntu globaletik.

-Exhortoak: Justizia informazioko sisteman formatu digitalean eskaerak bi norabideetan trukitzea, izapidetzea eta komunikatzea erraztera bideratutakoa, jatorria beste erkidego bateko bulego ofizial bat zein Euskal Autonomia Erkidegoko Bulego Judizial bat izan.

-Adingabeen Fiskaltza - Estatuko Fiskaltza Nagusiko Adingabeen Sala Koordinatzailearen fiskalaren funtzioei erantzuna ematera bideratuta.

- IVML-JustiziaBat integrazioa: EAEko auzitegien eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen arteko bi norabideko zuzeneko komunikazio automatizatura bideratutakoa.

- Epaiketa aretoetan grabazio sistemak teknologikoki berritzea: Epaiketa aretoetan gaur egun dagoen grabazio sistemaren zaharkitzea gainditzera bideratutakoa

- Dokumentuak kudeatzeko sistema: JustiziaBat osatzera bideratutakoa, agirien kudeaketari dagokion jardun guztia eraginkortasunez eusteko helburuarekin.

2. JustiziaBat prozesuen kudeaketa sistemaren migrazioa Bulego Judizialaren egitura berrira. 2014an Gasteizen egin zen, 2015. urtean Barakaldon, eta 2016an Donostian egitea espero da.

3. 2013an "[Komunikazio telematikoei buruzko proba proiektua](#)" martxan jarri zen, Barakaldoko barruti judizialaren eta Sestaoko, Santurtziko eta Portugaleteko bake epaitegien artean, Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salan egindako esperientzia oso ona izan zelako. Gainerako barruti judizialek ere zabaltzen ari da.

3. ekimena. Justizia Administrazioak erabiltzen dituen sistemen eta aplikazioen elkarrekiko lotura erraztea, koordinazio eta eraginkortasun judizial hobea lortzeko.

1.28.6 helburua. Informazio teknologiak txertatzea

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015ean JustiziaInf aginte taulak ezarri dira. Justizia Administrazioaren antolakuntza eta jardunaren ezagutzaren informazio gordailua, datu globalei buruzko joerak lortzera bideratutako adierazleak, modu grafikoan, zenbaki xehetasunen aurretik eta adierazleen azterketa eta txostenak lortzea. Postu hori Idazkaritza Judizialaren esku dago, gaurko datuekin eguneratuta, modu normalizatuan erabiltzeko. Fiskaltzaren jardueraren adierazleak txertatzeko azterketa hasi da.

2. JustiziaSip ezartzea. Profesionalentzako informazio sistema da, eta etorkizunean, baita herritarrentzat ere. Salaketak eta idatziak modu telematikoan aurkezteko aukera ematen du, izapidetze fasea kontsulta daiteke eta ikustaldiak adieraztea. Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegien eta auzitegien jurisprudentzia zerbitzua. Profesionalek jakinarazpenak eta ohartarazpen oharrak jasotzea (abokatu prokuradoreak eta gizarte graduatuak) eta, etorkizunean, esku hartzen duten herritarrek ere. Halaber, profesionalen ordezkapenak, aldaketak edo izendapenak kudeatzeko aukera ere ematen du. Esperientzia pilotu bat garatzen ari da Arabako prokuradoreekin, ondoren komunikazio sistema EAeko gainerako lurraldeetara hedatzeko.

3. 2015-05-27an Bilbon egindako bilera, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren eta Justiziako Estatuko Idazkaritzaren artean; bertan lantalde misto bat eratzeko konpromisoa hartu zen, Lexnet EAen erabiltzen den prozesu kudeaketarako sistemara (JustiziaSip) egokitzen saiatzeko.

4. Administrazio Judizial Elektronikoko Estatuko Batzorde Teknikotik eratorritako diziplina anitzeko lantalde teknikoetan parte hartzea. Euskal Autonomia Erkidegoak talde horietan parte hartzen du: Aginte taula, dokumentuak eta mugarriak, eta Justizia Administrazioari laguntzeko Erregistro Administratiboaren Sistema.

5. Administrazio Judizial Elektronikoko Estatuko Batzorde Teknikoaren Bilkuraren Etengabeko Batzordearen eta Batzorde Teknikoaren bileretan etengabeko parte hartzea.

6. Legegintzaldian zehar dagoeneko garatutako aplikazioak ekoizpenean jartzea bilatuko da: gauzen gordailua, talde psikosoziala, Peritazio Zerbitzua, Itzulpen Zerbitzua, CENDOG.

7. Idazkaritza Judizialek bete behar dituzten estatistika buletinaren ezarpen orokorrerako prozesua, Justizia Ministeriorako eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusirako.

1. ekimena. Botere Judizialari buruzko Lege Organikoa alda dezaten premiatzea, Eusko Jaurlaritza izan dadila oinarri judiziala eta urteko programazioak diseinatzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegien sorrera zehazten duena.

1.28.7 helburua. Justizia administrazioaren deszentralizazioa

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Uztailaren 21eko 7/2015 Lege Organikoaren behin betiko testuak ez du jaso Botere Judizialaren Lege Organikoaren Aurreproiektuari buruzko alegazioak, Ministeriora 2014-06-09an bidalitakoak.

2. ekimena. Eusko Jaurlaritzak langile transferituen kudeaketa integrala aurrera eramateko beharrezko neurriak hartzeko eskatzea, idazkari judizialen kidegoa sartuz.

1.28.7 helburua. Justizia administrazioaren deszentralizazioa

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. Gaia Justiziako Konferentzia Sektorialean planteatu zen, 2013-12-12ko prestatze saioan, eta 2013-12-16ko Bilkuran.

1. ekimena. Euskal foru zuzenbide zibila aldaraztea oinordetza zuzenbidearen eta ezkontza araubidearen eremuan.

1.28.8 helburua. Foru zuzenbide zibilaren garapena eta betearazpena

Arduraduna: Ana Agirre Zurutuza (Justiziako sailburuordea)

Jarduketak

1. 2015ean Eusko Legebiltzarrak ekimena erabat betetzen duten lege hauek onartu zituen:

- 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa (EHAA, 124. zk, 2015-07-03koa).
- 7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, Gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa (EHAA, 129. zk, 2015-07-10ekoa).

2. 2015-03-31n, Gobernu Kontseiluan, Euskal Zuzenbide Zibilaren Lege proposamena izapidetzearen [Gobernuaren aldeko posizioa](#) onartu zen, ekainaren 25eko 5/2015 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilaren lege gisa onartu zena. Lege honek, euskal auzotasun zibilaren kontzeptuaren barruan, oinordetza arautzeari eta ezkontza araubide ekonomikoari buruzko planteamenduak jaso zituen.

3. 2013-12-18an Justiziako sailburuordeak [agerraldia eskaini zuen Eusko Legebiltzarrean](#), zaintza partekatuari buruzko legegintzako herri ekimenari dagokionez Gobernuaren jarrera azaltzeko; aipatutako ekimena Eusko Legebiltzarrean onartu zen ekainaren 30eko 7/2015 Lege gisa, Gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa.

4. Legegintzaldiaren lehenengo zatian, bultzada eman zitzaion txosten lanari, Zuzenbidearen Euskal Akademiarekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan, arlo horretako araudi garapenerako proiektuak ikertzeko eta prestatzeko.

1. ekimena. Giza eskubideen urraketak egiaztatzeko txosten independente bat prestatzea eta hari zabalkunde ematea.

2.1.1. Bake eta Bizikidetzaren Plana, iragana argitzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduerak:

1. 2013-06-14an EAEko Giza Eskubideen Urraketei buruzko txostena (1960-2013) aurkeztu zen. Txostenak gure herrian epe horretan izandako giza eskubideen urraketa larriak sailkatu eta kuantifikatzen ditu (ikerketa eta ordaina ematearen inguruko hutsuneak detektatzen laguntzen du, ikuspegi global bat eskaintzen du, bai eta Bake eta Bizikidetzaren Planaren esparruan eta biktimei ordaina emateko etorkizunean garatu beharko diren jarduketan oinarri izango diren iradokizun multzoa ere).

2. 2013-06-14an [Bake eta Bizikidetzaren Plana 2013-2016](#) aurkeztu zen, eta parte hartze fase bat ireki zen (planaren beraren I. ardatzaren 1. ekimena).

3. 2014-11-04an [Memoria Historikoaren arloko Lehenengo Oinarri Programa 2015-16](#) aurkeztu zen; 12 lan proiektu biltzen ditu. Lehenengoak eta proiektuak antolatze oinarriko egitura egiazko eskubidea, justizia eskubidea, erreparazio eskubidea eta berriz ez gertatzeko bermeak zituen ardatz.

4. 2014-01-05ean Eusko Jaurlaritzak [1960tik 2014ra bitartean heriotza eragindako erakunde terroristek burututako atentatuaren egoera judizialari buruzko txostena](#) aurkeztu zuen.

5. 2015-04-01ean [Zuzendu programa](#) aurkeztu zen, giza eskubideen gaineko autokritikaren pedagogia bat hedatzeko programa, hipotesi hau oinarri hartuta: autokritika gakoak izan daitezke iragana gaitzitu ahal izateko, oraina berregiteko eta etorkizunari begiratzeko gutxieneko akordio batera heltzeko. Autokritika ere garrantzitsua izan daitezke gizarteratze prozesuetan.

6. 2015-10-30ean eta 31n lehenengo Zuzendu Jardunaldiak ospatu ziren Donostian, "Autokritikaren balioa" izenburupean.

7. 2015-12-30ean "Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko 2015-2020 aldirako EAEko Plana, hobien kokapena ikertzeko eta lokalizatzeko" aurkeztu zen.

8. 2016ko apirilean bi azterlan aurkeztu ziren: bata, orokorra, mehatxuen errealitate eta eraginari buruzkoa, eta bestea, espezifikoak, mehatxuok Ertzaintzan duten eraginaren ingurukoa.

2. ekimena. Oroimenaren institutuaren proiektua.

2.1.1 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, iragana argitzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. 2013-06-06an EAJ eta PSOEn arteko akordioa lortu zen, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortu eta martxan jartzeko.

2. 2013-10-23an Eusko Legebiltzarrak Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko [lege proposamena](#) aintzat hartzea onartu zuen.

3. 2014/11/27an [azaroaren 27ko 4/2014 Legea, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeri buruzkoa](#) onartu zen. 2014ko abendutik 2015eko ekainera, Memoriaren Institutua sortzeko beharrezko izapideak garatu ziren.

4. 2015eko ekainaren 23ko Gobernu Kontseiluak Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua martxan jartzea ofizializatu zuten dekretuak onartu zituen.

-Ekainaren 23ko [112/2015 Dekretua](#), Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren 2015eko aurrekontua onartzeko dena.

-Ekainaren 23ko [115/2015 Dekretua](#), Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria izendatzeko dena;

-Ekainaren 17ko [16/2015 Dekretua](#), Lehendakariarena, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Instituturen jarduerari ekiteko xedatzen duena.

5. 2015-11-07an memoriako politika publikoei buruzko jardunaldi bat ospatu zen, "Nazioarteko esperientziak memoriaren kudeaketan" izenburupean.

2015-11-10ean ekitaldi publiko bat egin zen, eta Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren proiektua aurkeztu zen. Institutuaren egoitzan egin zen, eta 250 pertsona bertaratu ziren.

7. 2016ko lehen seihilekoan Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak erakusketa ibiltari bat garatu zuen, Memoriaren Plaza herritarren partaidetza ekimena tarteko, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat herritan.

3. ekimena. Terrorismo biktimak gogorarazteko proiektuan parte hartzea.

2.1.1 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, iragana argitzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. 2013-07-09an Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak eta Estatuko Segurtasuneko idazkariak bilera bat egin zuten, zenbait gai argitzeko. Harrezkero, Eusko Jaurlaritzaren Espainiako Gobernuaren Batzarre Mistoa biltzeko deia noiz egingo zain dago.
2. 2014ko maiatzean beste bilera bat egin zen Barne Ministerioarekin. Espainiako gobernuari dagokio proiektu hori zuzendu eta dinamizatzea; bilera horretan lan proposamen bat aurkezteko konpromisoa hartu zuen.
3. 2014ko irailean Eusko Jaurlaritzak bi aditu independenteen izena ekarri zituen Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa definitzeko batzordean parte hartzeko.
4. 2015eko otsailean Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroa definitzeko adituen batzordearen txostena aurkeztu zen; bertan Oroimenezko Zentroa diseinatzeko zenbait gomendio jaso ziren.
5. 2014-03-24an Lehendakariak eta Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroaren instalazioari lotuta Gasteizen antolatutako ekitaldietan parte hartu zuten.
6. 2015-11-27an Eusko Jaurlaritzak izendatutako ordezkariak Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroaren Fundazioko Patronatua eratzeko bileran parte hartu zuten, Madril.

4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea.

2.1.1 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, iragana argitzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. Legegintzaldian zehar, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta laguntza eskaintzea sustatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzen deialdiak izapidetu dira. [Laguntzen deialdia 2013](#). [Laguntzen deialdia 2014](#).
2. 2013-10-24an urriaren 16ko 426/2013 Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko dekretua aldatu zuena.
3. 2014ko ekainean [Memoriaren Mapari](#) bultzada berritzailea eman zitzaion, udal guztietara igorri zen dokumentu baten bitartez; bertan, indarkeria eta terrorismoaren biktimak aintzatesteko eta memoria lantzeko udal esparruko jarduketak garatzeko iradokizunak jaso ziren. 2014-12-17an Memoriaren maparen garapen lanari buruzko balantzea aurkeztu zen Eusko Legebiltzarraren [Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordean](#).
4. 2014-09-24an "Biktimen arloko politiken eta ekimenen kudeaketa txostena" dokumentua aurkeztu zen; bertan, [Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren](#) esparruan jarduteko hamabost ildo zehaztu dira.
5. 2015eko urtarrilean Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak izeneko proiektuaren lehen fasea aurkeztu zen Donostian, Gasteizen eta Bilbon.
6. 2015-06-04an Lehendakariak harrera pribatu eskaini zien terrorismoaren biktimei . Hurrengo egunean hausnarketa jardunaldi bat egin zen Donostian, "Terrorismoaren biktimak eta gizartea" izenburupean; euskal gizarteko ordezkariak, biktimei elkarrekin eta biktimei gonbidatu zituzten.
7. 2015-09-22an Gobernu Kontseiluak Batera Konpromisoa onartu zuen, biktimei politikan aro berri bat bultzatzeko, etorkizunerako ikuspegia eta bizikidetzaren erdiesteko biktimak eta gizartea batzeko ikuspegia oinarri hartuta.
8. 2014ko maiatzean abiarazitako [Gertu programaren](#) bigarren faseari 2015eko bigarren seihilekoan ekin zitzaion, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eraildako biktimei familia guztiekin elkarrekin zuzena izatea ahalbidetu duena, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eraildako biktimei familien testigantzak grabatzeko.
9. 2016-03-11n, Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean, terrorismoaren biktimei aldeko aitopenei instituzionala egin zen Donostian "Utzitako hutsunearekin eraiki nahi dugu etorkizuna" lelopean.

5. ekimena. Egungo araudiak babesik ematen ez dien biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea

2.1.1 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, iragana argitzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. Urriaren 16ko 426/2013 Dekretua onartu zen, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko dekretua, aldatu zuena.

2. Estatuak errekurtsioa aurkeztu zuen 107/2012 Dekretua aldatzearen aurka, eta Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoek kasuan kasuko alegazioak aurkeztu zituzten. Ildo beretik, errekurtsio horren eragina jaso zuten biktimekin bilerak egin ziren, eta jarraitutako eta jarraituko diren urrats guztiei buruzko informazioa eman zaie. 2014-04-24ko 267/2015 Epaia eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Salak; horren bitartez, partzialki onartu zen Auzitegi Gorenaren aurrean administrazioarekiko errekurtsioa jaso dezakeela.

3. 2014-09-29an lan jardunaldi bat antolatu zen adituekin eta eragindakoekin, biktimen politika horien inguruan izan daitezkeen adostasunak eta aukerak aztertzeko.

4. 2015-01-13an Kriminologiaren Euskal Institutuaren (KREI) irizpena eman zen, terrorismoaren biktimen kalte-ordainei buruzkoa, Barne Ministerioak ezetsitako ebazpenei dagokienez.

5. 2015eko otsailean Kriminologiaren Euskal Institutuari proposamen bat idazteko eskatu zitzaion, aurreproiektu bat prestatzeko eta, ondoren, giza eskubideen urraketa ez aintzatetsien biktimak aintzatesteko lege bat onesteko.

6. 2015-12-15ean 107/2012 Dekretua kudeatzen bukatu zen, 1960tik 1978ra bitartean, giza eskubideen urraketan biktima ez aitortuak aitortzeko eta erreparatzeko.

7. 2015-12-23an arau proposamena aurkeztu zen, eta 2016-02-17an Lehendakariak 4/2016 Dekretua sinatu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako legez kontrako errepresio jardueren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko Legearen Aurreproiektua alde aurretik onartzen duena.

8. 2016-02-18an "Giza Eskubideen Urraketak jasandako Biktimen Balorazio Batzordearen Txostena 1960-1978" aurkeztu zen.

9. 2016-02-20an giza eskubideen urraketak jasan dituzten aitortu gabeko biktimentzako erreparazio proposamenei buruzko jardunaldi bat egin zen Donostian.

6. ekimena. Torturari buruzko ikerketa eta ekintza

2.1.1 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, iragana argitzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. 2014ko maiatzean tortura kasuetan aztertzeko ezarri beharreko protokoloei buruzko txosten bat jaso zen, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izandako indarkeria politikoaren barruan, 1960 eta 1978 bitartean giza eskubideak urratu zitzaizkielako sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimei aitortzea eta ordaina emateari buruzkoa.
2. 2014-06-28an Kriminologiaren Euskal Institutuari (KREI) egindako enkargua, hau da, [1960-2010 aldiko torturak Euskadin ikertzeko proiektua](#) aurkeztu zen; Francisco Etxeberriak, Carlos Martín-Beristainek, Benito Morentinek eta Laura Pegok egin zuten. Horren berri eman zaio Europako Kontseiluaren Torturari Aurre Hartzeko Batzordeari.
3. 2015-02-06an torturari buruzko azterketaren diseinu eta lehen urratsei buruzko KREIren aurretiko txostena aurkeztu zen. 2015eko bigarren seihilekoan, 1960-2010 aldiko torturak ikertzeko proiektuak, Kriminologiaren Euskal Institutuak egiten duenak, aurreikusitako etapak bete ditu, ekainean aurkezte aldera.

1. ekimena. Europar Batasunarekiko eta eskualdeen arteko lankidetzaren ildoak bultzatzea.

2.1.2 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, oraingo gizartea normalizatzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (*Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia*).

Jarduketak

1. 2013-04-23an eta 24an topaketa bat egin zen Lehendakariaren eta hainbat europar erakunderen ordezkarien artean, besteak beste, bakearen eta bizikidetzaren arloan lankidetzaren jarduteko aukerak aztertzeko.
2. 2013-11-04an Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak Bruselan izandako europar topaketa batean hartu zuen parte: [International Peace Symposiumean](#).
3. 2014-01-16tik hilaren 18ra Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak batek topaketa batean hartu zuen parte [SEUPBekin batera](#) (EBko Programa Bereziak Kudeatzeko Arduraren Erakundea) , Belfasten.
4. 2014-10-21etik 24ra bakearen eta elkarbizitzaren gaineko lankidetzaren europar proiektuei buruzko topaketa izan zen Bilbon, SEUPB eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Zuzendaritzaren Nagusiak antolatuta. Topaketaren helburua [IV Peace Programme](#) esparruan txerta daitezkeen lankidetzaren proiektuak identifikatzea izan zen.
5. 2015eko lehen seihilekoan zehar, lankidetzaren programa bat aurkeztu eta SEUPBekin koordinatu zen, hiru esparrutan: gazteria, hezkuntza eta biktimak.
6. Proiektuak martxan jartzeko Europako erakundeek [IV Peace Programme](#) programa onartu behar dute.

2. ekimena. Lankidetzaren eta baterako lana Eusko Legebiltzarrarekin.

2.1.2 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, oraingo gizartearen normalizatzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. 2013ko lehenengo sei hilabeteetan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia bi aldiz agertu zen Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordearen aurrean, eta behin Bake eta Bizikidetzaren Ponentzian. Gainera, etengabe egon da harremanetan talde parlamentario guztiekin.
2. 2013-11-10an indarkeriaren eta terrorismoaren biktimen [Memoriaren Eguna](#) modu bateratuan omentzea bultzatzeko proposamen bat aurkeztu zen, Eusko Legebiltzarraren Presidentziara zuzendutakoa, eta onartu egin zen. Harrezkero, omenaldia modu ahal bezain bateratuan egitearen aldeko apustuari eutsi zaio.
3. 2014an eta 2015eko apirilera arte, Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak etengabeko harremana izan du Eusko Legebiltzarreko talde parlamentarioekin, eta hiru aldiz baino gehiago agertu da Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen Batzordearen aurrean.
4. 2015eko martxoan, Eusko Legebiltzarraren eta Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren arteko lankidetzarako sistema bat artikulatu zen, herritarren parte hartzea sustatzeko web orrien bidez, [Adi Bakea](#) eta Irekia atarien bidez, hain zuzen ere.
5. Eusko Jaurlaritzak balizko komunikazio eta lankidetzaren lerro guztiak zabalik ditu Eusko Legebiltzarrarekin eta talde parlamentarioekin, orain arte Bake eta Bizikidetzaren Ponentziak dagozkion lanak garatzea ezinezkoa izan den arren, talde parlamentarioen akordioak ezagatik.

3. ekimena. Elkarrizketa Espainiako Gobernuarekin.

2.1.2 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, oraino gizartea normalizatzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. Lehendakaria 2013an zehar hainbat aldiz elkartu zen Espainiako Gobernuko presidentearekin, eta kartzela politikaren eta bake eta bizikidetzarekin lotutako hainbat ekintzaren inguruko hainbat dokumentu eta proposamen aurkeztu zituen, idatziz. Gaur arte, proposamen horiek ez dute erantzunik jaso.
2. 2014-10-01ean presoak gizarteratzeko prozesu legalak babesteko [Hitzeman programa](#) modu publikoan aurkeztu zen. Une horretan bost hilabeteko epea ireki zen norabide guztietan hitz egiteko, dokumentuaren gaineko oharra jasotzeko eta adostasunak bilatzeko.
3. 2014-11-29an [Zuzen bidean proposamena](#) aurkeztu zen, hogeit hamar proposamenekin, ETA amaitu eta gero normaltasun egoera berriz osatzeko, zigor zuzenbidearen arloan eta espetxe zuzenbidearen arloan, eta bizikidetzaren gizarte eta politika normalizazioa izaten laguntzeko.
4. 2015-04-01ean Lehendakariak jakinarazi zuen [Hitzeman programa](#) probatzeko fase pilotu bat hasiko zela 2015eko ekainean, mailakako ikuspegi batetik eta hauteskunde prozesuek eragiten duten "zarata" politikoa saihestuz.
5. Gizarteratze eredu zehatza definitzera bideratutako esperientzia pilotua aurreikusi bezala garatzen ari da. Halaber, Hitzeman proiektuaren esperientzia pilotua azken fasean sartu da, ekainean aurkezte aldera (2016ko martxoa).

4. ekimena. Lankidetza Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarekin

2.1.2 helburua. Bake eta Bizikidetza Plana, oraingo gizartea normalizatzeko

Arduraduna: *Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).*

Jarduketak

1. 2014-10-01ean Lehendakariak eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioak Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Nagusiaren arteko elkar ulermen memoranduma sinatu zuten, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideak sustatzeko. Horren haritik, [“Memoria Historikoaren arloko Lehenetsunaren Oinarri Programa 2015-2016”](#) bidali zen, eta egiarako, justiziarako, erreparaziorako eta berriz horrelakorik ez gertatzea bermatzeko eskubidearen sustapenari buruzko errelatorearen balioespena jasotzeko zain gaude.

2. 2015ean, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarekin (Acnudh) lankidetza estuan jardun zen, eta elkarriketa bat izan zen Genevan 2015-10-01ean eta hilaren 2an, harremanak estutzeko.

5. ekimena. Unibertsitateekin eta bestelako erakundeekin lankidetzan eta elkarlanean jardutea.

2.1.2 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, oraingo gizartea normalizatzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (*Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia*).

Jarduketak

1. 2013-06-19an topaketa bat ospatu zen Lehendakariaren eta EAeko hiru unibertsitateetako (UPV/EHU, Deusto eta Mondragon Unibertsitatea) errektoreen artean, Bake eta Bizikidetzaren Plana 2013-2016 ezartzen laguntzeko, gizarte topaketa eta bakea finkatzeko gaur egungo prozesuan ekarpen partekatua izateko. Azken finean, helburua oinarri zientifikoa eta akademikoa izango duen proiektu bat lortzea zen, bakearen eta bizikidetzaren arloan aurrera egitea errazteko bokazio praktikoa eta zehatza izango duena. Hiru unibertsitateek elkar hartuta egindako lan hori 2015-2018 Unibertsitate Planean jaso zen. .

2. 2014-01-08an Eusko Jaurlaritzaren eta EAeko hiru unibertsitateen arteko [hitzarmen marko](#) bat sinatu zen, bakeari eta bizikidetzari bultzada ematerakoan esparru akademikotik kolaboratzeko. Hitzarmena Lehendakariak eta EHU-UPVko, Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko errektoreek sinatu zuten.

3. 2014-07-16an, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru unibertsitateen arteko hitzarmen bat sinatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan bakeari eta bizikidetzari dagozkion gaiei buruzko mintegi bat antolatzeke eta txosten bat prestatzeko.

4. 2014-02-18an “Gizarteratzea eta ETako presoak: azterketa juridikoa eta etorkizunerako orientabideak” txostena EAeko hiru unibertsitateen aurrean aurkeztu zen.

5. Halaber, 2014-02-18an Eusko Jaurlaritzaren eta hiru euskal unibertsitateen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak bilera bat egin zuen, bakeari eta bizikidetzari bultzada ematerakoan esparru akademikotik kolaboratzeko, 2015eko Lan Programa zehazte aldera; programa horren helburu nagusia Bake eta Bizikidetzarako Hezkuntza unibertsitatearen esparruan txertatzea aztertzea zen.

6. 2015eko bigarren seihilekoan hiru unibertsitateek 2015erako aurreikusitako proiektuan egin zuten lan, unibertsitate eremuan bakerako hezkuntzarako lanabesak prestatzeko, hain zuzen.

7. 2015. urtean zehar hiru unibertsitateek jorratutako lana aurkezteko prestatze lanak egiten ari dira, (2016-04-28rako aurreikusitakoa); unibertsitate eremuan bakerako hezkuntzarako lanabesak prestatzeko lana izan da, hain justu ere.

6. ekimena. Ertzaintzak bizikidetza eta giza eskubideen alde duen gizarte konpromisoaren jarraipena

2.1.2 helburua. Bake eta Bizikidetza Plana, oraingo gizartea normalizatzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. 2014ko martxoan, Amnistía Internacional erakundeak giza eskubideei buruzko ikastaro bat eskaini zuen Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiako irakasleen aurrean.

2. 2014an [Ertzaintzaren Plan Estrategikoa 2016 Ortzimuga](#) dokumentuaren haritik egin ziren lanen barruan, lantalde zehatz bat sortu zen Bake eta Bizikidetza Plana 2013-2016 ekimenen artean Ertzaintza tartean dagoen egitasmoak garatzeko. Lantalde hori Ertzaintzako eta Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiako kideek osatzen dute.

3. 2014ko apirilean Segurtasun Sailak barne jarraibide bat onartu eta eman zuen gorroto delituen kudeaketa eta garapena arautzeko.

4. 2015/03/27an Arkauten egindako Parez Pare II. Jardunaldien barruan bizikidetza hobetzeko prestakuntza saio bat egin zen: "[Gorroto delituak eta bazterketa](#)" jardunaldia; bertan hainbat gai landu ziren, esaterako arauen testuingurua, horri ekiteko elementu giltzarriak, jokabide protokoloak eta hori kudeatzeko tresnak.

5. Halaber, 2015/04/23an Arkauten egindako Parez Pare II. Jardunaldien barruan bizikidetza hobetzeko prestakuntza saio bat egin zen, "[Giza Eskubideei zuzendutako poliziaren lanaren kontuak ematea](#)" izenburupean; bertan bi mahai inguru antolatu ziren: (1) Giza Eskubideei zuzendutako poliziaren lanaren kontuak ematea eta (2) **Kontuak emateko tresnak eta gardentasuna polizia erakundeetan eta agenteen artean.**

6. 2015/05/14an Arkauten egindako Parez Pare II. Jardunaldien barruan bizikidetza hobetzeko prestakuntza saio bat egin zen: "Bitartekaritza poliziala", eta 2015/05/28an bizikidetza hobetzeko beste saio bat egin zen: "Biktimak, biktimizazio prozesuak eta desbiktimizazioa".

7. 2014ko abendutik 2015eko ekainera arte Ertzaintzaren XXIV. promozioan, "Ertzaintza eta Giza Eskubideak" modulu zehatza txertatu da zeharka irakasgai guztietan.

8. 2015-10-16an bizikidetza hobetzeko prestakuntza saio bat antolatu zen, "Polizia eta Fiskaltza gorroto delituen aurrean", Arkaute Parez Pare 2015 II. Jardunaldien barruan.

7. ekimena. Sailen arteko bake eta elkarbizitzarako politika bat diseinatzea.

2.1.2 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, oraingo gizartea normalizatzeko

Arduraduna: *Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).*

Jarduketak

1. 2013-11-26an, Gobernu Kontseiluan [Bake eta Bizikidetzaren Plana 2013-16](#) onartu zen. Plana idazteko eta onartzeko prozesuak parte-hartze zabala izan du. Azken bertsioak talde parlamentario guztiek eta 24 gizarte entitatek egindako ekarpenak bildu ditu. Horrez gain, gobernuko sailek ere plana prestatzen parte hartu zuten, eta garapenean inplikaturik daude.

2. 2014-12-02an [Bake eta Bizikidetzaren Planaren Kontsulta Kontseilua eratzeko bilera](#) egin zen; kontseiluko kideek hiru azpibatzerde eratzeko erabaki zuten: Memoriaren Azpibatzerdea, Erakundeen arteko Azpibatzerdea, eta Hezkuntza ez formaleko eta Baliabideen Azpibatzerdea.

3. Halaber, 2014-12-18an Bake eta Bizikidetzaren Planaren 2013-16 Sailen arteko Batzerdea eratzeko bilera egin zen; batzerde hori Eusko Jaurlaritzaren sailen arteko kudeaketa dinamizatu eta koordinatzeaz arduratzen da, eta, halaber, Giza Eskubideen eta Biktimen Zuzendaritzarekin koordinaturik dago. Sei hilean behin planaren etengabeko jarraipena egingo da.

4. 2015-03-13an Sailen arteko Batzerdean [Hitzeman programarekin](#) lotutako jarduna garatzen duten presoak gizarteratzeko prozesuetan laguntza emateko lantaldea sortu zen.

5. 2015eko ekitaldian hainbat bilera egin ziren Bake eta Bizikidetzaren 2013-2016 Planaren Kontsulta Kontseiluaren barruan, plana garatzean gizartearen parte hartzea ahalbidetzeko betebeharren haritik eta arlo horretan erakundeen arteko koordinazioari dagokionez.

- 2015-02-11n Bake eta Bizikidetzaren Planaren Kontsulta Kontseiluaren bigarren bilera egin zen.
- 2015-04-16an Kontsulta Kontseiluaren Memoriaren Azpibatzerdearen lehen bilera egin zen.
- 2015-04-22an Erakundeen arteko koordinaziorako Azpibatzerdearen bilera egin zen.
- 2015-04-09an Hezkuntza ez formaleko eta Baliabideen Azpibatzerdearen bilera egin zen.
- 2015-06-10ean Kontsulta Kontseiluaren Memoriaren Azpibatzerdearen bilera egin zen.
- 2015-06-17an Hezkuntza ez formaleko eta Baliabideen Azpibatzerdearen bilera egin zen berriz ere.
- 2015-07-08an Erakundeen arteko Azpibatzerdearen bilera egin zen.

6. 2013-02-16an Bake eta Bizikidetzaren Planaren Kontsulta Kontseiluak beste bilera bat egin zuen.

1. ekimena. Udal eta aldundiekiko bizikidetzaren alde kontzertazioa.

2.1.3 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, etorkizunean adiskidetzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. Legegintzaldia hasi zenetik, lanean aritu gara hiru aldundiekin eta Eudelekin batera, [Bake eta Bizikidetzaren Planean 2013-2016](#) aurreikusitakoa betez, udalek bake eta bizikidetzaren inguruko politikak bultzatzeko lankidetzaren hitzarmenak prestatzen.
2. 2013-10-09an udalek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak diruz laguntzeko [deialdia](#) EHAAr argitaratu zen.
3. 2014-06-20an ekainaren 17ko [110/2014 Dekretua](#) EHAAr argitaratu zen, Elkarrekin Bonuak Programaren arautu zuena. Programa honen bidez, "bonu" izeneko ekarpen ekonomiko bat ematen zaie bake eta bizikidetzaren gaiekin lotutako irabazi asmorik gabeko elkarteei, hezkuntzaren, tokiko bizikidetzaren edo herritarren parte hartzearen arloetan prestakuntza edo dinamizazio zerbitzuetan jardundako eta justifikatutako ordu bakoitzeko. Zerbitzuen hartzaileak eskolak, udalak edo bestelako erakunde batzuk izan daitezke, gai zehatz hauetan, besteak beste: bakearen kultura, giza eskubideak, biktimizekiko elkartasuna, adiskidetzaren edo gatazken konponketa.
4. Elkarrekin Bonuak Programa, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan garatu zen; 2014-07-08an egin zuen bat programarekin, ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuko I. Eranskina sinatuz.
5. 2014-05-30ean bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan udalek garatzen dituzten programak eta ekimenak diruz laguntzeko 2014ko deialdia EHAAr argitaratu zen.
6. 2014-10-14an, 2014ko urriaren 7ko Ebazpena EHAAr argitaratu zen, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, herritarren parte hartzearen arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2015eko deialdia egin zuena. Deialdia 2015. urterako egin zen. [2015eko deialdia](#). 2015-07-07an EHAAr bizikidetzaren esparruko [Elkarrekin Bonuak Programa 2015](#) deialdiaren ebazpena argitaratu zen.
7. 2015-02-25ean bake, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan udalek garatutako ekimenak eta programak diruz laguntzeko [2015eko deialdia](#) argitaratu zen EHAAr, eta 2016ko martxoan 2016ko deialdia plazaratu zen.
8. 2016ko martxoan Elkarrekin Bonuak Programaren 2016. urterako deialdia ebatzi zen, udal eremuan.

2. ekimena. Ikastetxeekiko lankidetza.

2.1.3 helburua. Bake eta Bizikidetza Plana, etorkizunean adiskidetzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. 2013-10-01ean [Gizalegez akordioa](#) sinatu zen hezkuntza komunitatearekin; helburua gizarte normalizaziorako eta bizikidetzarako hezkuntza baldintzak sortzea da. Lau oinarri ditu bizikidetzarako hezkuntzari dagokionez.

2. 2013-11-11n “2013-2016 Bake eta Bizikidetza Planaren eta proiektuen oinarriak” dokumentuaren zirriborroa aurkeztu zen. Lehenik eta behin, dokumentua hezkuntza eragile guztiei aurkeztu zitzairen, eta, aldi berean, talde parlamentarioei entregatu zitzairen. Ondoren, prentsurrekoa egin zen, dokumentua aurkezteko. Dokumentuak proposamen izaera zeukan, eta ekarpenak jasotzeko ireki zen; jasotako ekarpenak, neurri handi batean, onartu egin ziren. Behin betiko dokumentua 2014an prestatu eta editatu zen.

3. Legegintzaldian zehar, Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta babesarekin, biktima hezitzaileek euren lekukotzaren berri ematen jarraitu dute. 2013-10-11n aurkeztu zen proiektu aitzindarietako bat [Adi-adian hezkuntza modulua](#) izan zen; biktima hezitzaileen aurreko programa eguneratu zuen.

4. 2014-06-17an [110/2014 Dekretua](#) onartu zen, Elkarrekin Bonuak Programa arautu zuena. Programa honen bidez, "bonu" izeneko ekarpen ekonomiko bat ematen zaie bake- eta bizikidetza-gaiekin lotutako irabazi-asmorik gabeko elkarteei, hezkuntzaren, tokiko bizikidetzaren edo herritarren parte-hartzearen arloetan prestakuntza- edo dinamizazio-zerbitzuetan jardundako eta justifikatutako ordu bakoitzeko. Zerbitzuen hartzaileak eskolak, udalak edo bestelako erakunde batzuk izan daitezke, gai zehatz hauetan, besteak beste: bakearen kultura, giza eskubideak, biktimekiko elkartasuna, adiskidetzeta edo gatazken konponketa.

5. 2014-06-27an Elkarrekin Bonuak Programaren [deialdiaren](#) ebazpena EHAAn argitaratu zen, hezkuntza arloan, 2014. urterako.

6. 2014-12-19an, 2014. urteari dagokion [Adi-adian hezkuntza modulua](#) balantzea prentsurrekoan aurkeztu zuten Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eta Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak. Halaber, jarduketaren ardatzak jaso zituen programaren garapen balantzea Eusko Legebiltzarrean entregatu zen.

7. 2015-04-07an [Elkarrekin Bonuak Programaren 2015. urterako deialdiaren ebazpena](#) EHAAn argitaratu zen, hezkuntza esparruan.

8. 2015-03-25ean bilera bat egin zen [Gizalegez akordioaren](#) sinatzaileekin, Elkarrekin eta Adi-adian programen garapenaren berri emateko eta haien ekarpenak jasotzeko.

9. 2016-02-26an bilera bat egin zen [Gizalegez akordioaren](#) sinatzaileekin, hezkuntza esparruan garatutako programen garapenaren berri emateko eta haien ekarpenak jasotzeko.

10. 2016ko martxoan Elkarrekin Bonuak Programaren 2015eko deialdia ebatzi zen, hezkuntza eremuan.

3. ekimena. Herritarren partaidetza sustatzea eta euskal elkarte sozialen sarearekiko lankidetzaren prozesuak bultzatzea.

2.1.3 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, etorkizunean adiskidetzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. Bake eta Bizikidetzaren Plana 2013-2016 onartzeko egindako parte hartze izaeradun prestatze prozesu baten testuinguruan zenbait bilera egin ziren euskal elkarten sareko zenbait elkarterekin.
2. 2013-10-09an [2013ko laguntzen deialdia](#) EHAAn argitaratu zen, bake, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan udalek garatzen dituzten programak eta ekimenak diruz laguntzera bideratutakoa, baita bake, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak egiten dituzten gizarte mugimendu eta erakundeak laguntzeko [2013ko deialdia](#) ere.
3. 2014-03-12an, herritarren parte hartzea sustatzeko testuinguruan, topaketa bat egin zen gizarte elkarrekin, Elkarrekin Bonuak Programari buruz informatzeko.
4. 2014-10-14an [2014ko urriaren 7ko Ebazpena](#) EHAAn argitaratu zen, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria; horren bitartez, Elkarrekin Bonuak Programaren deialdia egin zen, herritarrek parte hartzeko, 2014. urtean. 2015-04-07an deialdiaren ebazpena EHAAn argitaratu zen. Ondoren, 2015-04-24an gizarte elkarrekin bilera bat egin zen, [2015eko deialdiaren](#) ezaugarri nagusiak aurkeztu eta azaltzeko.
5. 2014-05-30ean [2014ko deialdia](#) EHAAn argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan erakundeek eta gizarte mugimenduek bakea, bizikidetzaren eta giza eskubideak sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko bideratutakoa, norgehiagoka araubidearen arabera.
6. 2015-04-13an EHAAn [Bakea, bizikidetzaren eta giza eskubideak sustatzeko proiektuak egiten dituzten erakunde eta gizarte mugimenduak laguntzeko deialdia, 2015. urterako](#) argitaratu da.
7. Herritarren parte hartzea sustatzeko asmoz, 2015-06-20an [Memoriaren Plaza proiektua](#) aurkeztu zen. Ekimena hori Lehendakariaren Gobernu Irekiaren Zuzendaritzarekin elkarlanean garatu da. 2015ean, [Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua](#) eratzea denboran kokatu zen. Herritarren aldetik memoriari buruzko testigantzak bildu nahi dituen memoria partekatu eta parte hartzailea eraikitzeko ekarpen gisa planteatzen da.
8. 2015eko bigarren seihilekoan zehar Memoriaren Plaza proiektua garatu da; 148 testigantza, 97 emozio eta 44 proposamen idatzi jaso dira.
9. 2015eko abenduan herritarren parte hartzeari buruzko azterlana jaso zen, Lokarri eskatutakoa; bertan, bere esperientziaren testigantza jaso da, baita nazioarteko beste esperientzia batzuk ere.

4. ekimena. Gazteriaren, kulturaren eta hezkuntza ez formalaren esparruetan berariazko ekintza ildo gehigarriak sustatzea.

2.1.3 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, etorkizunean adiskidetzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. 2014-06-06an Euskadiko Gazte Kontseiluaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko [lankidetzaren hitzarmena](#) sinatu zen, bake eta bizikidetzaren programak gazteriaren eta hezkuntza ez formalaren esparruetan garatzeko.
2. 2014ko irailtik abendura bake eta giza eskubideen arloan zenbait ikastaro egin ziren, eta [“Bake ibilbideak”](#) gazte topaketak egin ziren hiru hiriburuetan, gazteek haien etorkizunerako esperantzak partekatzen.
3. Halaber, [bake@hots online plataforma](#) komunitate birtual bat da, gazteen testigantzak jasotzen dituena, esperientziak partekatzen eta modu librean adierazteko, azken hamarkadetan Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu diren gauza guztiei dagokienez.

5. ekimena. Komunikabide publikoen gizarte sentsibilizazioa eta konpromisoa.

2.1.3 helburua. Bake eta Bizikidetzaren Plana, etorkizunean adiskidetzeko

Arduraduna: Jonan Fernández Erdozia (Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. 2014-10-31n Bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzeko edukiak hedatzeko Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta EITBren arteko lankidetzako esparru akordioa sinatu zen.
2. Indarkeriaren aurkako sentsibilizazio sozialaren prozesuaren testuinguruan, Reconciliación dokumentala estreinatu zen Zinexit ekimenaren barruan, Bilbon, 2014-10-13tik 16ra bitartean.
3. 2014-11-26an, indarkeriaren aurkako eta bizikidetzaren aldeko sentsibilizazio prozesuaren testuinguruan, El reencuentro dokumentala ETBn eskaini zen.
4. 2014ko abenduan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala gogoratzen denez eta 2014-12-10ean René Cassin 2014 sariak ematen direnez, sentsibilizazio kanpaina bat garatu zen.
5. 2014-12-10ean René Cassin 2014 sariak banatu zitzaizkien bake eta bizikidetzaren aldeko programetan parte hartu zuten 41 biktimari.
6. 2015-10-26tik 29ra Zinexit Elkarbizitzaranzko 6. Zine Erakusketa ospatu zen.
7. 2015eko abenduan: Sentsibilizazio kanpaina bat garatu zen, abenduaren 10ean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ospakizuna eta René Cassin 2015 Sariak banatzen zirela eta; edizio honetan Frankismo garaiko Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformari eman zaio.
8. 2015eko bigarren seihilekoan zehar azken 50 urteetako memoria kritikoari buruzko serie dokumental bat prestatu da; 2016ko lehen hiruhilekoan bukatzea espero da, eta EITBk eskainiko du.

1. ekimena. Mugaz gaindiko lankidetzak bultzatzea Iparralderekin.

3.1.1 helburua. Harremanak sendotzea Iparralderekin eta Nafarroarekin.

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. [Transfermuga](#) proiektua, AECT buru duela eta POCTEFA programak finantzatuta, mugaren bi aldeetarako garraio planteamenduaren aukera berriak aztertzen ari da.

2. 2014ko ekainetik, lankidetzak lanak bultzatu dira Euroeskualdearen Konferentziaren barruan, Pirinioz Gaindiko Konferentzia Atlantiko gisa ere deitzen dena. Foro hori 2007an sortu zen, eta Eusko Jaurlaritzaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Akitania Eskualdeko Kontseiluak, eta Pirinio Atlantikoen Kontseilu Orokorrek ere parte hartzen dute; horrez gain, behatzaile gisa Pirinio Atlantikoen Prefekturak eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak ere parte hartzen dute. Erakundeen eta entitate parte hartzaileen lankidetzak indartzean datza, ikuspuntu praktikoarekin, mugatik gertu bizi diren herritarrei eragiten dien arazo zehatzak konpontzera bideratuz, eta horretarako erakundeek elkarrekin jardutea beharrezkoa bada.

3. AECTren esparruan, [-Akitania-Euskadi Euroeskualdea](#), 2014. urtean Euroeskualdeko 17 proiektu finantzatu ziren, 300.000 euroko zenbateko globalean. Proiektu horietako asko, nagusiki kultura gaietara lotutakoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Iparralderen lankidetzari dagozkio. Besteak beste, mugaz gaindiko gazteen foro bat sortzea nabarmendu behar da, eurohirian oinarritutakoa, Eusko Ikaskuntzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan.

4. 2015ean mugaz gaindiko 17 lankidetzak proiektu finantzatu ziren, kultura arloari, hizkuntza aniztasunari, gazteriari eta kirolari dagozkionak, orotara 250.000 euroko zenbatekoan. Horrez gain, ekonomiaren, lehiakortasunaren eta berrikuntzaren arloan 4 proiektu finantzatu dira, ardoari, energiari, kulturari eta osasunari dagozkionak, orotara 200.000 euroko zenbatekoan.

5. 2015ean CAT edo Euroeskualdearen Konferentziak bere lanei eutsi die eta bost gaitan zentratzea erabaki zuen. Horien artean, hizkuntzari (euskara), enpleguari eta ingurumenari dagozkionak (Txingudi Badia) nabarmendu behar dira.

6. 2016-01-15ean Lehendakaria Pirinio Atlantikoen Kontseilu Orokorren presidentearekin eta Pays Basqueko Hautetsien Kontseiluko presidente ohiarekin bildu zen, CAT edo Euroeskualdearen Konferentzia barruan lankidetzak berraztertze eta horren jarduna bultzatzeko.

7. Pays Basque edo Iparralden bizitza politikoaren bilakaera ezagutzera emateko, zenbait topaketa egin dira agintari politiko ugariarekin, besteak beste, Pirinio Atlantikoen prefetordea, Baionako alkatea, Hautetsien Kontseiluko zuzendaria, Muguerreko alkatea, eta Sud Pays Basque aglomerazioko presidentea nabarmendu behar dira.

8. 2015eko martxoan Kanpo Ekintzako idazkari nagusiak Pirinio Atlantikoen prefetarekin batzartu zen, mugaz gaindiko harremanetan sakontzeko prozesuari buruz zuen iritzia jakiteko, baina Iparralde interkomunitatearean bilakaera iritziari buruz ere.

9. Behatzaile gisa, Conseil de Developpement du Pays Basque erakundearen hiru lan saiotan parte hartu da, Pays Basqueko Hautetsien Kontseilua aholkatzen duena.

10. Pirinioetako Lan Elkarrekin bilkura egin zenez, Lehendakariak bilera izan zuen 2015eko urrian Akitania Eskualdeko Kontseiluko presidentearekin eta Nafarroako Foru Erkidegoko presidentearekin (azken horrekin legegintzaldia hasi zenetik aritu da lankidetzan), Nafarroa AECT Akitania-Euskadi Euroeskualdera gehitzeko 2016. urtean bete beharreko izapideak ezagutzeko.

2. ekimena. Nafarroarekin harremanak estutzea.

3.1.1 helburua. Harremanak sendotzea Iparralderekin eta Nafarroarekin.

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. 2014-01-08an, Osakidetzak eta Nafarroako Osasun Zerbitzuak lankidetzarako hitzarmena sinatu zuten mugan dauden udalerrietan [osasun arreta emateko](#) (bost hiribilduren eremua).
2. 2014-01-17an Nafarroan EITBren seinalea digitalizatzeari konponbidea aurkitzeko lantaldearen lehen bilera izan zen Nafarroako Gobernuaren egoitzan. 2014-05-05ean lantaldearen beste bilera bat egin zen. Prozesua urrian bukatu zen; izan ere, EITBren seinale digitalizatua Iruñerriara gainerako telebista kateek bezalaxe iristen da, TDT bidez.
3. 2015-01-23an bi autonomia erkidegoetako Osasun sailburuek osasun arloko arreta eta [lankidetzak akordio berri bat](#) sinatu zuten.
4. 2014-06-25ean Segurtasun sailburuak eta Nafarroako Barne sailburuak, Javier Morrased, Ertzaintzaren eta Foru Poliziaren arteko koordinazioa hobetzeko protokoloa sinatu zuten.
5. 2015eko irailean, Nafarroako presidentek eta Lehendakariak bilera egin zuten Iruñean, bi erkidegoen arteko etengabeko erakunde lankidetzarako bideak sortzeko.
6. Pirinioetako Lan Elkarteen Osoko Bilkura zela eta, Lehendakariak bilera izan zuen, 2015eko urrian, Nafarroako Foru Komunitateko presidenterekin (legegintzaldia hasi zenetik lankidetzan ari ziren). Besteak beste, Nafarroa AECT Akitania-Euskadi Euroeskualdera atxikitzeko 2016. urtean zehar egin beharreko izapidetzeak aztertzea izan zen bileraren helburuetako bat.

1. ekimena. Lankidetza sareak eratzea eta bultzatzea.

3.1.2 helburua. Euskal Lurraldeen arteko elkartrukea bultzatzea.

Arduraduna: Marian Elorza Zubiria (Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia)

Jarduketak

1. Bihartean-ekin nahiz Baionako Merkataritza Ganberarekin harreman emankorra existitzen da. Legegintzaldia hasi zenetik, bilerak izan dira ganberako zuzendari nagusiarekin eta presidentearekin, harremanak indartzeko.

2. [Biharteanekin](#) harreman emankorrak existitzen dira; babesaren ematen zaio mugaz gaindiko sare sozio-ekonomikoa indartzeko hainbat ekimenetan. 2014. urtean zehar interclustering proiektuari ekin zaio; mugaren alde batean eta bestean klusterrak aztertuz lankidetza arlo nagusiak identifikatzea du helburu.

3. 2014ko abendutik Iparraldeko Garapen Kontseiluaren bilera eta bilkuretan behatzaile gisa parte hartu da; kontseilua Iparraldeko Hautetsien Kontseiluko kontsulta organo bat da, eta Iparraldeko eragile sozio-ekonomiko nagusiak biltzen dira bertan.

4. Frantziako Errepublikan 2014an egin ziren toki mailako hauteskundearen ondoren, hainbat bilera egin dira Iparraldeko eta aglomerazio elkargoetako arduradun eta alkateekin. Bi gai bereziki deigarriak dira; Abiadura Handiko Trena ezartzea eta barne eskualdetasuna sortzeko aukera, hain zuzen ere Iparraldean eskumen zehatzak eta finantzaketa izango dituen lehenengo erakunde publiko komuna finkatuko duena.

5. Baionako Merkataritza Ganberako arduradunekin aldizkako topaketak izan dira, baita Iparraldeko udal arduradun eta alkateekin ere. Bidenabar, Iparraldeko Garapen Kontseiluan parte hartzeari eutsi zaio. Lankidetza sareetan tinko lan egiteari eutsi zaio osasun arloan (Cronigune proiektua), nekazaritzan (mihi urdinari eta hegazti gripearri dagozkion gaiak; ardoaren arloko lankidetza, AECT Akitani-Euskadik Gustoko azokan parte hartzea), unibertsitateetan (Eurocampus proiektua), kulturaren (Etxepare Institutuen eta EKE lankidetzaren finantzaketa), eta lanbide heziketan (horri buruzko akordioa izango da, laster, sailaren eta Akitaniako Eskualde Kontseiluaren artean). Halaber, SNCF (Gare et Connections) eta Euskotrenen arteko harremanean sakondu da, Hendaia-ko tren geltokia berritzearen ondorioz.

1. ekimena. Euskal autogobernuaren etorkizunari buruzko txostena prestatzea.

3.2.1 helburua. Estatus politiko berria Euskadirentzat.

Arduraduna: Jesús Peña Martínez (Lehendakaritzako idazkari nagusia).

Jarduketak

1. Politika Orokorrari buruzko 2013-09-19ko eztabaidan, Lehendakariak estatus politiko berri bat prestatzeko autogobernuari buruzko ponentzia martxan jartzea planteatu zuen.

2. 2014-02-20ko Bilkuran, Eusko Legebiltzarrak [autogobernuari buruzko txosten bat](#) egitea onartu zuen, talde parlamentario guztien parte hartzearekin.

3. 2015eko maiatza bitartean, lehenengo fasean, honako hauek egin dute agerraldia autogobernuaren ponentzian: Xabier Ezeizabarrena (2014-05-28); Manuel Montero (2014-05-28); Javier Maroto (2014-06-11); Koldo Saratxaga (2014-06-11); Alfredo Marco Tabar (2014-06-25); Antonio López Basaguren (2014-06-25); Javier Tajadura Tejada (2014-09-17); Joseba Arregui Aranburu (2014-09-17); Francisco Rubio Llorente (2014-10-01); Luis Castells Arteche (2014-10-29); José Ramón Recalde (2014-10-29); Fernando Savater (2014-11-12); José Antonio Ardanza (2014-11-12); Daniel Turp (2014-11-12); Francesc de Carreras Serra (2014-11-26); Montserrat Guibernau i Berdún (2014-11-26); Patxi Lopez (2014-12-10); Anna Simó i Castelló (2014-12-10); Ramón Rabanera (2015-01-28); Iñigo Méndez de Vigo (2015-01-28); José Vicente Rodríguez (2015-02-11); Iñigo Urrutia Libarona (2015-02-11); Ramón Jauregui (2015-02-25); Jose Antonio Herce (2015-02-25); Javier de Andrés (2015-04-01); Juan José Ibarretxe (2015-04-15); Jon Imanol Azua (2015-05-27). Lehen fase hori 2016-01-13an bukatu zen; egun horretan, alderdi politikoen hainbat proposamen aurkeztu zituzten Euskal Autonomia Erkidegoko autogobernua areagotzeko.

4. Proposamenak aztertzeko bigarren fasea 2016-02-03an hasi zen, orduan bildu baitzen autogobernuaren ponentzia.

5. 2016-04-20an euskal autogobernuari eta esperientzia erkatuei buruzko nazioarteko lan jardunaldi bat egin zen. Jardunaldi horretan Juanjo Alvarez irakasleak egingo ditu zuzendaritza-lanak; ekimena gobernuaren programan hartutako konpromisoen parte da. Jardunaldiak bi atal izango ditu: Goizeko saioan autogobernuari buruzko Europako zenbait esperientzia alderatu aztertu ziren, baita eskualdeek eta nazioek gobernu zentralarekin dituzten hainbat esparru ere. Ildo horretan, Eskozia-Britainia Handia, Flandria-Belgika, Bavaria eta Suitza kasuak aurkeztu zituzten eskualde edo herrialde horietako adituek. Bestalde, Europar Batasunak horretaz duen iritzia ere jaso zen. Jardunaldien bigarren zatian “Euskal autogobernuaren etorkizuna” aztertu zen euskal alderdi politikoen.